

# BASAMORTUKO SEMEA



Zubiri'tar Iñaki  
(Euskerazaintzakoa)

# BASAMORTUKO SEMEA

**“Euskerazaleak”  
Alkarteak argitaratua**

**Zubiri'tar Iñaki  
(Euskerazaintzakoa)**

ELEBARRI IRAKURGARRIA .....	5
URIAN ARMENITARRA .....	9
MASADA'KO UME ITSUA .....	21
NABATETARREN ARTEAN .....	31
SUSTRAIEN BILLA .....	51
ARROTZAREN AURKA .....	63
ILTZAILLEAREN AURKA .....	85
MILEA GALTZORIAN .....	95
NORABARIK .....	103
IKUSKIZUN ZIRRARAGARRIA .....	113
IGESA .....	127
BELAKIEN ARRAINTZA .....	137
EZBEARRA .....	145
ONDAPEN ETA GARAIPENA .....	151
ITSAS-LAPURRAK .....	157
PUBLIO MARZIUS .....	169
LARRIALDIA .....	181
ERROMA'RA .....	195
AUZIA TA ZIGORRA .....	207
MEAZTEGIAN .....	213
ERROMA'N .....	229
AUZKARIEN ESKOLAN .....	237
EGURREZKO EZPATEA .....	247
ERROMA'N ASKE .....	257
ARGI-ITZALEN ARTEAN .....	263
SOINGAIÑEKO ODOLDUA .....	269
AGINDUTAKO BIDALDIA .....	277
ZATOKIT, YOSU...! .....	283
IDAZTOSTEA .....	291

“Basamortuko Semea” dogu aurtan Zubiri'tar Iñaki'k argitaratu dauskun elebarriaren idazpurua.

Iñaki Zubiri'k urtero eskintzen dausku elebarri bat eta urterik urtera bere elebarrigintza ohea dala esan geinke, uts egiteko bildur barik. Oraingo onetan eskuratu dauskun au beintzat benetan ederra ta irakurgarria.

• • •

### **Mota**

Elebarri bat eskuratzen dogunean, beti egiten dogu galdera au: Zein da elebarri orren mota? Eta ondo egiña da itauna, irakurle bakoitxak bere gurariak dauzalako eta arlo bateko edo batzutako elabarriak aukeratzen dauzala. Ori, jakiña, norberaren bizitzako balioak nondik nora doazen jakinda araubideko gauzea da.

Zein da ba, “Basamortuko Semea” deritxon elebarri onen mota?

Naiz gauza errez izan ez beti, elebarria mota bakar baten barruan sartzea, Zubiri'ren elebarria nik kondaira-saillean sartuko neuke. Kondairazko jakingarriak eskuratuta daukazanak, elebarrian azpian onako oneik aurkituko dauz: Erromatarren giroa, izen ezagunak sarritan agertzen dirala, Juda'tarren mundua erri jazartu onen zertzeladak eta alderdia gogoratzen dirala, Kristo'ren eta bere lenengo jarraitzaileen aldia, norki oso ezagunak agertzen dirala.

Baiña elebarrien beste sail batzuk be ikututen dira. Esaterako jazokizunen elebarria izan daiteke, “abentura” asko ta gogoangarriak gogoratzen dauzalako, edo elebarri katolikua be bai, eta izen lagun au ondo dagokio liburuari, beronen giroa oso gogoangarria dalako arlo onetan: Kristo'ren bizitza ta eleizearen sorkundea kanpoko alderditik ikusita agertzen dira eta gaiñera elebarriak ondo zaintzen dauzan balioak beti dira katolikuen girokoak.

### **Norkiak**

Norki nagusia bat bakarra da, ondo zeaztua, billaketa-arloan eredugarria, nortasun aundikoa eta zentzunduna.

Bere inguruan norki asko eta ondo zeaztuak agertzen dira, batzutan talde osoak,

I.S.B.N.:84-88464-04-5

Depósito Legal: BI-1822-95

Fotocomposición e Impresión:  
FLASH Composition, S.L.  
Alameda Rekalde, 6  
48009 BILBAO

esenitarrak esaterako edo nabatetarrak. Jakingarria da taldeen jokabidea elebarri onetan zelan agertzen dan. Arraunlarien bizitza edo erromako meaztegieta lanean diarduenena ederto agertzen dira.

Baiña taldeen zeazketak alde batera itzita, irakurleak gitxienez irurogei ta amar bat notin aurkituko dauz ondo zeaztuta. Noizean bein norkien agiriko zeazketa edo "prosopografia" edo euren barruko zeazketa edo "etografia" ederrak aurkituko dauz, baiña geienetan, norkien izakerea euren ekintzen bidez agertzen da.

### **Tokia**

Toki zabala artu dau idazleak elebarriaren ekiñaldiak edesteko: Asi Lur-arte itxasoko Kreta ugartearen inguruan eta Jeriko inguruetao basamortura arte, asi Ejipto-inguruan eta Felizia'ra arte. Eta toki onetan ibillaldi luzeak eta astitsuak egiten dira, Erroma'n bertan be jazokizunik ederrenak edesten dirala.

Norki nagusia oso ibiltaria da eta orretarako tokiak be zabala bear.

Geienetan norkiak izan diran antzera, tokiak be ezagunak dira baiña ikuspegi bari batetik begiratuak. Ortik dator irakurlea ez azpertzeko bidea.

Eta tokiak bat bein baiño geiagotan ikertzen dauan ezkerok, aria errez jarraitzen da.

Lengo tokietara biurtzen dan antzera, len alkar ezagutu eben norkiak be sarritan barriro alkartzten dira.

### **Aldia**

Elebarriaren aldiak ba-ditu bere goraberek, noizean bein len igarotako jazokizunak gogoratzen dauzala, baiña geienetan aldia lerro zuzenean doa eta irurogei ta amar bat urte artzen dauz: Kristo jaio zan urtean asi eta 70n.urtera arte.

Geienetan idazleak ez dau ardura larregirik artzen aldia zeatz esateko. Bear be ez da izaten. Baiña batzutan urterik urtera eta egunerik egunera, egun-edesti edo "kronika" antzera agertzen da aldia.

Ez dago irakurleak aria galtzeko arriskurik, aldiaren joan-etorriak oso errez eskuratzen diralako.

Gogoratu aldi zeatza Neron il zan urtean asi eta Jerusalem austua izan zan urtera artekoa. Eta or bertan labur eta argi esanda, Juda'tarrak Alemania'n 1940-1945 urteetan izan eben jazarpina.

### **Edeslaria ta aria**

Edeslaria idazlea bera eta berak asmatzen dauz jazokizun ugari ta arrigarriak.

Alkar-izketan naikoa ugari dauz elebarriak eta olakoetan iztun bakoitxak bere lekua artzen dau.

Aria ederto eroana da, noizean bein kondairak eskatzen dauzan atzerakuntzak egiten dirala.

Aria ondo eroana dalako, irakurlea ez da iñoz azpertzten irakurten. Jazokizun bat irakurten dauanean urrengoa irakurteko egarriagaz geratzen da. Eta ori idazlearen el-

buruagaz ondo alkartzten da. Izan be, Iñaki Zubiri'ren elburua, euskeraz irakurteko egarria sortzea da. Beste elburuak onen ondorengoak izan daitezke: Jakintza zabaltzea, oitura onak indartzea, siñismena argitzea ta abar.

Irakurle, artu liburu eta irakurri. Ez jatzu damutuko.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

“Trasimenus” erromatar guda-ontzia, itsaso barean zear sortalderantz abiatzen zan. Suzmur leunaz brankan ler egiten eben ugin otzanek lagunduta, arraunen eragiñez itsas-gaiña zearkatzen eban. Sizilia'ko Sirakusa'tik urtenda, Ejeo itsasorantz bideratzen zan, Erroma'ko etsaiak ziran itsas-lapurren aurka jardutearren. Erroma'k gai asko bear izaten ebazan bere lur zabaletan nagusitza iraunerazoteko, baiña Asia Txiki'ko itsasaldeko txoko ezkutuetan, eta Ejeo itsasoa zipriztintzen eben zenbatueziñeko ugarteetan, itsas-lapurrek aukerako ezkutuneak ebezan erromatar ontziaz ezustean erasoteko.

Edesti onen asieran, Erroma'ko kaiserra Augusto entzutetsua zan, eta lege-batzarrak eraginda, nonai aginte zorrotzak bialdu ebazan zelan edo alan lege-aurkakoak ezeztzeko, izurri jasangatxa ziran-eta. Asia Txiki, Grezia, eta Ejito'tik jangaiakaz zamaturiko ontziak erasoak izaten ziran, gabeko illuntasuna ustiatuz, batez be.

Silas Marzius'ek “Trasimenus” ontziko nagusiak, andik astebete batera-edo Kreta'ko Lasea portura elduko litzakela uste izaten eban, eta portu onetatik, baita Txipre'ko Pafos'etik be, itsas-lapurren aurkako ekitaldia asiko leuke. Txopa-aldetik eguzki gorrizka laster ostenduko litzake, eta iru jopuk mairatzen ebezan jan-edari bikañai ekiteko zorian zan. Alako baten, jopu bateri aginkor,

– Aizu Pionio –esan eutsan–, esaiozu lemazaiñari etorteko.

Andik laster, berrogei bat urteko gizon baltzaran eta garaia agertu zan, eta,

– Silas Marzius Jauna –begirunez esan eutsan–, zer nai dozu...?

– Badira iru egun Sirakusa'tik urten gareala, eta aalik lasterren Kreta'ra eldu nai izango neuke, ango “Pretor” ikertzeko. Zure ustez noiz elduko gara...?

– Jauna, egunokaz aize gitxi izan dogu, eta olan jarraitzekotan, astebete baten bu-ruan gitxi gora-beera elduko gara.

– Epe luzea da ori. Begira egizu ariñago joan gaitezen.

“Trasimenus” ontzian saiets bakotxean ogei ta sei arraunlarik ziarduen, au da, berrogei ta amabi guztiz. Lemazaiña jan-gelatik urten zanean, “komitre” edo arraun-bu-ruagana joan zan. Onek, esku baten bederatzi buztaneko zigorra erabillen, eta txistu bat ezpanen artean, arraunketearen aldi-neurria txistuka agintzen eban, batetik bestera joiala arraunlarien bizkar billutsak joteko, oneitariko baten bateri lazotasun-aztarnak igarten ba'yakozan.

“Komitre” agana joanda, lemazaiñak,

– Aizu, Korfes –esan eutsan–, zelako neurria joten dozu orain...?

– Ogei ta lau arraunkada miñutuan. Illuntzen asten danez, laster eten egingo dau tsago arraunketeari, eta aparía artuta, lo-aldiari emongo dautsoe arraunlari madarika-tuok. Izan be, gaur aizerik agertu ez danez, lan gogor egin dabe arraunlari dengani-ñuok. Ia biar aizea agertzen dan, ariñago joan gaitezán.

– Gaur ez dabe lo-aldirik izango ba. Nagusia arrenkurak artuta dago oso astiro gozelako. Gaur gabeán, beraz, arraunketeak ez dau etenik egingo. Augaitik ba, apa-lostean arraun egiteari jarraituko dautsoe gau osoan zear. Ogei ta bi arraunkadak miñu-tuan aginduko dozuz, eta ori egiteko gai izan daitezén, ordu biro arraunketeán aldizka-tuko dira, aurreko erdiak atzeko bestaldekoekin batera egiñez etabar. Entzun...?

– Bai, Jauna.

Au esanda, arraunlari-buruak txistu luzea jo, eta ekintzea amaitutzat emonda, ne-katuriko zoribakoek, arraunen endaiak goratuz, atsedén artzeko egokitu ziran.

Une aretan, Silas Marzius'ek aparí gozoari ekiten eutsan, Erroma'ko bere etxe ero-soan bizi ziran emazte liraiña ta lau seme-alabak gogora ekarrezala. Silas, erromatar Patrizio edo aitorsemea zan, eta entzute andiko itsastar izanez gaiñera, oso aberatsa zan, eta gudan izandako arrakasten ordaintzat, egunen bat Lege-Batzarrean aulki bat emongo litzakio. Emazte ta seme-alabak biziro maite ebazan, eta urruntasunak eragin-da, czin egikeazan gogotik kendu. Aparía amaitu ebanean, jatokitik urten, eta ontziko bizkarreko eskudelan besoak kokatuta, osertzeán gora jagiten zan iretargi gorrizkea une batez begiztatu eban, eta aurpegi atsegíña irribarre batatz pizten yakola, bere go-goak emazte ta semealabakana egan egin eban.

Doi-doi Silas'en azpian, atsanka ta neke utsaz burumakur, arraunlari batek bere buruari iñotsan noiz arte iraungo leuken bizirik. Izan be, une aretan eriotza mezedetzat artzen eban, orduko neke, gose, egarri, eta “Komitre” basatiaren zigorraldietatik jare egingo leuken azken aringarriak. Bazan urtebete bat ontziari kateatuta egoala, inpernu aretatik urteteko itxaropen barik.

Zilizia'ko Seleuzia portutik asi zan dana, Atenas'era joateko asmoz siritar ontzi txiki baten itsasoratu zanean. Urian armenitarra, andiki baten semea zan, eta aita jakintsuagandik eziketa bikaiña artu eban, aldi areitan ezagutzen ziran jakintzaren adar guztietan jakitun ipinten ebalá. Olan ba, izarrizti, zenbakizti, kimi, pisi, eta edertiari buruz ikasi zeitekeana aitak irakatsi eutsan. Jakintzaren gaillurrera eldu zanean, ogei ta amar urteko izanik, elertiaren lillurak erakarríta Atenas'era joatea erabagi eban. Ganbe-lu batatz, eta aitak emoniko diruaz, Zilizia'ra joan, eta Seleuzia portuan Atenas'erako ontzi bat idororik, andik iru egunetara Grezia'ko uribururantz abiatu zan.

Arin joian ontzia Ejeo itsasoan zear masta bien oialek eraginda. Kreta'tik ur samar, baiña, ugarte baten atzetik erromatar gudalontzi batek ikusi ta jazartua iza zan. Persitar ontziak igesari emon nai izan eban, baiña “Trasimenu” izeneko gudalontzi bi-kaiña arin baten etorri, eta luzaro barik alboratuta, buruzagi batek jende guztia erromatar ontzira igo-erazo eban.

Aldi areitan, Zilizia'ko lurraldea erromatarren jabetza izan arren be, “Trasime-nus”en nagusiak ontzitzuaren zamea arakatu eban, eta au ondo legezkatua ez izanik,

atxillo guztiak banan-banan aztertu ebazan guztitariko itaunak egitsezala. Urian'en txandea etorri zanean,

– Nor zara, eta nora zoaz...? –galdetu eutsan Silas'ek.

– Urian izeneko armenitarra naz, eta Atenas'era noa ango edetasunak ezagutzeá-ren.

– Ez al-dakizu Armenia laguntzat ez dogunik...?

– Ez dakit ori, baiña ziur-ziur dakidana auxe da: ez dogula Erroma'ren aurka iñongo burrukarik egin azken aldiotan, eta beste erriak lez bakean bizi izateko eskubi-de dogula.

– Armenitarren aurka ez dot ezer, baiña persitar ontzi orrek ez ditu bearreko itsas-agiriak. Au dala-ta, eta aurrerantzeán jarraibide izan daiten, ontzi orren zameaz jabetu-ko naz, eta kaiser Augusto'ren adiskideak ez diran lurraldeko uritarrak, jopu egingo dodaz ontzi onen eta Erroma'ren zerbitzurako.

Alperrik billakatu ziran Urian'en osterak, baita beste amar bat lagunetak be. Atxi-llo egindako ontziaren gaiak ustu ziranéan, oialak betean zabaldua, asiritarrek alde egin eben guztitariko aien eta madarikaziñoen arteán.

Urian eta beste atxilloak “Trasimenu”en satora aldatuak izan ziran, eta leku illun eta sundatsu aretan erromatar jopu biurtuta, euren nekaldia asi zan. Laster ikasi eban armenitarrak, gudalontzi aren txilistak eta ogia ez leukezala duan jango. “Trasime-nus”en albo banatan ogei ta sei arraunlarik ziarduen, 52 osotuz. Oneitarikoren baten bat aultasunak jota zanean, beste batek ordeztua zan, eta satora eroanda, antxe lagaten eben berez osatu ala gatxak beste mundura croan egian arte. Izan be, Korfes “Komi-tre”ren erabilte ankerrak geienetan bigarren aukerea eskintzen eutsen arraunlari zoriba-koai. Dalako Korfes kapadozitarra, anker eta biozbakoa guztiz egokia zan bere jardunerako. Arraunlariren bat begitan artzen ba'eban, bereak eta bost jasango ebazan il au-rretik. Ildako arraun-jopuak zorro batera arri batzugin sartu, eta beste barik itsasora. Arraunlari asko goizeko arraunaldia asteko orduan, illik agertzen ziran loak artuta bai-litzazan.

Gora-beera guzti oneik laster ikasiko ebazan Urian'ek. Iru bat egun sotoan ziraua-la, Korfes'en laguntzaille batek jarraitu egion agindu eutsan. Ontziaren bizkarpeán alde bietara arraunlarien tostak edatzen ziran. Tosta-arteko bitartea 1,25 metrokoa zan, eta jarleku bakotxa 1,50 metro luze zan. Saiets baten txinga bat egoan, eta onetatik kate batek arraunlarien txorkatillea lotzen eban. Lotura au, Korfes'ek berak aldean eroian giltz batatz askatzen zan. Itsasora begiratzen eban aldean, tolet batatz ornitutako leiatilla bat egoan arrauna igaro zeiten, eta bestaldea edegirik, “Komitre”k arraunketea ikusi, eta bederatzi buztaneko zigorra bere aukeran erabilli egian.

Korfes'ek berak utsik egoan tosta batera Urian'eri lagundu eutsan lenengo egun aretan, eta kateaz orkatillea lotu ondoren,

– Aizu, armenitar milika orrek –zakar esan eutsan–, emen gizon izatea ikasiko do-zu, bestelan ez zara luzarorako izango. Ken egizu darabiltzun arkondara apain ori nire

zigorrak laztandu zagizan nik oi dodan lez. Janaria ta ura egunean birritan bananduko yatzuz; lenengoa goizeko zortziretan, eta arratsaldeko lauretan bigarrena. Arraun egin bitartean, galazota dozue lagunekin berba egitea, eta atsendaldietan isilka egingo dozue.

Isildu zan arraun-burua une batez, eta gero soruan zetzazan erratillu, edontzi, eta lapikoaren antzeko beste ontzi bat erakutsirik,

– Erratillu orretan –jarraitu eban–, janariak bananduko yatzuz, eta edontzian ura. Lapikoaren itxurako bustiñontzi ori, gorputzekoak egiteko, eta bai ontziok, bai sorua, itasoko uraz garbi-garbi agertuko dira beti, bestelan bizkarra berotuko dausut. Lagunen indarrak ustiatuz indar guztiaz aalegintzen zarealakoia egiten ba'dozu, nire bederatziz buztanekoaz berotuko zaitut, olako amarrurik ez dot onartzen-eta.

Ordutik asi zan Urian'en nekaldia. Arraunlariak tostan jesarrita ta kateatuta irauten eben beti. Gabean, geienetan, arraunak jasota, onen esku-lekuan besoak kokatu, eta burua besagaiñean, lo egiten eben. Urrengo goizean irrikan aztertzen eben eguraldia, aizetsua zan ala ez egiztatzeko. Aizeak putz egiten ebanean, oialak zabalduta, itsas-txoriaren antzera “Trasimenus”ek bere bidea ildokatzan eban txairo ta ariña. Aizea, baiña, bare zanean, arraun-eragiñez aurrera egin bear espetxe estu ta izugarrian eta orduak igaro-ala eguzkiak beroturiko kaiola itogarri aretan, izerdi basatan ekin eta ekin. Ereti areitan, arraunkadaren neurria ogei ta bi miñutuan agindu oi eban “komitre”ren txistuak. Geienetan arraunaldia zortzi ordukoa zan, eta epe au igarorik, jopuen erdiak atsedan artzen eban beste erdiak ordeztuta. Aldizkatze-bear au nai-ta-naiezkoa zan, abereek be atsendaldia bear dabe-ta, bestelan arraunketeak pot egingo leukean.

Giro izugarri aretan, arraunlariren batek “komitre”ren zigorkadak bizkarrean artzean, bederatziz buztanekoak eragindako marra odolduetara euli urrupatzaillak eunka kokatzen yakozan, azkura jasan-eziña sortuz, eta atzeko arraun-laguna areik uxatzen saiatu arren be, koko tematsuek barrero be erasoari ekiten eutsoen multzoka. Arraunaldiaren atsedanak, edo sortutako aizeak soillik azken baten arintzen eben arraunlari-jopuen nekaldia. Orduan, itsasoko ur kresala ontzietan artuta, alkarri urtaten eutsoen. Ez zan arritzekoa, beraz, aize-barealdiari, izurriteari baiño bildur geiago izan egioen zoribako areik.

Egunean otordu bi izaten ebezan; bata goizaldean, eta bestea illuntzean. Ano bakotxa burduntzali bete bi baba zan, orio apur bat edo urdai-zati batekin lagunduta. Izan be, bupera zanak ez eban beste biderik, janari zakarrari artaratu ala il. Zorionez, Urian ez zan milika, eta soin-iñarkunak eraginda ano biok gogoz jan oi ebazan, erratillua marruskatu arte. Arraunketeak bere soiña indartu izan eban, eta indarraldi bakotxean bular-besoek giar sendoak iragarten ebezan. Il ala biziko burruka aretatik, ordurarte onik urten izan zan lenengo urteurrena bete zanean, eta orain bere itxaropen bakarra zelan edo alan joputasun aretatik urtetea zan, etenbarik burua urratzen ebala urtenbide baten billa. Zailla zan, baiña, nekaldi aretatik jareitzea, eta urtebetea igarorik, itxaropena galtzen asi zan, eta onekin batean bizi izateko jorana ostendurik, sarri askotan bere buruari iñotsan, iltea oba izango ez etc...

Gau aretan berantesia, Silas'ek arraunketeari jarraitzea agindu ebanean, zigorkada bizitan Korfes'ek arraulariai gertuteko agindu eutsen, eta andik laster, txistu luze baten bidez jardunaren astapena agindu eban. Urian iñoizkorik suminduen aurkitzen zan, eta areago “komitre” basatiak jotako bederatziz buztanetako zartada izugarria zala-ta, bizkarrari odola eriola oartu zanean. Ortzak estutu, eta arraunketeari emon eutsan begiak itxita ebazala. Edegi zituanean, leiatillan zear illargi beteak sorua argitzen eban, eta alako baten, leiatillak marrazturiko argi-unean zeozer zirkin egiten ebala oartu zan. Arratoi andi bat oi lez gaba asten zanean janari-billa sotoko sakonetatik urtenda, or-emenka ebillen. Oneitariko marrazkariakaz betea zan ontzia, eta egun-argia ostentzen zanean, ontzian zear sakabanatzen ziran, edozein ondakiñaren billa. Andiak ziran ontziko marrazkariok, baiña arratoi a baizen andirik ez eban egundo be ikusi Urian'ek.

Alako baten, soruan urdazpi-azal bat ikusirik, usnatzen asi yakon... Tximistaren arintasunaz burutapen bat etorri yakon armenitarrari, eta ostikada batez arratoia uxaturik, arraunketearen neurria galdu barik, esku bat az jaso eban urdai-puxka, eta jarraian kateari eutsitako txingaren ingurunea aalik ondoen urdaiztu eban. Onen ostean jazokoaren begira geratu zan, eta izan be, berak asmatua lez billakatu zan. Or-emenka bazterrak arakatzen eta uzian ziarduan arratoiak, luzaro barik urdaiaren usaiñak erakarrita, txinga-ingurukoa marrazkatzen asi zan. Une luze batez jardun ostean, gantzukia amaituta, urrean, arratoiak lana amaitutzat jo eban, eta beste iñora janari-billa ostendu zan. Urian'ek atzamar bat az txinga-ingurunea aztatu eban, eta pozezko oi u bat nekez menperatuta, txingaren untze-ondoko zura zulatzen asia zala egiztatu eban...

Urrengo goizean nasaitasuneko oarpenaz egiztatu eban Urian'ek aizeak putz egiten ebala, eta beraz, arraunketarik ez. Laster edatu ziran ontziaren oialak, eta onen ostean, “Komitre”ren menpekoek, eguneko lenengo janari-banatzeari emon eutsoen, ontzia itasoan zear Kreta ugarterantz abiatzen zala. Erratilluaren baba-saldearen gaiñean ugerika urdai-zati bat ikusi eban, eta alde batera saiestua, enparaua jan ondoren, une batez itxaron eban; gero, bestela-baitakoan txingaren untze-ingurukoa urdaiztu eban. Egunaren bidean ekintza au zenbait aldiz barriztu eban, untze-inguruko zura aalik eta urdaiztuen billakatu zeiten. Eguneko enparaua erdi-lo erdi-atzarri emon eban, aurreguneko nekea arindu ekion. Noizbait gautu zan, eta iretargia eskoi-aldetik jagiten asi zanean, aize-putz gozopean “Trasimenus”ek Kreta'rako bitartea txipristin kresaltsuen artean etenbarik laburtzen eban, eta biotza taupada bizitan ebilkola, Urian jazoko zana-ren begira egoan.

Laster aditu eban ezkerretik etorkion karraskaren otsa, eta aurreguneko arratoia ikusi eban urdaizturiko zurari ekiten eutsala. Gabaren isillean karrask-otsa argi ta ozen aditzen zan. Aurreko tostan jesarrita egoan nubitar arraunlariak, auxe esan eutsan:

– Aizu, armenitar denganiño orrek, ez al-dagikezu arratoitzar madarikatu ori beste



iñora uxatu...? Lo-gurak erreta nago, eta karrask-ots orrek ez daust begiak batzea lagaten.

– Ez orixe...! Niretzat egundo ez entzuniko eresirik ederrena da-ta.

Orduan nubitarrek, erratillua arturik arratoia jo nai eban, baiña besoari oratuta, Urian'ek,

– Geldi or, lagun –oiu egin eutsan–, nire kutuna da, eta uxatzen ba'dozu, besoa autsi egingo dausut.

Eta au esanik, besoa biurrikatu eutsan, miñaren-miñez oiuka asi arte. Jaregin ebanean, erremuskada batez nubitarrek lo-egiteari jarraitu eutsan.

Izan be, Urian'entzat ezin karraskada a baiña eresi gozoagorik. Noizbait, ordbete bi igarorik, zura-arteko gantzua amaituta-edo, arratoiak alde egin eban, eta pozez gainezka egiztatu aal izan eban Urian'ek txinga-inguruko zati bat agirian egoala. Gero, besoak arraunean kokatuta, lo atsendengarriari emon eutsan.

Urrengo eguneko eguberdian, Kreta'ko “Portu Onetako” kaian aingurea jaurti eban “Trasimenu”ek. Ordu batzuk portu onetan emonda, gau aretan ekialderantz jarraitu eben. Barrero be arratoia Urian'ek urdaiztutako lekura biurtu zan, eta oiko marrazkatzeari emon eutsan. Gauero ekintza au barritzen zan, untze-inguruko zabalunea nabariki anditzen zala. Bere buruari itauntzen eutsan Urian'ek noiz askatuko litzaken txingako untzea, baiña oso luze izan arren be, luzaro barik askatuko zan. Egun bitan aizea baretu zan, eta arraun-eragiñez jarraitu bear izan eben, aize-indarrez barrero be jarraitzeko gai izan aurretik. Irugarren gaban, arratoiak bere jarduna amaitu ondoren, untzea askatzen asten zala, pozez ler egiteko zorian egiztatu eban Urian'ek.

Iluntze baten, ontziak aize-oialak jatsi, eta aizeak putz egin arren be, “komitre”k eta laguntzailleek arraunketeari jarraitzeko agindu eben. Portu batera sartzeko zorian zirala somatu eban Urian'ek, kairatzea arraun-eragiñez aize-oialen bidez baiña askozaz errazagoa zan-eta. Zuzen egoan armenitarra, eta gautu zaneko, ontzia kairatuta billakatu zan. Leiatillan zear, motel islaturik uri baten etxeak ikusi zeitekezan. Zein portu izango ete...? Au oso garrantzitsua zan berarentzat onik urteteko, baiña entzumena zorroztu arren be, ezin egikean portu aren izena aditu. Gogoeta sakon bateri emon bitartean, itxarotea erabagi eban. Noizbait, ontzi-gaiñeko zirkiñak eta didarrak baretu ziran, eta irrika biziak artuta, leku izugarri aretan ezin egikeala luzarogotik jarraitu erabagi eban, eta galdu-gordean igesari emoteko eretia zala.

Txingea esku biakaz artuta, untzeari bira egiten asi, eta azkenean teinkada indartsu bat, atara eban. Katea orkatilleari lotuta eban, aretatik askatzerik ez, eta bera gan eroan bearko etenbarik. Joan aurretik, alboko lagunak lotan zirala egiztatu eban, baita ontzi-gaiñeko isilla osoa zala be. Katea praka-ankako batetik sartu, eta esku batz oratuta, ontziko gaiñaldera urten zan. Ilbera izanik, gauzak motel islaturik ikusten ziran. Aalik isillen txopara abiatu, eta soka-meta baten ondoan kukurio jarrita itxaron eban. Orduko, kaia utsik egoan, baiña oso beean zapart egiteko; zorionez, ontzia soka lodiakaz lotuta egoan kaira, eta astirik galtzeke urrenenari esku-ankakaz oraturik, arin baten kairatu zan. Ordurarte ez eban iñork ikusi, eta kaian sakabanatuta egozan pilloen

artetik ibilliz, noizbait, kale estu baten gora abiatu zan. Izan be, bere itxurea ez zan onenatarikoa, arkondara barik egoala-ta, praka zaar baiño besterik ez erabilela. Alako baten, alboko kale batetik mutil gazte bat agertu zan, eta erdi-moskorra egiñez,

– Aizu, mutil –gerkeraz esan eutsan–, bear baiño geiago edanda nago, eta uri onen izena aztu egin yat. Zein da beronen izena...?

Besteak, baiña, ulertzen ez eutsala iñotsan. Bereala oartu zan Urian gaztea palestindarra zala, eta itauna eberkeraz eginda,

– Palestina'ko Zesarea'n zagoz –erantzun eutsan besteak–.

– Eskerrik asko mutil.

Andik alde egiteko zorian zala, ustekabez, gomutara etorri yakon aitari sarri askotan entzun eutsala, Zesarea portuan armenitar adiskide andi bat ebal, Txestan izeneko izan be. Orduan judutar gazteari, barrero,

– Aizu, lagun, Txestan izeneko saleroslea ez al-dozu ezagutzen...?

– Izen ori ez yatort gomutara.

– Ara, armenitarra da bera.

– Armenitarra diñozu...? Salerosle armenitar bat ezagutzen dot, baiña ez dakit zeuk diñostazun berbera izango ete...

– Esango daustazu non bizi dan...? –itxaropen bakanak artuta itaundu eutsan Urian'ek–.

– Begira, lagun, kale onen goikaldera eldutakoan, ezkerretara jo, eta andik laster, enparantza baten, arrizko etxe ederra ikusiko dozu. Axe izan daiteke billatzen dozun armenitarraren etxea.

Ozta-ozta esker emonda, ibillera azkarrez abiatu zan Urian. Luzaro barik esandako enparantzara eldu zan. Il-beerako argi motelpean, baratz batek inguratuta arrizko etxe ederra ikusi eban; axe zan, antza, judutar gazteak itarantzuniko etxea, eta astirik galdu barik, etxe-aurretiko baratza zearkaturik, ate sendo ederraren aurrean aurkitu zan. Une batez ezpaitsu gelditu zan ate-jokia erabilten azartzen ez zala. Orduko, goizaldeko ordu biak-edo izango ziran, iñoren etxean oles egiteko garaia ez izanik, beraz; bere egoera larrian, baiña, ez eban aiko-maikotan ibilterik, eta jokiari eutsita oles egin eban. Erantzunik ezean, baiña, bigarrenez indartsuago jo eban atea. Andik laster, etxaurreko leio bat edegi zan, eta mintzo asarrekoiak,

– Nor da or...? –itaundu eban–.

– Au al-da Txestan'en etxea...?

– Bai, zer nai dozu, goizaldeko ordu ez-egoki onetan...?

– Ara, Txestan Jauna, Urian izarlariaren semea naz.

Txestan'ek nekez menperatu aal izan eban arritasunezko oiua bat, eta gero,

– Itxaron zati baten, banoatzu beingoan.

Andik laster atea edegi zan, eta berrogei ta amartsu urteko gizon bat aurkeztu yakon. Gau-arkondarea ta lo-txanoa erabilezan, eta eroian krisailluaren argipean, aurpegi atsegiñeko begiek adiskidetsu begiratzen eutsoen. Atadiko kutxa baten gaiñean krisaillua laga, eta estu-estu besarkatu eban, auxe zirautsala:

– Zure aitaren antz-antzekoa zara. Esaidazu gazte orrek, zerk zakaz nire etxera...? Izan be, itxura egokirik ez dozu azaltzen, eta iker-ordua ez da aukerakoa be –esan eutsan irribarretsu–.

– Erromatar ontzi batetik igeska natortzu.

Au entzunik, atea itxi eban Txestan'ek, eta gero isil-misilka,

– Aski bedi oraingotz –esan eutsan–. Goazen goiko maillara zeozer jan dagizun, makal ikusten zaitut-eta. Bitartean zure gora-beerak esango daustazuz.

Gora igonda, mai baten aurrean jesarri-erazo eban, eta joan zan. Andik laster, txali baten janari batzuk ekarrezala agertu zan, emakume lirain batek lagunduta. Txalia mai-gaiñean ipiñita,

– Au nire emazte Yasmiñe da –esan eutsan, eta gero emazteari mintzatuz–. Eta au adiskide miña izan neban Urian izarlariaren semea.

Senar-emazteak mai-bestaldean jesarrita, jan bitartean, Urian'ek bere gora-beerak edestu eutsezan, eta amaitzean,

– Erromatarrak –esan eutsan Txestan'ek– ankerrak dira, eta ainbat areago euren gudarosteak irau-erazo, eta Uriburuko erritarrak janaritu bear dabezenean. Au dala-ta, beste erri asko menperatu dabez guztitariko zergak ordaintzeko beartuz. Oiturai dagozkienetan, ustelak dira, diruzalekeri ta lizunkeritan murgilduta. Munduko nagusizat dabe euren burua, eta jopuz inguraturik nasaikeri ta alperkeriari emonda, iñoren lepotik bizi dira. Emen, Palestina'n, Eroses Andia erregearen iru semeak agintari jarri dabez, lurraldea iru zatitan bananduz, eta oneik ondo dakie, jakin be, errikideen ziskuak ustuegitea, euren aita zanak baizen ondo Zesar Augusto bere alde izatearren, eta beraz, kaiserraren morroi zintzoak doguz, “eguzkia nora zapiak ara” esaera zaarrak diñoanez ekiten dabela...

Ona elduta, Yasmiñe'k bere senarrari eten egin eutsan, auxe zirautsala:

– Aizu, Txestan, gure adiskide Urian nekez eta lo-gurak erreta dago. Oba litzake merezi dauan atsedena izan dagian, eta biar gaurko autuari jarraituko daustazue. Arin baten atonduko dot gure adiskidearentzat oe bat, agiri da bear dauala-ta.

Andik laster, gela txukun bateko oe erosoan, aspalditik ez izaniko lo atsedengarria izan eban Urian'ek, bere arnas nasaiak adierazoten ebanez.

Urrango eguneko eguberdiaren itxartu zan, eta lanean ziarduan bere senarraren aginduari jarraituz, Yasmiñe'k etxeko morroi bat igorri eban, eta luzaro barik, errementari batekin biurtu zan. Onek laster askatu eutsan txonkatillaren inguruko katea, eta jareitasun sentipenaz oartu zan armenitarra, noizbait gizaki askea zala. Yasmiñe'k gero janzki egoki bat ekarri eutsan, eta barriro be jaunaren itxuraz beeko maillara jatsi zanean, Txestan'ek nekez ezagutu aal izan eban.

Bazkaldu bitartean, “Trasimenu”ek Zesarea'ko portuan irau arte beintzat, kalera urten barik egon zeiten ebatzi zan, igeslariaren billa aaleginduko litzakiela gauza ziu-rra zan-eta. Zorionez, Txestan jakintza-zalea izanik, baebazan narruki zudugarriak liburutegian, eta olan, astia zelan emoteko erea izan eban Urian'ek. Iru egunez irau-

eban armenitarrak etxetik urten barik, eta epe au igarorik “Trasimenu” itsasoratua zala jakin ebenean, aske izan zan Zesarea errian zear bere aukeran ibilteko.

Txestan'en sendia, senar-emazteak eta iru mutil gaztek osotzen eben. Oneik aita-ekin ziarduen portu ondoko salgaitegi ederrean. Emen guztitariko gaiak metatzen ziran, ots: mota batzutako aleak, ontzi-oialak, sokak, burdiñezko kateak, lanabesak, Libano'ko zurak, itsastarrentzako janzkiak, eta guztitariko oial eta miesak. Kai-urretasunak ontzi-gaiak saltzeko aukerako eretia eskintzen eban, eta Txestan gizon zuurra ta berbakoa izanik, portuan ospe andikoa izatera eldu zan. Neskameek lagunduta, Yasmiñe'k etxeko erabiltean ziarduan, eta senar-semeak lanetik biurtzean, etxeko giro atsegiñak inguratzen eben. Sendi alkartua ta zorionsua izanik, gurasoen arteko maitasun eta ontasuna semeakanaiño edatzen zan.

Amar egun igarorik, sendotasun eta adorea birrirabazita, gau baten Urian'ek Txestan'eri auxe esan eutsan:

– Onezkero, lengora biurtu naz, eta Armeni'ra biurtzeko garaia da.

– Zergaitik orren laster joango zaiakuz...? Geratu zaitez aspaldi batez, eta gero iradu barik etxerakoa egingo dozu, araiño bidea luze, zaila ta neketsua da-ta.

– Eskerrik asko Txestan maite ori, baiña berantetsia nozu etxekoak ikustearren. Urtebete bi izango dira laster, etxetik urten nintzala, eta ordua da etxekoakana joateko, baita bizirik diraudala jakin dagien be.

– Etxerakoa bidaldi luzea da. Nondik joaten erabagi al-dozu...?

– Egunokaz zure liburutegiko narruki batzuk aztertu dodaz, eta ona emen nire erabagia: Emendik Jerusalem'era joango naz ebertarren uriburua ezagutzearren, ikusgarritz beterik ei'da-ta; Eroses Andia'k eraikitako jauretxe barria, arresiak, erregeen jauregia, antzokia, kiroldegia, eta beste ikuskaikak. Emendik, Itsaso Illa'ren egoaldean dagoan nabatetarren lurraldeko Zoar uriraiño. Leku onetan ganbelu-taldeak batzen ei'dira, Arabia'n zear Eufrates-Tigris ibaien arteko Mesopotami'ra eltzeko. Emendik iparerra joko dot, eta Cudi Dagi mendipean dagoan Cizre mendatetik aberrira elduko naz.

– Bidaldi luze ta arriskutsua, baiña aukeratu daitekenik egokiena. Ori dala-ta esan bear daustut, Sezian nire seme nagusia iru egunen buruan ganbelu-jarraigo batekin Jerusalem'era joango dala, ziriko-lorketa bat egitearren, eta zuk gura izatekotan lagun joango zara.

– Oba ez...! –pozaren-pezoz eskertu eutsan Urian'ek– Alagala yatordan eskintza da, eta eskertzen daustut benetan.

Laster igaro ziran iru egunok, eta goiz eguzkitsu baten, Sezian eta Urian Jerusalem'erantz abiatu ziran ziriko eunaz zamaturiko ogei ta lau ganbelukin.

Urten aurretik Yasmiñe'k zorro bete janzki emon eutsan, eta gero amatar besarkada bat, bidegite ona opa izan eutsan txeratsu. Txestan'ek zisku bete urrezko emon eutsan beste besarkada batez lagunduta. Zisku bete dirua, baiña, ez eutsan artu gura Urian'ek auxe iñotsala:

– Ez, Txestan maite ori. Naikoa da nire alde egin dozuna. Ez dot egundo be aztu-

ko, bizirik irautea zor dautsudala; semetzat erabili nozu, eta ori dana ni arrotza izanik. Urrezko orreik artuko ba'neuz, ez dakit noiz biurtuko neuskizuzan, aberria urrun dago-ta. Onezaz gainera, ez dakit elduko ete nazan be. Eskerrik asko baiña ezin dagiketsu-daz artu.

Asarre antzean begiztatu eban Txestan'ek, eta gero,

– Begira Urian –esan eutsan– Askok zor dausat zure aitari; zeuk uste dagikezun baiño askozaz geiago, izan be. Laguntza bearrekoa yatanean, bera irakasle ta gidari izan neban gaztaroan, eta mundu onetako bidaldian zeozer izatera eldu ba'naz, berari zor dausat. Aren semeari lagundu aal izatea, artu dagikedan atsegiñik andiena da. Agur, Urian, semetzat zaukadan ori, eta goraintziak aitari.

Estu-estu alkar besarkatu eben, eta Urian Sezian'egana biurtuta, bidegiteari emon eutsuen, atzetik ganbeluen erreskada luzeak eta morroiek erraikiela.

Jerusalem'erañoko bidegiteak lau egun iraun eban, eta Jaffa'ko atetik judutarren uri nagusia zearkatu baiño ez, Sezian, morroi ta ganbeluen jarraigoarekin, Jauretxeo sartaldeko ormaren ondoan egoan denda andi baten aurrean gelditu zan, eta arratsaldea zanez, astirik galtzeke, zamaketea dendara sartu eben, buru-belarri ziarduela gautu aurretik arloa amaitzeko. Gaba emoteko ostatu baten kokatu ziran, eta biaramonean jarraigoa Cypros errira abiatu zan, emen Zesarea'rako palmondo-garauak erosteko, itsas-tarrak janaritzeko oso ederretsiak ziran-eta.

Urten aurretik, Sezian'ek auxe esan eutsan:

– Begira, Urian, egin bear dozun biderako, ganbelu on bat bearrekoa da, eta zeuk erostean ziria sartu dagikezuen ezker, ganbelu-saltzailleak amarrutsuak dira-ta, ona emen ganbelu bikain bat aberrira biurtu zaitez.

Au esanik, ganbelu gazte bikaiña emon eutsan, eta alkar besarkatu ondoren, Sezian bere morroi ta ganbelu-jarraigoarekin, kale estu ta kiribiltzuen zear ostendu zan.

Ederzale izanik, iru egun emon ebazan Urian'ek judutarren uri nagusiaren ertilan yaukalak begiztatuz eta ederretsiz.

Erodes Andia errege anker eta zitela izan zan, guztitariko okerkeri ta erailketak egin ebazana. Gazte izanik, Doris izeneko arabitar printzemeaz ezkondu zan, eta one-gandik izandako semeari Antipater izena emon eutsan.

Baiña erregetza jaritsi ebanean, judutarren ederra irabaztearren asmonetarren odol-lekoa zan Mariamne printzemea emaztetzat artu, eta emazte au maite-maite ei'eban. Onen amak, Alejandra'k, bikote orren zoriona ezereztu eban suiñaren aurka azpilanean jardun ebanean. Erregetza galduko leukelaren bildurrez, Erodes'ek Mariamne erail eban, baita onen ama nastatzaillea, Mariamne'ren nebea, emaztearekin izandako seme biak, eta judutarren abade Nagusia zan Mariamne'ren aitita be. Aipatu bear da baita be, errege anker onek agindutako Errubakoen erailketea, Jesukristo Belen'en jaio izan zala jakin ebanean.

Zartzaroan erotu egin ei'zan, eta bere semerik zaarrena, Doris'egandik izandako Antipater erail eban. Noizbait, Jesukristo aurreko 4'gn urtean il zan Erodes Andia Jeri-ko urian, eta edestilari batzuk aipatu dabenez, arrek janda.

Errege onek, Erroma'ko kaiserraren ederra irabazteko trebetasun bereziaz erakutsi eban, agintarien izenean Palestina'ko jaurletzat ziarduean. Zesar Augusto'ren goratzarrez uri bi eraiki ebazan: Zesarea itsasaldean, eta Sebaste menditar uria. Bere ekin-tzarik andiena, elendar itxurako Jerusalem'eko Jauretzea izan zan.

Guda-babesleku asko eraiki ebazan, onein artean izanik, Itsaso Illa'ren ondoko Masada, Erodium, eta Makeronte. Masada iruko itxurako arkaitz izugarria da Itsaso Illa'tik ur, eta onen gaillurra ordokia da. Iparrera begiratzen dauan muturrean, Erodes'ek jauregi eder bat eraiki eban, sinagogaz eta urberotegiaz orniduta. Arkaitz onen gaillur leunaren ertzak arresi batzabestuak ziran, iru aldeok amildegi izugarriek inguratuta. Ego-aldeko ertzean, zelatarren edo zelotetarren bizilekuak egozan. Gudakoi jaseko talde au erromatarren etsai amorratuak ziran, euren judutar aberria zapaltzen ebelako. Abertzale sutsuak izanik, zain bizi ziran noiz aurkeztuko litzakien abagunea zapaltzailleen aurka asaldatzeko.

Babesleku iraunkorra izateko, Masada'k ura bear eban, eta gainalde guztia gerturik egoan euri-jasa urri baiña lodiak lurpeko urtegiatan biltzeko. Lekune batzutan barzkiak azten ziran, eta aletegiatan bearreko garauketea gorde eroien, etorri zeitekezan etsaien esialdiai aurre egitearren. Itsaso Illa'ren alderantz jarrita egoan atetik, bide kiribiltzu bat edatzen zan beeko basamorturaño. Bide edo zidor oneri “Sugearen zidorra” esaten eutsuen.

Erodes Andia'ren gora-beera batzuk emotearren, edeskiari etenaldi au eginda gero, goakiozan Urian'en arazoari barriro.

Jerusalem'en bakarrik geratu zanean, eta ertizale porrokatua izanik, lenengo eguna Erodes'ek eraikitako Jauretzea ikertzeko emon eban. Ederra ta andia zan judutarren leku donetsi au, Dabid erregeak egindakoa baiño bikaiña goa. Lauki erako Errege-ata-diak inguratua zan; gero barrurago igarotean, larrain bikotxaren erdian, Jauretze yaukala egoan, David'ek egin izan ebanean ondoan. Jauretze au gerkar itxurakoa zan, eta Urian oartu zaneko, gaba etorri yakon.

Urrengo egunean goizean, Robinson Uztaia ta Makabeo jauregia ikertu ebazan, eta arratsaldean uriko goikaldean egoan errege-jauregi bikaiña. Arin igaro yakozan bigarren egunean onen orduak. Azken egunean, Antzokia ta Kiroldegia ikertu ondoren, beekaldean aurkitzen zan Uri Zaarra, kale estu ta kiribiltzuek eratua ikertu eban, eta noizbait, bidaldi luze baterako bearreko gaiak erosit, ostatura biurtu zan.

Sezian'ek emoniko ganbelu bikaiñarekin Hebron aranean atetik urten zanean, goizaldea izan arren be, bero zan. Ostatutik urten aurretik argibide zeatzak eskatu ebazan nabatetarren lurraldean egoan Zoar uriraño, Ejipto'tik Mesopotami'ra abiatzen ziran jarraigoentzat batzar-tokitariko bat zalako, eta emendik Tigris-Eufrates arteko lurralde-rakoa, dalako jarraigo batekin egitea asmatzen eban. Bein ona elduta, iparrear egoan Zizre mendatetik aberrirakoa egingo leuke. Bearreko argibideak artuta, beraz, Hebron arana zearkatuta, egorantz jo eban, eta iradu barik ganbeluaren ibillereari egokitu yakon. Gaba zaneko Judea'ko lurraldea atzean itzita, Idumea'ra sartu zan. Basamortuko gau-otzari aurre egitearren su eginda gero, burusian bilduta, gaba emon eban. Biara-

monean zabaldia basamortuaren itxurea artzen asten zanean Idumea'n zear abiatu, eta eguberdian gelditurik otordu ariña egiteko, eguzkia Gaza-alderantz itsasoaren billa makurtzen zaneke, Hebron urira eldu, eta ostatu baten kokatu zan gaba igarotearren.

Urrengo egunean, Idumea'ko Oresa'ra eldu zan, eta uri onetan gaba emonda, urrengo goizean basamortuan zear Itsaso Illa'ren ego-ertzerantz abiatu zan. Bigarren egunean Masada'ko mulko erraldoia aurkeztu yakon. Eguberdia zan orduko, eta bero kiskalgarriak eraginda, ganbelutik jatsi, eta bazkalordua izanik, atx baten gerizpean je-sarrita, keztaturiko okel-zerrenda bat eta palmondo-garauak janda gero, lo-kuma batek artuta erdi-lo geratu zan. Alako baten, negar-ots batek bere senetara ekarri eban, eta adi-adi jarrita, ume baten intziriak egurats garbian zear etorri yakoza. Negar mingarria zan, bildurrak eta bakartasunak aur bateri erauzitakoak, basamortuko izuak eragin-dako aiene etsia, bein eta barrero amari deika...

## MASADA'KO UME ITSUA

Aspaldi zan Dina gaisoari malkoak etenbarik eriozala. Bazan urtebete bat bere senarra Oziel zelataria, erromatarren aurkako burruka baten il izan zala, eta orain bere semetxu Dan gatx batek jota, itsu billakatua zan ozta-ozta urte bikoia zanean, izan be. Jazbel, erriko atso oar-ikasiaren burubideari jarraituz, egunean iru bidar Dan'en begiak, egositako errostearen uraz igurtziten ebazan, baiña dana alperrik billakatua zan, eta bere semetxua or-emenka aztamuka ibiltzen ikusteak biotza austen eutsan. Gerturik egoan Dina bizitzaldi osoan zear semearen itsu-laguna izateko, baiña bazan zerbait bere asmoa ezeztzen ebana: Masada'ko zelatarien nagusiaren agindu zorrotza, alegia.

Masada'ko zelatarien nagusia zan Joab, grezitarren edertzale porrokatua izanik, espartarrak eredutzat ebazan, gudari zangarrak, neurritsu, eta jasankorrek zirakako. Ederrespen onek kutsatuta, aal eban guztietan, Masada'ko bere taldeari arein oiturak eta legeak jarri eutsazan, onein artean izanik, soin-akatsen bat ebana Masada'ko arkaitz mal-korretik amillerazo izatea an beean zetzan basamorturaino, saien oparia izan zeitezen. Joab burrukalari itzela zan, eta ez eban gura menpekoen artean iskillorik erabilli ez egikean gizonik. Augaitik ba, jaioten ziran umeak aztertu izaten ziran zeatz, eta akatsen bat erakusten ebenak errukibarik erailten ziran.

Dan ume osasuntsu ta ederra jaio zan, baiña aita galdu ondoren eta urte bikoia zanean, makur ezezagun arek jota itsu billakatu zan. Aalegin guztiakaz saiatu zan Dina semetxuaren ezbearra ezkutatzearen, eta izeko eban Jazbel'eri arren eta arren eskatu eutsan bere semearena iñori ez esateko. Olan egin eban Jazbel'ek, baiña Dan'en makurra ezkutatuturik gorde daiteken gauza ez izanik, arazoa Joab'en ezagutzera eldu, eta arratsalde aretan bertan, Dina'ren etxera joan zan.

Emakume gaixoak Joab aurrean ikusi ebanean, Dan besoetan artu, eta dardar baten, zutunik egon eziñik jesarri zan, malkoak aurpegian beera mara-mara eriozala. Une batez isillik iraun eban Joab'ek, eta gero,

– Aizu, Dina –esan eutsan–, alboko emakume batek jakitun ipiñi nau zure semearen gatxari buruz, eta itsu dana erriarentzat eragozpen andia dan ezkerro, gure lepotik jan baiña burrukan jarduteko gauza ez da-ta, gure ekanduai jarraituz, gau onetan arresian beera jaurti izango da.

– Arren, Joab –belauniko jarrita eskatu eutsan Dina'k–, egia da itsu billakatu dala, baiña ziur nago, etorria lez joango yakola, eta luzaro barik bere lengora biuruko be.

– Ez dot egundo ezagutu itsu billakaturikoak ikusmena irabazi dagikean. Zure semea, beraz, gau onetan garbituko dogu.

– Euntzuidazu, arren...! –negar baten eskatu eutsan Dina'k– nire senarra Oziel'ek erriaren alde egindakoagaitik eskatzen dautsut, arren semea eriotzera galdu ez dagizun, Israel'en alde odola isuri eban-eta. Itxaron apur bat, eta ikusiko dozu zelako gudaria bilakatu dan. Arren, Joab, nire senarraren gomuteagaitik, itxaron egun batzuk...!

Joab, baiña, zorrotzegia zan, eraille biurtzeraiño izan be. Ez eban gura ezelan be, aolkularien batzarrak bere barkapena aulkeritzat artu egian, eta,

– Alperrik dozu zure semearen alde aalegintzea –zakar esan eutsan– . Gure erriari dagokionetan, ez dogu sentikerietan jausi bear. Gautu daitenean, aurraren billa Yair etorriko da.

Yair izena entzutean, zauskada batek artuta, Dina'ren barruan itxaropenaren argitxu bat piztu zan. Bere senarra Oziel eta Yair adiskide miñak izan ziran beti, bein baten, Oziel'k bizitzaren arriskuz Yair gaizkatu ebanetik, izan be.

Bakarrik geratu zanean, Dina'k narru-zati bat ebagi eban, eta alde baten “DAN” izena eberkeraz idatzi eban, eta ari-biur bat az idune inguruan ipiñi eutsan umeari. Itsu biurtu zanetik Dan iñoizkorik amazaleen billakatu izan zan, eta amaren malkoek bustitako aurpegia berenean ipiñita oartzean, Dina'ren magalean kiribilkatu, eta andik laster lo geratu zan. Orduan seaskatxuan ipiñi eban, eta astirik galtzeke, seiñarentzako abiamenak egiten asi zan. Zorrotxu batera janari-zati batzuk eta zato bete ur sartu ebazan, eta jarraian aurra besoetan artuta, itxaron eban.

Gau bete zan Yair'ek atea zearkatu ebanean, eta Dina'ren aurrean jarrita,

– Tamal dot, Dina –esan eutsan–, baiña Joab'en agindua betetera nator. Non da seiña...?

– Emen dago, Yair, magalean lo geratu yat. Begira egizu, ez al-da Oziel'en itxurakoa...?

Makurtu zan Yair, eta orio-krisaillu baten argipean, umearen aurpegi samurra begiztatu eban. Orduan Dina'k,

– Ez egizu il, Yair –esan eutsan–, ume bat iltea aingeru bat eriotzera galtzea lakoxea da, edo urretxindor baten txio zoragarriak itotea bezela. Gaur, aingerutxu au Masada'ko atx malkorrean beera jaurtiko ba'zendu, gure aberriko izarren argipean, Yahvé'k betirako madarikatuko zindukez...

Latz-ikara batek jota, Yair'ek mintzo arrenkuratsuz,

– Nik ez dot Oziel adiskidearen semea il gura –esan eutsan–, baiña Joab gure nagusiaren agindu zorrotza dan ezkeru, ezin naz jarki aren aginduari.

– Ume onen aitak, aberriaren alde odola isuri eban, eta gaiñera... erromatar euntari aren atzaparretatik onik atara zinduzan gau aretan, eriotz-epaitua izan zintzazanean... Esan, Yair, orren makala ete da zure gomutamena...?

– Ez dot egundo be aztuko berak nire alde egiña, baiña guretzat itsu bat eragozpen andia da, eta onezaz gaiñera, bere agindua ez dodala bete Joab'ek ba'leki...

– Ze Joab eta Joab oste...! Begira Yair: iretargia agertu baiño len, artu egizu seiña, eta isil-ostuka arresia zearkatu, eta arkaitz onen egoaldean, eguzkitik babestutako gerizune baten, laga umea eta egun batzutarako jan-edariak dauzan zorrotxu au aldean

jarri egiozu edegirik, seiña itxartu daitenean bizirik iraun dagiken. Leku ori nabatetarrren lurraldea da, eta ganbelu-jarraigo asko igaroten dira, Ejipto'tik Arabi'rako bidean, eta ba'leiteke areitariko baten batek nire umea ikusi dagian...

Isillune bat, eta Dina'k barriro,

– Oziel nire senarraren izenean umea gaizkatu dagizun eskatzen dautsut, bestelan Yahvé'ren madarikaziñoak jarraituko dautsu nonai ta betirako. Torizu nire umetxua, eta orain danak lotan dirala, basamortura eroan eta nik esanda lez egizu, Yahvé'k eta nire senarrak bedeinkatu zagiezan...!

– Zuzen zagoz, Dina, eta zeuk eskintzen daustazun eretia ustiatuko dot Oziel'ekiko dodan zorra garbitzeko.

Dina jagi zan, eta samur-samur Dan'en aurpegiñoan musu maitekorra ipiñirik, Yair gudariari eskuratu eutsan auxe iñotsala:

– Yahvé'k bedeinkatu zagizala, nire ta Oziel'en izenean...!

Yair'ek seiña besoetan artu eban, eta malkoak mara-mara eriozala Dina gaixoa aieneka geratu zan. Ordutik, semetxuaren alde etenbarik otoi egingo leuskio Yahvé'ri.

Seiña besoetan eroiala, Yair sarkaldeko arresian egoan aterantz bideratu zan. Ire-targia oraindiño agertu barik, bazterrak illundietan egozan, eta arresiari itsasita ibilli ebillela, atera urreratu zan. Laster ikusi eban ate-ondoko begiraria, eta isil-ostuka ibi-lliz, atezaiña iparrerantz begira egoala egiztatu eban Yair'ek. Astirik galtzeke, atea zearkatu, eta bidexka biurri batetik basamorturantz jo eban. Laster agertu zan iretargia, eta amildegian beera joian bide-zidorretik, iretargi zuritan gero ta ziurrago bidegiteari jarraitu eutsan. Ordubete bat-edo igarorik, basamortuko ondartza zapaldu eban, eta gelditzeke aurrera jarraitu eban. Dinak berari itarantzunikoari men egiñez, leku egoki baten billa asi zan. Noizbait, beste ordubete bat igarorik, ganbelu-bide bat aurkitu eban, eta orduan bazterrak aztertzen asi zan. Andik ur samar, atx andi baten utsune bat ikusi eban. Nekez aurkituko litzake axe baiño lekuri egokiago.

Umeak lotan jarraitzen eban, eta astiro, itxartu ez zeiten, zugazño erkin baten ondoan ipiñi eban, eta zorrotxua edegirik, zatoa ta palmondo-garauak umearen elmenean laga ebazan, eta gero bekokian musu ariña emonda, etorria zan bidetik ostendu zan, Oziel zanari zor eutsana zelanbait ordaindu izan ebalako oarpenak adoretuta.

Goizaldean itxartu zan umea, eta goseak eraginda negarrez asi zan, amaren txera maitekorren begira, baiña bere negar etsiak ez eban erantzunik aurkitu. Luzaro iraun eban Dan'ek era guztietan amari deika, baiña iñork ez eutsala jaramonik egiten ikusi-rik, goseak eraginda aztamuka asi zan, eta palmondo-garauak idorota, asetu arte jateari emon eutsan. Orduak igaro-ala beroa anditzen zan, eta egarriak bultzatuta, barriro be aztamuka asi, zatoa idoro arte. Noizbait, gargailla aboan ipiñita edateari emon eutsan, eta onen ostean, lo-kuma batek artu eban, bere kinka larria aztuerazo eutsoen amesetan murgiltzen zala.

Eguberdian eguzkia gingan egoanean, basamortuko bero jasan-eziñak iratzarri eban, eta narrazka, batetik bestera ibiltzen asi zan, zugazñoaren gerizpea lekuri ego-kiena zala oartu arte. Antxe emon ebazan arratsaldeko ordu kiskalgarriak, batzutan ne-

gar-zotinka, bestetan zinkurin etsietan amari deika, bere itsutasunean, jasaten eban barkartasuna are izugarriagoa biurtzen yakola.

Gabean, ostera, basamortuko otza ondartzá amaibakoaz jabetzen zala, eta bere aginkadak jasaneziñak biurtu ziranean, bearrianak eraginda, bero-une baten billa asi zan. Noizbait, atxaren txoko bateri epeltasuna eriola oarturik, antxe etzanda lo sakon batek artu eban. Izan be, egun aretan isuritako malkoek lo sakona eragin eutsoen.

Iru gau ta egun emon ebazan umetxu zoribakoak toki aretan negarrez eta zinkurinka, izuak eta etsiak artuta, ulertu eziñik amaren apa-laztanak eta mintzo gozoa zergaitik amaitu izan yakozala illunpe amaibako aretan. Orduko, palmondo-garauak eta zatoko ura amaitu ziran. Boskarren egunean, barau osoko eguna jasan ondoren, idarge ta zentzuna erdi-galduta, intziri ta zinkurin egiteari emotsan sukarrezko amesetatik itxarten zan bakotxean...

Ostera be intziri areik entzutean, lo-kumatik zearo jareginda, Urian zinkuriñak etorkiozan alderantza joan zan, eta luzaro barik umetxu bat ikusi eban; besoetan artuta, armenieraz berba egin eutsan txeratsu. Sukar-amesetik erdi-atzarri, besotxuak Urian'en idune-inguruan jarrita, amari dei egiten asi zan. Izan be, umea egoera larrian egoan jan-edaritan jasandako barauagaitik, eta basamortuko bero ta otza zirala-ta, ezin egikean bizirik luzaro irauan.

Umearen besarkadatik jareginda, Urian'ek zaragi bateko uraz soifña garbitu eutsan, guztiz zikin egoan-eta. Edaten emonda gero, eun-zati garbiaz bildu, eta senetara etorrela ikusirik, orioz bustitako ogi zati batzuk iruntsi-erazo eutsazan. Arrats-beera zan orduko, eta antxe bertan gaba emotea erabagi eban Urian'ek. Illuntzean, adarki batzuk piztu, eta aparria artuta, suaren ondoan umearen alboan etzanda, lo egiteko gertatu zan. Umeak, baiña, bildurrak artuta, janzkiari eutsi eutsan negar baten; Urian'ek ez eban beste biderik, besoetan artu baiño, eta bere magalean kiribilduta, aspalditik lenengo lo atsedengarriak artu eban, bein eta barriro bere buruari itauntzen eutsala armenitarrak, zergaitik aurkituko zan umetxua leku basati aretan.

Urrengo egunean eguzkiaren lenengo printzakaz batean, Urian itxartu zan, eta andik laster goseak eragindako umea be. Jaten emon ostean, umeak aldean eroian narruzatia aztertu eban Urian'ek, eta eberkeraz idatzitako "DAN" izena ikusi eban. Umearen izena izango zan, urrean, eta aurrerantzean umeari Dan esatea erabagi eban. Laster baiña, umearen jokaera ez-oiuaz, itsua zala oartu zan, eta betazalak zabal eginda, errezel edo ganduaaren antzeko zerbaitek begiak estalduta ebazala oartu zan. Bere aita jakintsuagandik Urian'ek gauza asko ikasi izan eban, onein artean osalaritzari egokiozanak be.

Aldi areitako gizadian, eta txiroenen artean bereiziki, itsutasuna oso edatua zan

garbitasun-ezagaitik batez be. Orduan, "odei arrea" izeneko kutsua oikoa zan. Berez ez zan gatxa sendaeziña garaiz zainduta zanean, baiña zaintza barik jarraitzekotan, betiarunkorra billakatu zeitekean.

Begiak zeatz aztertu ondoren, umeak ulertuko bai'leuskion, Urian'ek esan eutsan,

– Dantxu, itsu billakatu zara "odei arrea" dala-ta, baiña nire ustez, oraindiño garaiz izanik, begimena irabazi dagikezu, eta izan be, astirik galtzeke gatxari jarkiko gaiakoz.

Umea lo geratu zanean, atxaren ezkutunetan aztertzeari emon eutsan, eta eguzki-printzetatik babestuta egozan arrakaletako bedar-antzeko izpitxuak batzen asi zan, berekautan auxe iñoala:

– Zorionez, Dan, bear genduzan "izar-izpiak" izeneko bedartxuak eurrez aurkitu daitekez eremu onetan, eta zure gatxa urrunegi joan ez ba'da, baietz osatuko zareala egingo neuke.

Atxaren babeslekura biurtu zanean, astirik galdu barik Urian'ek sua ixiotu, kaxpel baten ura berotu, bedartxuak onetara jaurti, eta ondo egosi ondoren, umea besoetan artuta, betazalak edegi eutsazan, eta ardurarik andienaz saldeaz bustitako zapiño batzuek begiak igurtzi eutsazan. Umea, baiña, ekintzeari jarkiten yakon, baiña bare-bare ta txeratsu berba egiñez, noizbait, begiak ondo igurtziten jaritsi eban.

Egunean iru bidar garbitzen eutsazan begiak "izar-izpiak" eritxoen bedarrakaz. Baekian armenitarrak eroapen andiko arazoa zala, "odei arrea" kutsuaren aurkako osakuntzea gitxienez illabete bateko epekoa, izan be, eta umea lotan zanean, atxaren ezkutunean umea lagata, bedar-batzeari emoten eutsan. Abagune au izan ezik, umearen ondoan zirauan aren zaintzeari etenbarik emonda. Ardura andi au zala-ta, Dan'en osasunak gorakada andia artu eban, eta au agiri zan gero ta lodiago biurtzen zalako, eta ba-kea irabazita, gau osoan zear lo egiten eban etenbarik. Noizean bein amari dei egiten eutsan, baiña egunen joanean, bazirudian arekiko oroitza ezabatzen joiakiola. Onen orde-z, eta bildur bakanak jota, ez eban ezelan be gura Urian urrundu ekion, eta olakorik gertatzen zanean, negar etsi bateri emotsan aren mintzoa ta laztanak oartu arte. Bein baten, Dan'en aurpegia irribarre gozoaz argitu zan, eta au ikustean, Urian'ek aren ma-trailtxu leun biribillean apa-laztan maitekorra jarri eutsan, auxe iñotsala:

– Dan, Basamortuko Seme ori, ordua da zure aurpegian zorionaren dizdira ikusi dagidan; uste neban irribarreak aztu egin yatzuzala... Nik ez dot semerik, eta ez dakit egunen baten ezagutuko dodazan be, baiña orain badakit aita baten maitasuna zelakoa dan...

Bazan urtebetea erromatarrek atxillotu ebenetik eta ia itz egin barik irauten ebala, baiña orain, bere armenitar berbeta gozoaz etenbarik itz egiten eban, umeagandik barkartasuna uxatu nai bai'leuan. Goiz guztietan gosalduta ondoren, eta eguzkiak oraindiño berotzen ez ebanean, Dan eskutik artuta, ondartzan zear eroian iñarkun egiteko, eta umea poz baten joan aren eskuari eutsita, txoritxu baizen alaia, bere mintzo baldarraz ainbat eta ainbat gauza esaten nai eutsala.

– Astiro, Dan, ez ibilli arrapalada baten, baratxe-baratxe baiño, iñora joateko ira-

durik ez dogu-ta. Kontuz arritzar orregaz... goazen eskumatara zulo andi ori saiesteko, apatxe...!

Ordu bi inguru irauan goizeko iñarkunak, eta atxaren ezkutunera biurtuta, bedar-egosteari emotsan Urian'ek; gero, ardurarik andienaz Danen'en begiak igurtziten eban. Umea artaratu izan zan osakuntzeari, eta geldi-geldi egoten zan, astiro ta maitetsu armenitarrak itz egin bitartean. Betekizun au amaituta, bazkaltzen eben, geienetan ur-naz egindako aia, edo egositako ortuariak, mats-onduz edo palmondo-garauakaz amaitzeko. Arrastietan eguzkia gingan beera makurtzen zanean, barriro be goizean lez osteratxu bat ondartzan zear. Batzutan, umearen poz andirako, ganbeluaren konkorren artean jarrita egurasten eben, umeak ikusi ezin egikeazan gauzen barri emotsala Urian'ek. Atxaren ezkutunera biurtuta, apalduta gero eguneko irugarren eta azken begien garbiketea egīnik, suaren ondoan etzanda, lo egiten eben.

Baiña leku aretako benetako buruaustea ura zan. Iru astebete igaro ziranean, Ganbeluak lepoan ekarritakoa amaitzeko zorian zan, eta neurritz erabilli arren be, egun gixien buruan amaituko litzake. Onezaz gaiñera, ur-baruari oituta egoan ganbelua, ega-riaren aztarnak erakusten asi zan. Nai-ta-ez, beraz, Oresa'ra biurtu bear izango eban, aitu egindako ura barriztatzeko. Biaramonean, ezinbestez, Oresa'ra biurtuko litzake bearreko urketea egitearren, eta au izan be, Dan'en kalterako izango litzake, olako bigegitea, jasaten eban osakuntzeari txarto letorkioke-ta.

Illuntze aretan urrengo egunean urteteko abiamenak egiteko zorian zala, baiña, bapatean dana illundu zan, eta iñusturi bizitan odei lodi batek ortzia estaldu, eta euria mara-mara jausten asi zan. Arkaitzetatik ugolde indartsua ondartzan zear amildu zan orruka, arriak eta legarrak nonai sakabanatuz. Basamortuan euria urri baiña zakarra izan oi da, eta ereti aretan be, olan jazo zan; ordubete bi igarorik, etorrita baizen arin odeiak alde egin eban, bustiriko basamortuaren gaiñean izarrek iñoizkorik bizien iñir-ñir egiten ebela. Otza andiagotu zan, eta sutara adarki batzuk jaurtiz, lotan zan Dan'eri berba egīñez, pozaren-pozez auxe esan eutsan:

– Poztu gaitezan, Dan. Biar ez gara iñora joango, eta aspaldi luze batez emen iraungo dogu zu osatu arte. Bai, Dan, egunen baten, gaur dizdir dagiskuen izar ederrok zeuk be ikusiko dozuz, eta orduan, aitagandik ikasi neban izarritzia irakatsiko dautsut, eta arein edertasunaz zure arimea olerki-senaz bete egingo da... Bai, Dan, Basamortuko Seme maite ori, eguna jaio ta ilten danean, argiaren olerkia oroz jabetzen da... baiña aren atzetik gaba datorrenean, illuntasunaren zirikozko magalean, izarrek olerki bizitan asperenka asten dira, lo datzan izadiari laztantzearren... Beste batzutan, iretargi zuritan zabaldua zidarrezko mamu ta iratxoakaz jantziten da, eta orduan, arimearen barrutik maitasun-jorana isurtzean, isillaren otsa aditu daiteke...

Andik iru egunetara basamortua antzaldaturatua zan, udabarri yaukala etorri izan bai'litzakion, alde guztietara basa-lorak ondartzea azpi-oial bikaiña biurtuz. Arearen artean illabete ta urtebetean zear ezkutaturiko aziak, bizitzara itxarten ziran zorionezko ernamīñean, aizearen eragiñez kulunka lerdenez igitzen zirala. Onein artean, guztitariko sagu, erbi, musker, suge etabar, bizi-mīñez itxarturik, janariaren billa ziarduen.

Euren lekunetik ez urrun, atxen arteko utsune baten, euri-jasak putzu bat eratu izan eban, eta eguzkiaren indarrak eta basamortuko elkortasunak legortu egien aurretik, pozez gaiñezka Urian'ek zaragiak bete ebazan, eta gero ganbelua ase arte edan egian beartu eban. Onezaz gaiñera, sortutako bedarrari esker, egun batzutan ganbeluak baeban non alatu bere aukeran. Olan ba, oiko dendua irabazita, armenitarrak umearen begi-zaintzeari jarraitu eutsan.

Dan'en sendaketea astiro joian, baiña umearen begiak estaltzen ebazan “Odei arrea”ren mintza, bazirudian aldiaren joanean meetzen zala, eta bein baten, armenieraz polito egiten eban Dan'ek,

– Aita, aita –oiu bizitan esan eutsan–, begietan zerbait gertatzen yatala uste dot.

– Ara, Dan –umea baizen pozik Urian'ek–, zure begiak loaldi luzearen ostein bizitzara datoz, eta laster gai izango zara inguratzen zaituan edertasuna ikusteko. Gizaki bategan aalmenik ederrena ikusmena da, eta oneri esker zure esku izatera elduko zara.

Arrezkero, umea egunean baiño egunean argiako ikusten asi zan, eta amabost bat egun igarorik, ikusmen osoa irabazi eban, eta orduan Armeni'ra jarraitzeko asmoa osotu eban Urian'ek. Mutikoa osasuntsu ta azkarra zan, eta batetik bestera bere aukeran ebillen, gauzen irudi ta margoak zelakoak ziran ikasten ebazala.

Bitartean, Urian'ek gogoia aberasten eutsan, gauzen azalpena emotsala. Umeak Urian'eri “aita” esaten eutsan, eta onek zoriontsu egiten eban, umea gero ta maiteago ebalu, bere odolekoa bai'litzan izan be. Arratsalde baten, gorrimiñezko odeien artean eguzkiak osertzerantz makurtzen zala,

– Aizu, Dan maite ori –esan eutsan Urian'ek–, etzi abiamenak egingo doguz, nire aberrirako bidegitea asteko. Bizpairu egunen buruan Zoar'era elduko gara, eta bide-gurutz onetan, Mesopotami'ra joan daiten jarraigo bateko babesean, aurrera joango gara Tigris-Eufrates ibaien arteko lurraldeariño. Gero iparrerantz egīñez, mendi garaien artetik nire aberrira, Armeni'ra elduko gara.

– Aita, ederra al-da Armenia...?

– Ederra benetan, ibai, mendi, eta larradiz osotua.

– Basamortua baizen ederra...?

– Basamortua batzutan ederra da, baiña geienetan gogor eta antzua. Nire aberria, ostera, gozoa, emonkorra, eta orlegia, ur-jaustiri eresintsuen artean zenbatu-eziñeko ibai-latsakaz gurutzatua.

– Au nire poza, aita...!

Gau betea zan orduko, eta iretargi zuritan inguruko atxak erraldoi isillan antzera nabarmentzen ziran.

– Aita, zer egingo dot an...?

– Gizon jakintsu ta zuzena billakatuko zara, eta orduan pozez lertzeko zorian guztiai auxe esango dautset: ona emen Dan, Basamortuko Semea, begiraiuz zein ederra ta jakintsua dan...

Isillune bat sortu zan, eta ume-amesak gogoan erabillezala, gabaren gentzapean mutikoa lo geratu zan, eta Urian'ek Dan burusi batuz estalduta, izarrai begira bera be lokartu zan. Gau aretan, baiña...

Gau aretan, basamortuko aize meeak ar-eske ebillen bere endako eme baten usaiña ganbeluari etorri yakon... Andik iru kilometroko bitartera basamortuan zear joaian ganbelu-jarraigo batetik etorkion. Ganbelua zutundu zan, eta suur-zuloak zabalik, usaiña etorkion alderantz burua zuzenduta, atsegiñezko irrintzi yorantsua jaurti, eta arrapalada baten bere irudia gabea zear ezabatu zan.

Egunsentian itxartu zanean, arrituta egiztatu eban Urian'ek ganbelua ostendu izan zala. Dan'en laguntzaz inguruak aztertu ebazan, baiña laster oartu be iges egin ebala. Lur-jota jesarri zan Urian, eta gogo barik palmondu-garau batzuk iruntsiten ebazala, Dan'ek auxe itaundu eutsan:

– Aita, zergaitik orren kezkatu...?

– Ara... biar Zoar'era abiatzeko gintzazan, baiña ganbelu barik, zailla ta luze billakatuko da gure bidegitea. Ura ta janaria gurekin eroan bear izañgo doguz, eta gaiñera zu ume izanik, laster nekatuko zara.

– Aita, ni ez naz nekatuko, eta gaiñera, ura ta janaria eroaten lagunduko dautsut.

Iribarre aulaz, Urian'ek orduan,

– Bai, Dan, mutiko azkarra zara.

Arratsalde aretan abiamenai emon eutsen Urian'ek ardurarik andienaz. Ura zan benetako buruaustea. Ezin egikean lepo-gaiñean zama andirik eroan, eta arazoari ekin ondoren, ogei kiloko zaragi bete ur, eta amar kilo palmomdo-garau eroatea erabagi eban. Dana gerturik zanean, Dan'en alboan jesarrita, leku aretan izango eben azken otorduari emon eutsoen, eta andik laster eguzkia ostenduta, izarrak agertzen asi ziranean, jan-edariak leporaturik, umearen eskuari eutsita,

– Goazen Dan –esan eutsan–, ibilli gaitezaz astiro baiña etenbarik. Goizaldean atx baten gerizpean geldituko gara illuntzerarte.

Eta izarrak erakusletzat arturik, Negeb'eko basamortuan zear egorantz ibiltzen asi ziran. Umea zala-ta, Dan ezin egikean arin joan, eta ordubete bi igarorik, geldi-aldi bat egin bear izan eben. Antxe bertan iru orduz lo egin, eta umea iratzaririk, aurrera osterara be. Egunsentia barik, zearo nekatuta Dan'ek ezin egikean jarraitu, baita Urian'ek be, lorketa astunagaitik geldialdi bat egitea irrikatzen eban. Goizaldeko argi larroskara ortzian agertu zanean, lerrenak eginda, arri andi baten ondoan jesarri ziran. Umea bereala lo geratu zan, eta luzaro barik nekearen-nekez, armenitarra be.

Ortzi aratzean eguzkia agertu zanean, Urian beroari aurre egiteko gertatu zan. Goizeko orduak igaro-ala, arriak eskintzen eutsen gerizunea urri biurtzen zanez, egur luze bi ta burusi bat az aterpe antzeko kaparra eratu eban, eta onen azpitik etzanda jarri ziran bera ta umea. Onek, baiña, egarriak eraginda, otsean-otsean ur-eske ziarduan, eta Urian'ek errukiturik nai-aiña emon eutsan. Eguberdi-irian palmondo-garau batzuk janda gero, loak artu ebazan illuntzerarte. Orduko, berotasuna arindu izan zan, eta osterara be jan eta edan ondoren, bideari jarraitu eutsoen.

Edandako ura zala-ta Urian'en lorketea arindurik, ibiltea errazagoa zan, baiña noiz arte urak iraungo leuken oldozkunak, kezkatzen eban Urian, basamortuan zear umearen eskuari oratuta, ibilli ebillela. Nekeak akuillaturiko Dan'ek baiña, geldi-aldi

ugariak egitera beartzen eban, eta noizbait, errukiturik, umea lepoan jarrita, ibiltzari jarraitu eutsan. Laster, baiña, nekearen-nekez gelditu bear izan eban, eta aurregunean lez, arri andi baten pean gerizunea aurkiturik, eguna antxe bertan emotea erabagi eban.

Aurregunean lez, bero andiko eguna izan zan, eta burusiaz aterpea atonduta, eskukada bete palmondo-garau ur-txurrutada banaz aldizkatuta, lo egiteko etzanda jarri ziran. Eguna astiro ta neketsua igaro zan, Dan gaixoak otsean-otsean ura eskatzen ebala. Ostera be gautu zan, eta ura gitxitua izanik, gau osoan zear umea lepoan artuta ibilli zan Urian. Barriro be nekez ler eginda, goizaldean oiko geldiunea egifiñik, estu ta larri oartu eban armenitarrak, ozta-ozta eguna igaroteko beste ur geratzen zala zaragian.

Illuntzea asi orduko ura amaitu zan, eta alperriko zaragia bertan bera itzita, Dan arretxikoan jarrita, basamortuan zear ibillaldi neketsuari emon eutsan Urian'ek. Ur-lorketea egin bear ez izateak arintasuna emotsan, baiña orduak igaro-ala, umearen lorra nabari egiten yakon. Baekian armenitarrak, mirari bat jazoko ez ba'litz euren a egingo leukela, eta illuntzea barik gorpu billakatuko litzakezala. Oldozkun onek zirikatuta, ibiltzari erraikion bere oldozkun bakarra Dan'egan ipiñita. Min emoten eutsan ozta-ozta iru urtebeteko izango zan ume gaixoa il zeiten; umeak biarko itxaropena dira, eta itxaropen ori laster galduko zalako oldozkunak atsekabe larri-larria ekarkion. Orretarako aurkitu izan eban mutikoa basamortuko bakartasunean il-agiñean eta itsu...? Eta jasapenik andienaz umeari ikusmena emon ondoren, eta semetzat maite izatera elduta gero, alperrik galduko zan eguzkiak zurututako eskukada azur biurtzeko...?

Oldozkun onek larrituta, etenbarik, gelditzeke, aurrera jarraitzea erabagi eban Urian'ek, indarrak amaitu arte umeari aukera bat emotearren... Noizbait, egunsentiko argi gorritzara agertu zan Itsaso Illa'ren aldetik, norabide ta zentzuna ia galduta, loak artutako umea, alboka egiñez besoetan eroiala. Eta Negeb'eko basamortuan zear ibilte itsu areri erraikion armenitar kementsuak, makaltasun utsaz amiltzeko zorian.

Alako baten, baiña, basamortua argi larroskaraz edertzen asten zanean, zur eta lur eginda gelditu zan. Egia izango ete, ala ispillukeriak eraginda guzur utsa, aurrean ekusana...? Arkaitz-kate baten beekaldean, baratz erraldoiaren antzera, orlegiune eder, atsedengarri, ezoa, erakarpen jarki-eziñaz aurkezten yakon. Izango ete, osterara, bere zentzumen sukartsuek asmatu sasi-ikuskezuna...?

Une aretan Dan itxartu zan, eta egarriak erlats biurturiko abotsaz,

– Aita, aita –besoa luzaturik esan eutsan–, begira or baratz eder-ederra...! Ez dot egundo be olakorik ikusi; egia izango ete...? –

Legorturiko miiñaz berba egin eziñik, ibillera kolokaz, zeru-antzeko bazter orlegi aretarantz abiatu zan Urian, eta atx bien arteko sarbidera jo eban indarren muga ta zorbioturik. Sarbidera eldu agiñean zala, baiña, lurrera jausi zan kordebagneturik. Dan, osterara, aurrera oldarturik didar egiteari emon eutsan, soingain zuri batz jantzitako gizon bat ikusi arte. Oldartu yakon, eta besoa sarbiderantz luzatuz,

– Jauna –oiuka esan eutsan–, zatoz arin baten, nire aita jausi egin da-ta.



Leku aretan lurgin talde bat bizi zan, lanaren-lanez basamortuari obaria ataraten eutsala. Eunurteak ziran Itsaso Illa'ren egoaldera nabatetarren talde bat toki aretan sendiekin kokatu izan zala. Basamortu utsa zan, noizean bein soillik euri jasa lodi baiña laburrak eta bakanak jausten zirala. Toki aren gaiñean, arkaitzek utsune erraldoi bat eratzen eben, egorantz urtenbide estu ta bakarra eskiñiz. Lurgin zangar areik, arri ta bustiñez eraikitako naxa batez itxi eben dalako urtenbidea, eta lenengo euri-jasa zakarra etorri zanean, arkaitzen beera ibaika, ur-biltegi ederra sortu zan. Onen beekaldean, odi bat egokion zipotzaz jarri eben, eta lur agorra bearreko uraz garaštaturik, uzta narroak lortzen ebezan. Orretarako, baiña, antzerik andienaz erreten-sare zabala edatu bear izan eben, arlo guztiak garastatu edo ureztatu aal izateko. Olan ba, guztitariko barazki, leka-garau, ale, eta igaliak jasoten ebezan. Barruti aretako beekaldean, latzin zabal eder baten beiak alatzen ziran, eta inguruko sastrakaren artean auntz-talde ugari-tsua.

Latziñaren beekaldean, erdian kale bat eratuz, etxe-erreskada bi edatzen ziran. Etxeak, eguzkitan legorturiko bustiñezko soiakaz eraikiak ziñan, teillatuak lastozkoak, eta kanpotik kareaz zuriztatuak eguzkiaren beroari aurre egitearren. Bataz beste berrogei etxeko baserria zan, eun eta berrogei biztanlek osotua.

Illazki baten etzanda bere senetara biurtu zanean, alboan adats zuriko agure bat ikusi eban Urian'ek. Bapatean, gomutamena etorri yakon, eta arrenkurak eragindako mintzo irrikatsuaz,

– Umea, umea...! –oiu egin eban– non dago nirekin etorritako mutikotxua...?

– Nasaitu zaitez –txeratsu esan eutsan agureak–, ondo dago-ta. Edaten eta jaten emonda gero, lo baketsuak artuta, or datza atsedean betean.

Au esanik, gelako txoko baten egoan oe bat erakutsi eutsan, eta gero,

– Zu zaitut ardurarik andiena damostana. Sarbidearen ondoan kordebagetuta aurkitu zinduguzan. Gero, ur-txurrutada batzuk nekez edanerazo, eta jarraian oe onetan jarrita, lo geratu zintzazan.

– Egarrri naz, Jauna.

Astirik galtzeke, agureak pitxar bete ur eskiñi eutsan. Egarrria baretu yakonean, otzara bateko opil eta igali batzuk jaten emon eutsazan. Gose-egarrriak baretu yakozanean, Urian'ek,

– Jauna –esan eutsan–, benetan txeratsu erabilli gagizuz. Non gagoz, nor zara zu...?

– Au nabatetarren lurra da, eta Milea deritxan erri onen batzordeko nagusia nozu. Nire izena Gael da.

– Eskerrik asko, Gael. Yahvé'k ordaindu dagitsula, nire ta umearen alde egiña.

– Semea al-do zu ume ori...?

– Ez, baiña semetzat daukat, eta nirea bai'litzan maite dot. Ara...

Dan'en arazoa azaltzen asi yakon, baiña Gael'ek,

– Etzan zaitez –esan eutsan txeratsu–, eta lo indargarria izan ondoren, biar zuen gora-beerak jakiñerazoko daustazuz. Agur, eta anartean ondo lo egin.

Joan zan Gael, eta andik laster loak artuta, Dan'en arnas neurtuak lagunduta, bera be lo atsedengarriak artu eban.

Urrengo egunean armenitarra itxartu zanean, leioan zear argiarekin batean, txorien txintak etorri yakozan, eta aurregunekoa gogoratuz, oetik jagi, eta soingaiñekoa jarrita, lekorera urten zan. Kale bakarretik ibilli ebillela, erriko ikusgarria biurtuta, antza, ikusi eban Dan beste umeek inguratuta. Dan besoetara oldartu yakon armenieraz auxe iñotsala,

– Mutiko orreik ergelak dira. Nik diñotsedana ez dabe ulertzen.

– Oneik, zeu baizen argiak dira, baiña armenieraz ez dakie, eberkeraz egiten dabe-ta.

Izan be, eberkeraren adar edo izkelgi bat erabillen nabatetar areik, eta areitariko mutiko bateri berba egiñez, eberkeraz,

– Aizu, mutiko, non da Gael Jauna...?

Mutikoak etxe bat erakutsirik,

– Or berton bizi da.

Dan'en eskuari eutsita, joan zan erakutsitako etxera, eta atean oles egiñik, Gael berbera ateko zubipean agertu yakon.

– Egunon, Gael –esan eutsan Urian'ek–, nire alde zeuk egiñikoa ez dakit eskertu ete neutsun atzo, baiña gaur nire eifiñera biurtuta, biotz-biotzez esan bear dautsut, ume onek eta biok bizitza zor dautsuegula.

– Arrotzari laguntzea, nabatetarren beiñenatariko agindua dogu. Ez da lenengoz arrotzen bat basamortuko gatxetatik sorosten dogula, baiña ez bedi orretzaz oster a be mintzatu.

Eta gero Urian'en aurpegiari tinko begiratzuz,

– Izan be –jarraitu eban–, atzo baiño obeto emoten dozu gaur. Arin biurtu zara lengora. Orain, baiña, goazen ango zugaitzaren gerizpera, goiz onetako edertasuna gozatzeko, eta bidebatez, zure gora-beerak edestuko daustazuz.

Joan ziran ba, esondaturiko geriztunera, eta basamortuak inguratuta egon arren, leku orlegi ta ezo arek asmatu-eziñeko giro atsegiña eskintzen eban. Basamortuko zakarkeriari oituta, leku areri erion lillura bete-betea oartu eban Urian'ek, iñoiz ez beste izan be. Orduan Gael'ek,

– Esaidazuz zure gora-beerak –eskatu eutsan–, baita zelan eldu zarie gure erri onetara be.

– Ara... Urian armenitarra naz, eta...

Jarraian, bere azken ibillaldien barriak emon eutsazan Urian'ek, eta edeskia amaituta,

– Agiri da –esan eutsan Gael'ek–, azken aldiotan asko jasan dozula, erromatarrek atxillo egin zinduezanetik batez be. Zeure esaeratik, jakintza sakoneko zaitudala esan bearrean naz. Zelan jaritsi dozu ezagutza andi ori...?

– Nire aitagandik. Armeni'ko erregearen onularia izanez gaiñera, izarlari ta zenbakilari ospetsua zan. Van zingiraren ertzean datzan Sarishat uriko gure etxetik, gau arzetan ortziko izar eta izardiak erakutsi oi eustazan, eta izarren egoeratik zein zan urte-aroa baita ordua be. Urian, Sarishat'eko jakintsua esaten eutsoen. Gerkarren ertia sakonki ezagutzen eban, eta berak eraginda, bein baten Atenas'erako bidea artu neban, ango ikusgarriak ezagutzearren. Zoritzarrez, txango aretan erromatarrek baitu, eta arraun-jopu egin ninduen.

– Ankerrak ei'dira erromatarrek.

– Baita aaltsuak be. Menperatzen dabezan iñoren lurraldeak euren jabetasuna egiñez gaiñera, erritarrak jopu egiten dabez. Eurok ondo bizi izateko bear dabezan gaiak, menperatutako errialdeetatik indarrez jaso egiten dabez, Erroma'ko jendekeria alperkeri ta atsegiñetan bizi daiten. Ondasuna ta lizunkeria jainkotzat ederresten dabez, jopu edo otseiñen oiñaze, izerdi, eta atsekabeai esker, euren kaisertza ankerra eraikirik. Ez dabe besterik billatzen euren buruaren atsegiña baiño. Usteldu egin dira, usteldu, eta ustelkeri orretan egunen baten dagokien ordaintza artuko dabe...

– Izugarria da, Urian –eten egin eutsan Gael'ek–, erromatarren aginpidearen opariak izatea. Zorionez, leku basati onetara iño ez dira azartzen.

– Ez. Erromatarrek basamortuko bazterrek ez dabez maite, eta au zuentzat zorion andia da, bestelan arein jopuak billakatuko zintzazen aspaldiitik.

Isillune baten ondoren,

– Aizu, Gael –itaundu eutsan Urian'ek–, zelan deritxoe leku zoragarri oneri...?

– Milea da erri onen izena.

– Zenbat lagun zarie...?

– Eun eta irurogei.

– Eta zeu erri onen agintaria zaitugu...?

– Agintaria baiño, onulari-edo esango neuke. Ogei ta bost urtetik gorako diranen artetik, batzordea ta onen lendakaria autu egiten doguz bost urterako. Erabagiak batzordeak abo batez artzen dauz.

– Eta bat ez zatozanean...?

– Orduan ogi ta urez gela baten itxita, arazoa eztabaidatzen dogu bat etorri arte.  
– Ez dago txarto burutapen ori –irribarrez esan eutsan Urian'ek– Umekeritzat artu daiteke, baiña zuen jakituria adierazoten dauala esango neuke. Erriek olan jokatuکو ba'lebe, zoritxarreko mundu onetan beste kuku batek joko leukela, baietz esango neuke.

Atan-orrëtan eguberdia zan orduko, eta isillune baten ostean,

– Esan, Urian –itaundu eutsan Gael'ek–, zeintzuk asmo dozuz orain...?

– Egun batzuk igarorik, Dan eta biok bizkortuta gero, aberrirakoa egingo dogu.

– Milea'k pozik artuko zindukez aspaldi luze batez. Ez izan iñongo iradurik; ain-beste pairamen jasanda gero, on litzakizue, umeari batez be, bearreko atsedenaldua artu dagizuela, Armeni'rako bidaldia luze dala gogoan arturik batez be. Orain, baiña, otordua izanik, zatoz nire etxera gurekin oiko bazkari bakuna izateko.

Urian eta Dan etxera eroan ebazan Gael'ek, eta nabatetarren nagusia alargun izanik, alaba batek jaten emon eutsen. Txilisten lapikoko gozoa saieskiz apainduta izan eben lenengo, eta gero igaliak. Bazkaria bakuna baiña gozoa azaldu zan. Amaitu ebe-nean, Gael'ek auxe esan eutsan armenitarrari:

– Begira, Urian, emen ordu bitako biagoa izan oi dogu, eguzkiak geien berotzen dauanean, eta gero, arratsaldean, lan egiteari jarraitzen dautsagu illuntzerarte. Orduan, eguneko jarduna amaituta, bakotxa etxera biurtzen da aparia artzeko, eta gero lotara. Egunsentian jagita, gosari ariña izan, eta ortuetara lan egiteko eguberdirarte.

– Erri onetako guztiek lurgintzan diardue...?

– Geienek bai, baiña badira beste jardunai emoten dautsienak. Badoguz arotzak, errementariak, otzaragilleak, argiñak, bustinlariak edo eltzegilleak. Argiñek batez be, garasta-erretenen atontzeari emoten dautsoe. Etxeko lanak egiñez gaiñera, emakumeek erritarrok bear doguzan eunak eioten dabez. Baiña ori dana, zerorrek ikusiko dozu. Zu ta mutikoa utsik dagoan etxe baten kokatuko zarie, zuek besterik erabagi arte. Egunoro, neskatilla batek otorduak atonduko dautsuez, eta emen iraun bitartean, aske izango zarie Milea'ko bazterrak ikertzeko, gure lanbide ta ekanduak ezagutu dagizuezan.

Urian eta Dan'eri emondako etxeak, eskaratzaz gaiñera, lo-gela bi ebazan, bata utsik, eta bestea oe bikoa. Gau aretan, oe banatan lo egiteko etzanda jarri ziranean, Urian'ek mutikoari,

– Aizu, seme, zer deritxazu gure leku barriari...?

– Ederra da, aita, baiña emengoek ez dakie gure berbetea, eta nik ez dot ulertzen mutikoek diñostena.

– Begira, Dan. Zeuk armeniera ikasi dozu, eta emenguok, eberkeraren adar bat darabille. Edozelan be, seme, ez larritu, luzarorako ez gara izango emen-eta.

– Au leku ederra da, aita, eta emen bertan bizi nai izango neuke.

– Joateko garean lurraldera eder-ederra da, eta ez dautso emengoari ezertan zor. Orain lo egizu, ia laster indartzen garean bidegiteari jarraitzeko.

Urrengo egunetan, eta bizkortu bitartean, Urian eta mutikoa Milea ezagutzen asi ziran. Goiko arkaitzetan bildutako urak, erretenen sare baten bidez, solo ta alorretara

eroaten ziran. Erretanak arrizkoak ziran espaloi bereiziaz alkartuta, ura galdu ez zeiten. Arrigarria zan benetan, zelako antzez edatzen zan erreten-sarea ura bearreko tokietara eroatearren. Nabatetarrentzat ura urrearen antzekoa zan, eta eginbide guztiakaz aalegintzen ziran, ur-tanta bat bera be ez galtzeko. Aldi luzearen oar-ikasteaz garastaren ezkutua menperatzen ebezan. Tokia aldapatsu samar izanik, baratz-maillak erabilten ebezan, lurgintzari obaririk andiena atarateko. Mailla orreik arresiz èutsita egozan arlo leun-leunak eratuz. Olan ba, Milea'ko barrutiak mailladi orlegi erraldoia zirudian, nabatetar saiatuek irauteko bear ebezan baiño geiago biltzen ebela. Uztaren enparaua, arrizko ontzi anditan gorde eroien, badaezpadako legorte bateri aurre egiteko.

Naxa bataz itxitako urtegia ederra zan. Onen beekaldean, zipotz bataz ornidutako odi bat egoan, eta zipotzaren erabilteaz, bearreko urketea erretenetan zear isurtzen zan. Eguzkiak berotutako urbiltegiko azala, gabean lurrintzen zan, eta gau-otzak iñontz biurturik inguruko landaretzan kokatzen zan, bearreko ezotasuna emonez. Landaretza onetan, auntz-talde ugaria alatzan zan, Milea'ko biztanleai bearreko esnea emonez.

Lurgin areik zoriontsuak ziran, euren arteko auzi gitxi sortzen zala, eta sortzekotan, batzordeak epaitzen eban, onen eritxia danek ontzat emoten ebela. Etxe bakotxean sendi bana kokatzen zan, eta soloetan bildutakoa sendi bakotxaren kopuruaren arauz banatzen zan, alkartean eben jardunari begiratu barik. Jaungoikozaleak ziran, eta arametar jatorrikoa izanik, Jehova siñisten eben; au dala-ta, Larunbata jaieguna eben, bibliaren zati bat irakurten oi ebela, eta gero euron dantza ta abestiai emotsien. Milea'ko goikaldean, nekostakaz inguraturiko obitegi txiki ta apaiña egoan, erretenen uren suzmurrak eta txorien txintak edertuta. Zugaitzak dagozan tokietan txoriak ez dira peitzen, eta Milea'n naikoa igaliondo izanik, txoriek aren baten bazterrak alaitzen ebezan.

Urian eta mutikoa etorri ziranetik amar bat egun igarota, armenitarrak Gael'egana jo, eta auxe esan eutsan:

– Jauna, badira amar egun-edo nire semea ta biok zuen zaintza txeratsupean artu gaitzazuela, eta artutako atsedinari esker lengora biurtuta, garaia da bidegiteari jarraitu dagiogun

– Zergaitik orren iraduz gure Milea'tik joateko...?

– Ara, Gael maite ori. Zuek lurrari nekez irabazitakotik, alperkeri utsean mutikoa ta biok bizi gara, eta ez deritxat ondo orreri. Onezaz gaiñera, badira lau urte aberria itzi nebanetik, eta garaia da niretarrakana biurtu naiten. Izan be, ez dakit etxeakoak ondiño-karren bizirik izango ete...

Une batez Gael oldozkor geratu zan, eta gero eskua Urian'en sorbaldaren gaiñean ipiñita,

– Entzun ondo auxe, Urian –esan èutsan arraiki–. Aspaldi onetan amaika ardura emon dautsat asmo bateri, eta ain zuzen be, atzo gure batzordeak erabillitako arazoa da...

Isildu zan une batez, eta gero Urian aurrez-aurre begizaturik,

– Gizon jakintsua zarean aldetik, Mileatarrari mezede andia egingo zeunskie, zure ezagutzatik zerbait emonez. Dakizunez, amabi urteak arte gure neskato-mutikoek ez

dabe lanik egiten, euren aukeran bizi dirala jolasteari emonda. Au dala-ta, adin orretako neska-mutikoak ogei bat dirala gogoan arturik, zeuk gura izatekotan, zure zaintzapean ikastola bat sortuko genduke, eta olan zenbakiztia ta lurriztia ikasiko leukiez, eta ikasitakoak erretengintza, lurgintzan eta beste lanetan laguntza andikoa litzakiez. Neskatok, ostera, euren eungintzan marrazkiztia erabiliko leukie, eta gai izango be, lanerako tramankulu obeak asmatzeko. Onezaz gaiñera, eskolatuak izanik, neskato-mutikoak gai izango litzakez biblia-zatiak eta beste gaiak irakurteko.

Gael isildu zanean, Urian'ek gogoeta sakon bateri emon eutsan, nabatetarraren esondapena ausnartuz. Armenitarraren zalantza ikustean, Gael'ek,

– Entzun auxe ondo, Urian –esan eutsan–, agiri da aberri-miñak dei egiten dautsula, baiña uste al-dozu egokia danik ozta-ozta lau urteko dan mutiko bateri, Armeni'raiñoko bide luze, zailla, eta arriskutsua jasan-erazotea...? Basamortuan baita mendietan zear ibilliko zarien azken bidaldian, lor eta neke andiak jasango dozuez, onein artean bide-lapurren erasoak aipatu barik. Nik ba, auxe esondatuko neuskizu: itxaron urtebete batzuk Dan azi arte, eta orduan garai egokia izango yatzue Armeni'rakoa egiteko.

Urian'ek isil iraun eban une batzuk Gael'ek esanikoa ausnartuz, eta gero,

– Zuzen zagoz –esan eutsan–, eta eskertzen dautsut emoniko burubidea. Zuekin geratuko gara mutikoa ta biok, eta gero... gerokoak esango.

Nabatetarraren eskintzea onartzean, ez ekian Urian'ek euren egotaldiak amabost urte iraungo leukenik... Baiña laga dagigun arazo au oraingoz.

Andik egun batzutara, etxe uts baten Milea'ko ikastola egokitu zan. Ogei idaz-maitxu egokietan aulkiekin, eta Urian'en idazmaiaren atzean idaztoltza zabala, neska-mutikoai bearreko azalpenak emoteko. Ikastaldia goizean iru orduko, eta arratsaldean bitakoa zan, eguberdian lau ordubeteko etenaldia egiñez, berorik andiena zanean.

Asiera batetik Dan ikastola barriko ikasle izan zan, eta mutiko argia izanik, sei urteko billakatu zanean baekian irakurten, eta beste urtebetea igarorik, idazten be. Laster oartu zan armenitarra, bere semeordea adimen urtenekoa zala, eta egunak joan egunak etorri, ikaslerik argiena billakatu zan.

Urian gain-gaiñeko irakaslea azaldu zan, eta jakintsua izanez gaiñera, oar-ikaspen andia ebanez, bere azalpenak amaika jazoeraz eta atzerritar errien oituraz aberastuak izan oi ziran, ikastaldia guztiz atsegiña biurtzen zala.

Urteak gora-beera andi barik igaroten ziran, eta Dan amabi urteko zanean, Milea'ko oitureari jarraituz, lan egiteari emon bear izan eutsan. Ereti aretan errementari bat bear zan, eta Gael'ek jardun au eskiñi eutsanean, beste barik onartu eban mutillak, lan-mota au atsegin yakon-eta. Olan ba, errementari zaar eta saiatu baten irakaskintzapean, jardun barriari emon eutsan Dan'ek.

Orduko, zenbakiztia ta neurritzia polito menperatzen ebazan gure mutillak, eta luzaro barik, errementaritzan ikasi zeitekeana ikasten asi zan, Merab eritxan errementari nagusiaren agintzapean. Lan-mota onek iñarkun gogorra eskatzen eban, eta au dala-ta, mutillaren indarra garapen egokia artzen asi zan, arintasun eta txairotasunean galdu barik.

Asieran emondako etxean Urian'ekin bizi izaten zan, eta urteak igaro-ala, bion arteko maitasun-lokarria anditzen joian. Izan be, armenitarra aitatzat eban Dan'ek, maitasun eta begirunerik andienaz inguratzen eba. Gauzen ezaguera artzen asi zanetik, ez eban inguruan beste iñor ezagutu Urian baiño, eta urteak igaro-ala, bere maitasun semekioak ez eban mugarik ezagutzen. Pozik ikusten eban Urian'ek beraganako mutillaren eraspén eta maitasun bizia, eta bere benetako semea izan ba'litz, ez eban maitegorik izango. Egunen baten Dan Armeni'ra eroango leuke, eta an, bere sendiari semetzat aurkeztuko leuskio. Mutil azkar eta urtena izanik, lurralde aretan Milea'n baiño ereti obeak izango leukez, eta bere senitartekoak goi-maillakoak izanik, ez litzakioz aukerarik uts egingo mutillari, bizitzaren bidean gora andia egiteko. Urte batzuk areago, eta bere aberrira joango litzakez. Izan be, bazan garaia dalako bidegiteari emoteko, baiña oarpen ezkutu batek txangoa geroratzen eutsan. Zeatz-zeatz oartu ez arren be, Urian Milea'ra lotzen eban lokarria, erri onetako jendeari eutsan eraspén zan, berak uste izaten eban baiño indartsuagoa, izan be. Eta gaiñera, ez egoan irakaskintzan ordeztuko leukenik. Augaitik ba, bidegitea geroratzen eban.

Mutillak ikastaldia amaitu ebanetik, egunoroko txolartectan Urian'ek mutillari irakasten jarraitu eutsan, eta Negeb'eko basamortu-zati aretan eguratsa garbi-garbia izanik, gabaz izarrak gardentasun betean ikusten ziran, eta ereti au ustiatuz, izarriztia irakatsi oi eutsan. Etxe-aurrean jesarrita, izarren eta izardien izenak irakasten eutsazan, baita zelan ezagutu zeitekean leku batetik besterako zuzenbidea ta ordua be, izarren egoera egiztatzean.

Armeni'tzaz sarri askotan berba egiten eban Urian'ek, aren edestia, oiturak, mendiak, ibaiak etabar mutillari jakiñerazoz. Onezaz gaiñera, garai aretan ezagututako ludiaren barri zeatzak emotsazan. Bein baten, Danek,

– Aizu, aita –itaundu eutsan–, nongoa naz, zein da nire aberria...?

Larunbateko arratsalde izanik, oi eben lez, urbiltegiko ertzean zugazño baten gerizpean izketan ziarduen. Isillune baten ostean, Urian'ek auxe esan eutsan:

– Egunen baten aduak edo patuak lagunduta ezagutuko dozu. Baten batek Masada arkaitzetik ez urrun laga zinduzan itsu zintzazalakoan. Agidanez, zure errikideek akatsdun umeak erailten dabez oztupoak diralakoan. Ori basakeri itzela da, jaiotako guztiak arima bat az orrituak baigara, eta onek soin-akats guztiak ezerezten ditu, arime goreneko gauza da-ta.

– Aita, izugarria da ekandu ori.

– Oitura basati ori aspalditiko gauza da. Espartatarrak, Peloponeso lurraldean bizi ziran gerkar gudakoiek oitura ori ei'eben, eta dirudianeaz, zure errikideek oitura zital ori darabille.

– Nortzuk izango dira nire errikideak...?

– Batek-badaki...! Zure arazo ori askotan erabilli dot gogoan, eta gauzak alkar lotuz, eta Masada'ko goiko lautadan Zelotetarrak edo Zelatariak kokatzen diran ezketiño, ez da arrigarria talde orretakoa zaitezunik. Olan ba'litz, zu judutarra zara, bai, erromatar buztarripean jasaten dauan otseintzatik, Palestina jaregingo dauan Mesiasen begira dagoan enda orretakoa...

– Aizu, aita –eten egin eutsan Dan'ek–, zein da Mesias ori...?  
 – Jaungoikoak Berak bidalitakoa, Israel aske ta andia egiteko etorriko dana, Da-bid andiaren leiñukoa, igarleek adierazo ebenez.  
 – Noiz etorriko da gure Mesias...?  
 – Noiz etorriko dan...? Etorri da onezkero, eta Palestina'ko lekuren baten bere garaiaren begira egongo da, urrean...  
 – Zelan jakin dagikezu ori, aita, Palestina'tik urrun bizi izan zarean orrek...?  
 Berekautan bilduta, une batez isillik iraun eban Urian'ek, aspaldiz jazotako gauza bat gomutara ekarrela, eta gero, arratsbeeran eguzkia Negeb'eko basamorturantz makurtzen zala, onetaraxe asi zan:

– Bein baten, mutikoa nintzala, aitak dei egin eta auxe esan eustan: “Gauza arri-garria jazo yat, seme, eta auxe alegia: gaur iru egun ortzia arakutzen niarduala, lorratz ederreko izar bat sortaldetik agertu yat sarkalderantz abiatuz, eta bart, Van aintziraren gainean une batez geldi-geldi kokatu ondoren, astiro ta yaukal sarkalderantz abiatu da. Nik ez dakit zer izango, baiña nire naimena baiño indartsuagoa dan zerbaitek aren atzetik eragiten nau, eta illundu daitenean abiatuko naz. Bitartean, eta ni biurtu arte, etxeko arazoak erabilliz gainera, etxekoak, ama batez be, zainduko dozuz.

Illundu baiño ez, izar eder-ederra agertu zan ostera be, eta aitak kutxatit bete mirra eroiala, ganbelu baten ixtaklok jarri, eta izar yaukalaren atzetik abiatu zan. Urtebete bat inguru iraun eban aitaren bidaldiak. Illunabar baten, Van aintzira-gainean genduan etxeko sapaillotik egunoro oi nebanez urrutirantz so egiten nebala, argi-itzaletan artean ganbelu-gaineko aitaren irudia ikusi neban. Arrapalada baten joan nintzakion, eta estu-estu alkar besarkaturik, etxera sartu gintzazan. Oiko garbiketea egin ondoren, eta amak atondutako aparti gozua artuta gero, aitak bidegitearen gora-beerak onetaraxe emon euskuzan:

– “Zuek dakizuen izarraren jarraian ibilli ta ibilli, Mesopotami'ko lurraldera eldu nintzan. Eufrates ibai-ertzeko Dura izeneko urian, nire adiskide Gaspar izarlariaren etxean iru egunez kokatu nintzan, bearreko atsedendia artzeko. Etxe aretan bere nubitari adiskide ta izarlari Baltasar ezagutu neban, Abisinia'tik etorri izan zana bere adiskidearekin jakintza-gaien arremonak izatearren. Izarrarena edestu neutsenean, ganbarako ikustegira joanda, izarraren edertasuna ikustean, aren jarraian joatea abo batez erabagi genduan. Iru atsedendegunak igarorik, izarraren atzetik asi gintzazan, eta ari beti jarraituz, egunak joan egunak etorri, Perea lurraldetik Judea'ra sartu gintzazan. Jerusalem'en, Eroses erregeari izarrarena esan geuntsan, eta orduan biurtzean zertan zan arazoa berari esateko eskatu euskun. Baietz esan geuntsan, eta beti izarraren atzetik, gau baten Belen izeneko errixkara elduta, izarra ortzian beera asi, eta noizbait, estalpe baten goikaldean gelditu zan...

“Biotz-ikara batek artuta, ganbeluetatik jatsi, eta sartu gintzazan estalpera. Gura-soek inguratuta, askatxu baten, ames egin ezin daiteken seiñik ederrena ikusi genduan. Geuk baiño indartsuagoa zan eragin batek belauniko jarri ginduzan, eta barruko zauskada esaneziñak aginduta, Mesias'en aurrean gengozala oartu gintzazan. Mesopotami'-

tik Judea'rako bidaldian, etenbarik guztiai auxe itauntzen geuntsen: Non dago judutarrren errege jaio-barria...? Bere izarraren atzetik urrundik gatoz-eta. Orra or ba, billaturikoa, Belen'eko estalpe aretan idoro izan genduala...!

“Ez dakit zein luzaro iraun genduan aurrari gur egiñez. Gero, amari genkarrezan eskuerakutsiak emon geuntsazan. Asiera baten ez euskuzan artu gura, baiña orduan bere senarrak: Artu egizuz, Miren –esan eutsan–, orreik seiñaren jainkotasuna adierazoten dabe-ta. Bai, Yoseba –erantzun eutsan Miren'ek– zuzen zagoz. Orduan, gure urte, intsentsu, eta mirra, amaren oiñetan jarri genduzan, eta jarraian, egunsentirarte aurra gurtu genduan. Andik urteteko zorian, seiñak irribarrez begiztatu ginduzan, eta zorionez il-agiñean oartu nintzan. Miren'ek eta Yoseba'k ateraiño lagundu euskuen, eta orduan, goizabarraren argipean Mesias'en amaren aurpegia argi-argi ikusi aal izan neban. Ezin dagiketsuet azaldu zelakoa zan, baiña nik neuk egundo ez ikusiriko emakumerik ederrena zan, beragan zerbait zerutarraren antzekoa igarten yakola... eta ordutik gogobiotzean irarrita daroadaz bera ta aurraren begi argitsuak. Belen'dik urtetean, oar bakanak eraginda, Eroses erregeagana biurtu-bearrean, ekialderantz jo genduan, eta amaika gora-beerak jasanda gero, emen nozue barriro etxean”

– Auxe da, Dan maite ori, ama ta bioi aitak edestu euskuana, Mesias ikustetik biurtu zanean. Arrezkero, sarri-askotan begiak zerura jasota, Aren erreñua Armenia'n zear edatu zeiten eskatzen eban aitak.

Isildu zan Urian une batez, eta gero,

– Bai, Dan –esan eutsan–, Mesias ori Palestina'ko lekuren baten egongo da onezkero bere garaiaren begira. Egunen baten aurkituko ba'zendu, bertan-bera dana lagata, jarraitu egiozu.

– Zelan idoroko dot, baiña, egunen baten zurekin Armeni'ra ba'noa...?

– Ez dakit, baiña, aberrira biurtuko ete nazan... Izan be, emengo lagunakana gero ta erakarriago oartzen naz. Milea'ko nabatetarrak nire bearrean aurkitzen dira, eta ezin dagikiet utsik egin, bizitza zor dautsegula gogora yatordanean batez be.

– Eta Mesias ori zertarako etorriko da...?

– Aita, jakintsua izanez gainera, barru-bizitza gorenakoa zan, eta bere eritxiz, mundua salbatzera etorriko zan.

Oldoiztune baten ondoren, Dan'ek barriro,

– Onezkero, non egongo da Mesias ori...? Ezagutuko al-dot egunen baten...? Olan ba'litz, bertan-bera dana lagata, jarraituko neuskio, bai orixe...!

Armenitarraren aurpegi atsegiñean irribarre txeratsua marraztu zan Dan'en berbok entzutean. Izan be, ezin egikean geiago maite izan, bere odoleko semea izan ba'litz be. Sarri askotan mutillaren gaizkapen miraritsua gogora etorkion, eta bere buruari iñotsan ori dana jazo izan zala, lekuren baten idatzita egoalako Dan'en aintzarako.

Astiro baiña geldieziña, aldiaren urratsak bajoiazan aurrera. Orduko, Dan mutil indartsu ta atsegiña izanez gainera, Urian'en irakaskintzapean, aldi areitan gazte bat izan zeiteken beste jakintsua zan; onezaz gainera, doai ederrakaz beteriko arima garbi ta urenekoa zan. Soñari dagozkionetan, indartsu ta txairoa. Errementaritz, indarra es-

katzen dauan jarduna da, eta ekiñaren-ekiñez, Mileako gazterik zimel eta indartsuena zan. Begi illun andiek, judutar itxurako suur meeak, ezpan irribarretsuek, eta okotz irmoak, egundoko erakarpena emotsoen. Basamortuko ondar-gaiñean ibilli ebillela, bazirudian txairotasunak egoak emotsazala. Izan be, soifñez eta gogoz gizakirik ederrenetarikoa zan.

Urteak igaro-ala, Urian'ek ez eutsan Armeni'tzaz lengo beste esaten, eta bazirudian, urteen bidean ara biurtzeko gogo bizia epeldu izan yakola. Edozelan be, armenitarra zoriontsua oartzen zan nabatetarren Milea'n, eta Dan bere ondoan izan bitartean, ez eban besterik nai izaten. Bazan, baiña; beste zio bat leku aretara lotzen ebana, eta auxe alegia: bearrekoa zala Mileatarren jakintza-mailla goratzeko.

Onezaz bestalde, egunen baten ezagutzen ez eban Armeni'ra joateak ez eban lengo beste zirikatzen Dan. Zantzuen arauz, judutarra zan, zelataria ain zuzen be; egunen baten bere jatorriaren ezkutukia estalgetuko leuke, eta orduan zelako zuzenbidea emon bizitzeari erabagiko be.

Egun aretan, Ben Yaik, arabitar bide-lapurra, Idumea'ko Hebron erritik, egorantz, Akab'eko itsas-kolkorantz abiatzen zan. Azken uri onetara eltzeko iru bat astebete erabiliko leukez, eta bere ganbeluen jarraigoarekin iradu barik joian. Bidegiterako bearrezko jan-edariak Hebron'en erosirik, eta erriko sarreran egoan arraskan ganbeluasi asetu arte edaten emon ondoren, bere menpean ziarduen amar bidelapurren taldearekin goiz aretan urtenda, Idumea'ko lurralde legorretik joian. Ondo be ondo ezagutzen eban Ben Yaik'ek Negeb'eko basamortuko baratz, bide-gurutz, eta merkatariek erabilten ebezan bide ta zidorrak, bai Ejipto'tik Arabi'ra, bai Fenizi'tik Itsaso Gorri'ra.

Masada'ko mulko erraldoia igaro ta egun bi geroago, ezustean, ezker aldean, baratz orlegi, erakarkorra, agertu yakon. Axe izango zan, urrean, nabatetarren lurralde jorria, lanaren-lanez, eta urbiltegi bateri esker, basamortuko zati antzu bat baratz orlegi, ezoa biurtuta. Au gogora ekartean, Ben Yaik'en ezpanetan irriño isekaria agertu zan. Izan be, batzuk lan egiten eben, eta bestetzuk, bera lako zuurrenak alegia, arein lepotik bizi izaten ziran, itzetik-ortzera ifloren mozkiñak bereganatuz.

Arrats-beeran, basamortuan itzalak luzatzen ziran garaian, nabatetarrai ikertaldi bat egitea erabagi eban bidelapurrak, eta menpekoai ibillerea arintzeko agindu eutsen. Zirikatutako ganbeluak luzaro barik, Milea'ko sarbidea mugatzen eben atx bien artean igarorik, laster ziran errian. Bake ta atsegin andia erion bazter zoragarriari, eta kale-ertzean egoan arraska baten ondoan geldituta, basamortuko lapurra jatsi, eta,

– Eupppp...! –abots durundutsuz oiui egin eban–.

Deiari erantzunez, une aretan Gael kaleko alde batetik agertu, eta andik laster, alboan egoan ikastolako atadian Urian be azaldu zan. Negeb'eko bide-lapuraren taldea

ikusitako ebanean, zarrastada andipean, Milea'ko nagusia oartu zan, talde arek gauza onik ez lekarkiela, baiña oi eban itxura txeratsuz urreraturik,

– Zer nai dozue, Jaunok...? –itaundu eutsen–.

– Aizu, agure –zakar erantzun eutsan Ben Yaik'ek–, gure ganbeluentzat ura nai dogu, eta bidebatez auntz batzuk eroango doguz.

– Zuen zamariasi edaten emon dagikiezue asetu arte orko arraskan. Auntzai buruz, baiña, asko ez doguzala esan bear dautsut, eta asko ez izanik be, baten batzuk emongo dautsueguz. Esan bear dautsut, baiña, auntzen salsaria, bost denariokoa dala buruko.

– Ez al-deritxazu larregi orreri...? Ez da legezkoa basamortuan zear dabiltzen lagunai olako geiegikeria eskatzea. Dana-dala, ekarri egiskuzuz ogei bat.

– Larregi da ori, Jauna. Ezin dagiketsueguz amabost baiño saldu, aspaldi onetan auntzetan urri gabiltz-eta.

Orduko, eguzkia basamortuko ondarretara makurtzen zan gero ta ariñago, eta asti galtzerik nai ez eban bidelapurrak,

– Ondo da, agure ori –esan eutsan–, ekazuz aalik ariñen amabost auntzok, eta ez bedi geiagorik esan.

Alkarrizketea entzuten eban Urian'ek, ikastolako mutiko biri, alboko latzin baten bazkatzen ziarduen amabost auntz ekarteko agindu eutsen. Ez ekian zergaitik, baiña talde aren itxureak kezkatzen eban, eta asieratik arrenkura bizipean oartzen zan. Laster biurtu ziran mutikoak amabost auntz ebarrezala, eta Ben Yaik'eri eskuraturik,

– Irurogei ta amabost denari da auntz-talde onen balioa.

Bitartean, Milea'ko lagun batzuk ondoratu izan ziran, eta arrotzen jarraigoa ikusnaiez begiztatzen eben.

– Ze irurogei ta amabost denari ta denari oste...! –oiuka esan eutsan Ben Yaik'ek suminduta–. Lapur asko ikusia dot nire ibillaldietan zear, baiña zeu lakorik egundo be ez.

Jarraian, bere lapurkideai berba egiñez,

– Goazen, lagunok –agindu eutsen–, alde egin dagigun lapur-zulo onetatik, ase nago-ta. Irurogei ta amabost denari auntz ezkabitsu oneikaitik eskatu bear be...!

Eta ganbeluen artean auntzak inguratuta, irri ta barre-santzoka, lapurtaldea urten-biderantz abiatu zan. Atx bien artean, baiña, aurrean jarri yakon Gael, eta sumiñez irakiten,

– Ez orixe...! –didar egin eutsen–. Geigi.ba'deritxazue, ez eroan eta kitto, ez zaituegu orretara beartzen-eta...

Egoera larriaz oartu izan zan armenitarra, baiña, urreratu yakon, eta letorkieken galtzoria somatzean,

– Aizu, Gael –mintzo bareaz esan eutsan–, joan daitezela beste barik. Auntzok ez dabe iñongo burrukarik balio, eta areago, gu iskillu barik gagozanean. Arrotz orreik ikusi baiño ez da bear, lapur iltzailleak dirala oartzeko. Laga egizuz bakean, eta joan daitezela aalik ariñen.

– Zuzen zagoz Urian.

Eta jarraian Ben Yaik'eri mintzatuz,

– Joan zaiteze auztekin, eta ez biurtu ona sekulan.

– Eskerrik asko zure emokaria dala-ta –mintzo ziñosoz erantzun eutsan bidelapurak–. Edozelan be, beste urrengo baten ikertzera etorriko gaiatzuz.

Eta bere menpekoai aginkor,

– Goazen, lagunok, lapur-zulo onetatik.

Urtenbiderantz abiatzen zirala, baiña, Yaina, Gael'en amasei urteko billoba ederra ikustean, Ben Yaik urreratu yakon, eta besaburuetatik artuta, teinkada bat az gabeluaren gainean jarri eban, mintzo sasi-txeratsuz inotsala,

– Zatoz, nire usotxu maite ori. Laga dagigun basabazter ustel au, Ben Yaik'en anditasun eta maitasuna ezagutu dagizuzan..

Une aretan, baiña, Urian'ek zapart egin, eta gabeluaren abo-ugalari eutsita,

– Laga egizu neskatillea –sumiñez irakiten esan eutsan–. Naikoa bedi auztekin duan eroatea. Joan zaiteze beste kalterik egin bage.

Asarre gorrian, Ben Yaik'ek ezpatea jaso eban, eta,

– Askatu egizu abo-ugal ori –karrasika esan eutsan–, bestelan damu izango dozu. Ez al dakizu, Ben Yaik, basamortuko jeke bildurbakoa nazanik...?

– Indarkeri utsaz iskillobako jendea zapaltzeko gai zanean ori, bidelapurra baiña ez zara. Laga egizu neskatillea, eta joan zaiteze.

Basamortuko ondartzarantz makurtzen zan eguzki gorritzak, izpi odoltsua erauzi eutsan ezpateari, tximista baizen azkar Urian'en burua jo ebanean. Aurpegian beera odola borborka eriola, oi u erlatsa jaurti, eta armenitarra lurrean etzanda geratu zan. Une aretan gabeluak zirikatuta, lapurtaldea urrundu zan atzean itzitako autso-odeiak ezkutaturik.

Didar baten Gael Urian'egana oldartu, eta beste lagunekin etxera eroanda, zauritza aztertuta eutsan. Urian'ek ez eban bizi-zantzurik erakusten, eta orduan Gael'ek alboko gazte bateri,

– Joan zaitez arrapalada baten –agindu eutsan– errementegian diarduan Dan'egana, eta esaiozu lenbailen etorteko.

Mezua artu ebanean bertan-bera dana itzita, estu ta larri Dan ariñeketan etxera abiatu zan. Sartu baiña ez, Urian oean etzanda ikusi eban, eta une aretan begiak itxiten eutsazala, negar-zotinka Gael'ek mutilla besarkatu eban auxe inotsala:

– Berandu da onezkero, zure aita, nabatetarren lagun eta ongillerik onena il yaku, Dan. Bera lako gizakiak ez leukie inoiz il bear, baiña Yahvé'ren naia olan izan da. Izarretan idatzita egoan, eta mingarria izanik be, lengora biurtzerik ez, Dan maite ori.

Eta aurpegia eskuen artean, negarrez aulki baten gainean jesarri zan. Dan, zoratzeko zorian negar-antuluakaz Urian'en gorpua buztiten ebala, bein eta barrero besarkatzen eban “aita” “aita” biotz urratuaz dei egiten eutsala. Luzaro samar bere oiñaze biziari emon eutsan, eta noizbait jagita, Gael'egana joan, eta auxe itaundu eutsan:

– Bere adiskiderik kutunena izan zanean orrek, esaidazu, airen, zelan il dan.

Jarraian, Gael'ek jazotakoaren gora-beera zeatzak emon eutsazan, eta amaitu ebanean,

– Aizu, Gael –itaundu eutsan barrero mutillak–, zelangoa zan aitaren eraillea...?

– Zelakoa zan...? Ara... gizon indartsu ta garaia. Buru-oialaren pean, gaba baizen baltza dan bizar batek aurpegia estaltzen dautso. Txingar alakoak begiak dizdir egiten yakoz gaitzakerizko leiñuruz. Ezpaibarik, gizon oker eta odolzalea dogu... Ai ene, ona etorri ez ba'litiz...

Eta negar-zotiñek astinduta, isildu zan Milea'ko nagusia. Mutilla aitaren ondoan jesarri zan, eta aurpegia eskuen artean estalduta, etenbako negar etsi bateri emon eutsan. Orduko, gautu izan zan, eta noizbait, Gael'ek krisaillu bi piztu ebazan, eta nabatetarren oitureari jarraituz, bat oe-buruan eta bestea oiñen ondoan jarrita, David'en salmo batzuk mintzo unkituaz esaten asi zan. Dan'ek, baiña ez eutsen jaramonik egiten, eta banan-banan, oroimena eltzen yakonerañio, gogora ekarri ebazan bere aitorderekin bizi izandako gora-beera guztiak. Baekian Urian ez zala bere aita, baiña bizi guztia bete izan eutsan, eta semerik maitekorrenak ez eban bere aita, Dan'ek Urian maite eban beste maite izango.

Eta banan-banan, gizon maite-maite arekin begimena emon eutsanetik bizi izandako gora-beera guztiak gomutara etorri yakozan, eta areganako maitasun aiña, bere eraillearekiko gorroto itzungi-eziña oartzean, gogoan egitasmo sendoa sortzen asi yakon,

Egungentia barik, Gael'ek salmo-esateari eten egin eutsan, eta,

– Entzun, Dan –maitetsu esan eutsan–, lo egizu, onezkero nekatuta egongo zara-ta beila luze onen ostean.

– Ez, Gael, azken orduok aitarekin emon gura dodaz.

Goizaldean, mutillak gogorik izan ez arren be, Milea'ko nagusiak esne ta opil batzuk jan-erazo eutsazan, eta gero, erritar guztiak Urian'en etxera etorrita, eguzkia ekialdeko arkaitzetatik jagiten zanean, Urian'en gorpua izara baten bilduta, obitegira eroan eban, eta gerturik egoan zuloan jarrita, Gael'ek azken salmoak oguzten ebazala, Urian lurperatu izan zan. Guztiak joan ziranen, obi-ondoan jesarrita, Dan'ek malko mingotsakaz busti eban, eta gero, barruko oiñazeak abailduta, lur-gaiñean bere azken musua ipiñi ondoren, etxera biurtu zan.

Gael begira eban eldu zanean, eta zerbait nai-ta-ez jan-erazorik, oeratzeko beartu eban, eta Dan loak artuta egoanean, isillik urten zan.

Arratsalde aretako lenengo orduetan itxartuta, astirik galtzeke Dan erriko goikaldean egoan errementegira joan, eta sutegia piztu ondoren, burdin-zati baten billa asi zan. Laster idoro eban aukerakoa, eta sutan ipiñita gero, ingude-gaiñeko maillukada indartsukaz, bere biziko sastakai zorrotza atondu eban. Amaitu orduko arrats-beera zan, eta iskilloa soiñekopean eroiala, Gael'en etxera jo eban. Atean egoan nabatetarren nagusiak gaztea ikustean,

– Jesarri zaitez nire alboan –txeratsu esan eutsan–, bear zaitut-eta. Gaur biotza larri yabilt. Nire adiskiderik onena galduz gaiñera, maite-maite dodan Yaina nire billoba ona ta maitagarria, bidelapur zital batek ostu egin daust, eriotza baiña izugarriagoa dan biziara bat emoteko.

Agure zintzoaren aurpegiaren beera malkoak eriozan. Zauskada itzelak artuta, gazteak begiztatu eban, eta eskua aren besaburuan jarrita,

– Agur, Gael maite ori –esan eutsan–, banoa...

– Nora, baiña...?

– Atzo ordu onetan ganbelu-talde batek atzean itzitako ondar-odei baten billa.

Gael'ek, baiña ez eutsan ulertu, eta orduan barriro,

– Nora zoaz, baiña, Dan maite ori...?

– Bidelapur baten billa.

Milea'ko nagusiak arrenkuraz begiztatu eban, eta,

– Aren atzetik bazoaz, eroan zurekin laguntalde bat. Zeozer egiteko zeu bakarrik ez zara gauza izango-ta.

– Ez, Gael, egiteko au neronek bakarrik burutu bear dot. Laguntalde bat oztopo izango litzakit. Oba neuretara jokatu. Agur, nabatetarren nagusi zintzo ta on ori...!

– Zoaz ondo, Dan maitia. Gogoan izango zaitut etenbarik, eta Jahve'ri otoi egingo dautsat, onik ekarri zagizan atzera.

– Biurtuko naz. Agur, Gael.

Gero ta illunago biurtzen asten zan basamortu amaibakoan zear, Dan'en irudi txairoa egorantz ezabatu zan. Ibili baiño, aren soin lerdena bazirudian area ukutu barrik lerratzen zala. Ondartzan, Ben Yaik'en jarraigoen aztarnak marrazten ziran argi ta garden. Ganbeluen apatxen artean, auntzen txikiagoak bereizten ziran. Egun oso bateko aldea kentzen eutsen bidelapurrek, baiña auntzen ibillera nagia zala-ta, baekian Dan'ek atzemongo leukezala.

Eta olan, etenbarik ibili ebillela, gabeko ordu isillak alkarren jarraian igaro ziran, eta noizbait, ezkeraldetik, eguzkiaren gupil gorritzea arkaitzen gaiñetik jagi zan, basamortua gorrimiñez laztanduz. Egunsentiaren agerpenaz gazteak ez eban ibillerea lazotu gura, eta beti ganbelu-auntzen aztarnen atzetik, tinko ta azkar egorantz abiatzen zan. Eguberdian, eguzkiak basamortua kiskaltzen ebanean, arkaitz baten gerizpean babestu zan, eta ur-zurrutakaz lagundutako palmondo-garau batzuk iruntsi ondoren, etzanda jarri, eta bidegite luzeak eragindako lo-gureak artuta, begiak batu ebazan.

Gabeko lenengo itzalekin batean, ozkirriak iratzarri eban, eta zuzpertzuta, bidegiteari ekin eutsan osterata be. Baiñotsan barruko zerbaitek gau aretan bertan lapurtaldea atzemongo leukela, eta begiak aurrerantz zorrotzuz, jazarpenari jarraitu eutsan. Izarrek gaberdia iragarten ebanean, muru txiki bat zearkatzean, une batez gelditu zan, eta begi zorrotzakaz zabaldua aztertu eban... Bai, an kilometro biko bitartera bidelapurren karpardia argi-argi islatzen zan. Urreratzean, bost kapar zirala egiztatu aal izan eban, andi bat beste lauek inguratuta. Iretargi zuritan, kaparrek zidarrezkoak zirudien, basamortuko izar erraldoiak bai'litzazan. Saiets baten, zazpi ganbeluak etzanda ikusi zeitekezan, eta zeozer urrutiago or-emenka agotzaren artean bazkatzen, auntztaldea.

Eun bat metroko bitartera, Dan gelditu zan, eta ardurarik andienaz lekua begiz aztertu eban. Aitu baten, ez egoan zaindaririk, baiña bada-ezpadan sabel-gaiñean narrazka bertaratu zan. Une batez gelditu, bere egitasmoa zeazteko, eta gero astiro-astiro na-

razka, kapar nagusira urreratu zan. Eunaren zear argi baten dizdira irazten zan, eta geiago barik kaparraren azpikaldeko egala jaso eban...

Kaiñaberazko maitxu baten gaiñean, krisailluaren dizdirak barruko argitzen eban, eta mai-ondoko aulki baten gaiñean, arabitar itxurako bizardun batek, kutxatilla baten bitxiak zekenaren itxuraz eskukatzen ebazan. Andik ez urrun, zirri baten etzanda, Yaina'k, gizostutako neskatilla zoribakoak negar egiten eban isillean.

– Ez negarrik egin, nire usotxu maitia –iñotsan Ben Yaik'ek kutxatillaren barruko eskukatuz–, jeke baten kutuna egingo zaitut-eta. Ara... begira belarritako bikote yaukal au. Uste al-zenduan iñoiz olako bitxia zure belarrietan ñir-ñirka ikustea...?

Au esatean, bidelapurrak belarritakoak erakusten eutsazan, begiai lizunkerizko txinpartak eriezala.

– Bai, nire maitetxu ori –jarraitu eban bidelapurrak–, nork zu neuk baiño geiago ederretsiko...? Bitxi oneik guztiak erabilteko gai billakatu zara, Ben Yaik, basamortuko jekea, aaltsu ta aberatsa dalako. Eta orren ordaiñez zer eskatzen dautsut, nire urretxindor laztana...? Basamortuko gau otzetan illazkia berotu dagistazula, besterik ez, Milea'ko uso maitagarri orrek.

Itzok esanda, bidelapurra zutundu, eta Yaina'gana urreratu zan. Bizkarra erakusten eutsala ustiatuz, kaparreko azpitik Dan barrura irazi zan, eta oin-muturrez Ben Yaik'egana urreraturik, burdiñezko atzaparra zirudian esku indartsuaz, besotik oratu, aulkiaren gaiñean jesarri-erazo, eta maitxuaz bestaldean bera be jesarrita, auxe esan eutsan:

– Badira gau bi atzetik nabiltzula, bidelapur zital ori. Eta orain zure salataria biur-tuta, ona emen egiten dautsudazan salakuntzak: auntzlapur izanez gaiñera, or dagoan Yaina, nabatetar neskatilla gaixo ori gizostu dozu zeure irrika zikiña asetzearen. Zer diñostazu au guztiari buruz...? Jakin bear dozu, baiña –jarraitu eban Dan'ek sastakaia mai-gaiñean ipiñi ondoren– zerbitzariren bat deitzea otuko ba'litzakizu, bertanbera ilgo zaitudala.

Estu ta larri egoan Ben Yaik, bere burua onik zelan atara legiken ausnartuz. Andik ez urrun, kaparreko erdiko zutoiñetik eskegita, bere ezpatatzarra ikusten zan. Zelan ataz jabetu, baiña, gazte arek eragotzi egitsan aurretik...? Zelan edo alan aren adikunea saiestu bear, eta orduan,

– Begira, mutil –itxura txeratsuz esan eutsan–, egi-egitan arabitar oiturai jarraituz, neskatilla ori nire emazte egiteko artu dot, eta izan be, poztu egin bearko leuke, neu lako jeke baten emaztea billakatzeagaitik.

– Badakit jarraituz eta ekanduz, arabitarrek emaztea erosten dabela au zaintzeko gai diranean. Orretarako, baiña, gurasoekin arremonetan jardun ezkeru, itundutako saria ordaintzekotan. Yaina deritxan neskatilla au zuretzat artu dozu, bera ta bere gurasoen naiaren aurka, eta gaiñera ezer ordaindu barik.

– Ara, gazte maite ori. Zin dagitsut, itzultzean arazo ori nabatetarrekin atontzea nire asmoa zala. Orain, baiña, ez neban bearreko dirurik orretarako. Orra or ba, zergaitik nereganatu egin dodan...



– Zagoz isillik, txarri zikin ori...! –asarre bizian esan eutsan Dan'ek– Kutxatilla orretan gorde daukazunaz, amaika emazte erosteko gai izango zintzakez.

Basamortuko lapurrak baekian bere bizitza ari batetik dilindan egoala. Beragandik urrun ez egoan ezpateaz jabetu aal izango ba'leu...! Bitartean ez egikean besterik, barriketa utsaz gaztearen adikunea saiestea baiño, bere aukerea aurkeztu ekion arte.

– Orain –jarraitu eban Dan'ek asarre gorrian–, azaldu bear daustazu, neskatilea artuta gero, zergaitik erail zenduan nire aita.

– Zure aita izan ete zan nire naiaren aurka il nebana...? Ai, ni gaixoa...! Jakin bear dozu gazte eder orrek, jaiotzetik yatordan akatsa dala ori. Ara... batzutan, nire gurariaren aurka, begien aurretik errezel gorriaren antzekoa dan lauso batek itsututen nau, eta danaz aztu eginda, zoro biurturik, izugarrikeririk andienak egiteko gauza naz. Nire aita zana, Akab'eko jeke ederretsia, bide guztiakaz saiatu zan deabrutar griña zantar ori nigandik kentzea, baiña alperrik. Badakizu: norberaren menpean ez dagoana ezin erago-tzi.

– Zeu lako gizon zuzen batentzat –irrikoi esan eutsan Dan'ek–, izugarria izango da ezbear ori. Beti zuzenaren alde saiatu, eta deabruak blindi-blaust...! zure asmo ongi-llak ezereztu. Adu zoribakoa zurea, Akab'eko jeke ederretsia-aren seme ori...

– Dana-dala, zeure aita zala jakin ba'neu, orduan ba...

– Orduan zer...?

Dan'ek ez eban erantzunik artu. Basakatu baten arintasunaz, Ben Yaik jagi zan, eta kapar-erdian egoan zutoñera ikoti batez urreraturik, ezpateari eutsi, eta gaztearen aurka zuzendu eban. Arin jabetua zan bidelapurra ezpateaz, baiña ariñago jokatu eban Dan'ek. Errementegiko maillu astuna erabilten oitua zan gaztearen beso indartsuak, Ben Yaik'en eskuturrari eutsirik, biurrikatu eutsan, eta miñaren-miñez oiuka asi aurretik, Dan'en sastakai zorrotzak alderik-alde zulatu eutsan bularra. Aika motel bat ozta-ozta jaurtita, Ben Yaik, basamortuko bidelapurra bizibarik amildu zan.

Astirik galtzeke, Basamortuko Semea Yaina'gana biurtu zan. Orduko, neskatilea-ri malkoak legortu izan yakozan, eta Dan begi dizdiratsukaz begizatzen ebala, jagi zan, eta aren eskuai eutsirik,

– Eskerrik asko, Dan –ederrespen beteaz esan eutsan–, bizitza baiño areago zor dautsut. Nabatetarrik andiena zara, eta gure erria zukan poztu egingo da.

– Orain ez da berba egiteko unerik egokiena, Yaina. Aldendu gaitezkan lenbailen lapurzulo onetatik.

Kaparreko egal-azpitik urten, eta ozta-ozta andik alde egiten asten zirala, Dan'ek auntsaldea ikusi eban. Une batez ezpaitu gelditu zan, berarekin atzera eroateko ala ez, baiña lapurrakandik iges egiteko oztopo andia izango litzakez, eta bertanbera lagatea erabagi eban. Orduantxe, tximista baizen arin bitxien kutxatillea gogora etorri yakon, eta irribarre bat ezpanetan marrazten yakola, bere buruari auxe esan eutsan: “Auntzok emen geratuko dira, baiña bitxiak arein zorra ordaintzeko izango dira”. Arin baten kaparrera biurtu, eta kutxatilla bete bitxi artuta urtenbidera abiatu zanean, ezustez, lurrean zetzan Ben Yaik'en ezpatea zapaldu eban. Beste barik jaso, eta krisaillua- ren argi aulpean aztertu eban. Bikaiña zala begitandu yakon, eta dalako ezpatea eredu-

tzat artuta, Milea'ko lagunentzat ezpata batzuk egin legikeazala bururaturik, kutxatilla- rekin batean, eroatea erabagi eban.

Urten zanean goizeko ordu biak izango ziran, eta Yaina'ri kutxatillea emonik, ekialdeko zuzenbidera jo eban.

– Aizu, Dan –esan eutsan neskatileak–, ori ez da Milea'rako bidea, iparrera abiatu bear dogu-ta.

– Iparrerantz artez-arte joango ba'gintzaz, goiztu zeitenean, ondartzan marraztu- riko gure oiñatzak bidelapurrek ikusiko leukiez, eta onein jarraian joanda, luzaro barik baituko gindukiez. Ekialdeko bideak, baiña, atxen artean dirau, eta ez dogu, beraz, ezetariko oiñatzik irarriko. Goazen ba, eguzkiaren billa. Ibilteko beste bizkor oartzen al-zara...?

– Bai, Dan, ondiñokarren bai, beintzat.

Ibilte ariñez esandako norabideari jarraitu eutsoen. Noizbait, eguzkiaren gupilla basamortuko osertzetik jagiten asi zan, zabaldua su ta urrez jantziten zala. Neska-muti- llak eten egin barik atxetatik azkar joiazan, baiña aldia igaro-ala, eta eguzkia ginga- rantz urreratzen zala, bidegitearen inkezak eta beroak eraginda, Yaina nekearen aztar- nak erakusten asi zan. Au ikusirik, gazteak muño batetik atzera so egin eban arduratsu, eta,

– Aizu, Yaina –esan eutsan–, aski bedi onezkero. Bidelapurren zantzurik ez da ikusten, eta ordua da atsedean artzeko.

Andik laster atx baten gerizpean jesarri ziranean, Dan'ek palmondo-garau batzuk jaten emon eutsan Yaina'ri, eta ura edanda gero, nekearen-nekez neskatileak begiak batu ebazan. Atx baten goikaldetik Dan'ek zabaldua begiztatu eban, eta jazarpen-zan- tzurik ez ikustean, neskatilearen ondoan etzanda jarrita, lo sakon batek artu eban. Gautu zanean, ozkirriak iratzarri eban, eta Yaina iratzarririk,

– Aizu, Yaina –esan eutsan txeratsu–, garaia da etxerako bidegiteari jarraitzeko. Zelan oartzen zara...?

– Ondo, Dan, ibilteko gerturik nozu.

– Orren aurretik jan dagiguzan garau batzuk, eta edan zatoko ura.

Olan egin eben, eta amaitzean,

– Ba gara, Yaina...?

– Bai, Dan, goazen aurrera.

Orain baiña, lengo norabidea barik, iparrekoa aukeratu eban gazteak, eta izarren eta ilbeerako adarraren argipean, ibilte arduratsuz bidegiteari ekin eutsoen. Iru ordube- te igarorik, atxeetatik basamortuko ondartzara urten ziran, eta nasaitasun-asperenaz, an urrutian marrazten zan Masada'ko mulko ezabatsua bide-erakusletzat artuta, ibilteari jarraitu eutsoen. Ostera be goiztu zan, eta zugazño baten babespean eguneko ordu kis- kalgarriak emon ebezan gautu arte. Orduan, gabeko lenengo izarrak agertu ziranean, azken bide-zatia egiteko abiatu ziran. Yaina, baiña, bidegitearen nekea erakusten asi zan, eta neskatilea besoetan artuta ibillaldi neketsuari jarraitu eutsan Dan'ek Masada'- ko mulko zauskagarria gidaritzat artuta. Goiztu zan barrero, eta nekearen-nekez Dan'ek

atsedenune baten billa zabaldia aztertzen ebala, ezustean, Milea'ko sarbidea mugatzen eben atx biak agertu yakozan. Ibillerea arindurik, andik laster irrintzi ozena jaurti eban, eta gero beste bat. Luzaro barik, erritar batzuk lagunduta Gael agertu zan, eta billobea ta gero Dan besarkatu ondoren,

– Yahvé'k bedeinkatu zagizala, Dan maite ori –pozez negar-agiñean esan eutsan–, nire billoba maitea atzera ekarriz gaiñera, zeu onik atara zaitualako. Au nire poza...! Biar jai andi bat ospatuko dogu, baiña anartean atsedean artu egizu, eta biar zuen gorabeerak edestuko dauskuzuz.

Neke utsaz, arratsaldea ta gaba ots baten emon ebazan Dan'ek, eta urrengo goizean betikoa oartzen zala, eguberdian jai andi bat ospatu zan. Bazkaria amaituta, nabatetar batzorde eragilleak eskatuta, jasandako gora-beerak edestu eutsezan Dan'ek, Amaitu ebanean,

– Adiskideok –esan eutsen–, ezin izan dautsuedaz auntzak atzera ekarri, baiña arein ordaintzat, Ben Yaik'egandik kutxatilla bete bitxi au ekartea erabagi neban. Olan ezin daiteke esan, nabatetarrak lapurrak diranik.

Au esanik, banan-banan kutxatillako bitxiak erakusten asi yaken, eta arein edertasuna ikustean, nabatetarrak abo-zabalik geratu ziran. Arein arteko bitxirik ederrena, belarritakoak ñir-ñir bizietan bereizten ziran, emakumeen adikunea irabazirik, batez be. Erakusketea amaitu zanean,

– Adiskide maiteok –esan eutsen Dan'ek–, belarritako bikain oneik euren garaian ezkonsaritzat Yaina'ri emon dakiozala gura izango neuke. Jasatekoak eta bost pairatu ditu gaixoak bidelapurren atzaparpean, eta berak aiña iñork ez ditu merezi.

Isillune bat edatu zan, eta gero, danek txalo-joteari emon eutsoen adorez beterik. Astrapalea baretu zanean, Ben Yaik'en ezpatea goratuz,

– Zuek, nabatetar maiteok –jarraitu eban–, ez zarie burrukazaleak, eta augaitik ez dozuez iskillorik erabilten. Bakea gauza ederra da benetan, baiña bakezaleak esku-utsik dagozanean, artalde batek otsoaren eraso jasan dagikean lez billakatu daitekez, eta euren arteko arkazterik ederrena galdu be, zuek lengo egunean Yaina galdu zenden lez. Zorionez, gure artean dogu barriro, baiña aurrerantzean olakorik jazo ez daiten, ezpata au eredutzat arturik, berrogei ta amar ezpata mailluz landuko dodaz, eta orduan esku bataz goldeari eutsita, bestea gerturik izango dozue ezpateari eusteko, alabear izatekotan.

Itz oneik entzutean, Gael jagi zan, eta auxe esan eutsan:

– Benetan esateko, Dan maite ori zuzen zagoz, mundu onetan iñor zuzenik ba'da. Basamortuko lapur areik etorri yakuzanean, ezpata bana izan ba'gendu, Urian, armenitar jakintsu ta ederretsia ez zan ilgo, eta Milea'ren onerako bizirik iraungo leuke. Autortu bearrean naz, geuk nabatetarrok uts andi bat egin dogula bakezalekeri utsaz, gure buruak aldezteko gauza ez izatean. Egiskuzuz ba, Dan, ezpata orreik, eta nabatetarrak bakezaleak izancez gaiñera, gai izango gara gure buruaren alde ekiteko bearreko izatekotan.

Isildu zan une batez Gael, eta gero,

– Esan bear dautsuet baita be –jarraitu eban–, kutxatilla onen bitxiak, belarritakoak bestalde, gure erriaren bearrianai aurre egiteko erabiliko doguzala, au da, lurgintza-lanabesak barritzeko eta obatzeko, baita gure garasta-erretenak zabaldu ta atontzeko be.

Neskatillen erreskadatik, Yaina'ren begiak Dan'egan josita egozan. Izan be, ez zan Milea'n gizonik berarekin kidezu zeitekenik, ez indarretan, ontasunean, ezta edertasunean be, eta egunen baten aren emaztea billakatuko ba'litz, ludiko emakumerik zoriontsuena izango litzake. Onezaz gaiñera, beragaitik ze, bere bizitza gerena izugarria izango litzakean.

Nabatetar dantza ta abestiakaz jarraitu eban jaiak, eta alako baten, Yaina Dan'en ondoan aurkitu zan. Usapalaren antzeko begiak mutillarenetan untzaturik,

– Aizu, Dan –esan eutsan–, zuk egifikoak ez dautsut bear beste eskertu, eta ordua da eginkizun ori bete dagidan.

– Gure artean olakorik ez da bearrekoa, umetandik alkar ezagutzen dogu-ta. Nik egindakoa, Milea'ko beste edozeiñek egingo leukean.

Au entzutean, Yaina'ren aurpegia illundu zan une batez, eta,

– Ori gitxi bai'litzan –jarraitu eban neskatilleak–, kutxatillako bitxirik ederrena dan belarritakoak ezkonsaritzat artuko dodaz.

– Baita ondo irabazita be jasan dozunaren ostean. Onezaz gaiñera, non obeto izango, zure aurpegiaren edergarritzat baiño...? Jakin bear dozu, danek abo batez Milea'ko neskatillik politentzat zaituela.

Une igeskor batez neskatillea lotsa-gorritu zan, eta betsein maitekorrak mutillaren aurpegian jarrita,

– Nor izango ete –esan eutsan–, nirekin ezkonduko dana...?

– Batek-baki...! Ondiñokarren gazteegi zara, larrosa baten pipilla izan be, eta garaia etorri dakizunean, merezi dozun nabatetar zintzoa urreratuko yatzu.

Une aretan etorrita, Gael'ek Dan banazean artu eban, eta auxe esan eutsan:

– Batzorde eragilleak zu batzordekoa egitea abo batez erabagi dau. Zer deritxazu orreri...?

Une batez Dan'ek isillik irauan eban, eta gero mintzo erabetiz,

– Ez dakit zer esan, Gael. Edozelan be ez naz nabatetarra, kanpotik etorria baiño, eta gaiñera, zuen legearen arauz, gazteegia naz batzordekoa izateko.

– Bost ardura ori dana niretzat. Guk nabatetartzat zaitugu, eta adiñekoa zelan edo alan atondu dagikegu. Adimena itxartu yatzunetik gurekin bizi izan zara, eta geutarren eziketa artu be. Jarraituz eta ekanduz nabatetarra zara, beraz.

Baiñan Dan'en barruan aldakuntza bat sortzen asi izan zan, eta Gael txeratsu begizatuz,

– Begira, Gael maite ori –esan eutsan–, oraingotz ezin dagiketsut ezetariko erantzunik emon. Laga egistazu ausnartu dagidala, eta garaia etorrita, nire erabagia jakifierezoko dautsut.

– Ondo deritxat orreri, Dan. Noiz artuko dogu zure erabagia...?

– Berrogei ta amar ezpata mailluz landu bear dodaz, eta arlo au amaitu dagidanean, nire erantzuna izango dozu.

– Jahve'k lagundu dagizula orretan.

Urrengo egunean, oi eban lez, egunsentian jagi, eta gosari ariña izanda, erremen-tegira igonik, sutegia piztu, burdin zati bat berotu, eta gero Ben Yaik'en ezpatea eredutzat artuta, ingude-gaiñeko maillukada bizitan lenengo ezpatea landu eban. Egun osoa bear izan eban ganorako ezpata bat egiteko, eta amaitu ebanean bere buruaz pozik oartu zan, bien arteko zein eredia ta zein egin-barria nekez bereiztu zeitekean-eta.

Aldiaren joanean, antzea obatu yakon, eta egunean ezpata bi egiteko gai billakatu zan, eta olan, ogei ta amargarren egunean berrogei ta amar ezpata, errementegiko txoko baten metatzen ziran.

Urrengo eguna Larunbata izanik, goizean oiko salmoak eta biblia-zatia irakurrita gero, arratsaldean eguneko beroa ibitu zaneko, Milea'ko baratza gaintitzen eban atx batera igonik, aspaldi aretan kezkatzen eban oldozkunari emon eutsan, eta oartu barik, elburua ezkututzen eban gandua berez barreatzen asi zan... Noizbait, illunabarrean azken ezbaia joanda, errira biurtu zan.

## SUSTRAIEN BILLA

Erriratu zanean, Gael'en etxera joanda, atean jesarrita ikusi eban Milea'ko nagusia.

– Gabon, Gael.

– Baita zeuri be, Dan. Zer zakaz nigana...?

– Ara... agindutako berrogei ta amar ezpatak egin dodaz onezkero, eta nire berba beteta, garaia da nire erabagiaren barri emon dagitsudan.

– Giro ederra dogu illuntze onetan arazo orreri buruz jardun dagigun. Jesarri zaitzez nire alboan, eta esaidazu zer erabagi dozun.

Erantzun aurretik une batez isillik iraun eban Dan'ek, eta gero astiro ta samur, Gael'eri aalik eta atsekaberik gitxien emotearren,

– Iradu barik eta luzaro nire etorkiari buruz gogoan erabilli ondoren, auxe da nire ebazpena: biar alde egingo dot emendik.

Biotz-ikara batek artuta, Milea'ko nagusiak gaztearen besoari oratu eutsan, eta mintzo atsekabetuaz,

– Zer diñostazu, baiña, Dan maite orrek...? Maite-maite zaitugunakandik joateko gerturik...? Ez dozu iñon au baiño leku paketsuagorik aurkituko, ezta gurea baiño maiteago zaituan erririk. Ez da iñon bakea ta maitasuna baiño gauza ederragorik; ez zakiguz joan, Dan maite ori... Begira, zerbaitek badiñost egunen baten erri onen nagusia billakatuko zareala, eta zure etorkia biribiltzeko, bertanbera nire billoba Yaina maitagarria, emaztetzat emongo dautsut. Zorionsua egingo zaitu berak baita seme-alaba be ugari emongo dautsuz, zeure zartzaroari poza ekarriko dautsoen kimu barriak. Berak, Milea'ko uso zoragarriak maite izango zaitu eriotzararte biotz beteaz. Ez zakiguz joan, Dan maite ori... ez al-zara oroitzen...? Zeuk agindutako belarritakoak erabilliko ditu betirako, bere edertasuna areago nabarmendu daiten... Geratu zaitzez gurekin, ez ondatu begira dozun zoriona...

Une batez, gazteak erabilli eban gogoan Gael'ek esanak, eta gero polliki ta samur, baiña mintzo errimeaz,

– Egia da, Gael maite orrek, diñostazuna, baiña nire erabagia ulertzeko, jakin bear dozu arima-barruan yabildana...

Isildu zan une batez, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

– Urian nire aitordea joan yatanetik, barruan utsune andia oartzen dot. Bera barik, lema galdu dauan itsasontzi baten antzekoa da nire bizitza, munduan zear norabarik nabillela, iparreko izarra idoro eziniik. Aspaldi onetan egon-ezin larriak artuta nago, eta

eragin bakan batek nai-ta-ez nire sustraien billa naroa. Nor naz, nondik nator...? Orra or idoro bear dodazan erantzunak. Begira dodan etorkia bete-bete bizi gura dot. Ez dakit atsegiña ala garratza izango ete yatan, baiña dagokidan adu edo patutik iges egiterik ez dodan ezkeru, nor nazan eta nondik natorren ezkutukia, bein betiko argitu gura dot.

Dan'ek berbok esan bitartean, Gael'en aurpegi zimurtsuan beera malkoan eriozan. Oneik ikustean, erruki andipean onetaraxe jarraitu eban Dan'ek:

– Tamal andia dot zu mintzeagaitik, baiña nire erabagia ez artu esker gaiztotzat, Gael. Ain zuzen be, zeugandik aldentzea, mintzen nauan atsekaberik andiena dot. Joan baiño len, jakin egizue zeu ta Milea'ko nabatetarrok, oroimenean beti-beti eroango zaituedazala...

– Zure joateak, Yaina zoribakoa egingo dau.

– Neskatilla zoragarria da, eta merezi dauan senar zintzo ta ona noizgura jaritsiko dau.

Isildu ziran biok, eta gero Gael'ek,

– Biurtuko zara egunen baten...?

– Nik al-dakit...! Etorkia izarretan eta basamortuko ondartzan idatzita ei'da, baiña iñork ez dau irakurterik, eta bizitza osoan zear jasan bear dogun ezkutukia da... Azken unean soillik, eta atzera egiterik ez danean agertzen yaku...

– Bai, zuzen zagoz, Dan maite ori.

– Nire aita Urian sarri askotan orretzaz mintzaten yatan. Bere eritxiz, duintasun eta zuzentasunez etorkiari aurre egitea, gizaki bategan beñena da.

– Andia zan Urian zure aita.

– Dana zor dauosat berari. Basamortuan eriotzaren atzaparretatik onik atara nin-duan, eta gero egunik-egun ontasun eta jakintzaren azia neugan ereintzen aalegindu zan, bidelapur zikin eta ezjakin batek aren egunai azkena emon arte... Ai, bizitzara barriro ekarri aal izango ba'neu...!

Dan'en begiai malkoak eriezan mara-mara. Gau bete zan arrezkeru, eta basamortuko ortzi gardenean izarrak ñir-ñir bizitan atzarri, bakea ta isilla barreiatzen ebezan. Gael jagi zan, eta,

– Berandu da –esan eutsan–, eta abiatu aurretik bearreko atsedena artu egizu. Ze ordutan joango zara...?

– Orain argitan dagozan izar orreik, ezabatzen asi daitezenean.

– Gabon, Dan.

– Baita zuri be, Gael.

Au esanik, gaztea bere egoitzara abiatu zan, eta uxatu ezin egikean Urian'eganako gomutea maitetsupean, atzarri iraun eban luzaro. Noizbait, Milea'ko oillarrek goizaldeko aldarría jaurti aurretik, begiak batu ebazan.

Egusentia barik jagi, eta bidegiterako bear izango ebazan jan-edariak artuta, etxetik urten, eta Milea'ko urtenbidera zuzendu zan. Atx-arteko estugunea zearkatzen ebanean, goizaldeko argi-itzaletatik Gael azaldu zan, eta,

– Azken agurra emoteko natortzu –esan eutsan mintzo dardartsuaz–. Yahvé'k zaindu zagizala, Dan maite ori. Besarkatu nagizu.

Alkar besarkatu eben estu-estu, eta malkoai nekez eutsi egikeazala, gaztea basamortuan zear bere sustraien billa abiatu zan. Nondik asi, baiña...? Arazo oneri amaika gogoeta emon izan eutsazan gazteak azken aldiotan. Iparraldean, goizaldeko lenengo argiek laztanduta, Masada arkaitzeko mulko ezabatsua bereizten zan, eta toki aretan, bere jaiotzaren ezaugarriak aurkitu legikezala iñotsan barruko eragin batek. Soiñeko gerria estutu, eta ibillera malgu, ariñez, iparreko norabidea artu eban. Andik laster, ganetxu baten erpiñetik atzera so egin eban. Orduko, eguzkia osertzetik jagi izan zan, eta aren argi larroskarapean, nabatetarren baratza edertasun betean esmeralezko bitxi baten antzera agertu yakon. Une batez oroi-miñak artuta iraun eban Dan'ek, eta gero azken begirakunea jaurtita, asperen bat urten yakon, eta iparreko norabideari emon eutsan osterá be.

Ez ekian Dan'ek zein adiñekoa zan, baiña Urian'en ainbaketearen arauz, ogei bat urteko zan orduko. Epe luzea izan be, zergaitik, beraz, arindu...? Bostpasei egunen buruan Masada'ko erpiña zapalduko leuke, eta egun bi gora-beera garrantzibakoa zan. Augaitik, ba, iradu barik ibilli ebillen batzutan atxen artean, bestetan basamortuko ondartzan zear.

Laugarren egunean, Masada arkaitzaren oiñarrira eldu zan, eta egi malkartsuan gora begiratzean, bere ezerezkeriaren oarpenak menperatu eban. Laster gautu zan, eta loaldi atsedengarria izan ostean, goizalde-irian bidegiteari jarraitu eutsan, Masada arkaitzak Itsaso Illa'ren alderantza, suge-itxurako zidor kiribiltua ei'eban, eta auxegaitik, eskumatará, ekialdera izan be, jo eban. Arru sakon batetik abiatu, eta ordubete bi igarorik, Itsaso Illa'ren ertzera eldu zan. Eguzkiak bazterrak berotzen ebazan, eta atx baten gerizpean jesarrita, Masada'ko mukulua begiztatu eban. Egia zan: arkaitzaren eskumatará sigi-sagaka, bidexka bat basamortuko ondartzan gora abiatzen zan ate bat zirudianaño. Antxiña baten, asmonetarrek, Masada, gudaleku edo gaztelutzat erabilli izan eben, eta gero Herodes'ek bere erreñua babestearren, guda-leku biurtu izan eban barriro, barruko, baita lekoreko etsaiari aurre egitearren. Jauregi bi eraiki izan ebazan, bat iparraldeko muturrean, eta bestea sartaldeko ate-ondoan. Onezaz gaiñera, garautegiak, sinagoga bat eta lurrazpiko urbiltegiak be. Tontorreko inguru guztian arresi bat edatzen zan.

Arrats-beeran, janari-zati batzuk eta ura artu ondoren, geroago jakingo ebanez “Suge-zidorra” esaten eutsoen bidexkara joan, eta andik laster, etenbarik sigi-sagaka joian zidorrean gora asi zan. Bidegitea neketsua zan baiña Dan saiátua ta bizkorra izanik, arin eta malgu ibilli ebillen. Noizean bein, gora egiteari eten egiten eutsan, Itsaso Illa'ren inguru zauskarriak begizatzearren. Noizbait, goikaldera eldu zanean, arre-siaren arteko atean, aztamakildun begirari batek,

– Geldi or...! –agindu eutsan– Nora zoaz...?

Dan'ek, baiña, eretirako gerturik etorren, eta gudariari aurrez-aurre begiraturik,

– Izena emotera nator.

- Zertarako...?
- Zeu lako gudaria izateko.
- Ez al-dakizu, emen zelatariak baiño ez doguzala onartzen...?
- Eta nork esan dautsu zelataria ez nazanik...?
- Ori laster ikusiko dogu.

Au esanik, ateko begirariak beste lagun bateri dei egin, eta auxe esan eutsan:

- Aizu, izena emotera datorren arrotz oneri lagundu egiozu gure nagusiagana.
- Zatoz nirekin -agindu eutsan bigarren gudariak.

Onen jarraian joan zan, ego-aldeko arresirantz abiatzen zirala. Ordu-lauren bat-  
edo igarorik, arresiaren ondoan egozan etxe batzutaraiño eldurik, gudariak etxe bateko  
atea edegi, eta auxe esan eutsan:

- Zagoz emen apur baten. Laster etorriko da gure nagusia.

Bakarrik geratu zanean, Dan'ek gela zabal aretako gora-beerak aztertu ebazan, eta  
itxaron bitartean jesarri zan. Aretoaren erdian, mai luzea edatzen zan aulki batzuk in-  
guratuta. Ilunabarra zanez, krisaillu batek lekua argitzen eban dizdir erabeti ta kolo-  
kaz. Leio bat lekorerera zabaltzen zan, baiña gaba izanik, andik ezin ezer ikusi. Ormatan  
eskegita iskillu batzuk ikusi zeitekezan onein artean izanik, ezpatak, uztai-geziak eta  
aztamakillak. Zeatz oneik, zelatariak gudakoiak zirala adierazoten eben. Mai-inguruko  
aulki baten jesarri zan, eta itxaron bitartean, bere buruari itaundu eutsan zelako eran-  
tzunak emongo leuskioz ango nagusiari, eta gogoeta oneitan ziarduala, atea edegi, eta  
iru gizon sartu ziran.

Aurrenik etorrena, ogei ta amar bat urteko gizon sendo ta garaiak jantzieraz nagu-  
sia zirudiana, auntz-narruzko txamar dotoreaz jantzia zan, eta gai bardiñeko abarkak  
erabillean. Beste biek apalagoko maillakoa emoten eben. Sartu-barriak ikustean, zu-  
tunik jarrita Dan'ek isillean begiztatu ebazan. Orduan, janzki dotorea erabilleanak,  
Dan'egan begi zorrotzak ipiñita,

- Aizu, mutil -aginkor esan eutsan-, gure taldekoa izateko etorri zaiakuzala esan  
daust gudari batek.

- Bai.

- Masada'ko zelatarien nagusia nazan ezker, "bai, Jauna" esango daustazu berba  
egin dagistazunetan. Nire izena Enak da.

- Bai, Jauna -zerbait pipertuta erantzun eutsan Dan'ek, olako mintzaira arrandi-  
tsuari oituta ez egoan-eta.

- Baita be, Masada'ko buruzagiak diran oneik, begirunerik andienaz erabiliko  
dozuz.

Isildu zan Enak, eta gero, ule ta begi gaztainkarak ebazan alboko morrosko garaia  
aipatuz,

- Au Akai, nire menpeko ta buruzagi saiatua da, eta nirekiko baizen esanekoa  
izango zaiakoz.

Buruaz gur ariña egin eutsan Dan'ek. Izan be, dalako Akai lenengo unetik begiko  
azaldu yakon.

Gero, bigarren laguntzaillea aurkeztuz,

- Eta au, Misan, nire beste buruzagia dot. Mutil indartsua da, eta badaezpadan,  
adiskide izan zaiakoz beti, asarre danean etsai izugarria da-ta.

Izan be, dalako Misan'ek indartsua emoten eban, eta une aretan erakusten eban  
irriño isekariak, ez eutsan gauza onik iragarten. Billo baltzak zituan, eta aurpegia ingu-  
ratzen eban bizar lodiak, erraldoi basatiaren itxurea emotsan, begitarte illunak aurpe-  
giaren karantza zakarragotzen eutsala. Erraldoi onekin arduraz jokatzeara erabagi eban  
Dan'ek, eta lengoari lez beste gur arin bat egin eutsan.

Aurkezpen oneik egin ostean, mintzo latzaz Enak'ek,

- Aizu, gazte, zein da zure izena...?

- Dan, Jauna.

- Zelatarien jatorrikoa al-zara...?

- Ez dakit, Jauna, baiña baietz esango neuke.

- Zelan egiztatuko zenduke ori...?

- Ez dot iñongo agiririk, baiña zuen jatorrikoa ete nazan jakiteko etorri naz.

- Zelan jakingo dozu guretarra zarean ala ez...?

- Ori luzea da azaltzeko, baiña ona nakarren biozkadea argituta gero, zelataria na-  
zan ala ez jakingo dot.

- Eta orduan...?

- Zelataria izatekotan, zuekin geratuko naz, baiña ezetxean beste iñora joango  
naz.

- Nondik zatoz...?

Une batez, Enak'eri egia esan ala ez erabili eban gogoan, eta noizbait, barruko  
eragintzari jarraituz,

- Basamortuko bidelapurrekin jarduna nozu azken urteotan.

- Zein zan lapurtalde ori...?

- Ez dakit Ben Yaik izena iñoiz entzun ete dozun...

- Bai, entzun dot, eta berarekin jardun ba'dozu, oso egokia izango zaiakuz.

Au esanik, Enak urreratu yakon, eta Dan'en besoak eskukatu ondoren,

- Badirudi mutil indartsua zareala, eta une onetan gudarien bearrizanean gagozan  
ezker, pozik artuko zindukedaz. Bitartean, eta zure erabagia ezagutu arte, Akai'ren ar-  
durapean jarriko zaitut. Iru egun igarorik, emen bertan aurkeztuko zaiataz zure eraba-  
gia jakiñerazoteko. Epe ori igarota, emengo gudaria billakatuko zara, edo bestelan  
emendik alde egingo dozu, alperrak ez doguz janaritzen-eta.

- Bai, Jauna.

Enak eta Misan urten ziranean, Akai'k itxura txeratsuz begiratu eutsan, eta,

- Zure itxuratik -esan eutsan buruzagiak-, mutil indartsua zareala egingo neuke.  
Aizu, ezpateaz burrukan egiten ba'dakizu...?

- Alan olan.

- Orrek esan gura dau erdipurdikoa zaitugula, ezta...?

Dan'ek irribarretsu auxe esan eutsan:

- Egia esateko, zuzen zagoz.

– Neronek irakatsiko dautsut ezpatearen erabiltea. Orain bein-beiñean gudari ezkonbakoen gudaletxean kokatuko zara. Badakizu, Enak'ek iru eguneko epea emon dautsula erabagia artu dagizun.

Au esanik, estalpe luze batera eroan eban, eta ango arduradunari auxe esan eutsan:

– Aizu, Dan deritxan gazte oneri, illazki bat emongo dautsazu, baita janaria be.

– Bai, Akai Jauna.

Alde egin aurretik, buruzagiak,

– Begira Dan, aske zara iru egun oneitan zure aukeran ibilteko. Ez zaitez, baiña, sartu, ez dagozkizun arazoetan, Enak'en asarrea zureganatu gura ez ba'dozu. Zeozer bear izatekotan, zatoz neugana. Orain berandutxu dan ezkerro, gabon eta ondo lo egin.

Nekatuta izanik, bildots-erreki zati bat janda gero, astirik galtzeke oeratu zan.

Biaramonean egunsentiaz batean itxartu, eta gosaria artu baiño ez, estalpetik urten, eta Masada-gaiñeko zelaia batetik bestera aztertu eban. Iparreko muturrean, Herodes Andia'k eraikitako jauregi bikaiña ikusi zeitekean. Urteak ziran errege anker eta zital ori il zala, eta Maltaze samaritarrekin izandako semea, Herodes Antipas, Galilea ta Perea'ko agintaria zanez, ez zan iñor jauregian bizi izaten, baiña gudari-talde txiki batek jauregia zaintzen eban. Augaitik, beraz, lekoretik begiztatu aal izan eban Dan'ek.

Masada'ko goi-zelaian, arlo batzutan barazkiak lantzen ziran, eta azkuntza onentzako bearreko ura, euri-jasa bakan baiña lodietan lurpeko biltegieta gorde eroien, eta emendik, begiratutxuan, ortuari-arloak garastatzeko erabilten eban. An emenka ardi batzuk ikusten ziran bedar urriaren billa. Masada'ko goi-zelaian, zelatariek ezin egikien bildu bizi izateko beste, eta enparaua iñondik jaritsi bear izaten eban, batzutan adiskideek emonda, eta bestetan indarrez artuta.

Une aretan emakume batzuk buruan jarritako ontzietan ura lorrutzen eban, eta beste batzuk katillotxuen bidez landarak garastatzen ebezan ardurarik andienaz, alperrik galdu ez zeiten. Zailla zan, benetan leku aretan bizi aal izatea, baiña apapuan ban be, zelatariek burua ataraten eban.

Emakume arein jarduna begiztatu ondoren, areitariko bategana joanda,

– Aizu –itaundu eutsan–, jakin gura izango neuke, orain ogei urte gitxi gora-beera gertaturiko jazokizun baten zeatzak.

Emakumeak arrituta begiztatu eban, eta,

– Orain ogei urte jazo zanaren barri...? –esan eutsan–. Ezin dagiketsut ezetarik argibiderik emon, orduan emen ez nintzan-eta. Amar urte dira gudari batekin ezkonzeko, Adora uritik ona bizi izatera etorri nintzala.

– Nork emon legikidaz antxiña baten jazotakoaren albisteak...?

Une batzuk emakumea oldozkor geratu zan, eta gero,

– Norbait izatekotan, Milne atsoa izango litzake. Txit barritsua da, eta barritsuek guztitariko jazokizunak gomutan gorde daroetz. Kontuz ibilli, baiña, berba-lapiko andia da-ta.

– Non aurkitu dagiket dalako Milne atsoa...?

Besoa luzaturik, emakumeak,

– Ikusten dozu ango etxetxuaren atean jesarrita dagoan irudi a...? Axe dozu ba Milna atsoa. Gudarien janzki-atonketan diardu alargundu zanetik. Orain dozu unerik egokiena, arratsaldeetan beste emakumeekin txutxumuka diardu-ta. Zoaz oraintxe bertan, beste iñorekin berbetan asi aurretik.

Joan zan erakutsitako etxetxura, eta gudari baten janzkia birjosten ziarduan atsoaren aurrean jarrita,

– Aizu, –mintzo arraitsuz esan eutsan–, ango emakume batek zugana bialtzen nau, bear dodanari buruz jakitun ipiñi nagizun.

– Asko ikusi ta entzuna nozu, gazte. Izan be –jarraitu eban loxindutako atsoak–, leku onetako asko dator nigana, aspaldiko jazokizunen bat jakin gura dauanean. Emen askok barritsutat nabe, baiña idazten ez diran gauzak nire gomutan bizirik geratzen yataz betirako, eta ori zeozer bada.

– Bai, Milna Andrea, orixegaitik natortzu.

– Zeren billa zatoz...?

Atsoaren aurpegi zimurtsuari begira, Dan'ek,

– Entzun, Andrea –biotz-ikara batek artuta esan eutsan–, nire arbasoen billa nator.

– Arbasoen billa...? Orreik igarotako urak dira, ezer ez, gazte begiko ori. Benetan ardurakoak, oraingoa ta etorkia dozuz. Ara, igarotakoa alargunai dagokie, oraingoa etxeokandrai, eta etorkia neskatillai. Arbasoek antxiña baten ortzia zearkatu eban odeien antzekoak, eta gaur ezerezean galduta, ezetarako gauza ez diran oroitze ezaiñak baiño ez. Augaitik, beraz...

Olan jarraitzekotan atso barritsu aregandik ganorako gauzarik ez leukela lortuko oartu zan gaztea, eta aren berba-jarioari eten eginez,

– Zeuk diñozun lez alargunak igarotakoa zarie, eta ni, orain ogei urte jazotako gertakizun baten billa nator. Ara... oroitzen al-zara aldi aretako zelatarien oiturai jarraituz, itsu biurtutako umetxu bat, eriotz-zigorra artzeko epaitu ete zan...?

– Itsu diñozu...? Danok itsuak gara munduan zear bidea aztamuka billatuz, Yahvé'gan amaitu arte. Ibai baten uren antzekoak gara, gure bidegitea itsasoan amaitzeko, Jordan'en joiara Itsaso Illa'n ostentzen dan lez, edo-ta...

Atsoak erara berba egian oso zailla zala ikusirik, Milna besaburuetatik artuta, aren begi motelai tinko begiraturik,

– Milna, Milna –oiu egin eutsan– entzun ondo auxe...! Gomutan dozu orain ogei bat urte, itsu billakaturiko ume bat eriotzera galdu ete zan...?

Une batez atsoaren betseifetan argiaren antzeko zerbaitek dizdir egin eban, eta orduan,

– Bai, gomutan dot. Aldi aretan zelatarien nagusia Joab zan, eta oso zorrotza edozein soin-akatsaz jaiotako umeekiko, eta orain, aren semea dan Enak'ek oitura orreri darraikio. Ai ene... ainbat eta ainbat sein errubakoak arkaitzen beera jaurti izan dira, saien janaria biurtu zeitezana...!

Barrero be atsoa aritik saiesten zala ikusirik, aren besoari eutsirik, Dan'ek oiuka,

– Esan, Milna Andrea, noren semea zan nik aipatzen dodan umetxua...?  
 Une batez atsoa oroitzetan murgildu zan, eta noizbait,  
 – Itsu billakaturiko seiña –esan eutsan astiro–, Oziel eta Dina'ren semea zan.  
 – Non dira seiñaren gurasook...?  
 – Oziel il egin zan seiña jai ta laster.  
 – Eta ama...?  
 – Dina gaixoa oraindiño bizirik dago, beste alargun batekin etxea banatuz.  
 – Esango daustazu non bizi dan...?  
 – Non bizi dan Dina...? Ara... –esku zimurtsuaz etxe bat erakutsiz esan eutsan–  
 ikusten dozu ardi-narru bat atean eratsita dauan, etxetxu a...? Antxe bertan bizi da Di-  
 na, bera lez alarguna dan Axa'rekin...

Itz oneik entzunik, eta ozta-ozta Milna atsoari eskertuz, ibilte arinez esandako  
 etxetxura abiatu zan gaztea. Eldu baiño ez, atea jo, eta luzetsia itxaron eban. Noizbait  
 atea edegi zan, eta irurogei bat urteko emekumea ate-zubipean agertu zan. Sapa luzeak  
 sorbaldan beera erorkiozan, eta aurpegi zimelak nekaldi ugari jasandako emakumea  
 adierazoten eban.

– Zer nai dozu, mutil...? –mintzo erabetiz itaundu eutsan, begi motelakaz gaztea-  
 ren aurpegi atsegiña aztertzen ebal.

– Aizu, Andrea, etxe onetan Dina izeneko alarguna bizi al-da...?

– Bai, gazte, zer nai dozu...?

– Bera ikusi gura dot.

Orduan Axa'k burua atzerantz biurtuz,

– Entzun Dina –oiu egin eban– gazte batek ikusi gura zaitu...!

– Sartu daitela –barruko mintzo leun batek agindu eutsan–.

Gaztea sartu zan, eta gela txikiko sutondoaren aurrean, emakume baten irudi eza-  
 batsua ikusi eban, inarreko su bateri auspo bat aztegiñez. Barruko erdi-illunari argia  
 emoteko, Axa'k leio bitako estalkiak zabaldu ebazan, eta orduan sutondoan makurturi-  
 ko irudia jagi, eta gelaren erdian geldirik egoan Dan'egana urreraturik,

– Zer nai dozu, gazte orrek...?

Zer esan ez ekiala, une batez Dan geratu zan emakumeari begira ta begira. Au-  
 rrean, berrogei ta amar urteko andrazkoak aurpegi arraiaz begizatzen eban. Urtetsua  
 izan arren be, aurpegiak edertasunaren aztarnak erakusten ebazan; gaztaroan irudi ede-  
 rreko emakumea izango zan ezpaibarik. Onen begi illun andiak begizatzean, zirrara  
 bakanak artuta, Dan'ek ez ekian zelan asi. Gaztearen zalantza ikustean,

– Zer nai dozu, gazte? –barrero itaundu eutsan Dina'k

– Zu al-zaitut Dina...? –biotz-ikara batek menperatuta, itaundu eutsan Dan'ek–.

– Bai.

– Esan, orain ogei bat urte seme itsu bat izan zenduan...?

– Bai, nire seme Dan, izan be. Urte biko-edo zala, itsu billakatu zan, eta Masa-  
 da'ko legeari jarraituz, eriotzera galdu izan zan. Orduko, Oziel nire senarra erromata-

ren aurka burrukan il barria zan. Onen adiskide zintzoa Yair'ek, baiña, nire eskari-  
 ai men egiñez, seiña artu, eta jan-edari batzuekin basamortuko bide bateko ertzean laga  
 eban. Eta olan, alargundu ta laster, nire seme bakarra kendu eusten...

Jarraitu eziñik, Dina gaixoa aulki baten jesarri, eta aurpegia eskuakaz estalduta,  
 negar baten asi zan. Erruki neurribakoak artuta, Dan urreratu yakon, eta emakume gai-  
 xoaren billo errauskarak une batez laztandu ebazan. Gero, besoai eutsirik aupatu eban,  
 eta betidanik idune-inguruan jarrita eban “Dan” izenez irarritako narrukiaren zatia ata-  
 ra, eta Dina'ren aurrean jarrita, auxe esan eutsan:

– Aitu ondo, eta esaidazu, narruki-zati au ezagutzen ete dozun.

Une batez tinko-tinko begiztatu eban Dina'k, eta gero didar baten,

– Bai, auxe da nire semeari idun- inguruan ipiñi neutsan ezaugarria... Zelan etorri  
 yatzu eskura...?

Dan'ek aren aurpegia eskuen artean artu, eta maitasunez gaiñezka besarkatu eban  
 auxe inotsala,

– Ama, neu nozu Dan, zure semea...!

Une luze batez Dinak ezer esateko gauza ez zala, semea besarkatuz iraun eban,  
 eta gero malkoak txukaturik, aurpegiari begiratu eutsan, eta,

– Bedeinkatua bedi Yahvé, ainbeste urte igarorik, nire besoetara ekarri zaitualako.  
 Zenbat eta geiago begiratu, ainbat eta zure aitaren itxurakoago ikusten zaitut. Zure  
 abotsa, begien dizdira, abo irribarretsua, okotz irmoa, eta aren jasa ta indarra... Bai, ni-  
 re Oziel gogora dakarstazu. Galdu zindudazanetik, zein luzea egin yatan bizitzea jakin-  
 go ba'zendu...! Masada'ko arkaitzean beera nire burua botateko sarri askotan gogora  
 yatoran, baiña itxaropen ezkutu batek eragozten eustan. Bedeinkatua bedi Israel'en  
 Jaungoikoa...!

Dina gaixoak semearen irudi txairoa ta aurpegi atsegiña bein eta barrero astertzen  
 eban aspertzeke. Noizbait,

– Gurekin bizi izatera geratuko zara, seme...?

– Bai, ama. Zu billatzeko asmotan etorri naitazu, eta orain aurkitu zaitudan ezke-  
 ro, betirako alkaturik bizi izango gara.

Atan-orretan otordua egin zan, eta Dina, Dan, eta Axa mai-inguruan jesarrita, la-  
 pikoko bateri ekin eutsoen, eta onen ostean eskukada palmondo-garau janda, Axa'k  
 ontziteria ta gelea garbitu bitartean,

– Aizu, Dan –maitasunez gaiñezka Dina'k–, esan egistazu zelan urten zintzazan  
 onik basamortuko gatxetatik, egun aretan Yair gure adiskide onak basamortuan laga  
 zinduzanean, eta zer jazo zan ordutik ona.

Amaren eskuari eutsita, astiro ta samur,

– Ara, ama –asi zan Basamortuko Semea–, Yahvé'k gizon obaezin bat biali eus-  
 tan, eta ona emen zelan urten nintzan onik...

Eta astiro baiña geldione barik, Urian'ek aurkitu ebanetik, bere gora-beerak edes-  
 tu eutsazan amari. Eguzkia Gaza'ren alderantz ezkututzen zanean, Dan'ek edeskiari  
 onetaraxe amaia emon eutsan:

– Urian, aitzatzen neban gizona bidelapurrak erail ebanean, egon-ezin larri batek artuta, nabatetar erriari agur eginda, garaia zala nire sustraien billa joateko erabagi neban, eta Yahvé'k urratsak zuzendu daustaz, ain luzaro uts emondako ama, noizbait idoro nengian.

– Dan, seme maite ori, zerbaitek badiñost luzarorako ez nazala izango, baiña nitretzat naikoa, bizi izateko peitzen yatazan egunak, zurekin emongo ba'neuz.

– Bai ama, ez larritu, zuretzat biziko naz azkenerarte.

– Begira, Dan, etxetxu onek iru gela ditu: sukalde au; Axa'k eta biok lo egiten dogun gela; eta or alboan dagoan txiki ori. Zer deritxazu azken au zeuk erabilteari...?

– Oba ez, ama...!

Gau aretan gudarien estalpean lo egin eban Dan'ek, eta urrengo egunean Akai'gana joanda, auxe esan eutsan:

– Nire ama idoro dot emen, Masada'n. Oziel eta Dina'ren semea naz.

– Azkenean sustraiak emen aurkitu dozuz, Dan, eta ori pozgarria yat. Esan, lagun orrek, zer jazo da guretariko bat izan zaitez...?

Andi-andika, bere gora-beeren barri emon eutsazan Dan'ek, eta amaitzean,

– Augaitik ba –esan eutsan–, estalpe au lagata, amaren bizi izatera joango naz.

– Bidezkoa deritxat orreri, Dan. Artu illazkia ta eskuartekoak, eta aldatu zaitez amagana. Etzi amaituko da Enak'ek emoniko iru eguneko epea, eta beraz, aregana joanda, zelatarien gudari billakatu nai dozula esango dautsazu. Anartean ba, aske zara zure aukeran biziteko.

Illazkia ta eskuarteko urriak artuta, amagana joan, eta etxeko gela txikian kokatu zan. Ezin egikean siñistu Dina'k bere zoriona, eta Masada'ko tontor leunetik, arratsalde aretan semearekin egurastu eban guztitariko argibideak emotsazala. Orduan oartu zan gaztea, zelatarien bizikerea latza ta arriskutsua zala. Judutar abertzale sutsu areik, bizitzaren on-izate edo aisatasunari ez eutsoen garrantzi andirik emoten, eta gudari bikaiñai egokienez, apaintasun eta salokeririk bage bizi izaten ziran. Izan be, Masada'ko gaillur malkar eta elkorrean ezin zeitekezan mizke izan.

Ama noizbait ezagutu izateak, Dan'eri zorion andia emotsan, eta aren guraritik dilindan bizi zan. Amaren beraganako maitasunak, oraingo bizitzari sen bereizia emotsan, eta bere buruari zin egin eutsan, aalegin guztiakaz saiatuko litzakela, aren azken egunak zelan edo alan zorionsuak egiteko.

Izan be, Dina gaixoa semea alboan izateaz zorionsua oartzen zan, eta ogei urte areitan uts izandako maitasun eta ardurea, orain eskubete emongo leuskioz. Semearekin izandako lenengo egurastu aretan batetik bestera joiala, semea ango bereizitasunak jakitun ipiñi ebala, Dina'k ez eban eretirik galtzen ezagunai semea aurkezteko, amatar arrotasunez. Baebazan zioak semeagan poztuteko, gazte garai, indartsu ta ederra zalako, eta bere Dan ezagutzean besteakan ikusi egikean ederrespenak zorionez bete eban. Oziel zanak, bere seme indartsu ta ederra ikusi aal izan ba'leu...!

Dina'ren biotzaz jabetzen asten zan zoriona aurpegian zear edatzen yakon, eta betseiñen lengo itxura motela, dizdir barri batek ordeztua zan, aurpegiaren zimurrak leuntzen yakozala. Dan'ek bere aukeran ebazan azken ordu areitan, eguneko bero kiskalgarria joanda, etxaurreko arrizko aulkian jesarrita, amaren itaunek eraginda, bere gora-beerak edestu eutsazan, eta guzti au urrezko jariora ba'litzan, bere barruan gorde eban Dina'k.



Itunduta lez, irugarren egunean Dan Enak'egana eroan eban Akai'k. Zelatarien nagusiak estalpeko alde baten areto txukun eta zabala eban, eta andia zan ezkerro, bear zanean emen ospatzen ziran batzarrak. Besaulki baten jesarrita egoan Enak, eta lenengo ordu aretan eguneko entzunaldia izanik, txandea etorri arte itxaron bear izan eben. Noizbait, sartu ziran, eta Enak'en aurrean zutunik,

– Nagusi –esan eutsan Akai'k–, zeuk jarritako iru egunen epea bete da, eta ona emen, basamortutik etorritako gaztea.

Enak'ek zorrotz begiztatu eban, eta,

– Esan gazte –itaundu eutsan–, zein adiñeko zaitut...?

– Ogei urteko, Jauna.

– Garai obaeziña burrukan jarduteko. Zein izenekoa zara...?

– Dan.

– Besterik ez...?

– Oziel'en Semea.

– Ben Oziel, beraz, eta izan be ez dau txarto emoten, baiña basamortutik etorri zanean ezkerro, Basamortuko Semea izango zara, gurekin geratzea ebaztekotan. Zelako aukerea egin dozu...?

– Zuekin geratuko naz.

– Bearreko adorea izango al-dozu gudari izukaitza ta saiatua izateko...?

– Baietz uste dot. Esan dautsudanez, nire aita, Oziel, gudari izan zan emen, eta ama, Dina.

Une batez isillik iraun eban Enak'ek gogoetan murgilduta, eta gero,

– Oziel, Oziel... gogora yatorr orain, izen ori Joab nire aita zanari entzun izatea.

Berak esan eustanez, gudari zintzo ta yaioa izan zan dalako Oziel, baita bizirik irautea berari zor eutsala be. Ondo derist, beraz zure aukera orreri, eta uste dot artu dozun erabagia guztien onerako izango dala. Agur, gazte, eta bearreko gudari-inaarkuna Akai'ren zaintzapean artu dagizunean, erromatarren aurka burrukan egingo dozu. Agur ba.

– Agur, Jauna –erantzun eutsan Dan'ek.

Akai'k lagunduta urten zan, eta orduan, buruzagi begikoak,

– Orain zelataria zanean ezkerro –esan eutsan–, burrukan egiten ikasi bear izango dozu. Augaitik, beraz, ondo artaratu arte, egunoro inarkunak egingo dozuz nire zaintzapean. Orren aurretik, baiña, jakin bear dozu ezkuntza gogorra izango dozula. Bizirik irauteko beste, soillik, jango dozu, eta egarriari aurre egiteko, basamortuko gabeluak

oi daben antzera jasango dozu. Gudaketara joan zaitezanean, egunean berrogei kilometrotik gora egiteko gai izango zara. Zure abotik ez da ezetariko aienerik entzungo, ezta osterarik urtengo be. Agintariak men egingo dautsezu iñongo azalpenik eskatu barik. Urri garean aldetik, zelatariek gudari on eta saiatuak izan bear dogu, erromatar gure etsaiari aalik eta kalterik andiena egiteko.

Isildu zan une batez Akai, eta gero,

– Erromatar zapaltzailleak –jarraitu eban–, Israel gure aberriaz jabetu dira, eta jopu ezaiñak biurtu gaitue nai-ta-ez arein legepean bizi bear dogula, eurok jarritako zergak ordaindu bear dautseguzala, orretarako bearrizanik gorrianean bizi izan bear bado-gu be. Munduko jaunentzat dabe euren burua, eta lurraldeak zapaltzen dabez euron jabetasuna ba'litzazan, guztitariko lapurketak eta bidebagekeriak egiñez. Lurrarte itsasaldeko laterri guztiakaz jabetu dira, ara Grezia, Galazia, Kapadozia, Siria, Fenizia, Palestina, Ejipto, Kartago, Mauritania, Iberia, Galiak, Britania, Danubio ibaiko lurraldeak, Dalmazia etabar etabar. Lurralde jopuen edapena andi-andia dan ezkeru, nai-ta-ez idoro bear dabez bertako txingoteak, erritarrak menpean eta bakean iraunerazo daguezan, aalmen zati bat eta urre-txanpon batzuen ordaiñez. Orra or Herodes-eta...

Isildu zan Akai, eta gero begitarte illunaz,

– Baiña txarrena ez da ori –jarraitu eban–, izugarriena da, lurralde guzti orre in erritarrak, euren jabetasuntzat dabela, eta jopu edo otseintzat artuta, Erroma'ra ta beste tokietara daroez utsaren ordaiñez, bidegintzan, etxegintzan, lurgintzan, eta meaztegi-tan jarduteko abereak bai'litzazan, Erroma'ren anditasunerako, eta uritar alperrak iño-ren leptok lizunkerik ta ustelkerietan bizi izan daitezen. Palestina'ko arazora biurtuz, aztertu dagidan gaingiroki bada be, gure aberriaren egoera.

Isildu zan barriro Akai, eta sikomoro baten gerizpean jesarrita, Dan'en bere alboan egokitu zanean, onetaraxe jarraitu eban:

– Saduzaitarrak Palestina'ko maillarik aberatsena dira. Erlijioari dagozkionetan, Idazti Deunak soillik onartzen dabez, eta aborik-abo datozen jakintza zaarrai ez dautsie jaramonik egiten. Ez dabe ildakoen berpizkunderik siñisten. Garrantzi andiagoa emoten dautsie mundu onetako arazoai. Lurrean zigortzen ei'dauz Jaungoikoak txarto jokutzen dabenak, baita be saritu zintzoen ekintzak. Errigintza edo politikari buruz, erromatar zapaltzaillearekin ondo alkartzen dira, eta au dala-ta, Palestina'ko juduen agintariak billakatu dira, eta Sanedrin izeneko Epaikarien Batzar Nagusiko aulkirik geienak euren eskuetan dagoz.

Farisaitarrak, ostera, alderdi politikua baiño, erlijio-alderdia dira. Judutar zintzoak diran aldetik, ildakoen berpizkundera siñisten dabe, eta oso atxikiak aborik-aboko arau zaarrai ta oiturai. Arro ta berekoiak, erriatzaz gitxi arduratzen diranetarikoak, baiña siñisgatxa badirudi be, erriak eraspén andia dautse, santutzat dauzala. Jakiña, Idazti Deuna maite dabe, baiña areago asabakandik datozkien oiturak. Arazo politikuetara ez dira sartzen, baiña gure Mesias siñisten dabe, atzerritarren atzapparretatik jare egingo gaituan Kristo Erregea. Egia esateko, gaur, erriaren gidariak farisaitarrak dira, ez saduzaitarrak.

Beste talde bat esenitarrak dira, eta uts-utsean erlijio-taldea dogu, politikeari edo errigintzeari bizkar emoten dautsoenak. Emendik ur dagoan Itsaso Illa'ren ertzetan bizi dira, lekaide-talde baten antzera. Gure erlijioaren gai asko narukitan gorde daroe. Siñistun eta Jaungoikozale andiak, oneitariko batzuk munduko arazoetatik baztertuta bizi dira. Onezaz gaiñera, badira lekaide ez diran esenitar asko, senidetasun osoan bizi izaten diranak, ondasunak guztien jabetasuna egiñez, eta erdi-lekaide ta erdi-lekaimeen antzera diarduenak. Esenitarrek ez dabez saduzaitar eta farisaitarrak begi onez ikusten. Jaungoikoa, barrutik, biotzetik maite bear dala diño, eta ez ospakizun dizdiratsuen bidez. Esenitarren bizitzaren oiñarria otoi-tz eta nekean edo penitentzietan datza, eta euron legea ondoen betetearren, luditik baztertuta bizi dira.

Geuk, zelatariek, ostera, Moises'en legea ta arbasoen siñisteak gordez gaiñera, alderdi politikutzat diardugu, gure oraingo betekizunik beinena, erromatar zapaltzaillearen buztarria gugandik astintzea izanik. Bai, jaioko dan Mesias siñisten dogu, baita onegandik Israel'go anditasuna etorriko yakula be, baiña bitartean, abertzale zintzoai dagokienez, aalegin guztiakaz arrotzaren aurka diardugu, aalik eta kalterik andiena eragiñez. Alde makal bat badau Erroma'k, eta auxe alegia: aginterri zabalari dagokio-zan beste gudariak ez izatea, eta augaitik itsas-ertze-ko uri andietan, eta barruko zenbaitetan kokatzen dira, bere gudaroste edo lejiñoen artean utsune andiak eratuz. Auxe da gure ekintzetarako lekunea, eta or-emenka talde txikika jardunez, etsaiari buruauste ugariak damotsaguz. Arabitar janzkiak darabilguz erromatarrek egiten dabezan janari-lorketai erasoteko. Herodes Antipas'en baimenaz bizi gara leku onetan, eta Masada'tik erromatarren aurkako erasoak egiten doguzala ba'leki, bertanbera emen bizi izatea galazoko leuskigu. Au dala-ta, gure erasoak ezkutuan egiten doguz, eta arrapakia gure erritarren artean banandu ondoren, zati bat guretzat gordeten dogu.

Aurreko argibideak emonda gero, Akai isildu zan, soak urrutiko basamortura zuzenduta, eta buruzagiaren berbak berekautan ausnartzen ebazala, Dan bere barruan bildu zan. Noizbait, Akai'k barriro,

– Ditzarokizun biziera, mutil, ez da gauza makala. Masada'ko gudariak argal eta zimelak dira, baita kiriotsu ta ariñak be. Gure gudariak ez dozu gantzu-izpirik txikiena be oartuko, eta ekintzetan ez diarduenean, guda-iñarkunetan ikusiko dozuz. Auxe biderik ziurrena da-ta bigunkeritan ez jausteko, eta gure arau-bideak gordeteko. Masada'ko zelatariek euren buruzagaiitsu-itsu men egiten dautsie, ezetariko itaunik egin barik. Gure artean asaldakeria bizitzaz ordaintzen da. Esan bearrean naz, gazte ori, Enak gure nagusia zorrotz-zorrotza dala, utsik txikiena be barkatzen ez dauan orreitarikoa. Ez aztu au, gero, arekiko zure arremonetan...!

– Eta zer diñostazu Misan'eri buruz...?

– Erraldoi baizen indartsua dan buruzagi au, gudarien izua da. Bere menpekoren batek agintza-auspenik txikiena be egiten dauanean, ukabilka egitera beartzen-dau, eta iskilluak lagata, eskuz-eskuko ukabildakari emoten dautsoe. Bera baizen indartsurik ez dan ezkeru, leikide gaixoa maillukatzen dau konortea galdu arte, eta orduan jausitakoaren gaiñean jarrita, irrintzi ozena lau aizeetara barreiatzen dau.

– Zorionez –esan eutsan Dan'ek–, nik ez dot buruzagitzat.

– Ez, baiña orrek ez dau esan gura, berarekin arremonek ez dozuzala izango. Izan be –jarraitu eban Akai'k Dan'en itxura indartsua ederretsiz– ez dozu itxura makalik erakusten, baiña larri ikusiko zenduke zure burua aren aurkako eskuz-esku baten. Indarra Misan'en alde ba'dago, zeuk be badozu beste alde ona: arintasuna, izan be. Baiña dana-dala, aregandik urrunago ta obeto.

– Olan egingo dot, Akai.

– Edozelan be, gogokoa billakatu zaiataz, eta zure alde ekingo dot. Ez aztu, baiña, zelatarien ezaugarriarik agiriarena menpetasuna dala.

Isildu ziran biok, eta alako baten gomutapen batek jota, Dan'ek,

– Esaidazu, Akai –esan eutsan–, antxiñako oitura zakarra zan, akats batek jotako aurrak arkaitez onen malkarretan beera jaurtitea, oraindiño erabilten da...?

– Bai, indarrean darrai oitura zantar orrek. Enak'en arbasoakandik datorkigun erabilte orrek, jarraituz eta ekanduz bizirik dirau.

Biotz -ikara batek artuta, Dan'ek mintzo asarratuaz,

– Ori basakeri uts eta alperrikoa da –esan eutsan–. Sein errubako bat olan erabiltea Yahvé'ren legeak auste, eta gure arimearen aurka joatea da. Nik ez neuskio olakorik egingo akatsez jaiotako abere bateri be. Arimea geugan beiñena da, munduko gaie-tatik jasoten gaituana... anka bat ausi egin yakon urretxindor bat iltea baiño askozaz iguingarriagoa. Entzun egistazu auxe ondo. Ara...

Orduan Dan'ek Akai'ri edestu eutsan umea zala, leku aretan bertan etorri yakon itsutasuna, eta zelan Urian'eri esker onik urten zala. Amaitu ebanean,

– Begira, Akai –esan eutsan–, mirari antzeko ezuste batek onik atara ninduan basakeri orretatik, eta Urian'egaitik ze, orain ez neuke zurekin berbetan jardungo. Oitura nazkagarri ori sustraitik kendu bear dogu.

– Nor azartu, baiña, Enak'en aginduari aurka egiten...? Azartuko zintzakez gure nagusiaren aurpegira, agirian, olakorik salatzer...?

Dan'ek ez eutsan erantzunik emon, baiña bere buruari zin egin eutsan, olako ekintzeari indar guztiakaz aurre egingo leuskiola. Izan be, Urian'ek emondako ezkuntza zala-ta, bere barruan ontasuna ta zintzotasuna kokatu izan ziran. Arekin emondako ogei urteak ez ziran alperrik igaro, eta armenitarraren jakintzak eta ontasanak, Dan'en baitan gorengo usteak erein ebezan.

Bai, zerbait emongo leuke bere ondoan Urian izateko; orain aren oroitzua galdutako aita on-onaren antzera etorkion.

Akai'ren itzok Dan'en oldozkunen aria eten egin eutsoen.

– Biartik asita –esaten eutsan–, egunoroko iñarkunari emongo dautsazu, eta gerturik zaitezanean, Masada'ko gudari bateri dagokiozan ekintzetan jardungo dozu. Eguntentia agertu ta ordubete batera, zatoz iñarkundegira. Agur eta biar arte.

– Agur eta eskerrik asko, Akai, zure argibideakaitik.

Dan amagana joan zan. Orduko eguberdia izanik, Axa ta amarekin mai-inguruan jesarrita, otordu bakun bateri emon eutsan. Zelatariak apapuan bizi ziran, eta ozta-ozta

irauteko beste jaten eben. Bazkaria, keatutako antzumeki-zati batzukaz ondutako aia bataz asi zan, eta amaitzeko oiko palmondo-garauak. Semearentzat zatirik gozoenak nai ebazan Dina'k, eta gazteak aalegindu bear izan eban amak bere anoa jan egian. Zati-rik gozoenak jateko semearen jarkipena ikustean, Dina'k,

– Jan geiago, seme –esaten eutsan–, gazteok geuk baiño geiago bear dozue-ta. Gaiñera, Akai'ren aginduz, gaur goizean, astebeterako dagokizun janari-anoa ekarri dauskue. Jan dagikezu, beraz, zenbat-gura.

– Ama, zelako arauak erabilten dira emen, janaritu zaitezene...?

– Ara... zelatari guztiak, emakume naiz gizonak, jardun bateri emon bear dautsoe. Axa ta biok, esaterako, alkartea eunakaz ornitzen dogu.

Ikusten dozu, orko txokoan dagoan eun-gaillua...? Bearreko aria gorulari-taldeak emoten dausku, eta Axa ta biok aria eun biurtuta, jostunai emoten dautsegu jantziak atondu dagiezan. Beste andrazko batzuk oskigilleak dira, baratzean diardue beste batzuk, eta onetarako bear dan ura, beste talde batek lorrean dakarre. Leku onetan, bai andrazkoek bai gizonezkoek jardun bereiziaz emoten dautsegu, eta augaitik, gutariko bakotxari bear izaten doguzanak, astero banatzen yakuz.

– Eta gudariak...?

– Orreik basamortu ta urietan ari dira, bearrekoa ona ekarteko. Emen dagozane-tan, iskillu-iñarkunetan diardue. Masada'ko nagusia dan Enak'ek diñoanez, gudari-ek beti zeozer egin bear dabe, bestelatan lazotu edo bigundu egiten dira

– Eta umeak...?

– Gure umeak ondoen bizi diranak doguz. Gure Rabi'k damotse bearreko ezkun-tza, Liburu Deunetan idatzitakoak irakatsiz eta azalduz, bidebatez irakurten eta idazten dabela amabi urterarte. Orduan, aipaturiko lanetan diardue. Ogei urteko diranean, mutillai gudari billakatzeko aukerea emoten yake, eta baiezkoan ementxe geratzen dira. Jardun ori nai ez dabenak Masada itzita, ogibide baten billa Palestina'n zear sakabana-tzen dira.

Edu onetan jardun eben ama-semeak luzaro samar. Bitartean, eta amaren azalpe-nak aditu bitartean, etxeko tresna batzuk eta aulkiak batez be, naikoa kolokak egozala ikusirik, bearreko lanabesak artuta, arein atontzeari emon eutsan. Dina'ren begikunea semeagan josita, bere buruari iñotsan, Masada ta inguru guztian, ez zala gazterik bere semea baizen eder eta txairoa. Noizbait, gautu zan, eta aparia izanda, gabeko giroa guztiz atsegiña zanez, Axa'k garbiketeari emotsala, ama-semeak aulki banatan jesarri ziran lekorean. Begiak basamortuko izarretan ipiñita, Dina'k,

– Dan maitia –esan eutsan eskuak laztanduz–, atzo zure bizitzaren barri emon zeustan, baiña barriro be entzuteko irrikan nozu.

Eta gabaren gentzapean, amari begietan izarrak ispillutzen yakozala, astiro ta leun, bere gorabeeren edeskia amarentzat aletu eban Basamortuko Semeak, noizean bein edeskiari eten egiñez, amaren itaunen bateri erantzuteko. Gaberdia zan Dan'ek amari auxe esan eutsanean:

– Berandu samar da, ama, eta atsedean artu bear dozu, baita neuk be, biar gudari-iñarkunetan asiko naz-eta.

Barruratu ziranean, amak auxe esan eutsan:

– Orko zure gela, gerturik dozu garbi ta txukun.

– Eskerrik asko, ama.

– Gabon, seme. Gaur zorionsua naz, aspalditik lenengoz, izan be. Yahvé'k neugana ekarri zaitu, azken egunak argitu dagistazuzan. Beti eskatzen neutsan nonbait bizirik ba'zengoz, nigana ekarri zengizan, eta orra or nitzaz errukitu dala. Ilten ez yat ardurarik orain.

– Nirekin luzaro gorde zagizala eskatuko dautsat Yahvé'ri. Gabon ama.

Alkar besarkatu eben, eta oeratu zanean bere buruari zin egin eutsan Dan'ek, aal eban bide guztiakaz, ama zorionsua egiteko aaleginduko litzakela.

Biamonean gosaldu baiño ez, iñarkun-zelaira abiatu zan, eta Akai'gana joanda, onek ezpata bat emon eutsan, eta erdi-adiñeko gudari bateri dei egiñik,

– Aizu, Yimla –esan eutsan–, auxe, Dan izeneko gudari barria da, eta ezpataren erabiltea irakatsiko dautsazu. Beragandik gudari gain-gaiñeko atara dagizula nai dot.

Yimla'k une batez begiratu eutsan adi-adi, eta gero,

– Ez dozu txarto emoten indarraren aldetik batez be –adiskidetsu esan eutsan–. Lenengoa ikasteko, soiñaren igikunak dira. Aitu ondo.

Au esanik, artu bearko leuken jarrera irakatsi eutsan. Gero, ezpateari zelan eutsi, zelan uxatu leikidearen erasoak, eta zelan eraso onen ezuste bat ustiatuz. Goiz osoa jardun eben maisu-ikasleak ezpataren erabilteari emonda. Eguberdian ama ta Axa'rekin bazkalduta gero, iñarkun-zelaira barriro ikoti egiten ikasteko, baita arintasun-leiaketak egiteko be beste gudariekin. Gaba orduko, nekatuta baita pozik be etxera biurtu zan. Apalostean, amarekin autu nasai bateri emon eutsan, nabatetarrek zelan lur-lantzen eben gaitzat artuta. Dina ez zan nekatzen semearen gora-beerak entzuteaz, eta ordubeteetan zear semearen ezpanetatik dilindan iraungo eban. Ogei urte luze, illun, igarota gero, iñoiz aztu ez izan eban semea besoetara etorri izan yakon, eta orain berarekin uneak aintzazkoak ziran, jasandako bakartasun eta oiñazeen atzetik. Eta Yahvé'ri eskatzen eutsan semeak eriotzararte lagundu egitsala. Dan'ek bere aldetik ama oroz gain zorionsua egiteko gerturik egoan, eta bizitzaren lenengoz baebala norentzat bizi ta nor maite izan.

Egunak joan egunak etorri, ama-semearen arteko loturak alkarren ezagueraren bidez indartzen ziran. Egun osoan zear ziarduan Dan'ek iskillu-erabilte ta soin-iñarkunetan, agiri izanik gazteak jaristen eban gaitasuna. Iñarkunen arteko bat, Masada'ko arakaitzen gora ta beera esku utsik jardutea zan, zirrikitu ta urten-uneak ustiatuz. Aldiaren joanean, trebetasun bereizia lortu eban kirol onetan, bere zorabioaren aurkako gaitasunagaitik batez be.

Oikoa zan Masada'ko arresian begirariak ipintea, edozein arrotzaren urbiltasuna garaiz oartzeko. Barranda-lekuak sei ziran, arresiaren luzean jarrita. Jardunaldia ordu bikoa zan, gau ta egunez egiten zala. Arazo au Akai ta Misan'en ardurapean izaten zan, biok astero aldizkatzen zirala.

Gau baten, goizaldeko ordu bietatik lauretararte jaurri yakon Dan'eri begiraldia.

Luzaro egon zan urrutiko izardiai begira ta begira, Urian'ek berari irakatsitako izarren izenak gogora yatorðazala. Armenitarregandik ikasi eban gazteak, urtearen eguna jakiñik, ortziko mugan ikusten ziran izar batzuen jarreragaitik, ordua ezagutzea. Alako baten, gau garden aretan ordua jakitea otu yakon Dan'eri. Goizeko irurak zirala adierazo eutsan egiñiko ainbaketak. Gero, Urian'en gomuta maitea gogora etorri yakon, eta basamortuko gau-sorgindurak eraginda, oartu barik arresiaren ondoan jesarrita, lo geratu zan.

Ezustean, oi u garratz batek iratzarri eban, eta amesezko barrutietatik bere senetara ozta-ozta biurtuta, zutundu, eta aurrean, Misan buruzagiaren aurpegi asarrekoia ikusi eban, besaburuetatik astintzen ebala sumiñez irakiten.

– Ederto, mutil –esaten eutsan–, ona emen zelatari baten eredu oba-eziña. Gure aberriaren ziurtasuna zure eskuetan ipiñi, eta lo betean aurkitzen zaitut. Begirari etoi, zitala zara, eta egiñikoak ordain egokia izan dagian, biar, guztien aurrean, dagokizuna artuko dozu, bai orixe...!

Itzok esanda, etorria baizen isillik Misan'ek alde egin eban. Ezin egikean Dan'ek menperatzen eban arrenkura bizia beragandik uxatu, eta ezin-egon larriak artuta, bere buruari itauntzen eutsan zelako zigorra etorriko litzakion. Andik laster, beste begirari batek ordeztu eban, eta gudarien estalpera biurtuta, lo egiten saiatu bazan be, begiak ezin batu. Gosaltzeko, etxera joanda gero, oiko iñarkunak egitearren larrañiera biurtu zan. Eldu baiño ez, Akai'gana joateko mezuaz gudari bat etorri yakon, eta bere buruzagiaren aurrean aurkeztu zanean,

– Aizu, Dan –itxura arrenkuratsuz esan eutsan Akai'k–, bart jazorikoagaitik salatu zaitu Misan'ek Enak'en aurrean, eta onek, beretara zigortu zagizan baimendu dautso. Kontuz ibilli, Dan; badakizu zelakoak diran buruzagi orren zigorrak. Niketz, saiatu naz zuretzako barkapena lortzen, baiña dana alperrik, Enak eta Misan zigor eredugarriaren alde azaldu dira. Yave'k lagun dagitsula, eta biotz on...!

Andik laster, goizeko iñarkunak asi ziran, eta oi baiño len, turuta batek amaia aldarrikatu eban. Onen ostean, beste turuta-jote batek gudariak larrañean batu zeitezan egindu eban, eta danok alkartu ziranean, zelaiaren erdian jarrita, mintzo indartsuaz Misan onetaraxe asi zan:

– Masada'ko zelatariok, goizaldean, begirari-lekuan gudari bat ezustean lotan aurkitu dot. Dakizueenez, agintza-auspen au larrietakoa da, eta aurrerantzean olako arauen aurkakoak jazo ez daitezkan, ementxe, agirian, gudari ezain ori niretara zigortu nai dot. Azaldu bedi, Basamortuko Semea...!

Bere izena entzutean, zirrara batek artuta, Dan jagi, eta buruzagiagana urreraturik, bost metroko bitartera gelditu zan.

– Erdu zaitez urrago...! –begitarte zemaikorrak agindu eutsan Misan'ek–.

Men egin eutsan Dan'ek, eta orduan buruzagiak,

– Artuko dozun zigorra, nirekin eskuz-esku burrukan egin dagizula izango da. Olan ba, ezin esan nire agintza-mailla uztiatuz zigortu zaitudala, biok baldintza bardiñetan alkarren aurka aaleginduko gara-ta.

Isildu zan une batez lurrera txu egiteko, eta gero,

– Kenduizu soingaiñekoa...! –agindu eutsan.

Dan'ek soingaiñekoa erantzi bitartean, Misan'ek beste ainbeste egin eban.

– Zatoz neugana gudari zital ori, eta benetan diñotsut, gaurko astiñaldia ez yatzula edozelan be aztu egingo.

Lau-dardan egoan Basamortuko Semea, zer etorriko litzakion ez ekian-eta, baiña Misan'en aurpegian irakurri egikeanak ez eban gauza onik iragarten. Alako baten, bapatean, tximistaren antzera Misan'en ukabilla jaurti egin zan aurrera, eta suur-gaiñean bere bizizko zartadea artu eban Dan'ek, odola parrastaka eriola; onen jarraian, buruzagiak ukabilkada ariñak jaurti eutsazan atsedetik emon barik. Ezustez artutako Dan laster oartu zan, bere urtenbide bakarra oiñen arintasunean zetzala, eta beatz-muturretan ikotika, batetik bestera joian buruzagiaren inguruan, aal eban giñoan ukabilkaden zaparradea uxatuz, noizean bein ukabilkadaren bat saieska artuz. Edu onetan burrukeak luzaro samar iraun eban.

Misan, baiña, beretik urteten asten zan, gazte denganiño aren malgutasunak, jaurtiten eutsazan ukaldiak alderatzen ebazan-eta. Burrukak jarraitu-ala, Misan'en asarrea gora ta gora joian. Izan be, inguruan dantzan egiten eban gazte arek bere lepotik barre egiten zirudian, eta Misan nekatz gaiñera, arnas-estuka asten zan. Zelan edo alan burrukeari amaia emon bear, bestelan...

Alako baten, zezen amorratuaren antzera, Misan gaztearen aurka oldartu zan, eta beso indartsuakaz lepotik inguratu eban. Mutilla indartsua zan benetan, eta indar guztiakaz jarkiten yakola, Misan'en gerriari oratzen eutsan lurreratzeako asmotan. Buruzagia indartsua ba'zan, Basamortuko Semea ez ebilkion urrun, eta une luze samar batez burrukeak bardinduta iraun eban. Soñez-soiñeko burrukan, baiña, ez eban besteak ariñako ezaguera. Misan, ostera, burrukaren trikimailluak oso ondo ezaguturik, bere eretiaren begira egoan. Bapatean, besoa Dan'en galtzarpean ipiñita, besondoa biurrikatu eutsan, azur-giltzaren karraska aditzen zala. Miñaren-miñez zoratzeako zorian, Dan lurrera amildu zan konortea galduta. Orduan, garaituriko leikidearen soiña zapalduz, Misan'en irrirtzi basatia aditu zan, entzuleakan izuzko latz-ikara sortuz. Gero, mintzo zakarraz,

– Auxe jazoten yake –orru egin eban–, buruzagien aginduak austen dabezan gudari zitalai.

An egozan gudariak isillik eta astiro iñarkun-larraiña utsitu eben izu bakanak artuta, euren buruai zin egiñez arauak gordetzearren aaleginduko litzakezala. Gudariakan ez eban maitasun andirik eragingo Misan buruzagiak, baiña bai ordea, izuak sortzen dauan menpetasuna. Gudari batzukan, baiña, buruzagi anker areganako, gorrotzko begikadak ikusi zeitekezan. Edozelan be, Masada'ko gudariak ez eutsoen Misan'eri lege andirik

Akai'k agindutako, gudari batzuk Dan'en soin kordebagetua artu, eta amaren etxera eroanda, oe-gaiñean ipiñita gero, larritutako Dina'ri jazotakoaren barri emon eutsoen, Akai, zaurituaren alboan geratzen zala. Zorionez, baiña, Dina'ren laguneme

Axa'k, aldi areitan azurrai buruz ezagutzen zeitekeana menperatzen eban, eta Dan'en besaburua aztertu ondoren, esku-sartzea erabagi eban. Lokatutako besaburua bere tokian doitu bear zan; orretarako baiña, Axa'k ez eban bearreko indarra, baiña Akai'ren laguntzaz arazoa atonduko zan. Egitekoa azaldu eutsan buruzagiari, eta bien artean, dzast...! azurra bere lekura biurtu zan.

Ekintza onek, baiña, min izugarria eragin eutsan gazteari, eta didar bizitan zoratu-gaiñean itxartu zan. Laster ibitu yakon miña, eta Axa'k besaburua antze andiaz lotzen eutsala, oeaz bestaldetik amak aurpegiaren izerdia txukatzen eutsan berba txeratsuak iñotsazala. Noizbait, lo atsedengarriak artu eban, urrengo egunerarte olan irauala. Itxartu zanean, amaren begikada maitekorra izan zan lenengo ikusi ebana, eta goseak eraginda, katillu bete ai papar-lepo bitartera sartu eban.

Egun batzuk igarorik, Axa'k loturea kendu eutsan, eta astirik galtzeke, iñarkunak egiten asi zan, minutako azur-giltza bere lengora biurtu zeiten. Egunoro etorkion Akai, ikertuz gaiñera bere autuaz Dan'en asperraldia arintzeko. Dan gazte izanik, amabost egun igarorik makurra osatu yakon eta andik laster gai izan zan oiko biziareari emoteko, ezer gertatu ez ba'litzakion. Arratsalde baten,

– Aizu, Dan –esan eutsan Akai'k–, biar oiko zeregiñetan jardungo dozu, eta beraz, iñarkun-zelaiari aurkeztuko zara.

– Zuzen zagoz, Akai, eta nire alde zuk egiñekoa eskertuz gaiñera, mesede bat eskatuko neuskizu.

– Zein mesede, Dan...?

– Gerkar-erromatar azpiraketea ikasi gura dot. Bai ete da Masada'ko gudarien artean dalako azpiraketea, niri irakasteko gai izan daitena...?

Une batez oldozkor geratu zan buruzagia, eta gero,

– Nire ustez, orretarako onena Yarus izango litzake. Adiñekoa da onezkero, baiña bere garaian ospe andiko burrukalaria izan zan.

– Bialduko zeunskit dalako Yarus...?

– Biar bertan, goizeko iñarkuna amaituta bialduko dautsut. Baiña esan, zertarako nai dozu azpiraketea ikasi...?

– Lengo egunean, Misan'ek, gudarien artean barregarri biurtu ninduan, eta ez dot gura ezelan be, olakorik barriro jazo dakidan. Gerkar-erromatar azpiraketearen oiñariak ezagutu ba'neuz, ez dot uste azpitik urtengo nintzala.

– Zuzen zagoz, Dan. Misan indartsua ba'da, zeuk ez dautsazu ezertan zor.

Aginduta lez, biaramonean iñarkuna amaitu zanean, berrogei bat urteko gudari indartsua urreratu yakon, eta,

– Akai buruzagiak zugana igorri nau –esan eutsan–. Zer nai dozu Yarus'egandik...?

– Gerkar-erromatar azpiraketea ikasi gura dot. Irakatsiko zeunskit burruka-mota ori...?

Ezer esan aurretik, Dan'en egitura indartsua aztertu eban Yarus'ek une batez, eta gero mintzo astirotsuz,

– Lengo eguneko burrukea ikusi neban, eta azpitik urten arren be, bazaukat leiki-de ontzat, eta nik irakatsi dagitsuna egosteko gai ba'zintzaz, norbait izatera iritxiko zara. Baiña aitu auxe ondo: burrukalari ona billakatzeko, ez da naikorik zeu baizen indartsua izatea, ez, barruan adimen pixka bat izan bear, bestelan txulut egingo...

Isildu zan Yarus une batez, eta gero berekiko mintzatuko bai'litzan,

– Misan buruzagi anker eta zitala da –esan eban–, geienentzat gorrotagarria billakatu dana. Zeozer emongo neuke baten batek arrokeria kendu dagion. Izan be, Masada'ko gudarien artean, zeu baizen indartsurik ez dot iñor ezagutzen, eta zeugandik azpiraketari on bat ataratearren, ondo litzakit aalegintzea. Egunoro, beraz, illuntzean, zatoz nire etxera, eta ikusiko dogu. Agur gazte, anartean.

– Agur, Yarus, eta eskerrik asko.

Berbatua lez, egunoroko illunabarretan Basamortuko Semea Yarus'enera joian azpiraketearen oiñarri-legeak ikastearren, eta astiro baiña etenbarik, burrukaren amarruta trikimailluak ikasten ebazan gazteak. Burruka onetan debekatua da leikideari gerri-azpitik oratu, baita gerri-azpitiko soin-adarrak erabiltea be.

– Begira Dan –esan eroian Yarus'ek–, azpiraketan, leikidearen ekintzak aurretiaz ezagutzea beñena da, eta augaitik aren asmoak ezutuak izan arren be, igarri bear dautsazuz ezustean artu ez zagizan. Orregaitik, nekatzeke esango dautsut, burua erabili dagizula. Azpiraketari onak, leikidearekin dauan soin-ukimenaz, igarri bear dauz zeintzuk diran aren asmoak, ezkutuko mezu bat beragandik bai'letorkion. Ikasmailla onetara eltzen dana, azpiraketari bikaiña billakatuko da. Gaillur orretara igon zaitezala nai dot, bearreko baldintzak eta areago badozuz-eta.

Agiri zan, burruka onetan aurrerapen andiak egiten ebazala Dan'ek, eta oneik egiztatzean, bere buruari iñotsan Yarus'ek, luzaro barik ikaslea maisuaren maillara elduko litzakela. Bein baten, ikastaldia amaituta ikasle-irakasleak etxe-aurreko armaillan jesarrita autu nasai bateri emotsala, Dan'ek auxe itaundu eutsan:

– Aizu, Yarus, zelan billakatu zara azpiraketari...?

Une batez isillik iraun eban Yarus'ek, antxiñako oroitzetan murgiltzen zala, eta gero, begikadea urrutian galduta, auxe esan eutsan:

– Aspaldiko kontua da ori, orain ogei urte jazorikoa, ara...

“Aldi aretan saduzitar aberats baten etxean abelazkuntzan eta lurgintzan niarduan. Nire gurasoak be etxaguntza aretan bizi izaten ziran, aitaren jarduna izanik, lanabesen atonketea, eta amarena, etxekoandreaen otseintza. Lurgintza-lanek indartu ninduen, eta ogei bat urtekoa nintzala, Arkelaiz inguruko lurraldean ez zan soñez-soñeko leia-ketean nirekin neurtu zeitekeanik.

“Bein baten, larunbat izanik, lagun batzukin erriko arandegian edaten niarduala, erromatar euneko bat enparantzara eldu, eta ainbeste lagunentzako ostatua billatu bitartean, euntaria ta amarburu bi mai baten ondoan jesarri ziran, erromatarrek oi eben lez nagusitasunaren itxuraz guztiai begiratuz. Geuk jaramonik ez, eta gure autuari jarraitu geutsan. Alako baten, areitariko amarburu bat geugana etorrira, auxe esan euskun:

– Gure euntariak edozein judutarrari erronka egiten dautso, pultsaldi bat egitera. Galtzailleak guztien edariak ordainduko dauz.

“Geuk, baiña, jaramonik ez, eta orduan amarburuak barriro be eupada berbera egin euskun auxe geituz:

“– Zuetarikoren batek Flavius gure euntaria garaituko ba'leu, edanaldia duan iza-nez gaiñera, zidarrezko “sexterzio” bat irabaziko dau.

Aipatutako txanpona diruketa andia zan, eta lagunek zirikatuta, eupadea onartu neban. Flavius eta biok aurrez-aurre jesarri gintzazan, eta ukalondoa mai-gaiñean jarrita, pultsaketari emon geutsan. Indartsua zan euntaria, baiña ni areago, eta astiro baiña etenbarik besagaiña makurtu neutsan maia ukutu arte. Euntariak, antza, gaiñetik urten-go litzakela uste izan eban, baiña olan eta guzti be, izandako sosterri kiroltasunez onartu eban. Zidarrezkoa emon eustanean,

“– Aizu, gazte –esan eustan–, nik uste baiño indartsuagoa zara, eta irakasle on baten ardurapean ba'zintzaz, azpiraketari bikaiña biurtuko zintzakez...

“Isildu zan une batez, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

“– Orain Erroma'rako naz, eta nirekin ba'zentoz Zesarea'ko portuan begira dodan ontzian, amabost egunen buruan munduko uribururik ederrenera elduko zintzakez.

Aukera ona zan niretzat euntariak eskintzen eustana. Astirik galtzeke, beraz, baietz esan neutsan, eta gurasoak agurturik, Zesarea'ra abiatu nintzan Flavius euntariarekin. Inguratzen ninduan biziera latzetik urteteko abagune lagaeziña zan, eta itxaropenez gaiñezka, itsasoratu nintzan.

“– Erroma uriburu bardinbakoa iruditu yatan, eta Flavius'ek bere etxean kokatu ninduan, etxeko morroiekin bizi izaten nintzala, eta egun eder batzuk emon nebazan uriko ikusgarriak ikertuz. Laster ikasiko neuke, baiña, mundu onetan gauzak ez dirala duan eskintzen...

“Egun batzuk igarorik, Flavius'ek gerkar-erromatar azpiraketa-maisu bategana eroan ninduan burruka ori ikasi nengian. Krator eritxan maisua, bere askatasuna erosi izan eban kapadozitar indartsua zan, eta ogei urtez burruka aretan jardun ondoren, guztitariko trikimailluak ezagutzen ebazan. Laster asi nintzan burrukaren arauak ikasten, eta luzaro barik nire gertakizuna ontzat emonda, koliseoko jaietan tartekoa izatera eroan ninduen. Geinetan gaiñetik urtetan nintzan, eta aldiaren joanean, nire ospeak go-ra andia artu eban. Ospeari lagundu bear dautso diruak, baiña onetariko gitxi ikusten neban. Izan be, Flavius'en jopia billakatu nintzan. Ezerezetik atara ninduan atxakiaz, eta nire ezkuntzan eralgitako dirua ta etxean neban ostatuagaitik, berak iñoanez seme baten antzera erabilten ninduan-eta, zeozer ordaindu neuskiola bidezkoa zan. Edu onetan, nik irabazitakotik, euneko larogei ta amar bere ziskurako zan, txin apur batzuk baiño besterik ikusten ez nebala.

“Bein baten, orrenbeste zekenkeriz ase, beste iñora joango nintzakela esan neutsan. Orduan berak, Erroma'ko agintzapean egozan lurraldeak Erroma'ko jabetasuna zirala, bai ondasunak bai gizakiak esan eustan, eta bere jopu edo jabetza izanik, emoten eustazan diru-apurrak bere eskuzabaltasunari eskertu bear, ordaindua izateko iñongo eskubiderik ez neban-eta.

“Bere kezkek ez iratzarteko ez neutsan beste aipamenik egin diruaren arazoari, baiña Flavius'enetik anka egiteko erabagi sendoa artu neban, baita aalik lasterren be. Gau baten, Erroma'ko portua dan Ostia'ra isil-ostuka joan, eta Fenizia'ko Tiro'ra itsasoratzeko zorian zan ontzi batera zapart egin neban, eta andik laster Tirreno itsasoan zear Sizilia ugarte atzean itzirik, ekialderantz jo genduan. Ontziak, arnabarrezko tanguluak lorratzen ebazan erroma'tar jauretxe bat eraikiteko, eta arein artean ezkutauta, beste oztoporik bage itsasaldia amaitu zan. Tiro'n, judutar baten etxean kokatu nintzan, eta egun batzuk igarorik, nire abertzaletasunak eraginda, zelatari biurtu, eta noizbait Masada'ko gudari billakatu nintzan”.

Auxe zan Yarus'en edeskia. Amaitu ebanean, itsasaldetik eguzkia ostentzen zan, eta urrutira begira, auxe esan eban:

– Erromatarrek gure erria, Israel, zapaltzen dabe, eta gure betekizuna da, indar guztiakaz aren atzaparretatik jare biurtzea. Mesias'a laster etorriko ei'da, eta orduan, David'en aldietan lez, gure aberriak anditasuna birrirabaziko dau.

– Zein da Mesias ori...?

– Bialitakoa, igarleek aspalditik iragarritako nagusia. Bera etorri dakigunean, arrotzaren buztarria astinduta, gure buruaren jabe billakatuko gara.

Gau aretan oean zetzala, bere buruari zin egin eutsan Dan'ek, arrotza, aberritik jaurtiteko aaleginduko litzakela.

Bein baten Yarus'ek Akai'ri auxe esan eutsan:

– Zure adiskidea dan Basamortuko Semea, azpiraketan neu beste billakatu da, eta ezin dagikeot ezer barririk irakatsi. Neuk, beraz, amaitutzat emoten dot nire irakastaldia. Egin bear dauan bakarra inarkunak dira, ikasitakoa aztu ez dakion eta giarrek indarra galdu ez dagien.

Yarus'ek esanikoari buruz Dan jakitun ipiñi eban Akai'k, eta gero,

– Aizu Dan –esan eutsan–, ezpata-erabilteari dagokiona dana ikasi dozu, eta geriturik zagoz, beraz, gure ekintzetan tartekoa izateko. Onezaz gaiñera, eta buru argikoa zarean ezkerro, amarburu izendatzen zaitut. Lengo egunean geisotu yat amarburutariko bat, eta zeuk beteko dozu aren utsunea.

Poztu zan Basamortuko Semea, eta nagusi ta adiskideari eskertu ondoren, bere buruari zin egin eutsan, zelan edo alan ordainduko leuskiola bere alde egiñikoa.

Arrezkerro, amarreko baten burutzat jarduten asi zan, zelatarien oituren arauz guztitariko inarkunai emotsiela. Onein arteko inarkuna, arkaitz malkorren gora ta beera ekitea zan, batzutan soka baten bidez, eta bestetan esku-utsik. Bere amarrekoan bazan “Katamixarra” ezizeneko bat orretarako trebetasun arrigarria ebalatzen, arkaitzeko arrakal eta urtengunerik txikiak ustiatuz. Akai'ren agintza zorrotzpean, Dan benetako guda-

ria billakatu zan, eta ikasitakoa, orain bere amarrekoan erabilten eban, zuur eta zuzen jokatu. Augaitik, eta agintari artea zan ezkerro, amarrekoak ederrespen andia eutsan. Oneritxi onetan, bere jakintzak eta indarrak zer-ikusit andia eban. Izan be, indartsu izanez gaiñera, Urian'ek beragan jakituri ta zuzentasuna ereintzen saiatu zan, eta oneik Dan'egan agiri ziran.

Bein baten, Akai'k dei egin eta auxe esan eutsan:

– Aizu Dan, Zesarea portutik Jerusalem'era gurdi-jarraigo luzea abiatzen dalako argibideak artu doguz. Azken aldiotan gure aletegia utsik dago, eta bart, Enak gure nagusiak, Misan'ek eta irurok batzar bat izan dogu, eta onen ondorioz jarraigoari erasotea erabagi da. Gure zelatariak jakiñerazo dausku baita be, Polibio izeneko euntariaren zaintzapean, gudari saiaturek aipaturiko lorketea egingo dabela. Jakin bear dozu, dalako Polibio euntaria zangar eta zuurra dan ezketiño, ardura andi-andia erabilitea bearko dogu, aalik eta gariketarik andiena ostuteko, dalako lorketea garia da-ta. Onen ostean, zozketak egiñik, niri etorri yat ekintza ori burutzea.

Biar egunsentian, beraz, Thamma urira joateko basamortura jatsiko gara, lorketak andik igaro bear dau-ta.

– Zelako asmoa dozu ekintza ori burutzeko...?

– Garaia etorri dakigunean, egitekoa asmatuko dogu.

Urrengo egunean, Akai'ren gudariak larrainean alkartu ziran, amarreko bakotxaren aurrean egokion burua aurkitzen zala. Lerroz-lerro oiko azterketea egiñik. Akai'k auxe esan eutsen.

– Gudariok, ekintza garrantzitsua egitera abiatuko gara. Janaria asko urritu yaku azken aldiotan, eta garautegia bete egin bear dogu. Erromatar euneko saiatu batek babestutako gari-lorketearen jarraigo bateri erasoko dautsagu, judutar erriari dagokiona artzeko izan be. Ez da bearreko esatea, zelatariak dagokien antzera burrukan egingo dogula. Gogoan izan, gudariok, zapaltzailleapean gure erriak eroan dauzan sarraskiak, eta aren arrapakaria dala-ta, jasaten doguzan gose ta iraiñak.

Isildu zan Akai'k une batez, eta gero,

– Oartuak ez izatearren, arabitar merkatarien jantziakaz itxuraldatuko gara, ezpat “aba” edo soingaiñaren pean ezkutauta.

Itzok esanda, lagun batzuk arabitar janzkia banandu eutsien, baita zorrotxu bana janariaz. Abiamen au amaitu zanean, Akai'k onetaraxe oiue egin eban:

– Gora Israel...!!!

– Gora...!!! –gudariak batean oiukatu eban–.

– Gora Yahvé...!!!

– Gora...!!!

– Gogoan izan gure erriaren alde ildakoak...!!!

– Gogoan doguz...!!! –gudariak osterata be–.

– Beera zapaltzaillea...!!!

– Beera...!!!

– Garaitu ala il...!!!

– Garaitu ala il...!!! –gudariak erantzun eben–.

Zirragarria zan zelatari areik eskintzen eben ikuskaia, irmo-irno zutunik, begiak abenda izukaitzarekiko maitasun-garras piztuta. Jarraian, Akai'ren agintzapean, amarrekoak eta onein buruak, lerro luzea eratuz Masada'ko iparraldera abiatu ziran. Ekialdeko arresi-atera elduta, Suge-zidorrean beera basamortura jo eben. Eguberdia zan orduko, eta beroa uxatzearen, arkaitzaren geriztune baten babestu ziran arratsbeera arte. Orduan, zeozer janda gero, iparrerantz bideratu ziran gau osoan zear gelditu barik. Goizaldean, Herodium gaztelutik ez urrun, gerizpean babestu ziran illunabarra etorri arte, eta orduan ibillera azkarrez bidegiteari jarraitu eutsoen, eta noizbait, Jerusalem atzean itzita, gabaren begira goizaldean gelditu ziran. Orduan iru azterlari igorri eban zan Akai'k, urrengo egunsentian Thamma uriaren ondoko iturrian batzeko aginduaz.

Biamonean iturrira eldu ziranean, iru azterlariak an egozan.

– Zer barri...? –itaundu eutsen Akai'k–.

– Ara, Jauna –iruretariko batek esan eutsan–, emendik ogei bat kilometrora iparrerantz, gari-lorketearen jarraigoa aurkitzen da. Orain geldirik egongo da gaberarte.

– Gurdi asko ikusi dozue...?

– Gure ustez berrogei ta amar bat izango dira.

Akai'k Dan banazean artuta,

– Zer deritxazu orreri...?

– Nire ustez, illunabarrean bidegiteari jarraituko dautsoe, eta idien ibillierea goan artuta, gaberdian inguru, uri onetatik amar bat kilometrora egongo dira. Nire ustez auxe izango litzake eretik onena ostuketea egiteko.

– Aizu –itaundu eutsan Akai'k azterlariari–, erromatar gudariak oiñezkoak ala zaldizkoak dira...?

– Geienak oiñezkoak, baiña amar bat zaldizko be badira.

Une batez isillik iraun eban Akai'k, eta gero,

– Aizu, Dan –esan eutsan–, urira noan bitartean, gudari onein agindua artuko dozu. Laster izango naz emen. Gero arte.

Au esanik, Akai Thamma urira abiatu zan. Laster igaro eban sarbidea, eta kale estu kiribilsuetan zear, etxe bateko atea jo eban. Gizon batek edegi, eta zelataria ikus-tean,

– Kaixo, Akai –esan eutsan txeratsu–, zerk zakaz neugana...?

– Simon, illuntzean ogei ta amar ganbelu bear dodaz.

– Ori ez da gaberdiko auntzaren eztula, baiña aaleginduko naz. Zertarako bear dozuz zamariok...?

– Masada'ko zelatariai garia eroateko, bearrian andipean aurkitzen gara-ta. Gure garautegia uts billakatu yaku, eta guretariko gudari batzuk dagokiguna kenduko dau-tsegu erromatarrai.

– Eta noiz emongo daustazuz atzera zamariok...?

– Dagokizun mezua Masada'tik elduko yatzu, bearreko argibideekin.

– Ondo da, Akai. Aberriaren alde geuk be, uritarrek, zeozer egin bear dogu.

– Eskerrik asko, Simon. Zelatariek aintzakotzat artuko dabe zure laguntza. Illunabarrean, egoaldeko iturrian zain egongo gara. Agur ba, eta Yahvé'k bedeinkatu zagizala.

Arratsalde aretan, Akai'k eta Dan'ek egitasmoari azkena emon eutsoen. Amarreko bakotxak bost ganbeluen ardura artuko leuke, eta illuntasuna ustiatuz, urreratu, ganbeluak zamatu, eta etorri baizen arin bide ezbaridiñetatik Masada'ra biurtuko litzakez. Akai'k, baiña, kezkatu zirudian, eta bere urduritasuna ikustean,

– Izan be, Akai –esan eutsan Dan'ek–, kezkatu ikusten zaitut.

– Erromatarren zaldizkoek artegatzen nabe, ganbeluak baiña askozaz ariñagoak dira-ta... Zorionez, illargibako gaba izango da.

Illuntze-irian, agindutako ogei ta amar ganbeluak morroi batzuk ekarri ebezan, eta zelataria astirik galtzeke iparrerantz abiatu zirar. Asmatua lez, gaberdia igaro ta laster, gurdien jarraigoa ikusi eben. Orduan, Akai'k egitekoa agindurik, amarrekoak sakanatu ziran, eta luzaro barik, naikoa urrundutako sei lekutatik jarraigoari eraso eutsoen. Itzaiñek ez eben aurka andirik egin, baiña batzuk oiukari emonda, andik laster, oartutako erromatar gudariak jarraigoaren saietsak aztertzen asi ziran. Illunpe aretan, baiña, zaila zan jazoten zana ikustea, eta arin baten, zelatariek ganbeluak zamatu, arindu zeitezan zirikatu, eta arrapalada bizian gabeko itzaletan ostendu ziran.

Bitartean, euntari zaindaria batetik bestera joian, gertatzen zana ulertu barik. Polibio, baiña, gudari zuurra zan, eta itxaron eban goizalderarte. Orduan, eun eta berrogei ta amar zorrobete gari ostu izan eutsiela egiztatu eban, baita lapurren zamariak osteko bideetatik sakabanatu izan zirala be. Bere gudaritariko geienak oiñezkoak ziran, eta beraz ganbeluak atzemonik ez, baiña amar zaldizko baebazan, eta onein bidez lapurrai erasotea erabagi eban.

Ondartzan irarritako zamarien apatxak aztertu eban, eta batzuk Jeriko urirantz joiazala oarturik, arein atzetik joaten erabagi eban Polibio euntariak. Uri onetan adiskide onak baebazan, baita lizuneme ederra be. Olan ba ekintzea biribilduko litzakio, eta eguneko beroa aintzakotzat artu barik, bere zaldizkoen aurea artu, Jordan ibairantz zuzentzen zala.

Bere zamariak zirikatuz Dan ekialderantz abiatua zan. Eguberdiko beroari aurre egitearren, eta bidebatez ganbeluek bearreko atsedena izan egien, muru arritsu baten gelditu zan bere amarrekoarekin. Leku aretatik zabaldiko zati andi bat ikusten zan, eta arerioa urreratzekotan, urrundik ikusiko leuke. Alako baten, iparrerantz abiatuz autsodei andia ikusi eban. Zer izango ete bere buruari itauntzen eutsanean, “katamixarra” urreratu yakon, eta,

– Jauna –esan eutsan–, auts-odei ori zaldi batzuk egiña da.

Ardurarik andienaz Dan'ek autsari begiratu eutsan, eta alako baten biotz-ikara batek artu eban... Zaldi areik Akai'k artutako norabidetik joiazan, eta areitatik igesbiderik ez, lauazka bizian abiatzen ziran-eta. Suzmo larripean, egitekoa laster ebatzi eban. Ganbelu baten gaiñean arrelepo jarri zanean, baiña, “Katamixarra”k eskatu eutsan:

– Jauna, eroan nagizu.



– Ganbelua astiroago ibilliko da. Oba ni bakarrik  
– Jauna, oso argala nazan aldetik, zama txikia ganbelu eder orrentzat. Onezaz gaiñera, Jeriko'n senitartekoak dodaz, osaba Jair batez be.

– Zatoz ba, baiña ganbelua nekatzen ba'da, oiñez jarraitu bear izango dozu.

Jarraian bere gudariai mintzatuz,

– Iru egunen epean –agindu eutsen– ez ba'gara biurtzen, etxera abiatuko zarie.

Eta astirik galtzeke auts-odei aretarantz ganbelua zirikatu eban. Arindu arren be, baiña, laster galdu eben begimenetik autsaren lorratza. Andik ordubete batera-edo, zaldien apatxak arean irarrita ikusi ebazan Dan'ek, eta arein jarraian asi zan.

Bere zaldizkoekin aalegintzen zala, arratsbeera aretan Polibio'k begiz jo eban Akai'ren taldea. Akai be oartua zan jazartua zala, eta burrukan egiteko txapar-saldo bat aukeratu eban. Gari-zorroak babeskitzat metaturik, bere amar gizonekin jazotekoari itxaron eutsan, uztai-geziak alboan ipiñita.

Lauazka bizian erromatar zaldizkoek eraso eutsien aztamakillakaz.

Tximistak antzera igaro ziran, euntariak beretarrak oiuka adoretzen ebazala, eta bein eta barrero zaldizkoen eraso gertatzen zala, Akai'ren gizonen aal ebezan erromatarrek geziz josirik, basakatuen antzera burrukeari emotsoen. Geziak amaitu ziranean, ezpatakaz jardun eben. Noizbait, Akai'k soillik bizirik zirauala, eta oiua bizitan ezpatea danen aurka erabillenean, gudari bik besoetatik eutsi, eta geldi-erazorik beste gudari batek astamakillaz alderik-alde sastakatzeko zorian zala, Polibio'k oiuka,

– Geldi or...! –agindu eutsan– bizirik gura dot lapur ori, bearreko argibideak emon dagistazan. Edozelan be, beti izango dogu aukerea garbitzeko.

Eta zauritutako Akai zaldi baten gaiñean ixtaklok jarrita, erromatarrek Jeriko'rantz abiatu ziran. Illuntzean, arresiko sarkaldeko atean zear urira sartu ziran, eta artez-arte Herodes Agripa'ren gudaletxera joan ziran, leku onetan kokatzeko erromatar gudariak eskubide bete ebazten eta. Andik laster, judutar gudarien buruzagiak, gudaletxea Polibio'ren aukeran ipiñi eban, ikerle garrantzitsu onek Erromatarren mugabako indar eta aalmena ordeztzen eban-eta.

Bitartean, ganbelua etenbarik akuillatuz, Dan eta “Katamixarra” uriko arresiperak eldu ziran gau bete zanean. Orduko, gudarien zaintzapean ateak itxita egozan. Dan arresipean “zeri nakio” egoala,

– Jauna –esan eutsan Katamixarra'k– ementxe itxaron nai ba'dozu, osaba Jair'egana joanda, bereala biurtuko naz soka batez, igon zaitekezan.

Berbok ozta-ozta esanda, arresian gora asi zan mutilla, aritutako Dan'ek begiakaz jarraitzen eutsala, ulertu ezinik ormatzar leun aretatik inor igon zeitekeanik. Katamixarra, baiña, orma-arteak arrakal eta utsuneak ustiatuz, arresian gora joian, eta noizbait,

bere irudi malgua goikaldeko almenen artean ostendu zan. Ordu batzuk igaro ziran, eta berantetsitako Dan'ek bere buruari inotsala mutilla atxillotua izango ez ete, txistu luzea aditu eban, eta bereala soka bat oiñetaraiño jausi yakon. Arin baten oneri oratu, eta laster eldu zan goikaldera. Oraindiño, baiña, zailena egiteko zan: Akai askatzea.

– Entzun, Josue (auxe zan mutillaren benetako izena), Akai non dagoan jakin bear dogu.

– Osaba Jair'ek esan daust, erromatar gudariak datozenetan, Herodes Agripa'ren gudaletxean kokatzen dirala.

– Ba'dakizu dalako gudaletxea non dagoan...?

– Bai, Jauna. Uri au ondo ezagutzen dot, amabi urterarte, aita il zan arte, izan be, emen bizi izan nintzan-eta.

– Goazen ba.

Kale estuetan zear uriko goikaldera igon, eta noizbait arretxe andi batera eldu ziran. Ate-aurrean, argi-mutil bien artetik jarrita, zaindari bat ikusten zan. Etxe bateko atezubi illunpean babestuta, Dan'ek lagunari isil-misilka,

– Entzun auxe ondo, Josue –agindu eutsan–, zaindari orren adikunea erakarten ba'dozu, atean zear iraziko naz. Orretarako, baiña, burura yatorztuna itaundu egiozu. Gero, itxaron emen bertan ni agertu arte.

Katamixarra zaindariagana joanda, eta gaba emoteko ostaru baten elbidea eskatzen eutsala, oin-muturrez Dan gudariaren atzetik igaro, eta sarbidea zearkaturik, motel argituriko igarobide baten zear aalik isillen abiatu, eta laster uztaidun larrain batera eldu zan. Ate batzuk ikusten ziran uztaipeko lau aldeetan, eta isil-ostuka ibilli ebillela, ate baten atzetik mintzo bat aditu zan. Eskuaren eraginpean atea edegi zan astiro, eta errezel gorri baten atzetik gelditu zan. Bestaldetik, abots aginkorra etorkion auxe inoan:

– Amaikagarren aldiz itauntzen daustut noren izenean ostu dozue gure garia.

– Badiraustut barrero be –erantzun eutsan Akai'k–, nire kabuz egin dodala lapurreta ori, eta ez dozu, beraz, beste inori leporatu bear ekintzea.

– Ori, beste inoren aginduz egin dozu, eta Polibio euntaria nazan aldetik, jakin bear dot aren izena, merezitakoa artu dagian. Onezaz gaiñera, len izandako burrukan sei gudari il daustazue, eta ori, Erroma'k aztu ezin dagiken lege-auspina da. Baiña dagokizun zigorra artu aurretik, noren alde jardun dozun jakin bear dot.

– Bein eta barrero esan daustut nire kabuz egin dodala arrapaketa ori. Amondar leiñukoa naz, eta patuak eraginda, basamortuko lapurra billakatu naiatzu.

– Non dozu bizilekua...?

– Inon be ez, alderrai badillan taldea gara-ta. Goiko izarren eta beeko ondartzaren artean egoitza dogu, eskura datorkiguñaz bizi izaten gareala.

– Zein da zure izena...?

– Ben Abar amondarra.

– Ez daustut siñisten, eta egia autortu dagistazun, nire gudari bi onein almena jasangoz dozu.

– Ezin dot, baiña, guzurrik autortu...

Edu onetan alkarrizketea aurrera joiala, Dan'ek errezela alboratu eban pixka bat, eta zabalune aretatik gelea ikusi aal izan eban. Eskuma aldeko mai baten aurrean, Polibio euntaria jesarrita egoan. Bere aurrean jesarrita be, eta eskuak lotuta, itxura neke-tsuz eta burua makurtuta, Akai ikusi eban, alboetan zutunik gudari bana ebalá. Oso makal emoten eban Akai'k, ozta-ozta jesarrita iraun egikeala. Bere adiskidea itxura negargarri onetan ikustean, astirik galtzeke ekitea erabagi eban Dan'ek. Errezelaren atzetik urten, zaplada batáz Polibio'gana urreratu, eta ezpatea saman ipiñita, auxe esan eutsan aginkor:

– Ezin dagiket jasan atxillo bat orren zitalki erabilli dagizun. Gudean artutako etsaiari begirune geiago zor yako. Esaiezu zure morroi bi orreiri, nire laguna askatu dagiela, ostantzean beste mundura bialduko zaitut.

Ezusteak artuta, une batez ezpaitsu geratu zan Polibio euntaria, baiña ezpataren ziztadea oartzean, bizirik jarraitzeko erabagi eban, morroiari auxe agintzen eutsela:

– Askatu egizue atxilloa.

Olan egin ebenean, Dan'ek morroi bateri,

– Orain lotu zure laguna –agindu eutsan–.

Au eginda gero, morroiari osterá be:

– Orain lotu zure euntaria, baita ondo be, guri jarraitzea otu ez dakion.

Au eginda gero, Dan'ek morroiá bera lotu eban, eta irurak ondo lotuta egozanean, oiuka asi ez zeitezán, errezel-zati batzukaz muturreko bana ipiñi eutsen, eta gero Polibio'ri mintzo isekariáz,

– Noren alde diardugun jakin nai ba'dozu, zuen Olinpo'ko Jainkoai itaundu egizu, eta arein erantzuna artu bitartean, geratu zaitez Basamortuko Semearen agurrik be-roenaz.

Au esanik, eta Akai oso makal egoala ikusirik, besoetan artu, eta etorritako bide-tik biurtu zan. Atezaiñaren oztopoa gogoan eban Dan'ek, eta urtenbidera eldu barik, Akai lurtean lagata, atezaiñagana joan, eta,

– Aizu, lagun –esan eutsan–, Polibio euntariaren alde z mezu bat emon bear dautsut.

Ezetariko suzmo barik, atezaiña urreratu yakon, eta elmenera egoanean, esku-ertaz bere biziko zartadea emon eutsan lepo-azurrean. Oñazkarrak jota lez jausi zan atezaiña. Orduan Dan atzera biurtu, Akai besoetan artu, eta gudaletxetik urten zan. Une aretan Katamixarra batu yakon, eta,

– Entzun, lagun –esan eutsan Dan'ek–, uri onetatik lenbailen urten bear dogu, erromatarrek atzetik laster izango doguz-eta.

Biurtu ziran sokea lotuta egoan lengo lekura, eta Akai lepo-gaiñean artuta, astiro-astiro arresiz bestaldera jatsi zan Basamortuko Semea. Katamixarra batu yakonean, Dan'ek lagunari,

– Entzun ondo auxe: aurrean erabilliko gaitu laster Polibio'ren eunekoak, eta Akai dagoan kinka larrian urrun joaterik ez. Ezinbestez aurkitu bear dogu, beraz, ezkutuneren bat. Uri onetako seme zanean ezkerro, bazterrek ondo ezagutuko dozuz...

– Bai benetan, uri onetako gorabeera guztiak ezagutzen dodaz. Emendik ez urrun, sasi ta arrien artean leize-antzeko ezkutune egokia dago. Mutikotan beste lagunekin jo-lastera joan oi nintzan.

– Goazen ba, eguna laster argituko da-ta.

Akai lepoan artuta, Dan mutillaren atzetik abiatu, uriko arresitik urruntzen zirala. Ozta-ozta eguneko lenengo argia ortzian marrazten zanean, Katamixarra'k iragarritako lekura eldu ziran. Ezkutune egokia zan sasi ta sastrakaz inguratuta, nekez idoro zeite-keana, izan be. Kordebagetuta egoan Akai lurtean jarri eban Dan'ek, eta soñia aztertu-rik, bizirik irauala oartu zan.

– Aizu, Josue –esan eutsan sakeletik zidarrezko bat ataraten ebalá–, zoaz lenbailen osabagana, eta txanpon onen ordaiñez, janariak eta zato bete ur emon dagitsuzala. Ernai ibilli, onezkero, erromatarrek bazterrek arakatzen jardungo dabe-ta. Begira ondo baten batek jarraitzen dautsun, onantza biurtzean batez be.

Joan zan Katamixarra. Orduko, uriko ateak zabalik egozan, eta ordubete bi igarorik, sastrakaren artetik begirari jarritako Dan'ek mutilla ikusi eban zorro bete bat eka-rrela. Eldu zanean,

– Zer da barri –itaundu eutsan Dan'ek–.

– Uria irakiten dabil erromatarren joan-etorriakaz, bazter guztiak baiña ostatuak batez be arakatur. Turuta-joten artean, aldarrilari batek eun zidarrezko “denari” eskin-tzen dauz, zuen bion argibideak emon dagiazanari.

– Zure osaba zintzoa al-da...?

– Bai, guretarra izan be. Zelatarriak laguntzearen edozein gauza egiteko gerturik. Ona emen zidarrezkoa, ez daust ezelan be artu izan gura-ta.

– Gure erritar guztiak olan izango ba'litzaz, Israel'ek ez leuke zapaltzaillerik eza-gutuko.

Zorroa edegita, zatoko uraz Dan'ek Akai'ren zauriak garbitu ebazan. Zeregin onetan ziarduala, Akai zirkiñak egiten asi zan, eta noizbait, begiak edegita, berba egin gu-ra izan eban. Dan'ek baiña isillerazo, eta jazoriko guztia edestu eutsan. Amaitu eba-nean,

– Orain indarrak irabazi bear dozuz –esan eutsan–; emendik aalik eta lasterren urrundu bear dogu, ezuste batez toki au aurkitu dagien aurretik. Orretarako, baiña, zuz-pertu bear dozu, eta orretarako jatea ezinbestekoa da. Zeozer indartu zaitezanean, gure amarrekoagana biurtuko gara.

Akai gose zan, eta ekarritako janarietatik gogoz irunsi eban. Gero, lo atsedengari-riak artu eban. Gautu aurretik itxartuta, Dan'eri auxe esan eutsan:

– Gerturik nozu joateko.

Ganbelua itzitako lekura biurtu zeiten agindu eutsan Dan'ek Katamixarra'ri, eta andik ibilteketan, aalik ariñen ekarteko. Mutilla urten zanean, Akai'k auxe esan eutsan:

– Oraindiño ez dautsut eskertu nire alde egindakoa, baiña ziñez diñotsut, Dan maite ori, ez yatala egundo be aztuko.

– Ixo, adiskide...! Zeuk nire alde beste ainbeste egingo zendukela ziur naz-eta.

Orain atsedean artu, eta Katamixarra biurtu daitenean ganbeluz nai ganbelu barik, lagunakana biurtuko gara.

Andik laster Katamixarra ganbeluaz azaldu zan, eta,

– Zorionez –esan eban mutil azkarrak–, geuk lagatako lekuan egoan, bedar urritan alatuz, eta iñork ni ikusi barik isil-ostuka biurtu naz.

– Aizu, Akai –itaundu eutsan Dan'ek–, gautzen asi da onezkero, baiña urten aurretik jakin gura dot, indarretan ondo aurkitzen zarean ala ez. Ezezkoan, itzulpena egun batez atzeratuko dogu indartu zaitez.

– Ez orixe...! Atsedanak eta janariak lengora biurtu nabe. Urten gaitez.

– Orduan, bagara...?

– Bai, Dan, goazen.

Akai ganbeluaren konkoren artean egokitu zan, eta aurretik ugalarari eutsita Dan'ek egorantz jo eban, atzetik Katamixarra'k erraikiela. Gabeko ozkirripean aurrera joiazan, Jeriko uria atzean ezabatzen zala. Urrutian marrazten ziran mendien ebakuna aztertuz, baekian Dan'ek artu bear eban norabidea, eta olan nekeari jaramon egin barik, bitartea irusten eben.

Iru egun igaro izan ziran Dan Akai'ren billa joana zala, eta agindutako epea igarorik, zelatarien amarrekoak etxerako abiamenak egiten ebazan goizalde aretan. Ezustean, begirari batek andik ez urrun ganbelu baten irudi laifotsua ikusi eban, eta lagunai iragarrita, bertanbera danok oldartu yakoan, eta pozez gainezka Akai ta Dan zirala egiztaturik, oiuka asi ziran.

Etorbarriak illuntzerarteko atsedena ta bearreko janaria izanda gero, lenengo izarrak ortzia edertzen eben garaian, Dan'en amarrekoa etxerakoa egiteko gertatu zan. Akai bere einera biurtuta oartzen zan, baiña badaezpadan, ganbeluan joan zeiten agindu eutsan Dan'ek. Egun bi igarorik, urrutian, Masada arkaitzaren irudi malkartsua agertu yaken. Orduko Akai ta Dan alkarren ondoan ibilli ebiltzen, eta eguzkiak laztanduriko atx erraldoia ikustean,

– Begira, Akai –esan eutsan Dan'ek–, gure egoitzaren ederra...!

– Bai adiskide, ederra da baita bildurgarria be.

– Gure aberriari dagokion euskarri ezin ederragorik.

– Bai, Israel zutunik iraun-erazoten dauan judutar gudarien jauretzea da.

Adiskideak isildu ziran, eta gero Akai'k,

– Ez dot aukera andirik izan zuk nire alde egiña bear dan lez eskertzeko. Zeugaitik ze, orain ilda edo erromatar zapaltzailearen espetxe baten egongo nintzake. Galtzori andian ipiñi dozu zure burua ni onik ataratarren, eta ori ez dot egundo be aztu egin-go.

Eta Dan'ek ezer erantzun aurretik, Akai'k barriro,

– Askatu ninduzunean, Polibio'k zelan edo alan jakin gura eban noren aldez giarduan. Jakin ba'leu gari-ostuketea geuk zelatariorik egiña zala, Herodes Antipas'egana joanda, erasoko euskuen gudatalde indartsu bat az Masada'ko abertzaleak ondatuz gainera, bizilekua galduko genduan... Dan, nagusi on bat bear dogu, baiña ez dakit oraingo gure nagusia bear dogun aintzindaria ete dan. Burrukalari ona da, baita zangarra be, baiña Enak'eri bearreko zuertasuna peitzen yako, eta gainera, edozein akatsaz jaiotako ume errubakoen erailketea, ezin dot jasan.

– Ezta neuk be.

– Ez al-dakizu gauza bat, Dan...? Zeuk izan bearke zenduke gure nagusia.

Arrituta begiratu eutsan Dan'ek, eta gero,

– Ori ezelan be ez. Ez dot orraiño eldu gura; batetik, oraindiño oar-ikaste urrikoa nazalako, eta bestetik, gazteegia jardun orretarako; orrezaz gainera, eta au gure artean geratu bedi, Masada'n espetxe baten antzean oartzen naz. Izan be, irrikan nozu munduan zear joateko, bere ezkututa edertasunak ezagutzearren... Baiña ama dala-ta, ezin dot irrika ori bete...

Ona elduta, isildu ziran adiskide biak, eta illuntzea barik Masada'ko euren egoitzara eldu ziranean, bere begira berantetsia egoan amari, besarkada maitekorra emon eutsan.

Dina ez-titan egoan semearen itzulpenaz, eta urrengo egunetan bere zaintza zala-ta, Dan lengora biurtuta, indartsu ta kemenez gaiñezka oartzen zan. Akai'ri be, artutako zau-riak osatu yakozan, eta luzaro barik bere gudarien artean ikusi zeitekean oiko iñarkunai emonda. Erromatarrai ostutako gariketea onura andikoa azaldu zan, zenbait illabeterako janaria ziurtaturik. Gosea garaituta, beraz, zelatari oneik gai billakatu ziran oiko bizike-reari emoteko, au da, iñarkunai ta noizbeinkako basamortuan zearko ibillaldiai, erroma-tarrai aal eben kalterik andiena egiñez, bai gizonetan, bai guda-orniketan. Ezustekoak zi-ran erromatar gudarien aurkako ekintzok, talde txikitan ziardueanean batez be.

Azpiraketari lege andia eutsan Dan'ek, eta aal ebanetan, Yarus irakasletzat artu-ta, soiña trebetzen eta indartzen eban. Izan be, maisua aiña edo geiago zan Basamortu-ko Semea, baiña iñarkunak egiten jarraitzen eban, eta Misan ankerra alde batera lagata, azpiraketan ez zan iñor berarekin kide-tu zeitekeanik Masadako barrutian. Ezpateaz, baiña, gain-gaiñeko burrukalari izatetik urrun samar egoan.

Bein baten, ezpata-iñarkun ikusgarria ospatu zan Akai ta beste buruzagi baten ar-tean. Ospakizun areitan ezpatearen muturra egur-zati bat az estaltzen zan, leikideek mi-ñik artu ez egien. Leikideari nork lenengo irugarrenez jo, axe irabazle. Judutarren jai ospetsu baten, gudarien larraiñean ospatu zan sasi-burruka au, ezpataririk onenen ar-tean. Akai ta kanpotik etorritako buruzagi bat aukeratu izan ziran, Masada'ko gudariai ikusgai ederra eskintzeko. Onein aurretik arinlariek jardun eben; gero azpiraketariek, eta azkenean ezpatariek.

Ezpatearen jarduna bikain-bikaiña billakatu zan, ikusle guztien adikunea erakarri-rik. Ordu-lauren bat iraun eban ekitaldiak, leikideek basakatuen antzera alkarren leian ziarduela, noiz erasoka noiz babeska. Leikide bakotzak ezpata bi erabillezan, sorbatz bikotzekoak, laburrak eta oso erabilkoiak. Sasi-burruka aretan Akai gaiñetik urten zan, eta ezpatarien trebetasunak erakarrita, bere adiskideari auxe esan eutsan Dan'ek:

– Ekitaldi zoragarria izan da, Akai. Bene-benetan Masada barrutiko ezpataririk onena zara.

– Ez uste ori, adiskide, emengo gudariak diñoenez, Enak gure nagusia ezpataririk onena da Itsaso Illaren inguru guztian.

– Ikusgarria izango litzake zeu ta Enak'en arteko leiaketa bat.

– Enak'ek ez dau iñongo leiaketan jarduten. Ezpatea darabillanean, leikidea erail-teko da. Berak agindutakoa norbaitek men egiten ez dauanean, orduan eriotz-leiaketea gertatzen da, eta sumin gorri-pean, ez da gelditzen agintza-auslea garbitu arte.

– Ikusi al-do zu olako jazoeraren bat...?

– Bai, bein baiño sarriago, eta izan be, ziñez diñotsut auxe: ez neuke gura bere aurka burrukan egitea.

– Orren ezpatari ona ete da...?

– Tximistaren antzekoa, basakatuaren malgutasunaz atsedenerik ez dautso emoten leikideari. Arerioa nekearen-nekez arnas-estuka asten danean, itzetik-ortzera, oiñazkarra bai'litzan, Enak'en ezpateak alderik-alde zearkatzen dau. Augaitik, gudariek "Enak Basakatu" esaten dautsoe.

– Masada'ko gudariek maite ete dabe Enak...?

– Ezta urrik emon be, baiña aren aginduak beteten dabez txintik atara barik. Isildu ziran adiskideak, eta gogoeta baten ostean, Dan'ek,

– Aizu, Akai –esan eutsan–, irakatsiko zeunskidaz ezpataritzaren legeak...?

– Zertarako, baiña...? Nire ustez polito samar diarduzu erabilte orretan.

– Ez, Akai, gaurko iñarkuna ikusita, zu baizen ezpatari ona izatetik urrun nabillela oartu naz. Izan be, zelatariak ezpatari onak izan bear dogu, aberria oraingo kinka larritik atarateko.

– Ondo da. Egunoroko jarduna amaituta, gudaletzeko iskillor-aretoan ezpataren erabiltea irakatsiko dautsu.

Olan ba, egunoroko betekizunak burututa, iskillor-aretoan ikastaldia asten zan. Aldi areitan, zelatariak bitara burrukan egiten eben. Bata ezpata-erredolakoa, eta bestea erredolabakoa esku bakotxean ezpata bana erabilliz.

Ikasle bikaiña azaldu zan Basamortuko Semea, eta bere indarra ta malgutasuna ziralata, laster ikasi ebazan ezpataren trikimailluak. Bein baten ikaslearen gaitasuna ikusirik, Akai'k,

– Aizu, Dan –esan eutsan arituta–, ezpataren erabiltean ni aiña edo areago billakatu zara; dakidan gutzia ikasi dozu, eta esan bearrean naz, ez nazala gauza irakasleztat jarraitzeko. Aurrerantzean naikoa litzakizu egunoroko jardunaldi laburra gaitasuna galdu ez dagizun, baiña ziñez diñotsut ni aiña edo areago zareala. Ezpata bikotxa erabiltean zeu lakorik ez dot ezagutzen, Enak berbera izan ezik.

– Bera baizen ona billakatu nai izango neuke.

– Ori jaristeko, egunoroko iñarkunari emon bear dautsazu buru-belarri, eta orretarako nire ezpataririk onenak aukeratuko dodaz.

Olan ba, Dan'ek egunoro ezpata erabilteari emotsan, eta osteko leikideen aurka jardutea, lagungarria azaldu yakon trebetasuna obatzeko. Edozelan be, azpiraketari ez eutsan ukorik egin, noizean bein Yarus'ekin ziarduala. Ogei ta bat urteko zan orduko Basamortuko Semea, eta gizontasun osora eldu ez izan arren be, indar eta arintasunean gitxi bera lakorik. Onezaz gaiñera, erromatarren aurkako ekintzetan gudari urtena azaldu zanez, bere ospea gero ta andiagoa egiten zan zelatarien artean.

Jaiegun bateko arratsaldean, arresiaren ondotik Dan eta Akai egurasten joiazala, alboko etxe batetik, Sara izeneko emakume gazte bat urten, eta Akai'ren aurrean belau-niko, negar baten auxe esan eutsan:

– Entzun egistazu Akai errukitsu orrek...! Orain illabete bat sein egin neban, baiña nire gaixoa erren jaio zan, anka bat bestea baiña laburragokoa. Isillean gorde egin dot ori Enak'en ezagutzera eldu ez zeiten, baiña gaur, Gorus abadeak erdainteketa egitera etxera etorri, eta nire aurraren akatsa ikusi dau. Arrenkatu dautsat iñori ez esateko, baiña besteetan egin dauan lez, Enak jakitun ipiñi dau, eta nire seiña amildegian beera jaurtiko dabe gau betea egin daitenean, inguruko saiek irunsi dagien... Arren, Akai, egin zeozer bere alde...!

Au entzunik, errukitsu begizatuz, Akai'k esan eutsan,

– Ez dakit zer egin dagikedan zure aurraren alde, baiña gogoan erabilliko dot, eta zeozer otuko ba'litzakit, orduan...

Itzok esanik, eta ama gaixoa etxera sartzen zala negar baten, adiskide biek egurastuari jarraitu eutsoen isillean. Gogora ekarri eban Dan'ek, Enak'en aitaren aldietan, zelatarien oitura basati areri jarraituz, berari jazo yakona, eta bere buruari zin egin eutsan aaleginduko litzakela, ama-semeen ezbearra eragozteko.

Noizbait, adiskide biak Dan'en etxera eldu ziran, eta eragin bakanari jarraituz, Dan'ek,

– Aitu, Akai –besotik oratuz esan eutsan–, eskertuko neuskizu, gurekin bazkaltzera geratuko ba'zintzaz. Ama ta Axa poztuko litzakez zu maikidetzat izatea.

– Oba ez...!

Au esanda, adiskideak etxera sartu ziran, eta mai-inguruan jesarrita, laurok zelatarien oiko bazkari arruntari emon eutsoen. Dan'ek eta Akai'k bazkaldu bitartean, isillik zirauela ikusirik, Dina'k semeari auxe esan eutsan:

– Zer dala-ta, seme, gaur orren isillik...?

Orduko, bazkaria amaitu-agiñean zan, eta bere barrua asazkatu naiez, Sara gaixoari jazorikoa, Dina ta Axa jakitun ipiñi ebazan Akai'k. Gero, onetaraxe amaitu eban, bere arrenkurea agirian ipiñirik:

– Arazoa gogoan erabilliko neukela agindu dautsat Sara gaixoari, baiña egia esateko, ez dakit nondik asi...

Isillune astuna edatu zan une luze samar batez. Bitartean, Dan'ek burua urratzen eban arazoari urtenbidea idoro naiez, eta noizbait bere gogoetai amaia emonez,

– Entzun egistazue –esaten asi zan–; seiña onik atara gura ba'dogu, Sararen etxetik beste iñora eroan bear, eta nire ustez ona ekarte biderik ziurrena litzake, etxe au arakatzea otu dakien zailla dalako, eta gero, ikusiko dogu...

Orduan, Akai'k eten egin eutsan auxe iñotsela:

– Perea lurraldea ta Itsaso Illa'ren artean dagoan QumRan'eko esenitarren lurraldean, emakume errukitsu bat ezagutzen dot, eta Sara'ren seiñarena zeozer aztu daitenean, ekintza laga-eziña burutu bear dodalako atxakiaz, gau baten aurrera QumRan'era eroango dot, eta dalako emakume errukitsuak aziko dau.

– Burutapen bikaiña –esan eutsan Dan'ek–. Gau betean, Enak'en iltzailleak Sara'ren etxera joango dira seiñaren billa, eta orren aurretik, ara joanda ekarriko dot etxera.

Ontzat emon eben Dan'en asmoa, eta jarraian, seiña artzeko gertakizunai emon

etsien Dina'k eta Axa'k. Erabagi zan baita be, gau beterarte Akai etxetik ez zeitela urten, iñork ikusi ez egian. Ordu batzuk igaro ziran asmoari ekinenez, eta illuntzean, itzalak oroz jabetzen asten ziranean, Dan etxetik urten, eta isil-ostuka bere irudi lerdan eta ariña ezabatu zan.

Sara'ren etxeko atea jo ebanean, erdiz edegitako ate-zabalunearen artean emakumeak Dan ezagutu ebanean, barrura igaro-erazo eban. Gazteak orduan, itz laburrakaz bere asmoak azaldu eutsan.

– Arin Sara –amaitu eban Dan'ek– asti-galtzerik ez dogu-ta. Emoistazu seiña, eta etxean jagon egingo dogu geurea bai'litzan.

Sara'k seiña burusitxu baten bildu, eta azken apa-laztana emonda, Dan'eri eskuratu eutsan, malkoak aurpegian beera eriozala.

– Agur, Sara –esan eutsan gazteak–, egunen baten zure semetxua bizirik eta onik biurtuko dautsugu. Enak'en iltzailleak umearen billa datozenean, esaiezu zerorrek il dozula arkaitzen beera jaurtiz.

– Agur, gazte, Yahvé'k ordaindu dagizula...

Illunpetan ezabatu zan Dan'en irudi malgua, seiña soiñekopean ezkutauta eroiala. Etxera eldutakoan, amak eta Axa'k, tutu bataz aunts-esnea emonda gero, aurra askatxu baten ipiñi eban.

Gaberdia igarorik, Enak'en iltzailleak Sara'ren etxera seiñaren billa joan ziran, eta au ez aurkitzean, aiñenka ta biraoka zer jazo izan zan itaundu eutsoen, eta besoari zakar oratuz,

– Esango dauskuzu, urdanga orrek, non dagoan zure seme errena...?

– Neronek amildegian beera jaurti egin dot, gure legeari jarraituz.

Itxura pekotiz begiztatu eban iltzailleak, eta orduan oneitariko batek,

– Zailla da siñistea –esan eutsan– ama batek bere semea il dagiala.

– Zoraldi batek artu ninduan gau onetan nire semea ilgo zala oldoztean, eta olakorik nik neuk egitea egokiagoa izango litzakela burura etorri yatanez, aurra artuta, arre-siaren gaiñetik bota egin dot.

– Ori biar bertan egiztatuko dogu, aren gorpua ikustean.

– Orduko, Masada'ko sai gosetiek iruntsita, ez dozue aren gorpua ikusiko.

Barrero be, Enak'en morroiek itxura pekotiz begiztatu eban Sara, eta areitariko batek soiñak jasorik,

– Goazen, lagun –esan eutsan besteari–, emen ez yaku ezer galdu-ta. Esan dagi-gun nagusiari jazo dana, eta or konpon...!

Goiz aretan oetik jagi-barria zan Enak morroi biek jakitun ipiñi ebanean, asarre gorriak artuta, jazotakoari buruz guztitariko azterketak egiteko agindu eban. Noizbait, eguberdia barik, Basamortuko Semea ta Akai, aurregunean Sara'rekin izketan ikusi ebazala, andrazko batek autortu eban. Asarre gorrian, arratsalde aretan gudarien batzarrera egitea agindu eban Enak'ek, bere kautan auxe iñoala:

– Akai ez yat egundo be gogokoa izan, belaxka ta errukitsu beti azaldu dalako, eta gudari ona izateko, samurkeria alde batera laga egin bear da. Basamortuko Semeak,

ostera, badirudi ekintza entzutetsuak burutu dauzala, eta bere burua larregi ederresten danetarikoa izanik, nire aginduak aintzakotzat ez ditu artu gura. Izan be, aren ingurukoek gudari argi ta zangartzat dabe, baiña arazo onetan eskua sartu ba'dau, garbituko dot beste barik, guztientzako eredia biurtu daiten. Bai orixe...!

Eta au oldoztean, bere ezpataren sagarra laztandu eban, irribarre gaiztoa aurpegi ezkibelean zear edatzen yakola.

Arratsalde aretako bostetan inguru, gudaletxeko larraiña gudariz mukurru bete egoala, bere jarraigoarekin Enak agertu zanean, isiltasun betean guztien adikunea zelatarien nagusiagan untzatu zan, bakotxak bere buruari itauntzen eutsala dei aren zergaitia. Arranditsu ta astiro Enak besaulkian jesarri zanean, oiko joteaz batzarraren asiera aldarrikatu eban turutari batek. Onen ostean, mintzo beteaz Enak onetaraxe asi zan:

– Gudariok, Israel'go burrukalaririk zangar eta saiatuenok...! Danok dakizuenenez, aspalditik gure arteko legea izan da, soiñaren akatsen batekin jaioten diranak, gure artek garbitu bear doguzala, oztopoak baiño ez diralako. Ezin dagikeguz ezertarako gauza ez diranak alperrik zaindu ta janaritu. Lege ori antxiñako gure asabakandik datorkigu, eta berari esker gaurdaiño iraun aal izan dogu.

Isildu zan une batez, eta begi zorrotzakaz lurrean jesarrita egozan gudarien erreskadak aztertuz, onetaraxe jarraitu eban:

– Baiña atzo lenengoz, jarraituz eta ekanduz indarrean egoan lege ori, baten batek bere kabuz autsi egin dau, eta erren jaiotako Sara'ren semea ostu dausku, merezi eban azkena eragotziz. Gaur, emen, gurekin dago dalako lege-auslea, eta guztien aurrean salatz gaiñera, dagokion zigorra artuko dau, beste urrengo baten olakorik iñori otu ez dakion.

Isildu zan ostera be Enak, eta gero mintzo aginkorraz,

– Aurkeztu bedi Milne alarguna.

Gudarien arteko erreskadatatik, atso bat ibilte kolokaz Enak egoan lekuraiño igon, eta onen aurrean zutunik geratu zan.

– Egia al-da, Milne –itaundu eutsan aginkor–, atzo eguberdiak Akai ta Dan'en aurrean belauniko, dalako Sara'k bere akasdu semea babestu egien eskatu eutsela...?

– Bai, Jauna.

– Eta gero zer jazo zan...?

– Larritu ez zeiten Sara'ri esanik, Akai'k eta Dan'ek egurastuari jarraitu eutsoen. Besterik ez dakit, Jaun agurgarria

Milne atsoak alde egin ebanean, abots durundutsuz, auxe oiukatu eban Enak'ek:

– Akai ta Dan, benetako gizonak ba'zarie, esaidazue zer billakatu dan Sara'ren seiña.

Akai jagiteko zorian zala, baiña, Dan'ek jesarri-erazo eban, abopeka auxe iñotsala:

– Arren, Akai, laga egidazu arazo au niretara atondu dagidala.

Au esanik, jagi zan, eta mintzo ozenaz,

– Sara'ren semea nire babespean artu dot, ezetariko kalterik artu ez dagian.

Asarrez irakiten Enak besaulkitik jagi zan, eta gorrotoak eragindako didar bizitan,  
– Nor zaitut, nire aginduetara makurtu ez zaitezan...?

– Dan, Basamortuko Semea nozu, orain zelatarien amarreko baten burua.

– Egiña bizitzaz ordainduko dozu. Baiña orren aurretik, esango daustazu zergaitik egin dozu lege-auspen ori...?

– Neuk egindakoa ez da iñongo lege-auspena, naikeri iguingarriaren aurkako ekintza baiño. Jakin bear dozu, Enak, bizitzaren eskubidea ez dagoala zeugan, eta orain arte erabilitako oitura zantar ori, gure erriaren kalterako izan da.

Asarrez orruka, Enak'ek,

– Begira Dan –esan eutsan–, gure taldeak ezin dau alperriko aboak janaritu, onura dakarskuenak baiño. Iraun gura ba'dogu, jatekoa da gure arazorik larriena, eta zerorrek badakizu, bearrekoa eskuratzeko gudaritan jasaten doguzan kalteak. Azken illabete biotan, amabi gudari galdu doguz gutarren iraupena ziurtatzeko. Augaitik ba, eta nire agindua aintzakotzat artu barik, gure taldearen onerako aspalditik jarritako legea autsi dozun ezkerro, egindakoa zure bizitzaz ordainduko dozu.

– Ez dot damu, egiña. Ume gitxi batzuk gora-beera, gure taldeak ez dau txulut egingo. Egia da, irauteko gudari trebeak bear doguzala, baiña eskulana be, soñeko, oiñetako ta iskilluak atontzeko. Gure alor urriek zaintza ta garasta ugari eskatzen dabez. Maisuak bear doguz umeak eskolatzeko, baita izarriztia, ludiztia, eta beste jakingarriak irakasteko. Eta gudaketea bestalde, oiko lanak, akatsen batez jaiotako zelatarien umeak gai dira egiteko, eta orregaitik errubakook eriotzera galtzea ergelkeri utsa da... Oitura zentzunbako ori, daukagun aberastasun andi bat Masada'ko amildegian beera jaurtitea lez da, eta gaiñera, olakorik egiteko eskubidea ez dautsu emon Yahv'ek, ezta urrik emon be...

Isildu zan une batez Dan, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

– Oziel gudari zanaren seme naz, eta jaió ta laster gatx batek jota, itsu billakatu nintzan. Ekandu orreri jarraituz, zelatarien nagusia zan Joab'ek, zure aitak, erail ninduela agindu eban. Nire amak, Dina'k, aita zanaren adiskideari, Yair'eri, basamortura eroan nindegian eskatu eutsan. Olan egin eban adiskide orrek, eta basamortuko atx baten gerizpean laga ninduan. Zorionez, andik igaro zan Urian izeneko armenitar batek aurkitu ninduan, eta gero, egositako bedarrakaz ikusmena irabazi neban. Aldiaren joanean emen nozue zelatari billakatu. Eta auxe autortzen dot, oraindiño indarrean dagoan agindu basati ori bein betirako kendu dagigun.

Dan'ek itz egin bitartean, gorroto ta asarre gorriak artuta, aren berbaldia eten egin gura izan eban Enak'ek, baiña nagusia izan arren be, jarraituz eta ekanduz gudari batek bere alde autortzen ebana, aintzakotzat artu bear, zelatarien legeak olan agintzen ebana. Baiña basa-nagusi arek zin egin eutsan bere buruari, zor nai lor Dan il bear ebal. Agintzakerira oituta, ezin egikean onartu bere aurka iñor azaldu zeiten. Bere agintzaldian lenengoz, gudari bat aurka azaltzen yakon, eta au ezin egikean jasan bera lako jauntxo asarrekoiak. Gorrotoz irakiten jagi zan besaulkitik, eta beretik urtenda oiú bizitan,

– Guzurra, madarikatu ori...! –jaurti eutsan–, Burutik buztanera guzur utsa da esan dozuna, eta augaitik, Yahvé aaltsuari eskatzen dausat, zeuk zelatariai egindako iraiña, odolaren bidez garbitu dagizula. Olan ikusiko da nor dagoan zuzen: geugana etorri dan guzurtia, ala Enak, Joab zangarraren semea...!

Eta morroi bateri zuzenduz,

– Ekarrri egistazuz ezpatak –agindu eutsan–.

Morroiak ekarrirako ezpata biak esku banatan eragiñez, larraiñeko erdira jatsi zan, eta,

– Zatoz neugana, Dan denganiño ori –oiú egin eban asarre bizian–, eta agertu bedi noren alde dagoan Yahv'eren legea...!

Larraiñeko erdigunea ustu egin eben gudariek, eta Enak'ek ezpata biak zemaikor erabillezala, etsaiari itxaron eutsan. Bertanbera, Akai'ren aginduari jarraituz, Katami-xarra'k Dan'en ezpatak ekarrri ebazan, eta ezpata-sagarrai tinko eutsirik, ibilte irmoz Basamortuko Semea urreratu zan, eta mintzo argiz,

– Gerturik nozu, Enak –esan eutsan–, eta azaldu bedi, noren alde dagoan Israel'en Jaungoikoa.

Ezpata bikotzeko burrukea, arras ikusgarria izan oi zan, ezpatariak babeskitzat eta era berean eraso-tresnatzat erabilten ebezala. Gudarien artean azal eta zabal ebillen, leiaketa onetan Enak maisu bardinbako zala, eta arnasari eutsirik, geienek Dan iltzat emoten eben. Beste batzuk, ordea, Yahv'eri mirari bat eskatzen eutsoen, Basamortuko Semea estualdi aretatik onik eta bizirik urten zeiten. Edozelan be, gudaririk geienek maitasun baiño bildur andia eutsoen Masada'ko nagusiarri.

Oikoa zanez, Misan eta Akai buruzagiak izanik, leikideen saiets banatan kokatu ziran, bearreko izatekotan epaikaaritzat jarduteko. Orduantxe bertan, zerbitzuan zaarrena zan Misan'ek, burrukeari asiera emon eutsan.

Eta Masada'ko zeru gardenpean, urte askotan zear aztu-eziña billakatuko zan burruka ikusgarriari, arratsbeerako eguzkiak asiera emon eutsan. Leikideen ezpatak zidarezko tximeleten egoak bai'litzazan aizea ildokatzen eben, eriotzaren laztanak antzera. Enak ogei ta amabost urteko zan, amaika burruketan gogortua. Indartsua zan, indartsua, zelatarien nagusia, eta onezaz gaiñera, leikide saiatua. Indartsua zan baita be, Basamortuko Semea, eta arerioa baizen oitua ez bazan be, bere baitan basakatuaren malgutasuna kokatzen zan. Onezaz gaiñera, elburu zuzen baten alde ekiteak indar ezkutua emotsan.

Asiera baten, leikideek ez eben benetan jardun, alkarrekiko ezagutzea egiten ebe-la, etsaiaren alde-aurkak ezagutzearren. Laster, baiña bere burua garaitezintzat eban Enak, benetan jarduten asi zan. Gogoan eban Dan'ek, baiña, sarri askotan Akai'rekin izandako iñarkunetan, ezpatari ona izánez gaiñera, gitxien nekatzen danak, burrukaren amaia bere alde dauala. Augaitik ba, Enak'en eraso indartsuai jarkiten yakon arintasun utsaz, etsaiaren ingurutik ikoti-dantza bateri emotsala, Enak'en jokabidean nekearen aztarnak agiriko ziralakoan.

Alako baten, baiña, Enak'en ezpatakada batek Dan besaburuan zauritu eban, odol-

jausteak besoa gorritzen eutsala. Au ikustean, eta gurenda berea zalakoan, Enak'ek indartsuago jardun eban, baiña bere ezpatakada geienak utsean galtzen ziran, mamu atziz ezin baten aurka jardungo bai'leuan. Astiro baiña etenbarik, Enak'en nekea agirian jarten zan. Bestaldetik, baiña, odol-galtzeagaitik, Dan makaltzen asten zan, eta ekiteko ordua uste izanik, galdu-gordean, ezpata bi ai eguzkiaren argizko ezpalek izpiak erauzten eutsiezala, erasoaldia indartu ta azkartu eban, nekaturiko Enak atzeraka asten zala lenengoz. Alako baten, oiñazkarra bai'litzan, Basamortuko Semearen ezpatak Enak'en bularra alderik-alde zearkatu eban. Tximistak jota lez, lurrera amildu zan zelatarien nagusia, isillune osoa larrañean zear edatzen zala. Gero, Arratsbeerako eguzkiak Masada'ko amildegia odolez margozten ebazala, gudarien oiua aditu ziran, Dan bein eta barrio goratuz durunda gortugarriakaz, Goliat garaitu ondoren beste David bai'litzan.

Oiu ta txaloak baretu ziranean, larrañaren erdian jarrita, bere zintzoenatariko gudariak inguratuta, Misan'en abots indartsua aditu zan onetaraxe:

– Zelatariok, Israel'go semerik azkarren eta zangarrenok...! Il yaku Enak, orain arte izan dogun nagusi ederretsia, eta gure legeai jarraituz buruzagien artean antxiñakoen nazan ezkerro, niri datorkit Masada'ko nagusigoa.

Gudari batzuk Misan'en berbok didar eta txaloka agurtu ebezan. Izan be, agiri zan zelatari askok nagusizat beste bat aukeratuko ebela, baiña ez zan iñor azartzen, jarraituz eta ekanduz onartutakoaren aurka joaten. Onen ostean, bere erabagia sendotzearen, Enak'ek len erabillitako besaulkian jesarri zan, gudarien batzarrari begi aginkorraz so egiñez. Alako baten, eta Misan'ek berba egikean aurretik, Akai larrañaren erdian jarri zan, eta ùne aretan sortutako isillunea ustiatuz, onetaraxe mintzatu zan:

– Masada'ko gudari zintzook...! Oraintxe bertan, ezpata-leiaketaren ondorioz, Yahvé'ren naia akatsdun umeen eriotzaren aurka azaldu da. Augaitik beraz, aurrerantzean ez da ilgo soiñaren akatsen batz jaiotako umerik...!

Itz oneik txalo-jote ta oiuka ontzat emon eben batzartutako gudariak. Jarraian, besaulkitik jagita, auxe aldarrikatu eban Misan'ek:

– Biar arratsaldean Enak zangarraren gorpua obiratuko da, eta onen ostean, sortu dan nagusiaren utsa neronek beteta, nire orde bester buruzagi bat aukeratu bearko dozue, zuen gogokoa izan be.

Onezaz batzarra amaitu zan, eta nekea arintzeko ta zauria zaintzeko, Dan etxera biurtu zan. Sartzerakoan, amarekin egoan Sara ikusi eban. Onek, erren jaiotako bere seiña besoetan ebala, Dan'en aurrean belauniko, eskuak mosuz estali eutsazan eskerro-nezko malkoak isuriz, bein eta barriz auxe iñotsala:

‘– Bedeinkatu zagizala Yahvé'k guztiz aaltsuak, nire semea eriotzetik atzera biurtu daustazulako...!

Noizbait, ama eskertsua bere seiñarekin etxera biurtu zanean, Dina'k eta Axa'k Dan'en zauria zainduta, oean etzan-erazo eben. Illuntzean Dan'en zauriari buruz jakitearren Akai etorri zanean, auxe esan eutsan:

– Barkatu egistazu lenago etorri ez izatea, baiña batetik bestera txit arazopetuta ibilli naiatzu, gudariak burutara emotearren, biar buruzagitzat aukeratu zagiezan. Misan

bere aldetik ortik dabil jo ta ke, berak Masada'ko nagusitza artzean lagako dauan utsunerako, bere gogokoa dan amarreko-burua aukeratu dagien, guztitariko guzur eta amarruak erabilliz. Augaitik ba, eta zu gutariko onenatzat zaitudan ezkerro, gudarien artean lanean jardun dot, biar buruzagi aukeratu zagiezan. Lege andia dautsue gudariak, baiña badaezpadan, orain Katamixarra etxerik-etxe dabil zure aldeko zabalkundea egiñez, eta beste lagun zintzo batek orixe bera egiñez gudaletxean diardu.

Isillune bat sortu zan, eta gero Dan'ek,

– Begira Akai maite ori –esan eutsan–, biotzez eskertzen dautsut nire alde egindakoa, baiña bene-benetan beste bat aukeratu zengien eskertuko neuskizue.

– Nor, baiña, orretarako zu baiño egokiagoa...? Esaidazu, adiskide orrek, zerk eragiten zaitu orren nakar agertzeko...?

– Ez dakit, baiña zerbaitek badiñost ez nazala luzarorako izango emen.

– Ken ortik, Dan, ames egin daiteken buruzagirik onena izango zara. Alaitu zure aurpegi ori, gaur guretzat egun gogoangarria izan da-ta. Zapaltzaille bategandik jaregin gaiatzuz, eta aspaldiko oitura basatia ezereztu. Artutako zauriak nakar biurtu zaitu. Atsedean egin orain, eta biar gauzak beste ikuspegi batetik oartuko dozuz. Agur, eta biotz on...!

Urrengo egunean illundu barik, zelatarien ekanduari jarraituz, salmu-eresien artean, gudariak Enak obiratu eben, eta arlasta astunak obia estali ebanean, gudaletxera biurtu ziran bigarren buruzagia aukeratzearren. Autagai bi ziran: bata, Jonatan, Misan'ek aurkeztua, eta bestea Dan. Misan'ek bere kutunaren goralpena egin eban, eta Akai'k bere lagunarena. Itzaldi oneik amaitu ziranean, autapena egin zan onetaraxe:

Autagai baten izena gudari batek aldarrikatzen eban, eta onen ostean, alde ziran gudariak ezpatak goratzen ebezan. Jagitako ezpaten kopurua aldeko autarkiak ziran. Gero, bardin, beste autagaiarena, eta jagitako ezpatarik geien lortzen ebana, axe buruzagia.

Olan ba, auteskundea egin zan, eta larogei ta bi autarki Dan'en alde, eta ogei ta amabost Jonatan'entzat azaldu ziran. Gudariak, oiuka ta txaloka aldarrikatu eben euren poza, eta jarraian, apart bereizi batz buruzagi barriaren aukerapena ospatu eben.

Arrezkerro, Misan'ek zelatarien nagusigoa artu eban, irurogei gutariko talde bitan Masada'ko zelatariak bananduta izanik.



Egunek gora-beera andi barik alkarri erraikioen, Masada'ko gudariak oiko ekin-tzai emonda, onein artean, erromatarrai aalik eta kalterik andiena ekartea izanik, baita bidebatez bearreko janariaz jabetzea be. Lurralde osoan banandurik, Masada'ko zelatariak baebezan abagune ugariak arein barranda-lanari esker, etsai gorrotagarriaren joan-etorriak ezagutzeko, eta onen ondorioz erabagi noiz eta zelan egin eraso. Guda ta arrapa-ekintza oneik arabitarrez mozorrotuta egin oi ebezan. Herodes arrotzen laguna izanik, erromatarrek eraginda, bere barrutikoa zan Masada'ko zelatariak jazartu bear izango ebazan, dalako erasoak zelatariakandik etozala jakin ba'leu. Aügaitik ba, ardurarik andienaz ziarduen zelatariek, eta erromatar gudariai eraso bear eutsienez, guztitariko ardurak artu oi ebezan, eta lurralde aretan basamortuko arabitar lapur asko izanik, onein itxuraz mozorrotzen ziran, eta aal izandako erromatar gudari erail ondoren, ostutakoak ganbelu-lepoetan etxeratzen ebezan. Ostu-gaia geienetan ekialdetik ekarritako garia izaten zan, Zesarea'tik Erroma'ra lorratzeko. Erbesteko lurraldeak zapal-tzeaz, elburu bi billatzen ebezan erromatarrek. Bata, leku orreitan zenbat-gura jopu egitea, eta bestea angu aberastasunaz jabetzea, Erroma ta onen gudarosteak janaritu zeitezan.

Misan'ek Masada'ko gudarien agintaritzaz jaritsi ta laster, legorte andia etorri zan, eta ur-biltegiak ustuta, ateka larriagoa biurtu, tontorreko lautadan azten ziran ortuari-entzako bearreko garastea ez izanik. Aspaldi aretan makur oneri beste bat alkatu ya-kon, janaritegia utsik billakatu zanean. Goseteari aurre egiteko, Misan'ek alde guztietara amarrekoak igorri ebazan, zor nai lor bearreko janariaz jabetzeko. Zoritxarrez ekin-tza orreitan gudari batzuk galdu, eta ezer gitxi lortu.

Bein baten, oneitariko ekin-tza batetik bere sei amarrekoekin Dan lur-jota biurtu zanean, etxean mezu bat artu eban Misan'egandik, urrengo egunean gudaletxera joateko aginduaz. Ez eutsan garrantzi andirik emon dalako mezuari, eta urrengo egunean batzarrean aurkeztu zanean, Misan eta Akai'z gaiñera, arrotz bat ikusi eban.

– Ona emen –asi zan Misan –arrotza aurkeztuz–, Yegiel nire lengusua. Basamortuko jarraigoen aurrelari edo gidari izanik, Palestina'tik Akaba itsas-kolkoan dagoan Eilat porturaino salgaiak lorratzen ditu. Atzo berarekin berbetan niarduala, eta gure kinka larria azaldu neutsanean, zerbait zudugarria aipatu eustan. Uste dot, baiña, oba izango dala, bere abotik jakin dagizuezala bere barriak. Aurrera, Yegiel, nire buruzagi bi oneik jakinaren gaiñean ipiñi egizuz.

– Ara ba –asi zan basamortuko aurrelaria–, nire lengusu Misan'ek esan daustanez, gosete andiaren ondorioz estu ta larri ikusten dozue zuen burua bearreko janaria jaristeko. Neuk ba, badakit emendik ur samar bizi dan erri bat, ezetariko larrialdirik ezagutzen ez dauana, eta zuek apapuan bizi bear dozunean Masada'ko zuretarrak janaritzeko, areik, ostera, garautegiak bete-bete, ez dabe iñongo estualdirik ezagutzen.

– Zelan dakizu ori...? –itaundu eutsan Akai'k–. Ur samar bizi dirala diñozu, baiña geuk arein barririk ez...

– Ori, leku ezkutu baten bizi diralako da. Lengo egunean Eilat portutik Jeriko'ra eldutakoan, zelatarikide batek, zuen ateka larriari buruz jakitun ipiñi ninduan, eta zuretarrak nazan ezkerro, auxe jakiñerazoteko etorri naiatzue: Eilat'etik Palestina'ra gentozala Jerusalem'era joateko asmoz, nabatetar bat alkartu yakun bidaldia gure jarraigoaren babesean egiteko. Badakizue, berbeak berbea dakar, eta etorri-barririk bere erriaren gorabehera batzuk emon euskuzan, onein artean iñostala euren garautegiak beterik egozala, eta giberritan makiña bat ebela.

– Zein da erri ori...? –suzmo bakanak artuta itaundu eutsan Dan'ek–.

– Milea da, basamortuan ezkutauta datzan nabatetar erria.

Au entzutean, tximistak jota lez geratu zan Basamortuko Semea, eta begiak lurrean untzaturik, larritasun esan-eziñak artuta, itz bat bera be ez zan gauza esateko.

– Ba'dakizu zein lekutan dagoan dalako Milea ori...? –itaundu eutsan Misan'ek bere lengusuari–.

– Bai, gitxi gora-beera. Sarri askotan urrundik ikusi dot ezkutune ori. Zutuniko atx andi bik sarrerea eratzen dabe, eta lengo eguneko nabatetarrak esan eustanez, euritean txaparrada labur baiña lodi-lodiak eragindako ugoldea arkaitzen beera datorrenean, biltegi andi baten batu daroe, eta gero, garasta-lurretara erretenen bidez ura eranda, guztitariko barazki baiña aleak batez be jasoten dabez. Onezaz gaiñera, giberri asko azten ei'dabe.

– Uste al-dozu, Yegiel, gure gudariak Milea erriaz jabetu daitekezanik...? –Itaundu eutsan Misan'ek–.

– Lanari buru-belarri damotsenek, geienetan iskillioai jaramon gitxi.

– Aizu, lengusu, marrazki baten bidez, gitxi gora-beera, Milea'ri buruzko argibideak emongo zeunskiguz...?

Yegiel'ek zotz bat artu, eta lurrean Masada'ko lurraldean marrazturik, onen albo baten Milea kokatu eban, auxe iñoala:

– Erria emendik bi edo iru egunetara datza.

– Eskerrik asko, Yegiel; orain joan zaitekez, baiña esan bearrean nozu, gure erriak adiskide zintzotzat zaituala.

Yegiel urten zanean, Misan'ek eta buruzagi biek isillik iraun eben une luze batez, bakotzak bere gogoetari emonda. Milea izena entzun ebanetik, biotz-ikara batek artuta, Dan'ek ezin egikean isillunea luzaroagorik jasan, eta Misan'eri zuzenduz,

– Aizu, Misan –esan eutsan–, Milea'ko nabatetarrak Israel'en adiskideak azaldu dira beti, eta beraz, ez dagokigu arein aurka joatea. Gure iskillio ta aalegiñak erromatar

zapaltzaille ankerraren aurka erabilli bear doguz. Orain arte, beintzat, ori izan da gure jokabidea.

– Egia da, nabatetarren aurka ez dogula ezetariko ziorik, baiña gure taldeak bearrian gorria jasaten dau, eta olakoetan ez yaku zillegia aiko-maikotan ibiltea. Egun gitxi barruan gure garautegia utsik billakatuko da, eta ori jazo aurretik, neurriak artu bear doguz.

– Begira, Misan –oster a be arrenkatu eutsan Dan'ek–, bialdu dagiguzan gutariko batzuk Milea'ra ango lurgiñai gure kinka larria azaltzeko, eta bearreko jangaiakaz sorosi gagiezan. Nire ustez, onez-onean zeozer jaritsiko dogu, gure berba emonez, egunen baten gure arazoak obatu daitezenean, atzera emongo dautseguzala orain artutakoak.

Erdeiñuzko itxuraz begiztatu eban zelatarien nagusiak, eta gero,

– Baneritxon, Dan –esan eutsan–, bigunegi zareala, eta orain esondatzen daustazunak nire ustea indartzen dau. Gure arazoa Israel'en alde aalegintzea da, besterik ikusi barik, eta iru egunen buruan Milea'ra joango gara zeu ta biok, ango nabatetarrai bear doguzan janariak nai-ta-ez kentzeko.

Zarrastada andiak artuta, Dan Misan'eri jarki yakon onetaraxe:

– Ez dakit bigunegia nazan ala ez, baiña askozaz zuurragoa da, bear doguzanak onez-onean ataratea indarka baiño. Arein errukia lortuko ba'gendu, beste urrengo baten bear izatekotan be, Milea'ko atea guretzat zabalik aurkituko gendukez. Naikoa da guretzat arrotzaren aurka jardutea, eta ez jokaera zentzunbakoz beste etsaiak alperrik erakartea.

Gogor eta asarez begiztatu eban Misan'ek, eta gero ukabillaz maia joten ebala, auxe esan eutsan mintzo aginkorraz:

– Ez jarraitu bide orretatik, Dan, nire suzmoak iratzarri nai ez ba'dozuz. Ezin dot ulertu, zelako eragiñak bultzaten zaitun, guri bost ardura emon bear dauskuen garastalari arlote orreik, orren setatsu babestu dagizuzan.

Ordurarte isillik iraun izan eban Akai'k, eten egin eutsan auxe iñotsala:

– Neu be bat nator Dan'ekin. Oba da gauzak onez-onean jaristea, indarka ta lapurretan baiño.

Begiai txinpartak eriezala, aulkitik jagi zan zelatarien nagusia, eta karrasi baten,

– Ixo, Akai, nagusia neu naz-eta...! Nire aginduak aintzakotzat artu bear dozuez txintik atara barik, bestelan...

Itz bat bera be esan barik gelatik urten zan Akai. Orduan Misan Dan'egana biurtu, eta mintzo zemaikorraz auxe esan eutsan:

– Etzi goizaldean, gerturik izango dozu zure irurogeiko taldea Milea'ra joateko. Nik lagunduko dautsuet ekintza ori nire agindupean burutzearren. Gudari enparauak Masada'n geratuko dira Akai'ren menpean. Orain joan zaitekez, baiña esan bear dautsut, zure egitekoan utsen bat oartuko ba'neu, zu gaixoa...! Gogoan izango dozu, urrean, bein baten nire eskutik artu zenduan astiñaldia...

Azken itzok utsean galdu ziran, Basamortuko Semea lekoreko illundian etxera

joialako burutik kendu ezinik, bere nabatetar maitien aurka, buruzagitzat guda-ekintza bat burutu bearke leukela...

Biaramonean, Milea aurkako ekitaldiaren gerkunetan ziarduala, ezin gogotik kendu menperatzen eban atsekabea, eta urtenbideren baten billa burua urratu arren be, ez ekusan inondik ateka larri aretatik zelan urten. Arratsaldean, abiamenak gerturik ziranean etxera biurtuta, aize ozkirria gozatzearen ate-ondoan jesarri zan, eta menperatzen eban atsekabea uxatu ezinik, bere buruari itauntzen eutsan zelan jokatu estualdi aretatik urtetearren. Alako baten, Akai agertu, eta alboan jesarrita,

– Aizu Dan –esan eutsan txeratsu–, atzo Misan'ekin izandako batzarrean, arrenkura andipean ikusi zindudazan. Ez dakit zergaitik, baiña Masada'ko nagusiak gorroto izan dautsu beti, eta amorru ori atzo anditu yakola esango neuskizu. Arduraz ibilli, atxakirik txikiena be emoten ba'dautsazu, il egingo zaitu-ta. Misan gizon ankerra da, eta azpiraketan gudari bat baiño geiago erailten ikusi dot. Bizitza zor dautsut, eta onen ordainez lagundu gura dautsut. Esan, adiskide orrek, zer larritzen zaitu...?

Orduan, Milea'n bizi izandako gora-beerak edestu eutsazan Dan'ek, eta amaitzean,

– Orra or, adiskide –esan eutsan naigabez–, etenbarik kezkatzen nauan arrenkurea Isildu ziran adiskide biok une batez, eta gero Akai'k,

– Ez dakit zer dan –mintzo txeratsuz esan eutsan–, baiña barruko zerbaitek badiñost, luzaro barik eriotz-burrukea Misan'en aurka izango dozula. Esan, adiskide orrek, zelan doatzu azpiraketea...?

– Polito, esango neuskizu. Aspaldi onetan inarkunak izan dodaz ia egunoro Yarus'ekin, azpiraketa maisuarekin.

– Eta zer diño berak...?

– Burruka-mota orretan ikastekoak ikasi dodazala, eta ezin niri beste trikimaillurik irakatsi.

– Ona emen, Dan, adiskide maite ori, zure arrenkuratik jare egingo zaituana: burrukan egin Misan'en aurka, eta gaiñetik urten zaitez. Orduan danok irabaziko dogu: Milea'ko nabatetarrek, gure erriak, eta zerorrek.

Au esanik, jagi zan Akai, eta,

– Biotz on, Basamortuko Seme ori...! –esan eutsan adiskidetsu– Agur eta laster arte.

Eta Masada'ko itzalen artean, Akai'ren irudi txairoa ostendu zan.

Gau aretan oean zetzala, Dan'ek ezin egikeazn Akai'ren berbak burutik kendu, eta alako baten, argi ta garbi bere buruan egitasmu bat sortzen asi zan, eta andik laster, izarrek basamortuko ondartzak laztantzen ebezala, lo atsedengarrian murgildu zan.

Egunguentiaz batean, zelatarien nagusiak abiatzeko agindua emon eban, eta lerro luzea eratuz, Masada'ko gudariak Suge-bidexkan beera basamortura jatsi ziran. Aurretik, albo bietan eskutari banarekin Misan joian, eta erreskadaren atzetik Dan, eskutari-tzat Katamixarra ebal.

Eguberdian, eguzkiak bete-bete jotzen ebanean, Misan'ek kapardia jarteko agindu,

eta onen gerizpean iraun eben gaberarte, bidegiteari jarraitu eutsoenean. Eta olan, egunez atsedean artuz, eta gabaz ibilli ebiltzala, basamortuko ondaretan zear, irugarren eguneko gaberdian iretargi zuritan, basamortuak bere lillura inoizkorik amesgarrien erakusten ebal, Milea'ko sarreratik kilometro batera, Misan'ek kapardia jarteko agindu eban. Gero, gudariak batu ebazan, eta alboan Dan ebal, onetaraxe mintzatu yaken:

– Masada'ko zelatari saiatuok...! Biar egunguentian, arkaitz bi orrein atzean datzan Milea erriari erasoko dautsagu, bear doguzan janariak gureganatzearen. Agindua emon dagitsuedanean, ugolde geldi-ezin lako erriaz jabetuko gara, orretarako jarki dakiguzan arerioak zapalduz. Ezpata-aztamakillak gerturik izango dozuez orduko, eta arkaitz orrein atzetik goizaldeko argia agertzen asi daitenean, jo ta ke aurrera oldartuko gara, gure erriak ezinbestez bear dituan jangaiak arrapatzeko. Orain, danok lotara, eta biar, israelarren gurenda-liburuan orrialde aintzagarría idatziko dogu.

Onen ostean, eta kapardi-inguruan begirariak jarrita, atsedenean bakea danatzaz jabetu zan. Andik laster, zuriz jantzitako irudi bat isil-ostuka kaparren artetik itzal narrazariaren antzera lerratu zan, eta kapardia atzean lagata, begirariagana urreratuz,

– Aizu, begirari –esan eutsan–, biarko erasoa atontzeko, erri orren sarbidea aztertu gura dot gure ekintza biar ondoen egitearren.

– Ondo da, buruzagi Jauna. Zoaz ondo.

Ibillerea azkartuz, iretargipean Dan'en irudi txairoa luzaro barik ezabatu zan Milea'rantz ibilli ebillela. Sarbideko arkaitz-gaiñeko nabatetar begirari ernaiak, urreratzen zan arrotza laster ikusi eban, eta bere aurrean jarrita bidea eragotzi eutsan, auxe inotsala:

– Nora zoaz, arrotz ori...? Ezin zaitezke sartu.

Dan urreratu yakon, eta orduan,

– Ez dozu ezagutzen aspaldiko adiskide bat...? –irribarrez itaundu eutsan–.

– Ene... Basamortuko Dan Jauna, gure adiskide andia...! zerk zakaz, baiña, Milea'ra...?

– Arazo larri batek nakar. Astirik galtzeke eroan nagizu Gael nagusiaren aurrera.

Aginduta lez, begirariak Gael'en etxera lagundu eutsan, eta agur esanda, barranda-lekura biurtu zan.

Dan'ek oles egin eban, eta andik laster, lo ariñekoa zan Milea'ko nagusiak atea edegi eban, eta krisailluaren argipean, Dan ezaguturik, pozaren-pozez besarkatu eban auxe inotsala,

– Au nire poza, Dan maite ori...! Baiña zelan emendik...?

Lau itzetan Dan'ek jakitun ipiñi eban, eta amaitzean,

– Esan, Gael maite orrek, zenbat gudari dozuz gerturik...?

– Emendik joan aurretik, zeuk landu zenduzan ezpatak beste, au da, irurogei gudari.

– Iratzarri egizuz aalik isillen, baita enparauak be, eta iskilluok aurkeztu dakidazala emen bertan.

Gael etxerik-etxe bideratu, eta andik ordubete batera-edo Milea'ko gudarostea,

Dan'en inguruan alkartu zan. Aspaldiko adiskidea ikustean, nabatetarrek agurtu nai eben adoretzu, baiña berak,

– Orain ez dogu astirik galdu bear txikikeritan –esan eutsen–. Eguzkia jagi daite-  
nean, zelatarien gudari-talde batek erasoko dautsue-ta, Milea'z jabetzeko asmotan. Sar-  
bidearen aurrean jarrita, aren oldarrari esi bat ipiñiko dautsagu eriotzararte burrukatuz,  
Entzun auxe ondo bai ondo... Eriotzararte jarkiko gaiakez, bestelan, azpitik urten ba'  
geintez, zuen erriari etorri leitekiona, eriotza baiño askozaz larriagoa izango litzake.

Jarraian, Dan'ek jarkipen-gerkunai emon eutsan, azaltzen eutsela bere aginduai  
zelan erantzun, eta zelako jarrera erabilli erasoari aurre egiteko. Gero, sarbideko ar-  
kaitz bikotxeko erpiñean, emakume-umetaraiño enparauak andik arritzarrak eraso-  
tzailleen aurka jaurtiko leukiez, nabatetar gudariek atzera egingo ba'lebe.

Gerkun oneitan ziarduala, eguzkiaren argi larroskarak izarren argiak amatatzen  
asi, eta basamortuan gabeko besana illuna ezabatzen asten zanean, zelatarien kapardj-  
tik joan-etorrien zaratak isilla autsi eban. Andik laster, Misan'en gudariak burruka-ja-  
rrean, Milea'rantz abiatu ziran. Misan'ek aintzindutako mako zabala eratuz, zelatariak  
iradu barik urreratzen ziran, arrapakiña iges-eziña zalakoan. Berreun metrora-edo eldu  
ziranean, Misan'en azken aginduak artzearren gelditu ziran. Une aretan bertan, eguzkia  
Milea'ko arkaitzen atzetik agertu zan, zabaldia argi goxo bigunaz laztantzen ebala.

Oiñazkarraren argi biziak jota lez, bapatean burutapen uxa-eziña gogora etorri ya-  
kon Dan'eri. Maite ebazan nabatetarrek, baita beretarrak ziran zelatariak be, eta augai-  
tik bion arteko burrukea iguingarri ta mingarria egiten yakon. Ondo urtengo ete...? Ez  
ekusan beste biderik, eta Yahvé'ri laguntza eskatuz, urrats azkarrakaz urreratu zan Mi-  
san'egandik amar metrora eldu arte. Dan gorrotagarria ikustean, zelatarien nagusiak  
asarre gorriak artuta, didar bizitan,

– Dan, madarikatu orrek –jaurti eutsan–, saldu gaituzu gure etsaiak diran nabate-  
tarroi. Etoia, besteren etoia...! Milea'ko inguruak aztertze atxakiaz etsaiagana joan  
zara, anaiak dozuzan Masada'ko gudariak saltzeko asmoz, azpi-suge zikin ori...!

– Begira, Misan. Euren artean urte asko emon ondoren mileatarrak adiskide mi-  
ñak dodaz. Masada'ko zelatariak maite-maite dodaz nire odolekoak diralako. Niretzat  
kinkaren larria...! Maite dodazanak alkarri erasoteko zorian dagoz, eta odola alde bie-  
tan isuriko da eurrez. Begira, Misan, jesarri gaitzean mai baten inguruan, zeu, Milea'ko  
nagusia, eta irurok. Erabilli dagigun arazoa anaiak lez, eta odol-isurtze barik, ziur naz  
urtenbideren bat idoroko dogula...

Sumiñez irakiten eten egin eutsan Masada'ko nagusiak oiuka,

– Dan, madarikatu ori, zu lenengoz ikusi baiño ez, etsaitzat artu zindudazan, eta  
orra or nire suzmoak egi biurturik. Bein baten, arresietan begirari zengozala, lotan  
arrapatu zindudazan, eta onen ondorioz buruz-buruko azpiraketa baten, zure biziko as-  
tiñaldia artu zenduan, bai, konortea galtzeraiño zigorra izan be. Gaurkoa, baiña, etoi  
ustel orrek, eriotzaz ordainduko dozu, eta onen ostean, goiko malkortegiko saiek zure  
gorpua iruntsi aurretik, nabatetar kokoloak ondatuta, Milea'z eta onen aberastasunaz  
jabetuko naz.

Isillune laburra, eta Misan'ek barriro be,

– Gertu zaitetz, eta begiratuizu eriotzari aurrez-aurre, oraingo onetan bizirik ez za-  
ra urtengo-ta. Erantzi gaitzean, eta azpiraketari emon dagiogun.

Au esanik, soingaiño kenda, eta biok gerritik gora billutsik, aurrez-aurre jarri-  
ta, besoak luzatuz alkarren inguruka asi ziran. Goizaldeko eguzki jaio-barriak burruka-  
lari bien itzal luzatuak basamortuko ondartzan edatzen ebazan. Nabatetar eta zelatariek  
arnasari eutsirik, leikide biakandik ezin egikien begiak kendu.

Alako baten tximistaren arintasunaz Misan oldartu yakon, eta Dan gerritik artuta  
burrukea asi zan. Dan'ek, baiña, Yarus'en oarrak gogora ekarririk, buruaz kaska itzela  
emon eutsan suurrean. Ezusteak artuta, Misan'ek atzipena lazotu eban, eta une batez  
ukabilka jardun ostean, alkarri oratu eutsoen, eta or-emenka ebillela, batzutan zutunik,  
bestetan ondartzaren gaiñetik iraulka, burrukeak jarraitu eban garailerik azaltzen ez  
zala. Beretik urtenda, Misan'ek ezin egikean oiko zartada ilkorra etsaiari emon, aingira  
baten malgutasunaz besoetatik irrist egiten yakon-eta. Eta olan, auts-zurrunbillo batek  
erdiz estalduta burrukeari erraikiola, ezinbestez eta azpiraketa-arauden aurka izanik be,  
Misan'ek eskukada bete auts Dan'eri aurpegira bota eutsan. Onek buruko igikun arñaz  
saiestu eban, baiña itsuarena egiñez une batez gelditu zan. Zezen amorratuaren antze-  
ra, burua beeratuz Misan'ek jotera egin eutsan. Basamortuko Semeak tximistaren an-  
tzera eskuaren ertzaz zartada itzela emon eutsan. Txintik atara barik, lepo-azurra autsi-  
ta, Misan lurrera amildu zan zerraldo.

Une batez dana isillik egon zan, eta gero, uin erraldoiaren antzera, Masada'ko gu-  
darien eta Milea'ko lurgiñek, txaloka ta oiuka asi ziran Dan'en ekintza goratuz. Izan be,  
alderdi biok Dan beretzat eban, eta aurrerantzean onek guztien nagusitzat jokatu egi-  
kean. Orduan, Dan, Masada'ko gudariak mintzatuz,

– Entzun, zelatariok, biurtu zaitete zuen kapardira, eta itxaron antxe ni biurtu arte.

Olan egin eban esaneko zelatariek, eta Dan Milea'ra biurtu zan. Nabatetarrek po-  
pez zoraturik artu eban, eta Gael'ek besarkatzen ebala, auxe esan eutsan:

– Estualdi larririk onik atara gaituzu, Dan maite orrek, eta Milea erriak betirako  
gogoan izango zaitu. Yahvé'k bedeinkatu zagizala...!

Onen ostean Gael'ek etxera dei egin eutsan, eta bazkaldu bitartean, zelatarien kin-  
ka larriari buruz jakitun ipiñi eban Dan'ek. Amaitzean, auxe esan eutsan:

– Begira, Gael, Masada'ko tontorrean, zelatarien erriak gose itzela jasaten dau, eta  
augaitik Misan'ek zure erriari eraso nai eutsan, zelanbait bearreko jangaiak etxera  
ekartearren. Zelatarien eta zuen arteko burruka ori jazo ba'litz, irabazi egianak irabazi  
egiala, triskantza izugarria izango zan guztientzat. Zorionez, Yahvé'ren laguntzari es-  
ker, danok onik urten zarie, eta onezaz gaiñera, zelatariak nagusi anker eta zakar bate-  
gandik jare billakatu dira. Orain, esaidazu Gael maite orrek, zein da zuen janaritegia-  
ren egoera...?

– Larregi ez izanik be, badaukagu arean. Aspaldi onetan euri gitxi izan da gure  
barrutian, baiña urtegi ura oraindiño ez da agortu, eta garautegiak mukurru bete ez  
izanik be, garauketa polita badaukagu.

– Ara, Gael, zu ta bion arteko maitasun-lotureagaitik, gariketa bat zelataria emon  
dagezuen eskatzen dautsut.

– Milea'ko zuzendaritza-batzordeak dagokion erabagia artu bear dau orretarako, eta baietzean, eskatzen dozuna emongo yake.

– Dei egiozu ba batzordeari astirik galtzeke.

Andik laster, Milea'ko batzordea alkartu zan, eta Dan'ek zelatarien ateka larria azalduta, jangaien laguntza emon egitsien arrenkatu eutsen mintzo sutzuaz. Batzordeak arazoa eztabaidatu eban, eta alde-aurkak azterturik, abo batez baietzaren alde azaldu ziran. Sei gurdibete gariz gaiñera, ogei auntz eta sei zekor agindu ebezan.

Gautu zanean, zelatarien poz andirako, janari ta abere-jarraigoa, Masada'rako bi-dean zan. Urten aurretik, nagusi izandako bateri egokionez, Misan'en gorpua basamortuko areatzen lurperatu, eta arrizko ezaugarria gaiñean ipiñi eben. Gael'ek eta batzordekoek bide-zati baten lagundu eutsien, eta noizbait, alkarregandik agurtzeko ordua eldu zanean, Gael'ek eta Dan'ek alkar besarkaturik,

– Agur, Gael, nabatetarren nagusi ederretsia, Yahvé'k gorde zagiezala.

– Agur, Dan, Basamortuko Seme zangarra, Milea'ko atea beti zabalik izango dozuz.

Eta iretargi zuritan, gabeko ozkirriak eraginda, zelatarien jarraigoa aurrera abiatu zan bakez eta itxaropenez. Atzetik, gogoetan murgilduta, Dan urrats malgu ta ariñez joian, bere buruari iñotsala, jaio izan zan basamortua baiño gauza ederragorik ezin zeitekeala ludi onetan aurkitu. Oldozkun oneitan joiala, baten bat alboratu yakon, eta,

– Jauna –esan eutsan Katamixarra'k–, emoidazuz ezpata ori ta erredola, zure eskutaria nozu-ta.

Iribarrez, eskaturikoak emon eutsazan Dan'ek, eta mutillak orduan,

– Jaun buruzagia –esan eutsan–, zure ezpata au Israel'go onena da, eta zu judutarren arteko andienetariko bat.

– Ez al-deritxazu larregi...?

– Ez Jauna, or aurrean doazan zelatariok, nirekin bat datoz.

Barrero be, irribarre bat marraztu zan Basamortuko Semearen ezpanetan, eta izarren pean atzarri ibilli ebillela, amesetan murgildu zan.

Zelatarien biurpena Masada'n jai andi bataz ospatu zan. Ekarritako gariketeak eta abereak aspaldi baterako erritarren iraupena ziurtatu eben. Onezaz gaiñera, etxera biurtu ta urrengo egunean, tximista ugariakaz lagundutako euri-jasa lodia gertatu zan, eta onen ondorioz, ur biltegietan batutako urketeak barazkien azkuntza ziurtatu eban luza-rorako.

Ildako nagusia, baiña, ordeztu bear zan, eta irugarren egunean, atearen aurrean jesarrita Dan'ek atsedean artzen ebala, Akai azaldu zan, eta aren alboan jesarrita, auxe esan eutsan:

– Biar arratsaldean, gudariak nagusi barria aukeratu bear izango dabe.

– Bai –erantzun eutsan Dan'ek–, baiña auteskundera oso erraza da. Gure oiturai jarraituz, nagusitza zuri yatortzu.

Itxura bakanaz begiztatu eban Akai'k, eta gero,

– Bai, Dan, ori egia da –esan eutsan–, baiña nik neuk nagusizat zu aukeratuko zindukedaz...

– Ori, jarraituz eta ekanduz eziña da, zeu buruzagi zaarrena zaitugu-ta.

– Ori egia da, baiña legearen barruan zillegi yat nagusitza orreri uko egitea.

– Ezelan be ez, Akai. Zelatariek ezin dagikie zu baiño nagusi obarik aukeratu.

Iñor ez zu baizen egokia gudarien ugalak erabilteko.

– Begira, Dan, iñork baiño obeto ezagutzen zaitut. Gaiñera, Masada'ko gudariak lege andia dautsue, eta zure alde odola gogoz emongo leukie.

Isildu zan une batez Dan, eta gero begiak urrutian jarrita,

– Ni ez naz iñoz izango Masada'ko zelatarien nagusia...

– Zergaitik, baiña...?

– Ara... Zerbaitek badiñost emen luzarorako ez nazala izango. Masada'n betirako bizi izateak ez nau erakarten, eta gero ta andiago biurtzen asi yatan eziñegon batek beste iñora naroa. Zelatariek Israel'go abertzalerik saiatiuenak dira, baiña eragin ezkutu batek Palestina'ra bultzaten nau, gure aberria ta beroneri dagokiozan gora-beerak eza-gutzearren. Asko ikusi ta ikasi nai dot, eta bearreko oar-ikasia jaritsi dagidanean, zapaltzaillaren aurka aaleginduko naz, Israel bere esku biurtu daiten.

– Noiz joango zara...?

– Ondiñokarren ez dakit, ori Yahvé'ren eskuetan datza.

Era onetan adiskide biok eragon eben gau berandurarte, lotara joateko banandu ziran.

Biamonean, zelatarien oiturai jarraituz, Akai, Masada'ko nagusitzat aukeratu izan zan, eta bigarren buruzagitzat amarreko baten burua zan gudari zintzo ta zangarra. Luzaro barik, Akai'ren zuzendaritzapean, Masada'ko gudariak oiko zeregiñetara emon eutsien, au da, Israel zapaltzën eban arrotzari aalik eta kalterik andiena egitea.

Ibilte geldieziñaz bajoiazan aurrera illabeteak, eta Masada'ra etorri zanetiko Dan'en lenengo urteurrena bete zan. Orduko, Yahvé'ren eskuetan egoan Dan'en etorkia agirian ipinten asi zan. Berrogei ta amar urtetik gorakoa zan Dina, gatx batek artuta, argia amaitzeko zorian dabilkion kandelatxu baten antzera, bizimena intzungiten joiakion. Amaren ondoan gau ta egun jardutea erabagi eban Dan'ek, eta oiko bere eginkizunai uko egiñik, Axa'rekin amaren zaintzeari emon eutsan buru-belarri. Bizitzaldia ez yakon amultsua billakatu Dina'ri, eta semea agertu zanetik zoriona ezagutu arren be, urte askotan zear, alargundu zanetik batez be, zoribakoa izan zan. Baekian berak, orain jasaten ebana Yahvé'ren dei uxaeziña zala, eta une larri aretan semearen laguntza aringarria, oroz gain irrikatzen eban.

Eta aal eban neurrian, Dan'ek amaren ondoan zirauan oe-buruaren ondoan, geisoaren aurpegi izerditsua txukatuz, eta edaten emonez, janaria zapuzten eban-eta. Gau baten amarekin bakarrik egoala, Axa lotan zan-eta, amestxar batetik itxartuta,

– Dan, maite ori, non zagoz...? –itaundu-eutsan–.

– Emen nozu, ama, zer nai dozu...?

– Ara, seme... Ames egin dot, Israel'eri agindutako Kristo izeneko Mesias gure artean egoala, eta nigana etorrita auxe itaundu daust: “Aizu, Dina, non dago zure seme Dan...?” eta orduan nik: “Masada'ko erpiñean dago, Israel'en alde aaleginduz”. Orduan Bera barrero mintzatuz: “Esaiozu nirekin alkartu daitela, gudari onak bear dodaz-eta”. Eta nik barrero: “Non zagoz Jaun ori, Dan alkartu dakizun...? Orduan Berak: “Palestina'n zear nabiltzu Barri Ona iragarritz”. Eta bapatean nigandik ostenduta, itxartu naz. Zer deritxazu ames orreri, Dan...?

– Ames polita benetan. Egia izango al-da...!

– Bai, seme, amesak ames dira, baiña oraingo onetan zerbaitek badiñost benetan izan dala. Aizu, Dan, zergaitik ez... Aren billa joan...?

Dan amagana makurtu zan bekokiaren izerdia txukatzearen, eta gero aurpegia laztanduz, mintzo maitekorraz,

– Batek-baki, ama...! –esan eutsan– Urian armenitar aztueziñak iñoanez, gure adua izarretan eta basamortuko ondarretan idatzita dago... Eta olan ba'da, egunen baten... nork daki...?

– Zoaz Aren billa, seme...!

Barrero be lo urduri bat Dina'z jabetu zan, eta bitartean, nekeak menperaturiko Dan, lo-gureak erreta, bera be amesetan murgildu zan.

Egusentiko argiarekin batean, Basamortuko Semea itxartu zan, eta amagana makurtuz, igige ta bakean begiak sabaian josita ebazala oartu zan. Eriotzaren esku zurbillak aurpegiaren itxura mindua gozatzen eutsan, eta barruko atsekabe mingotsak artuta, begiak itxi eutsazan. Jarraian, amaren aurpegi baketsua apa-laztandu ondoren, lekorera

urten, eta besoak arresi-gaiñean ipiñita, negar etsi bateri emon eutsan. Noizbait, barealdi batek artuta, begiak zabaldian zear zuzendu ebazan. Une aretan, goiztiriko esku jillaunak ain maite eban basamortua, argi bigun, samurraz laztantzen eban, eta maitasunak eraginda, barru-barrutik Yahvé'ri eskatu eutsan, amari betiko bake ta zoriona emon egiozan.

Illuntzean lurperatu izan zan, abadeak David'en salmo eder batzuk esan ondoren. Buruzagi baten amari egokionez, launaka lerrotan jarri ziran gudariak, eta lur-mokillek Dina'ren gorpua estaltzen astean, iru bidar mintzo indartsukaz Yahvé'ren anditasuna aldarrikatu eban.

Etxera biurtu zanean, Akai alkartu yakon, eta biok isillean, etxaurreko arrizko aulkian jesarri ziran. Alako baten, Akai'k,

– Tamal dot benetan zure amarena. Abraham'en kolkoan baten batek atsedena izatea merezi ba'dau, zure ama da.

Isillunea edatu zan ostera be, eta Akai'k,

– Esaidazu, Dan –mintzo txeratsuz itaundu eutsan–, zelako asmoak dozuz etorkirako...?

– Bera joan yatan ezkerero, ona lotu naiten lokarrik ez dot...

Orduan, naigabe bizi-biziak artutako Akai'k,

– Arren, Dan –eskatu eutsan–, geratu zaitez Masada'n, Israel'ek emen bear zaituta.

– Orain urtebete bat-edo, Milea laga neban ama ezagutzearen, eta emen iraun dot, zelanbait zorionsua egiteko. Bera izan dot leku onetara lotu nauan indarra, baiña orain eraspina galduta, “Judutar Alderraia”ren antzera, norabarik joango naz, amaren azken naia betetearen...

Asperen bat iges egiten yakola, Akai'k barrero,

– Noiz itziko gaituzu...?

– Biar bertan, egusentia Masada'ko arkaitza urreztatu dagianean.

– Zoriona opa dautsut, Dan maite ori. Biar argia jaio daitenean, urtenbideko arresiaren ondoan izango naiatzu, “Ondo ibilli”a esateko.

Zirrara menperatueziñak artuta, Akai jagi, eta gau-leneko itzaletan zear ostendu zan. Une luze batez leku berean iraun eban Dan'ek egitasmo bat umotuz, eta noizbait lotara joan zan.

Biamonean, eguzkia ekialdetik jagiten asten zanean, lepozorro baten bere eskuarte urriak eroiazala, Dan Suge-bidexkarantz abiatu zan. Orduko, Akai'k itxaroten eutsan, eta alkarri besarkada estua emonda, barbarik esan bage, adiskideak banandu, eta Dan bidexkan beera asi zan begiak atzera biurtu barik. Ibilli ebillela, alako baten oiñotsak aditu ebazan, eta burua biurturik, nor eta Katamixarra ikusi eban...!

– Baiña mutil –asarre-antzean itaundu eutsan–, zertan zabiltz nire atzetik...?

– Begira, Jauna, buruzagiek eskutari bat bear dabe, eta augaitik atzetik natortzu.

– Nork esan dautsu eskutari bat bear dodanik...? Ni ez naz orain iñongo buruzagirik, judutar arrunta baiño.

– Akai'k, zelatarien nagusiak, eskutari izan nakizun agindu daust.

Une batez geldirik iraun eban Dan'ek, eta gero,

– Tamal dot, Josue, baiña ez daroat erredolarik.

– Ezpata bi eskegiten yatzuz gerritik, eta besterik ezean, orreitariko bat eroango daust.

Etsipeneko asperena jaurtirik, Dan'ek ezpata bat eskuratu eutsan, eta besterik esan barik, bidean beera abiatu zan, atzetik txistu alaia ezpanetan Katamixarrak erraikiola.

Dan'en bidegite alderrai aren zergaitia, amaren azken naia men egiñez gaiñera, bere aberria ezagutzea zan, bai antxiñako edestiari egokionetan, bai oraingo Palestina'ren egoerari buruzkoa be. Ez eban beste elbururik, eta gaztea zan ezker, iradu barik joian, begira eban etorkia egunen baten nai-ta-ez agertuko litzakio-ta. Masada'ko zelatarien artean emondako aspaldian, abertzaletasuna piztu izan yakon, eta judutarren aberria aske biurtzeko guraria, ibilte norabako aren eragiña zan. Edozelan be, gitxi ekian Israel'en edestiari buruz, eta billatzen eban ezaguera lekuren baten aurkituko leuke. Gero, Palestina'ko oraingo egoeraz jabetuko litzake, eta orduan erabagiko leuke, zein izango zan biderik onena erromatar zapaltzaillea aberritik-at jaurtiteko. Zorionez, Urian'en irakaskintzai esker, izarritzi, zenbakizti, eta elerti-arazoetan, ez zan iñongo ezjakiña, eta jabetzen eban ezaguera bere asmoetarako oiñarri sendoa zan.

Katamixarra'k jarraituriko, Suge-zidorrean beera Itsaso Illa'rantz joiala, ezin egi-kean burutik kendu, ama il-agiñean zala Mesias'tzaz esandakoa. Egirik izango ete...? Egirik izango ete, Israel'ek ain luzaro irrikaturiko Gaizkatzaillea Palestina'n zala, aberria askatzeko...? Ez zan izango amaren eriotz-aurretiko ameskeri zentzunbakoa...? Dana-dala, egia jakiteko gerturik joian, eta augaitik, Masada'ko egoitza bertan-bera itzita, Palestina'ra abiatzen zan. Amaren amesa benetakoa ba'litz...! Orduan, aberriko Gaizkatzailleagana joanda, bere bizitza eskiñiko leuskio, eta Aren ondoan burrukatuz, Israel'ek antxiñako aintza ta anditasuna ezagutuko leukez...

Edu onetako gogoetan murgilduta joiala, Itsaso Illa'ren ertzera eldu ziran. Eguzki-pean dizdiraka, urek ispilluaren leguntasun eta gelditasuna eskintzen eutsiezan. Une batez ezpaitsu gelditu zan, eta gero, iparreko norabidea artuta.

– Aurrera, Josue –esan eutsan–, ikusagun gure arbasoen lurra eskintzen dauskua-na.

Itsaso Illa'ren ertzetik jarraitu eben, eta eguzkia kiskalgarria biurtu zanean, geriztune baten babesa billatu, eta noizbait idororik, etzanda jarrita, orduen jarraigo isillan zear, arrats-beerarte iraun eben, batzutan atzari, bestetan erdi-lotan. Eguzkia sortalde-rantz makurtzen zanean, bidegiteari jarraitu eutsoen, eta edu onetan, egunez gerizpetan etzanda, eta gabez iparreko izarrari jarraituz, irugarren egunean Itsaso Illa'ren goiko muturrera eldu ziran. Leku onetan, Jordan ibaiia itsasoratzen zan, eta ibi baten zear ibaiiaz bestaldera igaro ziran. Urrango egunean, Itsaso Illa'n be urak isurtzen dauzan Arnon ibaira eldu ziran. Orduan, lurra, itxura atsegiñagoa eskintzen asi zan. Basamortuko aztarnak erakutsi arren be, or-emenka, landaretzaren orlegiak ukitze atsegiña emotsan. Izan be, Arnon'en urak ustiatzen ziran garasta-uneak sortzeko. Urari esker, basamortuko antzutasuna menperatua zan.

– Aizu, Josue –esan eutsan Dan'ek–, Akai'ri entzuna dauksadanez, auxe Perea lurraldea izan bear, eta garasta-une orreik adierazoten dabenez, lurgiñak ez dira urrun izango. Goazen aurrera ba, ia biztanleren bat aurkitzen dogun, gure janaria amaitu-agiñean da-ta.

Andik laster, begi zorrotzekoa zan Katamixarra, besoa luzatuz,

– Begira, Jauna –esan eutsan–, an bertan txabola batzuk ikusten dodaz.

Egia zan, eta astirik galtzeke araturik, baserrian sartu-agiñean zirala, edarra bete ur buru-gaiñean eroiala emakume bat ikusi eben, eta urreraturik,

– Aizu, Andrea –eskatu eutsan Dan'ek–, arren, ur-pixka bat emongo dauskuzu...

Edarrea lurrean jarrita, eskaturikoa emon eutsen emakumeak, eta gero,

– Nondik zatoze...? –itaundu eutsen–.

– Masada'tik.

Emakumeak itxura pekotiz auxe esan eutsen:

– Orduan, zelatari prakerre ta burrukalari orreitakoak zaituet. Gure nagusia dan Abimel'ek diñoanez, ez dozue besterik ekarten eriotza ta odola baiño.

– Ori ez da egia –erantzun eutsan Dan'ek–. Esaiozu dalako Abimel'eri, aberriko ezpata apentzaillea gareala, erromatar arrotza Palestina'tik-at jaurtiteko, gure aberriak aintza ta anditasuna lortu dagiazan.

– Zertarako etorri zarie ona, gure lurraldera...?

– Patuaren nai ezkutuak olan erabagi daualako. Esan, zelan esaten datsazue toki oneri...?

– Auxe, Wadi errixka da, esenitarren bizilekua.

– Entzun Andrea –esan eutsan Dan'ek–, gure janaria amaitzeko zorian da, eta erisiko neuskizu, aurrera jarraitu aal izateko beste.

Au esatean, zidarrezko txanpon batzuk erakutsi eutsazan. Diruari jaramon egin barik emakumeak auxe esan eutsan:

– Jakin bear dozu, gazte orrek, gurcan ez dala dirurik erabilten. Ez dogu ezetariko arremonik besteakaz, eta bear doguzan gaiak geurok lanaren-lanez jaristen doguz. Otoitza, Yahvé'ganako gurtza, anaiarteko maitasuna, eta itxaropena gure lanabesak dira. Apapuan eta neurritz bizi izaten gara lurrari ataraten dauksagunaz, eta ikuspegi onetatik beartsuak ba'gara, gogoari dagokion aldetik, aberatsak, elburua Jaungoikoagan jarrita dogulako. Orain, zatoze nirekin, eta jaten emongo dautsuet.

Au esanik, arrizko txabola batera sarrerazo ebazan, eta mai baten inguruan jesarrita, txilista egosiak, barazkiak eta ogi-zati bana eskiñi eutsezan. Arrats-beera zan orduko, eta amaitu ebenean, eguzkia itsaso urrutiaren atzetik ostentzeko zorian zan. Orduan Dan'ek auxe esan eutsan:

– Eskerrik asko, Andrea, zure arrera txeratsugaitik, esan, zein izenekoa zara...?

– Noemi, alarguna. Txabola onetan sei seme-alabekin bizi naz, eta oneik baratze-tik laster biurtuko dira. Gaurko gaba emen emongo dozue.

– Biar –esan eutsan Dan'ek–, bidegiteari jarraitu gura dauksagu. Zelan lortu, baiña, bearreko janaria, ez dauskuzu saldu gura-ta...?

– Nik gure legeari jarraitu bear dauksat. Edozelan be, on izango litzakizue Abimel gure nagusia biar bertan ikustea.

– Non dago bera...?

– Qumran'eko leize baten

– Urrun ete da ori...

– Ez, emendik ordu-erdira-edo, Itsaso Illa'ren ertzean dagoan mendi-kate gorritan.

– Biar goizean, arako izango gara.

Lastamarraga bana emon eutsen Noemi'k, eta bidegiteak nekatuta, zelatari biak bereala lotan ziran.

Biaramonean goizean goizik jagita, katillu bete aunts-esne ogi-zati batek lagunduta artu eben, eta jarraian, Noemi'ren seme bat aurrelari ebela, Wadi-Qumran'eko mendi-kate gorritara abiatu ziran. Ordu-erdi bat-edo igarorik, leize baten aurrean ziran, eta Noemi'ren mutikoaren deiari erantzunez, eremulariaren itxurako gizon bat azaldu zan.

– Arrotz oneik –esan eutsan mutikoak–, Abimel ikusi nai dabe.

Gizonak jarraitzeko agindu, eta leize-barrura sartu ziran; luzaro barik, goiko zulo andi batetik eguzkiaren argia parrastaka sartzen zala, mai baten inguruan jesarrita, sei gizon ikusi ebazan Dan'ek, narrukien aztertzeari emotsiela. Orduan gizonak,

– Abimel, nagusi ori, arrotz bi oneik ikusi nai zaitue.

Ardi-narruz jantziriko gizon garai bat jagi zan, eta urreratu yaken. Itxura itzalgarrikoa zan, gerriraiño jausten yakon bizar zuriaz, eta aurpegi zimelean bizi-bizi dizdiraka, etorri-barriak begi illun sarkorraz begiztatu ebazan. Gero, keiñuka jarraitzeko agindurik, leizeko atadira biurtu-erazo, eta arrizko aulki baten jesarri ziranean,

– Emen bakarrean berba egingo dogu. Esan gazte orrek, zerk zakarrez nigana...?

– Ara, Abimel Jauna –esan eutsan Dan'ek begirunez–, Masada'ko arkaitzetik gatz, eta...

– Orduan zelatariak zarie...? –eten egin eutsan Abimel'k mintzo latzaz.

– Bai, Jauna.

– Ez yat atsegin zuen jaseko jendea. Yahvé'ren legea gordeteko ez zarie benetakoak, eta ortik zoaze iskilluak eskuetan edozeini erasoteko asmoz, Israel'en izena aldarrikatuz...

– Barkatu, Abimel Jauna –eten egin eutsan Dan'ek–, baiña gure etsai bakarra erromatar zapaltzaillea da, eta ez dogu beste jo-mugarik, gure aberria, lengora, David erregearen aldi aintzagarrietara biurtzea baiño, orretarako gure odola isuriz...

–Txoriburuak eta zentzumbakoak baiño ez zarie, Erroma'ko indarrari aurre egiteko gai zariela uste izaten dozunean. Bide orretatik ez dozue besterik lortuko, Israel'en ondapan eta zorigatxa baiño. Otoitzak eta garbai edo damuak Yahvé gure Jaunaren errukia iratzarriko dabe, eta orduan gure Jaungoikoaren biotza bigundurik, antxiña bateko anditasuna Aren bitartez jaritsiko dogu.

– Otoitza ta garbaia ondo dagoz, baiña arrotzaren zapalkuntzeari aurre egiteko,

burrueka bearrekoa da baita be; gauza oneik ez dira alkarteziñak, gure arbasoen burrukak auxe ondo be ondo agirian jarten dabe-ta.

Une batez Abimel'ek Dan begiztatu eban isillean, eta gero,

– Tematsuak izanez gaiñera, ez dozue gure Yahvé'gan ezetariko uste onik ipinten. Baiña laga dagigun oraingotz arazo ori alde batera. Esan, gazte orrek, zerk zakarrez esenitarren lurraldera...?

– Begira, Jauna, ni Dan, Basamortuko Semea nozu, eta nirekin datorren gazte au, Josue edo Katamixarra izengoitiko nire eskutaria. Bizitzaldi guztia basamortuan emon dot, eta nire arbasoen lurraldea ezagutzeko garaia dala uste izanik, Palestina'rako bidan gaituzu. Badira iru egun Masada'tik urten gareala, eta jangaien bearrizanak zuekana ekarri gaitu. Au dala-ta zuen errixka ikusirik, emen zeozer erosi gengikeala ustean etorri gaitzuez, baiña Noemi izeneko alargunak jangairik ezin dagiskula saldu esan dausku, olakorik debekupean dagoalako, eta zure baimen barik saltzerik ez daua. Augaitik ba, Abimel, nagusi ederretsi ori, zeugana igorri gaitu, ia jangaiok saltzeko baimena emoten dauksazun.

Une batez gogoetan iraun eban Abimel'ek, eta gero amultsu,

– Aizu, gazte –esan eutsan–, ori gure lege autsieziña da, eta esenitarren nagusia izanik be, neronek autsi ezin dodan araua. Geuk ez dogu dirurik erabilten, eta bestekandik bear doguzan gauza urriak, gai-aldaketaren bidez lortzen doguz. Edozelan be, barkaeziña litzakit bearrizanean dagoan lagun-urkoari sorospenik ez emotea. Baiña baktzak janaria bekokiaren izerdiz irabazi dagiala, Yahvé'ren agindua izanik, gurekin lanean ba'diarduzue, bizi izateko beste jaritsiko dozue. Eta orain zuk eta zure eskutariak aalik ondoen jardun dagizuen, emoidazuz zuen gora-beerak.

Orduan Dan'ek berba laburraz berari egokiozan argibideak baita Katamixarra'renak be emon eutsazan. Amaitu ebanean, Abimel'ek auxe esan eutsan:

– Begira, gazte, eskolatua zarean ezkerro, leize onetan gurekin narruki zaarrak idaztaldatzen iraungo dozu. Era onetan, Israel'en edestiaz jabetuko zara, dirudianeaz asko ez dakizu-ta. Zure eskutariari buruz, gazte ta ante onean dagoan ezkerro, baratz eta garasta-lanetan Wadi'n jardungo dau. Zer deritxazu nire eskintzeari...?

Une luze samar batez, Abimel'en eskintzea gogoan erabili eban Dan'ek. Izan be, axe alagala etorkion jarduna zan, ereti bikaiña emotsalako Israel'en atzokoa, eta arbasoen ekintzak ondoen ezagutzeko. Baietza emon aurretik, baiña, bere etorkia iñongo loturaz mugatu nai ez eban ezkerro, Abimel'en begietara so egiñez,

– Begira, Jauna –esan eutsan–, niketz baietzean nago, baiña zure eskintza onartu aurretik, jakin gura dot aske izango ete nazan joateko, egokitza jo dagidanean.

– Bai, gazte; jakin bear dozu, geuk esenitarrok ez dogula onartzen ezetariko joputasunik.

– Olan izatekotan, gerturik nozu emen aspaldi bat emoteko.

Olan ba, bizikera barri bateri emon eutsan Dan'ek Qumran'eko leizean. Mendikate gorritako leku aretan, Abimel jakintsuaren zuzendaritzapean, sei lagunek, Alkartasun Zaarreko narrukiak aztertzen, sailkatzen, eta idaztaldatzen ziarduen. Ezkonbakoak zi-



ran, eta eremularien bizimodua erabillen. Beste esenitar batzuk, ordea, Wadi errixkan ezkondata bizi ziran, lurgintzari ta abelazkuntzari emonda. Sendi bakotxa txabola baten kokatzen zan, eta ekarri edo mozkin guztiak, alkartekoak ziran, burukal ainbat baturuz. Etxeko lanez gaiñera, emakumeek eunen eioteari ta janzki-oiñetakoen gintzari emotsien. Egunoro, Qumran'etik eremulari bat Wadi'ra jaisten zan neskato-mutikoak eskolatzearren, eta garaia etorrita, mutillek eremulari ala lurgiñaren jarduna aukeratu egikien.

Esenitarrok begiratutxuan bizi izaten ziran, irauteko bearrekoa zanaz janaritzuz, eta bataz beste zorionsuak ziran, gitxiz asetzen ziran-eta. Baeben, baiña, diruz ordaintzen ez dan baldintza bikaiña, eta auxe izan be: euren buruaren jabe ziran, ezetariko jotutasunik ezagutu barik. Erroma'ko buztarria jasaten eben beste erriakaz kideturik, esenitarren bizikereak ez eutsen ezetariko zorrik.

Judutar erriari egokionetan, Abimel jakintsua zan, eta beronen zuzendaritzapean, luzaro barik Dan bere arbasoen ekintzetan ezaguera andiak egiten asi zan. Goizoro, lastamarragatik jagita, auntz-esnea zan gosari ariña artu aurretik, Abimel'ek salmo batzuk esan oi ebazan, eta gero, bakotxak bere zeregiñari emotsan. Asiera baten, narrukien atontzeari ekin eutsan Dan'ek, baiña ondo idazten ekiala ikusirik, bibliaren zatiak aldatu egiazan agindu eutsan Abimel'ek, eta olan ba, ezarian-ezarian bere erriaren antxiñako ekintzak ezagutzen asi zan. Igarle edo profeten auresanak ezagutu ebazanean, jakingura bakanak artuta, arein aztertzeari emon eutsan buru-belarri, Kristo Mesias'en etorrerea aipatzen ebenak batez be.

Sei bat illabete igarorik, bein baten, eguneko lana amaituta, apalostean leizeko ataditik basamortuko illuntze zoragarria begizatzen ebela, eta itz egiteko eretia izanik, lanaldia ta otorduak isillean emoten ebezan-eta, Dan'ek,

– Aizu, Maisua –Abimel'eri esan eutsan– gero ta geiago erakarten nabe gure igarleen auresanak, Mesias'eri dagokiozanak batez be, eta guztiz argi ez izanik be, nire ustez, Mesias'en garaia etorri da edo etorteko zorian da.

Isildu zan une batez, eta gero, onetaraxe jarraitu eban:

– Ona etorri aurretik, ama il-agiñean zala auxe esan eustan: Amesetan Kristo agertu izan yakola, eta ni Berarekin alkartu neintelako agindua emon eutsala. Ezin dagikegu ames bat nai-ta-ez ontzat emon, baiña amaren azken eskaera izan zana, ezin dagiket burutik kendu, eta areago batez be, gure igarleen esanak ezagutu ondoren. Izango ete da auxe, Aren garaia...? Begira, Abimel, gaur Daniel'en igarkizun batzuk irakurtean, ezustez, bein baten nire aitorde maitia zanari entzunikoa argi-argi gogora etorri yat. Ara...

Isildu zan Basamortuko Semea une batez oldozkunak taiutzeko, eta gero,

– Bein baten, nabatetarren erria dan Milea'n, nire aitordea zan Urian armenitarrekin bizi izaten nintzanean, judutarren Mesias'eri buruz itaundu neutsanean, auxe erantzun eustan: izarlaria zan bere aita, gau baten Armeni'ko ortzia arakutzen ebala, Van aintzira-gaiñean izar eder-ederra kokaturik, bere naimenaren baiño indartsuagoa zan eragin batek artuta, aren jarraian asi, eta Mesopotami'ko Dura urian, Gaspar izene-

ko bere adiskidearekin izarraren jarraipenari emon eutsan. Andik laster, Baltasar abisinitar izarlaria alkartu yaken, eta irurok izarraren atzetik Judea'ra sartu, eta luzaro barik Belen izeneko errixkara eldu ziran. Orduan, izar miraritsua ortzian beera asi, eta noiz-bait estalpe baten goikaldean kokatu zan. Iru izarlariok ganbelutik jatsi, eta ango askatxu baten aur eder-ederra ikusi eben. Gur egin eutsoen, eta esku-erakutsi batzuk eskiñi eutsoezan. Zenbait egun igarorik, iru izarlariok aberrira biurtu ziran. Urian'en aita eldu zanean, erritar guztiai jakiñerazo eutsen Mesias Belen'en jaio izan zala... Bai, gaur Israel'go igarleen auresanak aztertzean, aztuta neban jazokizun ori burura etorri yat bapatean, eta orrek esan gura dau, amesen artean amak bizi izandakoa egia dala. Esan, Abimel, egirik izango ete Palestina'ko lekuren baten, Israel'go Errege Askatzaillea, bere orduaren begira dagoanik...?

Erantzun aurretik, une batez Abimel'ek isillik iraun eban, eta gero mintzo astiro-tsuz,

– Bein baten –asi zan–, egorantza joian bidari bat, emen lekaide egoan bere lengusua ikertzeraz etorri zan, eta auxe esan euskun: Yon Ugatzaille izeneko gizon batek basamortutik auxe aldarrikatzen ebala: “Garbitu zaiteze, zeruetako Erreiñua ur dago-ta”. Dalako Yon'ek, ganbelu-ulez eiotako janzkia, eta narruzko gerrikoa erabillezan, eta aren janaria matxingorriagoak eta baso-eztia zan. Oste andia etorkion Jerusalem, Judea, eta Jordan lurraldetik. Pekatuak autortu ondoren, Jordan ibaian aregandiko bataioa artzen eben.

Bein baten olan ziarduala, Yosu izeneko galiletar bat etorri yakon ugutzau egian. Yon'ek, baiña ez eban olakorik egin gura, auxe iñotsala: “Neu naz zeuk ugutzau bear nozuna, eta zeu nigana zatoz...?” Baiña Yosu'k bere eskaerari eragon, eta Yon'ek ugutzau ebanean, zeruetako mintzo bat aditu zan onetaraxe: “Au, atsegin dodan nire seme kutuna da”.

– Auxe da –jarraitu eban Abimel'ek– bidari arek leizeko atadi onetan jakiñerazo euskuana, eta egia izatekotan, dalako Yosu, Israel'ek itxarotako Mesias izango zan, urrean...

– Onezkero –berekiko lez esan eban Dan'ek–, eta ori egia ba'litz, non egongo dira, Yon Ugutzaillea ta Galilea'ko Yosu...?

– Galilea'ko Yosu'ri buruz ez dakigu ezer, eta ori ez da arritzekoa, emen baztertu-ta bizi gara-ta, baiña Ugutzaillearen azken izugarria aipatutako bidariak joan aurretik edestu euskun. Ara... Yon Ugutzaillea gizon arteza ei'zan, eta Herodes'ek bere anai Filipo'ren emaztea zan Herodias, beretzat artu izan eban ezkerre, ori zillegia ez zala aldarrikatzen eban Yon'ek. Augaitik, Herodias ezkontzausleak gorroto itzaliezina eutsan, eta emakume onen eragiñez Herodes'ek espetxeratu eban. Bein baten, bere jaioteguna zala-ta, Herodes'ek jai andi bat atondu eban jauregian, eta Salome'k, Herodias'en alabeak dantzan egin eban. Lilluraturiko erregeak nai leukena emongo leuskiola agindu eutsan. Orduan, amak eragindako neskeak Yon Ugutzaillearen burua emon egiola erratillu baten, eskatu eutsan. Bere naiaren aurka izanik be, erregeak Yon lepo-mozteko agindu eban. Burua erratillu baten eskiñi eutsoen Herodias'eri, eta onek amari emon. Yon'en ikasleak etorrita, aren gorpua obiratu eben.

– Eta Kristo Mesias'eri buruz ez dakizu besterik...?

– Ez, Dan. Toki bakarti onetara ikerle gitxi dator, eta Palestina'n jazoten dana, ez dator onaiño.

– Emoidazu, Abimel, zure eritxia Mesias'etzaz. Idazti Donetan, zeu baiño jakintsuagorik nekez idoro leiteke Palestina osoan. Onezkero etorriko zan, Israel aske ta andia egingo dauna...?

– Idazti Donetan azterketa zeatzak sarri askotan egiña nozu, eta ziur-ziur jakin ez arren be, igarleen aurreanak arduraz irakurri ondoren batez be, baietzean nagotzu.

Zirrara menperatu-eziña jabetu zan Dan'en izate osoaz, eta goraldi batek artuta, jagi, eta mintzo urratuaz auxe oi ugin eban:

– Orduan, il aurretiko amaren ikuskizuna, ez zan ameskeria izango, Yahvé'k bere ariman isuritako egia baiño...! Mesias'egana joateko agindu eustan, eta Beragana joango naz, onezkero gudari saiatuak bear izango dauz-eta. Bera aurkitu dagidanean, Masada'ra biurtu, eta Akai'ri esanda, basamortuan zear batuko gaiakoz, gure Askatzailleen alde odola emoteko gerturik, David erregearen aldietan Israel zan baizen andia egi-tearren. Bai, biar bertan, egunsentian, Katamixarra ta biok Aren billa joango gara...!

– Ez zaitzez joan Qumran'etik oraindiño, Dan, Idazti Doneak ondo-ondo ezagutu arte, beintzat. Gure Mesias Palestina'n ba'lego gudari ta jakintsuak bear izango ditu. Zelatari zarean aldetik ziur naz, burrukalari ona izango zareala, baiña jakiturari buruz, aurrerapen andiak egin arren be, oraindiño ez zara umotasun betera eldu. Nik eskatuko neuskizu illabete batzuk emon dagizuzala gure artean, eta garaia elduta, neronek jakiñerazoko dautsut, Mesias'egana joateko ordua etorri yatzula. Anartean, ekiezu burubelari Idazti Deunai.

Gogo onez ez bazan be, berantetsitako Dan'ek Abimel'en onua onartu eban, eta goizabarra asten zanetik, leizeko sabai-zulotik eguneko argia itzungi arte, Idazti Deunetan murgilduta, Israel'en edestia xurgatu eban irrika bizian. Sarri askotan, bere aukeran eban Abimel'en burubidea eskatzen eban, eta olan, egunen joanean, aberriko kondaira polito ikasi eban. Bein baten, gaztea benetan ederresten eban esenitar nagusiak auxe esan eutsan:

– Ordua eldu yatzu, Dan. Tamal andiaz bada be, Mesias'en billa joateko garaia dozula, esan bear dautsut. Urtebete onetan asko ikasi dozu, uste neban baiño geiago, izan be. Biar egunsentian, irrikatzen dozunaren billa joan zaitkez, eta aurkituko ba'zendu, jakiñerazo egistazu, neuk be, daukadan guztia Berari eskintzeko.

Biotz-ikara batek menperatuta, Dan'ek Abimel'en eskua mun egin eban, auxe zirautsalala:

– Eskerrik asko, Abimel maite ori. Zor andia dautsut, eta Mesias idoro dagidanean, Masada'rako bidebatez, emetik igaroko naz zu jakitun ipinteko.

Urrengo egunean goizabarra agertu baiño ez, Dan, Qumran itziteko gertatu zan. Abimel atadian egoan ikasle kutunari bidegite ona opa izateko, eta besarkada estu ta maitekorra emon eutsan auxe ifiotsala:

– Agur, Dan maite ori. Tamal dot benetan zu galtzea, ikasle urten eta esanekoa izan zaitudalako, baiña Yahvé'ren bideak aintzakotzat artu bear doguz, Bere zerbitzurako eragiten gaituanean batez be. Jakin bear dozu nire onespak nonaira jarraituko dautsula, eta egia ba'litz Kristo Mesias gure artean dabillega, zatoz ona lenbailen.

– Bai, Abimel, Askatzaillea gure artean ba'litz, Masada'ra biurtuko nintzake ango gudariai aberriaren aldeko burrukara eragiteko, eta bidebatez emendik igaroko be, zu jakitun ipinteko.

Barrero be Abimel'ek besarkatu eban, eta esenitar nagusiaren aurpegian beera eriozan malakoak ikusirik,

– Ez zaitzez atsekabetu –esan eutsan–; Israel'ek ain luzaro itxarotako askatasun eta anditasun eguzkia, basamortuko urrezko ondartzaren atzetik agertu-agiñean da.

– Yahvé'k bedeinkatu zagizala, oraintxe bertan neuk bedeinkatzen zaitudan lez...

Au esanik, Abimel'ek esku biak Dan'en buru-gaiñean ipiñi ebazan, salmu-zati au astiro ta mintzo beteaz aletzen ebala:

Zugandik dator, Jauna,

osasuna ta onespena zure erriaren gaiñera.

– Agur, Abimel –jagitean esan eutsan Dan'ek–, gogoan izango zaitut betirako, setmetzat erabilli nozu-ta. Ez zaitzez nitzaz larritu; ara... Urian aztueziñak auxe esan eroian: “Gure patua izarretan eta basamortuko ondarretan irarrita dago”. Ez zaitzez arrenkuratu, beraz.

– Dan, ori ez da egia bete-bete. Gure adua erdiz idatzita dago izarretan eta basamortuko ondarretan, baiña beste erdia norberak osotu bear izango dogu. Aalegindu zaitzez ba, eta zure patuari peitzen yakoan itzok, esku irmoz idatzi egizuz, Dan maite orrek.

Au esanik, eta bere barruko zauskadea eskutatzearren, urrean, Abimel leizeko barrunbe itzaltsutik ostenduta, Dan bidean beera abiatu zan, atsekabez eta itxaropenez naasitako sentipen batek menperatuta. Qumran eta Wadi erritiko erdian zala, burua

biurtu, eta leizeko zulo illunari begiratuz une batez gelditu zan, bere buruari itauntzen eutsala, jakintza ta bizikera latzeko leku isil aretara egunen baten biurtuko ete... Gero, asperen luzea jaurtirik, Wadi'ra bideratu, eta andik laster Noemi'ren txabolara eldu zan. Ez zan inor azaldu, danak soloetara joanak ziran-eta. Sekulabedarra moztuten ziarduen Noemi ta seme-alabakana joanda, Dan'ek,

– Egunon Noemi-ta –esan eutsen– banoatzue Palestina'n zear, gure erriak bear dauanaren billa.

– Bai, atzo nire seme kutuna jatekoak eroan ebazanean Qumran'eko arpera, gaur joateko zintzazala esan eutsan Abimel'ek.

– Olantxe da, Noemi. Non da Katamixarra...?

– Ur-erreten bat atontzen diardu, baiña nire semetariko bat aren billa joango da. Bitartean zatoz etxera biderako jatekoak atondu dagitsudazan .

Jatsi ziran biok, eta jangai batzuk lepo-zorrora sartuta, atadira urten ziran. Une aretan Katamixarra eltzen zan, eta pozez gairiezka agurtu eban bere nagusia.

– Zer da barri, Jauna...? –itaundu eutsan–.

– Bagoaz, Josue.

– Au nire poza...! Nora, baiña...?

– Bidetik jakiñaren gairiean ipiñiko zaitut.

Noemi alargunak Jeriko'rako bideari buruz argibideak emon eutsezan, eta alkarrekandik agurtuta, Noemi solora biurtu, eta gazte biak aldapan gora bidexka batetik ipar-sarkalderantz abiatu ziran, Katamixarra'k ezpatak eta lepo-zorroa eroiazala. Dan'en eskutaria, baiña, ez zan luzaro isillik dirauanetarikoa, eta,

– Aizu, Dan nire Jauna –itaundu eutsan–, esango daustazu norantza goazan...? Egia esateko, aspertuta nengoan ainbeste aitzurketaz, eta garasta-erretenen atonketaz. Izan be, zelataria nazan aldetik, iskilliak naiago dodaz.

– Ara, Josue –irribarrez esan eutsan Dan'ek–, Idazti Deunak aztertzen luzaro emon ondoren, gure Mesias etorteko garaia dala oartu naz, eta beraz, Aren billa noa Israel jaregiten laguntzeko.

– Eta aurkitzen ba'dogu, zer...?

– Orduan Masada'ra biurtuko gara, eta Akai'ren laguntzaz zelatarien leiñua iratzarriko dogu, iskilliak artuta Mesias'en alde burrukan egin dagian, gure aberriak David erregearen aldietako anditasuna lortu arte. Orretarako, baiña, Palestina zapaltzen daben erromatarren bein betiko garaiturik, gure esku billakatuko gara, eta Yahvé'ren laguntzaz Mesias'en eskutik, inoiz ez ezaguturiko aalmena jaritsiko dogu, olan idatzia dago-ta.

– Bai orixe, Dan...! Jaungoikoak aukeraturiko erria gara, eta ainbeste ezbear, oiñaze, eta zapalkuntza ezagutu ondoren, ordua da Israel'go leoiak adatsa astindu dagian.

Edu onetan ziarduen zelatari biok, Jordan ibarrean gora Jeriko'ra igoten zirala. Udabarria zan, eta aro pizgarri onen zantzuak edonon agiri ziran, basamortuko zabal-dia amaika usain ernagarriakaz itxartuten zala.

Beroa anditu zanean, geldialdi bat egiñik, zeozen jan eben, eta arratsbeeran bidea-

ri jarraitu eutsoen, eta gautu zanean, okela ta palmondo-garauak janda gero, burusietan bilduta lo egin eken. Egunsentian, bidegiteari jarraitu eutsoen, eta noizbait, arratsaldean, Jeriko uriaren arresiak begiztatu ebezan, eta egoaldeko atea itxi zeiten aurretik, urira sartu ziran.

– Jauna –esan eutsan Katamixarra'k–, gura ba'dozu, ostatu baten kokatu-bearrean, osabarenera joango gara.

– Ondo deritxat orreri, aldean diru gitxi daroat-eta. Zure osabak etxean artu ba'gengiz ondo etorriko litzakigu.

– Baietzean nago, osaba Jair abertzale sutsu ta zintzoa dalako. Goazen ba, emendik urrun ez dagoan bere etxera.

Abiatu ziran kale estu kiribiltzuetan zear, eta laster ziran “Otzaragilleak” kaleko etxe baten aurrean. Atea jo egin eban Katamixarra'k, eta adin erdiko gizon batek atea edegi eban. Lobeza ezagutzean, pozez besarkatu eban, auxe inotsala:

– Aspaldiko, Josue, ordua da ikusi zagidazan, zerk zakaz nirera...?

– Begira osaba Jair, Palestina ikertu nai dogu; nirekin datorren Jaun au zelatarien buruzagi ospetsua da.

Begirune andiaz agurtu eban Jair'ek, eta etorbarriek zeozer esan egien aurretik,

– Etxe onetara etorri zarien ezkerro, dedu andia izango litzakit emen bertan kokatu zaitezela, gela uts bi dodaz-eta.

Beste barik, Jair'ek etxera sartu-erazo ebazan, eta andik laster, ondo ornitutako mai baten aurrean, arrotzak etxekoekin apaltzen eben. Jair'en sendia emazte ta bost seme-alabakoa zan. Otzaragintzan ziarduan, eta onezaz gairiera, beeko soruan egoan dendan gaiok saltzen ebazan. Agiri zan arazoak polito joiakiozala, etxe aretako jaki ta erredizek adierazoten ebenez.

Apalostean, Jair, Katamixarra, eta Dan bakarrik geratu ziranean, beronek, Palestina ikertzeko bere gurariaren zergaitia otzaragilleari azaldu ondoren, auxe itaundu eutsan:

– Aizu, Jair, zeozer entzun ete dozu, Mesias edo olakoren bat izan daiteken bateri buruz...?

– Yosu nazaretarra esaten dautsoen gizon miraritsua ei'dabil ortik, elbarriak, legerdardunak,itsuak, gorra, etabar osatuz...

– Eta ez ete dauan –eten egin eutsan Dan'ek –jendea eragiten, iskilliak artuta erromatarren aurka asaldatu daiten...?

– Nik dakidan aldetik, ez. Zuk diñozun asmoz etorri ba'litz, onezkero uri onetako abertzaleok jakingo genduke, baiña ondiñokarren ez dogu inongo deirik artu iskilliak erabilteko.

Une batez Dan'ek oldozkor iraun eban, eta gero,

– Orduan –mintzo astirotsuz esan eban–, etorteko dan Mesias'en aurretiko edo igarlea izango da, Aren bideak atontzeko Palestina'n zear aditzen dan profetaren abotsa...

– Ez dot uste Mesias'en igarlea daitekenik. Dalako Yosu nazaretarrak, ontasuna,

zuzentasuna, eta maitasuna aldarrikatzen ei'dauz. Etsaiak maite izateraino eldu bear dala diño. Uste dozu, Masada'tik zatozan buruzagi orrek, Israel'go askatzailleak gure aberria jaregingo dauala, erromatarrakanako maitasuna aldarrikatuz...? Pariseuen aurka jaurtitekoak jaurtiten ei'ditu, azalutsak eta zurizkatutako illobiak dirala esanez. Geisoak, ezaiñak, ezeukiak, alargunak, baita batzutan emagalduek be babesten ei'ditu. Gauza asko entzun dot Yosu nazaretarrari buruz, baiña bene-benetan ez dot uste, zeuk billatzen dozun Mesias, Askatzaillea izan daitekenik. Ditarokigun Israel'go errege andia, onezkero etorri ba'da, leku ezkuturen baten dago, judutar gudaroste garaiteziña atontzeko asmotan.

– Ondo diñozu, Jair –adorez sututa erantzun eutsan Basamortuko Semeak–, eta neu be eritxi orretakoa nozu. Orregaitik, Palestina'n zear aren billa abiatu naz, eta aurkitu dagidanean, gerturik nagoala, esango dausat, nire odola Israel'en alde emoteko. Gero, Masada'ra biurtu, gure anai zelatariak jakitun ipiñi, eta Palestina osoan zear sakabanatuko gara, erromatar zapaltzaillearen aurka gudaroste aaltsu bat atontzeko.

Edu onetan eragon eben luzaro samar judutar abertzale areik. Noizbait, berandutxu izanik, eta lotara joateko zorian,

– Aizu, aberkide –esan eutsan Jair'ek–, aste onetan gure otil-eguna ta Pazkoa ospatzen doguz. Ez al-zarie geratuko emen, otilla (ogi-illa) ta Pazko-bildotsa gurekin jateko...?

– Eskerrik asko, Jair, baiña nire asmoa, etzi eguastena bideari jarraitzea da, iraduz bainabil Mesias'etzaz zeozer jakitearren.

Biamamonean, eta Jeriko urian zeu edo azoka-eguna izanik, Jair'ek etxekoekin otzaragintzeari emotsala, Katamixarra'k lagunduta, uriko beekaldean ospatzen zan zeira jatsi zan. Leku onetan guztitariko salgaiak erakusten ziran; janariak, eunak, janzkiak, lanabesak, iskillak, etabar. Soingaiñeko eder batek Dan'en adikunea irabazi eban, eta saltzailleagana joanda,

– Zenbatean saltzen dozu soingaiñeko ori...? –itaundu eutsan–.

– Amar siklotan emongo neuskizu.

Une batez Dan'ek gogoan erabili eban erostea ala ez. Izan be, erabillena alzituta zarpaillduta agertzen zan, mendel eta mauka-barrenetan batez be, baiña diru larregi ez izanik, asperen bat iges egin yakon, eta beste barik, andik urrundu zan.

Arratsalde aretan, Dan urira urten zan bakarrik, eta kaleak atzean lagata, Akai zaurituta egon zan leizera abiatu zan. Aspaldi aretan lez egoan, eta bazirudian ordutik ez zala iñork ikertua izan. Egun areitako gomutak oroimenera ekarri ebazan, eta Masada'n itzitako laguna gogoratuz, etxera biurtu zan.

Gabean lotara joan zanean, oe-gaiñean zabaldua, goiz aretan zeian ederretsiriko soin-gaiñeko ederra ikusi eban. Izan be, andiki batena zirudian, eta suzmo batek artuta, alboko logelara joanda,

– Aizu, Josue –itaundu eutsan–, azalduko daustazu, goizean ikusiriko soin-gaiñekoa, zergaitik dagoan nire oean...?

– Gorri-gorri eginda, eskutariak mintzo totelaz auxe erantzun eutsan:

– Ara, Jauna... arrastian zeu etxetik urtenda gero... ba... osabari goizean zeian jazorikoa edestu dausat... eta... orduan... eskuarteko lana bertanbera itzita, ba... zeira laguntzeko eskatu daust. Soiñekoa erakutsi dausat, eta beste barik, ba... osaba Jair'ek zuretzat erosi dau.

– Eta nork agindu daustu, niri bakarrik dagokidan arazo batera suurra sartzea...? Lege andia daustut, morroi argi ta ontzat zaitudalako, baiña ezin dot onartu, nire arazoetan zure kabuz jardun dagizula. Zergaitik azartu zara osabeari nire diru-eza autorizera...?

– Barkatu, Jauna, baiña zu eskale baten antzera jantzita ikustea ezin dagiket eroran. Mesias'en billa doan Masada'ko gudaritariko andienari, ez dagokio ezeuki baten antzera Palestina'n zear joatea. Eta onetan, osaba Jair aburu bardiñekoa da.

Eskutariaren berba xalo ta maitetsuak entzutean, Dan'en asarrea ostendu zan, eta aren zintzotasunak irabazita,

– Ez daustut zertan barkatu bear; izan be, nik zuri esana barkatu bear daustazu.

Eta aurpegia irribarre bat az argituta, Dan gelatik urten zan.

Biamamonean, soingaiñeko barriaz jantzita, bere alde egiñekoa eskertu eutsan Jair'eri. Edozelan be, janzki barriaz Dan'en itxurea obatu izan zan zearo, eta,

– Aizu, Dan –esan eutsan Jair'ek–, erromatar gudalburu askok orain erakusten dozun itxurea, eurontzat gura izango leukie.

– Eurontzat opa izaten dodana ba'lekie, ez nindukie bakean itziko.

Barre egin eben biok. Gosalduta gero, berarekin Katamixarra artuta, egurastu eban Dan'ek urian zear, eta jarraian sinagogara sartu zan, Kristo Mesias'en alde otoi egiteko.

Bazkalostean, Jair eta onen sendiari agur txeratsua eginda, zelatari biak Jerusalem'erako bidean gora abiatu ziran. Judutarren uriburu deun onetan azterketa sakona egitea zan Dan'en elburua. Eguena zan, eta Larunbatean judutarrek euren Pazkoaren egun andia ospatuko leukie. Soingaiñeko erosi-barria laskitu ez ekion, lotuki baten bilduta, lepo-zorroan eroian Katamixarra'k, Dan'en asmoa Pazko egunean erabiltea zalako, eta orain lengo zaarra erabilen. Jerusalem ez egoan urrun, eta augaitik, urrengo eguneko arratsaldean ara sartzea asmatzen eben ezkerreko, iradu barik joiazan, atsedendi ugariak artzen ebezala, eguberdian batez be, berotik iges egitearren. Janariz beteriko zorroak nasaitasuna emotsen, eta barruko alaitasunak eraginda, Katamixarra txistuka joian.

Gau aretan burusietan bilduta, atxaren uskune baten, aize-ekutuan lo egin eben, eta biaramonean, Barikuan, bideari jarraitu eutsoen. Eguraldi ederreko eguna zan, eta udabarriaren giro pizgarriak eraginda, txorien txintak nonnai aditzen ziran, eta orremenka, basamortuko loretxu eder, iragankorrek, margo yaukalak eta usain asperenkoiak bidariak eskintzen eutsiezan. Alako baten, bide-okergunea igarorik, muru baten gaiñean, uso-talde erraldoia bai'litzan, Jerusalem agertu yakon zuritasunez blei-blei. Une batez Dan gelditu dan, eta biotza taupada zorotan ebilkiola, berbok iges egin yakozan:

– Jerusalem dan ederra...!

Bera baizen zoratuta, eta ezer esateko gai ez izanik, begiak zabal-zabal eginda, Katamixarra bere alboan gelditu zan, eta noizbait, barruko igarkizuna bai'litzan,

– Jauna –esan eutsan–, uriburu eder orretara, ez ete da gure etorkia lotuta izango...?

– Batek-baki...! Izarretan eta basamortuko ondarretan idatzita dagoanari, guri dago kigu osotzea, eta niketz, Jerusalem'en, judutarren uriburu deun orretan, pozik isuriko neuke nire odola Kristo Mesias'en alde...!

Eguberdia zan orduko, eta geldiune laburra egiñik, bazkari ariña artu ondoren, iradu bakanak jota, bidegiteari emon eutsoen barrero be, judutarren uriburuaren gainean, Herodes'ek birreraikitako Jauretzea edertasun betean bereizten zala.

Alako baten, eguzkia illuntzen asi zan, eta bildur bakanak jota, mintzo dardartsuz, Katamixarra'k oiuka,

– Jauna, Jauna –asi zan–, munduko azkena ez ete dau iragarriko bapateko illuntze onek...?

– Ez zaitez larritu, adiskide. Geu ta eguzki artean iretargia jarri da, eta onen zati batek aren argia ezkututzen dausku. Noizbeinka jazoten dan arrigarri oneri, eguzki-illune esaten dautsoe izarlariek. Nasaitu zaitez, eta goazen aurrera.

Gero ta andiagoa biurtzen zan illunaldian zear, laster ziran arresiaren aurrean, eta urrenen eben Betania'ko atetik sartu ziran. Une aretan bertan lur-ikara batek jota, lurra dardarrez asi zan, arresiko zati batzuk amiltzen zirala burrunba zemaikorretan.

– Arindu gaitez, Jauna...! –didar egin eban Katamixarra'k izu gorriak artuta.

Arin baten sartu ziran uriko barrugunera, eta erdi-itzaletan zear, aurreko ganetxu baten erpiñean irudi bakan batzuk ikusi ebezan.

– Zer izango ete irudi orreik...? –berekiko esan eban Dan'ek–.

Begi ernaikoa zan Katamixarra, baiña, mintzo urduriz,

– Jauna –esan eutsan–, iru gurutz ikusten dodaz...!

– Urreratu gakezan. Ziur-ziur erromatar ankerren opariak izango dira.

Orduko, illunaldia joanda, eguzkiaren argia indartzen asten zan, eta gora eldu ziranean, ikuskizun zauskagarria begiztatu eben... Erdiko gurutza beste bien gainetik bereizten zan, eta onen albokoetan gizon bana eskegita egoan; batek, ainen-biraoka soina biurrikatzen eban, josten eben untzetatik askatu gura izango bai'leuan. Bestea, ostera, geldi-geldi erdiko gurutzatuari maitasunez beterik begiratzen eutsan, ezpanak igitzen yakozala otoitzean lez. Baiña Dan'en adikunea erakarten ebana, erdiko gurutzuntzatu zan, eta azaldu ezin egikean ikusgurak menperatuta, urreratu yakon. Burua arantzezko burestun batek josita eban, eta onen gainetik INRI idazkuna bereizten zan. Eriotza ikustera oitua zan Basamortuko Semeak laster egiztatu eban gorpua zala. Lau untze lodik esku-oñiak zearkatzen eutsoezan, eta saietseko zauri izugarri batetik, odolez naasitako gazura erion. Billutsik egoan, erromatarrek egin eroien antzera, oparien eriotzal-diari, lotsariak erakustearen laidoa geituz. Une aretan, emakume bat urreratu, eta gerraren inguruan zapi bat jarri eutsan.

Dan'ek begiak jaso ebazan, eta une luze batez gurutzaren alboan iraun eban, goiko iruditik begiak kendu eziñik. Gorpuak ikusten oituta izan arren be, odoluriko aurpegi aretatik eriozan edertasun, anditasun, eta bakea, bere naimenaz jabetu izan ziran, eta an zirauan gora begira, betseñiak irudi eder eta oiñazetu aregan josita. Nor izango...? berekiko iñoan Dan'ek amesetan lez. Izan be, irudi areri errege baten anditasuna erion...

Alako baten, bere einera biurtu zan... Une aretan emakume bat urreratu, eta gorpuaren belaunetan aurpegia ipiñirik, gurutza besarkatu eban, isillean malko lodiak eriozala. Berrogei ta amabost bat urteko izango zan, eta bere aurpegi eder-ederra ildakoaren antzekoa zan. Agiri zan ama-semeak zirala, eta ezustean, bere ama, Masada'ko Dina burura etorri yakon, erruki esan-eziña beratzaz jabetzen zala. Alboko emakume batzuk urreratu yakozan, berba maitetsuakaz aren atsekabe larria arindu naiez. Une aretan, Dan'en adiñekoa izango zan gazte bat urreratu, eta andreagana joanda, mintzo maitekorraz,

– Andrea –esan eutsan–, zure semearen nekaldia amaitu da. Nasaitu zaitez, idaztiak iragarten ebena bete izan da... Txukatu zure melkook, arren...! Onezkero, Bere Aitarekin aintza betean dago.

Orduan beste emakume bat tartetu zan esanez,

– Arimatea'ko Yoseba'k, Yosu obiratzeko laster etorriko dala jakinerao dausku. Egin-barria dan arri bizian landutako bere obi ederrean, izan be.

Orduko, arratsaldeko bostak izango ziran, eta an irauan Dan'ek danatzaz aztuta, gurutzaren ondoan sustraituta lez, irudi eder eta unkiagarri aregandik begiak kendu eziñik. Alako baten, Katamixarra urreraturik,

– Jauna –esan eutsan–, berandutxu da onezkero, eta osaba Jair'ek esondatu euskun ostatua billatu bear dogu.

Egia zan. Ames sakon batetik iratzarrita lez, azken begikadea gurutzatuari jaurti ondoren, leku aretatik alde egin eban. Albotik joiakion Katamixarra'k alako baten,

– Jauna –itaundu eutsan–, nor izango zan gurutzatu ori...? Bere jas eta azpegitik, judutarra baietz egingo neuke.

– Baita neuk be, aren karantzak olan iragarten baidau bete-bete.

– Ez al-zan izango bere burua igarletzat daukan orreitariko bat...?

– Baleiteke. Israel'go igarle batzuk jazartu ta aurrean erabilliak izan dira sarri askotan judutarren aldetik. Gizon ori, baiña, erromatarrek gurutzatu izan da, gaurregun judutar erriak ori egiteko eskubiderik eta oiturarik be, ez dauz-eta. Erromatar madari-katuok...!

Dan'en aurpegiak menperatzen eban asarrea erakusten eban, eta itz egiten jarraitu gura ez ebala ikusirik, Katamixarra bera be isildu zan. Andik laster, Jair'ek esondaturiko ostatutzaz emakume bateri itaundu eutsoen, eta beste barik, uri zaarreko kale estu ta kiribiltsetatik, noizbait idoro eben. Ostalaria zelatarren adiskidea zan, eta Jair'en aldez etozala jakinik, maitetsu artu ebazan, lo-gela garbi bana emotsela.

Urrengo egunean, Pazko-eguna izanik, Dan'ek eta Katamixarra'k, Neftali eritxan

ostalariarekin, Yahvé'k Moises'eri agindutako lez, bildotsa ta otilla (legami edo orantabako ogia) jan ebezan, gerria lotuta, oiñetakoak sartuta, eta makilla eskuan. Aalik ariñen jan eben, Jaunaren Pazkoa (Igarotzea) zalako.

Gau aretan oeratu aurretik, aurregunean Golgota izeneko ganetxuan ikusitako iru gizon arein gurutzapena aipatu eutsan Dan'ek ostalariari. Izan be, ezin egikean burutik kendu, erdiko gurutzean jositako gizonaren irudi zauskagarria. Amaitzean,

– Aizu, Neftali –itaundu eutsan–, nor izango zan, INRI idazkunpean gurutzatua...? Niri beintzat zauskada aztueziña egin daust.

– Nazaret'eko Yosu izan da. Ortik ebillen bere burua Jaungoikoaren semetzat aldarrikatuz. Egia esateko, beratzaz gauza andirik ez dakit, baiña geisoak osatu, eta gorpuak berpiztu ei'ebazan. Arek iñoana erakarpen andikoa zan, eta berarekin joiazan arraintzale ta erdipurdiko lagun batzuk, aren jainkotasuna bete-betean siñisten eben. Gizon ona ei'zan, eta azken aldiotan jarraitzaille ta gurtzaille asko ei'ebazan. Ara... lengo Igandean Jerusalem'era asto baten gaiñean sartu zan, eta igarotean, jendeak bidera etorkiozan palmondo-adarrakaz, eta bera igarotean, soingaiñekoak lurrean edatzen ebezan. A lako jairik aspalditik ez ei'da ospatu, erregetzat artu izan zan-eta.

– Zein da zure eritxia dalako nazaretarrari buruz...?

– Batek-baki...! Bein baten, unetxu batez ikusi neban bere jarraitzaillek inguratuta joiala, eta orduan zirrara batek menperatu ninduan. Ez dakit zer izango zan, baiña biozkada biziak jota, dardar asi nintzan, bere irudiari erion lillura esaneziñak erakarrita. Tamal dot gurutz batera josita il zeiten, nire ustez gizon errubakoa izan dalako.

– Esan, Neftali, entzun al-dozu zeozer Israel'go erriari agindutako Kristo Mesias'etzaz...?

– Ez, Dan, nire ezagutzari beintzat, ez yako eldu olakorik.

Isillune baten ondoren, Basamortuko Semeak,

– Azken urtebete au –esan eban oldozkor–, Wadi Qumran'eko esenitarren artean emon dot, Idazti Deunak ardurarik andienaz aztertuz, eta Kristo Mesias'en etorrerari buruz batez be, gure igarle andiek, Isaias'ek, Jeremias'ek, Ezekiel'ek, Samuel'ek, eta beste batzuk iñoena arakatuz. Onein esanak zatika-zatika, mosaiku baten puxkak bai'litzazan osotu, eta niretzat, oraingoa Mesias'en garaia dala ziurtzat joten dot. Onezaz gaiñera, il-agiñean zan amak, Kristo, Palestina'n zear ebillela ames egin eban, eta Beraren billa joan neinten eskatu eustan. Ama lako emakume arrunt eta ezjakifiak Mesias'en billa joateko eskatu eustanean Goi-arnasak eraginda izan bearke... Esan, Neftali zintzo orrek, ez al-dozu iñoango zantzurik artu, Aren etorrerari buruz...?

– Ez, Dan, ez dot ezer benetakorik entzun. Zeuk zantzu bi artu dozuz Kristo Mesias'en etorrerea azaltzeko, baiña nire aitita Gad'ek Jauretxeko abade zanak, auxe esan eroian: Kristo Mesias'en etorkundea iragarteko, iru zantzu bearreko izango zirala, eta zeuk bi baiño ez dozuz azaltzen...

Isillune bat sortu zan, eta alako baten tximistak jota lez,

– Badaukat irugarrena, badaukat...! –aulkitik zutunduta oi u egin eban Dan'ek–Urian'ek, aitorde izan neban gizon aztueziñak bein baten esan eustan, izarlaria zan bere

aita, izar bateri jarraituz, beste lagun bikin, Belen'eraño eldu, eta estalpe baten gaiñean dalako izarra kokatu zanean, barruraturik, sein jaio barri bat ikusi, eta Jaungoikoaren semetzat gur egin eutsoela.

– Noiz jazo zan ori...?

Ainbaketa sakona egin ostean, Dan'ek,

– Ara... badira iru urte Urian il zanetik, eta orduan berrogeitsu urteko izanda, eta bere aita izarren atzetik joan zanean, bera mutikoa izanik, orain ogei ta amar bat urte izango dira aur ori jaio zala..

– Eta zelan daiteke, Dan, Mesias izan, eta ogei ta amar azken urteotan beratzaz ezer ez jakitea...?

– Lekuren baten ezkutuan iraungo eban orain arte-edo, eta gaur bere eretia eldurik, gudaroste aaltu bat atonduko dau, Erroma'ko zapaltzaillea Palestina'tik-at jaurtiteko. Bere agintzapean, David erregearen aldiotan Israel'ek ezagutu ebazan anditasun eta aintza birrirabaziko ditu. Augaitik, Jerusalem'era etorri naiatzu, gure Mesias non dagoan jakitearren, eta aurkitu dagidanean, nire ezpatea baita Palestina'ko zelatarienak be, eskiñiko dautsadaz. Orretarako, gure aberriko uri ta baserriak ikertuko dodaz, eta ez naz geldituko Bera idoro arte.

– Eta idoroko ez'ba'zendu...?

– Idoroko dot, aipaturiko iru zantzuok agiri dira-ta.

Isillune baten ostean, Naftalik barriro,

– Entzuidazu ondo, Dan –esan eutsan–, ez aztu neu be zelataria nazala, eta nire adifñera ezkerro burrukarako gai ez izanik be, Israel'ek ames egiten dauan garaia bete daitenean, nire etxe au ta jabetzen dodazan ondasun guztiak, gure askatasunaren alde izango dira.

– Eskerrik asko, Neftali. Izan be, Jair zuzen egoan zure izena abertzaletzat aipatu eustanean...

Isillune bat sortu zan, eta gero Neftali'k,

– Aizu, Dan, zein luzaro iraungo dozu ostatu onetan...?

– Uri onetako judutar abertzale batzuk ikertuko dodaz, eta orduan egitekoa erabagiko dot. Bidebatez, eskertuko neuskizu judutar abertzale batzuen izenak emongo ba'zeunskidaz, nire zerrendea osotzeko.

– Baita pozik be emongo dautsudaz izenok.

Berandutxu zan orduko, eta krisaillu bana arturik, baktotxa lo egitera joan zan. Palestina'ko lekuren baten Mesias aurkitzen zalako oldozkunak zirikatzen eban Dan, eta urduritasunak artuta, gau aretan luzaro iraun eban begiak batu eziñik. Noizbait, eta berandu samar izanik, loak artuta, ames egin eban...

Ames egin eban, bidean zear ibilli ebillela laiño lodiak inguratuta, eta alako baten, gandu aren artetik lengo egunean gurutzean jositakoa agertu yakon, eta irribarretsu auxe iñotsan: “Zatoz neugana, Dan maite ori, zatoz...”. Barruko indar batek Aregana bultzaten eban, baiña aurrera egin nai baktotxean, indar ezkutu batek lurrera untzaten eban, mintzo batek auxe zirautsala: “Gurutz baten orren zitalki ilten dauanagan ez ipiñi uste onik, zoaz Israel gaizkatuko dauanaren billa”.

Izan be, azken berbok zentzunezkoak zirudien. Zer emon legikio ia danok bertan-bera itzitako gorpu arek...? Bere burua gaizkatu ezin egikeanak, zelan onik atara Israel zapaldua...? Baiña bere naimenaren aurka, INRI idazkunaren pean ikusiriko ildakoa bizirik etorkion orain, eta iñoiz ez ezagaturiko erakarpen maitekorraz dei egiten eutsan besoak zabalik, anditasunaren dizdir biziak aurpegia edertzen eutsala. Barrero be, Arek erakarrita aurrera jo nai, eta ostera be, beste indar batek bidera josten eban, orren mai-tetsu dei egiten eutsanaren aurka berba arbuikorrak aditzen zirala. Zenbait aldiz birja-zo zan ames ori, eta alako baten, lengo laiñoa agerturik, ikuskizun bakana ostendu zan.

Arnas-estuak artuta itxartu zan, eta barrero lo egiteko aalegindu arren be, ezin... Ikuskizunaren begi maitekor areik jazarten eben, eta noizbait, goizaldeko argiak egu-naren jaiotza aldarrikatzen ebanean, jagi, eta besoak leio-barrenean jarrita, bere aurre-an edatzen zan Jerusalem'en edertasunak uztarpeturik, bere buruari itaundu eutsan non egongo zan berak billatzen eban Kristo Mesias, Israel andi, aske, eta ederretsia biurtu-ko leukena...

Gosaria artuta, ezagutzen ez eban judutarren uriburuan zear ikerraldi bat egitea erabagi eban. Urten aurretik, Katamixarra'ri,

– Aizu, Josue –esan eutsan–, banoa ortik uri eder au ezagutzearren. Bitartean, zoaz David'en uria deritxan auzora, ia zer ikusten eta entzuten dozuzan. Zorroztu egizuz begi-belarriak, araiñegun ikusi genduan gurutzean jositakoari buruz batez be.

– Olan egingo dot, Jauna.

Katamixarra urten zanean, zeintzuk ikusgarri ikertu bearko leukezala itaundu eutsan Neftali'ri, eta nai ebazan argibideak artuta, alde egin eban, gaberarte ez litzakela biurtuko esanez.

Eguraldi ederreko eguna zan, Palestina'ri udabarrian egokionez, eta Dan'ek David'en uria begiztatzea erabagi eban. Ordu bete bi emon ebazan zati zaar onetan kale estu ta biurrietan zear, eta noizbait goikaldera jo ondoren, Kaifas'en egoitzaren ondolik, Herodes'en jauregi ederreraño eldu zan. Gudari batzuk zaintzen eben jauregia, eta onen edertasuna lekoretik ederretsita, goiko urian kokatzen zan Antioko'ren auzoan zear, Akra'ra, makabeotar jauregira eldu zaneko, eguberdia izanik, emengo jatetxe baten bazkaldu ondoren, Jauretxea ikertzea erabagi eban; zubi baten zear bertaratu zan, eta gero begirunerik andienak menperatuta, aren egitura ederra begiztatu eban. Herodes'ek birreraikitako Jauretxea, gerkar itxurakoa zan, eta Urian'ek irakatsiari esker, er-tietan ezagulari naikoa ona izanik, une luze batez begira ta begira emon eban, larraiñetik batez be, emengo ikuskiaia ederrenetarikoa zan-eta. Jarraian, barruratu zan, eta opa-ri-aldararen aurrean buru-makur, otoi egin eutsan Yahvé'ri, Kristo Mesias idoroteko la-gundu egitsan.

Luzaro samar otoitzean iraunda gero, urten zanean, aterpean irakastaldi bat entzu-leai emotsela, gizon bat ikusi eban, eta bertaraturik, entzule bateri,

– Aizu, adiskide –abopeka itaundu eutsan Dan'ek–, nor da berbetan diarduan irakasle ori...?

– Gamaliel, lege-irakasle pariseutarra, judutarrek ederretsienetarikoa, izan be. Ur-

te asko ikasten emon dauz, eta jakituri andikoa ei'da. Entzun egiozu, bere mintzoa egiaren ispillua da-ta.

Entzun-guraz urreratu yakon. Une aretan iñoan, siñisle zintzoak Yahvé'k esanari bakarrik jarraitu bear leuskiola, eta ez edozeiñek esan egikeanari, eta berba oneikaz irakastaldia amaitu eban: “gizonakandikoa ba'da, gizon orreik diñoena berez ezereztu-ko da, baiña Jaungoikoagandik ba'da, ezin izango doñue garaitu”.

Edu onetan azkena emon eutsan Gamaliel'ek itzaldiari, eta jarraian, entzuleen itaunai erantzunak emoten asi zan. Aukera baten begira, Dan urreratu yakon, eta isil-laldi bat ustiatuz,

– Rabi –itaundu eutsan–, zelan jakingo dogu benetan, zeintzuk gauza Yahvé'gan-dik, eta zeintzuk beste, gizonakandik datorkiguzan...?

Une batez Gamaliel'ek isillik iraun eban, eta gero,

– Begira, gazte –adeitsu erantzun eutsan–, Jaungoikoak berak irakatsita, gure aita-len andiakandik eta igarle Jainkozaleakandik datorkigu. Gizonek diñoskuena, ostera, norberekeriak lorrindu ta laskituta dator, eta oneik esanikoa aldiaren esku latzak eze-reztuko dau, ekaitzaren aize zakarrak lastoa sakabanatzen dauan legetxe.

Itzok entzutean, jakin-min garaiteziñak menperatuta, Dan aurrerago azartu zan, eta,

– Ara, Gamaliel jakintsu ori –esan eutsan–, Malakias igarle andiak, Yahvé'ren aboan berba oneik ipiñi ebazan: “Nire mandataria bialtzen dot, nire aurrean bidea aton-du dagian. Zuek billatzen dozuen Jauna, zuek gura dozuen Jauna, zuek gura dozuen al-kartasun-aingerua, laster sartuko da Jauretxean: orra badator –diño gudarosteen Jau-nak–, norik eroan aal izango dau ondo Aren etorrerako eguna...? Nor egongo da sendo Aren agertaldian...? Burdin-olako sua, eta lixiba-ura lakoa izango da-ta. Zidarra urtze-ko ta garbitzeko jesarriko da; urrea ta zidarra lez, lebitarrak bigundu ta garbitu egingo dauz, eta gero Jaunari oparia zintzo-zintzo eskiñiko”. Onaiño Malakias'ek esana. Esai-dazu, beraz, Gamaliel jakintsu orrek –jarraitu eban Dan'ek –Kristo Mesias'etzaz esan-dako ori, noiz jazoko da...? Aren etorrerea, laster ala beranduago izango da...?

Begi argia egin eutsan Gamaliel'ek olan berba egiten ebanari, eta auxe erantzun:

– Egi-egitan olan mintzatu zan Malakias andia. Esan, gazte orrek, non ikasi dozu Idazti Deuna, gure igarle batek aldarrikatua orren ondo ta zeatz, buruz esateko...?

– Wadi Qumran'eko Abimel'ek, esenitarren nagusiak irakatsi eustan, antxe emon neban urtebete bateko egotaldian.

– Abimel, Abimel –berekiko mintzatuz esan eban Gamaliel'ek–, Qumran'eko lei-ze baten bizi dan esenitar jakintsua. Bein baten aratu nintzan, berarekin gure Idazti Deunaren zati illun baztuk argitzeko, eta izan be, azaldu eustazan jakintzak eta ontasu-nak txundituta itzi ninduen. Tamala, benetan, bera lako jakintsuak, Jauretxe onetan ira-katsi nai ez izatea...

– Berak esan eroian –eten egin eutsan Dan'ek–, Jauretxe onetako gurutzea, zikiña dala. Jaungoikoari gur egin bear yakola biotzaren barrutik, eta izpiritua dan ezkerro, gurtzailleek gogoz eta egiaz gurtu bear dabe Jaungoikoa. Pariseutarrok, itz eta eleizki-zun utsakaz gurtzen dozuela, esan oi eban...

– Barkatu, gazte –eten egin eutsan Gamaliel'ek asarre antzean–, baiña geu parie-seuen artean, guztitariko gizakiak badira, esenitarren artean jazoko dan lez, baiña gure autorpene, agirian, Jauretxean, aldarrikatzen dogu, eta ez ezkutuan basamortuko zulo baten, iñoren ezaguerara eldu-eziña dan lekaro edo basa-bazter bateko aldarrria.

Itzok entzutean, onetaraxe erantzun eutsan Dan'ek adeitsu:

– Basamortuko isillean, mundutik urrun, ezeri ardurarik emon bage, eta euren baitan bilduta, gogo-otoitzean jardutea da esenitarren elburua. Zuen xedea, ostera, barrutik urtenda, gizadia gaizkatu ekintza agirien bitartez. Nik uste, ikuspegi bi orrean artean dendu edo oreka bat izatea jokabiderik zuurrena litzakela.

Dan ederrespenaz begiztatuz, Gamaliel'ek orduan:

– Zure aboz, gazte ori –esan eutsan–, jakintzaren mintzoa aditu da, eta esan bearean nozu, zeuk esandakoaz bat natorrela. Etxera biurtzeko ordua da, baiña orren aurretik esango dautsut, poz-pozik ikusiko zaitudala emen, Idazti Deunari dagokionetan eritxiak emoteko batez be. Agur gazte ori.

– Agur, Gamaliel, maisu andia. Aal dagidanetan zeugana joatea atsegin bizia izango yat. Gaur, emendik alde egin aurretik, zure eritxiz Kristo Mesias noiz etorriko dan jakin gura izango neuke.

Erantzun baiño len, une batez isillik iraun eban pariseutarrak, eta gero berba astrotsuz onetaraxe mintzatu zan:

– Ez da gauza argia noiz etorriko dan gure Mesias, igarleen auresanetan aren garaia zeatz aipatzen ez dalako. Ziurra da, baiña, Israel jaregitera etorriko dala, eta noiz orain baiño egokiago, erromatarrek ankapetuta danean...? Baiña bada besterik, eta auxe alegia: nire aita zanari entzuna dausat, Jauretxera eskiñia izateko gurasoek sein bat ekarreanean, Espiritu Deunak eraginda, Simeon izeneko agure zintzo ta Jaungoikozale batek, umea besoetan artu, eta Yahvé goratu eban onetaraxe

“Orain, Jauna, itzi dagikeozu morroi oneri bakean joaten, berba emon zeustanez, nire begiek zure salbatzaillea ikusi dabe-ta...”.

Eta dalako Simeon orrek iragarritakoa egia ba'litz, onezkero Kristo Mesias Palestina'ko lekuren baten, bere garaiaren begira egongo da.

– Noiz jazo zan Simeon'ena...?

– Ezin dagiketsut zeatz-zeatz esan, baiña gitxi gora-beera ogei ta amar urte-edo esango neuke...

– Eskerrik asko, Gamaliel, eta Yahvé'k bedeinkatu zagizala.

Berandu samar zan orduko, eta Dan ibilte azkarraz joan zan, illundu barik ostatura biurtzeko. Bidean zear joiala, adore bakanak artuta, bere buruari zin egitsan, urrengo egunetik asita, ez leukela Palestina'ko lekurik ikertu barik itziko, Mesias aurkitu arte.

Ostatura eldutakoan, gau betea zan, eta atadian bere begira Katamixarra egoan. Jesarri zan onen ondoan, eta,

– Zer diñostazu, Josue –itaundu eutsan–, zeozer jakingarririk entzun al-do zu orko bazterretan...?

– Zeuk aginduta lez, begi ta belarri ernaiakaz ibilli naiatzu uri onetako zati zaarean, baiña irrikatzen dozun Mesias'eri buruz, ez dot berba bat bera be entzun, bai oster, araiñegun gurutzean jositako ikusi genduan irukote aretzaz...

– Zer jakin dozu ba...?

– Ara... erdikoaren alde banatan egozanak, gaizkilletzat erromatarrek eriotzera galdu izan ziran. “INRI” idazkunpean ilda ikusi genduana, oster, judutarren “Sancdrin”ek eriotzera epaitu izan zan. Orduan, or-emen itaunka, auxe jakiñerazo dauste:

Izenez, Yosu Nazaretarra zan, eta Palestina'n zear bere burua Jaungoikoaren semetzat autortzen eban. Badirudi, ikasle ta jarraitzaille asko ebazala, gero ta geiago, izan be. Lengo asteko Igandean, asto baten gaiñean Jerusalem'era sartu zan gizataldearen gorralpen eta txalojote ugariaren artean. Au guztia zala-ta, judutar nagusiek aren ikasle etoi baten bidez, atxillo egin eben, eta epaikarien aurrean, bere burua Jaungoikoaren semetzat autortzen jarraitzen ebanez, eriotzera galdu eben, eta erromatarrek zigorra ontzat emonda, Golgota edo Buru-azurtegia esaten dautsoen ganetxuan, gurutzuntzatu eben erromatarrek.

– Eta aren jarraitzailleek, olan erail egien itzi eben beste barik...?

– Badirudi, izuak jota, sakabanatu ta ezkutatu zirala, nazaretarraren ikasletzat salatu ez egiezan. Banaka batzuk gurutzaren ondoan alkartu ziran, onein artean aren ama egoala.

– Bai, gurutzaren ondoan, ildakoaren belaunak besarkatzen ebazan Andra gaixo a izango zan, urrean. Esan, Josue, zer besterik entzun dozu...?

– Abo batez iñoen, gurutz batetik bere burua jareitu ezin dagikeana zelan artu Jaungoikoaren Semetzat...? Geienen eritxiz dalako nazaretarra ez zan iñongo gaizkillea, bai ordea, andinaiak menperaturiko zoro ganorabakoa.

Dan bere buruaren aurka asarre egoan. Bazirudian, gurutzean jositako zoro arek, bere naimenaren aurka etenbarik erraikiola, beragan eziñegon larria iratzarten ebala. Argi egoan berarentzat, olako eriotz zitala jasaten dauana, ezin daitekela, ez urrik emon be, Jaungoikoaren Mesias edo bialitzat artu, baiña olan eta guzti be, Golgotan ikusitako gurutzatu aregan, baegoala barne-muiñetaraiño sartzen yakon zerbait esaneziña, eta berak gogotik uxatzen aalegindu arren, irudi aren anditasun eta gaillentasuna bere gurariaren aurka bein eta barrero agertzen yakon. “INRI” idazkuna irrigarriztat ipiñi izan eben, baiña Dan'en barruko zintzotasunak ez eutsan lagaten irudi goren aregan, ezetariko barregarrikeririk ikusten.

Oldozkun onetan zala, Katamixarra'ren mintzoak bere eiñera ekarri eban, auxe iñõanean:

– Oraintxe bertan onantza nentorrela, emakume batzuk berbetan eragoien, eta bat bestei iñõtsen, oraintxe bertan Jauretxeko abade batek esan eutsala, Yosu Nazare-



tarra saldu eban Judas Iskariote izeneko ikasle etoiak, zugaitz batetik urkatuta bere bu-  
rua il egin ebal. Orduan itaundu dautset emakume areiri, ia nor zan Yosú Nazaretarra,  
baiña bildurrak artuta, urrean, itxura pekotiz begiztatu nabe, eta ezer esan barik kalean  
gora ostendu egin dira.

– Eta billatzen dodan Mesias'etzaz ez al-do zu besterik entzun...?

– Ez, Jauna.

– Neuk ba, pariseu ospetsu bategandik jakin dot, bere eritxiz, onezkero gure Me-  
sias Palestina'ko lekuren baten egon daitekela bere orduaren begira. Biar, beraz, aren  
billa asiko gara ementxe, Jerusalem'en bertan, eta uri onetan idoro ezean, billaketeari  
jarraituko dautsagu Palestina'ko beste errietan zear.

– Bai, Jauna, eta nik pozik lagunduko be.

Aduaren eragin ezkutuak, baiña, Basamortuko Semearen asmoak ezereztuko eba-  
zan, bere etorkiari aldakuntza andia ekarriko eutsan ezuste baten bidez.

Goiz aretan gosaria artuta, zelatari biek Neftali'ri agur txeratsua eginda, kalera ur-  
ten ziranean, Dan'ek,

– Begira, Josue –esan eutsan–, gure billaketea asi aurretik, ondo derist, Jauretzea  
ikertzea, eta esku-utsik ara sartu gura ez dodan ezkerero, igaro gaitez lanago azokatik.

Auzo aretako zeia, enparantza zabal baten jarrita egoan, eta saltunetan zear ebi-  
l-zala, ango salgaiak begizatzen ebazan Dan'ek. Alako baten, usoak saltzen ebazan  
emakume bategana joanda, usapal bikote bat erosi eutsan. Jauretzerantz abiatzen zira-  
la, Katamixarra'ri,

– Izan be, Josue –esan eutsan Dan'ek– gure Yahvé'k auxe baiño opari ohea merezi  
dau, baiña dirutan urri izanik, Arek begi onez artuko dau gure eskintza.

Abadeen ataditik sartu ziran, eta usoak ango morroi bateri eskuratuta, barruratu  
ziran, eta txoko baketsu baten jarrita, otoi sakon bateri emon eutsan Dan'ek, David'en  
salmo batzuk abots zoliaz aletuz, Katamixarra'k entzun aal egiozan. Gero, Jauretzea  
begiztatu eben ango ikusgarriak ederresten, eta noizbait urten ziranean,

– Nora goaz orain, Jauna...? –itaundu eutsan eskutariak–.

– Eguberdia dan ezkerero, goazen jatetxe batera, ni beintzat gose naz-eta.

– Baita neu be.

– Uriko goikaldera joango gara “Samaritarra” izeneko jatetxera, ostatutik urten  
aurretik, Naftali'k esonatu daust-eta. Bazkalostean, idatzitako zerrenda bateko lagunak  
ikertzen asiko gara, Jerico'tik urtetean Jair'ek abertzale zintzotzat aipatu eustazan-eta.

Joan ziran ba, uriko goikaldera, eta billaketa laburraren ostean, laster idoro eben  
“Samaritarra” izeneko jatetxea. Egun aretan judutar Igarotzea edo Pazkoa ospatzen  
zanez, Palestina'ko leku askotatik etorritako ikerle asko egoan, eta noizbait, sarbide-  
tik ez urrun, mai bat utsik ikusita, onen ondoan jesarri ziran. Luzaro barik, eskaturiko ja-  
kiak morroi batek ekarrita, gogoz jaten asi ziran. Aretoa zabala zan, eta mukuru bete  
egoan. Alako baten, abots kezkausaz, Katamixarra'k abopeka Dan'eri,

– Jauna –esan eutsan–, ez zaitez biurtu, baiña gure atzetiko mai baten, erromatar  
gudari batzukin, Polibio euntaria dago. Ez al-zara gomutatzen...? Akai buruzagia Jeri-  
ko'ra atxillo eroan eban erromatar arroa da. Gela baten, euntari orrek alamen emoteaz  
nortzuk gintzazan jakitearren Akai zemaizen ebanean, zeuk askatu zenduan.

Egun aretan, eta arratsaldean goi-maillako jendea ikertzea asmatzen ebanez,  
Jair'ek Jeriko'n emondako soingaiñeko eder-ederra erabillen Basamortuko Semeak.

Eun bikañekoa zan, eta mendel guztia galartzu gorriaz apainduta egoan. Soingaiñeko zuri dizdiratsua ta galartzu gorria oso nabarmenak ziran, edonoren adikunea irabazteko gai, izan be.

– Baiña zeuk Akai askatu aurretik –jarritu eban Katamixarra'k– atean begirari egoan erromatar gudariari, ziria sartu neutsan ostatu baten elbidea eskatuz, ikusi barik sartu zeitezan.

Itzok ozta-ozta esanik, arrenkura bizipean aurpegia zurbildu yakon, eta mintzo to-telaz, Dan'eri abopeka.

– Jauna, zure soingaiñeko eder orrek guztien adikunea erakarten dau, eta orain, egun aretan begirari egoan dalako gudariak onantza so egiten dau, eta badirudi ezagutu nauala, itxura pekotiz alboan dauan Polibio'gana makurtu dalako, eta txutxumuka zeo-zer badiñotso. Orain, Polibio euntaria jagi da, eta gudariak lagunduta, bestela-baita-koan onantza dator... Jauna, gureak egin dau...!

– Nasaitu zaitez, Josue –agindu eutsan Dan'ek burrukarako gerturik-janzkipean daroazuzan ezpata bitariko bat emon egistazu, eta urten gaitezen arin baten.

Maipetik artu eban Dan'ek eskaturiko ezpatea, eta arrapalada baten zelatari biak atera oldartu ziran. Une aretan, baiña, erromatar gudari bi sartzen ziran, eta barruko as-trapalea entzunik, atean gelditu ziran ezpatak erabilteko gerturik.

– Eriotzararte, lagun –oiu egin eban Dan'ek–.

Etsaiek inguratuta egozanean, oiuru zelatariak jaurti oi eben, eta orduan bizka-rrer-bizkar alkartuta, aurretik eta atzetik etorkiezanen aurka, eriotzaraiñoko burrukeari emotsoen. Olan ba, bizkarretik alkartuta, eta maien artetik sigi-saga etorkiezan Poli-bio'ren gudariak Katamixarra'k aurre egiten eutsela, ateko bien aurka Dan'ek ezpataka-da bikaz garbitu ebazan, eta laguna besotik artuta,

– Arin, kanpora...! –didar egin eutsan–.

Arrapalada baten zelatari biak kalean beera oldartu ziran. Dan'en soingaiñeko ederra gorritz apaindutako mendelaz, arratsaldeko argipean argiro bereizten zan. Ordu-ko, Dan, Jeriko'ko etsaitzat ezagutu izan eban Polibio'k, gorritz apaindutako soingaine-koduna atxillotu egien oiuru bizitan agintzen eutsen gudariak, eta onezaz gaiñera, turuta-jote larri baten bidez, uriko gudari guztiai jakiñerazo eutsen, gaizkille bat igesari emotsala. Tximistak baizen azkar, Antioko'ko auzunetik, David'en uri zaarrerantz jatsi zi-ran igeslariak, urigune onetako kale estu, biurriak, igesleku egokia eskintzen eutsien-eta. Erromatar gudari jarraitzaileen astrapala ta oiuru biziek jazartuta, laster eldu ziran beekaldera, kale kiribiltu aretan babes-lekuren baten billa. Orduko, jazartailleak des-lai ebiltzen, baiña turutotsek eragindako, David'en urigunean aurkitzen ziran gudari batzuk, lagun biak aurrean erabilten asi ziran, eta laster oartu zan Basamortuko Semea, nai-ta-ez ezkutune bat aurkitu bear leukiela. Alako baten, kale estu biurri batetik saies-tu zan. Ikuspegian ez egoan iñor, eta orra or, gurdi-ate zabal bat edegita agertu yakela kaleko saiets baten. Ezer esan barik, eta Katamixarra'k erraikiola, ikoti bat az Dan'ek zabalunea zearkatu, eta upeltegi baten erdian aurkitu zan. Une aretan, lau morroik gur-di andi batzutara upelak zamatzen ziarduen, eta gazte batek maitxu baten ondoan zeo-

zer idazten eban. Ezin zeitekean aiko-maikotan ibilli, eta gazteagana joanda, Dan'ek galdu-gordean,

– Aizu, lagun –esan eutsan–, erromatar gudari batzuk aurrean garabillez ilteko as-motan. Yahvé gure Jaungoikoaren izenean, ezkututuko gaituzuz...?

Gazteak une batez begiztatu ebazan, eta gero zutunik Dan'en besoari eutsirik,

– Jarraitu egistazue –esan eutsan–.

Au esanik, upeltegiko txoko batera joan zan, eta upel uts bi erakutsirik, sartzeko agindu eutsen.

Arin baten, Dan eta Josue upel banatara sartuta, gazteak egokiezen estalkiak jarri, eta idazmaira biurtu zan idazteari jarraitzeko. Upelaren zulotik adiskide biek upel-te-gian jazoten zana ikusi egikien. Luzaro barik, kale aretatik gudari batzuen ibilte ariñen urrats zaratatsuak aditu ziran, kaleko ezkutuneak aztertzen ebezala oiuru urdurien artean. Alako baten, iru gudari atean azaldu ziran, eta idazten ziarduanari,

– Aizu, gizon –areitariko batek zakar–, ez dozuz judutar zikin bi ikusi...?

– Ain zuzen be –bake andiaz idazlariak erantzun–, gazte bi arrapalada bizian ate-aurretik igaro dira.

– Norantza...?

– Kalean beera.

Joan ziran erromatar gudariak igeslarien atzetik, eta inguruko kaleak alperrik ara-katu ostean, upeldegira biurtu ziran. Lengo gudariak idazlariari dei egin eutsen atetik, eta,

– Ziur zagoz –itaundu eutsen– judutar bi orreik ona sartu ez dirala...?

– Benetan diñotsuet emen ez dagozala.

Orduan areitariko batek itxura pekotiz begiratu ta auxe esan eutsan zemaikor:

– Ez dakit ba guzurrez ez eta zabilzkidan, zeu be judutar txarri orreine itxurakoa zara-ta. Edozelan be upeltegia arakatuko dogu. Zatoz nirekin.

Idazlariak lagunduta, amarreko-burua zan erromatarra txoko guztiak arakatzen asi zan, upelak banan-banan aztertuz. Zorionez, zelatariak egozanetiko beste aldetik az-terten asi zan. Noizbait, ordubete bat igarorik, eta orduko naikoa nekatuta, zelatariak egozan txokora joan zan, eta ango upel biak ikustean, erromatarak,

– Eta upel bi orreik...?

– Orreik –nasai-nasai idazlariak–, Judea'ko ardaorik onenaz beterik dagoz, Erro-ma'ko agintari nagusia dan Tiberio Kaiser andiak, Palestina'ko ardaorik bikaiñena go-zatu dagian. Izan be, abo-sabairako aintza da, eta augaitik, “Eguzkiaren Laztana” esa-ten dautsagu.

Idazlaria urreratu zan, eta atz-koskorraz upelak jo ebazan. Orduko baiña, erro-matarra aspertuta egoan, eta atera joan zan. Urten-agiñean zala, auxe esan eutsan:

– Iges egindako judutar bietariko batek “Samaritarra” jatetxean gutariko bi garbi-tu egin dauz, eta Polibio gure euntariak zeru-lurrak aztertuko ditu gaizkille orreik atxi-llo egiteko. Augaitik, areiri buruz barriren bat jakitekotan, zoaz Jaffa ate-ondoko gure gudaletxera, argibideak emoteko. Jakiñerazo dau Polibio'k, berrogei zidarrezko emon-go dautsazala, zantzuren bat dakarkionari. Entzun...?

– Bai, Jauna  
 Erromatarra kalean beera ostendu zanean,  
 – Aizue, lagunok –esan eutsen idazlariak–, urten zaiteze ortik, gure adiskide liki-tsak joan dira-ta. Egia al-da, erromatar bi il egin dozuezala...?  
 – Bai, jatetxetik urtetan eragozten ginduezanean.  
 – Ondo egin dozue, ze arraio...! Orreik munduko jabetzat jotan dabe euren burua-ta.  
 – Bene-benetan, adiskide ori –esan eutsan Dan'ek–, eskertu bear dautsut gure alde egiña; arrapatu ez gaituenean, ez dau askok egin ba...!  
 – Anaiai laguntzea, danok egin bear dogun gauza da. Eta orain, esan, zein da zuen asmoa...?  
 – Gautu daitenean urten emendik, eta aalik ezkutuen gure ostatura biurtu.  
 – Ez orixe...! –oiu egin eutsan idazlariak–, Polibio prakerre ta errukibako andia da, eta luzaro barik, Jerusalem'eko ostatu guztiak arakatuko dauz, baita judutar askoen etxeak be. Emendik lenbailen anka egitea onena litzakizue...  
 Oldozkor iraun eban une batez idazlariak, eta gero,  
 – Begira, lagunok –an egozan gurdiak erakutsiz esan eutsen–, biar goizean lau gurdi orreik Zesarea portura joango dira, gero ardaoa itsasoz Erroma'ra bialtzeko, Palestina'ko zapailtzailleek ospatu oi debezan jai zikiñetan mozkortu daitezen. Upel banatan sartuta Zesarea'raiño joateko gerturik ba'zengoze, uriburu onetatik urten zeinte-keze.  
 – Zein bitartera datza Zesarea...?  
 – Amabost leko-bitartera. Iru eguneko bidaldia, izan be, baiña gabaz upeletik urten zaitekeze urrengo goizalderarte.  
 – Ondo derist orreri –esan eutsan Dan'ek– beste aukerarik ez dogunean batez be. Esan, adiskide orrek, zein da zure izena...? Eskerronekoa danak, ongillan izenak go-goan irarrita daroaz.  
 – Nire izena –irribarrez erantzun eutsan idazlariak–, Daniel da.  
 – Andienetariko igarle baten izena dozu, eta izan be, nire gomutan adiskide andi-tzat iraungo dozu beti.  
 Gau aretan Daniel'ek jaten emon eutsen, eta txoko bateko galtzuaren gaiñean gaba emon eben. Biaramoneko egunsentian, Daniel'ek upel banatara sartu-erazo ebazan, eta estalkia ipiñita, morroiek gurdi bateko upelen gaiñean ipiñi ta lotu ondoren, zaldiek eragindako lau gurdiak kalean beera abiatu ziran. Andik ogei bat miñutura Jaffa'ko atera elduta, eskuratutako agiriak begien itxi-edegi baten aztertu ebazan atezain nagusiak, eta beste barik iparrerantz jo eben gurdiek.  
 Iru egun iraun eban bidegiteak Judea'n eta Samaria'n zear, goizetik gaberarte ibil-teari lotuta. Gaba asten zanean, zaldiak jaregiten ebezan gurtzaiñek, eta upeletik urten-da, ainbeste geldi egoteaz aspertuta, Dan'ek eta Katamixarra'k atsedeneko oarpenaz sormindutako soiñak astintzen ebezan aparria atondu bitartean, eta gero lasto-gaiñean etzanda, gaba emoten eben Palestina'ko ortzi ederpean.

Iragarren eguneko illuntzean Zesarea'ko portura elduta, biaramonean upelak gurdietatik jatsi, eta metatu ebezan, begira egoan ontzira sartzeko. Bidegitea amaituta, gurtzaiñak agurtu ondoren, Dan eta Katamixarra ostatu baten billa urira abiatu ziran. Galartzu gorriaz apaindutako soingaiñekoa agiriegi izanik, zer dan-eztan itzulietara jarrri eban Dan'ek.

Herodes'ek eraikitako uri eder barria zan Zesarea, Kaiser Augusto'ren izena uriari jarriarik, agintari orren begi andia irabaztearren, urrean. Portu onetatik Palestina'n arrapaturiko gairik geienak ontziratzen ziran Erroma'ra, eta aldi aretan uri aberatsa zan, portuak emotsan aukerakaitik eta onen inguruan sortzen diran guztitariko jardunakaitik. Portutik urira sartu-agiñean, baiña, kale bateko orma baten idazkun bat itsasita egoan, eta urreraturik, Dan'ek irakurri eban, eta irakurri-ala, gero ta andiagoa zan ezi-ñegon larria beratzaz jabetu zan. Iragarki arek, bera ta Katamixarra erromatar gudari bien eriotzaz salatzen ebazan, eta euren itxuraren gora-beerak emonez gaiñera, sari andia eskintzen zan, gaizkille arek atzemoteko argibideak emon egikeazanari. Dan'en aurpegian, makurren bat iragarri eban Katamixarra'k, eta,

– Jauna –itaundu eutsan–, zer diño idazkun orrek...?

– Gauza onik ez, Josue. Ara, zu ta biok salatzen gaitu, eta sari ona eskiñi be, guri buruzko argibideak emon dagiazanari.

– Ta, zer egin geinke...?

– Lenengo ta bein, banandu. Alkarrekin ba'goaz, errazagoa izango da suzmoak erakartea. Zidarrezko bi badaukadaz oraindiño, zeozer jateko. Torizu bat zuretzat, eta gaba orduko kaian alkatuko gara, erabagiren bat artzeko. Arduraz ibilli, beraz, eta ez itzi erromatarrek arrapatu zagiezala, eriotz izugarria galduko zindukiez-eta. Soingai-ñekopean daroazun ezpatea erabilli egizu bearreko izatekotan, zelatari on bateri dago-kionez, au da, eriotzararte. Agur, Josue.

– Agur, Jauna.

Banandu ziran biok, eta kale estu baten gora abiatu zan Basamortuko Semea. Edegi barria zan okindegi baten, kurruskudun zati bat, eta gero erriko zeian erretako bildoskia erosituta, uritik urten, zugaztune batera joan, eta gerizpean jesarri zan eguber-diko beroari aurre egiteko. Gogoz bazkalduta gero, bere kinka aztertu eban. Aspaldi baterako andik urrunen bizi izatea, egokiena begitandu yakon, eta portu andi baten egoan ezkerreko, biderik errazena itsasoz alde egitea izango litzake. Gau aretan, beraz, ontzi batera sartu, eta biok iges egingo leukie edonora, arazoa aztu arte, eta egunen baten aberrira biurtuko litzakez Mesias'en billa joateko. Oldozkun onetan zala, lo geratu zan, eta illunabarreko gentza-itzalek ego illaunakaz zabaldua besarkatzen ebela, itxartu zan. Eguber-diko ondakiñak gogoz irunñi ebazan, eta iradu barik portura abiatu zan.

Kaira eldu zaneko, gau betea zan, eta ilgorak motel argituriko ibilgunen artean joanez, zaindariakandik aalik eta urrunen ebillela, itzalen artean abiatu zan. Orduko, upelak erromatar ontziaren sotoan ostenduak ziran. Alako baten, andik ur samar Kata-mixarra'ren txistua aditu eban. Laster alkatu ziran, eta abopeka, Dan'ek bere lagunari andik iges egiteko bere asmoa azaldu eutsan. Gau aretan, zorionez, bitargien artean,

odeiek ilgoraren argi motela tarteka-marteka estaltzen eben, eta illun-une areik ustiatuz, banan-banan ontziak aztertzen asi ziran. Ezustean, ontzi txiki baten albotik joiazala, illunpetik mintzo bat aditu eben auxe iñotsela:

– Kaixo, lagunok, ostuteko asmotan zabilte-ala...? Emen, ontzi onetan arrapatze-ko asko ez dago ba...! Tsakis gerkarra saguak baiño ezeukia da-ta, baiña ontzi belakilari onetan, ogibide bikaiña eskintzen dauzue. Bai, gaur be, ontzi onetako fenizitar madarikatu biok, arandangietatik eperdiraiñoiko moskorpean ibilliko dira, onako bidea aurkitu eziñik. Aspertuta nago okotzeraiño, izan be, belaki-arraintzari astirik galtzeke emon bear dauzat-eta.

Isildu zan une batez Tsakis gerkarra, eta gero,

– Begira, lagunok –jarraitu eban–, badirudi zeozer estu ta larri zabilzela, eta olan izatekotan, poz-pozik lagunduko neuskizue ateka orretatik urteteko. Ez ibilli aiko-maikotan, kai-zaindari bat onantza datorrela ikusten dot-eta... Arin, zapart egin barrura, bestelan...!

Gogoeta luzetan jarduteko, astirik ez, eta uts ala bete, Dan'ek zapart egin eban ontzira, baita beingoan bere atzetik Katamixarra'k be.

– Eutsi egiozue arraun bateri –esan eutsen gerkarrak–, ia arraunen eragiñez, kai madarikatu au lenbailen begitik galtzen dogun...

Aginduta lez, arraun bana artu, eta gerturik egozan ontzi aretako beste arraunlariekin batera, ontzia astiro-astiro kaitik aldentzen asi zan. Portuko abora eldu ziranean, lur-aizeak putz egiten ebanez, arraunketeari eten egitea agindu eban Tsakis'ek, eta aize-oial andi bat masta bakarretik eskegita, ontzia itsas-zabalera abiatu zan, ugiñek kulkatzen ebela. Orduan, ontzi-lagunak beekaldeko sotora lo egitera bialdu ebazan ontziburuak, eta sartzean, saietsen luzeran jarritako lastamarraga batzuk ikusi ebazan Dan'ek. Tsakis urreratu yakon, eta arraintzaleak etzanda gero, uts agertzen ziran oatze bi erakutsirik, auxe esan eutsan:

– Orreik, zuek biontzat dira. Ondo lo egin eta biarrarte.

Ugiñek eta sotokideen zurrungek urrumaturik, urrengo goizerarte lo egin eban Dan'ek. Orduko, sotoa utsik egoan, eta bere alboan egoan Katamixarra'k,

– Jauna –esan eutsan–, besteak gora joan dira, joale baten otsak deituta. Agidanez, gosari-deia izan da.

– Bai, Josue, goazen gora urdaillak beteteko, eta bidebatez aize garbia arnasteko, soto onetako giro sundatsua aztu dakigun.

Gora iritxi ziranean, goiz ederreko eguzkiak itsututa, begiak itxi bear izan ebezan. Une aretan, Tsakis ontziburu urreratu, eta katillubete salda eskifirik, auxe esan eutsen:

– Torizue, gazteok, nagiak atara dagizuezan. Zein da zuen izena...?

– Neurea, Dan.

– Eta zure lagunarena...?

– Josue.

– Judutarrak zarie, antza, ezta...?

– Bai, Jauna.

Orduko, naikoa astirik izan eban Dan'ek ontzi aretako lagun itxurak eta ontzieren zelakotasuna aztertzeko. Tsakis gerkarra, berrogei bat urteko lagun sendoa, aurpegia bizar naro bataz estalita eban, eta aurpegiko itxurea zorrotza izan arren be, begi gaztainakari barru-ontasuna erien, abotsaren zakartasuna zelanbait arintzeko beste. Zeozer ubeldutako suurrak, ardaoarekiko zaletasuna aldarrikatzen eban. Bataz beste, Tsakis ontziburuak zarrastada ona egin eban Dan'egan, eta lenengotik aregana erakarrira oartu zan.

Ontzikideak sei ziran, gizarte-mailla beekoa, eta oneitariko begitarte arroko gazte sendo bat bestalde, enparauak, gizaki ezjakin, ezaiñak emoten eben, soruan kukurio jarrira, irrika bizian katilluetako saldea zurrut egiñez.

Itsalaritzari buruz ezjakiña izan arren be, ontzia alan-olakoa iruditu yakon, eta gaiñera naikoa zaarra; itsas-aizeak eraginda, baiña, urak arin samar ildokatzen ebazala ikusirik, ontziarekiko erdipurdiko ustea, zelanbait obatu yakon. Amabost bat metro luzee, eta zortzi zabal, masta bakarretik “latindar” ereduko aize-oialak ontzia eragiten eban. Branka-gaiñean, txori-toki antzeko txabola txiki bat ikusten zan, albo banatan leiatilla bataz orniduta, baita beste irugarren andiago bataz aurrekaldean. Ontziburua- ren ganbara zan.

Azterketa oneitan zala, Tsakis'en mintzoa aditu eban auxe iñotsala:

– Izan be, lagun ori, “Kaio Txikia” izeneko dan nire ontzia, begi utsez ez da goa eroaten dauanetarikoa, baiña bere itxurea ta guzti, baita zaarra izan arren be, oso itsaskoia da egunen joanean zerorrek egiztatuko dozunez. Itsasoko gaiñaldea, kaio baten egadaren antzera zearkatzen dau, eta augaitik, nire aita zanak “Kaio Txikia” izena emon eutsan. Begira, gazte –adoreak eroanda jarraitu eban gerkarrak–, aizeak daroan itsasoko apar-malutaren antzera ildokatzen dau bere bidea, ezetariko balaunik bage, bai ostera, fara-fara atsegiñez...

Isildu zan une batez, Tsakis gerkarra, bere baitan ederresten bai'leuan ontzi kutunaren itsas-gaitasuna. Gero, lengora biurrituta,

– Baiña ekiodan orain, ontzi onetako zure lagun aurkezpenari. Orko laukote ori –karantz bardiñeko lau gazte erakutsirik, esan eutsan–, seleuzitar lau anai dira, itxura ezkibelekoak, berba laburrekoak, baiña euren jarduna ondo egiten dabenetarikoak. Or, masta-ondoan kukurio jarritako ori, Abdul, Txipreko semea da, eta seleuzitarrok baiño barritsu ta zaratatsuagoa izan arren be, mutil ona ta baketsua da, eta onezaz gaiñera, murgilari bikaiña, miñututik gora arnas artu barik eutsi dagikena.

Ona elduta, isildu zan une batez gerkarra, lemako agari norabide barria emotearen, eta,

– Orain –jarraitu eban, begitarte arro-itxurako gazte bat erakutsiz–, seigarrenaren txandea dator. Or, eguzkipean etzanda dakuskezun mutil indartsu ta arroxko ori, Suria, asiritarra dozu. Indartsu, asko-nai, errukibako, eta menperatzailea da, baita bere egitekoa ondo bete dakienetarikoa be. Bere buruatzaz ez dau argibide andirik emoten, baiña badirudi asiritar andiki baten semea dala, eta iñoren agintzapean bizi izaten nai ez

dauan ezkeru, aitaren etxetik anka eginda, mundu zabalean zear abiatu da, bere aukeraren begira. Bada-ezpadan, etorbarria zorean orrek, ez iratzarri asiritar orren asarrea, ezta Suria...?

Onek, kurrinka latz bat azontziburuari erantzun, eta jarraian, atzea emon eutsan. Bitartean, seleuzitar anaïetariko batek, Txilista-lapikoko baten irakitea zaintzen eban, noiz-edo-noiz esku-labetxura egurrak sartuz.

– Orain, gazte ori –jarraitu eban Tsakis'ek–, ontzikideai buruz jakitun ipiñi zaitudan ezkeru, on litzakigu, zuen bion gora-beerak emon dagistazuzala, zein zein direan jakin dagigun.

Izan be, bere nortasunari buruz argibideak emotea, ez eban gogokoa Dan'ek, eta auxe bakarrik esan eutsan:

– Judea'ko erri batetik gatoz Josue ta biok. Erromatarren zapalkuntzapean burua ataratea oso zailla dan ezkeru, nire lagunak eta biok mundu apur bat ezagutzea erabagi genduan, eta augaitik, Zesarea'ko portura jatsita, ontzi au ikusi, eta gero... ba emen gagoz ontzi onetan etorri dakigunari aurre egiteko gerturik.

– Edozelan be, ez da gauza andirik esan daustazuna, baiña zati baten ontzi onetan iraungo dozuen ezkeru, alkarren ezagutza egiteko aukera ugari izango dogu. Ezagunbarria zaitudan arren be, gazte jakintsutzat zaitut. Esan, non ikasi dozu gerkeru orren ondo ta garbi...?

– Aitatzat izan neban armenitar jakintsu batek irakatsi eustan.

– Jakintzeak ez ei'dau lekurik beteten, baiña jardungo dozun lanerako, jakintsu naiz asto izan, bardin da. Ugerilari onak izatea, eta urpean arnas artu barik luzaro irautea bearrekoa da, eta besterik ez.

– Urpean arnas artu barik, diñozu...? –arrituta esan eutsan Dan'ek–. Ez niri esan, gero, arraiñak eskuz arrapatzen dozuezala-edo...

Barre egin eban gerkarrik, eta gero,

– Ez, lagun –esan eutsan–, gure arraiñak geldirik dagozan orreitarikoak dira. Ez al-dozu iñoiz belakirik ikusi...?

– Bai.

– Orra or ba gure arraintza. Itsaspeko belaki astin, bigun, goxo ta zirikotsuak ederresten dabez aberatsek eta zaletasun ori asetzearren, Tsakis'ek lan egiten dau arein zidarrezko txiñen ordaiñez. Arraintzaten doguzan belakiok itsaspetik amabost bat metro-ra datzaz, arriai itsasita geienetan, eta aizto bat azkatzen dira. Augaitik ba, murgiltzea bearrekoa da. Ba-ete dakizu ugeri egiten...?

– Bai, Jauna.

Egia zan; Milea'n, nabatetarren artean emondako urte areitan, ugeri egiten ikasi eban, soin-garbiketean bear-bearrekoa zan-eta.

– Eta zure lagun orrek, ba-ete daki ugeri egiten...?

– Ori, berak esango dautsu.

– Ez, ez dakit –lotsatuta lez, erantzun eutsan Katamixarra'k –beti bizi izan naz basamortuan-eta.

Asarre-antzeko keiñu bat egin eban ontziburuak, eta gero, auxe esan eutsan:

– Zeozertan jardun bear izango dozu, Josue, egunoroko lapikotik jan gura ba'dozu.

Janaria atontzen ziarduan seleuzitarrak, urreraturik,

– Tsakis Jauna –iragarri eutsan–, janaria gerturik dago.

Jarraian, lapikokoa banandu zan, eta gero, bakotzak mai-azkentzat eskukada bana palmondo-garauak izanda, lema sartalderantz doıtuta, ontziburua bere ganbaratxura sartu zan. Zer egiterik ez eban ezkeru, besoak karelean kokaturik, lilluratuta, itsasoa begiztatu eban Dan'ek, eta orduan itsasoa maite izaten asten zala oartu zan Basamortuko Semea. Ondarrezko itsasoa barne-muiñetaraiño maite eban, bere seaska izan zan-eta, eta basamortu urdiñaren antzekoa zan itsasoa, orain biotzera sartzen asten yakon.

Egun aretan, sarkalderantz abiatu zan etenbarik “Kaio Txikia”, eta illuntzean, eguzkia oatze gorrikarapean suntziten zanean, belaki-arraintzaleak sotora jatsi, eta lastamarragatan etzanda, loari emon eutsoen. Dan sotora jaisteko zorian zala, ontziburuak dei egin, eta,

– Begira, Dan –esan eutsan–, biar goizean belaki-sardara elduko gara, eta bereala lanari ekingo dautsagu. Aizto baten bidez belakiak askatzen dira, eta gerri-inguruan lotutako zorroa beterik dagoanean, gora, zorroa ustua, eta barrero urpera, lanari jarraitzeko. Lenengotan zailla egingo yatzu jarduna, asi-barriari birietako aizea laster amaitzen yakelako, baiña ekiñaren-ekiñez artaratzen dira, eta miñutu batetik gora urpean irautea jaristen dabe. Zeuk be lortuko dozu ori, baiña benetan kezkatzen nauana zure laguna da, ugeri egiten ez daki-ta...

– Begira, Jauna –eten egin eutsan Dan'ek–, Josue edozertarako gai da, eta ontzia garbitu, belakiak batu, lapikoa zaindu, aize-oialak josi, eta beste bearreko lanak egiteko, bera lakorik nekez aurkituko zenduke.

– Zeregin orreik seleuzitar anai batek egin oi ditu, baiña onek ugeri egiten bada-kian ezkerro, urpekari jarriko dogu, eta zure adiskideak aren jarduna artuko dau.

– Eskerrik asko, Tsakis Jauna.

Alde egiteko zorian, baiña, zeozer bururatu yakon, eta gerkarregana biurtuz, auxe esan eutsan:

– Gauza bat jakin nai izango neuke, Tsakis Jauna, eta auxe alegia: zelan ordaintzen dautsezu menpekoai...?

– Ara... belakien bilduma edo uzta saltzen dodanean, artutako dirua iru zatitan banatzen dot. Bat niretzat, eta enparauko biak urpekarietzat. Zer deritxazu orreri...?

– Ondo derist, Jauna, gogoan artzen ba'dogu batez be, ontzia zeurea izanez gaiñe-ra, taldearen buru ta itsas-zuzendaria zareala. Gabon, Jauna.

– Baita zuri be.

Urrengo egunean, joale-jotea entzun baiño ez, arin baten sotoko lagunak gora igon ziran. Orduko, “Kaio Txikia” geldirik egoan, eta Tsakis'ek seleuzitarren laguntzaz, soka lodiaren artean lotutako arrizko aingurea uretara jaurti eban. Bereala, gosaria bananduta, urpekariak edo murgilariak, gerri-inguruan zorro bat lotuta, eta eskuan aiztoa erabillela, uretara murgiltzen asi ziran. Arrenkura bakanak artuta, Tsakis'en azken burubideak entzuten ebazan Dan'ek, urari burua emon aurretik. Noizbait, txonbo egin eban, eta aalik ariñen murgildu zan.

Zoragarria zan itsasondoa, egun-aurreneko argiak ixiotuta, ingurumariak larroska-raz jantzirik, eta or-emenka margo ederretako arrain-taldeak iradu barik ugerika, bate-tik bestera. Astirik ez, baiña, edertasuna begiztatzeko, eta arin baten beeko ondartzara elduta, ezustean, lenengo belakia begiz jo, aitzokada bat azkatu, gerri-inguruko zor-rrora sartu, eta jarraian beste baten billa. Orduko, baiña, itoteko zorian oartzen zan, eta orpokada baten eragiñaz, gora igon zan. Burua uretatik atara ebanean, arnas-estuka asi zan.

– Ez dago txarto, Dan –esan eutsan Tsakis'ek adarra joteko gogoz–, urpekari asko ezagutu dot, lenengo belakia arrapatzeko egun osoa bear izan dabela.

Artutako belaki bakarra eskuratu eutsan Dan'ek, eta arnas-artze sakona egiñik, murgildu zan barriro. Bigarren ekitaldi onetan trebeago azaldu zan, belaki bi arrapatuz. Lau orduz aalegindu ondoren, ontziburuak arraintzeari eten egin eutsan oiko lapikokoa jateko, eta ordu biko atsedena artuta, ostera be jardunari emon eutsoen. Eguzkia itsas-pean ostentzen zanean, Tsakis'ek egun aretako jarduna amaitutzat emon eban, eta orduko gerturik egoan aparta artuta, alkarrizketa bateri emon eutsoen lo egitera joan aurretik.

Aldiaren joanean, Dan'en gaitasuna agirian azaltzen asi zan, eta luzaro barik, soin-enbor indartsuaren jabe izanik, lagunak beste edo areago biltzeko gai izan zan. Bein baten, Tsakis'ek auxe esan eutsan:

– Urpekari bikaiña billakatu zara onezkero, eta luzaro barik baietz gai izango be, miñutu ta erdiz urpean irauteko.

Gero, abopeka auxe geitu eban:

– Kontuz, baiña, Suria asiritarrak, bera baizen idartsua edo areago zarean ezker, bekaitz andia dautsu. Ondo ikusten dot ori aren begietan so egiten dautsun bakotxean. Kontuz, gero, badaezpadan...!

Katamixarra be lagungarria azaldu zan. Egunoroko lapiko biak, eta goizeko aia atondu ta zainduz gaiñera, urpekariak bildutako belakiai ura jatsi, eta liztari baten txirikordaturik, zatiak naikoa luze billakatzen ziranean, aga luzeetatik eskegi oi ebazan, Tsakis'en ustez belakia ondu zeitezan auxe biderik onena zan-eta. Eginkizun oneitan, Katamixarra gai-gaiñekoa azaldu zan, katu baten malgutasunekoa izanik, agatetik gora ta beera arintasun itzelaz ziarduala. Izan be, Tsakis'ek begi andia eutsan.

Itsasgune aretan illabete batez-edo jardun ondoren, belakien bildumea naikoa ugari billakatu zan, eta ereti ona uste izanik, Kreta ugarteko Lasea portura joatea erabagi eban ontziburuak, eta aizea aldeko izanik, ipar-sartaldeko norabidea artuta, “Kaio Txikia”k alde egin eban. Eguberdia zan abiatu ziranean, eta illunabarrean, arratsalde osoa lema-agari oratuta iraun izan eban Tsakis'ek, ondo-eza batek artuta, Dan'eri deitu ta auxe esan eutsan:

– Begira, Dan, zeozer nekatuta oartzen naz, eta oera joan nai dot. Gai izango zara ontzia norabide egokian eroateko...?

– Zein da norabide egokia...?

Gerkarrak besoa jaso, eta norabide bat erakutsirik,

– Ortik eroan bear dozu ontzia.

– Zeuk erakutsiriko zuzenbidean Aldebaran izar ederra dago. Jarraituko dautsat ba, eta aizea aldeko azaltzen ba'da, Kreta'ko Lasea'ra laster elduko gara.

Arrituta begiratu eutsan Tsakis'ek, eta,

– Izarlari ete zara...? –itaundu eutsan– Izan be, gazte eskolatutzat bazaitut, baiña ez izarriztia ezagutzeraño

– Aitatzat neban armenitar jakintsu ta aztuezin batek ori ta beste gai batzuk irakatsi eustazan.

Tsakis oera joanda, gau osoan iraun eban Dan'ek lema-kanari oratuta. Goiztu aurretik gerkarra azalduta, lema-erabiltean ordeztu eban auxe iñotsala:

– Ordua dozu oeratzeko, bear izango dozu-ta.

Sotora jatsita, nekearen-nekez luzaro barik lo sakon batek artu eban. Eguberdian itxartuta, ontzia geldirik egoala oartu zan, eta arin baten gora igonda, Lasea portua bere etxetxu-mordo zuriaz agertu yakon. Une aretan Tsakis'en aginduz, murgilariek belaki-txirikorda luzeak sorbalda-gaiñean ipiñita, erriko zeira abiatzeko zorian ziran. Dan alkartu yaken beingoan, eta zeira elduta, belakia auskorak bai'litzazan, ardurarik andienaz enparantzako arlasta garbien gaiñera jaisteko agindu eban gerkarrak, eta jarraian, abots indartsuak belakien ontasuna aldarrikatzen asi zan onetaraxe:

– Ona emen, gerkar anai maiteok Joniku itsasoari kendutako bitxi-sorta bardiñeziña...! Belakiok, neskatilla baten apa-laztana baiño goxoagoak dira, eta aztu egiteraiño-ko iraupen luze-luzekoa...! Jaun-andreok, ez galdu eskintzen yatzuen aukera bakar au, ez orixe, bizitza guztirako damutuko zarie-ta...! Onezaz gaiñera, ain nekez itsasoari kendutako bitxi oneik, ezerezkeri baten emoten dautsuedaz...!

Edu onetan luzaro samar iraun eban Tsakis'ek nekatu barik, berba-lapiko bat biur-tuta. Arritasun andipean, bere buruari iñotsan Dan'ek a lako izlari gain-gaiñekoak Atenas'eko agora nagusian irakasletzat lekurik egokiena izango ebala, eta ez Lasea lako errixa baten. Noizbait, eta ordubete bat-edo igarorik, sal-erosle itxurako gizon batzuk urreratzen asi ziran, eta Tsakis'ek belaki-txortakaitik eskatzen ebana jakinda, gangailenez asi nai eben, baiña zuurra zan “Kaio Txikia”ren nagusiak enkantean saltzea erabagi eban, eta sal-sari bat oiñarrizat ipiñita, bere biziko eroste-leiaketea asi zan. Eroslegaiak lau ziran, eta norgeiago zaratatsu baten ostean, areitariko batek bilduma osoa erosi eban. Ordaintzat emoniko zorrotxu bete zidarrezko artu eban Tsakis'ek, eta min-tzo alaiaz ontzikideai,

– Biurtu gaitez ontzira, lagunok –esan eutsen–, gaurko baba-lapikoko goxoa ondo irabazi dogu-ta.

“Kaio Txikia”n Katamixarra'k gerturik eban eguberdiko otordua, eta ondo ase ziranean, menpekoek inguraturiko, ontziburuak zorrotxutiko zidarrezkoak atara, eta iru pillo bardin egiñik, berarentzat oneitariko bat artu ondoren, beste biak menpekoen artean ainbana zatitu ebazan. Onen ostean ontzikideai,

– Begira, lagunok –esan eutsen–, gaurko arratsaldean, zuen aalegiñen ekarriak gozatu dagizuezan, aske zarie noragura joateko. Lasea'ko ardaoa entzute andikoa da, eta neskak aren baten dabiltz. Biar goizaldean emen alkartuko zarie guztiok, eta ordu-

ko etorri ez daitena, or konpon...! ontzia uri onetara biurtu arte. Gaur, Abdul, Txipre'ko semeak ontziko begirari jardungo dau. Agur, eta zoaze ondo.

Poz baten kairatu ziran urpekariak. Dan, ostera, ontzian geratu zan, nora jo ez ekiala-ta. Lora-txorta zuria zirudien uriko etxeak begizatzen ebazala, bere alboan Katamixarra'k,

– Jauna –esan eutsan–, joango gara erria ezagutzera...?

Dan'ek erantzun aal izan aurretik, baiña, arein atzetik Tsakis'en mintzoa aditu zan, auxe inñotsela:

– Nai ba'dozue, neronek erakutsiko dautsuedaz uri onetako ikusgarriak, eta bidebatez, non saltzen dan Kreta'ko ardaorik onena be. Zatoze, lagunok.

Eta Tsakis'ek erakusletzat ziarduala, Lasea uri polita ikertu eben. Akropolis (Goi-ko Uria) batez be ikusgarria zan, eta Urian zanaren irakaskintzai esker, elendar ertian ezagularia zan Basamortuko Semeak, une luzea emon eban angu Jauretze bikaiña ederre-  
rresten. Noizbait, aspertuta, Tsakis'ek besoari eutsirik,

– Goazen emendik, Dan –luzetsia esan eutsan–, leku onetan ez dago besterik, arri ugariak baiño, eta ganora andiaz metatuak izan arren be, arriak beti arri. Karolis'en ardao pizgarriak zeozer merezi dau nire ustez.

Biurtu ziran ba uriko kale estu biurrietatik, eta lengo enparantzara elduta, Tsakis ardanegi batera sartu, eta jabea adeitsu agurtu ondoren, pitxar bete ardao eskaturik, irurok mai baten inguruan jesarrita, edateari emon eutsoen.

Bere belakiak baiño geiago edateko gai zan Txakis, lenengo pitxarra ustuta, beste bigarren eta irugarren bat agindu ebazan, eta dangadeak dangadea dakarren ezker, miiña askatu yakon gerkarrari, eta bere bizitzaren gora-beerak emoten asi yaken.

Peloponeso egoaldeko Nauplion'goa zan, eta uri onetako etxetxu baten, bere emaztea ta bost alabak bizi izaten ziran. Urtean birritan ikertzen ebazan, bere buruausterik andiena izanik, bost alaben etorkia. Etxera biurtzen zan bakotxean, areitariko bat ezkondata aurkitzea, Tsakis'en guraririk biziena zan, baiña bai zera...! Errian ez egoan areikin buztartu nai egianik. Ganbaran gorde eroian kutxatillako zidarrezkoak, emazte-alabentzat ziran ikertaldi bakotxean.

– Ainbeste gonadunen artean, seme bat izan ba'neu –amaikagarren dangadaren ostean mintzo negartsuz esan eutsen–, nire ontziaren agindua artuko eban, eta etxean emongo neukez azkenengo urteak, baiña nire gurari au beti ustel...

Beste dangada bat papar-lepo bitartera, eta Dan txeratsu begizatzen ebala, mintzo totelaz,

– Zer deritxazu, gazte –jarraitu eban–, nire alabetariko batekin ezkontzeari...? Ontziaren agin... agindua emon... emongo neuskizu. Ara, etxerako urren... urrengo ikertaldian, ba... nire alabak ezagutuko dozuz, eta orduan ba... zure gogokoena emazte... emaztetzat emongo dautsut, eta orduan ba, orra or... orra or ontzi onen nagu... nagusia eginda... Zer der... deritxazu nire eskin... eskintzeari...?

Dan'ek ez eutsan erantzunik emon, eta Katamixarra'ri keiñu bat egiñik, bion artean Tsakis'en beso banari eutsi, eta “Kaio Txikia”rantz abiatu ziran, gerkarren itz tote-

lai jaramonik egiteke. Eldutakoan, Katamixarra'ren laguntzaz Dan'ek oeratu eban, eta ganbaratxuko ateari kisketa emonda gero, eta Katamixarra'k arratsaldeko otordua atondo bitartean, ontziko eskudelan besoak kokatuta, gorriz eta urrezko aintza betean eguzkia suntzitzen zala, gogoeta sakonetan murgildu zan...

Baziran urtebete bi-edo, Masada'tik Mesias'en billa abiatu izan zala, eta patuak olan nai izanda, bere elburutik inñozkorik urrunen egoan. Israel, aberri kutun gaixoa...! Erromatarren jopua biurturik, alperrik aalegintzen zan buztarri astunetik jaregiten, gutitariko irain eta lapurketak jasanez. Baiña zelan edo alan, Mesias'en billa jarraituko leuke, eta Bera idororik, zorionaren andia...! Otseindutako aberriak antxiñako ospe ta aintza jaritsiko leukez. Bitartean, aduaren nai ezutuak bere urratsak zuzenduko, eta egunen baten, etorkiaren azken lerroak idazteko gai izan zeitenean, buru-belarri emongo leuskio ain luzaro ames egiñiko aberriaren askatasun-lanari...

Oldozkun oneitan luzaro samar irauñ eban, eta noizbait, izarrek gaberdia zala iragarri eutsoenean, asperen bat jaurtirik, satora jatsi, eta Katamixarra'ren ondoan etzanda, ames egiteari jarraitu eutsan.

Biamonean eguzkia agertu baiño ez, arrizko aingurea jaso, aize-oiala zabaldu, eta portuko abo-zuzenbidea artuta, itsas-zabalera urten ziran. Orduko, Tsakis'ek bere menpekoak zenbatzen ziarduan, baita atsegiñez egiztatu be, taldea osorik egoala. Egun osoan ekialdera jo eban “Kaio Txikia”k, eta illuntzean, Tsakis'ek Dan'eri deitu, eta auxe esan eutsan:

– Begira, Dan, Kasos eta Karpazos ugarteen arteko itsasguneko belakitegira goaz, eta aizea okertzen ez ba'da, biar gabean an izango gara. Nekatuta nago egun osoan lema-agari eutsi ta eutsi, berrogei ta amar urteko naz-eta. Augaitik, eskertuko neuskizu ontziaren agintza artuko ba'zendu biar goizalderarte.

– Non dago belakitegi ori...?

Lengoan lez, Tsakis'ek besoaz norabidea erakutsi eutsan.

– Ori, Mizar izar-mordoko norabidean dago –esan eutsan Dan'ek–, Joan zaitetz nasa, eta ondo lo egin.

– Eskerrik asko, Dan.

Ordubete bat-edo lemazaintzan ziarduala, irudi bat ondoratu yakon, eta mintzo batek,

– Badirudi, lagun –esan eutsan–, Tsakis zaarra momorroto dozula. Ez nekian orren koipetsu zeintekezanik.

Suria asiritarra zan, irriño isekaria erakuskiola.

– Laga nagizu bakean, Suria –asarre baten esan eutsan Dan'ek–, eta zoaz lotara, zurekin ez dot astirik galdu gura-ta.

– Nirekin ez dozu auturik izan gura, baiña bai ontziburuarekin, ia ardura-eza baten bere kutxatillaren zidarrezkaok zureganatzen dozuzan...

Tximistak jota lez jagi zan Basamortuko Semea, eta asiritarraren eskuturrari burdiñezko gorrika zirudian esku indartsuaz eutsirik, asarrez irakiten,

– Ken zaitetz nire ikuspegitik –begiak sutan zemaitu eutsan–, bestelan txakur baten antzera uretara jaurtiko zaitut.



Suria'ren begietan bildur-antzeko itzal bat agertu zan, eta sasi-duintasuneko mintzoz,

– Ez nekian orren prakerre zintzazanik, lagun baten jolas-berbak iraintzat artzeko beste. Banoatzu lo egitera; izan be, emen ez yat ezer galdu-ta.

Eta ibilte arranditsuz, sotoko mailladian beera ostendu zan.

Biamononeko goizaldean, lema-aldia artzeko Tsakis agertu zanean, gau aretako Suria'rena edestu eutsan Dan'ek, eta amaitzean,

– Begira, gazte –esan eutsan gerkarrak–, arduraz ibilli dalako Suria'rekin. Orain urtebete bi, Errodas portuan belakiak saltzen niarduala, gazte ori urreratu yatan nirekin lan egiteko asmoz, eta bere itxura ederrak erakarrita, baietz esan neutsan. Orain ondo ezagutzen dot, eta egiari zor yakon begirunez, urpekari ona dala esan bearrean naz, onenatarikoa, izan be. Baiña bein baten...

Ez yat egundo be aztuko, Txipre'ko Salamis portuan jazo zana... Ara, arratsalde aretan ontzira biurtu nintzan, eta egiari zor dautsadan begirunez esan bear dautsut, zeozer txolinduta nentorrela Txipre'ko ardao onaren erruz. Ereti orretan oi dodan lez, oeratu nintzan, eta andik laster, oiuzugarriek iratzarri ninduen. Arin baten jagi, atea zabaldu, eta urten nintzan. Une aretan bertan, mutiko bateri emon-emon egiten eutsan, eta onen didar erdiragarriai jaramon egiteke, gero ta basatiago astintzen eban. Urreratu nintzakion, eta oiuka,

– Suria –agindu neutsan–, itzi bakean mutikoa...!

– Bai, nagusi, zure aginduetara.

Eta au esanik, mutikoa artuta, karelaren gaiñetik uretara jaurti eban, gaixoaren azken karraxiak aditzen zirala.

– Madarikatua...! –agiraka egin neutsan–, zelan azartzen zara mutiko gaixo bat orren zitalki erabilten...?

– Orreik lapurrak baiño ez dira. Sotoan arrapatu dot nire gauzak eskukatzen, eta aztu ez dakion emon-emon egin dausat.

Uretara begiratu neban, baiña ezeren zantzurik ez entzun ez ikusi, gero ta illunago biurtzen zan arrastiri aretan.

– Ez larritu, nagusi –esan eustan Suria'k–, onezkero kaira ugeri egingo eban ostuketan jarraitzeko.

– Ken nire begien aurretik...! –didar egin neutsan–. Nik ezagaturiko gizakirik zapuzgarriena zara, egindakoaren ostean damurik txikiena be erakusten ez dakizu-ta.

Biamononean aingura jaso, mutilloitik loturak askatu, eta aize-oiala edaturik, itsas zabalera abiatu gintzazan astiro. Alako baten, ezin izan neban izu-didar bat menperatu... Uren gaiñetik mutiko baten gorpua jitoan ikusi neban, aurpegi zurbilla gora begira. Latz ikara batek menperatuta, besoa luzatu, eta asiritarrari erakutsi neutsan.

– Begira, Suria –oiuka esan neutsan–, zeuk atzo zigortutako mutikoa... erail zenduan, gaizto basati orrek, erail zenduan...!

– Ken ortik...! Zu atzo ontzira biurtu zintzazanean, eperdiraiñoko moskorpean zentozan-eta. Egoera onetan zelan jakin benetan jazo zana...? Irudikeri utsa zeurea, ar-

daoak eragindako sasi-ikusizuna, izan be. Ontzira biurtu baiño ez, zure ganbaratxura sartu, eta andik laster zurrunga zaratatsuak aditu nebazan.

Ona elduta, Tsakis'ek edeskia amaitu eban onetaraxe:

– Bere jarduna ondo ezagutu arren, gaiztoa da Suria, jazoera orrek adierazoten dauan lez, baita aldiaren bidean beragandik oartutako amaika gora-beerak be, orixe be-erakutsi dauste. Zaindu zure burua, Dan, eta iraun beti aregandik urrun.

– Olan egingo dot, Tsakis Jauna, eta eskertzen dautsut zure neuganako ardura ori.

Belakien arraintzak gora-beera andi barik jarraitzen eban, eta jardun onetan urtebete bi iraun ondoren, Dan'ek baekian arraintza oneri egokion guztia. Joniku ta Ejeo itsasoak polito ezagutzen ebazan, eta beragan uste on osoa jarrita izanik, sarri askotan ontzia erabilten lagaten eutsan Tsakis'ek. Urpeko lanak ugerilari bikaiña biurtu izan eban, eta ekiñaren-ekiñez, gauza zan miñutu ta erditik gora murgilduta irauteko. Berak eta Katamixarra'k, Suria bestalde, ontzikideen ederrespena irabazi izan eben, guztiz ondo alkartzen zirala.

Bein baten, Ejeo itsasoko belakitegi ugaritsu batetik bilduma ederraz zamatuta, Kreta'ko iparraldeko Iraklion urira abiatu ziran. Ontzia kaira lotu ondoren, oi eben lez belaki-txirikordak uriko zeira eroan, eta salsari polita lortuta, ontzira biurtu, eta oiko zidarrazkoen banaketea egin eben. Katamixarra'k atondutako lapikoko mamitsua janda gero, ontzikideak urian zear sakabanatu ziran. Ganbarako kutxatillara zidarrezkoak sartu ta janzkia aldatu ondoren Txakis urten zanean, Dan ikusi eban eta,

– Aizu, gazte –esan eutsan txeratsu–, urten gaitezen uria ezagutu dagizun, eta gero, leku onetako ardaorik gozoena txastatuko dogu Lenakis'enean.

– Ez dot joaterik Tsakis, aize-oiala urratu da, eta adabaki batzuk ipiñi bear dautsadaz.

– Tamal dautsut, Dan, uria ikusgarria da-ta.

– Olan izango da zeuk diñozun ezkerro, baiña aize-oialarena bear-bearrekoa da.

– Zeregin aspergarria, benetan.

– Bai, baiña Josue'k lagunduko daust, eta illundu barik atonduko dogu

– Agur, Dan.

Joan zan Tsakis, eta andik laster, Dan'ek eta Katamixarra'k lanari emon eutsoen buru-belarri. Egitekoa amaituta, apalostean lagun biok satora jatsi ziran lo egiteko, urrengo goizean arraintzara joan bear izango leukie-ta. Biaramonean, baiña, jendeari deitzeko Tsakis'ek erabilten oiko joaleak ez eban deirik egin. Ontziburuaren ganbaratxuko atea jota be, erantzunik ez. Murgilariak batuta, uria ta kaia arakatzea erabagi eben, eta “Kaio Txikia”n zaindari bat lagata, enparauak urian zear sakabanatu ziran.

Suzmo txarrak jota, Katamixarra berarekin artuta, Dan kai-inguruko lekuak aztertzen asi zan. Baekian, edanda dagoan edonerentzat kaiak tokirik txarrenak dirala, eta mutur batetik besteraiño portuko kaiaren arakatzeari emon eutsan, bidebatez, an egozan ontzien itsastarrak jakitun ipintzen ebazala. Alako baten, areitariko ontzi bate-

tik didar bat aditu zan, andik ez urrun, ur-azalean zeozer ekusala adierazoz. Korapillo bat eztarrian arin baten urreratu yakon Dan, eta kako-makil bat, ugerika joaian zeozer atara eben. Tsakis'en gorpua zala egiztatu aal izan eban Dan'ek, eta naigabeari aurre eginez, Katamixarra'ren laguntzaz oial baten bilduta, gorpua "Kaio Txikia"ra eroan eben. Murgilariak banan-bana biurtu ziran, eta nagusia ilda ikustean, bakotxak beretara adierazo eban menperatzen eban oiñazea. Gizon ezjakin eta zakarra izan arren be, agiri zan izandako nagusia ederresten ebela, eta orduan baten batek,

– Zer egingo dogu...? –itaundu eban–.

Izan be, ez ekien zer egin, eta itxura itaunkorraz alkarri begiratzen eutsoela, seleuzitar anaietariko bat,

– Bein baten –esaten asi zan–, nagusiari entzun neutsan, iltekotan itsasora jaurti izatea nai ebala.

Orduan abo batez erabagi zan, urperatze ori Tsakis lako itsastar jator batentzat ondo letorkion gauza izango litzakela, eta orretarako, lekurik egokiena portu aretako itsas-adarraren erdia. Arraun-eragifnez eroan eben "Kaio Txikia" dalako tokira, eta arri andi bat azalotutako gorpua uretara jaurti izan aurretik, Dan'ek David'en salmu baten zatia mintzo unkituaz esan eban onetaraxe:

Entzun, Jauna, nire ibiltea,  
aditu nire didarrak,  
biurtu belarria nire eskarietara,  
nire ezpanetan guzurrik ez dago-ta:  
urten bedi Zugandik epaia,  
ikusitako Zure begiak arteza dana.

Jarraian, Tsakis'en gorpua palastada batek lagunduta, ur urdin garden areitan ostendu zan. Baziran urtebete bi Dan'ek Tsakis'ekin ziarduala, eta epe orretan, alkarreki ederrepenak lotuta bizi izan ziran. Bizkarra mastan ipiñita, bere buruari itauntzen eutsan Dan'ek, zer egingo leukien nagusi barik, eta korapillo au askatzen ziarduala, Suria'ren mintzoa aditu zan onetaraxe:

– Lagunok, "Kaio Txikia"ren nagusia il dan ekeru, ontzia guretzat izango da, eta belaki-arraintzeari jarraituko dautsagu, baiña orren aurretik, ganbaratxuko kutxatillan gorde eroian dirua ainbana zatituko dogu...

– Ez orixe...! –eten egin eutsan Dan'ek–, Itsasontzi au, eta nagusi zanaren dirua ez dira gureak...!

– Norenak dira, orduan...?

– Nauplion'en bizi dan Tsakis'en alargunarenak.

– Zenbat belaki arrapatu dauz atso orrek ba...?

– Diñozun ori astakeri utsa da, Suria –asarrez erantzun eutsan Dan'ek–; ontzi au, eta nagusiak aurreztutako dirua, bere alargunarentzat izango dira...

– Madarikatu ori...!

Au esatean, belakiak askatzeko beti aldean eroian aiztoa atararik, Suria'k indar batez jaurti eutsan Dan'eri. Unetxu bat lenago, baiña, suzmo txarrak jota, asiritarragandik begiak kentzen ez ebazan Katamixar zintzoak,

– Kontuz, Jauna...! –oiu egin eutsan–.

Tximistaren arintasunaz, soñia ozta-ozta saiestu eban Dan'ek, eta aizto egalari mastaren egurrean josi zan. Ikoti bat azamortuko Semea jagi, eta zezen amorratuaren antzera asiritarrari oldartu yakon, jarraian azpiraketa basatiari emotsoela. Sendoak ziran leikide biok, baiña Dan indartsuago ta trebeagoa izanik, luzaro barik gaiña artu, eta bizkarra soru-gaiñean zapalduta, ezindutako Suria'k eriotz-ukaldia artu aurretik, barkapena eskatu eutsan. Une batez, Dan'en ukabilla goian gelditu zan, eta asiritarraren aurpegi erkintuta ikustean, jagi, eta portuko kaia erakutsirik,

– "Kaio Txikia"n ez dago lekurik biontzat –esan eutsan–. Itzi egizu bertanbera ontzi au, eta ugerika laster izango zara kaian. Agur, eta zoaz ondo, ez zaitut luzarogorik emen ikusi gura...!

Urari burua emon aurretik, Suria une batez biurtu zan, eta oi bizitan Dan'eri,

– Madarikatu ori –zemaitu eutsan–, egunen baten ilgo zaitut...!

Itzok esanik, txonbo batez urpean ostendu zan, eta andik laster uren artetik kairantz eginez, bere buruaren baltzunea ikusi zan.

Orduan, murgilkideakana biurturik, Auxe esan eutsan Dan'ek:

– Ontzi au, eta Tsakis'ek aurreztutako zidarrezkoak, Nauplion'en bizi dan bere alargunarenak dira. Biar, beraz, uri orretara abiatuko gara, baiña nirekin etorri nai ez daitenak, esan begi, eta eskuarteak artuta, bere aukerako portuan lurreratuko da. Augaitik ba, zuetarikoren batek ontzi onetan jarraitu gura ez ba'dau, emon dagiala urrats bat aurrera.

Baiña dalako urratsa iñork emon nai ez ebala ikusirik, Dan'ek,

– Ederto lagunok –esan eutsen–, Orain beste arazo bat: edozein ontzik ezin ontziburu barik gauza onik egin. Augaitik, beraz, geu guztion artean ontziburua aukeratu bear izango dogu.

Isillune bat sortu zan, eta gero seleuzitar anaietariko nagusiak,

– Ontzi au erabilteko gai dan bakarra zeu zara Dan –esan eban–, eta gaiñera, gure nagusia izateko gaitasuna badozula, ezpaibarik erakutsi dauskuzu. Augaitik ba, nagusitzat esondatzen zaitut.

Au entzutean, abo batez danok onartu eben eskintzea. Ain zuzen be, agiri zan ontzikideen adoreaugaitik, Dan ederresten eta maite ebela. Orduan Dan'ek,

– Eskerrik asko lagunok –esan eutsen–, neugan ipiñitako uste onagaitik. Aurrentzean aaleginduko naz, nagusia baiño adiskidea izaten.

Berandu samar izanik, apalostean gau-zandaria izendatu eban Dan'ek, eta lotara joan aurretik,

– Entzun ondo auxe, lagunok –geitu eban–, erabagi izan dan lez, biar ipar-sartaldeko norabidea artuko dogu, baiña Nauplion'era bidez dagoan Milo ugarteko itsas-adarean, belaki-arraintzari emongo dautsagu, zidarrezko batzuk irabaztearren.

Biamonean itsas-aizeño batek eraginda, "Kaio Txikia"ren brankea ipar-sartaldeko norabidea artu, eta egun bi igarorik, Milos ugarteko itsas-adarrera eldu ziran. Gabaz, izarren jarreragaitik baekian Dan'ek ontziaren egoera; egunez, ostera, eguzkiaren goitasunaz, eta zotz batek marrazten eban geriza-luzeraz. Eginbide oneik zeatz-zeatz ez izanik be, oso lagungarriak ziran garai areitan edonora joateko beste.

Astebete bi emon ebazan "Kaio Txikia"k toki aretan, eta belakien txirikordakaz mukuru bete zanean, Nauplion'erantz abiatu zan. Iru egun geroago belakilariek uri orretako kaian aingurea jaurti eben. Uri ederra zan Nauplion, itsas-adar zabal baten ertzean kokatuta, Peloponeso erdi-ugarteko egoko porturik garrantzitsuena izanik.

Oi eben lez, goiz-erdian uriko enparantzara joanda, Tsakis'ek berak egin oi eban antzera, belakien ontasuna aldarrikatu eban Dan'ek, eta erosleekin luzaro samar gaillenez jardun ostean, belaki-bildumea sari politean saldu zan. Ontzira biurtuta, Tsakis bizi zanean oikoa zanez, zidarrezkoak banandu ebezan, irurena alargunarentzat jarrita.

Eginbear au amaitu zanean, Tsakis'en alargunaren billa lagun bi igorri ebazan Dan'ek, eta andik ordubete batera-edo ontzira ekarri eben. Berrogetak urteko emakumea zan, eta garai areitarako adintsua izan arren be, ante onean egoan. Bere janzkia-gaitik agiri zan mailla apalekoa zala, eta eguratsak latz biurturiko aurpegian, begi illun andiek bildur eta irrika erakusten ebezan. Emakumea ikustean, Masada'ko andrazko zimelak eta alde zurretik atsurikoak gomutara etorri yakozen, eta txeratsu auxe esan eutsan:

– Jesarri zaitetz aulki orretan. Zu zaitut Tsakis'en emaztea, ezta...?

– Bai, Jauna.

– Zein da zure izena...?

– Alina.

– Begira, Alina, barri txarra emon bearrean nagotzu, eta sendo iraun dagizula eskatzen dautsut. Ara...

Jarraian, aal eban maitetsuen Tsakis'en eriotzaren gora-beerak emon eutsazan. Amaitzean, negar baten Alina'k auxe esan eutsan:

– Jauna, senar on eta zintzoa galdu dot, baita sendiko euspina be. Belaki-arrain-tzaz berak etxera ekarrenaz, begiratutxuan izanik be, ni ta nire alabak bizi aal izan gara. Ai ene...! Zer billakatuko gara orain...? Ogei urteko dan alabatariko nagusiak ezkontzeko arrioa atontzen diardu, Narkis'ek bere ezkongaiak eraikitako etxetxura ezkontzeko. Orain, nire asmo orrek txulut egin dau ez dakit noiz arte...

Alina'ren begi nekatuak malkoak eriezan mara-mara. Oinazeak erkindutako alargun gaixoaren irudi ezaiña ikustean, une batez, Dina bere amaren irudia ekusala begitandu yakon, eta eskua aren sorbaldan ipiñita, mintzo maitetsuz,

– Ez larritu, Alina –adeitsu esan eutsan–, dana atonduko yatzu-ta. Begira, zure senarrak kutxatilla onetan aurreztutako zidarrezkoak zeureak dira. Eutsiz.

Au esanik, kutxatillea altzoan ipiñi eutsan estalkia zabalduz. Une luze batez begiztatu ebazan txanponak txunditutako Alina'k, eta ekusana siñistu ezifrik,

– Jauna –esan eutsan–, ez dot egundo be ikusi onenbeste dirurik. Neurea al-da, egitan...?

– Bai, Alina. Zure senar zanaren ontzikideok zuri emotea erabagi dogu. Izan be, diruketa andia da, zu betirako ondo bizi izateko beste. Onezaz gaiñera, "Kaio Txikia" zeurea da, eta bidezkoa derist, ondasun orreri dagokion onurea artu dagiozula. Arazo oneri buruz, baiña, geroago mintzatuko gara. Orain gauza bat nai dot, eta auxe alegia: ontziari atonketa batzuk egin bear dautsaguzan ezkeru, uri onetan amar bat egun emon bear izango doguz, eta epe onetan zure alabearen ezkontza ospatu izan daitela gura dot.

– Baita pozik be, Jauna. Olinpo'ko Jainkoek bedeinkatu zagiezala.

Erabagia lez, andik bost egunera, Alina'ren alaba nagusia Narkios arraintzaillearekin ezkondu zan, eta erriko ostatu baten eztegua ospatu zan, ezkongaien senitartekoak eta ontzikide guztiak ezteiliarrak izanik.

Biamonean Alina'ren etxera joanda, alargunarekin autu luzetxua izan eban Dan'ek, eta ontzikideen ordezkaria zan aldetik, urrengo itun au berbatu zan:

"Kaio Txikia"ren ontzikideek belaki-arraintzeari jarraituko leuskioe. Belaki-ontzia, baiña, Alina'ren jabetasuna izanik, arraintzeari ataratako obari edo ekarritik, eunkal ogei alargunari emongo litzakio. Onezaz gaiñera, eta Alina'ren suiña Narkios'ek "Kaio Txikia"n ontzikide izaten nai eban ezkeru, Suria'k lagatako utsunea beteko leue edozein ontzikide lez.

Amar bat egun igarorik, ontziari ezinbesteko atonketak eginda gero, goiz eder baten aize-oialaren eragiñez, "Kaio Txikia"k itsas-zabalerantz kaiko muturrak atzean itzirik, aurrerantz abiatu zan. Legorretik, Alina'k eta beronen alabak zapiño-astinketaz belaki-arraintzaleak agurtu ebezan. Brankatik, maitemunduriko Narkios'ek ezin egikeazan emazte barriagandik begiak kendu, itsas-adarreko gandua legorreko ertzak estaldu arte.

Beste urtebete batez iraun eban "Kaio Txikia"k belaki-arraintzari emonda, eta izan be, ekarri andiaz. Ontzikideen gaitasunaz gaiñera, orduko baekian Dan'ek zeintzuk belakitegi ziran onenak. Narkios arraintzale bikaiña azaldu zan, eta noizean bein, emaztea ikertuz batean, Alina bere amagiñarrabeari egokion obaria eskuratzen eutsan.

Bein baten, belakitegi ugari baten jardun ondoren, txirikorda ederrak saltzearren, eta bidebatez bearreko jan-edangaia kaz ornitzeko, andik urrun ez egoan Patmos ugartera joaten erabagi eban Dan'ek. Ugarte polit onen alde banatik, beso luzeen antzeko mutur bi edatzen dira, erdian itsas-adar sakon eta zabala eratuz. Ondo ezagutzen eban Dan'ek ugarte onen gora-beerak, baita itsas-adarraren erdian kokatzen zan izen bardiñeko uri atsegin eta garbia be.

Arrats-beera aretan, "Etruria" izeneko erromatar guda-ontzia, uriko kai-ondoan bearreko sakontasuna ez izanik, Patmos'eko itsas-adarrean ainguratuta egoan kaitik eun bat metrora. Agintza-zubiko eskudelean besoak kokatuta, Muzio Caio ontziburuak eta Sila Druso aren ordekoak, izketan ziarduen, aize mee ta itsas-adarraren edertasuna gozatuz. Alako baten, latindar aize-oialaren eragintzaz ontzi txiki bat urreratzen zala ikusi, eta albotik igarotean, belaki-ontzia zala egiztatu eben.

– Orra or, Muzio Caio –esan eutsan Sila Druso'k–, belaki-txirikordakaz zamaturiko gerkar ontzi bat.

– Belaki ederrak ontzi ezkabitsu batentzat; geurea lako ontziarentzat egokiagoak, izan be.

Andik laster, "Kaio Txikia" kairatu zan, eta txirikordak artuta, urpekariak uriko enparantzara abiatu ziran.

– Aizu, Muzio –esan eutsan Sila'k–, belaki orreik txirrinta andia emoten asi yataz. Zer eta gureganatuko ba'gendukez...? Badakizu, Erroma'ko agintza-lekuetan dagoana, erromatarrena da.

Barre egin eban Muzio'k, eta,

– Ain zuzen be, Sila, uste orrek gure nagusitzari eragin andia emon dautso, eta oraingo onetan jarraituko dautsagu uste orreri. Esaiozu Klodio buruzagiari, gudari-talde batekin uriko enparantzara joateko, eta txirikorda orreik baituran artu dagiazala Erroma'ren izenean.

Joan zan Sila agindutakoa betetearren, eta biurtu zanean, nagusiari,

– Aizu, Muzio –esan eutsan–, beeko zubitik onantza nentorrenean, bitxikeri bat otu yat, eta auxe izan be: lengo egunean gure komitrek esan eustan, jopu-arraunlarien kopurua, eriotz batzukaitik urri billakatua zala; zer eta utsitako tostak beteteko, belakiakaz gaiñera gerkar zorritsu orreik atxillo egin...?

Barre egin eban Muzio ontziburuak, eta,

– Ondo deritsat orreri, Sila –esan eutsan irribarre maltzurraz–.

Eta gero, sasi-arrenkurako itxuraz, bere ordekoagana biurtuz,

– Gauza batek kezkatzen nau, orraititño –esan eutsan–, zer billakatuko da orduan gerkar zorritsu orrein ontzia...?

Une batez oldozkor geratu zan Silas, eta gero ezpanetan irriño amarrutsua lora-tzen yakola,

– Aspaldi onetan –esan eban–, gure arri-jaurtigaielluek ez dabe inārkun andirik egin, eta ontzi zikin ori ondatzea, ez litzake maḡala izango gure jaurtilarien trebetasua agirian ipinteko.

Barre zaratatsua egin eben erromatar biok, eta gero,

– Edozelan be –ordekoari esan eutsan Muzio'k–, burutapen onak otu yatzuz. Artu egizuz, beraz, neurri egokiak txirikordak gureganatu ondoren, gerkar ezkabitsuok atxillo egiteko, baita agindu be, gure jaurtigaielluek arein ontzi zikiña ondatu dagiela.

– Bai, nagusi Jauna.

– Ez aztu –jarraitu eban Muzio'k– Patmos'en dagozan gudarien burua dan Manlio euntariak gure gorazarrez gabea atondu dauan jaira joaten, neu be ontzi onetako buruzagi guztiekin joango naz-eta. Portu baten gagozalako eretia ustiatuz, gudariak be jai emoiezu, urian zear sakabanatu daitezen ardao ta emakumeen billa.

– Zenbat zaindari jarriko doguz jai orren bitartean...?

– Nik uste, amar bat naikoa izango dala.

– Ederto, Muzio, gero arte.

Andik laster, “Etruria”ren erromatar gudari ta buruzagiak, ontzitik legorrera abiatzen asi ziran.

Arratsalde aretan kairatu ta bereala, oikoa zanez belaki-txirikordak artuta, bere ontzikideekin Dan uriko enparantzara joan zan, ontzi-zaindarizat Katamixarra lagata. Azokara elduta, txirikordak lurrean ipiñi ondoren, onetaraxe asi zan Basamortuko Se-me:

– Jaun-andreok, ona emen Ejeo itsasoko belakirik ederrenak...! Lore-asperen eta ume baten apa-laztana baizen samur eta gozoak...! Zuen emazte - alabak pozez beteko dira belaki onein igurtzipen illauna sentitzean. Egia esateko, gure itsasoko bitxirik yaukalenak dira...!

Edu onetan luzaro samar jardun eban Dan'ek erosleen adikunea erakartearren. Alako baten, eta ikusle ugariak belakiak ederresten ebezala, jendearen artean erromatar buruzagi batek bide egin eban, eta Dan'egana urreratuta, auxe esan eutsan:

– Belaki ederrak benetan. Niretzat guztiak.

– Jauna –esan eutsan Dan'ek pipertuta–, barkatu, baiña ondiñokarren ez dogu erabagi onein salsaria.

– Ez da bearrekoa, gazte. Atsegingarria izango yatzu jakitea erromatarrentzat izango dirala, eta ori benetan, edonorentzat dedu andia da.

Sumin basatipean Dan'ek,

– Ez orixe...! Belakiok arrapatzeko amaika aalegin jasan bear izan doguz, eta dagokigun dirua bear-bearrekoa yaku jan-edariak erosteko.

– Ona emen –erantzun eutsan buruzagiak–, esker txarreko arraintzalea. Erroma'ko anditasun eta aintza ederretsi-bearrean, ezerezkeri bat uko egiten dautso, eta ori bidezkoa ez dan ezkerro, belakiok baituran artzen dodaz, eta zure lagunekin batean atxillo egiten zaitut.

Au esanik, agintza-oiu bat jaurti, eta gudari batzuk inguratu ebezan. Asiera baten,

burrukan egitea bururatu yakon Dan'eri, baiña alperriko odol-isurketa ekarriko leuskie-la ikusirik, jarkipenari uko egin eutsan bere lagunai auxe aginduz:

– Ez zaiteze jarki...!

Erromatar gudariak belaki-arraintzaleak gerriz-gerri lotu ebezan, eta zazpi laguneko erreskadea, kaiaren luzeran abiatu zan leku ezezagun batera. Une aretan bertan, “Etruria”tik jaurtitako arritzarrak “Kaio Txikia”ren ondoan jausten asi ziran, eta andik laster, arriketa betean artutako belaki-ontzia, ondoratzen asi, eta noizbait, zurrunbillo baten pean ostendu zan. Bere ontziaren ondapena ikustean, Dan'eri begiak laiñotu yakozan, eta etsipen esan-eziñak artuta, zapaltzaille gorrotagarriak madarikatu eban.

Uriko saiets baten egoan gudaletxera eldu ziran atxilloak, eta orma garai batez inguraturiko larrain baten jarraigoa gelditu zan. Barruan lekurik ez zanez, buruzagiak an bertan lagatea erabagi eban, eta atxilloen esku-oiñak estu-estu lotu ondoren, sarbideko burdiñezko ate sendoari giltza emonda gero, aztamakil bat az ormidutako gudari bat jarrri eban begirari. Atxilloak larraiñeko bedarrean jesarri ziran, eta etsiak artutako Dan aurpegia belaunen artean jarrita, sumin basatipean zoratzeko zorian, intzirika asi zan.

“Etruria”tik jaurtitako arritzarrak “Kaio Txikia”ren bizkarrean jausten asi ziran, urari burua emonda, Katamixarra'k zati baten urpetik ugeri egin eban, eta arnasbearrak eraginda gaiñaldera igon zanean kai-muturraren ondoko arri-meta batetik urten zan. Gau betea izanik, izarrek ozta-ozta arindutako illundietatik, ibilte baten urratsak entzumenera etorri yakozan. Bereala, gudariak zaindutako, gerriz-gerri lotutako bere lagun jarraigoa somatu eban, eta galdu-gordean arein atzetik abiatu zan. Andik laster, gudaletxeko larraiñetik ostendu ziran, eta sarbideko ateari giltza emonda, gudari bat begirari geratzen zala ikusi eban.

Ezin-egon larriak artuta, arresiaren luzeran ibiltan asi zan. Bost metro gora izango zan orma aretan, aukera andirik ez ekusan igoteko, baiña zelan edo alan goikaldetik begiratu bat emotea ebatzi eban. Arresia leuntsua zan lauazka igoteko, baiña gerritik belaki-aiztoa atararik, arrien arteko kareorra aztarkatuz, maillaz-mailla gora egiten asi, eta noizbait goikaldean zan. Une batez ezpaitu gelditurik, begiak inguruko illunari zoezer egokitu yakozanean, andik ez urrun mulko ezabatsua ekusala antz emon eutsan. Luzaroagorik oldoztu barik, ikoti itzela egin, eta basakatuaren malgutasunaz larraiñean zan. Astirik galtzeke isil-ostuka ibiltan asi, eta bere lagunak ikusi eban.

– Josue...! –oiu egin eban Dan'ek itxaropen zoroak artuta–.

– Ixo, Jauna...! Urten gaitez an aalik isillen.

Au esanik, bere lagun jarraigoa ebagita, arresira bideratu eban, eta lagun bi bata bestearren gaiñean jarrita, onein gaiñetik igon eta laster eldu zan Katamixarra bestaldera. Jarraian, lokarriak ustiatuz laster alkartu yakozan bere lagunak.

Baekian Dan'ek taldeko etorkia beragan zetzala, baiña urtenbide baten billa burua urratu arren be, egitekoa ez eban argi ikusten. Olan ausnar egoala, Katamixarra'ren abotsak bere eiñera ekarri eban auxe inñotsanean:

– Jauna, nora joko dogu...?

Orduan uts ala bete, Dan'ek,

– Goazen portura, ia bitartean zeozer otuten yatan. Baiña, arren, lagunok, ibilli gaitzean aalik isillen eta ezkutuen.

Aurrera joiazala, estu ta larri, urtenbideren baten billa Dan'ek burua urratzen eban. Uri aretan zortzi lagun ezkututzea eziña zan. Ugarte aretako mendietan zear ziurtasunaren billa sakabanatzea, ameskeri utsa, Patmos ugarte txikia izanik, bertakoen laguntzaz erromatarrek banan-banan jazartu ta eizatuko leuskiez-eta. Txalupa bat ostu, eta itsasoz iges egitea zorakeri utsa litzake, eriotza une batzuk ozta-ozta luzatzeko baiño, besterik ez.

Oldozkun oneitan murgilduta joiala, portura eldu ziran, eta biñaka ta zeozer al-denduta ibilli zeitezala agindurik, kaiaren luzeran ibiltzen asi ziran. Olan joiazala, oldozkun onexek eraso eutsan Dan'eri: zein luzaro iraungo eben gudaletxean atxilloen igesa oartu barik...?

Urira sartu-ala, ardanegi ta emagaldutegietatik, jai egiten eben “Etruria” guda-lontziko erromatarren oiua eta astrapalak, agiriagoak biurtzen ziran. Izan be, Patmos'eko uritarrek nekez lo egin aal izango leukie. Ezkerretara, geldi ta isil, guda-lontziko mulko erraldoi ta ezabatsua ikusten zan, lau oar-krisailluk mugatuta: mastakoa, txopakoa, et saietseko biak. Bazirudian ontzi baten iratxoa itsaspe sakonetik urtenda, ugin gozoeñ gainean lotan, eta krisailluak gabaren kolkotik jausitako izarrak, munduko lau alde nagusiak erakustearren.

Bapatean, tximistak jota lez, Basamortuko semea gelditu zan, eta txistu leun batez lagunai dei egin eutsen. Begiak argi bakanaz piztuta, eta itxaropen zoroak eragindako mintzo dardartsuaz, auxe itaundu eutsen:

– Badarozue aldean belaki-aiztoak...?

Danek baietz erantzun eutsen.

– Entzun egistazue ondo, ondo be gero...! Gure itxaropen bakarra erromatar ontzi eder orretan dago. Uritik datozkigun oiuek eta astrapalak, guda-itsastar geienak lego-rean dagozala adierazoten dabe. Ontzi orretan beraz, ez dot uste gudari asko dagoanik, eta gainera, gitxi orreik nasai-nasai jardungo dabe, norik uste izango ba etsairik etorri daitekionik...? Auxe da, beraz, ontziari erasoteko eretia. Ortotsik ugeri egingo dogu urpetik. Ontzi-oskolera eltzean, orduan bakarrik atarako dozue burua arnas ar-tzearren. Zuek, seleuzitar lau anaiok, aingura-katean gora egingo dozue, eta Abdul, Narkis, Josue ta lauok, txopara lotuta dagoan txanelaren unamatik. Ortotsik goazen ezkerro, ez dogu ezetariko oiñotsik egingo, eta isil-ostuka, banan-banan zaindari guz-tiak garbituko doguz, ontziaren jabeak billakatu arte. Egitekoa argi al-dago...?

Baietz erantzun eutsen lagunek abo batez. Dan'ek orduan,

– Goazen ba, lagunok, jo ta ke...!

Palasta-otsik egin bage murgildu, eta urpetik ugerika, ontzirantz abiatu ziran. Dan'en egitasmoari jarraituz, launako talde bakotxa agindutako lokarrietatik gora igonik, ontziko beeko zubian laster ziran, eta erdi-illunpetan zear motel marrazten ziran zaindariak eraso eutsien. Ekintza labur baiña odoltsu aretan, banan-banan sastakaturiko erromatarrek sorura amildu ziran. Alako baten, baiña, oneitariko bat il-aurretik oiuka

asi, eta enparuek jazoten zana oarturik, brankan babestu ziran, baiña zortzi etsai sasta-kaiak eskuetan etorkiezala ikusirik, izuak artuta, urari burua emon eutsen, eta kai-rantz ugerika, illuntasunean ostendu ziran.

Laster oartu zan Dan, ekintza onek lekarkieken galtzoria. Iges egindakoek arin baten jakiñerazoko leuskie urian egozan gudariak, eta berreun goratiko erromatarren eraso jarki-eziña jasango be. Zeozer egiteko zan, beraz, astirik galtzeke. “Etruria”k, garai areitariko guda-lontzi geienek lez, jopu-arraunlariak erabillezan. Ontzi aretako saiets bakotxean, ogei ta bost jopu tostatan kateaturik egozan, au da, berogei ta amar guztiz. Lerro bi onein artean kokatu zan Basamortuko Semea, eta mintzo indartsuaz jopu areik entzun egikeoen, auxe aldarrikatu eutsen:

–Arraunlariok, entzun egistazue ondo..! Ontzi onetzaz arraintzale batzuk jabetu egin gara, eta ekintza onen ondorioz askatasuna emongo dautsuegu. Orretarako, baiña, leku onetatik urten bear, eta itsaso zabalera eldu gaitzeanean, aske izango zarie. Augai-rik ba, aingurea jaso daitenean, arraun-eragiñez iges egingo dogu.

Au esanik, bere lagunakaz bira-zubillari ekiñez aingurea laster jaso eben, eta jar-raian, burdin-aga baten joteaz neurria emenez, Dan'ek lema erabilten ebala, astiro ta anditasunez beterik, “Etruria” guda-lontzia biurtzen asi zan, itsas-adarraren urtenbide-rantz abiatzen zala, baita garaiz be, kaian egozan guztitariko txalupak ustiatuz, erasote-ko asmotan erromatarrek etorkiezan-eta. “Etruria”k, baiña, arraunen neurria azkarrago-tuz, laster itzi ebazan atzean, eta noizbait, goizaldeko esku larroskarak zeru-itsasoak argitzen asten ebazanean, itsas-adarra atzean itzita, itsaso zabalera urten ziran. Une aretan aizea putz egiten asten zanez, arraunketari eten egiteko agindu eban Dan'ek, eta ilda zetzan komitreaen gerriari lotuta egoan giltzaren bidez, jopu-arraunlariak jare-giteko agindu eban.

Biotz-zauskagarria zan gaixo areik erakusten eben itxurea, illabete ta urtebeteetan zear, eriotza lakoa zan erabilte ankerraren ostean. Batzuk ozta-ozta ibilli zeitekezan; bestetzua leizak lakoxe ziran betzuloetan begiak galtzen yakezan, baiña agiriena, guz-tien argaltasuna zan, bizirik zirauen gorpu erkinduak bai'litzazan. Zoribakook argi be-tean ikustean, Dan'en erromatarakanako gorrotoa indartu zan. Garaiz iges egin ez ba-lebe, axe izango zan berak eta “Kaio Txikia”ren lagunek jasango eben etorkia. Orain, baiña, ontzi aretan jopu izandakoen zoriona neurriz gainetik azaltzen zan, bein eta ba-rriro askatzaillak bedeinkatzen ebezala.

Zenbat-gura janari banandu ekien agindu eban Dan'ek, eta jarraian, erabillezan aparra-mantarrak, erromatar gudarien janzi barriakaz ordeztu ekiezan. Orduko, goiz-erdia zan, eta aizearen indarra ustiatzearen, masta bietako aize-oialak zabaldua, arin eta illaun, itsasoan kokaturiko egazti erraldoia bai'litzan, “Etruria” Txipre'ko Kyrenia portura abiatu zan. Ontzia aztertzeke garaia zan, eta Katamixarra berarekin artuta, ontziari begiraldi zeatza emon eutsan Dan'ek, eta ikusi ebanak zur eta lur itzi eban. “Etruria” masta bikoa zan, eta len aipatu danez, saietsetan berrogei ta amar arraunla-rientzako tostak ebazan. Bizkar-gainean mailla bi: agintzeko zubia zan goikoa, eta ontziburu ta buruzagien ganbarak egozan beekoa. Ontziaren bikaintasunak arritu eban

Dan, Libano'ko izaiezko zurez apaindutakoa zan-eta, oeak illazki astin bigunekoak, ganbaratako soru-gaiñean azpi-oial margodunak nonai ikusten zirala. Gero, areto zabala, mai eder eta besaulki erosoakaz orniduta, jatoki ta batzarlekua izango zana, urrean. Areik lako bikaintasunak egundo be ez ebazala ikusi Basamortuko Semeak, bere buruari iñotsan amesetan izango ez ete. Ontzi-bizkarpean, soto ederra edatzen zan, saiets bietan berreun bat lagunentzako oatzeak egozala iru maillatan jarrita. Aurrekaldean, jatoki zabala, eta ontziko sukaldea. Zer esanik ez, soto au gudari arruntentzat zala, baiña garbi, txukun, eta leiatilla ugariakaz argituta.

Ontzi-bizkarrera biurtu zanean, barrutik eskertu eutsan Yahvé'ri, ontzi yaukal aren jabe izatera lagundu eutsalako, eta zin egin eutsan bere buruari, aduak berari emondako bitxia, aberriaren alde erabiliko leukela, baiña bazan ontzi aretan txundituko leuke beste arrigarri bat. Ara... lau gurpildun arri-jaurtigailu indartsuak, jaurtikiak eun metroko bitartera botateko egokituak. Onezaz gaiñera, arri-orniketa ugaria ontziko toki berezietan.

Baiña "Etruria"ren iskillorik bildurgarriena, brankapeko zulo batetik atara zeitekean, burdiñezko mutur bataz burututako areitz-enbor luze ta lodia zan. "Aari-burua" esaten eutsoen iskillor oneri, gordeta erioen beti, baiña etsai-ontziren bat ondatu nai izatekotan, enbor itzel ori brankapeko zulotik atara, bere oean ondo tinkatu, eta ontzia bultzada betean oldartuta, etsai-oskolean zulo ikaragarria sortzen eban. Onetatik ura borborka sartuta, luzaro barik urpean ostentzen zan.

Ontzi-azterketea egin ondoren, eta burrukarako gaitasuna egiztaturik, Dan'en atsegiñak ez eban mugarik ezagutzen, eta berekiko esan eban, aaleginduko litzakela Israel'en onerako erabilten. Apalostean, bere zazpi lagunai dei egin, eta auxe esan eutsen:

– Adiskide maiteok: "Kaio Txikia" erromatar zapaltzailleak ondatu egin dausku, eta beraz, ez dogu belaki-arraintzarik, baiña orren orde patuak eskura ekarri dauskun gudaontzi bikain onen gaitasuna ustiatuz, munduko zapaltzailleari aurre egitea nire asmoa da. Toki ez-bardiñetako gizakiak gara, baiña danok jasaten dogu erromatarren buztarri astuna. Nirekin burrukan egiten gura ba'dozue, batu zakidaze goiburu ori egi biurtzearen, baiña ostera, zuetarikoren batek bakea naigo ba'dau, aske da etxera biurtzeko. Biar erantzuna emongo daustazue...

– Jauna –eten egin eutsan seleuzitarren nagusiak–, nire iru anaiak eta neu, bertan bera zurekin edonora joateko gerturik gaituzu.

Jarraian, Abdul txipretarrak eta Narkis grezitarrak baietz esan eutsoen. Katamixarra'k ez eban tutik be esan, bearrekoa ez zan-eta. Gur egiten eban nagusi ta adiskideari, azkeneraiño jarraituko leuskio.

Gau osoan ekialdeko norabideari ekin eutsan "Etruria"k, eta gosalduta gero, ontzikide guztiak batzar batera dei egin eutsen Dan'ek. Ontzi-bizkarrean batu ziranean, goiko zubitik onetaraxe mintzatu yaken:

– Lagunok, Patmos'etik urtetean, aske zariela esan neutsuen, eta esandakoari eusten dausat.

Aldi izugarri batez esan-eziña jasan ondoren, lagun areik pozezko oiutan Dan-eta goratu ebezan. Izan be, ordu gitxi batzuk igaro izan ziran joputasun-kateak astindu ebezanetik, baiña epe labur orretako janari onak, janzki egokiak, eta itxaropenak, giza-ki barriak biurtu izan ebezan. Eskerron-agerpenak amaitu ziranean, Dan'ek barriro,

– Txipre'ko Kyrenia portura goaz, eta oztoporik ez ba'dogu, etzi kairatuko gara. Aske zarien ezkerro, aukera bi eskintzen dautsuedaz. Bata, an bertan legorreatzea etxera biurtzeko; bestea, ontzi onetan askatasunaren gudaritzat jarraitu dagizuela, ainbeste oiñazeak ekarri dautsuezenen aurka burrukatzearen. Esan bear dautsuet baita be, ontzi onetan diruketa polita aurkitu dogula, eta berrogei ta amar lagun zarien ezkerro, bako-txari irurogei zidarrezko emongo yakoz. Edu onetan, etxera biurtu gura dabenek, bidegiterako beste izango dabe, eta ontzian jarraitzea aukeratu dagienek aurrezkitzat gorde-teko. Etzi, beraz, zuetariko bako-txak aukerea egiña izango dau. Besterik ez.

Egun bi igarorik, Txipre'ko iparraldea agertu zan, eta ontziaren zuzenbidea egokituz, luzaro barik Kyrenia uria itsasaldeko orban zuriaren antzera agertu yaken. Orduan, joale-jotearen bidez ontzikideak baturik, Dan'ek auxe esan eutsen:

– Etxera biurtu nai dabenek, eskumatara jo dagiela, eta ostera, ontzi onetan jarraitzekoak ezkerretara.

Laster egozan talde biak bananduta. Atsekabe andiaz egiztatu aal izan eban Dan'ek, etxerakoak ogei ta amabi zirala, eta ontzian jarraitzekoak amazortzi lagun barkarrik. Ez egoan, baiña, beste aukerarik, eta naigabeari gaiña arturik, legorrera joian bako-txari irurogei zidarrezkoak banandu ekiezan agindu eban, eta jarraian, txopako txanelak iru joan-etorri egiñik, legorreatuak askatzailleai guztitariko onespenez agur esan eutsien.

Txanelaren azken bidegitea amaitu zanean, "Etruria" izena kentzea agindu eban Dan'ek, eta au egiñik, Dan'egana joanda, Narkis'ek,

– Jauna –esan eutsan–, zelako izena emongo dautsagu ontziari...?

– Ez dau izenik agertuko. Ontzi au "Izenbakoa" izango da, eta ezaugarri bakar-zat, masta nagusian David'en izarra kulunkatuko da.



Gero, itxura oldozkorraz karelaren gaiñean besoak kokatu ebazan, eta isilllean luzaro iraun eban urrutiarri begira. Isilllunea jasan eziniñik,

– Jauna –itaundu eutsan Katamixarra'k –ordua da alde egiteko. Nora agintzen dozu...?

– Nora...? Ez dakit, Josue. Ontzia erabilteko beste lagun badogu, baiña ez burrukan egiteko. Orretarako eun bat gudari gitxienez artu bear izango gendukez, eta izan be, nondik asi ez dakit. Ergelkeri utsa izango litzake porturik-portu joatea, Erroma'ren aurka gudari-eske, azkenean, amaika galtzori jasan ondoren, txulut egiteko...

Basamortuko Semea barriro be isiltzen zala ikustean, alde egin eban Katamixarra'k. Arrats-beera gardenean, laster ostenduko zan eguzkiak itsas-gaiñaldea mosu gorritzakaz laztantzen eban. Areto nagusiko maiaren gaiñean, erromatarrai artutako itsas-marrakzi bat begizatzen eban Dan'ek nora jo ez ekiala. Agiri zan berarentzat, zirt edo zart erabagi bat artu bearko leukela, leku aretan geldirik irautea iñongo urtenbiderik ez zan-eta. Kinka ezpaitu onetan zala, askatu-barri batekin Katamixarra sartu zan.

– Barkatu, Jauna –esan eutsan–, baiña lagun onen esatekoa jakingarria dalakoan nago.

Etorbarria gazte indartsua zan, eta bere karantzak zangartasuna iragarten eban. Orduan Dan'ek,

– Esan, lagun –agindu eutsan–, baiña orren aurretik, emoidazuz zure gora-beerak.

– Ara, Jauna, izenez Yaor, eta jaiotzez likaonitarra nozu. Zilizia'ko mugatik ez urrun guraso ta anai-arrebekin bizi nintzan. Bein baten, errira erromatar euneko bat sartu zan, eta Likaonia Erroma'ko agintzapeko lurraldea zala atxakiaz, etxeko abelgorriaz eta janariaz jabetu ondoren, anai biekin jopu egin ninduen, eta Eleusa'tik Txipre'ko Salamis'era eroan ginduezan. Uri onetara eldu baiño ez, beste lurraldetako jopu batzuekin batean salgai ipiñita, ugarte aretako erromatarren adiskide andia zan Larkis izeneko jauntxo batek erosi ginduzan, Prastio izeneko errixkan jabetzen eban maastietan jardun gengian. Estalpe zikiñetan lo egiten genduan, ozta-ozta lan egiteko bestez janaritzen ginduezala. Egunsentitik illuntzerarte lan egiten genduan zaindari basatien zigorpean. Jardun aitugarria zan eguzki kiskalgarriak abailduta, itxaropen barik, eta aberri-miñak jota. Bein baten, ezerezkeri bategaitik areitariko zigorkari ankerrak emon-emon egin eustan kordebagetu arte. Senetara biurtu nintzanean, nire buruari zin egin neutsan iges egingo neukela. Andik illabete batera-edo, Urrilla izanik, maatsaren bildumea egiten asi gintzazan; areitariko egun baten, nire anaiek otzara batera sartu ninduen, eta gaiñetik maats-mordoak ipiñita, gurdí batek beste otzarekin, dolarara eronan eta antxe laga ninduen opillaren ondoan.

Ona elduta, barre egin eban Yoar likaonitarrak ziri-sartzea gogoratzean, eta gero edeskiari jarraituz,

– Gautu zanean otzaratik urtenda, dolarako leio batetik anka egin neban, eta Salamis'erako bidea artuta, andik ordubete bitara, uri onetako portura eldu nintzan, eta kairatuta egozan ontzi guztiak aztertuta, “Etruria” izeneko gudalontzi andia zan ezker, ezkutatzeko aukera onak eskintzen eustazala uste izanik, bizkarrera zapart egin, eta ar-

dao-upel batzuen artean ezkutatu nintzan. Goizean itsasoratu zan, nire asmoa Zilizia edo Lizia'ko portu batera eldutea zala, baiña itxaropen au ustel urten yatan, Erroma'ra giñoazalako. Bigarren egunean goseak eraginda, gautu zanean isil-ostuka sukaldera sartu nintzan, eta kolkora janari batzuk sartzen niarduean, sukaldari denganiño batek salatu ninduan ontziburuari, Muzio Cayo'ri. Onek nire indarrak ustiatzea erabagi eban, ontzia Erroma'ra ariñago eldu zeiten, eta komitrea deituta, ontziko tosta batera kateatu ninduen il-barria zan jopu-arraunlari bat ordezteko. Olan ba, janaria jaritsi neban, baita komitre zital arek ezker-eskoira banatzen ebazan zigorraren zartadak be...

– Noiz jazo zan ori...? –itaundu eutsan Dan'ek edeskiari eten egiñez–.

– Orain zortzi illabete-edo, baiña epe ori naikoa da jopu-arraunlari bat beste mundura bialtzeko. Berrogei ta amar lagun gengoan tostatan, baiña gutariko edozeiñek urtebetetik gora iraun egianik zailla be zailla zan. Janaritzen ginduezan ozta-ozta bizirik irauteko beste. Komitre batek maillu batzuz arraunkadak neurtu bitartean, bestea tosten luzeran basakatu baten antzera ibilli ebillen, bederatzi buztaneko zigor izugarriaz gure bizkarrak odoltzeko, geugan aultasun-zantzurik ikustean. Zortzi illabeteko nekaldi ikaragarri aretan, sarri askotan Prastio'ko Larkis jauntxoaren maastietan emondako aldia uts emoten neban.

Gau baten, baiña, Patmos'eko itsasadarrean nire patu zoritxarrekoari eriotza eskatzen neutsanean, mirari bat jazo zan belaki-arrainzale zangarren eskukada batek “Etruria”ren jopu-arraunlariak jaregin ginduzanean... Enparaua, Jauna, zerorrek nik baizen ondo daki.

– Eskertzen dautsut edeski ori, baiña orretarako soil-soillik zatoz nigana...?

– Ez, Jauna, alkarri laguntzeko asmoz natortzu. Ara... zure eskutaria dan Josue onek, ontzi au benetako gudalontzia biurtzeko, eun bat lagun zangar bear dozuzala esan daust, eta izan be, nire bitartez kopuru ori lortu dagikezu, bidebatez nire anaiak eta oneikin dagozanak askatzeko gerturik izatekotan.

Bereala ulertu eban Dan'ek Yaor likaonitarrak adierazoten nai eutsana, eta une batez ausnar egon ondoren,

– Begira, Yaor –esan eutsan–, ezinbestez gerturik nozu zure itarantzuna onartzeko, baiña baldintza batzuz, eta auxe alegia: Prastio'ko Larkis'en jopuak jaregiten ba'doguz, askatasun osoa lortu aurretik, ontzi onetan urtebete ta erdiko gudaritza-aldia bete egin bearko dabe.

– Jauna, zure baldintza ori bidezkoa da, eta bertanbera onartzen dot, baiña mezedanditatzat auxe eskatzen dautsut: nire anaietariko gazteena aske laga dagizula etxera joan daiten, gurasoak-eta jakitun ipinteko bizi gareala.

Dan'ek irribarretsu,

– Ontzat emoten dot zure guraria. Orain guztitariko zeatzak emongo daustazuz Salamis portua ta Prastio'ko egoereari buruz. Onen aurretik, baiña, Josue, agindu zure lagunai aize-oialak zabaldu dagiezala, eta gero neronek erabagiko dot ontziaren norabidea.

Katamixarra joan zanean, Dan'ek Txipre'ko marrazkia mai-gaiñean ipiñi eban, eta jarraian, Yaor'ek bearreko zertzeladak emon eutsazan. Likaonitarrak amaitu ebanean,

– Arazoa –esan eutsan Dan'ek –arduraz aztertuko dot, eta eretia etorri dakigunean, jakitun ipiñiko zaitut.

Eta “Izenbakoa” ekialdera abiatzen zala, Txipre'ko marrazkia adi-adi azertu eban, Salamis eta Prastio'ko inguruak batez be, eta jarraian ontzi-bizkarrera jatsita, Narkios'eri ekialdeko norabideari eusteko agindu eutsan Txipre'ko Andreas muturre-raiño, eta gero, emendik lurraldea begimenetik galdu barik, ego-sartaldeko norabidea Salamis porturantz. Jarraian, ganbarara joanda, oeratu zan, ekintzaren zertzeladak go-goan erabillezala.

Biaramoneko arrastian Andreas muturra inguraturik, urrengo eguneko illuntzean Salamis begiztatu eban urrutian, uso-talde zuriaren antzera mendi-egal batetik portu-raiño kokatuta.

Legorretik eun bat metrora, ontzia gelditzeko agindu eban Dan'ek, eta Yaor eratoririk, auxe esan eutsan:

– Gau betea egin daitenean, ekiteko ordua izango da, eta Narkios ontziburutzat lagata, zeu, Josue, seleuzitar anaiak, eta neu, txanelaz legorreatuko gara, eta ortik Prastio'raiñoko amabost kilometroak isillean egingo doguz. Nire egitasmoa auxe da: gau-zaindariari urreratuko gaiakoz, eta orduan, basakatua baizen ariña dan Josue aregana joanda, burdiñezko aga bat az buruan jota lurreratuko dau. Jarraian, zaindariaren giltzaz jabe eginda, lo-aterpea zabaldu, eta aske nai izan dagienekin itsasaldera biurtuko gara ontziratzeko. Zer deritxazu ekintzeari...?

– Ondo derist, Jauna, baiña arazoaren giltza, zaindaria ezustean artzea da. Lengo baten esan neutsunez, begirariak egurrezko dorre batetik egiten dau zaintza, eta beraganaiño zarata egin barik igotea, ez da gaberdiko auntsaren eztula. Begirari orrek galtzori-didarra jaurtiko ba'leu, dorretik ur samar dagoan zaindarien aterpetik, onein eraso jasan bear ko genduke, eta orduan zure egitasmo orrek txulut egingo leuke.

– Olan jazoko ba'litz, sastakaiakaz erasoko geunskie. Dalako zaindaria zenbat dira...?

– Amabi bat lagun, Jauna.

– Orduan oba eurentzat, begirariaren badaezpadako didarra entzun ez dagiela. Sastakaia erabilten ba'dakizu...?

– Alan- olan.

– Ez larritu, Yaor, enparauok ondo darabilgu-ta.

Gau osoa zan orduko, eta askatzailleen taldea esku-mailladi bat az txopan egoan txanelera jatsi ziran, eta andik laster, zazpi laguneko taldea legorrean zan, eta txanela ertzer lotuta, Yaor bide-erakusle ebela aalik isillen Prastio'rantz joan ziran, bidetik zeozer baztertuta. Ordubete bi igarorik, ilbeeraren argi motelpean, estalpe andi baten mulkoa islatu zan, eta onen aurrean begirariaren dorrea. Katamixarra'ri abocean mintzatuz, Dan'ek,

– Aizu, Josue, orra or begirariaren barranda-dorrea. Egitekoa ezagutzen dozu, baiña barriro be badiñotsut ekintza onen arrakastea zugar datzala. Zoaz ba, eta biotz on...!

Itzalaren antzera narratu zan Katamixarra, eta oiñetakoak kenduta lauazka igoten asi zan, idun-ingurutik eskegita burni-zati bat eroiala. Igon bitartean, enparauak zain-

darien estalpera urreratu, eta itxaron eban. Alako baten, soin baten plaustadea aditu zan, eta luzaro barik, jopuen estalpeko ate-aurrean askatzailleak Katamixarra'rekin alkartu ziran. Onek, zaindariari kendutako giltza ekarren, eta arin baten atea edegi, kri-saillu bat piztu, eta Yaor'ek, an zetzazan jopuai didar baten,

– Arin, gertau zaitezte urteteko –esan eutsen–, aske zarie-ta. Salamis'etik ur, ontzi bat gure begira dago, eta eguna argitu barik ara eldu bear dogu.

Erdiz itxartutako jopuak, oraindiño nagiak atara barik, ez ziran oartzen benetan ala amesetan izango ete jazoten zana. Laster, baiña, askatzailleen taldeak jagi-erazo ebazan, eta estalpetik urteteko gertatu ziran. Orduan Dan'ek,

– Lagunok –esan eutsen–, zuek askatzearen etorri gara, baiña edozelan be, zuen naiaren aurka ekin gura ez dogun ezkerero, gurekin etorri nai ez dagiana, emen geratu daiteke, baiña askatasuna aukeratu dagiana urten bedi lenbailen.

Eun eta berrogei ta amar ziran Prastio'ko jopuak, eta ogeitsu izan ezik, enparauek askatasuna aukeratu eban. Oneik, arin baten estalpearen aurrean batu ziran, eta jazoten yakiena oraindiño siñistu eziñik, askatzailleek akuillatuta, itsasalderantz abiatu ziran, aalik isillen ibilli ebiltzela. Urri janaritutako zoribako areik, baiña, ezin arin joan, eta nai-ta-ez ibiltea euren arintasunari egokitu bear izan eban Dan'ek. Noizbait, lotutako txanelera eldu ziran, eta joan-etorri ugarien bidez talde osoa ontzi-bizkarrean alkatu zan. Arin baten aingurea jaso, aize-oialak zabaldu, eta eguneko lenengo argia agertzen zanean, Txipre ugartetik urruntzen zirala, ekialderantz jo eban. Askatu-barriak zuzenduz onetaraxe mintzatu yaken Dan:

– Entzun egistazue ondo auxe: Erroma'ren zapalkuntzatik jaregin zaituegu, Yaor, zuen lagun-oiaren argibideakaitik. Ontzi au erabilteko ta zapaltzaillearen aurka burrukan egiteko, eunetik gorako lagun bearrekoak dira. Berrogei urtetik gorakoak aske dira noragura joateko, baiña enparauak, “Izenbakoa” dan ontzi onetan jardun bear ko dabe, baiña urte ta erdiko jarduna bete ondoren, aske izango dira emen jarraitzeko, ala edonora joateko. Oikoa ta bidezkoa da baita be, gudariak ordaintza bat artu dagien, eta zuek bardin, etsaiari kendutakotik zati on bat artuko dozue, irurena, izan be. Beste irurena buruzagientzat, eta beste ainbeste niretzat.

Au entzutean, askatu-barriak didar eta txaloka asi ziran, Dan'en erabagia ontzat emonda. Zapaltzailleagandik jasandakoak alkatzen ebazan, eta gorrotoak sututa, gerturik egozan azkar eta adoretu mendekuaren ezitia txastatzeko.

– Zerbait areago esan bear dautsuet –jarraitu eban Dan'ek–, eta auxe alegia: menpekotasuna ezinbesteko baldintza izango da zuen artean, eta jarritako arauai men egingo dozue txintik atara barik. Gure legeak gorde ez dagiazana, zigortua izango da, baita gogor be, egindako okerra aztu ez dakion. Jarritako legeai bearreko begirunea ez ba'dautsezue, etsaiak laster ezereztuko gaitu, eta auxe jazo ez daiten, neuk eta nire buruzagiek agindutakoa buru-belarri beteko dozue, au da, itsumustuan, osterarik txikiena be egin barik. Begira, lagunok: erromatar gudarien arrakastea, euren agintariai zor dautsien menpetasunean datza, eta euren aurkako gudan gaiñetik urten gura ba'dogu, eurok baizen esaneakoak edo areago izan bear ko dozue.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Au olan izanik, esan bear dautsuet, ontzi onek ez dauala jopu-arraunlaririk erabiliko, gizakiaren duintasunaren aurka doalako, baiña sarri askotan ontziak arraunen eragiña bear izango dauan ezker, zeuok beteko dozue bearrizan au, etsaiaren aurkako ekitaldian batez be. Ez dozue etsairik erailgo burrukan izan ezik, atxillo egindakoek garaillean begirunea merezi dabe-ta. Badakit, au ez dala erromatar zapaltzailearen legea, eta zuen buruari itaunduko dautsazue, zergaitik Basamortuko Semea orren onberatsua azaltzen dan... Ara, gizakiaren benetako duintasun eta anditasuna, errukibera ta biotz-zabalekoa azaltzean datzala, aitatzat izan neban armenitar jakintsu batek irakatsi eustan, eta ainbeste zor dautsadan aren oroitzari zintzo izaten jarraitu nai dot beti. Onek ez dau esan gura, ezta urrik emon be, zapaltzailearen aurka ez dogula kemen eta indarra erabili bear, aitzitik, mundua erromatarren buztarritik jareginda ikusi nai ba'dogu, aalegindu gaitez an bein betirako iskilloen indarrez ezereztea.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Iparrean dagoan –jarraitu eban– Zilizia'ko itsasaldera abiatuko gara. Berrogei urtetik gorakoak, geisoak, eta Yaor'en anaia dan Nair, an legorreatuko dira. Orain jatsi zaiteze satora, bearreko janaria artu dagizuen.

Urrengo eguneko goizean Zilizia'ko itsasaldea begiztatu eban goi-mastako begirariak, eta eguberdia barik, len aipatu diranak, itsas-kolko txiki baten legorreatu ziran, eta zidarrezko batzuk bakotxari emonda, bidezorroak janariz bete ebela, euren jaioterriantz abiatu ziran itxaropenez gaiñezka.

Prastio'ko maastietan askatutako eun bat geratu ziran ontzian, eta kopuru oneri lengoak jo egiñik, eun eta ogei ta amar ziran “Izenbakoa”n jarraituko leukienak. Itsasaldetik urrundu bitartean, Dan'ek lerroka jarri zeitez an agindu eban, eta gero banan-banan azertu ebazan. Bataz beste itxura onekoak ziran, eta Dan'ek bere buruari esan eutsan, iñarkunaldi ona izatekotan, gudari bikaiñak billakatuko litzakezala. Orren aurretik, baiña, egun batzuk igaro bearko ziran atsedendiz eta janari onaz, gerturik azaldu zeitez an.

Astebetean igarorik, lengo zazpi lagunak, belaki-arraintzan jardundakoak izan be, buruzagiak izendatu ebazan, eta oneik etorri-barrien gertakuntzari emon eutsoen. Asiera baten ezpatea, eta gero aztamakillaren erabiltea irakatsi eutsien. Alde onetatik ez egoan eragozpenik, ontzia guztitariko iskilliak ondo orniduta egoalako. Arazo onetan Basamortuko Semea oso zorrotza zan, eta orduetan zear iñarkunak azertzen ebazan, an-emen bearreko zuzenketak egin oi ebazala, ezpatari onak billakatu zeitez an, ezpata bikotxaren erabiltean batez be, alor onetan benetako maisua zan-eta.

Andik illabete batera-edo, “Izenbakoa”ren gudariak burrukalarik bikaiñak billakatu izan ziran. Baekian Basamortuko Semeak “zeri nakio” edo alperkerian irautea gudarientzat oso kaltegarria dala, eta augaitik, ezpata-iñarkunaz gaiñera, egunoro ordu batzuk arraunketan iraun-erazoten ebazan, edo-ta soka-mailladien bitartez, gurutzetatik gora ta beera, aize-oialen erabiltea ondo menperatu egien. Etorri-barriak leku askotakoak ziran, ots, gerkar, bitiniar, galazitar, kapadozitar, zilizitar, liziar, likaonitar, feni-

zitar, zirenaikatar, ejiptotar, arabitar, judutar, eta beste lekutakoak. Jopu-aldietan ainbeste neke, gose, eta zigor jasan ondoren, oraingo bizimodua atsegin yaken, adiskide-tzaren lokarriek alkartzen ebezala, baita erromatarren aurkako gorrotoak be. Iñarkun indargarri ta janari bizigarriari esker, luzaro barik gudari bikaiñak billakatu ziran. Bazala burrukarako garaia erabagi eban Dan'ek, eta bein baten, aize-oialak bete-betean zabalduta, arrapagai baten billa abiatu zan.

“Izenbakoa” berrogei metro luze ta amabi zabal zan, masta bi ebazala. Bereiztasunetariko bat arintasuna zan, bere duiñean erromatarrek egiten ebezanetariko ariñena izan be. Andinai porrokatua zan Muzio Cayo'k Ostia'ko ontzi-olan amaitzeko zorian ikusi ebanean, onen gaitasunak erakarrita, guztitariko bideak erabiliz “Etruria” izenekoa zan ontziaren agintaritzan lortu eban. Arrezker, Muzio Cayo'k itsas-ekintzetako agiritan ospe andia jaritsi eban, eta ezpaibarik, Patmos'eko itsas-adarrean ontzi bikaiñak galdu ez ba'leu, ontziburutzat gorenetako lekua lortuko eban erromatar ontzidian. “Izenbakoa”ren beste zertzelada aipagarria, urpe gitxikoa izatea zan, eta onek emotsan arintasunaz gaiñera, beste ontziak azartu ezin zeitekezan ur meetan bere aukeran ebilen. Gaiñerakoan, zurik onenakaz egiña zan, eta nonai ikusi zeitekezan Libano'ko izaien egur yaukalak. “Etruria” amaitzeko zorian zala, Muzio Cayo'gana gerkar bat etorrita, aari-buru bikaiñaren jabe zala azaldu eutsan. Burdiñezko muturraz ornidutako areitz-enbor astuna zan. Dalako tramankulua brankapeko zulo baten zear, ur-azalaren gaiñetik agertzen zan, eta saietsean jotako ontziari kalte izugarria ekarriko leuskio. Asmakizun onek lenengotik erakarri eban Muzio'ren adikunea, eta luzaro barik, gerkarren agintzapean, itsasoratu aurretik jarri izan zan. Aldiaren joanean, tramankulu barria oso lagungarria azaldu zan etsaiaren aurka, amaika ontzi eder, aaltsu, ondoratzeke gauza zala ikusi zanean batez be. Gerkarren asmakizunak ospe andia ekarri eutsan Muzio Cayo'ri, arrakastaren mailladitik gora andia egiñez, eta areago egingo be, Patmos'en jazotako ezbearra jazo ez ba'litzakio.

Itsas-lapurretak egiteko, Kreta ugarte ta Zirenaika arteko itsasaldea aukeratu eban Dan'ek, itsasgune onetatik Ejipto ta eki-erdiko lurraldeetatik Erroma'ra bialdutako gaiak igaroten ziralako geienbat.

Bein baten, masta nagusiko barranda-lekuan egoan begirariak, ontzi nagusi bat urreratzen zala aldarrikatu eban, eta gero, erromatar ikurriñekoa zala be. Burrukarako joale-jotea agindu eban Dan'ek, eta aize gozoak eraginda arrotzaren aurka abiatu zan. Lorketa-ontzi ederra zan, eta urreratu zanean, “Ponpeia” izenekoa zala oartu eban Dan'ek. Astirik galtzeke eraso agindu eban. Ekintzea erraza azaldu zan, eta begien itxi-edegi baten, burruka laburraren ostean erromatar lorketariak jabetu ziran. Dalako “Ponpeia”k ekialdeko janari ta eunak ekarrezan.

Jarraian, bere ontziaren gordetegiak janariaz bete ebazan Dan'ek, eta aurkitu-ala dirua artuta, atxillo egindako itsastarrak txalupatan sartuta, urrundu zeitezen agindu eutsen. Jarraian, “Ponpeia”tik alenduta, brankapeko aari-buru atarata, aalik ariñen talka edo jotera egiteko oldartu yakon. Karraska izugarriak saietseko olak ler egin eben zulo andia eratuz, emetik ura borborka sartzen yakola. Azkenean, branka zutundu, eta

gero zurrunbillo andia sortuz, betirako urpean ostendu zan, erasotzailleen oiua ta txalojotearen artean.

Lenengo ekintza onek adoretu ebazan Dan'en gizonak, eta areago erromatarrai kendutako diruak banandu yakezanean. Burruka erraza azaldu arren be, pozik egoan Dan bere menpekoek erakutsitako kemenagaitik.

Arrezkeroko aspaldian, erromatarrai kalterik andiena egiteari jo ta ke emon eutsan "Izenbakoa" k, guztitariko lorketariak erasoten eutsela. Onen ondorioz, Dan'en ondasuna gorakada polita artzen asi zan, urrezko ta zidarrezkoak metatuz gaiñera, bitxi-bilduma ederraren jabe billakatu zalako. Beiñola, arraintza-ontzi txiki batek laguntza-keiñuak egin eutsezan. Urreratzean, bost arraintzale gosez eta egarriz unaturik ikusi ebezan. Gaixo areik ur eta jangai ugariakaz sorosteko agindu eban Dan'ek. Arraintzaleok Kreta ugartekoak ziran, eta erromatarrak gogokoak ez yakezan ezker, andik urrun ez egoan Fenix uriko portuan, "Galias" izeneko erromatar gudaontzi erraldoia ainguratu ta egoala esan eutsien. Arraun-lerro irukotzeko ontzi au Ioniku itsasoko ontzidiaren nagusia zan, eta David'en izarra eroian izenbako ontzi baten billa etorria ei'zan, beste bost ontzi txikiagok lagunduta.

Arraintzaleak joan ziranean, Fenix urira joatea erabagi eban Dan'ek. Bere ainbaketaren arauz, illunabar aretan portutik ur samar izango litzakez, eta onetaraxe gertatu zan, baiña zoritxarrez aizea eten egiñik, barealdi osoa itsasoaz jabetu zan. Orduko, gau utsa zan, eta biozkada batek eraginda, "Galias" ontzi nagusiari astirik galtzeke erasotea erabagi eban Basamortuko Semeak, eta gizonai dei eginda, auxe esan eutsen:

– Lagunok, or aurrean dagoan Fenix uriko portuan, gu jazarteko etorrita, gudaontzidi bat dago, goizean arraintzale areik jakiñerazo dauskuenez. "Galias" izeneko ontzi ederra talde orren nagusia da, eta auxe ondoratu nai dot. Orretarako, baiña, aizearik ez dan ezketiño, arraunen eragiñez egingo dogu eraso. Astiro urreratuko gara portu-aboraiño, eta ona ezker, aalik indartsuen arraunketeari emonda, oldartuko gaiakoz aari-buruaz jotera egiteko. Gorde egizuez indarrak bigarren ekitaldi onetarako, garai-pena azken indarraldian datza-ta. Orain, arraunlariak tostatan egokitu daitezten. Au egin zanean, Dan'ek,

– Ba'gara...?

Baietzeko zurrumurrua aditurik, Narkios gerkarrak arraunkaden neurri astirotsua agindu eban egurrezko mailluaz, eta "Izenbakoa" ren irudi illuna portuko abora abiatu zan, atzetik lorratz zurixka zabalduz, iratxo isilla bai'litzan. Gau illuntsu aretan, ozta-ozta mulkoaren ebakuna marrazten zan il-gorako argi ezabatsupean. Noizbait, atekako krisaillu bien artean igarorik, egurrezko mailluak arraunkadea ariñagotzeko agindu eban, estropada leiatsua biurtzeraiño. Lema erabillen Dan'ek, begien aurrean "Galias" en mulko erraldoia bereiztu eban beste ontzien artean, oillo-loka bat txitak inguratu lez. Orduko, aari-buru brankapetik urtenda, uren gaiñaldea miatzkatzen eban ondapenaren mezularia bai'litzan. Basamortuko Semeak "Galias" en saietseko erdigunea aukeratu eban jotera egiteko, eta arraunlariak neurria indarren mugaraiño azkartzen ebe-la, etsaiari oldartu yakon.

Talkada izugarria izan zan, egurren karrasken artean, aari-buruari aurrean jarten yakon guztia ondatur. "Izenbakoa" ren brankak ondapena osotu eban, eta arraun-eragiñez aldendu zanean, sortutako zulotik "Galias" eri ura sartzen yakon uriolaren antzera. Ango astrapala, aiñen, eta oiua...! Izuak jotako erromatarrak batetik bestera nora ez ekiela oldartzen ziran, illuntasunak areago bildurtzen ebazala. Ezusteak eta etsiak artutako buruzagiek agintzak alkarri ezereztzen eutsoczan, geienen eritxia izanik, lur-ikara baten ondoreak jasaten ebezala.

Orduko, baiña, arraunen eragiñez "Izenbakoa" isiltsu ta arin portuko aborantz bideratzen zan. Txopan zutunik, Basamortuko Semearen irudi txairoa erdi-illunean marrazten zan, gero ta ondoratuago agertzen zan erromatar ontziari begira. Kairatutako ontzietatik arri-jaurtigaiñuak erabilten asten ziran; alperrik, baiña, "Izenbakoa" arein elmenetik-at urruntzen zan-eta. Portutik urtetean, "Galias" etik ikusi zeitekean bakarra, laster urpetik ostenduko ziran iru masta erraldoiak ziran.

Garai-pen au zala-ta, ez titan egoan Dan, eta Fenix uria ikusmenetik galdu zanean, menpekoekin aparti on batez ekintza gogoangarria ospatu izan zan. Ordurarte, kalte andiak eragin eutsazan etsaiari, baiña egun aretakoa, Israel'en zapaltzailleak gomutan eroango leuke aspaldi luze batez. Eta izan be, urrengo egunean, Fenix'en ainguratuta egoan erromatar ontzidiak kaltearen neurria egiztatu ebanean, etsiak jota, bere arrotasuna zan "Galias" gudaontziak atontzerik ez ebala oartu zan.

Onen ondorioz, itsasgune aretako erromatar buruzagiek, ontzidi-buruaren aginduz batzar bat izan, eta erabagi auxe artu eben: zelan edo alan lapur-ontzia ezerezte. Bae-kien, lengo erromatar "Etruria" ontzia zala, eta onen gaitasuna ondo bai ondo ezagutzen ebenez, ezinbestekoa zan ezerezte, bestelan, Erroma'rako itsas-lorketeak zenbatu-eziñeko galtzaiak jasango leukez. Eta orain, Israel'en izarra erabillen ontzia ezerezteko, saldoka, taldeka, txakurrek eizakia jazarten dabenen antzera, jarraitu, eta erasoko leuskioe. Aurrerantzean, beraz, nai karu nai maru, lenengo betebearra lapur-ontzi mardarikatua ezerezte zan.

Etsaiaren ontzi-ondatzeari jarraitu eutsan "Izenbakoa" k, ez luzaro, baiña. Itsasgune aretako erromatar ontzidia, talde andika alkartutako lorketariak babesten asi zan, Dan'en ekintzak eziñak biurtzeraiño. Eizakiak bakanduz gaiñera, itsasgune aretan ugarte gitxi izanik, babeslekuak aurkitzea arazo zailla billakatu zan. Noizbeinka soilik, ontziditik atzeraturiko erromatar ontziren bat, aari-buru erailkorraz ondatu egikean, baiña arrisku andia ta onura gitxi jaristen ebazala ikusirik, beste itsasgune bat aukeratu eban: Anatolia'ko ego-itsasaldea, izan be. Asmo barri au buruzagiekin eztabai-datu eban Dan'ek, eta danak bat etorrita, ontzat emon zan.

Errodo ugartearen inguruan, Ejeo itsasoko ugartedian, nai aiña ezkutune aukeratu egikean "Izenbakoa" k. Onezaz gaiñera, Efeso, Telmeso, Patara, Myra, Faselis, Side, Selinus, Eleusa, eta onein antzeko beste portuetatik, erromatarrek arrapaturiko lekaziak, okela gatzartua, egurra, ardaoa, eunak etabar, Erroma ase-eziñera itsasoz lorra-

tzen ebezan. Itsasgune au, beraz, guztiz egokia zan lapurretarako, eta bear izatekotan, ezkutuan irauteko. Bere itsastarren artean, ugarte areitan lagun asko zan, eta onein argibideak eta ezagutzak ustiatuz, ezkutune ta orniketaren sare zabala edatu eban Dan'ek.

Itsasgune onetan, beraz, erromatar zapaltzaillearen aurkako erasoari jarraitu eutsan Basamortuko Semeak, baita onura andiaz be. Aal izatekotan, ondoratu aurretik etsaiaren ontziak arakutzen ebazan, onein diruaz eta gaiakaz jabetzearren, baiña au eziña azaltzen zanean, etsaia indartsuagoa zalako, aukera izanik, aari-buruaz ezerezten eban beste barik. Illabeteen joanean, bitxi-bilduma ta diruketa andiaren jabe billakatu zan Basamortuko Semea, eta orduan, aspalditik laztanduriko asmoa egi biurtzeko erabagi eban, eta Katamixarra'ri dei egiñik, auxe esan eutsan:

– Aizu, Josue, badira urtebete bitik gora, itsas-lapurretan diardugula. Epe orretan etsaiari kalte andia eragin dautsagu, baita aberastasuna bildu be. Israeldar kaxkarrak izango gintzakez, irabazitakoa guretzat gordeko ba'genduke, eta areago, gure aberki-deak estu ta larri bizi diranean, Masada'ko ta beste lekutako zelatariak batez be. Augaitik ba, kutxatilla onetako bitxiak, eta zorro bete urre-zidarrezko au, Masada'ko gure adiskideai eroango dautsezuz. Biar bertan, Fenizia'ko Ptolemais urira abiatuko gara, eta onen portutik ez urrun, legorreatuko zara Palestina'ra joateko, ur samar dago ta. Zorrobete diru au astun dagoan ezkerro, asto baten lepoan Jeriko'raiño eroango dozu, eta zure osaba Jair'egana joanda, mezu bat bialduko dozu Masada'ra, orko nagusia dan Akai etorri dakizun, eta diru ta bitxiak eskuratuta, Ptolemais urira biurtu, eta legorreatze-lekuan bertan artuko zaitugu iru illabete egin-egiñak igarorik. Ulertu dautsazu...?

– Bai, Jauna, baiña zurearekin batean, nire aurrezkiak be beste zorro batean joango dira.

– Ederto Josue, benetako abertzaletzat jokutzen dozu. Ain zuzen be, zeugandik ezin beste jokabiderik itxaron. Diruketa bat eroango dozun ezketiño, artuizuz guztitari-ko neurriak ostu ez dagitsuen.

– Asto-saskien goikaldea agotzaz (lastoz) estalduko dodaz, baiña olan eta guzti be baten batek dirua usainduko ba'leu, nire ezpatea ezagutuko dau.

Andik egun bitara, Ptolemais uritik ur samar egoan itsas-kolko txiki batera urrertu zan “Izenbakoa”, eta diru-bitxiak eroiazala, Katamixarra txanelara jaisteko zorian zanean, Dan'ek,

– Yahvé'k zaindu zagizala adiskide maite ori –esan eutsan txeratsu–, gaur iru illabete, ona biurtuko gara zure billa. Akai'ri nire goraintzirik maitekorrenak emoiuz, eta bidebatez, Mesias'eri buruz entzun dagizuna jakifierazoko daustazu itzultzean.

– Bai, Jauna, olan egingo dot.

Besarkada bat azkarregandik aldendu ziran, eta Katamixarra eroatetik txanela biurtu zanean, aingurak jasota, “Izenbakoa” urrundu zan eizaki barrien billa. Ejeo itsasoan egiñiko lapurreta guztiz aberasgarria azaldu zan, eta ezkutune ugari izanik, erromatarrek aalegindu arren atzi-eziña billakatu zan. Burruka areitan ezinbestez gudariak galtzen ziran, eta onein utsuneak ugarteetako ta Anatolia'ko itsasaldeko gazteak or-

dezten ebazan Dan'ek. Ezkutunerik kutunena Errodas ugartearen eban, Lindos uritik ur samar “Tximeleten Zelaia”ren itsasaldean. Leku onetan babesten zan “Izenbakoa”, ontziaren oskolan bearreko atonketak egiteko, baita gaien orniketean be.

Iru illabeteak egin-egiñean igarorik, ontzia Katamixarra'ren billa biurtu zan, eta itsasaldeko ezkutunean begira egoan gaztea beste barik ontziratu zan. Pozik eta txeratsu alkar agurtu eben Jaun-eskutariak. Andik laster, aretoan jesarrita, Dan'ek,

– Ta, Josue –itaundu eutsan–, zelan joan dira gauzak...?

– Ederto, Jauna. Ptolemais'en bertan asto ederra erosi neban txalma ta guzti, eta diru-zorroak otzaretan ipiñirik, lastoz estaldu, eta Galilea'n zear Judea'ko Jeriko'ra sartu nintzan, eta osabaren etxera elduta, beingoan Masada'ra uste osoko mezulari bat bialdu eban osaba Jair'ek; andik egun batzutara, Akai Masada'tik etorri zan iru lagunekin. Diruketea ikusi ebenean, ezin egikean siñistu ekusana. Gero, zure gora-beerak edestu neutsazan, eta arrotzaren aurka burututako ekintzak jakitun ipiñi nebanean, zure izena bedeinkatuz pozaren-pozez besarkatu ninduan. Istillu gorriak jasaten ebezala Masada'n, esan eustan, oso urri ebiltzela-ta janari-iskilloen aldetik, baiña igorritako diruari esker, aspaldi luzerako goserik ez, eta iskilluak baita lan egiteko lanabesak be, Jeriko'n bertan erosiko leukiezala.

Andik iru egunera, lau ganbelutan janariketa ugaria, baita bearreko iskillu-lanabesak be, Masada'rako bidea artu eben. Urten aurretik, Akai'k auxe esan eustan:

– Oraindiño diru asko geratzen yaku, zenbat-gura erosteko beste. Estu ta larri bizi izan gara azken aldiotan, baiña Dan nire adiskideari esker, gure nekaldia amaitu da. Yahvé'k bedeinkatu dagiala...

Au csatean, Akai'ri malkoak eriozan mara-mara, eta besterik esateko gauza ez izanik, ganbeluen jarraigoa arresiaren atzetik ostendu zan. Arrezkerro, osabarenean aspaldi bat emon neban, eta biurtzeko garaia etorrita, ona itzuli nintzan.

– Ederto, Josue –eskertu eutsan Dan'ek–, oso ondo jardun dozu-ta. Beste diruketa bat bildu dagigunean, barrero be bialduko dautsegu Masada'ko anaiai. Anartean, erromatar zapaltzailleari aalik eta kalterik andiena eragingo dautsagu. Eta amaitzeko, Josue, Mesias'etaz zer entzun dozu...?

– Ezer gitxi, Jauna. Bere agertaldia ur dagoala bala-bala dabil gure anaien artean batez be, baiña oraindiño gauza ziurrik ez. Beiñola, Emaus'eko ostatu baten bazkaltzen niarduala, gizon bat nire alboan jesarri zan, eta berbeak berbea dakarren ezkerro, dalako Mesias etorria zala Palestina'ra esan eustan, baiña erromatarren laguntzaz, Sanedrineko Batzarrak eriotzera galdu ebala orain bost bat urte. Mesias ori Yosu nazaretarra ei'zan, eta bere burua Jaungoikoaren semetzat autortzen eban.

Oldozkor geratu zan une batez Basamortuko Semea, eta gero,

– Sasi-Mesias izango zan –asarre itxuraz esan eban–. Israel andia egitera etorriko dana, ezin daiteke guztien barregarri gurutz baten amaitu, eta iñork ez daust burutara emongo, gure aberriaren Askatzaillea orren zitalki amaitu daitekenik.

Eta gero, asperen bat iges egiten yakola,

– Baiña gure Mesias etorriko da, eta luzaro barik, izan be. Qumran'eko leize are-

tan Abimel'en laguntzaz Idazti Deunak aztertzen nebazala, naikoa argi Aren etorrial-  
diaren zantzuak igarri nebazan. Eta au gitxi bai'llitzan, nire ama lako ezjakin batek Me-  
sias'en billa joan neinten eskatu eustanean, Yahvé'ren aboz mintzatu yatan zalantza ba-  
rik, eta garaia yatordanean, dana itzita Beragana joango naz, nire ezpatea, dirua, eta  
nazan guztia eskintzera.

– Bai, Jauna, betekizun orretan, eriotzerarte lagun izango naiatzu.

Erroma'ren aurkako itsas-lapurreteari jarraitu eutsan Dan'ek Ejeo itsasgunean, eta  
erromatar gudaontzidia aalegindu arren be, ezin egikean “Izenbakoa”ren ekintzak era-  
gotzi. Ontzi au txit ariña zan, bere gudariak onenatarikoak, zangarrak eta eriotza bildur  
barik begizatzen ebenak. Dan, itsastar bikain, nagusi zuur eta adimen zorrotzekoa iza-  
nik menpekoen uste osoa irabazten ekiana zan, eta bere aginduak txintik atara barik  
beteten ziran. Onezaz gaiñera, itsas-lapurreteak obari onak guztiai ekartsenez, ontziko  
giroa onenatarikoa zan, gogoan artzen ba'da batez be, gizon latz eta zakarrak zirala.  
Dan'en kutunak belaki-arraintzan jardundako lagunak ziran, au da, eleusitar anaiak,  
Txipre'ko Abdul, Narkios eta Yaor. Baiña guztien artean kutunena Katamixarra zan,  
eta au bere ordezkaria izendatu eban asiera batetik. Sarri askotan, erabagi garrantzitsu  
bat artu bear ebanean, eritxia eskatzen eutsan. Onen urrengo Nauplion'eko Narkios  
etorren, eta betidanik itsastar izan zan ezkerro, itasoko gaietarako sen bereiziaz orniduta  
izanik, izarriztia irakatsi eutsan, eta onen ondorioz ontzia erabilteko gai azaldu zan.  
Augaitik, lemazain ziarduan geienetan.

Bein baten, “Izenbakoa” Errodas ugarteko Lindos uritik ur samar oiko ezkutu-  
nean egoala, uri onetara joatea erabagi eban Dan'ek, Jerkes adiskide ta ornitzaillea  
ikertzeko. Jerkes gerkarrak bearreko janari-edariak eta gudariak akuratzen ebazan  
Dan'entzat. Garai aretan amar bat gizon bear ebazanez, berarekin Katamixarra ta Yaor  
artuta, itsasoz legorrez baiño laburragoa izanik, txanela erabilliz, arraun-eragiñez Jer-  
kes ikustera joan zan. Oi eban lez, gerkarrak begi argia egin eutsan Dan'eri, eta bearre-  
ko gudarien akurapenaren baldintzak astiro ta zeatz azerturik, andik iru egunetara es-  
katuriko gudariak bialduko leuskiozala, agindu eutsan Jerkes'ek. Onen ostean, gerka-  
rrak apaltzera dei egin eutsen, eta gaberdia izango zan ontzirakoa egiteko Lindos'etik  
urten ziranean.

Uriko itsas-kolko txikitik urten ziranean, zur eta lur geratu ziran ezkerretara eldu-  
barria zan erromatar gudaontzi erraldoi baten mulko illuna ikustean. “Izenbakoa”ra  
biurtzeko, dalako ontzitik ur igaro bear izango leukie, eta arraunak aalik isillen erabi-  
lliz, ontzira urreratu ziran. Andik ez etorkien ezetariko otsik, lo egiteko ordua zalako,  
urrean, besterik aditzen ez zala, uiñen palastada bigunak baiño, oskola jotean. Alako  
baten, txopatik ur egozala, unama lodi bat uretaraiño jausten zala ikusi eban Dan'ek,  
eta patuak eskintzen eutsan alagalako deia zalakoan, ontzira igotea erabagi eban. La-  
gunai urreratzeko agindu eutsen eta laster biurtuko zala esanez, unaman gora igon zan.

Gau illun aretan, ontzi-bizkarrean ez zan ikusten igikun txikienik, eta ganbara bateko leiatillan zear krisaillu batek edatzen eban argiak erakarrita, oin-muturrez urreratuta, barrura begiratu eban...

Ganbara ederra zan, zur bikain eta azpi-oial ederrenakaz apainduta, brontzezko krisaillu dizdiratsupean, dana garbi ta txukun ikusi zeitekeala. Mai baten aurrean, soingaiñeko gorriaz jantzita, berrogei bat urteko itxura atsegiñeko gizon batek idazten ziar-duan. Arin baten oartu zan ontziburua zala, eta eragintza garaiteziñak menperatuta, ganbarako atea edegirik, tximistaren antzera urreratu yakon, eta sastakai zorrotza idu-nean ipiñita, abopean auxe agindu eutsan Dan'ek:

– Oiu bat, eta ilgo zaitut.

Ezustez artuta, erromatarra zurbildu zan, eta mintzo aulez,

– Zer nai dozu nigandik...? –itaundu eutsan–.

– Gero esango dautsut. Orain zatoz nirekin, baiña oi u bat jaurtiten otuko ba'litza-kizu, egusentiko argia ez dozu ikusiko.

– Nora goaz...?

– Laster ikusiko dozu. Abiatu zaitetz txopara, baita aalik isillen be, gero...!

Bizkarrean sastakaiaren mutur zorrotza ebala, erromatarra agindutako lekura joan zan, eta ona elduta,

– Eutsi unama orreri –agindu eutsan–, eta jatsi zaitetz txanelara.

Jatsi zan erromatarra, eta andik laster Dan alkartuta, alde egitea agindu eutsen la-gunai, bidebatez arromatarrari auxe iñotsala:

– Ontziko begirariren batek ikusi ba'gengiz, esaiouzu Lindos urira goazala osteratxu bat egitera.

Zorionez, baiña, gualontziko begirarick leku aretan ezer bereizirik jazo-eziña zalakoan, lazotu izan eben zaintza, eta luzaro barik ontzia ikuspegitik galdu zanean, arraunketearen neurria azkarragotuz, andik ordu-erdira “Izenbakoa”ra eldu ziran. Onen bizkarrera elduta, utsik egoan buruzagi-ganbara batera erromatarra giltzapean jarteko agindu eban Dan'ek, eta jarraian bere asmoa egi biurtzeari emon eutsan. Izarrek adierazoten ebenez, goizeko ordu biak ziran, eta une egokia zala uste izanik, burruka-deia jo-tea agindu eban. Laster aditu zan brontzezko joalearen jote larria, eta arrapalada bizian, erdi-lokartutako gudariak burrukarako gertatu ziran.

Dan'en ainbaketearen arauz, bataz beste iru ordubeteko epea bear izango leukie erromatar ontzia ainguratuta egoan lekuraiño, au da, egusentian gitxi gora-beera. Arraunlariak tostatan jesarri ziranean, lemaren agari oratuta, aurrera joteko agindu eban Dan'ek, arraunketearen neurria oiko egurrezko mailluaz Narkios'ek agintzen ebala. Iru ordubete igarorik, erromatar ontzia eguneko argi-jaiotzean berreun bat metrora ikusi eben, eta aari-burua atarata, arraunketea gero ta ariñago biurturik, egazti arrapariaren antzera, “Izenbakoa” oldartu zan.

Arrezkero, naikoa argi izanik, etsaiaren gualontzia garden-garden ikusi zeitekean. Kaizuz, “Izenbakoa”ren irukoitza zan, eta noizbait, goizeko argipean, oskolean “Tirrenus” izena irakurri aal izan eben. Iru arraun-erreskadakoa zan, ederra ta aaltsua,

erromatar gualontzirik ederrenetarikoa, izan be. Masta nagusitik arro ta astiro ikurriña kulunkatzen zan goizeko aizeño bigunpean. Ordurarte, Dan'ek ikusirik gualontzirik ederrena, zauskada andiak artuta eraso agindu eban, arraunkadea indarren mugaraiño arinduz. Sastakai erraldoiaren antzera, brankapeko aari-burua agertu zan, eta arranoaren arintasunaz “Izenbakoa” oldartu zan.

Baziran amar miñutu-edo, “Tirrenus”eko begirariak etsaiaren eraso oartu ebane-tik, eta guda-deia jaurtita, erromatarrek aingura jaso ta arri-jaurtigai luak gertatu nai ebezaneke, berandu billakatu zan. Aariburuak ozta-ozta uren gaiñaldea miazkatzen ebala, etsaiari saiets baten talkada izugarria jo eutsan; sortutako zulotik eriotzezko zuzmurretan ura borborka sartzen asi zan, eta zauritutako ontzi erraldoia astiro baiña eten-barik ondoratzen asi zan.

Orduko legeari jarraituz, ontzira kateaturiko jopu-arraunlari zoribakoak onekin batean suntzituko ziran. Ondo bai ondo ekian oitura basati au Dan'ek, eta len atxillo egindako “Tirrenus”en ontziburuagana joanda, auxe agindu eutsan:

– Jauna, laster ondoratuko dan zure ontziaren komitreai, egindu egiezu kateaturiko arraunlariak beingoan askatu dagiezala.

Brankako muturrean jarrita, oi bizitan atxilloak Dan'en agindua jaurti eutsen komitreai, eta oneik jopuen morroilloen giltzak erabilten asi ziran. Edozelan be, komitreak ez ziran oartu oraindiño euren ontziburua atxillo zala, eta onen aginduari men egin eutsoen beste barik.

“Izenbakoa”k aariburua etsaiaren erraictatik atara eban, eta arraun-eragiñez al-denduta, goizaldeko aize biguna ustiatuz, oialak zabaldu, eta garailleari dagokion arrandiaz urrundu zan, baiña urrutian galdu aurretik, eriotz-zurrunbillotan “Tirrenus” ostendu zan betirako. Orduko, gosaria artzeko garaia izanik, atxilloa aurkeztu ekion agindu eban Dan'ek, eta bere ganbara apaiñean agertu zanean,

– Jesarri zaitetz maiaren bestaldean –esan eutsan–, eta biok gosaldu ondoren, zure nortasunaren argibideak emongo daustazuz.

Otsin batek gari-urunaz atondutako aia mairatu eban, eta onen ostean kare-artean iraundako arrautz egosiak. Jaten amaitu ebenean, Dan besaulki baten jesarri zan, eta erromatarrari beste bat eskiñiz,

– Orain, Jauna –esan eutsan– zure gora-beera zeatzak emongo daustazuz. Asteko, zein da zure izena...?

– Publio Marzius.

Izen au entzutean, biotz ikara batek asfinduta, une batez mintzamen barik geratu zan, eta gero,

– Zu al-zara, ausaz, orain urte asko “Trasimenus” ontzian nagusitzat ziarduan Silas Marzius'en senitartekoa...?

– Bai, Silas Marzius nire aita zan.

Zirrara andiak artuta, Basamortuko Semea jagi zan, eta besteagana urreraturik, begi sarkorrekaz so egin eutsan une batez, eta gero barrero jesarrita, abots unkituaz,

– Patuaren bide ezktuak...! –ots egin eban–. Nork esango, aitatzat izan neban Urian zintzo ta jakintsua, zure aitak atxillo egingo ebala...!

Isildu zan une batez, eta antxiñako jazokizuna burura ekarrita, mintzo astirotsuaz, eta begiak urrutian jarrita,

– Gero azalduko dautsut –jarraitu eban Dan'ek– Urian armenitarra zelan billakatu zan nire aita, baiña oraingotz zure aitarekin zer-ikusi eban ekintza bateri ekiodan. Ara... Urian armenitar jakintsua Atenas'eko ikusgarriak ikertzeko asmoz, Seleuzia uritik asiritar ontzi baten uri eder aretara abiatu zan. Egun batzuk igarorik, “Trasimenu” izeneko gudalontzia alboratu yakon, eta asiritar ontziak legez eroan bearreko agiriak zirala ta ez zirala, onen bidarietaz jabetu zan. Onein artean egoan nire aita, bere burua zuritzearren aalegindu zan, baiña dana alperrik, “Trasimenu”en nagusia zan Silas Marzius'ek ez eutsan jaramonik egin gura, eta beste zoribakoekin, jopu-arraunlaritzat tosta batera kateatu eban, Komitrearen bederatzi buztaneko katua esaten eutsoen zigor errukibakopean, goseti, zorriz beterik, eta etsiak jota, inpernu aretan eriotzararte itzungi zeiten. Aizea zanean, tira...! baiña beso-indarrez iru arraun-erreskadatan ziarduen jopu areik lerrenak eginda aalegindu bear izaten ebenean, ez dago barbarik arein almena adierazoteko. Komitrearen zigorkada basatiak odol-jario izugarripean jasanez, egunean baiño egunean azkenetik urrago, euren atsedean bakarria eriotzaren besarkadea zan.

Ona elduta isildu zan une batez, eta begi zorrotz, salatariak, erromatarregana jositata, onetaxa jarraitu eban:

– Bein baten, baiña, errukituriko Yahvé'k askabidea burutan ipiñi eutsan, eta gau baten “Trasimenu” Zesarea'ko portuan kairatuta egoala, Urian'ek iges egin eban, eta ganbelu batek lagunduta, basamortuan zear Armeni'ra abiatu zan. Aberrira bidez, baiña, Masada'tik ez urrun, ilteko zorian bertan-beera itzitako ume bat aurkitu eban. Semetzat artu, eta ume aregan jakintza ta bere baitan egoan onena ereintzen aalegindu zan....

Ona elduta isildu zan une batez, eta Urian maitea gomutara ekarretenan jazoten zan lez, aurpegiaren karantza samurtasunez bete yakon. Alako baten, Publio Marzius'en mintzoak bere lengora ekarri eban auxe iñotsanean:

– Esan, Jauna, nor zara...?

Latz-ikara batek astinduta, Dan'ek orduan,

– Urian'ek gaizkaturiko umea naz, eta nire izena, Dan, Basamortuko Semea da. Bai, berak nire aitordeak sarri askotan olan niri esan eroian, maite-maite mintzaten yantanean batez be, eta augaitik izen ori abizentzat artu dot, bene-benetan atsegin dot-eta, Urian'ek jarri eustalako...

Isillunea barriro, eta egoerea jasan eziñik, Publio Marzius'ek,

– Jauna –itaundu eutsan–, niri buruz zeintzuk asmo dozuz...?

– Zeintzuk asmo...? Adu edo patu utsezifak nire eskuetara ekarri zaitu, eta alan bear ori ustiatuz, zer eta zure aita Silas'ek egin eban antzera, ontzi onetako tosta batera kateatu ba'zengidaz...?

– Eriotzera galdu izatea naiago neuke –latz-ikara batek artuta erantzun eutsan erromatarrek–. Neu lako aitorseme batek ezin dau olako laidorik jasan. Il nagizu...!

– Orixe bera eskatuko eutsan zure aitari etsipenak artutako Urian'ek, baiña olan eta guzti be, jopu-arraunlaria biurtu eban. Ez al-deritxazu bidezkoa, zure aita aaltsuak orduan egiñikoa, zeuri egin dakizula...?

– Arren, il nagizu...!

– Ez, ez zaitut ilgo, ezta jopu biurtuko be. Berak, Urian'ek, dagoan lekutik ori egiteko gauza nazala ba'lekus, nitzaz lotsatuko litzake... Ez, berak neungan giza-legea ta lagun-urkoarekiko begirunea irakatsi eustazan, eta orregaitik bizirik iraungo dozu. Orain entzun auxe ondo bai ondo: ontzi onen arazoai emon bear dautset orain, eta au dala-ta, biar jakin-erazoko dautsut nire erabagia. Anartean, aske zara zure aukeran ibilteko. Onezan gaiñera, buruzagi baten ganbaran kokatuko zara, eta gurekin izango dozuz otorduak. Gero arte.

Atxillo egin ebenetik lenengoz, kinka larri aretatik bizirik urten leitekela, bere buruari esan eutsan Publio Marzius'ek, baita itsaslapurra baiño, Dan burutik beatzera benetako Jauna zala be.

Apalostean, erromatarra banazean artuta, areto nagusira eroan eta auxe esan eutsan:

– Egun osoan zear, ezin izan zaitut burutik kendu, zutzaz zer egingo neuken etenbarik gogoan erabilliz. Onen ondoren, ona emen nire epaia, eta ontzat artuko dozula uste dot.

Isildu zan une batez, eta arrenkurak artuta Publio'ri biotza taupada zorotan ebiñkiola, noizbait auxe esan eutsan:

– Diruketa baten ordaiñez askatasuna emongo dautsut.

Au entzutean, Publio'k nasaitasunezko asperena jaurti eban. Izan be, aberatsa zan, aitagandik yarauntsitako ondasunaz gaiñera, emaztetzat emakume aberatsa artu ebalako. Alde onetatik, beraz, oztopo andirik ez. Orduan,

– Zelako jare-i-sari eskatuko daustazu...?

– Ona emen korapilloa –erantzun eutsan Dan'ek–. Alde batetik, ordaindu ezin dagikezuna ez da zuurra eskatzea; bestetik, ordea, ezerezkeri baten ez zaitut aske lagako.

Une batez ausnar egon zan Basamortuko Semea, eta gero,

– Zer deritxazu berrogei ta amar urrezko talento jare-i-saritzat eskatzeari...?

(Aurrera ekin baiño len, elebarri onen egilleak ontzat jotzen dau, aldi areitako diruari buruz zeozker argitzea. Erroma'ko lenengo aldietan, sal-eroste gaian aldaketaz egiten zan. Au, baiña, aurreraturiko gizarte batentzat egokia ez izanik, dirua asmatu eben. Txikiena “as” izan zan, eta onen eroste-gaitasuna, gaurko ogerleko batena izango litzake. Gero, zidarrezko “sexterzi”a garatu zan, eta “as”bi ta erdi balio eban, au da, ogerleko bi ta erdikoa. Onen ostean, zidarrezkoa zan be “denari”a, lau “sexterzi”en baliokoa zana, beraz, amar ogerleko gitxi gora-beera. Goiko maillan urrezko “talento”a egoan, eta urre-zati onek gaur milloi bi laurleko balioko eban.)

Jare-i-saritzat Dan'ek eskatzen ebana entzutean, Publio zeozker kikildu zan. Izan be, aberatsa zan, baiña eskaturiko diruketea batzeko arazo luzea izango litzake, eta berak aalik lasterren aske izatea nai eban. Erromatarrek erantzunik emoten ez ebalako ikustean, Dan'ek osteria,



– Zer deritxazu nire eskakizunari...? – itaundu eutsan–.

– Izan be, Dan, orrenbesteraño badot, baiña diruketa andia izanik, luzaro artuko leuke batzeko, eta ori ez dagokigu, ez niri, ez zuri.

Au egi utsa zan, Dan beti iraduz ebillelako Masada'koai diru-laguntzea bialtzeko. Egia zan, sei illabetero Katamixarra'ren bidez diruketa polita igortzen eutsela, baiña erromatarren aurkako askatasun-gudea atontzeak diru asko iruntsiten eban. Atxilloari eskatuko leuskionak, beraz, geiegi ta gitxiegi arteko oreka edo dendua idoro bearko, eta orduan Dan'ek,

– Begira, Publio –esan eutsan–, berbako gizontzat zaitut. Esaidazu beraz, zenbat diru jaristeko gai izango zintzakez bederatzi illabetero epean. Guzurrea esango ba' zeunskit, zalduntzat zaitudan nire usteak txulut egingo leuke.

Lipar batez isillik iraun eban erromatarrek ainbaketa bateri emonda, eta gero,

– Nire ustez –oldozkor esan eutsan–, batz bestea ogei ta amabost “talento” baietz egingo neuke.

– Ondo da, Publio. Ontzat artzen dot aipatu dozun diruketa ori. Bederatzi illabeteok igarorik, zeuk izendatu dagizun lekura diru orren billa joango da nire ordezkaria, baiña esku-utsik biurtuko ba'litz, jarraituz eta ekanduz legezkoa dana etorriko yatzu. Entzun...?

– Bai, Dan. Baiña edozelan be, ezusteko ezbearra etorri ezean, ziurtzat emon da-gikezu, urrezko orreik eskura etorriko yatzuzala.

– Olan bedi...! Orain berandutxu dan ezkerro, lo egitera joango gara, eta biar gosaldua gero, asmo orren gora-beerak aztertuko doguz. Ondo lo egin.

– Baita zeuk be.

Biamonean, gosaria artuta, mai-ondoan aurrez-aurre jarrita, jarei-sariaren azken zertzeladai emon eutsoen. Onen jarraian, bere anaietariko bateri Erroma'ra eskutitz bat idatzi eutsan Publio'k, aalik azkarren urretan ogei ta amar “talentu” batu egiazan, eta orretarako bearreko jabetasunak saldu egiazala. Mezua idatzita, auxe itaundu eutsan Dan'ek:

– Zein lekutatik elduko da eskutitza aalik ariñen...?

– Nire ustez, Zesarea'ko portutik; emendik Erroma'ra ontziak etenbarik doaz-eta. Eskutitza, uri orretan erromatar agintaria dan Felix'en eskuetan jarri egizue, adiskidea dodan ezkerro, arazoa benetan artuko dau-ta. Argi ta garbi azaltzen dot bederatzi illabeteok igaro ondoren, eskaturiko dirua ez ba'letor, nireak egingo leukela. Edozelan be, oba zerorrek irakurri dagizula nire eskutitza, ia zer deritxazun.

Irakurri eban Dan'ek, eta ontzat emonda, Yaor likaonitarrari dei egin eta auxe agindu eutsan:

– Aizu, Yaor, Zesarea urirantza goaz, eta gau beranduan elduko gara Josue legor-reratu oi dan lekura. Aalik ariñen Zesarea urira joanda, Felix erromatar agintariaren jauregira abiatuko zara, eta mezu au emongo dautsazu, oso garrantzitsua dala esanez. Onen ostean biurtu zaitetz lengo lekura, eta irugarren gabean zure billa joango gara. Argi dago...?

– Bai, Jauna, zeuk aginduta legetxe egingo dot.

Eta asmatua lez jazo zan dana. Yaor Zesarea'tik ontzira biurtu zanean, Dan'eri egingakoaren argibideak emon eutsazan onetaraxe:

– Jauna, zeuk aginduta lez jazo da. Felix'en jauregira joanda, Publio Marzius'en izenean nentorrela jakin baiño ez, arraitsu abetaldu ninduan, eta mezua irakurrita gero, aaleginduko litzakela esan ondoren, andik bederatzi illabetera biurtu neintela diruaren billa. Biamonean gualontzi bat Erroma'ra abiatzeko zan, eta ontziburuak berak eskutitza eroango leuke.

– Ederto, Yaor, oso ondo bete dozu eginkizuna.

Arrezkerro, “Izenbakoa”k oiko lapurretai emon eutsen, erromatar ontziai aalik eta kalterik andiena egiñez. Bitartean, Publio Marzius arrotz ospetsutat erabilen Dan'ek, eta guda-ekintzen artean asti ugari izanik autu luzeak izaten ebezan, guztitariko gaiak erabiliz, jakintza ta ertiarri egokiezanak batez be. Alkarrizketa oneitan Publio'k gora-beera ugariak emon eutsazan.

Erroma'ko jauregi eder baten bizi zan Klodia bere emaztea ta iru seme-alabekin. Bere ondasunak etxalde batzuk ziran Erroma'ko iparraldean, lurgintza ta abelazkuntzari emonda, eta jakiña, oneitan jopu asko ziarduen lanean goizetik illuntzerarte. Aldi areitako aberats eta aitorseme geienen antzera, siñistedunarena egin arren be, ez eba-zan siñisten erromatarren Jaungoikoak. Jaio zanean, bere aitak jaio-barriaren soiña az-tertu eban zeatz, eta akatsbakoa zala ikusirik, semetzat onartu eban. Bestelan, bere aitak baeban eskubidea bertan-bera kalean izteko, ementxe il zeiten, edo baten batek be-re jabetasuntzat artu egian, geroago jopu egiteko olan egokitzeotan.

Semetzat onartuta, aitaren menpean ezi izan zan, eriotzararteko zangartasuna irakasten eutsala. Zazpi urteko zanean, Publio'ren ikastaldia asi zan irakurketea ta idazke-tea menperatu arte. Onen ostean, eliztia, zenbaketea ta edestia. Ikasketa laburraren ostean, aitak etxalde batera bialdu eban, lurgintza ta abelazkuntza ikasi egiazan. Aldizka, aitak Erroma'ra ekarren “Foro'n” ospatzen ziran batzarretara, laterriko arazo garrantzi-tsuak zelan erabilten ziran ikasi egian.

Amazazpi urteko zanean, gualontzi batera sartu eban aitak, bera lez itsastar bil-lakatu zeiten, eta izan be, guda-arauak ondo beteten ikasi eban, buruzagiekiko esane-kotasun itsua izanik, baldintzarik irakatsiena. Agintza-auspenik txikiena eriotzaz zi-gortu egikean gualburuak. Koldar azaltzen zana eriotzararte zigortua zan. Igeslari ta lapurrai eskua moztu oi eutsien. Janaria, ogei ta leka-aleak ziran geienbat. Menpekota-sun eta eginkizunak guztiz nekagarriak ziran ezkerro, gudariak burrukan egiten naigo eben. Amar urte emon eba-zan Publio'k itsasoan, eta epe au igarorik, bere ezkuntza bi-ribildu zeiten, aitak Atenas'era igorri eban, eta emen, erromatarra zan Klodia emakume maratza ezaguturik, maitemindu zan.

Etxera biurtu zanean, aitaren laguntzaz gualontzi baten buruzagitza lortu, eta go-ra egiten asten zanez, Klodia emaztetzat artu eban. Aita il zanean, bera ta anaiaren ar-tean ondasunak erdibanatu ziran, eta oneik andiak izanik, bakotxari zati eder bat jaurri yakon. Ogei ta amabost urteko zanean ontzi bateko nagusitasuna lortu eban, eta beti

gora egiñez, noizbait, "Tirrenus" ontzi eder eta aaltsuaren agintza emon eutsan Erroma'ko senatuak, Ejeo-itsasontzidiko nagusia billakatzen zala.

Oneixek ziran lau itzetan, Publio Marzius itsastar ospetsuaren gora-beerak Dan'eri jakiñerazo eutsanez. Sarri askotan biok eztabaidatzen ebezan, erromatarrek inguruko erriai nai-ta-ez jarten eutsien buztarri astun eta errukibakoa. Urian'egandik artutako ez-kuntza gizabidetsuagaitik, Dan'ek ezin egikean Publio'ren ikuspegia ontzat artu.

– Begira, Publio –esan oi eutsan–, ezin ontzat artu inguruko erriai buruz darabiltzuen jokaera basatia. Aaltsuagoak zarielako, munduko jaun eta jabetzat jokutzen dozue, auzoko erriak zoribakoak biurturik. Baiña inguruko ondasunen jabetzaz ez zarie asetzen, eta zuen basakeri itsuan, garaituriko lurraldeak jopu biurtzen dozuez. Onezaz gaiñera, opariak eskindu arren ez dozuez zuen Jaungoikoak siñisten. Guztitariko griña gaiztoen menpean irauten dau zuen bizitzak, iñoren emaztearekiko begirunea zer dan ez dakizuela. Soin-akatsaz jaiotako seme-alabak bertanbera izten dozuez kalean il daitezen edo arimabako kaletarren batek artu dagiazan jopu biurtzeko. Endekatzearen bi-detik zoaze aragi-irrikaren otseñak biurtuta, eta egunen baten Yahvé'k zigortuko zaitue, zapaldutako albo-erriek zuekan mendekua artuko dabela. Odol eta malakoak eraiki nai dozuen agintzakeria, egunen baten zuen kalterako biurtuko da, eta besteai ekarritako zorigatxa zuekan ezagutuko dozue.

Burubide oneik entzutean, Publio aal eban lez jarkitzen zan, auxe iñotsala:

– Onartzekoa da munduan guztitariko gizakiak dagozala, eta augaitik askotariko eritxi ta jokabideak izanik, bidezkoa derist, ondoen gerturik dagoanak agintza-ugalak artu dagiazala, bestelan erri basatien menpean izadiak gorriak jasan bear izango leukez. Begira, Dan: sendi batek aitaren agintzea onartu ezean, laster txulut egingo dau...

– Ez niri ziria sartu, Publio. Burubide zentzunbako batatz, ez niri iruntsi-erazo erbestekuok erromatarren agintzakeria onartu bear dogula. Isareldarrok, eta geu lez beste erriek, ez dogu Erroma'ko kaiserren babesik bear bizi aal izateko. Orra or judutar erria munduan zear alderrai dabillega, bere aberriaren etorkia indarrez kendu izanik, atzerriko ogi mingotsaz bere burua janaritu bear daua. Joputasuna baiña oba eriotza, eta augaitik, Palestina'n bagara abertzaleak Israel'en alde bizitza emoteko gerturik; orra or zelatariak Palestina'ko leku batzutan askatasunaren ordua noiz etorriko dan begira, bai, Mesias'en garaiaren begira, erromatar artotza aberritik-at jaurtiteko ordua irrikan itxaroten dabela...

Isildu zan une batez, eta gero,

– Emen nozu –jarraitu eban–, maite ez dodan jardun bateri emonda, itsas-lapurretari, alegia. Ez yat bape atsegin, baiña zapaltzailleari kalterik andiena eragitearren, eta nire aberkideai diru-laguntza emotearren, gogokoa ez dodan ekintza batera buru-belarri sartuta nozu. Zuek indarra darabiltzue ainbat eta ainbat erri zapaltzeko, eta onein lepotik dirua parrastaka ataraten dozue, ustelkeri, lizunkeri, eta nagikeri iguingarrian bizi izateko, baiña egunen baten Yahvé'ren asarre ta asperkundera etorriko yatzuez, eta orduan, zuen azkenaren izugarria...!

Izan be, ezin egikean Publio'k benetako burubidea aurkezten erromatarren jokabi-

dea zuritzeko, eta bere baitan Dan zuzen egoala autortu bear eban. Baziran, baiña, al-kartu egikeazan beste gai asko; jakintza, erria, izadiztia etabar. Augaitik, orduak eta orduak gai sakonak aztertzen eta eztabaidatzen emoten ebezan. Onen ondorioz, eta barrutik gai askotan antzekoak izanik, gero ta adiskideago, erakarriago, oartzen ziran, eta izan be, jarritako bederlatzi illabeteko epe aretan, oartzeke, euren artean adiskidetasun zintzo baten lokarri sendoa sortzen asi zan, eurok uste izaten eben baiña indartsuagoa...

Aspaldi aretan, etsaiari galtzai andiak ekarri eutsezan Dan'ek, erromatarrek Ejeo'ko gudalontzidia indartu bear izateraiña, baiña Basamortuko Semeak etsaiak jarritako sareetatik igazten zan, atzieziña izanik, "Izenbakoa"ren arintasuna, bere adimen argia, eta menpekoen eraspén eta adorea gaitik. Geienetan, etsaiaren ontziak ondatu aurretik, arakaten ebazan eroiezan diruaz, bitxiakaz, baita bearreko jangaiakaz jabetzearren, eta gero, aariburuaz urperatzen ebazan. Diruketa andi samar biltzen ebanean (berea ta Katamixarra'rena, izan be), len aipatu danez, Jeriko'ra bialtzen eban Masada'ko zelatarientzat, bearreko jangaiak eta iskillioak erosi egiezan. Publio atxillo zanetik, oneitariko bialketa bi egin ebazan, eta oneiri esker, Masada'ko giro gudakioak irauten eban.

Publio Marzius'en sendiak eta adiskideek jarei-saria batu egien epea urreratu zan, eta gau baten Yaor likaonitarra joanda, Zesarea'tik idazki bat ekarri eban Publio'rentzat.

Idazkia Publio'ri emoteko agindu eutsan Dan'ek, eta beronek une aretan arazopetuta egoan ezker, erromatarregana gero joango zala. Eskuarteko arazoa amaituta, Publio'ren ganbarara joanda, onek aurpegia eskuen artean ebala ikusirik, suzmo txarrak artuta, auxe esan eutsan:

– Noizbait, etxeko barriak eldu yatzuz, antza, zer diñostazu...?

Aurpegia jaso eban Publio'k, eta begiratze motelean atsekabe larria marrazten ya-kola, mintzo aulaz,

– Nireak egin dau...! –esan eutsan–. Itxaroten neban jarei-saria ezin dagiketsut ordaindu... ni ta niretarak ondatu gara...!

– Zelan daiteke ori, baiña...?

– Ara... Erroma'ko senatorea dan Silio, Klaudio kaiserraren aurkako azpi-joko baten arrapatu egin dabe, eta eriotzera galduz gaiñera, beraren eta senitate guztien ondasunak laterriak baitu egin dauz. Dalako Silio senatorea lengusu dodan ezker, bai neuk bai nire anaiak ondasun guztiak galdu doguz. Ai ene, zer billakatuko dira nire Klodia zintzo maitea, eta nire iru seme-alabak...?

Isillik irau eban Dan'ek itz bat bera be esan barik. Ogei ta amairu urrezko talen-toak diruketa andi-andia zan, eta laguntza ori Israel'eri alagala etorriko litzakio zapaltzaillearen aurka etorteko zan burrukeari laguntzeko. Abagune au galdu izan zan, eta ustel urtendako egitasmoak atsekabe andia eragiten eutsan... Gogoeta illun oneitan murgilduta egoala, Publio'ren itzok aditu ziran, auxe iñotsala:

– Orain badakizu egia: ezin dagiketsut jarei-saria ordaindu, eta ereti oneitan oikoa dana egizu. Eriotz duiña emon dagidazula eskatzen dautsudan gauza bakarra da, eta

zerorren eskuz, izan be. Zure biotza zintzoa da, eta zure ezpata garbia. Zeugandik beste gauza bat nai izango neuke: nire emazte Klodia'ri ta seme-alabai idatziko dautsedan agur-idazkia, Erroma'ra eldu-erazo dagiezula. Ordubete bien buruan zatoz ona, gerturik aurkituko nozu-ta...

Itz bat bera be esateko gauza ez zala, ganbaratik urten zan Basamortuko Semea. Arratsbeera zan orduko, eta "Izenbakoa"ren branka zorrotzak itsasoa ildokatzen ebalu, eskudelan besoak kokatuta, Dan ausnar geratu zan urrutiari begira. Argi egoan itundutakoa: jarei-saria ala eriotza edo joputasuna. Aldi areitan, jarraituz eta ekanduz olan erabilten zan, eta oitura oneri erromatarrek ez eutsoen ukorik egiten... Publio'ren ganbaratik urtetean, baiña, ondo ekian Dan'ek ezin egikeola eriotzarik emon. Barruan ondo sustraiturik, Urian'ek irakatsiak irauten eban argi itzungi-eziñaz, eta burrukaren odola ta izugarria sarri-askotan ezagutu izan arren, bere menpean eban atxillo indargea, ezin egikean eriotzera galdu. Gaiñera, alkarrekiko ezagutzatik, begirunea sortu izan zan, eta gero oartu barik, ederrespena. Ezin egikean aztu, Publio bere erriaren zapaltzailetarikoa zala, baiña orren gaiñetik bere ezkuntza gizabidetsuak barkapenera eroian.

Publio'ren ganbarara sartzen zanean, itsasoaren besarkada gorri ta ozkirria arteko, eguzkia makurtzen zan dana urre ta odola biurtuz. Erromatarra jagi zan eta eskutitza luzatu eutsan auxe iñotsala:

– Torizu nire etxekoentzako idazkia. Il aurretik esan gura dautsut nirekiko ona ta adeitsua izan zarala. Orain, il nagizu lenbailen, eriotzaren begira luzaro egotea larria da-ta. Sartalderantza begira nire azkena nai dot, niretarrak dagozan lekurantza. Nik eta nire erriak zeureari ekarritako nekaldi, oiñaze ta joputasuna, barkatu dagiskuzuzala eskatzen dautsut. Ez dodaz Erroma'ko jaungoikoak siñisten, nire itxaropena beteten ez dabelako, baiña baleiteke benetako bat izatea, eta olan ba'litz, bere magalean artu nagiala eskatzen dautsat, gizakiek gure baitan illezkortasunarekiko irrika sustraituta dogu-ta. Agur, Dan, betirarte.

Une batez irribarretsu begiztatu eban Dan'ek, eta gero,

– Ez dautsut eriotzik emongo, Publio –esan eutsan–. Erroma'ra biurtuko zara emazte ta seme-alaben besoetara. Berbatua bete egin dozu, eta jarei-saria ekartea ustel urten ba'yatzu, ez zara errudun, adu edo patu igeskorra baiño. Biar gabeen Zesarea-ondoko gure oiko tokira eroango zaitut, eta luzaro barik, nik uste, etxerakoa egingo dozu.

Korapillo bat eztarrian, Publio'k ezin izan eutsan beste erantzunik emon aal, begietara etorri yakozan malakoak baiño. Bere lengora biurtu zanean,

– Ez yat iñoiz aztu egingo –unkiturik esan eutsan–, nire alde egin dozuna. Jarraibide ederra emon daustazu, iñoiz aztuko ez yatana, izan be. Egunen bat ordainduko al dautsut nirekiko erakutsi dozun arimaren anditasuna...!

Aginduta lez, biaramoneko gabeen, Publio "Izenbakoa" izteko gerturik egoan. Beean begira eban txalupara jatsi aurretik, biurtu zan, eta Dan'eri auxe esan eutsan:

– Besarkatu nagizu, Dan. Zu urretik ezagutu ondoren, etsaia baiño ania zaitut. Zure Jaungoikoak onetsi zagizala... Agur...!

– Agur, Publio. Ez dautsut besterik eskatzen, etsaiarekiko errukitsu azaldu zaitezala beti, nire erriarekin batez be.

– Olan izango da. Ez dautsut esan bear, nire etxeko ateak zabalik izango dozuzala beti. Agur...!

Iretargi zuritan txanela urrundu zan ikusteziña biurtu arte. Ontziko eskudelan besoak jarrita, luzaro iraun eban Dan'ek bere buruari itauntzen eutsala, egunen baten Publio Marzius erromatarra barriro ikusiko ete...

Eta barriro be itsas-lapurretari emon eutsan Dan'ek, aari-buru eraillkorraz ornitutako "Izenbakoa" ontzi ariñaz, eta eriotzararte jarraituko leuskion itsastar-talde zangar eta adoretzuaz. Bildur andia eutsan erromatar gudaontzidiak, eta Basamortuko Semea atxillo edo il egianari sari andia eskiñi arren be, zisne erraldoiaren antzera, "Izenbakoa" garaiteziña azaltzen zan. Aldiaren bidean, amaika ezkutune egokiak ezagutu eban Dan'ek etsaiagandik iges egiteko, baiña berak erasotea erabagiten ebanetan, arrano arapagaiari oldartzen yakon lez, etsaiak ez eban aukera andirik onik urteteko.

Eta beti lez, Mesias'en agerpenari arimaren joranik andienaz itxaroten eutsan, baiña irrikaturikoa Palestina'ko ortzipean agertu ez arren be, bere itxaropenean irmo jarraitzen eban Dan'ek. Edozelan be, Idazti Deunak Aren etorrerea iragarten eben, eta onezaz gaiñera, Dina bere amak Mesias'en billa joan zeiten agindu eutsan eriotzaldian, eta berak zor nai lor billaketari jarraituko leuskio...

Aldi aretan, Kristo - garaiko 54garren urtean, Klaudio kaiserra il zan, dirudianez bere emazte Agripina'k atondu eutsan edenduriko perretxiko-jaki baten bidez. Orduan aren suiña zan Neron'eri agintaritzza etorri yakon, eta onen ondorioz, Publio Marzius'en egoerea itzetik ortzera aldatu zan. Len aipatu izan danez, Erroma'n aalmen andia eban Silio'k Klaudio'ren aurka matxinada bat asmatu eban, agintza-aulkitik jaurtitearren. Azpi-jokoa, baiña, orren aurretik ezaguturik, Silio eriotzara galdu eban, eta onen lengusua zan Publio Marzius'ek ondasun guztiak galdu ebazan.

Neron'ek agintaritzza artu ebanean, eta aolkularitzat Séneca izanik, azken au Marzius'tarren adiskide andia zan ezkerro, luzaro barik lortu eban, Marzius sendiari kendutako ondasun ta izen ona, atzera emon ekiozan. Onen ondorioz, Publio, Grezi-aldeko erromatarren gudalontzidiaren nagusia billakatu zan, au da, Ejeo-Joniku itsasoan agintaritzza.

Garai onetan, eta Dan'ek itsasoan ziarduanetik amar bat urte igarorik, bazala eretia aberrira biurtzeko erabagi eban, eta ontziaren agindua Narkios grezitarrari emonda, goizalde baten Katamixarra'k lagunduta, eta diruketa bat eroiela, oiko Zesarea-ondoko ezkutunean legorreratuta, Masada'rako bidea artu eban. Diru-lorketea egiteko asto bi erosi ebezan baserri baten, eta iñoren suzmoak uxatzeko, diru-zorroak galtzuz estaldu-ta, Zesarea'tik urtenda, Esdrelon lautadatik, Djenin, Sebaste, Naplus, Sikem, Fasael eta Arkelaede'n zear Jeriko'ra abiatu ziran. Iru egun igarorik, Katamixarra'ren osabearen etxera eldu ziran.

Jair'ek txeratsu abetaldu ebazan, Dan batez be, amar urte baziran azkenengoz ikusi ebala-ta. Uri onetan egun bi emon ostean, goiz baten egorantz jo eban, eta andik egun bitara, illunabarrean Masada'ko azpikaldera eldu ziran. Biaramonean, suge-bidexkan gora bideratu ziran, eta ibillerea astoen tipi-tapa astirotsuari egokituz, noizbait goikaldera eldu ziran. Tontorreko begirari batek igoten ikusi ebazan, eta gora eldu orduko, Akai'ren agintzapean lerro-lerro jarrita, ango zelatarien Ongi-etorri maitetsua artu eban. Dan'ek eta Akai'k besarkeda maitetekorraz alkar agurtu eban, eta jarraian bazartegira abiatu ziran, gudarien, emakumeen eta umeen oiü adoretzuek lagunduta. Aretoan, Dan'ek itzaldi laburra egin eutsen, bere poza adierazoz, ain luzaro ondoren bere erritarrak ikustean. Masada'ko gudarien izenean, Akai'k bere atsegiña azaldu eban, baita eskerrona be ekarren diruketeagaitik. Zarrastada andipean egiztatu eban Dan'ek beretarrek eutsoen maitasuna, eta gudariak banan-banan agurturik, Akai'ren etxera abiatu zan, Masada'ko nagusiarekin bazkaria izateko.

Onen ostean, Dan'ek,

– Esan Akai –itaundu eutsan–, zelan dago gure gudarostea...?

– Ondo, esango neuke, Dan. Zure laguntzari esker iskilloz eta janariz ondo orniturik, gure gudarostea anditu egin da, eta Palestina'ko toki askotan amarrekoak sortu doguz, etenbarik ugaltzen dirala, Herodes'ek sortutako Herodium eta Makeronte gazteluetan batez be. Gaztelu oneik Masada'z batera iruki indartsua eratzten dabe, gure garaiaren begira gerturik doguzala, eta ori dana zeuri zor dauzugu, bialdutako diru-laguntza ugariagaitik.

– Eta Mesias'eri buruz, zer diñostazu...?

– Ezer gitxi, Dan. Azken aldiotan Palestina'n zear kristau izeneko judutar-taldeak sortu ei'dira, Nazaret'eko Yosu edo Yosukristo'k irakatsiari jarraitzen dautsoenak, Jaungoikoaren Semetzat edo Mesias'etzat aldarrikatuz, baiña...

– Baiña zer...?

– Dalako Yosukristo Golgota ganetxuan gurutzean josita il ei'zan.

Latz-ikara batek artuta, gogora etorri yakon Dan'eri, amar bat urte lenago arratsalde aztu-ezin aretan ikusi ebana: beste gurutz bien artean gorpua zan gizon aren irudi zauskagarria...

– Zoro bat izango zan –jarraitu eban Akai'k–, bere burua Mesias'etzat aldarrikatu ta gero, gaizkille baten antzera amaitzeko. Non dago ba, Israel'eri ekarri bearko leuskiozan, askatasun, aintza, eta anditasuna...?

– Tokiren baten egongo da bere garaiaren begira, eta orduan, zelatarien gudarostea inguruan batuko yako, Israel lengora biurtu daiten. Bitartean, erromatar zapaltzaileari kalterik andiena egiñez, Ejeo-Joniku itsasoak zearkatzen jarraituko dot, eta bialdutako dirua zuei emoten aaleginduko naz, Mesias'en garaia eldu arte...

Luzaro iraun eben adiskide biok berbetan, guztitariko egitasmoak etorkirako egiñez.

Iru egun emon ebazan Dan'ek Masada'ko zelatarien artean, baita atsegin andiaz be, Akai'ren zuzendaritzapean gudariek lortutako iskillotrebetasuna ikustean. Irugarren egunean goizean goizik, alboan Katamixarra ebala, gudaritalde txiki batekin Herodium gaztelura joan ziran. Leku onetan Herodes'en gorpua obiratu izan zan, Kristo aurreko 4'garren urtean il zanean. Mendixka au txuntxur erakoa zan, eta gaillurrean zelatarien talde batek egoitza eban. Poztu zan, talde onen gaitasun eta adorea egizatzean, eta gaba an bertan emon ondoren, urrengo egunean itsaso Illa'ren iparreko ertza inguraturik, Wadi Qumran'etik ez urrun, egorantz jo eben, eta egun bi geroago Makeronte gaztelua ikertu eben. Emen ikusi ebanaz poztu zan Basamortuko Semea, gudari-talde onen gudarako gaitasuna onenarikoa zan-eta. Arraitsu artu eben Dan, leku onetan egun oso bat emon ebala.

Masada'ra biurtuta, egotaldia amaitutzat emon eban Dan'ek, baiña itsasora biurtu aurretik, beste ikerpen bat egitera bultzatu eban biotzak: nabatetarren Milea barriro ikustea, izan be. Olan jakiferazo eutsan Akai'ri, eta eskukada gudariek, Akai lagun ebala, goiz baten basamortuan zear, egoko zuzenbideari jarraitu eutsoen. Egun bi iga-

rorik Milea'ko sarbidera elduta, oraindiño bizirik zirauan Gael'en besarkada maitetsua artu eban.

Iru egun emon ebazan maite-maite eban txoko onetan, ume-gaztaroko egun zoriontsuak gogora ekarrezala. Urian'en obia ikertu eban, eta zarrastada andipean luzaro egon zan leku aretan, aitordearen oroitza gogoan laztanduz. Gael'en etxean kokatu zan, eta azken gabea, biaramonean joateko zan-eta, auxe itaundu eutsan:

– Esan, Gael, maite orrek, zelan bizi zarie orain...?

– Ondo, Dan, bear doguna baiño geiago biltzen dogu-ta. Gure erria pozik bizi da Yahvé'ren legepean.

– Ez dozue arrotzen erasorik jasaten...?

– Aspalditik ikasi dabe bagarala nor gure erria babesteko, eta gau ta egun begirariak jarri ondoren, ez doguz iskillorik erabili bear.

– Aizu, Gael, zer billakatu da Yaina zure billoba zoragarria...?

– Orain zortzi urte-edo ezkondu zan gure mutilletariko on batekin, eta senar-umeekin zoriontsua da.

Oldozkor geratu zan une batez, eta gero,

– Bera lako emazte ona gura izango neban, baiña nire aduak eragotzi daust...

– Egunen baten aukera ori aurkeztuko yatzu, Dan.

– Ez dot uste... Erromatarren aurkako burruka amaiteziñak ez daust lagaten olakorik. Urteak bayoadaz aurrera, eta ez dakit...

– Zein adiñekoa zara...?

– Ogei ta amabost urtekoa.

– Orren zaarra ez dozu emoten ba. Egunen baten aukerea etorriko yatzu.

– Zaila izango da, edozein erietan eriotzak atean oles egingo daust-eta...

– Geratu zaitez emen, Milea'n, eriotzaren orde, zorionak zure atean oles egin dagian.

– Ezin naz geratu, gure Mesias aurkitu bear dot-eta. Anartean ez naz geldituko, indar ezkutu batek orretara naroa-ta...

Biaramonean, Gael eta aspaldiko beste lagunak besarkaturik, bere jarraigoarekin Masada'ra jo eban Dan'ek, eta irugarren egunean Suge-bidexkara eldu ziran.

– Agur, Akai ta lagunok –mintzo itunaz esan eutsen.

– Ez zara etorriko gurekin goraiño...?

– Ez, biurtzeko orduak jo egin dau niretzat, eta itsasora noa barriro.

Akai'k estu-estu besarkatu eban auxe iñotsala:

– Agur, Dan, maite ori, Yahvé'k gorde zagizala gure aberriaren onerako. Noiz biurtuko zara...?

– Nik al dakit...! Simunek, basamortuko aizeak andikorik ortikora eroandako ondar-kizi baten antzekoa naz... beti alderrai, non geratuko nazan jakin barik. Agur, Akai, betirarte...!

Au esanik, eta barruko zarrastadea ezkutatzegaitik, Katamixarra'k erraikiola, iparrera jo eban.

– Nora goaz, Jauna...? –itaundu eutsan eskutariak–.

– Zesarea-ondoko ezagutzen dogun lekura. Gaur amabost, “Izenbakoa” gure billa etorriko da, baiña orren aurretik egun batzuk emongo doguz Jerusalem'en, uriburu onen ikusgarriak, Jauretzea batez be ederresteko.

– Jeriko'n zear joango gara...?

– Ez, Jerusalem'era bidez ez dago-ta. Ebron eta Betani'tik joango gara.

Abiatu ziran ba iparrerantz, eta iru egun igarorik, Benjamin atetik uri deunera sartu ziran. Dan'ek aurretik igorri eban Katamixarra, aspaldiko adiskide ta abertzalea zan Neftali ostalariarenean, eurontzat lekurik ete egoan itauntzeko. Dan eldu zanean, ostatuko atean Neftali begira eban, eta adeitsu arturik, etxeko ederrenetariko gela bi atondu eutsezan.

Astebete bat bere aukeran izanik, uriko edertasunak astiro begiztatzea erabagi eban Dan'ek, egunero ikerraldi luze bat Jauretzean emotea asmatzen ebala.

Baziran urte batzuk, Suria asiritarrak, Polibio gudaiburuaren euneko baten gudaritzat ziarduala. Erromatarrek, menpeko lurraldeak ustiatzen ebezan gudariak batzeko, eta Dan'ekin izandako burrukaren ostean, “Kaio Txikia” belaki-ontzia laga ebanetik, Zesarea'ra joanda, Polibio'ren agintzapeko euneko baten izena emon eban, eta gazte urtena izanik, andik laster amarburu billakatu zan. Argitu bear da emen, garai aretako erromatarren gudarostea 28 lejiñokoa zala, lejiño batek 6.000 bat gudari ebazala amar gudatalde (kohorte, batalloi) etan bananduta. Gudatalde bakotxa, beraz, 600 gudarikoa zan, edo 6 eunekoa. Eunekoa amar amarrekkoa zan.

Aldiaren joanean, Polibiok gora egin izan eban, eta Jeriko'n ezaguturiko euntaria, orain gudatalde baten burua izanik, menpean sei euneko ebazan. Bere agintaritzan Jerusalem'en kokatzen zan, Palestina osora edatzen bazan be. Orduko, ondo ezagutzen ebazan judutarrak eta onein lurraldea; arrenkura gitxiko gizona zanez, erromatar legea esku gogorraz jarten eban, eta agintari ankerreko ospea irabazi eban, bere legerik beñena izanik, zelan edo alan gora egitea.

Goiz aretan opor izanik, Suria asiritarrak uriko azoka ikertu eban, eta onen ostean, gudaletxea egoan uriko goikaldera iradu barik abiatu zan. Gudaletxea “Baratzen” izeneko ate-ondoan egoan, Jaffa'ren bide-gaiñean, izan be. Goiko urigunera joiala, berearekin gurutzatu zan gizaki txairo baten ibillerak gogoa eroan eutsan, eta arrituta, bere buruari itaundu, ezagun batena izango ez ete... Ustekabez, “Kaio Txikia”n ezaguturiko judutar indartsu ta gorrotagarria burura etorri yakon, bai, sari andipean billaturiko erromatarren etsai amorratua, Basamortuko Semea ez al-zan...? Au ziurtatzearren, urrundik samar jarraitu eutsan, aurrez-aurre ikusteko eretiaren begira. Sari andia eskintzen zan itsas-lapurra atxillo egiteko argibideren bat erromatarrai emongo leuskienari, eta asiritarrak ez eban aukerea galdu gura.

Gizon aren atzetik Jauretzean eldu, eta aren jarraian barrura sartu zan. Alako baten, aurpegia jasota ikusi eban, eta urreraturik, saietsetik begiztatu eban... Bai, Dan berbera zan. Amaitu ebanean, isil-ostuka Jentillen ateraiño jarraitu, eta beti aren atzetik goiko urira eldu zan. Emen, Neftali'ren ostatura sartzen ikusi eban, eta irriño isekaria aurpegian marrazten yakola, Jaffa'rako bidearen gaiñetik eraikia zan erromatar gudaletxean sartu zan. Astirik galtzeke bere euntariagana joanda,

– Jauna esan eutsan–, Polibio gure nagusia ikusi gura dot.

– Lanpetuta dago orain.

– Arazo garrantzitsu batek nakar. Esaiozu, arren bai arren, artu nagiala.

Joan zan euntaria, eta andik laster azaldu zan auxe iñotsala:

– Sar zaitezala diño.

Suria nagusiaren aretora sartu zanean, Polibio'k menpeko bateri agindu batzuk emotsazan, eta amaitu ebanean, Suria'ri mintzatuz,

–Metelo euntariak –esan eutsan– niretzat badozula zeozer diñost, baita ardurako arazoa be. Olan izanik, asi zaitez.

– Jauna, Erroma'ko etsairik andienetariko bat ikusi-barri dot.

– Nor da etsai andi ori...?

– Basamortuko Semea...

Tximistak jota lez jagi zan Polibio, eta Suria'ren besoari eutsirik, mintzo erlatsaz,

– Non da bera...?

– Goiko uriguneko ostatu batera oraintxe bertan sartzen ikusi dot, Neftali'renena, izan be.

Astirik galtzeke, Dan atxillo egiteko gerkunai emon eutsen Polibio'k, eta andik laster, eskura ebazan iru amarrekoekin Naftali'renena abiatu zan, eta amarreko bat atean jarrita, beste ogei gizonekin gelak arakatzen asi zan. Gudariak egiñiko zaratea Dan'en entzumenera etorri zan, eta sen ezkutu batek eraginda, leiora urreratu zan iges egiteko asmoz, baiña kalea gudariak zainduta egoala ikusirik, oiko ezpata biak artuta, ostatuko zurubira oldartu zan, baiña atzetik eta aurretik inguratuta, igarobide estu aretan ezpatak nekez erabilkeza, atzetik besoari oratu eutsoen, eta basakatu baten amorruz jarki arren be, atxillotu eben. Andik laster, eskuturrak lotuta, erromatar gudarien artean kalera urten zanean, irriño isekaria ezpanetan ebala, aurrean Polibio ikusi eban, eta orduantxe bere burua iltzat emon eban Basamortuko Semeak.

Laster eldu ziran gudaletxean, eta mai batez bestaldean jesarrita, Polibio etsai amorratua barriro ikusi eban. Onen ondoan, eta aurpegia pozaren-pozez argituta, Suria asiritar sugedorriak Polibio'ri auxe esan eutsan:

– Jauna, auxe da aspalditik billatzen zenduan gaizkillea, ezta...?

– Bai, Suria, eta agindutako saria jasoko dozu. Onezaz gaiñera, zure burua Erroma'ko zerbitzari ontzat azaldu dozun ezkerro, gaurko zure laguntza gogoan izango dogu, egunen baten euntariaren jarduna jaritsi dagizun.

– Eskerrik asko, Jauna. Badakizu zure alde nözula Erroma'ren arerioak zapaltzearen.

– Ori, gora andia egiteko lagungarria izango dozu. Orain, joan zaitkez, judutar zikin onek eta biok autu bat izango dogu-ta.

Biok bakarrik geratu ziranean, irriño maltzurraz, auxe esan eutsan Polibio'k:

– Zareana-zareala Basamortuko Seme ori, oraingo onetan eskuetatik ez zaiataz ostenduko, ez orixe...! Ereti bitan iges egin daustazu, oroitzen al-zara...? Lenengoa Jeriko urian izan zan, baitutako zure lagun batekin anka egin zenduanean, eta bigarrena, emen, Jerusalem'en bertan, Samaritarra izeneko jatetxetik, beste lagun batekin ezpata-ukaldiakaz, iges egin zenduanean ez dakit nora. Irugarren onetan, baiña, ez zaiataz eskuetatik galduko; eta bein betiko, txarto egiña ordainduko dozu, eun bizitza izango ba'zendukez be, erromatar aginterriari ekarritako kaltea ordaintzeko. Orain itaun batzuk egingo dautsudaz, eta ez niri ziria sartu, gero, bestelan...!

Besaulkian egokitu zan Polibio nasai-nasai, eta gero,

– Norekin zagoz Jerusalem'en...?

– Ez nago inorekin, bakarrik etorri naz-eta.

Itxura pekotiz begiztatu eban erromatarrek, eta,

– Non dago zure ontzia...?

– Ejeo itsasoan zear, urrean.

– Itsasoan barik, zergaitik zagoz Jerusalem'en...?

Unetxu batez ezpaitsu geratu zan Dan, baiña bereala,

– Ara, Polibio ospetsu ori –erantzun eutsan–, ama geisorik zalako barriak etorri yatazan, eta bera ikustearren legorreratu nintzan.

– Nongoa da zure ama...? Ez niri guzurrik esan, gero, egia laster egiztatuko dot-eta.

Baekian Dan'ek, aal izatekotan Polibio aaltsuak bere amaren erria ikertuko leuke-la, eta augaitik, arakatu-eziña zan nabatetarren lekua aipatzea otu yakon, eta,

– Nire ama, Milea'n, nabatetarren errian bizi zan.

– Il ete da...?

– Bai, eta orregaitik biurtu naz.

– Nora biurtu baiña...? Emen ez dozu itsasoratzerik. Non alkartuko zintzazan zure itsasontziarekin, eta onen itsastar madarikatuekin...?

Barriro be, egiztatzetik ez eban leku bat otu yakon Dan'eri, eta,

– Kinaros'en ekialdean datzan ugarte baten.

Polibio'k bitartean, zertzelada oneik papiro-txatal baten idazten ebazan, eta gero barriro,

– Zein izenekoa da zure ontzia...?

– Ez dau izenik. Orregaitik “Izenbakoa” esaten dautsoe.

– Zein da ontziaren ikurriña...?

– David'en izarra.

Au entzutean, asarre baten jagi zan Polibio, eta matrailleko indartsu bi amon eutsazan. Bildurtu barik Dan'ek begiratu eutsan, eta begi sarkorrek erromatarrenetan unztaturik,

– Ori ez da Jaun bateri dagokion jokabidea.

Barriro be, Polibio'k jaso eban eskua joteko, baiña Basamortuko Semearen begi bildurbakoak berenetan erdeñuz jarrita ikustean, beste barik jesarri zan ostera, auxe inotsala:

– Nork eta itsas-lapur batek niri gizabideak irakatsi...? Entzutekoak entzun bear be...! Zure burua garbitzeko aretia laster etorriko yatzu, eta orduan zelakoa dan Basamortuko Semearen nortasuna ezagutuko dogu.

Isillune bat, eta gero,

– Zenbat erromatar ontzi ondoratu dozuz...?

– Zaila da, benetan, orreri erantzun egokia emotea, erromatar eta oncin alde ziar-duen beste lurraldeetako ontziak urperatzen nebazan-eta. Baiña ugari izan dirala baieztu bear dautsut.

– Eta olan, ezetariko damu edo zimikorik bage autortzen dozu, munduko nagusi ta ongillea dan Erroma'ri zeuk ekarritako ondapen eta kaltea...? Ez al-dozu lotsaren izpirik egindakoagaitik...?

– Erroma munduko nagusia izango da, baiña ezelan be ez ongillea, gaizkillea baiño. Zuek manperaturiko lurraldeak ondaturz gaiñera, ankapetzen dozuez, eta arein ondasunakaz jabetuz gaiñera, erritarrak jopu biurtu, gose-aloger baten ordaiñez, erromatarrek lan egin barik bizi daitezen, eta zirkon edo jolastokietan zeuok zapal dutako gizasemeek alkarren aurka burukatuz, area odoldu dagien... Ori da zuen “Pax Romana”... Bai, obitegiko bake ta isillaz menperaturiko ainbat lurralde ta onein erritarrak, Israel nire aberria zapaldu dozuen lez zergakaz, eta zuen basakeria onartzen ez dabena, aurrean darabiltzuez piztiak bai'litzazan. Ara... Palestina'ra sartu zarienetik, zuen bake usteldu ori jarteko atxakiaz, gure erria guztitariko zuzenbagekeriz ondatu dozue, eta zuekandik iges egitearren, judutarren kopurua gitxitu da nabariki nonai sakabantuta, atzerriko ogi mingotsa malkoakaz buztita jan bear dabela.

– Ori egin ba'dogu, judatar askok lagundu dauskuelako da. Ara Herodes'ek eta onen ondorengoek.

– Zapaltzaillearen eskuari mun egiten dautsoen judutarrak ez dira asko, banaka batzuk baiño. Erria ta arbasoen legea zapaldu dabezan gitxi orreik zuek erositakoak dira, arimea saltzeko gerturik eskukada urrearen ordaiñez. Gaiñera, aipatu daustazuzan Herodes-eta, es ziran judutarrak jatorriz, idumetarrak baiño.

– Israel'en alde Herodes'ek asko egin eban, esaterako, Jauretxe ederra birreraiki; Zesarea portu ospetsua egin, Sebaste uri ederra sortu, ur-lorketa ugari erretenen bidez Palestina'ko urientzat, etabar...

– Judutarren izerdi, neke, eta odolaz egin ebana, ezin israeldar zintzo batek ontzat emon, eta Julio Zesar'en eta Augusto'ren ederra irabazi ba'eban, gure erriaren kaltez Erroma'ren alde aalegintzen zalako izan zan, bidebatez gora andia egiñez bere buruaren onerako.

Azken itz onein ostean, isillune bat sortu zan, eta gero Polibio'k,

– Erromatarrek erbestera ekarritako bake ta ziurtasuna, zeuk lapurketatzat epai-

tzen dozu, baiña zelako izena emon daiteke, zuek itsastar zital orreik Ejeo itsasoan zear egiñikoari...? Israel'eri ezetariko onura ekarri ez dagikeon ondapen eta eraillketa utsa da. Zorua ez ba'zara zu...! Azkenean gure eskuetan zaitugu, eta zin dagitsut, etorriko yatzuna ez dala auntzaren gaberdiko eztula izango, ez orixe...! Zuk egiñikoa gurutz-untzapenez zigortu oi dogu, baiña orren aurretik, nire menpekoek astiñaldi ederra emongo dautsue, eta izan be, oiñazeak eragindako zure oiui ta aiñenak ez ditu iñork entzungo. Bai, benetan diñotsut, jasatekoak jasango dozuzala, eta oba izango yatzu jaio ez izatea...

Gero autu-gaia aldatuz,

– Egun batzuen buruan Zesarea'ra eroango zaitugu, eta zure ekintzen zertzeladak bildu dagiguzanean, Felix'ek, ango erromatar agintariak berariz izendaturiko epaimaiaren aurrean, merezi dozun auzia izango dozu eta nerau Palestina'ko buruzagia nagan ezker, niri etorriko yat erabagitako zigorra egi biurtzea, eta ziñez diñotsut, zure azkena irakaspene redugarria izango dala, aurrerantzean, Palestina osoan erromatarrai zor yakun lotsa edo begirunea bear dan lez gorde dakigun. Orain, gudaletxe onetako ziega baten itxita, ogi-urez iraungo dozu, Felix'egandik dagokidan agindua etorri dakidan arte.

Polibio'ren keiñu bateri men egiñez, gudari bik gudaletxeko beekaldean egoan ziega batera eroan eben, eta ateari giltza emonda, metro lauki biko gelatxu zikin, ezoan, bere burua ikusi eban Dan'ek. Burdiñezko agakaz itxitako leiatilla batetik, eguberdiko argia barrura irazten zan. Txoko baten lasto-meta bat ikusi eban, eta beste baten, korotz-txisak egiteko bustiñezko ontzi andi bat. Lasto-pilloaren gaiñean jesarri zan Basamortuko Semea, eta aurpegia eskuen artean ipiñita, gogoeta larriai emon eutsen.

Oituta zan eriotzari aurre egiteko, eta beti erabilli izan eban gogoan, egunen baten etsaien eskuetara etorri leitekeala, eta zelatarien ezkuntzeari artaratuta, orrek ez eutsan kezka andirik emoten. Patuaren aurkako burrukan sarri askotan gaiñetik urten izan zan, eta gaur arek olan nai izanda, galtzaille billakatu zan. Baekian Dan'ek ateka larri aretatik urtenbiderik ez ebal, eta Yahvé'gan bere uste osoa jarrita, duintasunez iltea eskatu eutsan, eta gomutara etorkiozan David'en salmo batzuk, isillean jalgi ebazan, luzaro samar otoitzean ziarduala.

Alako baten, leiatillan zear lekorera begiratzea otu yakon, baiña ezin aretara eldu. Aborik eskura, bustiñezko ontzia ustiatu legikeala otu yakon, eta iraulita, onen gauñean zutunik jarrita, lekorera begiratu eban. Gudaletxea, “Baratzen Atea”ren ondoan eraikia zanez, Jaffa ta Belen'go bideen zati luzeak menperatzen ebazan. Bere aurretik, eguzkia itsasorantz makurtzen zan zabaldia urreztatuz, eta leiatillan zear ziegako illundia alaituz...

Eguberdi aretan Dan'en agindu bat egitetik Katamixarra biurtu zanean, ostatuaren ate-aurrean gizatalde bat ikusirik, suzmo txar batek artuta gelditu zan. Zuur jokatzera oitua zan ezker, taldera urreratu, eta belarriak ernai, iñoenari adi-adi, laster jakin aal izan eban, erromatar gudariek atxillo egindako gizon bat eurokin eroan izan ebela. Zelakoa zan baitua, alboko bateri itaundu eutsan, eta onen erantzuna jakitean, latz ikara batek artuta Dan zala oartu zan. Gero, areitariko lekuko batek gudaletxera eroan izan zala jakiñerazo eutsan.

Une batez, zer egin ez ekiala ausnar egon zan Katamixarra, eta eragin bakanak jota, badaezpadan Neftali'ren ostantura ez biurtzea erabagi eban. Gero, gudaletxearen aurretik igaro zan, baiña emen ez eban ezer bereizirik ikusi, eta uriburuan zear abiatu zan nora jo ez ekiala. Zeian ogitarte bat erosita, iturriko ur gardenak lagunduta iruntsi eban, eta jarraian aulki baten jesarrita, gogoeta sakonetan murgildu zan. Onen ondorioz, gudaletxeko azpikaldeko ziegaren baten, bere nagusia egongo litzakela otu yakon, eta izan be, gudaletxeko atzekaldean, au da, Jaffa ta Belen'erako bide gaiñetan eraikia zan aldean. Ondorio onetara eldu zanean, “Baratzen Atea”tik urtenda, Belen'erako bidetik ibiltzen asi zan, noizean bein gelditzen zala ertzak arakatuz, galduriko zerbaiten billa jarduten ebalakoa egiñez. Luzaro samar andikorik ortikora ibilli zan, gudaletxeko beekaldean agertzen ziran leiatillak begimenetik galdu barik. Arratsbeera zan orduko, eta eguzkia luzaro barik ostenduko zan. Alako baten, biotz-ikara larriak artuta, areitariko leiatilla batetik, esku batek zapi zuria astintzen ebal begitandu yakon, ezkerretik asita bigarrenean, alegia. Gudaletxeko alde au aldapa latz baten gaiñean eraikia zan, sasiz eta asunez zipriztinduta, igokundea zaila egiteraiño. Une batez, leiatillaren egoerea gomutan tinkatu eban, eta etorritako bidetik urira biurtu zan. Badaezpadan, Neftali'ren ostantura itzuli nai ez eban ezker, zelatari ezagun batenean bein-beiñean kokatu zan.

Gaberdi-inguruan, itzal narrartzariaren antzera, erromatarren gudaletxeko atzekaldeko aldapa latzean gora igoten asi zan Katamixarra, sasi ta asunen ziztadai jaramonik egiteke. Laster zan orma lodiarene oiñarrian, eta onen arrakal eta oraguneak ustiatuz, orman gora asi zan. Masada'ko amildegi izugarrietara oituta, Katamixarra'ren soin malgu ta ariñarentzat ekintza onek ez eban zailtasun andirik, eta gabaren illuntasun utsa ustiatuz, noizbait, arratsaldean zapiñoa ikusi eban leiatillaraño eldu zan. Burdiñaga lodi bikaz itxita egoanez, oneiri eutsi, eta barrura begiratu eban. Ziegan illuntasun osoa edatzen zan, eta mintzo leunaz,

– Jauna, Jauna –suzmurka dei egin eban–.

Txokoan egoan lasto-pillotik, mulko ezabatsua igitu, eta leiora urreratu zan auxe iñotsala:

– Arratsaldean beeko bidean ikusi zaitudanean, banekian etorriko zintzakidazala, Josue maite ori...!

– Esan, Jauna, zer egin dagiket zure alde...? Nai ba'dozu, biar guretariko zenbait lagunekin, gudarosteari erasoko dautsat, eta...

– Ken ori gogotik –eten egin eutsan Dan'ek–, ekintza zorua da-ta... Ez neuskio ni-



re buruari barkatuko, abertzale zintzoak alperrik galtzea, aurretiaz aukerarik bage ikusten dodan ekintzaategaitik. Ona emen, baiña, nire alde egin dagikezuna...

Isildu zan une batez, eta gero,

– Begira, Josue –jarraitu eban–, biar bertan egunsentiaz batean, abia zaitez aalik ariñen Zesarea portura... Ba al-dozu oraindik dirurik...?

– Bai, Jauna, oraindiño zidarrezko batzuk aldean daroadaz.

– Erosi egizu bertanbera zaldi arin bat, eta Jaffa'rako bidetik, Bethoron, Lida, eta Antipátride'n zear joan zaitez Zesarea'ra. Ona elduta, aalegindu zaitez Publio Marzius non dagoan jakiteko, eta au bein jakinda gero, zoaz aregana, eta esaiozu Polibio buruzagiaren atxillo izanik, ni gurutzean eriotzera galdu gura nauala. Publio itsasoan ba'le-go, orduan nireztat gaizkatzerik ez, baiña Asia Txiki, Txipre, Asiri, edo Fenizia'ko edozein portuan kairatuta ba'le-go, beragana joanda, emoi-ozu nire kinka larriaren barri, eta laga nire arazoa aren eskuetan.

– Uste al-dozu, Jauna, bera lako ontzidi-buru andikia, zure alde aaleginduko danik...?

– Aspaldi batez berarekin arremon estuak izan dodaz, eta onein ondorioz, gure erriaren arerio izan arren be, zintzotzat dot. Edozelan be, auxe nire aukera bakarra da. Gaiñerakoan, nire bizitza Yahvé'ren eskuetan dago. Zoaz astirik galtzeke, Josue, egunak laster txirrist egingo dauala izarrek badiñoste-ta. Agur adiskide maite ori, Yahvé'k gura dagian arte.

– Agur, Jauna, Yahvé'k gorde zagizala Israel'en onerako. Shalom...!

– Shalom...!

Bostekoa alkarri emon eutsoen, eta eztarrian korapillo bat, Katamixarra lengo bidetik biurtu zan azkar.

Zelataria lagunagana biurtu zanean, Zesarea'ra joateko abiamenak egiten asi zan. Lagunaren bidez zaldi on bat crosirik, eta bideari buruz bearreko argibideak artuta, goizeko zazpirak emontxuetan bidegiteari emon eutsan. Aldapan gora ta beera lauazka bizian aguberdiko Antipátride'ra eldu zan. Emen geldiu-ne laburra egin bazkaltzeko ta zaldiak bearreko atsedena izan egian, bidaldiko bigarren zatiari emon eutsan. Eguzkiak sartalderatz itsasoaren txera ozkirriak billatzen ebazanean, Zesarea portura eldu zan, eta zalditik jatsi barik kai-luzean abiatu zan. Alako baten, nagusi ta goren, ontzi eder-ederra ikusi eban, berak iñoiz ez ikusitarikoa, izan be.

Zauskada bakanak artuta, antxe bertan Publio Marzius'en barriak jakin legikeazala otu yakon, eta beste barik zalditik jatsita, saietsean urrezko izkiakaz “Mare Nostrum” izena erakusten eban ontzira igon zan. Aztamakillaz ornidutako zaindari batek geldierazo eban, auxe iñotsala:

– Geldi or...! Zeren billa zatoz...?

– Ara, lagun, adiskide baten barriak bear dodaz.

Itxura pekotiz zaindariak goitik-beera begiztatu eban, eta,

– Zeu lako judutar zikiñeko itxuraz ontzi onetan adiskide baten barriak jakin gura...? Ez dot beste ardurarik orixe baiño.

– Begira, lagun, or ikusten dozun zaldi orretan lerrenak egin da natortzu erromatar

ospetsu baten billa, dagokion mezu garrantzitsua emotearren, eta zure erruz dalako mezua beragana ez ba'letor, ondorio txarrak etorriko litzakizuz.

Zaindaria ezpaitsu geratu zan une batez, eta gero,

– Noren billa zatoz...? –itaundu eutsan–.

– Publio Marzius'en billa. Bere adiskide min baten barriak dakartsadaz. Esan non aurkitu dagikedan, zein portutan egongo dan onezkerok... Ontzi ontako nagusiak argibideren bat emongo ba'leust, Erroma'rako oso lagungarria litzake. Augaitik ba, eroan nagizu ontzi onen nagusiagana.

Une batez zaindariak itxura bakanaz begiztatu eban, eta,

– Baiña ez ete dakizu –arritutako itxuraz erantzun eutsan–, gualontzidiburua dan Publio Marzius berbera, ontzi onen nagusia danik...?

Zarrastada andipean, une batez mutu geratu zan Katamixarra biotza taupada zoro-tan ebilkiola, eta gero buruaren jabetasuna irabazita,

– Mugonez eldu naz –esan eutsan–. Eroan nagizu beragana.

– Noren aldez iragarri bear dausat...?

– Esaiozu, Dan'en aldez natorrela.

– Egon emen apur baten.

Andik laster euntari batekin biurtu zan, eta onek,

– Zatoz nirekin –agindu eutsan–.

Euntariak zubiko gela bateko atea zabaldu, eta Katamixarra areto eder-eder batera sartu zan. Mai bikain baten aurrean Publio Marzius'ek idazten ziarduan, eta zelataria ikusi ebanean, jagi, eta eskuai eutsirik, auxe esan eutsan:

– Zerk zakaz nigana, Josue...? Dan'en aldez zatozala esan dauste.

– Bai, Jauna.

– Jesarri zaitez nire ondoan, eta esaidazu zure ikerpenaren zergaitia.

Jarraian, keiñu bat az euntariari urten zeiten agindurik, atea itxi zanean,

– Zelan dago Dan, nire adiskide aztueziña...?

– Txarto, Jauna. Ara...

Orduan Katamixarra'k jazotakoaren jakitun ipiñi eban erromatarra, eta edeskia berba oneikaz amaitu eban:

– Polibio buruzagiak auzi labur baten bidez eriotzera galdu gura dau nire nagusia, bai, gurutzean josi gura dau.

Biotz-ikara batek artutako Publio, une batez gogo sakonetan murgildu zan, eta gero maira joanda, esku irmoz idazten asi zan. Amaitu ebanean, txiliña astindu, eta lengo euntaria sartu zanean,

– Aizu, Escipio, torizu idazki au, eta astirik galtzeke, Porcio Festo agintariagana eroanda, itxaron eskatzen dautsadan erantzuna. Etxean ez ba'litz, billatu egizu nonai, baiña gaberdia barik Festo'ren erantzuna artu gura dot. Entzun...?

– Bai, Jauna.

Euntaria urten zanean, Publio Marzius'ek,

– Orain, Josue maite ori –esan eutsan amultsu–, otordua da, eta apaldu bitartean, nire egitasmoa azalduko dautsut.

Au esanik, morroi bateri aparia mairatzeko agindu eutsan, eta alboko maitxu baten jan-etzangu (triclinio) banatan, apari gozo bateri emon eutsoen, Txipre'ko ardao bi-kaiñaz lagunduta.

– Begira, Josue –gudalontzidi-burua asi zan–, Dan'en egoera berez oso larria da. Ondó bai ondo ezagutzen dot Polibio Jerusalem'go buruzagia, eta egin dodana, egin daiteken gauza bakarra da bere bizitza beinbeiflean babesteko, eta auxe alegia: Polibio'ren atzaparretatik Dan ataratzea. Baiña...

Isildu zan une batez, eta gero,

– Baiña –jarraitu eban– orretarako, nire egoera gain-gaiñekoa ustiatuz, gure ontzidiari ta itsaslorketeari ekarrirako galtzaiak atxakitzat artuta, Erroma'ko agintaria dan Porcio Festo'ri salakuntza bat aurkezten dausat Dan'en aurka, eta gure ontzidiaren izenean Dan Erroma'ra eroan izan daitela eskatzen dausat, dagokion auzia jasan dagian, oso argigarria izango dalakoan...

– Ez dozu uste, baiña –eten egin eutsan Katamixarra'k–, naiz Polibio'ren menpean, naiz Erroma'n auzi baten ondorioz iltea, gauza bardiña danik...?

– Ez, Josue. Polibio'k emongo leuskion eriotza izugarria litzake, eta ostera, Erroma'n jasango dauan epaiketea, illabete batzuen buruan ospatuko da, eta gaiñera, orduko, aal dodan eragintza guztia erabilliko dot aalik bigunen epaitu izan daiten.

– Uste dozu, Jauna, jare billakatuko danik...?

– Ez dot orrenbeste esango, baiña orduko an izango nazanez, gauzak atondu daitেকেz neurri baten Dan'en onerako. Onezaz gaiñera, salatario izanik, auzian tarteko izatea dagokit.

Luzaro samar jardun eben biok Dan'en etorkiari buruz. Noizbait, aparia amaitu zan, eta Felix'egandik eskaturiko erantzuna itxaron bitartean, itsasoan alkarrekin bizi izandako gora-beerak gomutara ekarten ebezala, isillune baten ostean, mintzo unkituaz berbakideari txeratsu mintzatuz,

– Begira, Josue –esan eutsan Publio'k– min emongo dausun barri bat emon bearean naiatzu. Ara... orain illabete ta erdi inguru, David erregearen izarra aizatzen eban “Izenbakoa” urperatu genduan Errodas ugarteko itsasaldean...

Biotz-ikara larriak eraginda, ikoti bataz zutundu zan Katamixarra, eta dardar baten,

– Eziña da, Jauna, eziña...!

– Bai, Josue. Sei erromatar gudalontzik inguratuta, azkeneraiño burrukatuz “Izenbakoa” ondoratzea jaritsi genduan.

– Nire lagun gaixoak... Ai ene...!

– Zure lagunek gizandiak lez jokatu eben gure jaurtiketai erantzunez, baiña gureak sei izanik, eta bera bakar bat, ixiotutako ameluakaz jaurtigaiilluen bidez josi genduan, eta noizbait, ontzia zuzi itzungieziña biurturik, zaurituriko erraldoi baten antzera urpean ostendu zan...

– Ai ene, lagun gaixo maitiak...!

– Geienak onik urtengo ziran. Zure nagusi Basamortuko Semea'ren oitureari jarraituz, etsaiak gaizkatu zeitezela laga genduan. Txalupak eta guztitariko ol-zatiak ustiatuz, Errodas'eko itsasaldera asko ta asko abiatzen zirala ikusi genduan.

Isillik iraun eban Katamixarra'k gogoan ainbat eta ainbat lagunengomuta biziak artuta. Narkios, Abdul, Yaor likaonitarra, eleusitar anaiak, eta beste lagunak...

Orduan ezustez, itzok iges egin yakozan:

– Basamortuko Semea an izan ba'litz...

– Orduan beste kuku batek jo egingo leuskizuen, baiña batek-baki norberaren amaia noiz eta zelan etorriko yakon... Ain zuzen be, Dan joian bidetik goiz naiz berandu ordua etorriko litzakion. Eta orain, bera “Izenbakoa”n ez egoala jakitean, poz andiak artuta, onik atara dauan aduaren naia bedeinkatzen dot. Jakintsu ta zintzoa da zure nagusia, eta bizitza berari zor dausat. Au ez yat iñoiz aztu egingo, eta izan be, ontasuna ta zuzentasuna zer diran beragandik ikasi ondoren, aaleginduko naz onik atarateko, bai orixe...!

– Zintzo ta arteza da nire nagusia. Berak sarri askotan esan daustanez, aitatzat eban armenitar bateri zor dautso artutako ezkuntza.

– Bai, Josue. Berarekin ontzian nintzala, amaika bidar aipatu eustan Urian izeneko armenitarrak beragan erein ebala gizabidearen azia, eta esan bearean naz, Dan ezagutu ondoren, beste bat biurtu nazala...

Publio Marzius'ek eta Katamixarra'k autu onetan ziarduela, Escipio euntaria idazki bat ekarrela sartu, eta Publio'ri emonda gero, joan zan.

Ardurarik andienaz irakurri eban erromatarrak, eta gero zelatariari,

– Begira, Josue –esan eutsan–, idazki onen bidez jakiñerazoten daust Porcio Festo'k, nik eskatutakoa onartzen dauala, eta Sidon portutik laster urtengo dan ontzi baten, Dan Erroma'ra bialduko dauala, dagokion auzia antxe jasan dagian. Bidean da Jerusalem'era igorritako mezularia, Polibio'ri agintzeko, Dan, Sidon'eko espetxera aldatu dagiala, Erroma'rako itsasontziaren begira.

– Asarre gorrian artuko dau Polibio'k dalako agindua, bere guraria nire nagusia lenbailen gurutzean iltea dalako. Gorroto andia dautso buruzagi orrek Basamortuko Semeari, eta ostera be atzaparretatik iges egiten dautsala jakin dagianean...

– Buruzagi ona da Polibio, baita anker eta errukibakoa be. Orra or, damu gatxez, gaurregun gizakiai gora egiteko laguntzen dautsien baldintza arbuigarriak.

Isildu zan erromatarra, eta gero barriro mintzatuz,

– Aizu, Josue, biar goizaldean, laga-eziña dan arazo garrantzitsua egitearren, iparrerantz itsasoratuko naz, baiña gura ba'dozu, ontzi onetan oe bat emongo dautsut gaba emoteko.

– Eskerrik asko Publio Jauna, baiña bertanbera Jerusalem'erantz abiatuko naz. Sidon'era atxillo eroan dagienean, nire nagusiaren jarraigoaren atzetik joango naz, aal dagidan laguntza berari emotearren.

– Ederto, Josue. Esaiozu, bere auzia ospatu daitenean, an izango nauala bere alde ekiteko. Orain artu egizu diru-zisku au zure ugazabak bearrizanik jasan ez dagian. Agur, Josue, besarkatu nagizu, eta besarkada au elduerazo egiozu Basamortuko Semeari.

Andik laster, zaldi baten arrapalada bizia aditu zan Zesarea'ko kaian zear, Jerusalem'crako bidean.

Egun aretan, Sidon'eko espetxe itzaltsuan oi lez ormako txinga batera kateatuta egoala espetxaldi luzearen ostean, Basamortuko Semeak bere buruari inotsan eriotza oba izango ez ete. Etsiak jota, ordurarte bizirik iraundako itxaropenaren azken txinparta, Zesarea'tik Sidon'erako bidean galdu izan eban.

Iru egun iraungo eban bidaldi orretako bigarren gabean kapar baten barruan egoala, oialeko ertz bat jagi zan, eta onen azpitik irudi ezabatsua irazi zan auxe inotsala:

– Jauna, Jauna, emen nozu...!

Katamixarra zan, eta onen mintzoa entzutean,

– Yahvé'k bedeinkatu zagizala –esan eutsan pozaren-pozez–. Uts andia emon dautsut aspaldi onetan. Esan, zeri zor dautsat zure ikerpena...?

– Ara, jauna...

Eta, jarraian, Publio Marzius Erroma'ko gudaontzidiko nagusiarekin “Mare Nostrum” ontzian izandako alkarrizketearen barri emon eutsan, eta,

– Bai, Jauna –edeskiari amaia emonez–, Erroma'ra eroango zaitue, uriburu orretan epaitu zagiezan, baiña Publio bera auzialdian aurkeztuta, zure alde aaleginduko da.

– Orra or, erromatar izan arren be, gizona esan bear dana...!

– Bai, Jauna, eta onezaz gaiñera diruketa bat emon eustan, bearrianik jasan ez dagizun. Ona emen janari batzuk gosea arintzeko.

Au esanik, zorrobete janari eskuraturik,

– Jauna –jarraitu eban–, iges egin dagigun aalik lasterren; kapardian begirari gitxi dago, eta gau illun-illuna izanik, uts ala bete iges egin dagigun...!

– Ez, Josue. Olan egingo ba'genduke, biar egunsentian jazartuko gindukiez, eta txarto ikusiko zenduke zure burua.

Une batez isildu zan Dan, eta gero,

– Begira, Josue, zelan edo alan onik urtengo naz, baiña zu biurtu zaitez gure lagunakana. Oiko lekuan gure begira egongo da “Izenbakoa”, eta orduan jo ta ke, etsaiari aalik eta kalterik andiena egiñez jarraitu...

– Jauna –malkoak begietan eten egin eutsan Katamixarra'k–, gure begira ez da inoiz ontzirik egongo, “Izenbakoa” ondatu zan-eta...

Une batez, oiñaze bizipean Dan'eri intziri-antzeko aiene larria iges egin yakon, bere itxaropen guztiak txulut egiñik oartzean.

Basamortuko Semearen oiñaze bizia ikustean, Katamixarra'k,

– Ona emen, Jauna –esan eutsan errukitsu–, Publio'k esan eustana...

Eta jarraian, Errodas itsasaldean izandako ezbearraz jakitun ipiñi eban. Amaitu ebanean, biotz-ikara larriak artuta, une luze batez isillik irauan eban Dan'ek, begiai mal-ko mingotsak eriezala.

– Jauna –Dan'en oiñazea baretu naiez esan eutsan Katamixarra'k–, ez larritu, oraindiño bizirik eta onik urten gara-ta...

Luzaro samar isillik jarraitu eban Dan'ek, eta gero zerbait baretuago,

– Gauza bat nai dot zugandik, Josue –mintzo aginkorraz esan eutsan–, eta auxe alegia: astirik galtzeke Masada'ra biurtu zaitezala, arrotzaren aurka burrukea jarraitze-ko.

– Baiña zelan zu emen bertanbera laga etsaiaren eskuetan..?

– Ori nire agindu uxaeziña dozu, eta ez zakidaz aiko-maikotan asi, alperrik izango da-ta. Zu ta biok alkarrizketan arrapatu ba'gengiez kinka larrian ikusiko zenduke zure burua. Agur, Josue, gure Yahvé'k zaindu zagizala.

– Agur, Jauna... Noiz arte...?

– Biotzak badiñost egunen baten alkar ikusiko dogula. Anartean agur, nire Josue zintzo ori. Besarkatu nagizu.

Alkar besarkatu eben, eta malkoak mara-mara eriozala, oialpean ostendurik, Katamixarra'k Masada'rako bidaldi luzeari emon eutsan izarren begien ikarapean. Biaramoneko illunabarrean, Sidon'eko espetxe itzaltsuan, ormako txinga batera kateatu izan zan Basamortuko Semea, egunak astun eta amaibageak alkarri erraikiela, bere patua- ren begira.

Beiñola, oiñak alkar lotuta, amarburu baten zaintzapean, espetxe aretatik urten, eta kairatuta egoan ontzi bateko soto zikin eta kirastuan, beste atxilloekin giltzapetu izan zan. Leku iguingarria saietseko leiatilla batzukaz argitua zan, eta albo banatako txingatarate kateatuta, ogei bat atxillo ikusi ebazan. Andik laster, aingurea ta aize-oialak jasota, ontzia itsas zabala ildokatzen asi zan, iparreko norabideari ekiñez. Txipre ta Zilizia'ren artean itsastuz, iru egun geroago Lizi-Panfilia'ko Mira portura eldu ziran, eta emen begira eben gariz beteriko Ejipto'tik Erroma'ra joian ontzi andiago batera aldatu izan ziran. Atxillo batzuk uri orretan geratu ziran, eta ostera, beste batzuk sartu, batzuk beste berrogei atxillo egiñez. Barriro be, saietseko txinga banatara kateatu izan ziran. Sotoa lengoa baiño argiago ta garbiagoa zan. Urrengo egunean, ontzia Asia Txiki'ko itsasaldetik ur samar, Knido'n aurretik Kreta'ra abiatu zan.

Dan'ekin kateatuak, epaitzeko ziran gitxi batzuk ezean, geienak joputzat Erroma'ra joiazan, ango enkantetan salduak izateko. Dan'en albo baten, isillik eta ezkibel, berba urriko gizon andi ta indartsuak, aurpegia belauen artean irauan bere baitan bilduta, inguruan jazoten zanari jaràmon egin barik. Egunean birritan banatzen yakezan txilista-lapikokoari, ez eutsan begi argirik egiten, eta ozta-ozta koillarakada batzuk iruntsita, enparaua lagaten eban. Bein baten, jakingureak craginda,

– Aizu, lagun –itaundu eutsan Dan'ek txeratsu– zer dala-ta orren jangar azaltze-ko...? Olan jarraitzekotan, ez zara bizirik elduko Erroma'ra.

– Madarikatuak bediz erromatarrek eta euren uriburu ustela...! –uzkur erantzun eutsan besteak.

Atxillokidearen berbok entzutean, bereala oartu zan judutarra ez zala, eta barriro be, arraiki,

– Zure mintzo-doiñua dala-ta –esan eutsan–, Palestina'koa ta onen ingurukoa ez zareala, baietz egingo neuke. Nongoa zaitut...?

– Armenitarra naz, onen iparraldekoa, izan be.

Au entzutean, ezin esan alako zauskada batek artuta, armenieraz, auxe esan eutsan Dan'ek:

– Armenia ta onen erritarrak biotzean dodaz betidanik.

Aberriko mintzaira entzutean, alboko gizonak burua jaso, eta begiak argi bereiziaz piztuta, abots adiskidetsuz,

– Ez dakizu, lagun –esan eutsan–, zelako poztasuna dakarkidan nire aberriko ber- betea entzuteak. Badirudi, ango mendi, baso ta zelaia gogora yatordazala. Baiña zu itxuraz judutar izanik, zelan egiten dozu armenieraz...?

– Ori luzetxua da azaltzeko, baiña esaidazu, lagun, zein da zure izena...?

– Gorian dot izena, eta zuk...?

– Dan, edo Basamortuko Semea. Basamortuan aurkitu ninduan armenitar batek izen ori emon eustan. Arrezkero, aitorde izan neban, eta dakidan guztia baita armenie- ra be, arek irakatsi eustazan. Benetako aita bat ezin maiteago izan, baiña damu gatxez, aspaldian galdu neban...

– Jarraitu egizu, Dan; nire izkuntza zure ezpanetan entzutean, baderitxat, nire abe- rriko edertasunak bizi-bizi yatordazala. Ai ene bada... Badira iru illabete etxekoen be- soetatik baztertu ninducla, eta arrezkero jopu biurtuta, mendirik-mendi, ibarrik-ibar, bide legor kiskalgarrietan zear ekarri ninduen Mira portura, Erroma'n joputzat andiki- ren batek erosi nagian... Baiña gero edestuko dautsudaz zeatzago nire ezbearrak. Ni- ketz, atsegin andiz jakin gura izango neuke, armeniera orren ondo ezagutzera zelan bi- llakatu zanean.

Isillune laburraren ostean, onetaraxe asi zan Basamortuko Semea:

– Bein baten, Masada-inguruko basamortuan zear joian armenitar bat...

Eta jarraian, umetarotik asita Dan'ek bere bizitzaren edestia aletu eban armenie- ra gozoaz, gaba etorri arte, baiña edeskia amaitu barik laga egin bear biaramonean amaitzeko. Urrengo egunean itxartu baiño ez, Gorian'ek arrenkatu eutsan edeskiari jarraitzeko, eta olan egin eban Dan'ek amaitu arte. Berandu zan orduko, eta Go- rian'ek,

– Benetan, Dan maite ori –esan eutsan–, zeuk bizi izandakoa ez da auntsaren ga- berdiko eztula, eta entzunak entzun, gizon anditzat zaitut, Palestina'ko andienariko bat, izan be. Biar niri yatort zu jakitun ipintea zelan billakatu nazan kinka larri onetara. Biarrarte ba.

– Gabon, Gorian, eta goratu biotza, egunen baten aduak dana atonduko dau-ta.

– Olan bedi, Dan; izan be, ezagutu zaitudanetik, badirudi nire arimaren illunal- dian bitargi bat firriirka yabildala.

Biamonean itxartu baiño ez, Dan'ek eraginda, Gorian onetaraxe asi zan:

– Armenia nire aberria, igarotako aldietan Persia ta Erroma'ren pean aldizka bizi izan da. Armenitarrek, baiña, laterri bi orrein menpetasunetik aske bizi izan nai dogu, eta errizat ostendu ez ba'gara, lurraldeko malkortasunari zor dautsagu. Ararat mendi erraldoiaren inguruko errixa baten jaio nintzan andiki baten seme, eta aita il yatanean guda-talde baten burua billakatu. Erri txikia izanik, ezin gengikean aurrez-aurre burrukan egin, talde txikika baiño, gau ta egun etsaia zirikatzen genduala, ustebagetua zanean erasoteko. Orain urtebete bat-edo, persitarren buztarria astindu genduan, eta guretara bakean bizi izaten asi gintzazanean, jaregindako lurraldean erromatarren erasoja san bear izan genduan. Orduko, ezkondua nintzan ume bien aita izanik. Zoritxarrez, nire gudariakaz burrukea birrasi bear, eta baso-mendietako ezkutuneak ustiatuz, oi genduan lez, etsaia zirikatu genduan etenbarik, galtzai andiak ari ekarririk. Baziran illabeteak etxeokak ikusi barik nirauala, eta bein baten, Ulia ta umeak ikustera joan otu yatan. Amar gudari nirekin artuta, errira jatsi, eta gau betea izanik, isil-ostuka kaleetan zear etxera joan nintzan.

Goizaldean etxetik urten nintzanean, biotz-ikara batek artuta, erromatar euneko bat erriaz jabetu izan zala egiztatu neban, baita nire gudariak atxillo eginda be. Baten batek saldu ginduzan, eta egunsentiko argiaz batera euntariagana eroan ninduen. Pozik egoan erromatarra auxe iñostanean:

– Badakizu, jauntxu orrek, atxilloai egin oi dautsaguna...?

– Bai, il egiten dozuez,

– Askotan bai, baiña oraingo onetan ori ez da jazoko. Gorpu batek ez dau ezertarako balio, baiña zu, ostera, indartsua ta burrukalari ona izanik, obari polita ekarriko daustazu. Ara, Mira portuan erromatar jokutarako aukari indartsuak biltzen dituan gerkar amarrutsua ezagutzen dot, eta itxurearen jabe ba'zara, denari-pillo ederra emongo daust ordaiñez. Egun gitxien buruan, ordeztuko nauan euntaria etorriko da, eta orduan nirekin Mira portura eroango zaitut.

Au esanik, esku-oñak kateatu eustazan, eta egun batzuk igarorik, Ulia maitia ta ume biak ozta-ozta besarkatzeko aukera izanik, mendi-baso-zelaietan zear, Mira portura ekarri ninduan, eta eskukada “denari” baten ordaiñez, gerkar amarrutsuak jabetu ninduan. Onek, Erroma'ko gizoste basatiak astia emon dagian, auzkarien erakunde batera saldu nau, Koliseo'n eriotzerañio burrukan egin dagidan. Ai ene, zer billakatuko dira nire Ulia ta umeak...!

Au esanik, burua makurtu, eta une batez negar-zotiñek bere bular sendoa astindu eben. Esku bat sorbaldaren gainean ipiñi eutsan Dan'ek, eta,

– Begira, Gorian –esan eutsan arraitsu–, oraindiño dana ez da galdu. Beiñola, jakintsu batek esan eustan, izarretan idatzita dagoan gure etorkiaren epaiari, azken itzak peitzen yakozala, eta oneik egun baten norberaren eskuak idatzi bear ditu... eta zeu, Gorian, zure bizitzaren epaiari peitzen yakozan itz orreik, Ulia ta umeen onerako idazten aalegindu zaitez.

Eskerroneko itxura agertu zan Gorian'en aurpegian zear, eta,

– Zuzen zagoz, Dan, eta niri dagokidan aldetik, etorki igeskor orretan, niretarren onerako idazten saiātuko naz, baiña aberritik gero ta urrunago naroenez, azken baten ez dakit zer billakatuko naz...

– Patuak ez dau oztoporik ezagutzen, eta basamortuko aizearen antzera ez dago esiak ipiñi dagiozanik.

Eta olan, egunean baiño egunean batuago, atxillo bi arein egoera larria zeozer arindu zan, eta euren alkartasunak kateen eta soto iguingarrien gainetik, ames egitera laguntzen eutsela, aizeak Kreta'ko itsasaldera eroiazan.

Tarso'ko Paul, Jerusalem'go abadeburuek salatu izan zan, eriotzera galdu izan zeitezala eskatuz, Kristo'ren alde aldarrikatzen ebalako. Gora-beera batzuen ostean, eta Paul Erroma'ko uritarra izanik, an bertan epaitua izatea eskatu eban. Palestina'ko jaurilea zan Festo'k ontzat artu eban Paul'en eskaerea, eta Mira Portura igorri eban, Erroma'rako ontziratu zeiten.

Lizia-Panfilia'ko Mira'tik urtendako itsasontzia, Alejandria'tik etorren, Erroma'ra gari-lorketa bat egiteko, eta bidebatez, portu aretan atxillo batzuk artzeko. Paul be atxillo eroaten eben ezker, kateaturik izan bear, baiña bere ontasun-itxurak irabazita, eta Erroma'ko uritartasuna eban ezker, Mira'tik urten eta laster, ontzian agintzen eban Julio euntariak kateak kendu egioezan erabagi eban.

Paul'ek, baiña, ezin egikean Sotoko lagunak gogotik kendu, eta Kreta ugartera abiatzen ziranean, bein baten, atxilloak ikertzera joaten laga egitsan eskatu eutsan euntariari.

– Baiña, Paul –esan eutsan Julio'k–, ez al-zagoz obeto emen, zubian, an beeko soto zikin eta nardagarrian baiño...?

Paul'ek, baiña, Kristo'ren bidalien adoreak eraginda,

– Begira, Julio –esan eutsan–, or beeko sotoan katepean dagozan gaixook gure anaiak dira, eta...

– Gure anaiak esaten dozu –eten egin eutsan euntariak–, or becan kateaturik da-roadazan Erroma'ko etsai amorratu orreik...?

– Itxaropen eta bakea ekarri gura izango neuskiez zorigaiztoko orreiri. Zeu lako gudari zintzoak ez dau txartzat artuko atxilloekiko errukitsu agertu naitela.

Julio euntariak soiñak jaso ebazan, eta,

– Beeko saskeltegira joan gura ba'dozu, or konpon, niketz ez dozu iñongo sosterrik izango.

Eta menpeko bateri etorteko keiñua egiñik,

– Aizu –esan-eutsan–, lagundu gizon oneri sotora.

Ondo ezagutzen eban atxilloen sotora jatsi zan Paul, lenengo egunak leku onetan

emon ebazan-eta. Ango erdi-illunari ikusmena egokitu yakonean, atxillorik-atxillo ibilten asi zan, txeratsu ta samur berba egiñez. Batzuk, ezer esan barik atzea emoten eutsoen, bestetzuk, ostera birao-añenka erantzun, eta gitxi batzuk isillean aditzen eben, euren kautan iñoela, zertara ètorkien judutar itxurako gizon a.

Paul, baiña, oitua zan guztitariko erantzunak artzera, eta arein ardura-eza ta etsaitasuna aintzakotzat artu barik, kateatuen erreskadan zear joian, itxaropena ereintzen aalegintzen zala, Kristo'gan amaibako bizitza zoriontsu bataz berba egitsela. Noizbait, erreskadaren azkenak ziran Dan eta Gorian'en aurrean gelditu zan, eta izan be, Basamortuko Semeagan ekusan zerbait bereziak erakarririk, begira-begira geratu yakon. Dan'ek be, Paul'egan ekusan indar esan-eziñak irabazita, onegan untzatu eban bere begi illunen so bizia. Izan be, bidaliari erion indar ezkutu batek buztarpeturik oartzten zan. Une batez isillean alkarri begiraturik, Paul'ek,

– Nor zaitut, adiskide ori...? –maitetsu itaundu eutsan–. Zure aurpegiaren karrantzaz judutar zareala baietz egingo neuke.

– Basamortuko Semea ezizenez, Dan Ben Oziel zelataria nozu. Eta zu nor zara, ona sartzeko eskubidea dozun ori...?

– Tarso'ko Paul nozu.

– Zeu be judutarra baietz, nire aurpegiko begiak egingo neukez.

– Zuzen zagoz, Dan. Tarso'n jαιο izan arren be, judutar jatorrikoa naz. Nire arbasoak bizimodua obatzearren Zilizia'ko Tarso'ra atzerriratu ziran. Aitak oial-ara-zoetan diardu. Yahvé'ren aginduen aurka itz egiten nebalako atxakiaz, Sanedrinekoek salatu ninduen, baiña Erroma'ko uritarra nazanez, neronek eskatuta, auzia an izateko naroe.

– Ezin dot onartu –asarrez esan eutsan Dan'ek–, judutar zintzo batek erromatar uritartasuna izan dagiala. Ori, judutar zintzo batentzat, jopu biurtzen gaituan eskua mun egitea lez da.

– Ez zagoz oker, adiskide, baiña nik ez dot uritartasun ori aukeratu, aitagandik yartort-eta. Egia esateko, baiña, benetato uritartasuna Jaunagan dogu.

Eta gero Gorian'eri mintzatuz,

– Nongoa zaitut, adiskide ori...?

– Armenitarra naz, eta Erroma'ra naroe aukaria izateko.

– Tamal dautsut, adiskide. Negargarria da, benetan, gizostea alaitu daiten, gure anaiak diran erbesteko gizakiak jopu egin, eta Koliseoko ondartzan eriotzaraiñoکو bu-rrukara beartu. Ori ez da Gure Jaunaren legea.

Edu onetan, luzaro samar berba egiten jarraitu eban Paul'ek adiskidetsu ta maitekor, zorigaiztoko bi areikan bake ta itxaropena erein naiez. Noizbait, eta beste urrengo baten barriri ikertzera etorriko litzakiela agindurik, Paul joan zan.

Arrezkeroko egunetan, Paul satora jaisten zan ia egunoro, eta atxillo guztiak agurtuz oiko osteratxua eginda, Dan eta Gorian'en ondoan kukurio jarrita, onein gorabeerak entzuten ebazan. Baekian Paul'ek, lagun-urkoaren lorrak entzutea jasaten dauzanarentzat aringarria dala, eta augaitik egonarririk andienaz adiskide bion gora-bee-

rak entzun oi ebazan, eurokan itxaropena ereintzen aalegintzen zala. Bein baten auxe esan eutsen:

– Gure benetako bizitza ez dago ludi onetan, eriotzaz araindikoan baiño. Munduko gauzak igarokor eta ustelkorrek dira, baiña Jaunaren aginduak beteten dauzanak be-tirako zoriona ezagutuko dau... Sanedrineko Batzarrak eriotzera galdu eban, eta gurutz baten josita il zan gaizkille bien erdian...

Latz-ikara batek astindu eban Dan... Bai, arratsalde aretan Golgota ganetxuan ikusi ebana izango ete...? Une aretan, len esandakoaren aria birrartuz, Paul onetaraxe mintzatu zan:

– Ekintza izugarria Sanedrin'eko judutarrena Jaungoikoaren Semea iltean. Aren odol-isurtzearen errudunak dira, baiña nik neuk areik baizenitsu ta zitala jokatu neban, eta Yosu Nazaretarrak Idazti Deunen aurka jardun izan ebala uste izanik, Bera ilda gero, ikasle ta bidaliak jazartu nebazan piztiak bai'litzazan...

Ona elduta, Paul buru-makur une batez isildu zan, eta gero abots unkituaz,

– Bai –jarraitu eban–, egizko Jaungoikoaren etsairik andienetarikoa izan naz. Parisen nintzan aldi aretan, Gamaliel jakintsua izanik urtenetariko ikasletzat ninduana. Yosukristo'ganako gorroto utsaz, onen jarraitzaileak aurrean erabilli nebazan. Gazte nintzan orduan, eta kristauak jazarten ebezanen laguntzailea nintzan, areitarikoren bat zigortu bitartean, nik neuk erasotzaileen janzkiak zaintzen nebazala. Bein baten, Jaunak barkatu dagistala...

Isildu zan une batez Paul, eta gero itxura naibagetuaz,

– Bein baten –jarraitu eban–, Estepan izeneko Yosukristo'ren ikasle bat guzurrezko lekuko batzuk salatu eben, eta atxillo egiñik, judutarra aurpegira jaurti eutsen, gurasoen antzekaok zirala igarleak aurrean erabilliz, eta legea aingeruen bitartez artu izan arren be, ez ebela beteten. Abadeburuak-eta asarraturik Estepan'en aurka asi ziran, eta onek zerura begira esan eutsen: “Ara, zeruak zabalik dakusdaz, eta Gizasemea Jaungoikoaren eskumaldean zutunik”. Orduan Estepan uritik lekorerara atararik arri-jaurtika egin eutsoen... Bai, ondo dakidan gauza da, ori jazo bitartean, neronek iltzailleen soingaiñekoak zaintzen nebazan-eta. Kristauen lenengo oparia izan zan Estepan gaztea, eta nik nire burua aren iltzailletarikotzat daukat...

Barriri be isildu zan Paul, eta gero onetaraxe jarraitu eban:

– Kristauakanako gorrotoak eragiñik, abadeburuagana joanda, agiriak eskatu neutsazan, niri eskubidea emonez kristauak lotu, eta Jerusalem'era ekarri nengiazan. Damasko'tik ur nintzala, baiña, bapatean goiko dizdir argitsuak inguratu ninduan, eta mintzo batek: “Paul, Paul, zergaitik jazarten nozu...?”. Eta nik: “Nor zaitut, ba, Jauna...?”. “Zuk aurrean narabiltzun Yosu naz –erantzun eustan Jaunak– gogor yatzu akuilluari ostikoka ekitea. Baiña jagi ta sartu zaituz urian; antxe esango yatzu egin bear dozuna”.

Jagi nintzan, baiña begiak zabaldu arren, iñoren zantzurik ez neban ikusi, eta itsu biurtuta bidelagunek Damasko'ra eroan ninduen, iru egunez itsu iraun nebala. Noizbait, Ananias izeneko ikasle bat, Jaunak eraginda etorri yatan, eta ikusmena irabazita,

biziera barri bateri emon neutsan; Yosukristo'ren ikasleek inguratuta, Jaunari egokion guztiaz jakitun ipiñi ninduen, eta arrezkero ez dot beste maitasunik Beraganakoa baiño. Badira urteak andikorik ortikora nabillela, Yosukristo gure Jaunaren nortasun eta ekintza arrigarriak nonai aldarrikatuz eta olan jarratuko dot eriotzerarte. Nire barru guztia Beragana doan gar bizia biurtu yat, eta ez dot besterik gura, nire gose ta egarria egunen baten Aregan asetzea baiño.

Isillune bat sortu zan, eta Paul'ek aipaturiko Golgota'ko gurutzuntzatua gogotik kendu ezin egikean Dan'ek, auxe esan eutsan:

- Neronek ikusi neban.
- Ikusi zer...? –itaundu eutsan Paul'ek–.
- Zeuk esaten dozun Jauna...

Paul'en abotik didar bat iges egin eban, eta Dan'en besoari eutsita, auxe oiukatu eutsan:

- Esan, esan, noiz eta zelan ikusi zenduan...! Oi, neuk ikusi ba'neu...! Ez dot beste atsekaberik Bera ikusi ez izatea baiño, neure begi oneikaz...!
- Golgota orretan ikusi neban, lagun batekin Jerusalem'era lenengoz sartu nintzeanean Jeriko ta Betania'ko bidetik. Urira sartu baiño ez, ortzia illunduta lur-ikara batek artu ninduan, eta orduantxe ganetxu baten iru gurutz ikusi nebazan...

Jarraian, ikuskizun aztueziñari buruz esan eutsan Dan'ek. Amaitu ebanean, barruko zarrastadea jabetu eziñik, Paul'ek,

- Esaidazu, Dan, zelako itxura eban gurutzean ilda ikusi zenduan...?
- Eriotzak artuta izan arren be, karantz ederreko aurpegiak, nik neuk gorpu bategan iñoiz ez ikusiriko bake ta anditasuna erakusten ebazan. Gurutzean josita idazkun auxe irakurri zeitekean: INRI.

– Bai, “Jesus Nazareus Rex Iudeorum” Erromatarrek irri-antzer jarritakoa, baiña benetako erregea zan... Neuk ez dot izan zeuk lako aukerea Gure Jauna ikusteko, merezi ez nebalako, urrean. Aren izena lenengoz entzun nebanean, Beraganako gorroto itsuak artuta, kristauak aurrean erabilten nebazan... Pariseu bateri dagokion irakas-kintza gogoaren sakoneneraiño kutsatua nintzalako... Jaunak barkatu dagistala...!

- Nor da, baiña, orren sarritan itarantzuten dozun Jaun ori...?
- Bera nor dan..? –adorez sututa erantzun eutsan Paul'ek–. Jaungoikoaren Semea, igarleek aurretiaz aipaturiko Gaizkatzailea. David'en leiñukoa zan Kristo Mesias.
- Guzurra...! –oiu au biotzaren sakonenetik urten yakon Dan'eri–. Zeuk diñozuna ezin egitan izan...!

– Zer diñostazu, zoribako orrek...? –asarre antzean Paul'ek–. Egirik itsaropentsue-na izan, eta guzurra dala autortzen daustazu...?

– Begira, Paul, Idazti Deunak ezagutzeko aukerea izan nebanetik, ez dot beste amesik izan, Mesias'en etorrerea baiño, bai, arrotzen atzaparretatik Israel onik atarako eban agindutako Mesias'a. Begira, Idazti Deunak sakon aztertu ondoren, agindutako Salbatzaile ori etorteko zala begitandu yatan, eta eritxi au sendotzeko, eriotz-orduan amak aren billa joan neinten eskatu eustan. Onen ostean, Abimel'ek esenitarren nugu-

siak autortu eustan, bere eritxiz bazala Mesias'en garaia, eta orduan Wadi Qumran itzita, Aren billa asi nintzan. Adu edo patuaren nai ezkutuak, baiña, beste bide batetik eroan ninduan, eta urte askotan zear erromatar zapaltzailearen aurka burrukatu ondoren atxillo egiñik, Erroma'ra naroe dagokidan auzia jasateko. Baiña ziur naz, Palestina'ko lekuren baten jaio ez ba'da, laster jaioko dala...

– Jaio zan Belen errian, eta Galilea, Samaria, eta Judea'n zear Barri Ona aldarrikatu ondoren, Golgota ganetxuan lapur bien artean gurutzean josita il zan.

– Gurutzeko eriotz lotsagarria jasan, Israel andi, jare, eta aaltsua egitearren etorteko zana...? Uste al-dozu olako burubagekeria irusteko gerturik nozula...? Ez orixe...!

– Israel, eta ludi guztia gaizkatzera ta jare egiteko etorri zan, zuk arratsalde aretan egur batera josita ikusi zenduan. Ez eban beste iskillorik erabili, siñismen, itxaropen, eta maitasuna baiño, eta iñoanez, Bere erreñua ez zan mundu onetakoa, bestekoa baiño, eriotzaz arandian betirako irauten dauanarena.

– Orduan –siñisgogor Dan'ek–, irutsi eragin gura daustazu, geure Israel David'en aldietan baizen andia biurtuko leukena, gurutz baten il zala ta kitto...? Iñoizkorik ezain eta zapalduen garanean, zelan siñistu diñostazun ipuiña...? Begira, Paul, zelataria nozu, eta Israel aske ta bere buruaren jabe ikustea nire itxaropena da. Ez nigana etorri, beraz, atso batek siñistuko ez leuken ipuin bataz.

– Ilda gero, illen artean piztu zala da benetako egia, eta Bere ikasleai amaika bidar agertu yaken zeruetara biurtu aurretik.

- Zelan dakizu ori, Bera ezagutu ez zenduan orrek...?
- Bere ikasle, Kepa, Santiago, Felipe, Yon, eta beste askoi agertu yaken, eta euren artean jarrita, irakasten jarraitu eban. Jaunaren ama, Miren, ezagutu ba'zendu neuk ezagutu neban lez, orduan ez zenduke ezetariko zalantzarik izango.

- Aren ama ori, guratzaren ondoan ikusi neban Andrea izango zan, urrean,
- Bai, berak lagundu eutsan il zan arte, Yon eta emakume zintzo batzuk alboan ebazala.

- Amaren ondoan ikusi neban gaztea izango zan Yon ori.
- Bai, orain Patmos ugarteaz atzerriratua bizi dana.

Isildu ziran une luze batez, bakotxa bere oldozkunetan murgilduta. Gero, Paul'ek, – Begira, Dan eta Gorian maiteok –esan eutsen–, Yosukristo piztu zan gurutzean ilda gero, eta au Jaungoikoak bakarrik egin dagiken gauza da. Emen datza, nire ustez, Yosukristo'ren Jaungoikotasuna. Illen artetik piztu ez ba'litz, zeu baizen siñisgogor izango nintzake, baiña Bere pizkundean oiñarritzen da nire ta jarraitzaileen sinismena. Zuen aurpegi illunotan siñisten ez dozuela argi ikusten dot, baiña ni ta zuekaitik il zala siñistu dagizuen aalegindu gura izango neuke, ainbat eta ainbat lekutan egin dodan lez. Esaidazue, Dan eta Gorian anai maiteok, soto onetara etorri nakizuenetan, nire esatekoak entzuteko gerturik izango ete zaituedan...

Baietz erantzun eutsoen lagun biek, baiña Basamortuko Semearen begietan batez be, siñisgogorkeria agiri zan. Eta au ez zan arritzekoa; Idazti Deunetako iturrietan Dan'ek indarra aurkitu izan eban, eta Israel'eri anditasun eta aintza ekarriko leuskiozan

ain luzaro irrikaturiko Mesias, laidotu izanez gaiñera, berak ikusitako egur batera untzatuta il bear, bere adimenak onartu ezin egikean gauza zan. Judutar erria gaizkatzera etorri, eta berak eriotz lotsagarria aurkitu gurutz baten... Ori eziña zan, eta abertzale sutsua zan aldetik, are gitxiago... Kristo Mesias etorri ta joan ostean, Palestina, judutarrren aberria, iñoizkorik jopuen eta zapalduen zetzan arrotzaren buztarriean. Dan'entzat, dalako Nazaret'eko Yosukristo, ezin zeitekean guzurti bat baiño izan.

Tarso'ko Paul, baiña, Kristo'ren jarraitzaille maitemindua zan, eta berarentzat ez egoan garaiteziña zan oztoporik, Jaunaren egia aldarrikatzerakoan. Paul'entzat, Aren ekintzarik andiena, illen artetik piztu izatea zan; au ezin egikean Jaungoikoak baiño egin, eta Damasko'rako bidean itsutu eban argi dizdiratsuak eta Jaunaren berbak, erraldoi baten idarra emotsoen. Siñismen indartsu oneri, itxaropen sutsua ta maitasun bizibizita erantsita, Paul Barri Onaren zabaltzaille nekeziña zan. Onezaz gaiñera, Yosu'ren ikasleen iturri gardenetatik baretu izan eban Egiarekiko eban egarmiña, eta irrika neurribakoak eraginda, jentillen artean, Jaunaren irakaskintza berba adoretzuaz erein eban. Gizon jakintsua ta mintzo erakarkorrekoa izanik, eurrez biurtzen ziran kristauak.

Yosu'ren ikasleen artetik, Paul aurrena izan zan Barri Onaren osokortasunaz jabetu zana. Lenengo ikasleek, siñiste barria judutar erriari bakarrik egozten eutsoen, jentillak gogoan artu barik. Laster oartu zan Paul, ezin zeitekeala izan erri bakotxarentzat Jaungoiko bereizi bat, au da, norberaren neurriari egokiona, eta beraz, Jauna irakatsitako Barri Ona, Palestina'n jazo izan arren be, mundu guztiarentzat aldarrikatua zala, eta beste lurraldeek judutar erriaren eskubide bardiña ebela kristauak izateko. Uste onek eraginda, atzerriko jentillen artean Barri Onaren azia erein eban, jazarten eutsoen galzori larrien artean. Asiera baten, bere irakaskintza juduen sinagogatan aldarrikatu eban, eta emendik, inguruko jentillakana edatu zan astiro baiña etenbarik. Orokortasunaren ikuspegi au zala-ta, amaika eztabaida ta istillu jasan ebazan Paul'ek lenengo bidali edo apostoluekin, baiña azken baten, gogo erraldoikoa zan tarsotar urten onek, beste bidaliai burutara emon eutsen, Yosukristo, Jaungoiko orokor baten semea zala, eta gizaki guztiek baebela eskubidea Barri Onaren jarraitzailleak izateko, eta beraz, Jaunaren irakaskintza ezagutzeko.

Eta Erroma'ra bidez, ontzia Kreta ugartera abiatzen zala, aal ebanetan Paul sotora jatsi, eta kateatuen artean bere mintzo sarkor, maitetsu eta sutsua bananduz, azkenean Gorian eta Dan'egana joian, soruan kukurio jarrita luzaro samar ziarduala. Aurretik, osasunari buruz itauntzen eutsen, eta jarraian, Barri Onaren zati bat gaitzat artuta, luze ta sakon aren esangurea azaltzen eutsen. Laster, baiña, oartu zan Paul, adiskide bi areik jaramon gitxi egiten eutsoela, eta gora igoten zanean, bein eta barriz Jaunari eskatzen eutsan siñisgogor areik bide onera ekarten lagundu egitsan. Aldiaren bidean, baiña, Gorian'en mukertasunak bazirudian zelanbait amor-egiten ebala, eta sarri askotan armenitarraren aurpegian argi baten dizdira ekusala begitantzen yakon. Isil eta ezkibel, Dan'ek, ostera, iñotsana ez eutsan aintzakotzat artzen, eta bere barruan bilduta, galduriko aberriaz ames egiten eban. Basamortuko Semearen jokaera nakarra oartzera oituta zan Paul, judutar askorena zan-eta, apurtu-eziña zan oskol gogorra, argia barrura sartzen ez eban lagaten orma zeargatxa. Lagun-urkoa maite izaten eban Paul'ek Jaunaren

deia aditu ebanetik, baiña Dan'egan oartzen eban zerbait bereziak, indar jarkieziñaz erakarten eban, eta aren mukerkeria oartzean, biotza naigabez beteten yakon.

Kreta ugartetik ur, "Eurakilon" ego-aize zakarrak artuta, ontzia aizeari lagata joian, ozta-ozta Kanda ugarte txikia saiesturik. Egun askotan ez ebezan izarrik ez eguzkirik ikusi, eta onik urteteko ustea galdu eban. Sotoan, egoerea larria zan, eta kateaturiko atxilloek euren azkena somatzen eban txitean-pitean. Ontziaren bilin-bolakak zirala-ta, sotoko gaixoez ez eban Paul'en ikerpenik izaten, gogoan ebela, ontzia urperatuko ba'litz kateakaitik eurontzako gaizkatzetik ez.

Amalagarren gabeen, legorra ur egoala somatzen eban itsaslariek. Atxen bat joteko bildurrez, lau aingura jatsi ebezan atzekaldetik, eta iges egin naiez, estu ta larri itsastarrak txalupea itsasora jaisten asi ziran. Orduan euntari ta gudariai esan eutsen Paul'ek, itsasgizonak ontzian geratzen ez ba'ziran, ezin onik urten. Au entzutean, euntariak txalupearen lokarriak ebagi ebazan. Egunsentiaren begira, guztiai eskatu eutsen Paul'ek zeozer jan egiela, buruko ule bat bera be ez leukiela galduko iragarritz. Au esanik, ogia artu, eta Jaungoikoari esker emonez zatitu ta jaten asi zan, eta enparauek, sotoko atxilloetaraiñoko guztiak be, jan eban, baraurik zirauela luzaro zan-eta.

Argitu zanean, itsasbazter bat ikusi eban, eta ara joateko aingurak jaso, eta oial nagusia edatu eban, baiña alako baten ontziak ondartzat jo eta aurrekaldea zirkiñik egiteko ezinduta, ontzia gelditu zan, arrakalatutako txoepa ugiñek zabaltzen ebela.

Kinka larri onetan gudariek atxilloak iltea erabagi eban, baiña oneitariko bat Paul izanik, begi andia eutsan euntariak zitalkeri au debekatu eban.

Kateetatik jareginda, beste lagunekin Dan eta Gorian, urez beteten asten zan sotoa bertanbera itzi, eta arrapalada baten ontzi-bizkarrera igon ziran. Orduko, gudariak eta itsaslariak ontzitik urruntzen ziran, eta gure adiskide biek urari burua emon eutsoen. Gaiñaldera urten zanean lagunaren billa urak aztertzen asi zan Dan, armenitarra ugerilari kaxkarra zala baekian-eta. Alako baten, Paul'en ondoan ikusi eban, onek emondako ol-zati bateri eutsita, legorrerantz abiatzen zala. Paule'ek ostera, itsaso zakar aretan estu ta larri, ugeriera baldarraz, ozta-ozta gaiñaldean irauan urperatzeko zorian. Lau besokada indartsukaz urreratu yakon, eta okotzetik artuta, andik ur samar egozan atxetara lagundu eutsan. Berba egiteko gauza ez zan Paul, begikada adiskidetsu bat az eskertu eutsan. Legorreratu ziranean, Dan itsasora biurtu zan, Gorian-eta beste batzuk laguntzera.

Ontzi-ondapena ikusi izan eban Malta ugarteko batzuk, laguntzera etorri yakezan, eta guztiak legorreratu ziranean, su andia piztu eban, otzez lau-dardan egozan arrotzak, baretu zeitezan eta janzkiak legortu ekiezan. Onen ostean janaria banandu eutsien. Garren ondoan zuzperten ziarduen Dan eta Gorian'egana, Paul etorri zan, eta,

– Aizu Dan –esan eutsan txeratsu–, eskertu bear dautsut nire alde egiña, ito ez nazanean gitxik egin dau-ta. Zugaitik ze, txarto ikusiko neban nire burua.

– Baiña, Paul, denganiño ori –sasi-asarrez Dan'ek –zelan otu yatzu, orren ugerilari ezaiña izanik, zerabiltzan ol-zatia beste bateri emoten.

– Ara, ur-azalean nekez zirauan gure adiskide Gorian ikustean, Jaunak burutara emon eustan, nerabillen egur ori emotea, eta orregaitik ba...



– Gitxik egin dau ba, ito ez zaranean.

– Begira, Dan, Yosukristo gure Jaunak ez dakit zelan, itarantzun eustan Erroma'ra joan neintela, eta aalegiñak egin dodaz Aren guraria beteteko. Agindu ori Beragandik artu ba'neban, ezin neintekean ito, eta orregaitik, samaritar ona alboan ipiñi eustan; zeu, izan be.

– Zer arraio da, Samaritar on ori...?

– Orain ez dot astirik azaltzeko, baiña egunen baten jakiñerazoko dautsut Jaunaren alegi ori, baita beste asko geiago be, emen eretirik ez ba'neu, egunen baten Erroma'n.

– Erroman...? Nik al dakit zer billakatuko nazan...! Epaitua izango naz an, eta eriotzera galtzen ez ba'nabe, ez naz urrun ibilliko...

– Zerbaitek badiñost Erroma'n alkar ikusiko dogula, Dan, eta nire biozkadak egi biurtzen dira beti.

Zoritzarrez, andik laster Paul eta adiskide biak banandu izan ziran, oneik gudarien zaintzapean iru illabetez bidegintzan ziarduela. Epe ori igarorik, Alejandria'ko ontzi baten Siracusa'ra eldu ziran, eta emendik Regio'ra, eta ego-aize sortuta, Pozuoli'ra. Leku onetan, kristau anaiak aurkiturik, zazpi egun alkarrekin emon ebezan ontziko guztiek, eta atxilloek gudarien zaintzapean oiñez jarraitu eutsoen bidegiteari, Erroma'ra sartu ziranean, emengo anaiak bidera urten yakezan Paul-eta agurtzearren, Apio-enparantza ta Iru Ardandegi'taraiño. Ona elduta, espetxeko nagusiari atxilloak emon eutsazan euntariak, baiña lege andia eutsan Paul'eri etxe baten egoteko baimena emon eutsan, gudari baten zaintzapean.

Izan be, azken egunetan Paul'ek ez eban aukera andirik izan Dan eta Gorian'en laguntza izateko, baiña adiskide bi oneik gudarien artean espetxera abiatzeko zorian zirala, Paul'ek,

– Agur adiskide maiteok –txeratsu esan eutsen–, Jaunari eskatuko dausat onik atara zagiezan. Agur eta biotz on...!

– Agur, Paul –esan eutsan Dan'ek–, oso ona azaldu zara gurekiko, eta eskerrik asko gure alde egiñagaitik.

– Agur, Dan, agur, Gorian. Jaunak zaindu zagiezala. Besarkatu nagizue...!

Alkar besarkatu eben, eta espetxera abiatzen ziranean, Dan'ek,

– Aizu, Gorian –esan eutsan–, Paul ori on utsa da, baiña zeozer burutik eginda da-goala baietz egingo neuke.

– Ez dakit, Dan, baiña Paul gizaseme gain-gaiñekotzat daukat, eta bere barruan argi berezia somatzen dot. Israel'en arazoaz orren indartsu artuta ez ba'zeintez, Paul beste ikuspegi batetik ikusiko zenduke.

– Zein ikuspegitik...?

– Berari parrastaka dariozan egia ta maitasunaren aldetik.

Dan'ek soiñak jaso ebazan, eta orkatilletatik eroian katearen narrazte-otsak lagun-duta, gudarien artean espetxera abiatu zan, bere buruari itauntzen eutsala, zer jazoko yakon Gorian'eri orren aldatuta agertzeko.

Dan eta armenitarra beste atxilloekin Porta Metronia ondoko dorre baten giltzape-tu izan ziran. Dorre onetako zatirik andiena gualostea zan, baiña saiets baten espetxe bat egokitu eben. Espetxe onetara sartuta, gela illun eta goibel bateko burdiñezko sare-dun atetzarraren ostein itxita geratu ziran. Ormen luzean, arrizko aulki bat egoan, eta gela onetan egozanekin egokitu ziran etorbarriak. Egunean birritan banatzen yakezan otorduak, geienetan lekadunen lapikokoa izanik. Ezetariko zeregiñik ez eben ezker, zoribako arein jolas bakararra, alkarrizketea zan.

Eldu ta urrengo egunean, espetxelari batek Gorian'en izena aldarrikatu eban. Izan be, armenitarra auzkarizat saldu izan zan, eta eroslea etorrita, ez eban zertan atxillo jarraitu bear. Urten aurretik, adiskide biek alkar besarkatu eben. Alkarrekin bizi izanda-ko lau illabete areitan, bion artean adiskidetasun andi ta estua sortu izan zan, eta orain-go banaketeak naigabetzen ebazan.

– Agur, Dan, iñoiz ez arte –esan eutsan Gorian'ek–.

– Batek-baki, Gorian... nik betirarte esango neuke.

Malkoak begietan, lagun biak bereiztu izan ziran. Baekian Dan'ek auzkarien egu-nak laburrak zirala, eriotz-burruketan ziarduenean batez be, eta au oiko gauza zan. Armenitarra ikusmenetik galdu ebanean, Basamortuko Semea jesarri zan, eta aurpegia eskuen artean ezkutaturik, oldozkun mingotsetan murgildu zan.

Atxilloen artean baziran batzuk laziotarrak ziranak, eta eretia egokia zala uste izan-ik, lagun onein bidez latiñera ikasten asi zan, eta onek gogoeta itzaltsuak uxatzera la-guntzen eutsan. Beñola, espetxelari batek bere izena aldarrikatu eban, jarraitzeko agintzen eutsala. Arrizko zurubian gora igon zan areto zabal eta txukun bateraiño. Aul-ki banatan jesarrita, espetxeko nagusia ta andra bat berbetan ziarden. Andrea ondo jantzita zan, eta aurpegi onberatsu, liraiñari urentasuna erion. Dan sartu baiño ez, na-gusia jagi zan, eta,

– Ona emen, Klodia Andrea –esan eutsan–, Basamortuko Semea ezizeneko isral-darra. Nai aiña luzaro iraun dagikezu izketan berarekin. Amaitzean, dei egistazu, ate-raiño lagundu dagizudan.

Espetxeko nagusia urten zanean, bere buruari itaundu eutsan Dan'ek zer jazoko zan, eta olan “zeri nakio” egoala, andra arek,

– Jesarri zaitetz nire ondoan –agindu eutsan amultsu–. Ni Klodia naz, Publio Mar-zius'en alarguna.

Itzok entzutean, biotz-ikara batek jota, mintzo erabetiz,

– Baiña Andrea –itaundu eutsan Dan'ek–, nire adiskide zintzo Publio, il ete da...?

– Bai, Dan, Publio nire senarra, Afrika'ko itsasaldean burrukan ziarduala, gezi batek zaurituriko, etxera ekarri eusten, baiña luzaro barik zauria pasmau yakon, eta nire besoetan il zan.

– Tamal andia dautsut, Andrea. Gizon zintzo ta zuzentzat izan dot beti, eta zuk senar ona galdu ba'dozu, nik jasango dodan auzian nire alde azalduko zana. Ene buruak orain ez dau “as” bat bera be balio. Edozelan be, eskertzen dautsut, benetan, ni ikustera etorri izatea, eta ziñez diñotsut albiste orrek atsekabe bizia ekarri daustala.

– Begira, Dan, ez naiatzu etorri zu nire senarraren eriotzaz jakitun ipinteko bakarririk. Zutaz sarri askotan mintzaten yatan Publio, eta bere eriotzaldian auxe agindu be ar izan neutsan: Zure alde aal izango nebana egitea, eta zuri buruz Publio'k edestu eustanaz, zure alde ekitea erabagi dot. Augaitik, beraz, orain iru astebete inguru ospatuko dan zure aurkako auzian, jagoletzat azalduko naz.

Zur eta lur eginda begiztatu eban Dan'ek aurrean eban emakume yaukala. Berrogei ta bost urteko inguru izango zan andra aregan, urteen bide latzaren ezaugarriak agiri izan arren be, edertasun bikaiñeko aztarnak erakusten ebazan, baiña beragan nabarmenena, aurpegiaren karantzak adierazoten ebazan barruko ontasun eta indarra ziran. Une batez, zearo unkituta begiztatu eban Dan'ek, eta gero,

– Noiz ezagutu dan, baiña –begirunez esan eutsan–, zeu lako Andra ospetsu batek, Erroma'ren kaltean jardun dauan itsaslapur baten alde aalegindu daitela...? Izan be, merezi dodan baiña askozaz geiago da.

– Norberak merezi dauana zailla da neurtzea, baiña nire senarraren critxian merezi zenduan ederrespena andi-andia zan, eta orain zu ezagutu ondoren zuzen egoala gero ta argiango dakust.

Une batez isilla edatu zan, eta gero Dan'ek,

– Klodia Andrea, sarri askotan mintzatu yatan Publio bere etxekeotaz. Zer billakatu dira zure seme-alabak...?

– Seme nagusia Apulia'n pretor dago. Bigarrena, Bespasioano gudalburuarekin buruzagitzat, eta etxeke kutuna dan nire alaba Lotis nirekin etxean bizi da.

– Pozgarria izan bear, seme-alabak zoriontsuak dirala jakitea. Publio zanak, sarri askotan zu ta zure seme-alabai buruz berba egiten eustan. Maite-maite zinduezan berak.

– Baita guk bera be.

Malko lodi bik irrist egin eben Klodia'ren aurpegian beera, eta gero, barruko zarastadea eskutatzearren, urrean,

– Joan egin bear dot, Dan. Garaia eldu dakizunean, Augusto izeneko foro edo enparantzan auzia ospatuko da, eta an izango naz. Orren aurretik, baiña, bearreko izatekotan, biurtuko naz. Anartean, agur, baiña ori baiño len, torizu ekarri dodazan soingaiñeko ta oiñetako oneik.

– Agur, Klodia Andrea. Benetan eskertzen dautsut, ni ikustera etorri izateaz gaiñera, damostazuzan gaiok.

Dan ziegara biurtu zanean, espetxeke nagusiari dei egiñik, diruketa bat eskuratu eutsan Klodia'k auxe iñotsala:

– Espetxeburu Jauna, diru au Dan israeldarraren janaria obatzeko da. Ondo erabiltea eskertuko neuskizu.

– Nasaitu zaitez, Klodia Andra agurgarria, zure guraria beteten saiatuko naz.

Ziegako atetzar astuna bere atzetik itxi zanean, Klodia'k emondakoak aztertu ebazan Dan'ek eta eskerroneko zauskada batek astindu eban. Izan be, soingaiñekoa miesarik ederrenetarikoa zan, abarkak bikain-bikaiñak, andiki bateri egokiozanak izan be. Orduko, bidaldi luzea ta erabilte zakarra zirala-ta, Dan'en soingaiñekoa ta abarkak, erabilteziñak biurtu izan ziran. Erara etorkiozan Klodia'k ekarritakoak, baiña, auzirako bakarririk erabiltea ebatzi eban.

Egunak alkarri erraikioen abiada nekagarriaz, laziotarrekin itz egiñez latifñerea obaten yakola, eta bidebatez orduen astuntasuna arinduz. Askotan, bere buruari iñotsan eriotza oba izango ez ete iraupen lander a baiño. Klodia'k itarauntzuniko iru asteak igaro ziran noizbait, eta goiz baten, eskutur-txonkatillak kateaturik, amarreko batek Porta Metronia'ko espetxetik, Klaudio, eta gero Venus'en Jauretteen ondolik, Augusto enparantzara eroan eban. Eldu ziranean, jopu batzuk epai-maia atontzen zirduen, eta iru besaulki epaikarientzat jarri ondoren, alde egin eben. Augusto enparantza Mars Ultor'en Jauretxeak burutua zan, eta onen arrizko maillatan, Dan eta gudariak jesarri ziran auziaren begira. Porta Tiburtina'ren gaiñetik udabarriko eguzkia jagiten zanean, Klodia eldu zan, eta Dan'egana joanda, agur maitekorra egin eutsan, auxe iñotsala:

– Egunon, Dan, goizetik jagi naz, zure alde esan bear dodazanak atontzearren.

– Eskerrik asko, Klodia Andrea.

– Publio bizi izan ba'litz, auziak itxura ohea izango leuke, baiña edozelan be, aalik ondoen saiatuko naz zure alde.

– Andrea, ez kezkarik izan orregaitik. Ziur naz zure senar zanaren baizen ondo jardungo dozula nire alde.

Une aretan, Dan epaituko leukien iru epaikariak esku-aulkietatik jatsi, eta maipuruan egozan iru besaulkietan jesarri ziran, keiñu banaz Klodia agurtu ondoren. Irukonde epaillea, Metelo, Valerio, eta Livio erri-aaldunak (tribuno) ziran. Jesarri baiño ez, lendakaria zan Valerio'k jopu bateri Klodia'rentzat beste besaulki bat ekarri egian agindu eutsan, eta alarguna maiaren alboan jesarri zanean, gudari bien artean Dan ekarri eben, eta mai-aurrean zutunik, auziaren begira geratu zan.

Une aretan eguzkia Erroma'ren gaiñetik jagiten zan, eta soingaiñeko to oiñetako barriakaz jantzitako Basamortuko Semearen irudi lerdan, indartsu ta ederra agirian jarri eban. Izan be, judutar endaren eredu bikaiña zan eta billo ta bizar baltzaz inguraturiko aurpegian, aren begi gaztainakara argitsuek, aurrera so egiten eben irmo ta baketsu, bildur-izpirik txikiena be erakutsi barik. Oitua zan Basamortuko Semea, erromatarren aurka burrukan egiten asi zanetik batez be, txitean-pitean eriotzaren aurpegiari aurrez-aurre begiratzea, eta oraingo egoerak ez eutsan iñongo arrenkurarik emoten. Eriotzera galduko ba'leukie be, bere gurari bakarra duintasunez iltea zan.

Eta olan, izukaitz eta arro epai-maiaren aurrean egoala, Valerio maipuruaren mintzoa, onetaraxe aditu zan:

– Idazkaria dan Metelo erri-aaldunak, atxilloaren aurkako salakuntzea irakurri dagiala.

Bitartean, “zeri nakio” ta “non-ze-barri” batzuk Mars Ultor Jauretxeko arrizko mailladian jesarrita, jakin-guraz begiztatzen eben Dan'en irudi txairoa. Izan be, aldi areitako Erroma'n baziran alper ugari, laterriak emotsezan janari ta zirkoko ikusgarriak azetzen ziranak, agirian ipiñirik, Ogi ta jolasaren leloa. Bildur andia eutsien Erroma'ko agintariak, janari ta jolasak urri billakatzen ziraneko erri-matxinadai, eta augaitik aalegintzen ziran beste lurraldeetan arrapatzen ebezan garia-ta uriburuan peitu ez zeitezen. Jolasai buruz, ondo ornidu oi eben “Zirko”a aukari (gladiador) eta piztiakaz, jendekeri asarrekoia asetu zeiten.

Metelo idazkaria, Dan'en aurkako salakuntzak mintzo argi ta astitsuaz aletzen asi zan, Basamortuko Semeak egindako lapurreten zertzeladak emonez. Irakurketea amaitu zanean, auzi aretan salatarizat ziarduan Livio erri-aaldunak, auxe itaundu eutsan:

– Dan Ben Oziel, egirik al-dira, zerorrek Erroma Aginterriari egindako kalte edo makur orreik...?

– Guzti-guztiak gomutatzen ez badodaz be, geienak egi baietz esango neuke.

– Egia al-da, Patmos ugartean “Etruria” izeneko erromatar ontziaz jabetu zintzazala...?

– Bai, Jauna. Ontzi orren gudariak belaki-arraintzarako gerabillen ontzia urperatu euskuen, eta onezaz gaiñera, jopu egin nai ginduezan.

– Ez al-dakizu, Muzio Cayo “Etruria”ren ontziburuak eta onen ordekoa zan Sila Druso'k etsiak artuta euren burua il ebela...?

– Arrezkero jazo zana ez dakit. Autortu bearrean naz, iñoren ontzia ostu egitea ekintza zantarra dala, baiña orretara gure belaki-ontziaren ondapenak beartu ginduzan.

– Egia al-da, gure aginterriari ostutako “Etruria” ontzi bikaiñari “Izenbako” deitura emon zeuntsala, eta masta nagusian Dabid'en izarra jasota, itsasoan zear Erroma'ri aal zenduan kalterik andiena egin zeuntsala...?

– Israel gure Erriari Erroma'k egiten dautsan ondapenaren aldean, txikikeria baiño ez da.

– Erroma'k bear ebazan janari ta beste gaiak kendu zeunskuzan, edo itsasoko sikonetara bialdu. Gudari ta itsastar asko zure erruz il izan dira, eta au dala-ta, Erroma'k oi dauan lez zigortzeko gerturik dozu. Zeuk mai onen aurrean autortu dozuna, naikoa da dagokizun zigorra erabagi dagigun. Entzunak entzun, beraz, ez dot beste itaunik egingo.

Orduan, epaikari-burua zan Valerio'k,

– Auzi onek –esan eban– bereiztasun bitxi bat eskintzen dausku, eta auxe alegia: aurrean aurkezten yakun Dan Ben Oziel orrek, dirudianez, Publio Marzius, Erroma'ko seme ospetsu ta ontzidi baten nagusi saiatua “Tirrenus” ontzi aintzindariaren egoala, salatu onek gabeko bake ta illuntasuna ustiatuz atxillo egin, eta urrengo egunean, Erro-

ma'ren aintza zan “Tirrenus” ontzia urperatu eban. Jare-sarizat, Publio Marzius'ekin ogei ta amabost urrezko talentò, bederatzí illabeteko epean ekarríko zírala itundu zan. Bitartean, baiña, Publio Marzius'en sendiak kaiser Claudio'ren uste ona galduta, jabetzen ebazan ondasun guztiak baitu izanik, ezin eskaturíko jare-saria batu. Mezulari batek auxe jakiñerazo eutsanean, Dan Ben Oziel'ek edo Basamortuko Semeak ezizenez, oikoa egin-bearrean, au da, atxillo erailtea, askatasuna emon eutsan. Auxe da, beintzat, Publio Marzius'en alargunak epai-mai oneri autor egiten dautsana.

Ona elduta, lipar batez Valerio isildu zan, eta gero Klodia'ri begiratu,

– Esan, Klodia Andra agurgarri orrek –itaundu eutsan–, egia al-da il-agiñean zala, zure senarrak idatziz jarri ebala ori...?

– Bai, Valerio erri-aaldun agurgarri ori. Idazki orrezaz gaiñera, nire senarra guda ekintzetatik etxera biurtzen zala, amaika bidar edestu eustan jazokizun ori. Izan be, Publio Marzius'ek ederrespen andia eutsan Dan Ben Oziel'eri, eta etsaitzat baiño, anaizat eban.

– Esan, Klodia agurgarri orrek –Valerio'k barrí–, zin egingo zenduke, Jano, atean Jainkeme andiaren aurrean, jazokizun ori benetakoa dala...?

Olinpo'ko sasi-jaungoikoak siñisten ez ebazan Klodia'k, une batez isillik iraun eban, eta gero mintzo indartsuz,

– Nire senar zanaren gomutegaitik, eta gauza gudtien egillea dan Jaungoikoaren aurrean, zin dagit ekintza ori benetakoa dala.

Ziñegite au entzunik, erromatar jainkoan siñiste makala eben Metelo'k eta Livio'k, arazoa amaitutzat emonda, epaikarien irukondea mailladian gora Mars Ultor Jauretxera sartu, eta une batez txutxumuka jardun ondoren, epai-maira biurtu ziran, eta eritxi-emoillea zan Valerio zutunik jarrita, auxe aldarrikatu eban:

– Jupiter, Marte, eta Jano, erromatarren Jainkoen Irukonde Andiari, adimena argitu dagiskula eskatu dautsagu, eta ona emen, Olinpo'tik etorri yakun erantzunari jarraituz, gure epaia: “Dan Ben Oziel dalakoak pekatu larria egin dau Erroma'ren aurka, eta ezpaibarik gurutzeko eriotza merezi dau. Gogoan arturik, baiña, gure aginterriko gudariarik onetaríko bat bere menpetik onik urten zeiten laga ebala, Elba ugarteko burdinmeatzetan, amar urtez jardun dagiala epaitzen dogu”.

Une batez, Augusto enparantzan isil astuna edatu zan. Edonork amar urtez meatzlanetan jardun egian, alperriko epaia zan, bear latz, izugarri orretara zigortuak, urte bitara ez ziran eltzen-eta. Enparantzako isil astuna Klodia'ren erosta larri batek eten egin eban, didar bizitan epaikariai auxe iñotsela:

– Jaun epaikariok, arren, arindu egizue zigor ori, eriotza lakoa da-ta...! Begira, Erroma'ko Zuzentzari, Dan, Basamortuko Semea urre-pillo baten ordaiñez erosten dautsat, eta olan zin dagitsuet, etxean joputzat jardungo dauala amar urteotan, egiñikoa ordaindu dagian. Arren, Jaunok, entzun nire eskaria...!

Epaikarien irukondea, baiña, begirunerik andienaz Klodia'ri burutara emoten aalegindu zan, emondako epaia bidezkoa izanez gaiñera, Olinpo'tik artutako erantzuna zala. Dana alperrik, baiña, eta Klodia baretu zeiten ezíña zala ikusirik, epaikariak alde

egin eben. Aurpegian beera malkoak mara-mara eriozala, Dan'egana joanda, eta eskuai oratzen eutsazala, Klodia auxe esan eutsan:

– Barkatu egidazu, Dan, baiña bene-benetan uste izan neban, zigor ariñago bat emongo litzakizula...

– Ez larritu, Klodia, ondo baidakit nire alde indar guztiakaz aalegindu zareala. Atxillo egin ninduenetik, banekian letorkidakena, eta eriotzeari aurre egiteko gerturik nozu. Begira, Klodia, Israel'en alde erromatarren aurka burrukan asi nintzanetik, banekian uts ala bete jokatzan nebala, eta ona emen gaur galtzaille billakatu nazala. Bizitzaren bidaldiak noiz edo noiz amaitu bear... eta nireari azkena etorri yako. Barriro be badirautsut ez zaitezala larritu, eta laga dagigun gure etorkia Yahvé'ren eskuetan.

– Lengo baten, Erroma'n bizi dan judutar bateri entzun neutsan, Palestina'n Jaungoikoaren Semea bizi izan zala, eta Onen arrigarri batzuk edestu eustazan. Arrezkero, badirudi nire izaerea argiago egin yatala, eta Jaungoikoaren Seme orreri eskatuko dautsat oraingo estualditik onik atara zagizan.

– Nor da Bera...? –zarrastada bakanak artuta itaundu eutsan Dan'ek–.

– Yosu Nazaretarra.

– Bera barriro izan bear be...! –asarre-antzean berekiko Dan'ek–. Badirudi noana-noala, gure bideak gurutzatu bear dirala beti...

– Agur, Dan, gudariak gerturik dakustaz zu espexera eroateko barriro. Agur eta biotz on...! Gogoan izango zaitut, eta egunoro Nazaretar orreri, onik atara zagizan eskatuko dautsat.

– Agur, Klodia. Neuk be gogoan izango zaitut.

Zarrastada indartsu bateri jarki eziñik, kateaturiko eskuen artean Klodia'renak artu, eta mosu bana ipiñi eutsen. Andik laster, etorritako bidetik biurtu zan Porta Metronia'ko espexera. Isillik eta etsiak artuta, Klodia etxera biurtu zan, Dan'en alde geiago egin aal ez izateagaitik minduta.

Aldi areitan, Erroma'k bear izaten eban burdiña, zati andi batez Elba ugarteko meaztegietatik lortzen eban. Ontzietan andik ekarritako burdin-meatza, uriburuko inguruetan erreken ondoan egozan oletara joian. Ostia portuko kaietatik ekarritakoa, lantegi orreitan egurrezko ikatzaz galdatzen edo urtuten zan. Olan lortutako agoia gabipean ipiñita, onen zartadek burdin eta zepa bereizten ebezan, eta jarraian, burdin-mulkoa gabiaren eragintzaz lantzen zan, nai izandako itxurea artu egian. Lan au egiteko, gabia ta auspoa erabilteko batez be, uraren jauste-indarra ustiatzen zan. Olan lortutako burdiña, iskillioak, lanabesak, eta guztitariko tresnak egiteko erabilten zan, orretarako Erroma'n bertan zenbatu-eziñeko errementegiak egozala, aipaturiko gaiak egiteko.

Elba ugartea 220 kilometro laukondekoa da, eta Toscania'tik amar bat kilometroko bitartera dago. Etruskoek Aethalia izena emon eutsoen, gero erromatarrek Ilva, eta gaur Elba izenaz ezagutzen da. Gaurregun Porto Ferraio esaten yakon portua, aldi areitan kai laburreko errixka ezaiña zan. Ugartea oso menditsua da, eta 1.000 metro garaia dan Capanne mendia oroz gaiñetik jagiten da.

Auzia ospatu ta urrengo egunean, beste atxillo batzuekin kateaturik, gudarien artean “Via Ostiensis”en zear, Erroma uriko portua zan Ostia'ra joan zan Basamortuko Semea, eta ontzi bateko soto zikiñeko erraietan gaba emonda, urrengo goizean goizik, aize oialak zabaldua, iparrerantz abiatu zan, Etruria'ko itsas-bazterra ikuspegitik galdu barik, eta egun bi igarota, Elba ugarteko portura gau beranduan eldu zan.

Etruria'ko itsas-bazterraren atzetik eguzkiaren txirindola gorria jagiten zanean, bederatzi buztanetako zigorra erabilliz, iru morroik atxillo zoribakoak birao ta aiñenka ontzitik atara, eta alkar-kateaturik andik urrun ez egoan zabalune bateraiño eroan ebezan. Lerro-lerro egozanean, orain meatz-zaindaria zan jopu izandako morroi bat, izenak irakurten asi zan, eta atxilloak amarnaka taldetan jarrita, beste zaindari batzuk, talde bakotxari egokion lan-tokira eroan ebezan.

Dan'en taldea, andik ur samar egoan luebaki zabal batera eldu zanean, zaindaria mintzo zakarrez auxe esan eutsen:

– Zorionekoak zarie, azaleko jarduna jaurri yatzuelako. Lan neketsua da meatzariarena, baiña azalean izan bitartean, tira...! Ez dakizue lurpeko jarduna zer dan, eta oba izango yatzue, inpernu ori ez ezagutzea. Esan bear daustuet, baiña, bakotxari dagokion zatia ez ba'dozue beteten edo bear dan beste esanekoak ez izatekotan, ara, lurraietara aitzurkatzera joango zarie, eta badirautsuet auxe: lurpeko meatzariak urtebe-te batetik gora ez dabela irauten...

Dan'en taldea begiz aztertu eban zemaikor, eta gero,

– Lana biñaka egingo dozue –agindu eutsen–.

Au esanik, atxilloak biñakako erreskadan banandu ebazan. Dalako meaztegi-zaindaria aurpegi baltzaraneko tunizitar indartsu ta zakarra zan. Dan beste atxillo batekin alkartzeko zorian zala, baiña, Klodia'k emoniko soingaiñeko bikaiña ikustean, auxe esan eutsan:

– Aizu, judutar zorritsu orrek, darabiltzun soingaiñeko eder ori, meaztegi-lan zakarretan erabilli dagizula tamal andia da. Augaitik ba, ekarri egistazu, gaur gabeen, gauza onak ederresten dakiazan andratxu batek, begi samurrakaz begiztatu nagian.

Au esanik, atzaparrak zirudien eskuakaz, soingaiñekoari oratu eutsan. Klodia'k emoniko janzi ederra, txarri-itxurako morroi zakar arek kendu egitsala jasan eziñik, zirkin indartsuaz atzera bultzatu eban Dan'ek. Jausi-ez-jausi alboka egiñez atzeraka joian tunizitarra, noizbait gelditu zan, eta asarre gorritan suturik, meatza zulatzeko erabilten zan burdiñaga astun bateri eutsi, eta amorruz irakiten oldartu yakon. Eskuturreko katea erabilliz, lenengo zartadak saiestu aal izan ebazan, baiña alako baten, agakada batek lokian jo eban, eta konortea galduta lurrera amildu zan.

Itxartu zanean, burukomin izugarripean orma batera kateaturik, lastozko oatze zikin baten zetzan. Esku bat az burua ukaturik, odol likitsuz busti yakon, eta gero astiro-astiro, adimena illuntzen eutsan laiñoaren artetik, aurregunean jazorikoa gomutara etorri yakon. Orduko, sabaiko zulo batetik goizeko lenengo argiak estalpera sartzen ziran, eta asarre andipean egiztatu eban, lengo soingaiñeko ederra aparra-mantar zikin bat az ordeztua zala. Zorabio batek artuta gora-galeak etorri yakozan, eta osterá be illuntasunak inguratu eban.

Barriro be senetara biurtu zanean, illuntzeko itzalak estalpean zear edatzen asten ziran, eta alako baten, tunizitar zaindariaren mintzo gorrotagarria aditu eban auxe iñotsanean:

– Badirudi, bestaldeko itzalen erreñutik biurtu zareala. Izan be, il ez zaranean gitxik egin dau; edozelan be, judutar txarri bat gora-beera, bost ardura. Esan bearrean nozu, baiña, il ez zanean ezkerro, Erroma'ko epaikariek erabagitako zigorra, meaztegi oneitan bete bear izango dozula, eta zure atzapar saskel orreik neugan ipinten otu yatzun ezkerro, dagokizuzan amar urteok, lurpeko lanetan burutuko dozuzala...

Eta gero, barre-santzoka, onetaraxe jarraitu eban:

– Amar urte... bai zera...! Lurpeko lanetan diarduanak ez dau urtebete batetik gora irauten. Nire anai Ahmed zaindaria dan meaztegi igoiriko zaitut biar, orduko bizirik iraungo ba'zendu. A bai zaindari zuzen eta zorrotza...! Izan be, bera ta biok egur bardiñekoak gara, eta alderen bat izatekotan, neu baiño pirriago ta indartsuagoa dala esango neuke.

Tunizitarra alde egiteko zorian, Dan'egana makurturik,

– Ez al-dakizu gauza bat...? –maxiatzaille esan eutsan–. Ez dakizu zelako arrakas-ta izan neban bart, zeuk niri ain gogoz emoniko soingaiñekoaz; andratxu guztiek begi argia egin eusten, eta errege baten antzera erabilli ninduen. Esan, non ostu zenduan...?

Erantzuna itxaron barik, barre-santzo zaratsuz estalpetik urten zan. Andik laster, meazlari jopuak estalpera biurtzen asi ziran, eta ormako txingara kateatuak, morroi batek krisaillu bat piztu, eta beste morroia aparia banatzen asi yaken lapikotzar batetik. Egarrri itzela zan Dan'egana eldu ziranean, ura ekarri egioela eskatu eutsen, eta egarmiña bareturik, gogo andi barik lapikokoari ekin eutsan. Burukomiña zeozer baretu izan yakon orduko, eta oatzean etzanda, loak artu eban.

Biamonean gari-zekalezko aia banandu yaken, eta binaka kateaturik meazlariak lanera abiatu ziran. Andik ordubete batera-edo, tunizitarra biurtu, eta jagi zeitela aginduta, eskutur-txonkatillak kateaturik, gurdibide baten zear, andik ordubete ta erdira egoan lurpeko meatz baten abo itzaltsua ikusi eban Dan'ek. Orduan tunizitarrak,

– Aizu, judutar urde orrek –gorrotoz esan eutsan–, “Averno” deritxan meaztegiaren sarbidea da ori, eta ziñez badiñotsut ez zareala egundo bizirik urtengo izu-leku orretatik. Onezaz gaiñera, jakiñaren gaiñean neuk ipiñitako nire anai Ahmed'ek, merezi dozun lez erabilliko zaitu. Mutillaren trebea, bederatzi buztanetako katua erabilteko...! Baiña oba zerorrek ezagutu dagizula. Jakin dot goizean, meaztegi orretako jopu bat il dala. Badakizu, odol-goitikotan amaitzen dan ezul idor ori... Batzuk muger-eria esaten dautsoe, baiña lurpeko meaztegi-tan makur orretatik iges egiterik ez. Sarri askotan gorpuak obiratzeko astirik ez, baiña zorionez, Monte Capone'ko sai gosetiek arrapalada baten garbitu oi dabez. Bai, judutar zikin ori, zeu be egazti azkar orre in urdail irrikatsuan birrindua izango zara.

Atan-orretan, “Averno” meaztegi-eldu ziran. Sarbidea burdiñezko atetzar bat az itxita egoan, eta tunizitarraren oiuari erantzuna emonez, morroi batek atea edegi eutsen. Sartzetakoan, lekorera biurtuz, meaztegi-zaiñak auxe esan eutsan:

– Begiztatu egizu ondo bai ondo ate onen bestaldean ortzi oztiñean jagiten dan eguzkia, barriro ez dozu ikusiko-ta. Burdiñezko ate au edegi yatzunean, arkaitzetako saiek zure gorpua irunsi dagien izango da

Gero, ateko morroiari itz egiñez,

– Aizu, non dago Ahmed nire anaia...?

– Barruán da, meazlarien lanak zainduz.

– Zoaz aren billa, eta esaiozu emen nagoala.

Krisaillu bat artuta morroia urrundu zan, eta andik laster, gizon andi ta indartsuarekin biurtuta, onek anaiari,

– Kaixo, Ali –esan eutsan–, zerk zakaz nigana...?

– Atzoko ildakoa ordeztara natortzu, eta ez edozelakoaz, judutar indartsu ta burrukalari az baiño. Ona eldu baiño ez, ezustean eraso eustan, eta ez neban beste biderik izan, burua burdiñaga bat az berotu baiño. Erroma'ko auzitegiak amar urtez zigortu egin dau.

Ali'ren anaia morrosko indartsua zan; aurpegi zabalean, txarri-itxurak begi txiki illunak agiri ebazan, eta aboaren keiñuak gizaki ankerraren antza emotsan. Irripar gaizto batek aurpegia argituta, Ahmed'ek orduan,

– Amar urte dinozu...? Ez dago txarto, baiña urtebete bat az zigortu ba'lebe, egitik urrago ibilliko litzakezan Erroma'ko epaikariok, luzeago ez da bizi izango-ta.

Au esanik, Dan'en beso indartsuak eskukatu ebazan, eta ederrespeneko txistua jaurtirik,

– Arraioa...! –esan eban–. Ez dau makal emoten judutar onek.

Eta gero atxilloari mintzatuz,

– Aizu, zein adiñekoa zara...?

Dan, baiña, ez zan aldarterik onenean zaindari zakar arekin berba egiteko, eta ez ekialakoa egiñez, soñiak jaso ebazan.

Bitartean, bere zereginetara biurtu nai eban Ali'k, anaiari,

– Begira Ahmed –esan eutsan–, nire lekura biurtu egin bear dot. Ia etzi, jaieguna dan ezkerro, Porto Ferrario'ko ardandegietan alkar ikusten dogun.

– Baita pozik be, Ali; emengo illuntasunean lanean diarduen zorritsuok ordu batzutarako begiz galtzea atsegia izango da.

Ali atera biurtzeko zorian, Dan'egana urreratu, eta bere irudi indartsua lekorean galdu aurretik, matrailleko zakarra emon eutsan.

Ahmed'ek krisaillu bat artu, eta Dan'eri mintzatuz,

– Orain, saskel orrek –agindu eutsan–, jarraitu egistazu.

Eta gau izugarri batera murgiltzen zalako oarpenaz, zaindari zakarrarren atzetik ibiltzen asi zan Basamortuko Semea, bere buruari inñotsala, iltea oba izango ez ete.

“Averno” meaztegia lau zear-zulokoa zan, eta bakotxa Erroma'ko lau arribide nagusien arauz izendatua zan: “Tusculana”, “Appia”, “Ardeatina”, eta “Aurelia”. Lau zear-zulo oneik enparantza-antzeko zabalune batetik edatuz, meaztegiko erraietan sakabanatzen ziran. Zear-zuloetatik ateraiñoko joan-etorri etenbakoan, zaldiek lorraturiko meatz-gurdiak ikusi zeitekezan, batzuk meatza sarreraraiño eroateko, eta gero utsik geiagoren billa joateko. Meazlariak biñaka ziarduen, batak aga lodia meatzaren artean jarteko, eta besteak oneri maillutzar batz joteko. Erauzitako meatza naikoa zanean, gurdietan zamatu, zaldiak buztartu, eta ateraiño barriro, emen beste zamariak bil-tokietara lorratu egien. “Averno” meaztegian bikote bakotzak lau gurdikada bete egin bear eban egunero, eta abespelu au egin ezean, Ahmed'ek bederatziz buztaneko zigorra astintzen eban maisuki. Meaztegi onetan, berrogei ta amar bat meazlari zoribakok lerrenak egiteraiño ziarduen.

Enparantzara eldu ziranean, Ahmed'ek “Ardeatina” zear-zulotik bideratu zan, eta luzaro barik meazlari bakar batek ziarduan lekura elduta, Dan'eri auxe esan eutsan:

– Orren laguna atzo il zan, eta bere lekuan jardungo dozu, Miros deritxan gerkarrekin. Au be bularretik dago, baiña oraindiño aspaldi baterako izango da. Eguberdia dan ezkerro, janaria bananduko yatzue, eta gabean aparta. Edozelan be, irriño gaiztoz jarraitu eban tunizitarrak bardin da bazkaria nai aparta izan, egun-argirik ez dago-ta. Aparta artuta gero, lo egingo dozue eskutur-txonkatillak kateaturik. Goizean, oneik kenduko yatzuez, eta gosaria artuta, lanean asiko zarie, eta gaberako bearreko lau gurdikadok beterik izango dira, bestelan, nire zigorra ezagutuko dozu.

Au esanik, zigorra artu, eta bizkar betean bere biziko zartadea emon eutsan Dan'eri. Ozta-ozta amorru ta mifnezko oiur bat menperatu aal izan eban Dan'ek.

– Begira, judutar zorritsu orrek –jarraitu eban Ahmed'ek–, oraindiño ez dot zure abotsa entzun, baiña egunen baten adituko dot, eta aieneka izan be. Orretarako iradurik ez dot, zenbat-gura astirik izango dot-eta, baiña ziñez auxe diñotsut: Ahmed'en zigorra ez dozu aztuko, ez orixe...

Bazkariaren begira, meazlari bat ikusi eban Dan'ek, eta orduan,

– Aizu, Miros –zakar esan eutsan Ahmed'ek–, ona emen lagun barri bat, atzo il yatzuna ordezteko. Orain, banoatzue beste leku batera, baiña begira egizue agindutako lau gurdikadak uts egin ez dagien.

Au esanik, zear-zulotik ostendu zan. Dalako Miros arri baten gaiñean jesarrira egoan, eta eldu-barria bere ondoan kokatu zan. Janariari itxaron bitartean, aparta-mantarrak jantzitako laguna begiztatu eban Dan'ek. Krisailluaren argi motelpean zailla zan gerkarren adia zeaztutea, eta areago aurpegi zimela zimurkakaz ildaskatua izanik; orduan, oarkabez, lagunarekiko erruki andia oartu eban Dan'ek. Andik laster, morroi batek erratillu bana lapikoko banandu eutsen, eta ezer esan barik ostendu zan. Janaria amaituta, Miros jagi zan, eta,

– Lau gurdikada –mintzo itunaz esan eutsan gerkeraz– bete bear, eta oraindiño bat baiño ez dot egin.

– Nasaitu zaitez –Dan'ek erantzun–, bete egingo doguz-eta.

Etorbarriak gerkeraz erantzuten eutsala oaturik,

– Ez dakizu, lagun orrek –esan eutsan Miros'ek– zelako zarrastadak astindu nau, nire berbeta maitia entzutean. Non ikasi dozu...?

– Luzetxua litzake orain azaltzea, baiña egunen baten esango dautsut. Goazen lan-lekura.

Izan be, lan-lekua gertu egoan, eta eldu baiño ez, arloari emon eutsuen. Laster oartu zan Basamortuko Semea, Miros makal samar aurkitzen zala; eta au ikusirik, lanik gogorrena ekiñez, au da, maillutzar erabilteari, meazkia metatzen asi zan, eta gabe-ko txilin-jotea aditu zaneko, agindutako arloa bete izan zan. Krisaillua artuta, Miros'ek Dan'eri,

– Biurto gaitezen –esan eutsan– lengo lekura aparta izateko.

Eldu ziranean, lengo morroiak aparta banandu eutsen, eta amaitu ebenean, ezpata-dun morroi batekin azaldu zan Ahmed, eskuturreko kateai giltza emoteko, lan egin bitartean eskuak aske izaten ebezan-eta. Giltza emonda gero, Ahmed'ek,

– Agur lagunok –esan eutsen–, biarrarte, eta lo gozoa izan dagizuela opa dautsuet.- eta gero Dan'eri mintzatuz –Badirudi langille adoretua zareala, agindutakoa beteteko gai izan zara-ta. Pozik egoteko da, bestelan...!

Au esanik, eguberdikoa lako beste zigorkada bat emon eutsan, eta barre zaratasuen artean urrundu zan.

– Abere utsa da –esan eban Miros'ek–. Meaztegi onetako berrogei lagunok gorroto itzela dautsagu, eta berak basaki ordaintzen dautsku ori.

– Zein luze da emen zagozala...?

– Ez dakit ziur, illuntasunezko inpernu onetan, aldiaren sena galtzen da-ta, baiña

gitxi gora-beera urtebetea baietz egingo neuke. Orain egin dagigun lo, biarko lanari aurre egiteko gai izan gaitezen.

Luzaro iraun eban Dan'ek lo egin eziñik lasto-pillo aren gainean, sabaiko itogiñen palastak, eta janari-billa ziarduen arratoien ibilte narrartzaria aditzen zirala. Noizbait, nekearen-nekez loak artu eban, eta amesen artean Masada-inguruko basamortu argitsuagertu yakon.

Arrezkero, amestxar amaibakoa zirudian aspaldi izugarria jasaten asi zan, bere aringarri bakarra gerkarraren berbetea izanik. Ezin egikean Miros'ek bere lan-zatia burutu, baiña, zorionez, Dan biena egiteko gai izanik, agindutakoa beteteko eragozpenik ez. Laster oartu zan, bere lagunak eztul-erasoak jasaten ebazala. Eztul erlats, idorra zan, azkura batek samea ziztatuko bai'leutsan. Bein baten, Miros'ek,

– Nekaldia arindu yat etorri zintzakidazanetik –esan eutsan–, eta onezaz gainera, gerkeraz berba egin aal izateak, inpernu baltz onen alamena arindu daust. Aizu, zergaitik ez daustazuz edesten zure bizitzaren gora-beerak...? Guztiz zudugarriak diralakoan nago.

Ordutik, gabero lastozko oatze zikiñetan etzaten ziranean, Miros'en eztul-erasoek etenda, Dan bere bizitzaren edeskia zatika aletzen asi zan eta itz bat bera be baldu barik, gerkarrak adi-adi entzuten eutsan. Edeski osoa amaitu zanean, Miros'ek,

– Badira egun batzuk, ardurarik andienaz zure gora-beerak aditu dodazala, eta izan be, gero ta ederretsiago zaitut, Dan maite ori.

– Zeureak be, Miros, entzutea gura izango neukez.

– Ara...

Eta gau guztietan, urrengo egunerako indarrak irabaztearren lastozko oatzean etzazanean, txitean-pitean eztul-erasoek eten eginda, Miros gerkarrak bere bizitzaren zatiak aletzen ebazan. Ona emen Miros'en edeskia

“– Korinto'n jaiotze ta azi nintzan, eta gurasoak il yatazanean, etxalde andi ta aberatsa jarauntsi neban. Muru baten gainean eraikita, nire etxetik, etxaldez arandian edatzen zan Korinto itsas-kolkoaren turkes-arriaren antzeko ur oztiñak, ikusi nengikeazan. Maasti ederrak itsasalderaiño edatzen ziran, eta goiko lurretan galburuak kulunka, urre-itsaso baten antzera. Larradi jorietan, Grezia'ko zaldirik bikaiñenak azten ziran, eta Miros korintotarraren lasterketa-endaren ospea, Asi Txiki'raiño edatzen zan.

“Orain urtebete ta erdi inguru, muru-gaiñeko etxe ederrean, nire emazte Anafi ta lau seme-alabakin bizi nintzan. Zenbat-gura neskame ta morroiak genduzan, etxeko ta etxaldeko lanak egiteko. Bagenduan Atenas'en beste etxe bat, jai ta ospakizun andiak gertatzen ziranean. Nire emaztea ta biok sarri askotan Atenas'eko gure jauregian aspaldi zoragarriak emoten genduzan, zaldi-lasterketak ospatzeko garaian batez be. Zaldi-lasterketaren griñak gogoa eroaten eustan, eta lau zaldiko gurdi-lasterketan, zutunik, eskuetan ugalak, aizea baizen arin nire zaldien arrapalada gozatuz, munduko gizonik zorionsuena oartzen nintzan. Zaldiak eta neu oso ondo alkartzen gintzazan, eta kumak aizean orrazturik zaldiak oldartzen ziranean, ugaletan zear eurok eta neu bat egiten gintzazan, eta lastertegiko ondartzan zear, basamortuko aizea baizen arin egan egiten genduan.

“Bein baten, Erroma'ko Kaiser Neron menpekoea zan Atenas'era etortea otu yakon, eta au zala-ta, atenitarrek euren biziko jaiak atondu ebezan, ikerle gorrotagarriari “Ongi-Etorria” egiteko. Ereti ona izanik olinpi-jaiak zapaltzailleari palagutan erabilteko, zaldi-lasterketa ospetsu baten lenengoa billakatu zaiten atondu eben atenitarrek, eta onen ondorioz, Neron'ek zergak kendu eutsezan. Laster oartu ziran nire aberkide zuurrak, beste ospakizunetan be Neron'ek gainetik urten bearko leukela, eta abesti ta itzunde-leiaketetan irabazle izan zan, entzuleen txalo-jote ta gora-oiuen artean. Azkene-tariko kirolketea, lau zaldiko lasterketa ospetsua izan zan, eta zoritxarrez onetan tartekoa izatea otu yatan...

“Korinto'ko nire etxaldean nintzan garai aretan, eta Olinpi-jaietarako oi neban lez, morroien zaintzapean zaldiak Atenas'era igorri nebazan, eta leiaketearen aurregunean, Anafi ta biok ango jauregian kokatu gintzazan. Nire zaldiak arorik onenean izanik, itxaropenez beterik abiatu nintzan. Leiaketea zazpi ingurukoa zan, eta bakotxa kilometro batekoa izanik, guztiz zazpi kilometrokoa. Nire zaldiai ondo yatorken bitartea zanez, arratsalde aretan lastertegian azaldu nintzanean, leiaketea irabazteko gerturik nentorren. Ez eustan iñork esan, baiña, Neron'ek, Erroma'ko nagusi zitalak, gainetik urten bear izango leukela...

“Leiaketea asteko unean, lekua mukurru bete egoan, eta bala-bala ebillen, Neron irabazle azalduko litzakela. Kaiser'en margoa urrea zan, eta nirea, ostera, orlegia. Berak erabillezan zaldiak onenatarikoak izanik, nire ustez ez zan arritzekoa ikusleek irabazletzat emon egien. Zazpi leikide urteteko lerro-lerro gengoan epaikariak abiatzezaugarria jo ebanean. Tximistak antzera urten gintzazan, eta ezer bereizirik jazo barik, bira bakotxa egitean, zutunduriko arrain-irudiak jausten asi ziran. Boskarrena jaustean, Neron aurretik joian, amabost metroko aurea kentzen eustala. Azkena zan zazpi-garen biurgune zorrotza artzean, nire zaldiak oiuz uiatu nebazan, eta kumak aidean, gezi lakoak aurrera oldartu ziran, Neron'en gurdia untzatuta lez atzean geratzen zala, eta garaipenaren aintzak artuta, el-marra zearkatu neban.

“Baiña une aretan itxaroten nebazan oiut ta txalokada adoretzuak oso motelak begitandu yatazan, eta nire buruari itauntzen neutsanean oztasun aren zergaitia, leiaketearen epaikaria jagi, eta ikusleen zurrumurrua baretu zanean, mintzo irmoz adierazo eban, azken biurgunea artzean, nerabilen zigorrak Neron'en zaldiai zartada batzuk jaurti izan neutsezala, eta beraz, orren ordaiñez leiaketatik-at jarten ninduala. Neron, ostera, Jainkoek gantzututa, munduko abeslari, olerkari, ertilari, eta zaldunik bikaiñena, leiaketearen irabazle gain-gaiñekoa zala...

“Eta orduetik nire nekaldia asi zan. Neron'eri leiaketea amarruz irabazi gura izan eutsana ezin zigor barik itzi; munduak iñoiz ezagutu ez eban zaldi-erabiltzailerik bikaiñenak merezi eban garaipena kendu izan eutsanari, ordaintza eredugarria emon bear. Izan be, ereti ona zan Atenas'ek Erroma'ko kaiserrari bere ederrespena erakutsi egitsan, eta Neron'en bekokia ereiñotz-erestunaz inguratu ondoren, batzar bereizi baten, Uriko Batzordeak nire ondasun guztiak azkarriztat kaiserrari emotea erabagi eban. Onezaz gainera, Neron'en aurrean jarri ninduen, Jainkoen gantzutuak epaitu nindegan.

“– Eriotzera galdu bear zindukedaz –esan eustan Erroma'ko agintari nagusiak–, baiña gogoan arturik...

“Une aretan kaiserranen alboan egoan Tijelino'k ertzainburuak, abopeka belarrira zeozer esan eutsan, eta orduan Neron'ek mintzo arranditsuaz, onetaraxe jarraitu eban;

“– Baiña gogoan arturik, uri eder onek dituan erti-maisulanak ikerletzat ederrestearren etorri nazala, eta gure Jainkoek errukitsu izatera bultzaten nabela, auxe da nire erabagia: Erroma'ra bizirik joango da, eta emen gure aginterriaren onerako, jardun bat emongo yako.

“Epaiketa zuur, jakintsu, eta biotz andiko au entzutean, Agintarien Batzordeak, eskuak apurtu arte txalo egiteari emon eutsan, Neron anker eta arroputzari bere palaguzikiña erakutsi naiez.

“Urrengo egunean, nire emazteagandik ozta-ozta agur esateko baiño astirik ez izanda, ontzi bateko errai usteletara sartu, eta Erroma'ra eldu baiño ez, leku gorrotagarri onetara jopu eginda ekarri ninduen. Korinto itsas-kolkoaren argi bikain eta ortziko oztin zoragarria uts emoten dodaz, baiña oroz gain emazte ta seme-alaben laztanak. Orreik ez dodaz egundo be ikusiko, eta oldozkun onek zoratasun-ateraiño naroa.

– Nork esan dautsu –eten egin eutsan Dan'ek– ez dozuzala iñoiz ikusiko...?

– Lenengotan, itxaropen aul batek baiñostan egunen baten ikusiko nengikeazala, baiña orain badakit ames lortu-eziña dala, ondo baidakit urtebete batetik gora emen irautea iñork ez dau ezagutu-ta...

Isildu zan Miros une batez, eta gero,

– Meaztegi madarikatu onetan –jarraitu eban–, bularretik joaten dira guztiak. Bai, bata bestearen atzetik erreskada etenbakoan gorpu biurtuta, izu-toki au izten dabe. Neu be lenengo odol-goitikoak artu ninduanean, etsiak jota oartu nintzan nire azkena ur ebilkidala...

Ona elduta, eztulaldi erlats, idorrak, eten egin eutsan autuaren aria, eta gero,

– Barkatu egistazu, Dan –jarraitu eban–, baiña batzutan ezustez, aizeak uts egiten daust, eta gero samako azkurak eztulaldiak eragiten daustaz.

Ostera be isildu zan Miros, arnas-estua ostendu yakon arte, eta barriro be autuari ekin eutsan:

– Meatz-erazketeak sortzen dauan auts mee gorritzta ori da gatxaren eragillea. Aldiaren joanean biriai erasoten dautse, eta arrezkero osaketarik ez...

– Orduan –eten egin eutsan Dan'ek–, oba litzake iltea. Nik ez dot jasan gura, lehrenak eginda zapaltzaillearen alde lan egin ondoren, odol-goitikoaren artean iltea. Ez orixe...! Ona etorri nintzanean, amar zigor-urteok igarota gero askè izango nintzakela uste izaten neban, baiña orain badakit nire burua iltea jare-bide bakarra dala...

– Ez olakorik esan...! –eten egin eutsan Miros'ek–. Indartsua zara, nik egundo ez ikusiriko beste, eta baten bat emendik urteteko gai izatekotan, zu izango zara.

– Neu, diñozu...? –arrituta itaundu eutsan Basamortuko Semeak–.

– Bai, zerori, baiña orretzaz beste baten egingo dogu berba. Orain lo-gurak erreta nago, eta biarko lau gurdibeteok ezin gogotik kendu. Agur eta biarrarte.

– Agur, Miros, ondo lo egin.

Biamonean oi lez gosaria izanda, “Ardeatina” zear-zulora abiatu ziran. Lan-bi-tartean lagun biok ez eben berbarik egiten. Miros'en makalaldiek eta arnas-estuak, otsean-otsean lan-etentzera beartzen ebazan, eta galdutako astia irabaztearren, Dan'ek aalegindu bear izaten eban. Noizbait, lau gurdikada beterik egozanean, txiliñaren deiak jakiñerazo eutsen, eguneko larrialdia amaitu izan zala.

Gau aretan, agotzezko oatzean etzanda, gogoan erabilten eban Dan'ek zein izango ete biderik errazena bere burua ilteko. Olan ziarduala, Miros'en mintzoa aditu eban auxe iñotsala:

– Gomutan dozu, Dan, emendik urtetekoari buruz atzo esan neutsuana..

– Bai, baiña emendik urteterik ez...

– Lenengo aitu baten olan dirudi, baiña bein baten alanberrak askatasunaz ames egitera eragin ninduan. Ara... dakizunez, sarrerako enparantzaren antzeko lekutik, lau zear-zulo lurraren erraietan zear edatzen dira, eta ezkerretatik eskumatara oneixek alegia: “Tusculana”, “Appia”, “Ardeatina” ta “Aurelia”, Erroma'ko lau arribide ospetsutik artutako deiturak. Orain, beste meazlarien artean zeuk eta biok “Ardeatina” zuloan diardugu. Len, baiña, “Aurelia”n zear-zuloan nubitar batekin niarduan. Bein baten, burdiñaga ta maillu astunakaz, meatza austen giarduala, nubitar indartsuaren maillukada batek burdiñageari orman zear eragin eutsan, eta arrituta, andik argi-izpi bat etorkigula ikusi genduan. Andik zabal-di-zati bat begiztatu zeitekean. Arrezkero, lanari eten egiñez, noizean bein, zulo aren zear lekoreko edertasunari begiratu oi neuntsan txandaka.

Beiñola, nubitarrak zulo aretatik begiraten ebala, ezustean, Ahmed isil-ostuka etorri yakun, eta nubitarrak zertan ziarduan ikusirik, bederatzi buztaneko “katua”z zigortu eban basaki kordebagetu arte.

Ona elduta, eztulaldi batek erasota, Miros'ek edeskiari eten egin bear, eta lengora biurtu zanean, arnas-estuka onetaraxe jarraitu eban:

– Arrezkero, ez neban nubitarra barriro ikusi, eta Ahmed'ek “Aurelia”tik “Ardeatina” gaurko gure zear-zulora aldatu ninduan, baiña luzaro barik, muger-gatxak eraginda, odol-goitikoaren erasoak jasaten asi nintzan, eta ona emen nireak egin dauala. Orraitiño, askotan ames egiten neban “Aurelia”ko zulotik askatasunera urtetan nintzala. Orain, baiña, bularretik nago, eta emendik jare joatea ames zoroa biurtu yat. Zeuk, baiña, egin dagikezun gauza da, eta izan be, aalik lasterren egitea dagokizu, gatxak jota billakatu zaitez aurretik. Begira Dan... dalako zulo edo zirritua non dagoan jakiteko, “Aurelia” zear-zuloa artu, eta berrogei bat metrora eskumatara zabalune bat dago, eta ormako lekurik sakonenean, zirritua ikusiko dozu. Ara ezkerro, erraz aurkituko dozu.

Arnas-estuak beartuta isildu zan Miros, eta gero illundi aretan zear bere mintzo irrikatsua aditu zan ostera be,

– Ez naz luzarorako izango, eta zugandik auxe nai izango neuke: aalegindu zaitezala emendik iges egiteko. Berba emoten daustazu, Dan...?

– Bai, Miros, aaleginduko naz.



– Orain beste zer bat, eta au gure adiskidetasunaren izenean eskatzen dautsut, adiskidetzat ederresten zaitut-eta.

– Baita nik zu be, Miros.

– Ara... egunen baten Korinto'ra joan zaitezala, nire emazte Anafi ta seme-alabai nigandiko azken besarkadea eldu-erazoteko. Esango dautsezu baita be, au baiño beste leku obeago baten alkartuko garcala, eta anartean eurekin zelanbait beti izango nabela. Egingo dozu ori, Dan maite orrek...?

– Bai, Miros, zure guraria beteko dot –mintzo unkituaz erantzun eutsan Basamortuko Semeak–.

Arrezkero, Miros'en osasuna gainbeera amiltzen joian, eta bein baten, gaba odolgoitikoaren artean igarorik, urrengo egunean oatzetik jagiterik ez eban. Morroia krisailluarekin gosaria banatzera etorri zanean, aren egoeraz oartuta, ostendu, eta andik laster Ahmed'ekin biurtu zan. Tunizitarra Miros'en egoeraz oartu zanean, morroiari zakar,

– Txakur ezkabitsu au –esan eutsan–, azkenetan dago, eta “Averno”ko oiturreari jarraituz, il daitenean gurdi uts baten atarako dozu legea bete izan daiten, eta auxe alegia: meaztegi onetara sartzen dan jopuak ez dauala egundo be eguzkiaren argia ikusiko.

Gero Dan aipatuz,

– Judutar zikin oneri bear dauan laguna aurkituko dautsagu lenbailen, aalik lasterren jardun dagian barriro, usteldu arte.

Au esanik, bizkarrean zigorkada bat emon eutsan, eta oi eban lez, barre zaratasuen artean, morroiarekin alde egin eban, lekua illunditan itzirik. Laster oartun zan Basamortuko Semea bere laguna azkenetan egoala. Erdi-edegitako abotik eriotzaren korroka urteten yakon, biotzaren taupada larriek soin erkiña astintzen ebela. Aurpegia izerdi otzaz bustita ebanez, illuntasun uts aretan bere soingaiñekoari zatar bat urratuta, Dan'ek txukatu eutsan, berba adoretuakaz bere azkena arintzen saiatzen zala. Miros'eri zail egiten yakon berba egitea, zeozer esaten asten zanean, odol-goitiko batek menperatzen ebalako, baiña adiskidearen eskuari eutsita, eta onen mintzo txeratsua aditzean, eriotzaren urreratze isillari bildur barik itxarokion. Alako baten, Dan'en eskua estutuz, auxe esan eutsan:

– Agur, Dan... ez aztu auxe... “Aurelia” zear-zuloa artu... eta berrogei bat metro eskumatara... zabalune baten, zirritua...

Une aretan, arnasaren korroka isilduta, Miros'en esku bizibagea jausi zan, eta illundietan malko mingotsak isurtzen yakozala, zelan edo alan izu-leku aretatik iges egiteko ordua zala erabagi eban Basamortuko Semeak.

Andik laster, morroia bazkaria banatzera etorri zanean krisailluaren argi motelpean Miros'en gorpua ikusirik, gurdi uts bat ekarri eban. Orduan Dan'ek bere adiskideari begiak itxi eutsazan, eta besoetan artuta, begirunez beterik gurdian ipiñi eban. Morroia krisaillu ta gurdiaekin urrundu zanean, illuntasun utsak inguratutik, andik urteteko asmoari emon eutsan Dan'ek.

Gau aretan bertan iges egingo leuke, baiña orretarako, cragozpenik andiena ka-teak ziran. Gau guztietan apalduta gero, morroi batek lagunduta, eguneko azken ikus-

taldia egin oi eban Ahmed'ek, eta banan-banan meazlarien eskuak kateatuta, ormako txingara beste kate bat az lotu oi ebazan, eta olan ezinduta, lastozko oatzean lo egiten eban, itogin eta arratoi gosetiek inguratuta. Aparia banandu arte bere aukeran ordu batzuk izanik, astiro ta zeatz apalosteko ekintzea umotu eban Dan'ek, eta banan-banan zertzelada guztiak ondo ausnartu ondoren, oatzean etzanda jarri zan, atsedean izan ondoren, bere asmoa egi biurtzeko.

Apalordua eldu zan noizbait, eta erratilluan txilistak isuri ostean, morroiak alde egin eban. Ozta-ozta azken koillarakadeaz batean, oiko gau-ikustaldia egiteko Ahmed eta laguntzaillea azaldu ziran.

– Ez uste, judutar urde orrek –zakar esan eutsan tunizitarrek–, biar gaur lako oporraldia izango dozunik, bai zera...! Dalmazitar bat laguntzat izango dozu, eta bearreko lau gurdikadak beteko dozuez, bestelan...!

Eta gero morroiari mintzatuz,

– Lotu egizu txakur ezkabitsu au ormako txingara.

Agindutakoa egitearren morroia makurtu zanean, eskuturrak kateatuta izan arren, Dan'en eskua tximistaren antzera jausi, eta ertzaz lepozurrean zartada erailkorra emonda, txintik esan barik morroia amildu zan. Jauste-otsak Ahmed'en adikunea erakarri eban, eta ikoti batz Dan'egana oldartu zan didar baten, beti aldean eroian burdiñaga erailkorra erabilteko asmoz,

– Judutar madarikatu ori...!

Eta aalik indartsuen bere biziko zartadea jaurti eutsan. Aurretiaz dana ondo asmatuta eban Dan'ek, eskuturreko kateaz tunizitarren ukaldia gelditu, eta au oartu zeiten aurretik, katea idune-inguruan jarrita beso indartsuakaz idunea estutu eutsan. Bildur itzelak artutako Ahmed'ek kateari oratu eutsan beragandik aldentzeko, alperriko ostikadak jaurtiz batean, korrok itoak iges egiten yakozala. Asarrez irakiten, Dan'en beso kiriotsuak gero ta estuago, indartsuago, orrika uxa-eziñak bai'litzazan unerik-une Ahmed'eri bizitza zatika keptzen eutsoen. Noizbait, azken arnas-estua, eta amildu zan zerraldo.

Une batez geldi irauñ eban Dan'ek arnasa baretu ekion arte, eta gero morroiaren gaiñean makurtuta, eskuan ebazan giltzak artu, eskutur-txonkatillen itxiturak eragin, eta jaregin zan. Ez eban asti-galtzerik, eta krisaillua ta onen ondoan egoan burdiñaga jasorik, urruntzen asi zan. Ezustean, baiña, burutapen batek jota biurtu zan, bere buruari inñotsala erabillezan aparra-mantarrakaz nora joango... Arin baten, Ahmed'en gorpuari soingaiñekoa kendu eutsan eroiazan piltzarrak ordezteko, eta ibillera ariñez “Aurelia” zear-zulora abiatu zan. Ez eban asti-galtzerik, Ahmed-eta biurtzen ez zirala ikusirik, beste morroiak arein billa asiko litzakez, eta luzaro barik gorpu biak ikusirik, iges-lariaren eizeari emongo leuskioe.

Esku baten krisaillua, eta bestean burdinaga eroiala, “Aurelia” zear-zulotik barrendu zan, Miros'en azken itzok burutara etorkiozala: berrogei bat metro eskumatara... eta zabalune baten... zirritua...”.

Laster idoro eban aipaturiko zabalunea, eta orma ardurarik andienaz aztertutik, zi-

rritua idoro eban... Ezin, baiña, ziltzari jarki, eta une batez zirrituan zear begiratu eban... Ilgorako gau gardena zan, eta ortzi urrundarian pil-pil bigunaz izarrek dardar egiten eben lilluragarriak. Biotza taupada bizitan asi yakon, eta une batez elbarriak jota lez igige iraun eban; gero, krisaillua arri baten gainean jarrita, sukar bakanak eraginda burdiñagaz ormeari eraso eutsan. Bestaldean, ain sutsu irrikaturiko askatasunak itxarokion, joputasun ilgarri aretatik jaregiteko, eta goraldi zauskagarriak artuta, zirrituari ekiñez unerik-une zabaltzen zan. Zoro baten antzera, esku biakaz burdiñagari eutsirik, zartada indartsuen pean arkaitzak zatika egan egiten eban. Indartsua zan Basamortuko Semea, eta ereti aretan itxaropen zoroak artuta, erraldoi baten aalmenaz ziarduan.

Uste daiteken ostera, meazlariak ondo janarituak ziran, eta mando batek lan onuragarria egiteko garagar ugaria bear dauan lez, bearrekoa zan, jopu areik meatza erauzteko, zenbat-gura janari bizigarria emon ekien, eta bularretik asko ilten baziran be, lanbaldintzai egotzi bear, meatz-autsak eragiten eban muger-gatxari batez be.

Gau aretan bere biziko indarraldia egin bearko leukela, Dan'ek ondo ekian gauza zan, bere jarei-asmotarako asti luzerik ez eban-eta. Ildakoen gorpuak aurkitu zeitezen aurretik, andik iges egin bear izango eban, eta olan indarraldi zoroan ormeari erasoten eutsan, zuloa etenbarik zabaltzen zala. Noizbait, arnas-estuka gelditu, eta zabalunea naikoa zala uste izanik, burua atara, eta gero soifña sigi-sagaka, meaztegiz bestaldean egoala oartu zan.

Gabaren ederra...! Ilgora izanik, iretargiaren erdi-obao baiño ez zan ikusten, baiña lur-erraiaren illuntasunari oituta, berarentzat egun-argia zan. Atzetik, Monte Capanne'-ko gaillur arritsuak zidarrezko begirari erraldoiaren antzera dizdir egiten eban... Saien egoitza zala gogoratuz, latz-ikara batek menperatu eban. Zer billakatuko zan, Miros, bere adiskide zintzoa...? Ezin egikean, baiña, astirik galdu, eta an urrutian itsas-argi bat ikusten zan alderantz jotea erabagi eban. Bere igesbide bakarra itsasoa zan, eta argi arek itsasoa erakusten eutsanez, askatasunaren irrikak artuta, mendian beera ibiltzen asi zan urrats arin eta malguakaz.

Andik laster, goizaldeko arnas argitsuak Liguria'ko itsasoa urrezko izpiakaz jantziten ebala, bere biotzean oartu eban, aduak igortzen eutsan laztan gozoa bai'litzan. Luzaro barik auntz-bide bat ikusi, eta mendiko zidorrek gizakiakana garoezala gogoratuturik, andik bideratu zan.

Ezustez, errekatxu batek zidorra zearkatzen eban, zapart egin bear izan eban, eta au egitean, soingaineko sakel batetik tilin bat etorri yakon. Eskua sartu, eta bost zidarrezko "denari" aurkitu ebazan. Izan be, ereti aretan patuak bere alde jokutzen eban. Egoan kinka larritik onik urteteko, dirua bearrekoa zan, eta orra or zori aldakorak iges egiteko laguntza ori emotsala. Erara etorkion ezusteko diruketea ederrespenez begirata gero, pozez gainezka sakelera sartu, eta Yahvé'ganako eskerronak artuta, salmo bat ezpanetara etorri yakon.

Orduko, eguzkiaren txirindolea ortzian gora joian, eta Dan'en ainkaketearen arauz, goizeko zortzirak izango ziran. Alako baten, alagune baten erdian txabola bat ikusi eban. Goseak eraginda, ibillera azkartu, eta zelai batera eldu zan. Une aretan ba-

serritar batek egurra zatitzen eban eta onen inguruan oillo-talde batek aztarrিকা ta mokoka ziarduan. Baserritarregana urreraturik,

– Egunon –esan eutsan–.

– Baita zeuri be.

– Begira, lagun –esan eutsan Dan'ek– Erroma'ko Senatuak aginduta, leku onetara etorri naz, meatz-billaketak egiteko. Arloa amaituta, nire laguntzailleak dagokigun txostena egin bitartean, emendik biurtzea otu yat, Porto Ferrai'o'ra bidez billaketai jarraitzeko.

– Jauna, nire ustez –esan eutsan baserritarrak–, ez dozu aurkituko meaztegerik. Noz edo noz, zeu lako billariak dato, baiña barruti onetan meatz-idorokunderik ez.

– Batek-baki...! Sarri askotan itxureak egia estaltzen dau. Dana-dala gose nazan ezker, eskertuko neuskizu jaten emongo ba'zeunskit.

– Beartsuak gara, baiña gure bazkari ezaiña artzeko gerturik ba'zintzaz...

– Baita pozik be.

Baserritarak oi u bataz emakume bat dei egiñik,

– Aizu, Prixe –agindu eutsan–, Jaun onek gurekin bazkalduko dau, atondu egizu, beraz, beste erratillu bat.

Andik laster, irurok mai-inguruan jesarrita, lapikoko mamintsuari emotsoen, eta geigarritzat Dan'eri arrautz bi emon ondoren, mai-azkentangat zugaitzetik arako kerizak jan ebazan.

Bazkaria amaitu zanean,

– Oso ondo artu nozue –esan eutsen Dan'ek–, eta Erroma'ko Senatuaren izenean, esker emoten dautsuet.

Au esanik, zidarrezko bat maigaiñera jaurti, eta senar-emazteai begiak zuringotzen yakezala, eskertu eutsoen. Dan'ek orduan,

– Aizu, lagun –baserritarari esan eutsan–, berandu egin yat onezkero, eta joan egin bear dot. Zein da Porto Ferrai'o'rako bidea...?

Atetik zidor bat erakutsi eutsan baserritarrak, eta.

– Bidexka orretatik, uts egin barik elduko zara.

– Urrun al-da...?

– Lau ordubeteko bidegitea dozu.

– Eskerrik asko, eta agur.

– Ondo ibilli, Jauna.

Astirik galtzeke, mendian beera abiatu zan, eta andik laster, bide-okergune batetik Dan'en irudi txairoa ostendu zan. Ganetxu bateko tontorretik atzera begiratu, eta an, urrutian, irudi ezabatsu bi ikusi ebazan txabolarantz jaisten zirala. Agiri zan bere atzetik etozala; jopuen zapaltzailleek ezin egikien berak egindakoa zigor barik itzi, eta zelan edo alan arrapatu gura eben, guztientzako erdua billakatu zeiten. Basamortuko Semeak ibillerea azkartu eban, eta biurgune baten atzetik, portu bateko etxe zuriak agertu yakozan.

Baserritarrak iragarritako lau orduak igarorik, Porto Ferrai'o'ko lenengo etxeetara

eldu zan. Orduko illunabarra izanik, itxaron eban gau bete egin arte, eta ibilte astiro-tsuaz, kale estu biur baten zear porturantz abiatu zan. Baekian Dan'ek bear-bearrekoa yakola ugartetik aalik lasterren iges egitea, bestelan bere burua estu ta larri ikusiko leuke, eta ainbat areago arrotza izanik. Ate baten zear ardandegi bateko argi ezabatsua begiz jo eban, eta barruan inor ez egoala ikusirik, sartu zan, eta mai baten aurrean jesarrita, urreratu yakon txiribogiñari aparía eskatu eutsan. Arrainki gatzartua ta pitxar bete ardao ekarri eutsazan. Une aretan, ardandegiko bezero bakarra izanik, autu bat izateko asmoz urreratu yakon txiribogiña, baiña berbetan jarduteko gogorik ez eban Dan'ek, jaramonik ez, eta noizbait, bestea etxeko zeregiñetara biurtu zan. Aparía amaituta, bigeiterako okel-zati bat erosi eban Dan'ek, eta dana ordainduta, urten zan.

Ilgorako argitan kaira jatsi zan, eta onen luzeran ibilliz, ontzien erreskadea aztertuta, laster ikusi eban bere asmoari egokiona. Kaiari itsasita egoan ontzi a zamatu-barría iruditu yakon. Une aretan morroi batzuk meatzaren irristabidea kentzen eban, eta eretia alagala etorkiola uste izanik, ontzi aretan iges egitea erabagi eban. Ur egoan etxe bateko atadian erdi-ezkutaturik, bere abagunaren begira geratu zan. Ordu bi igaro ziran, eta gabeko atsedean isilla danaz jabetu zanean, kai-ertzetik bestela-baitakoan ibilliz, len begiz jotako ontziaren txopara zapart egin eban. Ontzi aretako itsastárrak lotan edo erriko ardandegietan ziran, antza, eta inguruak aztertuta, olana bataz estalitako txalupa bat ikusi eban. Astirik galtzeke, barrura sartu, eta soka-pillo baten gaiñean etzanda jarri zan. Ezin axe baiño oatze bigunagorik, eta lo-gureak erreta, bertan-bera loak artu eban.

Urrengo goizean itxartu zanean, aldarterik onenean, bere kolkorako esan eban Dan'ek, ontzi aretan txango bat egiteko eskubidea baebala, eroian meatzaren zati bat "Averno"n erauzitakoa izango zan-eta. Orduan, olana-ertza jasorik, ezkerretara Etruria'ko itsasaldea agertu yakon. Bitartea laburra izanik, aisa elduko zan ugeri egiñez, baiña bere asmoa Erroma'ra joatea izanik, zenbat eta beranduago ainbat eta urrago bere elburutik. Bestaldetik, baiña, arriskutsua zan ontzian luzaro irautea, eta beraz, urrengo goizaldean legorreatzea erabagi eban. Olan ba, itsas bare aretako ugiñek kulunkatuta, eguna emon eban lo-itzaririk. Bigarren gabean aize indartsua sorturik, itsasaldeko baba-besa billatu naiez, ontzia legorrera urreratu zan.

Noizbait, itsasaldeko mendien atzetik goizabarko argi samurrak ortziko besana illuna sutan iruntsiten ebanean, Basamortuko Semea txalupatik urten, eta urari burua emon eutsan. Orduko, itsasaldea iru kilometrora-edo egoan, eta bera lako ugerilari bikaiñarentzat ezerezkeria izanik, ordubetea barik legorreatu zan. Eguzki betean janzkia ipiñita, luzaro barik legortu yakon, eta ondartzat lagata, lurralde aretatik barruratu zan. Eguberdian erri andi samar ikusirik, aratu zan, eta sartu-agiñean zala, etxetxu bat ikusirik an bertan oles egin eban. Emakume batek atea zabaldu, eta,

– Zer nai dozu, Jauna...? –itaundu eutsan–.

– Ara, etxekoandrea, otordua dan ezkerro, non bazkaldu dagikedan esango ba'zeunskit eskértuko neuskizu.

Zer esan ez ekiala geratu zan une batez etxekoandrea, eta gero,

– Gurekin bazkalkide izan nai ba'dozu, sartu eta jesarri zaitez mai-inguruan.

Sendia senar-emazteak eta lau seme-alabak osotua zan. Janari bakuna baiña atsegíña izan eban, eta etxekoan erakarpenak eraginda, Dan'ek bere azken gora-beerak eta meaztegitiko igesa edestu eutsezan. Sen bereizi batek baiñotsan sendi aretan uste osoa jarri egikeala, eta izan be, zuzen egoan. Edeskia amaitzean, etxekojaunak auxe esan eutsan:

– Asko jasan dozu, lagun maite orrek, eta nekatuta ikusten zaitut. Zein asmo dozu...?

– Aalik ariñen Erroma'ra joan. Urriburu andi orretan beste inon baiño obeto ezkutatatu naiteke.

– Begira, adiskide, etxe onetan gaba emon dagikezu, eta biar, bearreko argibideak emongo dautsudaz Erroma'ra onik eldu zaitez.

Eskerron andiz onartu eban etxekojaunaren eskintza, eta apaldu ostean sukalde aretako orman arrain baten irudia ikusirik, jakingureak zirikatutako Dan'ek,

– Aizu, etxekojauna –itaundu eutsan–, arraintzaleak al-zarie...?

– Ez –irribarreka besteak–, lurgintzaz bizi gara. Arrain ori kristauen ezaugarria da.

– Orduan, Yosú Nazaretarraren jarraitzeailleak zarie...?

– Bai, olantxe da.

Gau aretan oatze garbi bigunean etzanda, bere buruari inotsan Dan'ek, Nazaret'eko Yosú'ren jarraitzeailleak, ameslari zoroak izan arren be, ordurarte ikusiriko jenderik emonkor eta maitagarriena zirala, eta bene-benetan, ludi ustel, berekoi, gaizto, eta lizun aretan, argi bereizi ditzikorraz oroz gain jagiten zirala. Eta orduan, Paul'en irudi maitekorria indar jarki-eziñaz agertu yakon. Talde zoragarria, benetan, baiña... sasi-mesias'en atzetik alperrik aalegintzen ziran...

Urrengo egunean gosaldut ostean, bideari jarraitzeko zorian zala, etxekojaunari eskerrak emonda gero, ostatu-ordaintzat zidarrezko bat eskiñi eutsanean,

– Entzun, lagun –esan eutsan etxekojaunak–, gorde egizu "denari" ori zuretzat, laster bear izango dozu-ta. Begira, Tarkini deritxan uri onetatik Erroma'ra eun bat kilometroko bitartea dozu, eta onik eldu zaitez, emen idatzita dozuz ezagun batzuen etxeetan artu dagikezun ostatua. Agur, eta zoaz ondo, Jaungoikoak lagun.

– Agur, adiskide. Ni ezagutu barik, etxean artu, eta ostatuz gaiñera, jan-edaten emon daustazu. Gogoan izango zaitut beti. Yahvé'k bedeinkatu zagiezala zu ta etxeko guztiak.

– Agur, Dan, egia ta bakea idoro dagizuzala opa dautsut.

Bideari jarraitu eutsan Dan'ek, eta gabeko atsedenez bizkortuta, Tarkini'ko base-ritarraren argibideak ustiatuz, eta onen kristaukideen abegi txeratsu ta erabilte anaikorrak babestuta, laugarren eguneko arratsaldean, ganetxu batetik, Erroma, urriburu erral-dioa agertu yakon.

Kristo-osteko 65'garren urteko uda zan Basamortuko Semea Erroma'ra sartu zanean. Ludiko uriburutzat artzen zana, ustelkeri, lizunkeri, eta jopukeriaren eredu zantarra zan. Agintza-besaulkian, asmatu daiteken gizasemerik anker eta errukibakoena jeksarten zan: Neron kaiserra.

Amasei urtekoa zan Neron, agintari-besaulkira igon zanean. Asiera baten bazirudian kaiser ona izango litzakela, baiña luzaro barik, erritarren itxaropen au ustel billakatu zan. Bere naikeriak asetzeko ez eban ezetariko mugarik ezagutu. Bere ama Agripina'rekin ez zan ondo alkartzen, Octavia bere emaztea zapuztu ebanean batez be, Popea emakume zitalarekin batzeko. Onek eraginda, bere ama erailteko agindu eban. Aurka egiten eutsoenak, aiko-maikotan ibilli barik, oztasunik andienaz, garbitu egiezan agintzen eutsen bere erailleai, eta ertzainburutzat, Tijelino, bera lako biotzbakoa aukeratu eban. Ogei ta bost urteko izanik, txortatxutan orrazturiko billo bellegiko, begiratze moteleko zala, eta sabel andia anka ezain bien gaiñetik kulunkatzen yakola, diñoskue ezagutu ebenek. Bere emaztea billakatu zan Popea'k, txingote baten antzera erabillen, eta arek eraginda, Octavia giltzapetu ondoren, erail egien agindu eban. Bere burua Jaungoikotzat aldarrikatzen eban. Antzertizale porrokatua izanik, lira ereskiña joaz, olerki ta abestiak aletzen ebazan, arlo onetan bere burua ertilaririk gorenatzat ebala.

64'gneko Uztaila'n su andi bat sortu zan Erroma'n. Garai aretan, Neron Anzio'n egoan, eta jazoten zana jakitun ipiñita, bereala biurtu zan. Suaren eragillea Neron berbera zalako zurrumurrua zabaldu zan, eta mizto gaiztoen mormoxeta ori itotcarren, eragilletzat kristauak salatu ebazan kaiser zital eta lotsabakoak. Onen ondorioz, Yosu'ren jarraitzaileen aurkako jazarkunde basati ta ankerra asi zan.

Palestina'tik atzerriatutako lenengo bidali ta ikasleek, Erroma'ko sinagogetan Barri Ona aldarrikatzen eben. Asiera bateko kristauak judutarrak ziran, baiña aldiaren joanean irakaspen barria Erroma'ko gizarte-mailla guztietara edatu zan. Urriburu andi,ustel aretan, erakarpen jarki-eziñaz garatu zan siñiste barria. Diruak, ondo-izateak, joputasunak, norberekeriak, lizunkeriak, eta guztitariko griña txarrek menperatzen eben orduko gizartea, eta ustelkeri aretatik urteteko naiaz, askok eta askok siñiste barria gogo guztiaz besarkatzen eben. Kristautasunak emakumea duiñagotzen eban, jopuak askatzen ebazan, senar-emazteak zintzotasunean alkartuago, gurasoak seme-alabekin lotuago, eta ugazaba-morroien arremonak txeratsuaگوak biurten ebazan. Siñis-

men, itxaropen, maitasuna... Yosuren irakaspen beiñenak ziran; mundu onetako naigabe ta lorrak amaituta, eriotzaz araindiko zorion betea; eta oroz gain maitasuna, kristauak benetan bereizten ebazan goibururik andiena. Ez zan arritzeko, beraz, gizarteko mailla guztietatik siñiste barrira aldatu zeitezen.

Asiera baten, Erroma'ko agintariek ez eutsan jaramon andirik egin irakaspen barriri. Jainko ta jainkemeak ebezan, baiña areikan siñisterik ez. Izan be, aginteriaren ikurrak ziran soillik, eta jarraituz eta ekanduz aldareetan opariak eskiñi arren be, "begien egarri" egiten eben. Jainkoekiko erromatarren eraspén-erakusketak, utsak ziran. Ustelkeri ta lizunkerietan lorrinzen danak, Jaungoikorik ez dau siñisten, Jaungoiko bakarra bere burua da-ta. Kristauak, erromatar Jainkoak aintzakotzat artzen ez eban ezker, au neurri baten Erroma'ren aurka joatea zan, aginteriaren ikurrak zapuztutea zalako. Eta garrantzitsuena zana, kristautasunak iraultzaren azia ekarren, jopuen jaregi-teak aginteriaren oiñarria ezerezten ebalako, eta atzerritarrak anaitzat maite izatea, eta augaitik iñoren lurretan lapurretarik ez egitea, Erroma'ko laterria ankaz gora ipintea zan. Bazan beste zio bat erromatarrek kezkatzen ebazana, eta auxe alegia: siñiste barría edatzen zan arintasuna. Itz laburrakak esanik, kristautasunak bere baitan agintzeriaren azkena ekarren. Agintari areik ezin ebezan onartu Yosuren zortzi zorunak, ori arein ulermenetik-at egoalako, baita on-izatearenetik be. Baiña biziera aregaz nazkatuta egozanak, azi barría artzeko gerturik azaltzen ziran.

Kristautasuna zabaldu-ala, agintarien jarkipena andiagotzen zan, eta noizbait, bilatzen eben atxakia alagala aurkeztu yaken, eta auxe alegia: kristauak ziran Erroma'ri su emon eutsoenak. Auxe izan zan Neron'en burutapena, mizto gaiztoen esamesai aurre egiteko. Onen ostean, siñisgatxa dan jazarkuntza basati, zakarra, errukibakoa ler egin eban, atzitu egikiezanak, aguretik asita umetaraiñoko guztiak, erarik ankerrenaz garbituta izanik zirkoan edo jolastegian, iñoiz ez ikusirik ikusgaririk izugarriena Erroma'ko jendekeriari eskiñiz.

Antxiña batetik erromatarrek oitu izan ziran laterriak eskintzen eutsen ikusgaietara joatea. Oneik, gizakien arteko leiaketak ziran, sarri askotan eriotzeraiñoko burrukak, izan be. Burruka oneitan tartekoak ziranai, auzkari edo gladiatorak esaten eutsien. Bestetan, basa-piztien artekoak, esaterako, berariz barauan iraundako leoi-katamotzen artekoak, baita gizaki-piztien artekoak be. Ikusgai guzti oneik, koliseoko jendekeriak orru ta txaloka begiztatzen ebazan, nor gaiñetik urtengo zanaren alde demak edo posturak egiñez. Jendea erruz joan oi zan goizetik arratsalderarte irauten eben ikuskizun oneitara, jan-edariak eroiazala, edo antxe bertan salgai ziranak erosteko, alkarri gordinkeriak eta lizunkeriak iñotsiezala. Auzkariren bat azpiratua zanean, eta bizitzaren alde barkapena eskatzen ba'eban, jendekeria oi ta orruka barkapen ala eriotzaren alde azaltzen zan, erpurua gora ala beera zuzenduz. Azpitik urtendakoaren zoria, azken baten, jai-lendakariak erabagi oi eban.

Erroma'ko jendekeriak, baita goragoko giza-maillakoak be, erraz irunsi eben Neron'en salakuntza zitala, eriotzera galdu bear izango litzakezala onartuz. Edestilarien eritxiz, irazeki edo su andi aretan, uriburuko zatirik andiena erre zan, eta ezeukien

etxeak geienbat. Ez da arritzekoa, beraz, erromatar askok kristauai gorroto egieen. Edozelan be, ez da geratu ezetariko aztarnarik, uriburua ondatu eban irazekia zelan sortu zan. Bestaldetik ez dirudi siñisgarria, Neron'ek agindu egianik olako basakeria, irazeki bitartean, andik eun bat kilometrora datzan Anzio urian egoalako, baiña gizaki zital, alena izanik, edozein gaiztakeri egiteko gai zala, ondo be ondo ekien errikideek. Anzio'tik Erroma'ra biurtu zanean, garren ikusgai gautarra begiztatzean, bere burua eritlari bikaintzat eban Neron'ek, lira ereskiña artuta, abesteari emon eutsala, miin zortzek esan eben.

Arrezkero, oraindiño ondo ezagutuak ez ziran kristauak, atxillo egitea agindu eban Neron'ek, orretarako guztitariko salaketak piztuz eta onartuz. Kristautzat artutakoak auzi laburpean epaituak, alameneko eriotzera galdu izaten ziran. Batzuk, jolastegian basa-piztien opariak izateko, bestetzuk gurutz-untzatuak, baita be asko erregaiaz igurtzita, Neron'en baratzetan gabaz ospatzen ziran jaiak argitu egiezan, eta basakeri onein bitartean, erre-barría izandako aginteriaren uriburua, birreraikiten ziarduan Neron'ek buru-belarri.

Auxe zan Erroma'ko giroa, arratsalde aretan Basamortuko Semea Flaminia'ko atetik uriburura sartu zanean. Azken ostatuan etxejoaunak itarantzuniko izen bat go-goan ondo irarrita eroian: Yezer errementaria, judutar kristau baten izena, baita artutako argibideen arauz, Via Flaminia'n zear ogei miñutuz ibillita, eskumatara jo ondoren, beste ogei bat miñutu igarorik, Tiber ibaiaren ondoko etxetxu baten Yezer'ek errementegia ebala be. Ez yakon zaila azaldu, Yezer'en egoitza aurkitzea, eta illuntze aretan lana amaituta, errementaria atea ixteko zorion zala ezezagun bat urreratzen yakola ikusirik,

– Zer nai dozu, Jauna...? –itaundu eutsan–.

– Zu al-zaitut Yezer errementaria...? –eberkeraz Dan'ek–.

– Bai, zer nai dozu nigandik...?

– Ara... –asi zan etorbarria, eta jarraian, itz laburretan bere egocrea azaldu eutsan, eta onetaraxe amaitu eban:

– Ez dakit zein luzaro iraungo dodan Erroma'n, baiña dagokidan erabagia artu arte, on izango litzakit zure etxean lako leku baten aspaldi bat emotea.

– Ezin dagiket aberkide bat kalean bertan-beera itzi. Nire etxean geratu zaitezke noizgura arte.

– Zein izango litzake ostatu-saria...?

– Aal dozuna, baiña ez larritu orregaitik, ez zaitut itoko-ta.

Au entzutean, begi argia egin eutsan Dan'ek, eta gero,

– Eskerrik asko, Yezer, baiña ez neuke aspergarri izan gura.

Onen ostean, Yezer'ek bere emazte Errakel aurkeztu eutsan; ez eben seme-alabarik, ezkon-barriak ziran-eta. Apalostean, lantegiko goikaldean egoan gela txukuna eskiñi eutsan Yezer'ek, eta bidegite luzeak nekatuta, loak bereala artu eban. Urrengo goizean, Errakel'ek gosaria atondu eutsan eta gero errementegira jatsi zan. Une artean Yezer'ek aizkora bat egiten ziarduan, eta amaitu ebanean,

– Aizu, adiskide –esan eutsan Dan'ek– antxiña baten neu be errementari izan nintzan.

Eta au esanik, sutegian berotzen zan burdin-zati bat arturik, ingudean ipiñita, mailukada bizitan, aizkora bat begi ta guzti landu eban. Gero, arrituta begizatzen eban Yezer'eri,

– Bai, adiskide –irribarrez esan eutsan–, orain urte asko basamortuko nabatetarrekin bizi izan nintzan, eta langintza au ikasi neban.

– Ez dozu makal emoten ba.

Une batez isillik iraun eben, eta gero,

– Begira, Yezer –jarraitu eban Dan'ek–, zer deritxazu lanaren bidez ostatu-saria ordaindu dagitsudan...?

– Oba ez, Dan, eta orrezaz gaiñera dirurik emongo dautsut, txarto ez dozu egiten-eta.

Olan ba, Tiber ibaiaren ondoko errementegian lanean ziarduala, aspaldi batez an bizi izatea erabagi eban Dan'ek, Yazer'ek eta Errakel'ek etxekotzat artzen ebela.

Bere anai Ahmed'en eriotzaz jakitun ipiñi ebenean, gorrotoak eraginda, meaztegien zuzendariagana joanda, igeslariaren billa joateko baimena eskatu eutsan Ali'k berba oneikaz:

– Jauna, ezin dagikegu olako gaizkille baten ekintza zigortu barik itzi. Orain artean meaztegitik iges egindako bakarra da. Leku onetako aipu onaren alde, on litzakigu, gaizkille orreri eskua jarri, guztientzat eredu ona izan daiten.

– Baiña, Ali, non egongo da onezkero dalako Dan Ben Oziel...? Iru egunez toki guztiak zeatz-zeatz arakatu ondoren, bere zantzurik iñon ez. Badirudi, lurak irunsi egin dauala-edo...

– Alperrik da luzaroagorik emen arakatzea, Jauna, onezkero Erroma'rako bidean izango da-ta. Nire ezagueraren arauz, Katanis baserritarraren etxean aurkeztu zan, eta meatz-azterketak egitearren Senatuaren aginduz etorrela atxakitzat ipiñita, arratsaldean Porto Ferrai'o'ra abiatu zan. Nire ustez, lenengo eguneko gabea, Erroma'rako ontzi baten ezkutatu zan, bestelan, onezkero arrapatuko genduan.

Zuzendariak agiri batzuk aztertu ondoren,

– Dalako Dan Ben Oziel –agiria irakurri ostean jarraitu eban–, Erroma'ko Metelo, Valerio, eta Livio senatoreak epaituta, amar urteko zigorra meaztegiatan emon eutsen. Ondo derist dalako gaizkillearen billa joanda, atxillo egin dagizula, emengo meazlariantzat eredu aztu-eziña izan daiten, baita gure izen onerako be. Zatoz ona biar goizean, eta epaikari areintzat idazki bat emongo dautsut.

Biamamonean, idazkia aldean eroiala, Ali, Porto Ferrai'o'ra jatsi zan, eta urrengo

goizean Erroma'ra joateko zan ontzi bat artu eban. Iru egun geroago Ostia portuan kairaturik, astirik galtzeke, Valerio, Senatu'ko epaikariagana joanda, idazkia eskuratu eutsan. Astiro ta ardura andiz irakurrita gero, Valerio'k,

– Meaztegi'ko nagusiak –esan eutsan–, lagundu dagitsudan eskatzen daust, eta Senatu'ko epai bat autsi dagiana, guztien jarraibiderako zelan edo alan birratzitu bear dogun ezkerero, gerturik nozu zuri laguntza emoteko. Zenbat ertzain bearrekotzat joten dozuz...?

– Sei ertzain on-onak emongo ba'zeunskidaz...

– Ez al-da larregitxu izango...?

– Begira, Jaun epaikari agurgarria: dalako igeslaria indar itzelako gizona da. Meaztegi'ko morroia esku-ukaldi bat az eraillez gaiñera, eskuturretako kateaz nire anai Ahmed ito egin eban, eta nire anaia sendoa zan, sendorik ba'zan. Judutar orren indarra...! Ez, sei ertzain ez dira larregi.

Noizbait, Valerio epaikariak, eskaturiko sei ertzaiñak emon eutsazan, eta ertzain-talde onen laguntzaz, Ali tunizitarrak Dan'en eizari emon eutsan. Lenengo, igeslariaren zertzeladak emon eutsezan, au da, soñiaren itxurea, eta aurpegiaren karantza batez be. Onen ostean, sei ertzaiñok Erroma'ko kale, zelai, enparantza, jolastegi, antzoki, lizuntegi, urberoagak etabar gau-egunez kuku egiten ebezan. Edozelan be, ez zan gauza erraza uriburu andi aretan, alako gizaki bat aurkitzea, baiña asteak eta illabeteak igaro arren, apentzaz eragindako Ali'k bere elburuari ez eutsan ukorik egiten.

Baziran sei illabete-edo, Dan'ek Yezer'en errementegian ziarduala, eta izan be, poz-pozik, Yazer ta beronen emazte Errakel'ekin ezin obeto alkartzen zala. Arrezkero, baebazan diru batzuk aurreztuta, eta luzaro barik Palestina'ra joateko beste aurrezturik, bide-txartela erosiko leuke. Langille on eta neka-eziña zan ezkerero, berarekin pozik egoan Yazer'ek, polito ordaintzen eutsan. Basamortuko Semeari lenengo egunetako arrenkurak ostentzen asi yakozanez, Erroma'ko edertasunak ikusteko gurariak artuta, uriburuan zear egurastu oi zan, maisu-lan areik emotsoen atsegiñak eraginda. Ertizale porrokatua zan, Urian zanaren irakaskintza zala-ta, eta aldiaren joanean, Erroma'ko edertasunarekiko zaletasun orrek, beragan sustrai sakonak edatu ebazan. Olan ba, Tiber ibai ondoko errementegian bere jarduna amaituta, gautu arte egurasteari emotsan. Bein baten, burutara emon eutsan Yezer'ek, uri aretan gaizkille askok lapurretan ziarduela, eta on litzakiola, beraz, iskilloren bat aldean eroatea. Ontzat artu eban Dan'ek burubidea, eta urrengo egunean sastakai bat landu eban, oikoak baiña andiagoa, bere indarrari egokion zabal eta sorbatz zorrotzekoa. Sei illabete areitan, errementaritzak bere giar indartsuak garapen bikaiña emon eutsen, eta gitxik, iñor ba'zan, neurtu zeitezkean Basamortuko Semearikin.

Bein baten, Apolo Jauretxearen aurrean iragarki bat ikusi eban, eta jakingureak zirikatuta, urreratu ta irakurri eban. Jai zan biaramonean, zirkon edo jolastegian, azpiraketa-aldi (soñez-soñeko burrukaldi) ospetsua erromatarrai eskintzen yakiela iragarten eban. Emonaldi bitxi onetan, Nubia'ko Marlo ta Kapadozia'ko Nareb burrukalarri nagusitzat iragarten ziran. Ikustaldia duan zan, Erroma'ko Ziñegotzi (edil) baten pen-

tzuan, izan be. Oikoa zan, erritar ospetsuren batek bere kasa emon egiazan oláko ikustaldiak, “begien egarri” edo-ta bere garaian egindakoari onura ataratarren. Azpiraketa-zale andia izanik, urrengo egunean dalako ikustaldira joatea erabagi eban Dan'ek.

Biaramonean, beraz, goiz beranduan joan zan jolastegira, eta ogitarteko batzuk erosita gero, arri-mailla baten jesarri zan, an beean ondartzan eskintzen ziran leiaketak ikustatuz. Azpiraketa-zalea izanik, Masada'n izandako burrukak gogora yatordazan. Arin joian aldia, ekitaldiak alkarri erraikioezala, etenaldien artean jendekeriak jan-ediariak erosten, edo urrengo leiaketarako demak egiñez. Noizbait, azken ekitaldia izango zan Marlo nubitarra ta Nareb kapadozitarraren arteko txanda etorrita, azpiraketariok ondartzan agertu ziranean, txalo-jote gortugarria aditu zan. Biok billutsik agertu ziran, lotsariak ozta-ozta eun ariñak estalduta, eta jolastegiko erdigunean bilduta, urrats astirotsu ta benatsuakaz, jai-zuzendariaren aurrera etorrita, buruaz gur ariña egiñik, erdigunera biurtu ziran, eta aurrez-aurre geldi, turuta-joteari itxaron eutsoen, orioz igurtzitako soiñai eguzkiak dizdirak ataraten eutsezala.

Turuta-jotea aditu zan, eta alkar adi-adi begiztaten ebela, biraka asi ziran. Alako baten, baltza zan nubitarrak kapadozitarrari gerritik oratuta, bere biziko burruka asi zan batetik bestera alkar astintzen ebela, arnas-estuka ta izerdi basatan. Azpiraketa amaitutzat epaitzen zan, leikide batek etsaiaren bizkarra lurrean igige jarten ebanean, ingurutik ebilkien epaikariaren aburuz. Egun aretan ikusgai luze ta zudugarria eskiñi eben azpiraketariok, eta noizbait, galtzeko zorian zirudian kapadozitarrak, saietsez jausita, suge baten antzera soiña biurrikaturik, nubitarra ezustez artuta aratiñik ipiñi eban, aldekoen oiú ta orruen artean, Dan'en ustez, nubitarra leikidea baiño indartsuagoa zan, eta gaiñetik urtengo zan, ezustean artu izan ez ba'litz.

Egun aretan eragin ezkutuari jarraituz, Ali'k bere sei menpeko ertzaiñak artuta, jolastegira joatea erabagi eban. Bere ustez, eta ez egoan oker, egun aretako azpiraketa ospetsuak, burrukalarri ona zan judutarra erakarriko leuke. Edozelan be, aukera ziurrik ez judutarra ikustaldira joan zeiten, eta are gitxiago ainbeste ikusleen artean, billatzen ebana begiz jo. Ali, baiña, egonarri andikoa zan, eta bere sei menpekoak jolastegiko leku egokietan ipiñita, astiro-astiro bekaldeko ibilgunetik ikusleak begiz aztertzen asi zan. Eguberdiaren ostean, arranoaren ikusmena eban tunizitarra zur eta lur geratu zan. Izango ete...? Eguzkiaren indarrari aurre egitearren, burua zapi bat az estalita, bestelabaitakoa urreratu yakon, eta zauskada andi-andipean, Dan berbera zala egiztatu eban. Ezer egin aurretik, inguruak aztertuta, andik ez urrun lurpeko urtenbide bat egoala ikusi eban. Ezpaibarik, urteteko lurpeko axe erabiliko leuke Dan'ek, eta beste barik atxillo egiteko asmoari emon eutsan.

Arin baten menpekoak batu, eta lurpeko beste muturrean, au da, lekoreko aldean, begirari ipiñi ebazan egiteko zana azaldu ondoren. Orduan biurtu, eta isil-ostuka Dan'egandik ur samar jesarrita, jazoeren garapenari itxaron eutsan. Nubitar-kapadozitar arteko burruka amaitu zanean, Dan'en atzetik orpoz-orpo urtenbidera abiatu zan, eta dana berak atondutako lez egoala ikustean, ekiteko gertau zan. Iru menpeko eskuman eta beste irurak ezkerrean jarrita, Dan onein artean igaroteko zorian zala, txistu sarko-

rra, eta bapatean sei ertzaiñak oldartu yakozan. Ezustez artutako Dan, sastakaiari eusteko astirik ez izanda, iru ertzaiñek beso banari oraturik, geldi-erazo, eta begien itxi-edege baten Ali'k eskuturrak kateatu eutsazan, eta ertzain bik besopetik oratuta, urrengo ertzaindegira abiatu ziran, Ali'k auxe iñotsala:

– Bazaukat, judutar urde ori, eta oraingo onetan ez daustazu igesik egingo, ez orixe...!

Eta itzok esatean, barre zaratusaz lagunduta bere biziko matraillekoa emon eutsan. Latz-ikara batek astinduta, baekian Dan'ek begira ebana: alamenen arteko eriotz lotsagarria, eta ori baiño len burrukan egiten iltea erabagi eban. Orduko, illunabarraren itzalak urian zear edatzen ziran, eta nekatuarena egiñez, ibillerea lazotu eban abaguneren baten begira, Ali'k katearen mutur bateri eusten eutsala...

Arratsalde aretan, auzkarien eskola bat jabetzen eban Anué'k ejiptotarrak, jolastegitik etorri-barria zan, eta arratsbeerako ozkirria gozatzearren, “Aventino” bere eskolako ate-aurrean jesarrita egoan, egun aretan jolastegian izandako bere auzkarien jokareta gogoan erabilliz. Izan be, aspaldi aretan bere azpiraketariok ez eben berak nai izango leuken baizen ondo jarduten, irakasle ona ez ebelako, urrean... Berak, Anué'k baebazan azpiraketari onak, baiña aspaldi aretan maisu onik ez ebanez, “Aventino”ko azpiraketariok, eskolari ez eutsoen ekarten berak nai eban ospea. Oldozkun onetan ziar-duala, kaleko itzalen artean urreratzen zan ertzain-talde bat ikusi eban. Kateaturiko atxillo bat zazpi ertzaiñek ekarren, ahen-biraoka ta joka arindu zeiten. Alako baten, zur eta lur egindako Anué'k ekintza arrigarria ikusi eban...

Atxilloak ustekabez, kateari teinkada indartsua emonez askatu zan, eta eskuak lotuta izan arren be, katea buru-gainetik erabilliz, inguratzen eben ertzaiñai eraso eutsen atzera egiten beartzen ebazala. Alako baten, demoniñoaren indarra jabetzen zirudian kateatua, tximistaren entzera kalean gora oldartu zan, ertzaiñai ogei bat metroko aldea kentzen eutsela. Agiri zan, baiña, kate astun bat az lotuta joianak, ezin luzaro zazpi ertzain gazteen jazarkundeari eutsi. “Aventino” eskola kalearen goikaldeko biurgune baten egoan, eta alako baten oldozkun bakanak eraginginda, igeslaria bere ondotik igaroteko zorian zala, keiñu bat az lagunduta, auxe esan eutsan:

– Zatoz, zatoz, barrura...!

Laster ulertu eban Dan'ek, gizon arek lagundu gura eutsala, eta arrapalada baten atadian zear ostendu zan. Jazartzailleak eldu ziranean, nora jo ez ekiela ezpaitsu geratu ziran, eta atean jesarrita ikusi ebanari,

– Aizu, lagun –itaundu eutsan Ali'k– norantz jo dau iges egin dauskuan gaizkille denganiñoak...?

Eta Anue'k patxadarik andienaz,

– Ementxe bertan –esan eutsan– eskumatara jo dau; ez dakit, baiña, onen illun izanik arrapatuko dozuen-edo...

Laster ostendu ziran ertzaiñak kaleko itzalek iruntsita, eta bere kolkorako barre egiñez, Anué ejiptoarra barruratu zan.

Atadiko barrukaldean, burdiñezko ate baten aurrean Dan ikusi ebanean, Anué'k auxe esan eutsan:

– Zagoz apur baten atea edegi dagidan arte. Izan be, ate au beti dago itxita, barrukoai kanpora joateko zirikaldia datorkienez, urten ez daitezten. Etxe au auzkarien eskola da, eta Erroma'ko onenatarikotzat aipua dau.

Orduko, Anué'k atea edegi izan eban, eta biok igarota gero giltza emon eutsanean, barruratzen zirala onetaraxe jarraitu eban:

– Emen dagozanak, jenderik gaiztoen eta zakarrenak dira, zerorrek laster ikusiko dozunez. Eriotzera galdu diranen artean, eta auzkari gitxi dagoanean batez be, txanpon batzuen bidez erosi dagikeguz, eta gure jabetasuna biurtuta, jolastegian auzkaritzat erabilten doguz. Badira be, zeu lez, ertzaintzak jazartuta babesaren billa datozenak, leku oneitan Erroma'ko legeak indarrak ez-eta. Andikien etxeetan txarto erabilliak diran jopuak be, badatoz ona andik iges eginda, ia emengo joputza lengoa baiño jasankorra goa ete dan itxaropenaz. Eta siñisgatxa bada be, badira gogoz datozen Erroma'ko erri-tarrak, baita arrotzak be, bizibide bat eta ospea lortzeko ustez.

Anué'k gora-beera oneik Dan'eri emotsazala, uztai edo arkupedun larrain batera eldu ziran, eta onen alboko ate bat edegirik, mai luzeakaz ormidutako areto andi bat ikusi eban Dan'ek. Maien ondoan gizatalde bat jesarrita apariari ekiten eutsan, oi, bi-rao, eta barre-santzoen artean

– Ona emen, nire auzkariak indarrak zuzperten dabezala, oneitariko batzuk gaur jolastegian jardun dabe-ta. Izan be –irribarreka jarraitu eban ejiptotarrak–, gaurko ekitaldian tartetu ez diranak be, besteak aña gose dira. Zailla da asmatzea “Aventino”ko auzkariak jateko gai dirana; basa-pizti onei urdailla baretu ekien, ez da erraza, gogoan arturik batez be, nire etxe onetan irurogei bat sabelandi kokatzen dirala

Isildu zan une batez, eta gero maitzain bateri dei egiñez,

– Aizu, Gaor –agindu eutsan–, ona emen etorbarri bat. Billatu egiozu jarleku bat apaltzeko, eta gero lo-gelan beste bat. Biar goizean ekarri egistazu idaztegitira autu bat izan dagigun. Eta orain –Dan'eri mintzatuz–, agur gazte, eta ondo lo egin.

Alde egin eban Anué'k, eta dalako Gaor'ek jarleku uts bat ikusirik, Dan'eri eskiñi eutsan. Jesarri zan lagun indartsu biren artean, eta gose zan ezkerero, txilista-lapikokoari ekin eutsan gogoz, eta onen ostean, erreki-zati andi bateri. Mai-azkentzat zenbat-gura igali jan ondoren, alboko maikide batek,



– Aizu, lagun –itaundu eutsan–, dirudianez, Anué'k beste burrukalari bat ekarri dauku gaur.

Olan berba egiten eutsana adi-adi begiztatu eban Dan'ek. Baltza ta indartsua zan, eta lendik ezagutua ebalá begitandu yakon. Alako baten, bapatean burura etorri yakon, arratsalde aretan ikusiriko Kapadozitar eta nubitarraren arteko azpiraketea. Bai, Marlo berbera zan, egun aretak burrukea galdu ebana. Olan eta guzti be Dan'ek ez-jakiñarena egin eban. Orduan nubitarrak,

– Bai, adiskide –jarraitu eban–, Anué gure nagusia asarre dago gurekin, aspaldi onetan garaille gitxi agertu dalako “Aventino” eskolan, eta augaitik bildur da jolastegitiko eskaerak urritu dakiozan, bere katanarruaren kaltez.

– Bai, gaurko azpiraketan entzutekoak entzun dodaz, zure alde dirurik jarri dabenen artetik batez be. Atzitu ba'zengiez narrutuko zinduezan.

– Ez niri esan gero, burrukea ikusi dozula.

– Bai, Marlo, ikusi dot.

– Beste urrengo baten –asarre-antzean nubitarrak esan eban– kapadozitar ori arrapatu dagidanean...

– Bardin egingo dautsu arek: irabazi.

Itxura itaunkorraz begiztatu eban Marlo'k, eta orduan Dan'ek,

– Aizu, adiskide –esan eutsan–, zure burrukaerea obatzen ez ba'dozu irabazterik ez.

– Burruka askotan gaiñetik urten naz ba...!

– Bai, erdipurdiko leikideak izan dozuzalako, baiña benetako bat, esaterako gaurkoa aurrean ipinten yatzunean, orduan blindi-blaust...!

– Zergaitik diñozu ori...? Nik ez dausat iñori ezertan zor...!

– Begira, Marlo, arerioari buru-makur, zezen amorratuaren antzera oldartu zaia-kozenetan, beti galtzaille, aukera guztiak leikideari emoten dautsazuzalako, aren urrengo ekintza zuk ezin ikusiko-ta. Ez dautsu iñork zure akats andi ori aipatu...?

– Ondiñokarren ez, baiña esan... non ikasi dozu azpiraketea...?

– Ori ipuin luzea da. Beste urrengo baten jakitun ipiñiko zaitut. Orain goazen oera, lo-gureak erreta nago-ta.

Une aretan Gaor morroia urreratu yakon, eta lo-gela andi bateraiño lagundurik, oatze bat erakutsi eutsan, auxe iñotsala:

– Ona emen betirako izango dozun oatzea: 53'gna izan be. Ondo lo egin. Biar Anué'gana eroango zaitut,

Lo-gela ederra zan; illazkiak egoki ta erosoak, oatzeak orma luze bitara alboratuta, erreskada bien artean igarobide zabala edatzen zan, eta orma bien goikaldean, leio zabalak ikusi zeitekezan, gelari bearreko aizeketea emotearren. Lotan asi baiño len, bere buruari itaundu eutsan Dan'ek, zergaitik auzkaritalde jopu bateri, orren janari bizi-garria ta lo-gela garbi ta eroso eskintzen yakozala... baiña erantzuna laster etorri yakon, eta auxe alegia: joputalde gaixo areri obaririk andiena atarateko, sendo, bizkor, eta osasuntsu iraun bear leukie, bestelan jolastegian akurapenik ez, eta eskolak txulut

egingo leukie. Oldozkun onetan zala, joale-jote bat aditu zan isillaldia iragarteko, eta dana bakean murgildu zan, zurrungaren bat soillik an-emen aditzen zala.

Biamonean, txistu-jote batek jagi-aldia iragarririk, auzkariek lekoreko larraiñean garbiketea izanda gero, jantzi ostean jatokira abiatu ziran gosaria izateko. Marlo nubitarra Dan'en ondoan jesarri zan, eta leku aretako argibide batzuk emon bitartean, jateari gogoz emon eutsan. Esne ta gari-urunaz egiñiko ai gozoa, eztiz igurtzitako ogizerrak, eta urresagarrak. Gosaria amaitu zanean, Gaor urreratu, eta,

– Anue'k ikusi gura zaitu –esan eutsan–. Zatoz nirekin

Ejiptotarraren gelara sartu-erazo eban. Une aretan Anué'k agiri batzuk aztertzen ebazan, eta Dan ikustean,

– Egunon lagun ori. Jesarri zaitez, itaun batzuk egingo dautsudaz-eta.

Jesarri zanean,

– Lenengo, esaidazu zure izena.

– Dan Ben Oziel.

– Nongoa zara...?

– Palestindarra, Masada'ko semea.

– Lekutatik etorri zara...! Izan be, zure karantzak judutar endakoa emoten dau. Edozelan be, ez dautsut beste itaunik egingo zure nortasunari buruz, ona sartzen diranen igarotakoa, niri bost ardura. Ba al-dakizu eskola onen atea zearkatu egiñagaitik, beste barik, nire jopua zareala...?

– Ez, ez nekian ori; zeuk eskatuta, baiña, sartu nintzan.

– Sartu ez ba'zintzaz zeureak egingo eban...! –irribarre maltzurraz Anué'k–, baiña goazen mamiñera. Lenengo ta bein, etxe onetan menpetasun osoa eskatzen yako zuetarik baktxari. Zuen artean ez dot beste burrukarik ikusi, iñarkunaldietako sasi-burrukak baiño. Eskola onetan izango dozuzan ziurtasun, janari, eta oatze onaren ordaiñez, bear zaitudanean, jolastegian burrukan egiteko gerturik izan zaitezcan eskatzen dautsut.

– Eta baldintzok onartuko ez ba'neuz...?

– Orduan ertzaindegira mezu bat bialduko dot zure billa etorri daitezen, edo-ta nire jabetasuna zanean aldetik, beste barik garbituko zindukedaz. Ez al-dakizu Erroma'ko agintelurrean jopuak erailtea zillegia danik...?

– Bai, ondo dakidan gauza da ori.

– Orain –agindu eutsan Anue'k– kendu soingaiñeko ori ta zutundu zaitez.

Olan egin eban Dan'ek, eta urreraturik, Anue'k aren enbor ta adarren giarrak esku-katu eutsazan, eta azterketea amaitzean,

– Aizu –itaundu eutsan–, azpiraketan noiz edo noiz jardutako dozu...?

– Bai, antxiñan maisu on batek irakatsi eustan.

– Nor zan bera...?

– Jarus izeneko Erroma'n izandako erritar bat.

Izena entzutean, Anué jagi zan urduri, eta,

– Jarus, Jarus andia...! –oiu egin eban–, Erroma'n ezagutu dan bikaiñenatariko azpiraketaria. Urteak igaro arren be, aren izena oraindiño aipatzen da. Orduan beste barik

azpiraketarako erabiliko zaitut. Aspaldi onetan azpiraketari onak peitzen yataz, eta ziur naz dozuzan giar orreikaz jolasen gaillurrera elduko zareala. Orain zatoz nirekin, eskola onen zertzeladak ikusi dagizuzan.

Larrain zabal batera urten ziran, eta irakasleen agintzapean azpiraketari ta auzkariak inārkunak egiten ebezan, buruz-buruko sasi-leiaketatān. Andik ur samar, babeski biribil eta sorbatz okerreko sastakāi bana erabilela, gazte bik alkarren aurka ziarduen.

– Auzkari bi oneik –esan eutsan Anue'k–, “traze” izenaz bereizten dira, eta iskillō ariñakaz diarduenez, azkar eta malguak izan bear. Begira, badirudi dantzan diarduela.

Izan be, alkarri erasoten eutsien oin-muturren gaiñean, dantzan egingo bai'leuen. Erakusketeari jarraitu eutsan ejiptotarrak, eta laukidun babeski, lumadun buru-oskol, eta ezpata labor bana erabillean bikote baten aurrean geldituta,

– Oneik –jarraitu eban Anue'k– “sumnitak” dira, eta erromatar gudarien antzera iskillotuta, gudarostearen kutunak dira. Ikusi dagikezunez, ez dira beste auzkariak bai-zen arin eta malguak, baiña oso ederretsiak.

Billaldiari jarraitu eutsoen, eta iru-ortzeko esku baten eta bestean sare bat erabilez gan gazte batek, ezpata labor bi erabilez gan beste baten aurka, alkarri erasoka ziar-duela, Anue'ek barriro:

– Iru ortzeko ta sareduna, “retiarī”, eta ezpata biduna, “cimachaeri” izenakaz eza- gutzen dira. Asko eztabaidatu da, burruka onetan aldea norena dan, baiña benetan esa- teko, zailla da erabagitea. Ezpata biduna askeagoa da, baiña saredunak iru-ortza ustia- tuz, leikidea urrunagotik zauritu dagike, eta sarepean billakutzen ba'da, orduan bereak egin dau. Burruka-mota onek aldeko asko baditu, eta nire ustez ederrenatarikoa da.

Luzaro samar leikide onei begira geratu zan Basamortuko Semea, bestearen ingu- ruan biraka, saredunaren trebetasuna ederresten ebala. Bapatean, sarea tximistaren an- tzerā jaurtita, etsaia inguratu, eta onek ezinduta, leiaketea galdutzat emon eban.

– Aizu, Dan Ben Oziel –itaundu eutsan Anue'k–, aukeratu bear izatekotan, bieta- riko zein iskillō artuko zenduke...?

– Nik ezpata biak.

– Zergaitik...?

– Burruka ori ezagutzen dodalako, sarri askotan jarduna dot-eta.

Guenez, erredola ta ezpata bana erabilez gan auzkari bien ondoan geratu zan Anue, Dan'eri auxe ināotsala:

– Onei bioi “secutore” esaten yake. “Sumnita” itxurakoak, ez darabille buru-osko- larik, eta ezpatak lengoenak baiño luzeagoak. Darabillen erredola besteen babeskia baiño ariñagoa izanik, burrukeari erakarpen andia damotso. Badira “laquerari” izene- koak be, soka-laster edo urka-lasteraz ornidutako lokarri bat darabilenak, leikidearen idun- ingurutik sartzeko. “Essedari” izenaz bereizten diranak, gurdi batetik burrukan egiten dabe, eta azkenez, “Hoplomachi” soin osoa burni-babeski batāz estaldutakoak.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Azpiraketāz gaiñera –jarraitu eban Anue'k–, emen darabilguzan bost auzkari- motak ikusi dozuz. Azpiraketariak geienetan ez dabe eriotzeraiño jarduten, batzutan

leikidea erailtea zillegia bada be. Auzkarietak, osterā, ia beti eriotzeraiñoko leiaketak izan oi dira. Augaitik ba, auzkari barriak lortu bear doguz etenbarik.

– Eta zelan jaristen dozu bear izaniko auzkarietak kopurua...?

– Geienetan, diruaren aldetik estu ta larri dagozan ugazabai jopuak erosten dau- tseguz, edo-ta zeu lako, legeak zigortu edo jazartutakoak, baiña badira be burrukalari- tzat ospe ta izena lortzearren, aske diran edo “libertos”, eskola onetara sartzen diranak be.

– Mundu onetan ez da osperik, gizaki baten bizitza aiña balio dagianik.

– Erroma ustel onetan guztitariko gizakiak dagoz. Gogoan artu, auzkaritzat ospea- ren gaillurra jaristen dauana aberats billakatzeko bidetik doala, “Rudis” lortzeko gai danean batez be.

– Zer da “Rudis” edo ori...?

– Egurrezko ezpatea. Erroma'ko agintarietak, edo kaiserrak berak emon dagikien ikurra da. Sari au lortzen dauana, bertan-bera “liberto” edo gizaki aske billakutzen da, eta onez gan gaiñera, ugari dituan zaletuen edo jarraitzailleen kutuna biurturik, zenbat-gu- ra laguntza lortuko dau. Badira be, maisutzat auzkari-eskoletan jarduten dabenak diru- keta andi baten ordaiñez.

Autu onetan, idaztegiara eldu ziran, eta sartu ziranean,

– Entzun, Dan –esan eutsan ejiptotarrak–, gaurdanik, azpiraketa-inārkunak Serto- rius maisuaren agintzapean artuko dozuz. Erromatar irakasle au gudari oia da, baita gi- zon arteza ta zorrotza, eta gerturik zaitezanean, jolastegiara joaten asiko zara, ikusletzat lenengotan, eta ango giroari artaratuta, benetako ekitalditan jarduteko.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Aizu, Dan Ben Oziel, ez dot ezer zure izen orren aurka, eta polita izanik be, es- kola onen burrukalari bateri, ezizen gudakoi, arranditsuagoa dagokio. Ez al-yatzu bu- ruratzen beste zatatsua go bat...?

Une batez isillik iranda gero,

– Zer deritxazu “Basamortuko Semea”ri...? –esan eutsan Dan'ek–.

– Oba ez...!

Eta orren pozean ejiptotarrak eskuak alkar igurtzi ondoren, Gaor morroiari dei eginda,

– Aizu, Gaor –esan eutsan–, lagundu egiozu etorbarri oneri Sertorius maisuagana, azpiraketea ikasi dagian.

Andik laster, Dan dalako maisuaren aurrean egoan.

– Sartorius Jauna –esan eutsan morroiak–, ona emen azpiraketari-gai barria. Bu- rrukan egiten irakatsi dagiozun diño ugazabak.

Maisuak goitik-beera begiztatu eban, eta,

– Zein izena dozu...?

– Dan, Basamortuko Semea.

– Ez dau txarto emoten izen orrek, baiña “Basamortuko Semea” ala “Bildotsaren Samea”, biotariko zein dagokizun benetan, ikusiko dogu. Oraingotz jesarri zaitez lu-

rrean, eta aditu ondo be ondo, zelan irakasten dodan bikote au, eta biar leikide batekin neurtuko zara.

Agindutakoa egin eban Dan'ek, eta atan-orretan eguberdiko otorduaren turutotsa aditu zan. Bazkaria, bizigarria, eta ugaria azaldu zan, eta onen ostean ordubete bateko atsedena izanik, Sartorius maisuaren irakaspena ikusten jarraitu eban.

Biaramonean oiko garbaldia ta gosaria izanda gero, Sartorius'egana joan zan, eta praktxuaz jantzita, leikide baten aurka lenengo inarkuna izan eban, eta aitearen egin orduko, lurrean zan leikidea. Barriro be aurrez-arre jarri ziran biok, eta len lez, begien itxi-edegi baten lurrean zan Dan'en aurkaria. Au ikusirik, beste iru leikide ekarri eutsazan Sertorius'ek, eta oneik be beingo baten bizkarra lurrean jarrita aratiñik etzazan. Azpiraketa-maisuak ezin egikean siñistu ekusana, eta begirunez beterik, ikasle barriaren soin indartsua begiztazen ebal, bere kolkorako auxe esan eban:

– Denganiñoa... etxe onetan dogun azpiraketaririk onenaz, Marlo nubitarraz, biar neurtuko dozu zure burua, eta ikusiko...

Biaramonean, Marlo ta Dan neurtu ziran. Nubitarra azpiraketari ona, indartsu ta saiaturia zan, eta asieratik oartu zan Dan benetako aurkaria zala, eta leikidearen igikunak aztertzen ziarduala, tximistaren antzera Marlo'k atzipen ez-oiua egin eutsan besaburuan, eta miñaren-miñez indarrak lazotzen yakozala, Dan'en bizkarrak sorua jo eban.

Artutako miña baretu ekion arte jesarri zan, eta gero jazorikoa aztertu eban. Laster oartu zan bere arinkeriak galdu ebal, garaille izango zalakoan, itsumustuan eta aradura barik jokatu ebalako. Bere eññera biurtu zanean, barriro be inarkuna egitea eskatu eutsan Sertorius'eri, eta onek ontzat emonda, beste ekitaldi bat asi zan.

Oraingo onetan, baiña, Dan'ek zuur jokatu eban, eta Marlo'k buru-makur erasoten eutsanean, esku-ertzaz zartada bat, eta nubitarra aratiñik zetzan. Ostera be burrukan, eta onetan be Dan gaiñetik urten, baita oneri erraikioen guztietan be. Sertorius'ek ezin egikean siñistu ekusana, eta gau aretan Anue'gana joanda, auxe esan eutsan:

– Basamortuko Semea, orain arte nik ikusirik azpiraketaririk onena da.

– Burrukarako gerturik al-da...?

– Itxaron dagigun datorren aste arte, zeozer gogortu daiten; azken aldiotan inarkunik ez dauala egin agiri da-ta. Astebete baten buruan askotarako izango da.

Aste ori igarota gero, beste lagunekin jolastegira joan zan ikusle izateko soillik. Lekorean gurdi bat begira eban, eta iges ez egien ondo lotuta joiazan. Jolastegira elduta, kale-sestrako gela andi batera sartu ziran, eta andik laster lenengo azpiraketa-ekitaldia asi zan. Mailla baten jesarrita, leiaketea begiztatu eban Dan'ek. Jolastegia bete-bete egoan, eta jendekeriaren oiua, birao, eta esku-zartaden artean ospatu zan ikuskizuna. Azpiraketea beste burruka-motakaz aldizkatzen zan, eta "sumnita", "trace", "retiarri", "secutor", eta beste burrukaerak lenengoz ikusi ebazan Dan'ek. "Cimachaeri"ena batez be, zudu andiaz begiztatu eban. Burruka onetan, auzkariak esku bakotxean ezpata labur bat erabillen, eta jake-antzeko ta oiñetako ariñakaz jantzita, arintasun ikusgarriaz jarduten eban, ukabillariak egiten daben antzera, baiña ukabillak erabilli-bearrean, ezpata laburrakaz alkarri erasoka. Burruka-mota au ondo ezagutzen eban Basamortuko Semeak, sarri askotan Masada'ko aldietan, jardun izan ebalako.

Egun aretan auzkari-leiaketatara garaituriko iru lagun izan ezik, jendekeriak eskatuta, beste guztiak il izan ziran. Ezin egikean menperatu Dan'ek latz-ikara bat, areitari-korribako bat erailda jausten zanean. Olako ikuskizun basatira inoiz ez litzakela oituko, ondo be ondo ekian gauza zan. Illunabar-garaian amaitu zan ikuskizuna, eta Dan beste lagunekin eskolara biurtu zan. Gau aretan Anue'ri eskatu eutsan, ez egian beartu ikusletzat joaten jolastegira. Orduan ejiptotarrak,

– Zelan jokatu dozu ba, eriotz-burrukan jarduteko ordua etorri dakizunean...?

Isillean soiñak jaso ebazan Dan'ek, adierazoteko, urrean, ez ekiala zelan jokatu leuken. Zorionez, Anue'k ez eban beartu ikusletzat jolastegira joaten, eta urrengo egunetan, inarkunai emon eutsan buru-belarri. Bein baten, burrukarako gerturik egoala uste izanik, Sertorius'ek esondatuta, Anue'k jolastegiko ekitaldi batera bialdu eban.

Jolastegiko iragarkietan "Basamortuko Semea"k jardungo leukela agertu zanean, azpiraketa-zaleek alkarri itauntzen eutsoen nor izango, izen arranditsu aren pean lenengoz aurkezten zana, baiña ezin inork ari buruz argibiderik emon. Egun aretako jolastaldia zuzentzen eban "edil" edo ziñegotzari leikide biek oiko gurdetea egiñik, ikusgureak erreta, jendeak burrukararen asiareari itxaron eutsan. Dan'en aurkari mazedonitar indartsua zan eta leikideek burrukeari emon aurretik, bira-biraka alkar aztertu eban. Baekian Dan'ek itsumustuan jardutea kaltegarria zala, eta bestearen igikunak kuku egiten ebazala, leikidearen ekintzeari itxaron eutsan. Bapatean mazedonitarra oldartu yakon, eta alkar besarkaturik, nor geiagoka basatiari emon eutsoen. Azpiraketari ona zan mazedonitarra, baiña Dan'en indar erraldoiak gaiña artu eban, eta luzaro barik leikidea azpitik urten zan, jendekeriaren oiua, txalo-jote, eta biraoen artean.

Egun aretatik, Dan'en ospea etenbarik gora andia artzen asi zan, eta Basamortuko Semea jolastegiko ondartzaren gaiñean agertzen zanetan, gero ta ugariago egiten ziran bere aldezelek, txalo-jote burrunbatsuz artze eban. Erroma'ko Jainkoak siñisten ez ebazan gizarte, oker, basati, ustel, eta endekatu arek, bere sasi-Jainkoak bear izaten ebazan, onekan uste osoa ta itxaropena ipintearren. Au zala-ta, gizarte aregan burrukarako zaletasuna piztu zan, eta auzkari askok erromatarren eraspen eta ederrespena irabazi ebezan, gizandi edo gizurentzat onartuak izateraiño. Ludiko gora-beeratan, orixe bera jazo yako gizadiari, eta auxe alegia: gogo-bizitzatik Jaungoikoa uxatzen dauanean, bere orde, inguruko gizakideak jaungoikotu dauz, ara kirolari, izlari, ereslari, gudari, ertilariak etabar.

Orixe bera jazo zan Basamortuko Semeaz, eta egunak igaro-ala, aldezelek gurkeriak ospearen gaillurrera eroian, bere izena bala-bala ebillela. Ospe-gaillurrerako bidegite onetan, baiña, Anue'k esi bat ipiñi eutsan. Bein baten, urtetsua zan Sertorius nekatuta aurkitzen zala, bere jarduna bertan-bera itzi gura ebal, Anue'ri jakiñerazo eutsan. Agiri zan maisuaren itxuratik osasun-beerakadea, eta besterik ezean, joan zeiten onartu bear izan eban Anue'k. Kinka larri aretatik zelan urtengo, burua urratzen asi zan, eta noizbait, burutapen bikaiña otu yakon: nor eta Basamortuko Semea...! Egia zan azpiraketari onek obari andia ekarkiola, eta jolastegian agertzen zan bakotxean, diru-pillo ederra zizkura, baiña maisu ona billakatuko ba'litz, talde bikaiña sortuko eban, eta

onen bidez obari andiagoa jaritsiko leuke... eta otu ta egin. Dan'eri jakiñerazo eutsan azpiraketa-maisua izendatua zala, eta talde on bat sortu egian gura ebala. Izan be, agin-dua pozik artu eban Dan'ek, jolastegiko giroa nazkagarria egiten yakolako. Onezaz gaiñera, diruz sarituko leukela agindu eutsan Anue'k.

Buru-belarri emon eutsan jardun barriari, eta luzaro barik Marlo'ren laguntzaz azpiraketari-talde on-ona jaritsi eban, ejiptotarraren poz andirako. Laster baiña, beste eragozpen bat aurkeztu yakon Anue'ri, eta auxe alegia: "cimachaeri" edo ezpata bidun auzkaritan urri ebillela, eta burruka-mota au azpiraketa baiño garrantzitsuagoa izanik, beste aldakuntza bat egitera beartu izan zan Anue'. Orduko, Dan'en irakaskintzapean, asko ikasia zala Marlo nubitarra, azpiraketa-maisua izendatu eban, eta len ezpata bidun burrukan Dan'ek jardun ebala jakiñik, "Cimachaeri" saillera aldatu eban. Arlo onetan, "Aventino" eskolak ez eban irakaslerik, bakotxak beretara ziarduala. Asieratik agiri zan, arlo onetan Dan'ek ez ebala kidekorik, eta oi-ez-lako auzkarizat guztien gaiñetik jarri eban Anue'k.

Laster oartu zan Ejiptotarra Dan'en gaitasunaz, eta ostera be jolastegira bialdu eban Basamortuko Semea, eta onek, barriro be jendekeriaren oi u ta txalokadak ezagutu bear izan ebazan.

Aspaldi aretan, Neron'ek kristauen aurka agindutako jazarkundea indar betean aurkitzen zan, eta arein triskantzarako, jolastegian basa-piztien janaria biurtu zeitezen asmatu eban kaiser zoro ta zital onek. Augaitik ba, agintelurraren txoko guztietatik basabereak ekarten ziran, eta baraurik iraunerazorik, ondartzara ekarritako kristauai gose utsaz eraso, eta bizirik irusten ebezan. Milla ta millaka, otoitz eta eresien artean ilten ziran kristauak, jolastegiko ondartza gorritz odolitzen ebela. Olan eta guzi be, jendekeri aren biotz endekatua ez zan biguntzen, eta jolastegiko armaillak bete-beterik, ikuski-zun izugarriari begi argia egiten eutsan.

Ondartza gorritua... urteen bidean odol-ereintza arek uzta joria ekarriko eban, ludiari ikuspegi ta itxaropen barria emonez. Eta siñismenaren gar itzali-eziñaz piztutako kristau areik, eriotzari bildur barik aurre egiten eutsoen indar jarkieziñaz, eta gizarte ustel, zital, lizun aren artean, erraldioen antzera jagiko ziran luzaro barik, ordurate laidoturiko gurutza; maitasun eta itxaropen-ikurra biurturik.

Eta basa-piztiak jolastegian ugari izanik, baten bateri otuko yakon, urrean, gizaki ta piztien arteko leiaketak. Bare iraun-erazoteko, matxinadatik urrun, erromatarrek "ogi ta jolas" bear izaten ebezan, eta agintariek ondo ulertzen eben egia izanik, menpeko lurrai janaria kenduz gaiñera, jolastegietan guztitariko ikuskizunak eskintzearren, burua urratzen eben. Olan ba, eta kristauen erailketa izugarriak aldizkatuz, abere ta gizakien arteko burrukak arrakasta andia jaristen asi ziran. Leoi, katamotz, artz, zezen otsoak etabar, euren arteko burrukaz gaiñera, barau luzea jasan ondoren, gizakien aurka jardutera beartuak ziran. Auzkari oneiri "Bestiari" esaten eutsoen.

Basabere ta gizakien arteko burrukeak, uste izan baiño zaletasun geiago lortu eban, eta zuur andia zan Anue', bereala oartu zan oitura oneri atara egikeon onurea, burruka orreitarako bere auzkariak akuratuz. Oneitariko batzuk jolastegitik ikastolara bi-

zirik biurtzen ziran, bestetzuk, ostera, ango ondartzan geraten ziran. Bein baten txandea etorri yakon Dan'eri oneitariko auzka baten tartekoa izateko. Arratsalde ederra zan, ortzi ederpean janzi ariñaz eta ezpata biakaz, Basamortuko Semea jendekeriaren oiuk zirikatuta ondartzan agertu zanean. Lurpeko piztitegitik leoi anditzarra urten zan, eta eguzki aratzak eta jendekeriaren astrapalak luzaro samar atzekatua itzi eben. Noizbait, goseak eraginda, ondartzaren erdigunean itxarokion "Bestiari" agana astiro ta uzkur abiatu zan buztana astinduz.

Ederra zan leoia, eta areago emongo eban gosearen-gosez ain erkindua billakatu ez ba'lit. Ezpata bana eskuan itxarokion Dan'ek, bizirik urtendako auzkarien orrak gogoan ebazala, eta auxe batez be: gizonari eraso aurretik, erdi-makurtuta, bigun eta astiro area buztanaz orrazten ebala. Goseturiko leoi aren urre-antzeko begiak Dan'egan josita, astiro baiña etenbarik urreratzen yakon, eta zortzi bat metroko bitartera zala, arean erdiz etzanda jarri zan. Aurregunean Dan'ek ezpatak zorroztu izan ebazan, eta orain anka-zabalik, soiña zeozer makurtuta, giarrak atezuan eta ernai, basaberearen erasoari itxarokion... Leoiaren buztan-mutur uletsuak area orraztu eban, eta arrapalada baten oldartu yakon. Imo ta bere buruaren jabe, Dan saiestu zan, eta bata bestearen atzetik ezpata biak sabelean sartu eutsazan, eta sortutako urrapen luze, odoltsu bien artetik odola ta esteak eriozala, leoia iraulkatu zan orru bizitan, Dan'en ezpata batek biotzean zauritu arte. Basamortuko Semea jagi zanean, ulu izugarriak mailladetan ler egin eban, zoraturiko ikusleek txalo ta oiuka Basamortuko Semea goratuz.

Arrezkero, aspaldi luze batez jolastegian jarduten ez eban Dan, jendekeriaren kutuna ostera be biurtu zan, astean bein gitxienez burrukan jardun bear ebala. Olan ba, guztitariko basa-piztiekin bere burua neurtu bear izan eban, eta aldiaren joanean oar-ikastea anditzen yakon ezker, onik urten zan burruka guztietatik, bere aldekoen kopurua etenbarik anditzen zala. Nekeziña zan jendekeriak, baiña, beragandik gero ta geiago eskatzen eban, eta bein baten, leoi-bikote baten aurka, bere burua neurtu bear izan eban, baita gaiñetik urten be. Basamortuko Semea jendekeriaren otsean gero ta geiago bizi izaten zan, baiña betiko jopua, erail bear izaten ebazan basa-pizti areik baizen zoribakoa edo areago...

Bein baten, Anu'ek deitu, eta auxe esan eutsan:

– Aizu, Dan, oso pozik nozu aspaldi onetan, eta egia esateko, “Aventino” auzka-eskolari ospe andia emonez gaiñera, niri be diru-mordo bat ekarri daustazu, eta izan be, eskerronez askatasuna emongo neuskizu, baiña au eziña da, Erroma'ko legepean igeslaria izanik, babestu zaitekezan aterpe bakarra, auzkarien ikastolak dira. Baiña au alde batera lagata, niri dagokidan arazo garrantzitsu bateri buruz jakitun ipiñiko zaitut.

Isildu zan ejiptotarra, eta une batez ausnar egon ondoren,

– Begira, Dan –jarraitu eban–, aspaldi onetan arrenkura batek marrazkatzen nau, eta zirt edo zart urtenbidea billatzeko eratorri zaitut. Oartua izango zara onezkero, eskola onek aspaldi onetan gizon asko galdu dauzala, “Sumnita” eta “Trace” auzkaritan batez be, eta ondapen orren egillea “Mesopotami'ko Otsoa” deritxan “Retiari”a da. Bere aurka burrukan egiteko bialdu dodazan etxeko auzkariak, bata bestearen atzetik garbitu egin ditu, eta bide orretatik jarraituz, ez dakit zelan ikusiko dodan nire burua...

– Jolastegiko Batzordeari jakiñerazo egiozu –eten egin eutsan Dan'ek– aspaldi batez ezin dagikezula auzkariak biali, oneitan urri zabiltzalako eta kitto.

– Ezin dot, baiña; eskatu dagistazan auzkariak bialduko dodazala, angu arduradunarekin itunduta nago-ta.

– Erosi egizuz bearreko jopuak.

– Aalegiñak egin arren be, ezin dot eskaturiko beste auzkari aurkitu, eta gaiñera, erosiaz be, korapilloa askabiderik ez, auzkari onak biurtzea, ez da aborik eskura egiten dan gauza, orretarako illabeteak bear dira-ta.

Dan'ek ezin egikean asmatu Anu'eren deiaren zergaitia, arazo arek atontzerik ez ebanean, eta olan ausnar egoala, ejiptotarraren mintzoa aditu zan ostera be auxe iñotsanean;

– Arazo ori atondu dagiken bakarra zeu zara, eta orregaitik eratorri zaitut.

– Neu diñozu...? Zelan, baiña...?

– Ara... “Mesopotami'ko Otsoa” garaitzeko gauza izatekotan, dalako ori Basamortuko Semea da.

Au entzutean, arrenkurak artuta Dan aulki gaiñetik jagi, eta didar baten,

– Ori eziña da –esan eutsan–; auzkarikideen eriotz-leiaketatant tartekoa izaten ez dodala, ondo be ondo dakizun gauza da. Izan be, zure jopua nazan aldetik, orretara bortxatu nagikezu, baiña arren eta arren eskatzen dautsut, zama astun orretatik jaregin nagizula..!

– Beste batek ori egin aal ba'legi...!

– Entzun, Anué, nire bizitza zakar eta ekaiztsuan, gizaki asko il bear izan dot, eta orain aldiaren bidean, damu dot ori egiña. Nire barruan zerbaitek basakeri orreik gaitzestera eragiten nau, gero ta geiago izan be. Nik ez dakit urteen ondorea izango ete, baiña ziñez diñotsut: gizaki baten bizitza ordainteziña da, naiz Erroma'ko kaiserrarena, naiz azken jopuarena izanik be. Ez, ez nagizu beartu orretara, arren...!

– Begira, Dan, ziñez diñotsut eskatuko dautsudan azken mezudea izango dala. Nire auzkarien sarraskia gelditu dagiken bakarra, zu zaitut, Dan. Eskola onetan “Mesopotami'ko Otsoa”ri aurre egin dagikeonik zu baiño besterik ez dot, eta arren be arren eskatzen dautsut, nire gizonen ondapenari esi bat ipiñi dagiozula,

– Orretarako, baiña, gizon bat il egin bear dot...

– Bai –eten egin eutsan Anué'k–, baiña orren ordaiñez, gizon asko gaizkatuko dozuz, zure adiskideak, izan be.

Ondo ekian Dan'ek estualdi aretatik ez ebalda igesbiderik, eta azkenean bere goaren aurka, baietza emon eutsan Anué'ri. Orduan onek,

– Eskola onetako zure adiskideek –poz baten esan eutsan–, eskertuko dautsue benetan zintzotasun ori. Ondo dakit, burruka orretara beste barik beartu zengikedazala, baiña naiago dot gogoz egin dagizun.

– Edozelan be, beste biderik ez dot –irribarre goibelaz erantzun eutsan Dan'ek–.

– Burrukea amar egunen buruan ospatuko da, baiña orren aurretik, eskola onetako “Retiari” onenekin iñarkunak egingo dozuz.

Arrezkero, iñarkun neketsuai emon eutsen Dan'ek, eskolako “Retiari” onenen aurka, eta olan, egunean baiño egunean obeto jarduten ebalda, iruortz-saredun auzkariak erabillezan trikimailluak, banan-banan ikasi ebazan. Laster oartu zan, bera lako ezpatari bikaiñarentzat, iruortzaren erasoak saihestea erraza litzakiola, baiña sare zitalaren jaurtiketatik garaiz iges egitea zaillagoa zan, ostera, eta augaitik, bere aalegiñak, zeatz onetan jarri ebazan, eta bere ekintza obatzeko, saredun bien erasoari aurre egiten eutsan. Olan ba, noizbait, gerriaren igikun ariñakaz jaurtiketa guztiak ezereztu aal izan ebazan. Sarepean, baiña, billakatuko ba'litz, baeban beste urtenbidea, eta auxe izan be: ezpatakada batez, ariak ebagitea. Jardun oneitan buru-belarri ziarduala burruka-eguna urrats jarki-eziñakaz urreratzen zan.

Jolastegiko arduradun-batzordeak, guztitariko bideak erabillezan laster ospatuko zan “Retiari” ta “Cimachaeri” arteko burrukea arrakasta andia jaritsi egian, eta ospe andiko buruz-buruko zudua anditzearren, “Mesopotami'ko Otsoa” izenordeko auzkariak, aurpegia otso-irudiko mozorroaz estaliko eban, eta ezpataria edo “Cimachaeri” zan Basamortuko Semeak, ostera, ganbeluarenaz. Leikide biok aldeko ugari ebezan, eta Erroma'ko enparantzetan, urberoagatan, gudaletxeetan, zeietan, dendatan baita Senatuan bertan be, asko mintzaten zan jazokizun ospetsu onetaz, eta gaiñera, uriburua iragarkiakaz beterik ikusten zan. Zer esanik ez, leikide bakotxaren aldekoek dema edo postura asko egiten ebezala, bitartekoan poz andirako.

Ospakizun au Epaila'n izanik, Marte, erromatarren Jainko entzutetsuaren jaiak

ospatzen ziran, eta eguraldia lenengo udabarri-aztarnek piztuta, zabaldian eta giza-bioztetan dana ernamiñean asten zala esan zeitekean. Olan ba, Marte-jaietako giro alaia-aren artean, burruka-eguna etorri yakon Dan'eri. Bere jardunaldia egun aretako beifiña izanik, arrats-beeran izango litzake, eta Erroma'ko gorengo gizartea, baita Neron bera be, egun aretan ikusle izango ziran.

“Aventino” auzkari-eskolatik Anué'k eta adiskideek lagunduta, eguberdian inguru, oiko gurdian urten zan Basamortuko Semea, eta arrapalada baten jolastegira eldu zan. Une aretan atsedaldi izanik, jendekeriak jan-edariak billatzen ebazan, alkarri adarra joten eutsoela oiua ta karkar zaratatsuen artean, autu nagusia izanik, arratsaldeko bostetan ospatzeko zan azken eriotz-burrukea “Mesopotami'ko Otsoa” ta Basamortuko Semearen artean.

Jolastegira eldu baiño ez, Anué'k jatokira eroan eban Dan. Oikoa zan auzkariaren artean, orrits edo asebeta itzela izatea leiaketaren aurretik. Dan'ek baekian, baiña, auzkari saiatua zan aldetik, ondoen jarduteko asebeta etsairik andiena izanik, astiro mamurtuz okel-zati bat jan eban, eta jarraian, mai-azkentzat igali batzuk janda gero, txoko bakarti baten etzan zan nasaialdia izateko. Lurpean egoan leku aretaraiño, jendekeriaren oiua ta uluak txit motel etorkiozan, oiko leiaketak alde-erreskan erraikioela. Eta olan, lo-itxarrik txandea etorri yakonean, jagi zan. Anué'k ganbelu-buruko mozorroa aurpegi-aurrean lotu eutsan, eta ondo zorrozturiko ezpata biak artuta, ondartzara eroian urtenbidea artu eban. Arratsbeera eguzkitsuaren argiari begiak artaratu yakozeanean, auzkariak oi eben antzera, astiro ta arranditsu, oboaren erdigunera abiatu zan. Era berean, “Mesopotami'ko Otsoa” beragana andikiro urreraturik, biok erdigunear batu ziranean, gelditu, eta alkarrekin, kaiserraren besaulkirantz abiatu ziran.

Aspaldi aretan, Neron anker, zital eta lizuna, bere agintzaldiaren azkenetan egoan. Oraindiño gazte izan arren be, betazpi ubel urtenek bere neurrikabo griñak agirian jarten ebezan, eta aurpegiko irribarre kokolo oillartuak, bere buruarekiko ederrespen ergela agirian jarten eban. Brontzez apaindutako arnabarrezko besaulki bikaiñean jesarrita, urrez eta gorrimiñez apaindutako bere soingaiñeko yaukala bereizten zan. Albo baten, Cayo Petronio edo ezizeneko “Petronius Arbiter” egoan, eta onen eritxia benetan ederresten ebanez, Neron aren ezpanetatik beti dilindan ikusi zeitekean. Bestaldean, Tijelino ertzainburuaren aurpegi maltzur, azeritsua ikusten zan, Neron'ek eta Petronio'k txutxumuka jardun bitartean, bere ordeko batek iñotsana adi-adi entzunez.

Auzkari biak urreratuta, “Agur Kaiser” mintzo ozenaz esan eutsoen, eta Neron'ek baimena emonda, ondartzaren erdigunera biurtu, eta aurrez-aurre jarrita, turutotsari itxaron eutsoen. Alako baten, astapen-jotea aditurik eriotz-leiaketean asi zan.

Prakatxu labur banaz jantzita, eguzkiaren azken ostrontzen pean, leikide bien soin indartsuen giar zaintsu, zimelak, ikusten ziran, nai-ta-ez euron arteko baten eriotzaz amaituko zana. Eta jendekeriaren isil osoaren artean, jolastegian ikusitako leiaketarik andienetako bat asi zan.

Esku baten iru-ortza, eta bestean sare bildurgarria erabillezala, “Mesopotami'ko Otsoa” erdiz makurturiko Dan'en inguruan etenbarik ebillen. Iru-ortza luze izanik, Ba-

samortuko Semeak ezin egikean etsaia bere ezpataren elmenean artu, eta augaitik aukeraren bateri itxaron bear. Etsaia iru-ortzaz oldarten yakonean, Dan'ek ezpata biakaz saiesten eban, eta alkarren inguruka, etsaia noiz nekatuko edo ezustean artuko eretia, leikide biok billatzen eban. Alako baten, oiñazkar baizen arin, "Otsoa" k sarea jaurti eutsan, eta ozta-ozta makurturik, bizkar-gaiñetik irrist egiñez, uts egin eban. Sarea eskuan bilduta, barrero be Dan'en inguruan asi zan "Otsoa", noiz erasoteko aukeraren begira. Astiro, astiro, Dan'ek bere buruarekiko ustea irabazten eban, eta zelan edo alan iru-ortz luze, ilgarri aretatik, aalik urrunen izatea saiatzan zan. Aldia igaro-ala, "Otsoa" k lenengo nekearen ezaugarriak erakusten ebazan, Dan'en adorea, ostera, gora egiñez. Barrero be tximistaren antzera jaurti eutsan sarea, eta orain be gerri-igikun ariñez uxatu, arrapatu ez ebanean gitxik egiñez. Dan'en leikidea nekatzen zala agiri izanik, Dan'en igikunak biziagotu ziran, bere burua arriskuan jarten ebala. Alako baten, txistu izugarriaz "Otsoa" ren sarea Dan'en inguruan egokitu zan arrapatuta billakatuz... Jendekeriaren artetik didar gortugarria aditu zan, Basamortuko Semea iltzat emenez. Orduantxe, baiña, esku biakaz ezpata bat erabilliz, onen sorbatz zorrotzak sarea urraturik, zabalunetik urten zan, eta zur eta lur egindako "Otsoa" ri teinkada bataz iru-ortza kenduta, ezpataz oldartu yakon, lurrera amillerazoz. Aratiñik geratu zan "Mesopotami'ko Otsoa", atsanka bizian eriotzaren begira. Dan urreratu yakon, eta aren bularraren gaiñean oin bat ipiñita, esku biakaz ezpateari eutsirik, eriotz-ukaldia emoteko gertatu zan...

Zutundutako jendekeriak uluka ta karrasika, eriotz-ukaldiari itxaroten eutsan, Dan'en ekintza zoratzera iño txalotuz. Basamortuko Semeak jendekeriaren maillak aztertu ebazan, jausitakoarekiko erruki-zantzuren baten billa, baiña basa-jende arek erpuru beerantz, il egian adierazoten eutsan. Neron'egana adikunea zuzendu eban, barkapen-ezaugarriaren bat ikusiko ete, baiña Erroma'ko agintari zitalak, ezpanak irriño ergelaz piztuta, ondartzaren gaiñean zetzan leikidea, il egian agintzen eutsan erpuruaz. Dan'ek, baiña, ezin egikean lurrean ezinduta zetzan zauritutako leikidea otz-otzean garbitu. Makiña bat etsai erail izan ebazan bere bizitzaldi ekaiztsuan, baiña lurrean ezerezturiko etsairik, iñoiz ez. Atan-orretan, uneak igaroten ziran, agintzen eutsoena egiten azartzen ez zala, baiña ustekabez, eriotzaren begira ondartzan zetzan "Otsoa" ren mintzoa onetaraxe aditu eban:

– Il nagizu, arren...! Leiaketa garbi onetan gaiñetik urten zara. Zeri itxaron zure egitekoa burutzeko...?

Itz oneik entzutean, biotz-ikara batek menperatuta, bere buruari itaundu eutsan Dan'ek: "Izango ete...?" Orduan makurtuta, esku dardartsuaz "Otsoa" ri mozorroa kendu eutsan, eta aurpegia ikustean,

– Gorian, adiskide maitia...! –didar egin eban zirraraturik–, Zeu izan bearko be...!

– Dan, aspaldiko ori, nork esango nire azkena zure eskutik etorriko litzakidala...! Il nagizu gudari onak egin oi daben antzera, arin eta ukaldi bataz, noizbait atsedena artu dagidan...

– Ezin dot, baiña, Gorian maite ori, ezin...!

– Arindu zaitetz, bestelan zeu ta biok ilgo gara; edozelan be, zure eskuz bizitza amaitu dakidan, aringarri andia izango yat...

Basamortuko Semeak, baiña, ez eutsan jaramonik egin. Jagi, bere zomorroa kendu, eta ezpatak artuta, astiro ta lerdan Neron'en besaulkira abiatu zan, ezustean artutako, jendekeriaren isillak inguraturik. Dan'en irudi bikaiñak, indartsuak, malguak, ikusle guztien adikunea erakarten eban agintarien lekunera urreratzen zala. Neron'egandik ur samar egoanean, gelditu zan, eta ezpata biak jasorik,

– Agur, kaiser bikain ori...! –mintzo argiz esan eutsan–.

– Ez dautsut agindu ba, garaituriko auzkaria, il dagizula...? –asarre-antzean erantzun eutsan Neron'ek–.

– Bai, Erroma'k ezagutu dauan agintaririk andien ori...! Ikusi dot zure agintza-keiñua, eta beste barik men egiteko zorian, Olinpo'ko Jupiter'en, Jaungoiko nagusiaren mintzoa eldu yat auxe iñostala: "Aizu, ez il lurrean datzan auzkaria" eta orduan nik: "Barkatu, Jupiter andi orrek, baiña zeu lako Jaungoikoa dan Neron bikaiñak, garbitu dagidan agindu daust", eta lurrean datzan auzkariari eriotz-ukaldia emoteko zorian nintzala, Jupiter'ek barrero: "Ostera be badiñotsut, nire seme Marte'ren gorazarrez ospatzen dan gaurko jai onetan, zeuk bestera uste izan arren be, munduak ezaguturiko olerkari ta abeslaririk yaukalena dan Neron'ek, ez dau gura or datzan auzkaria il dagizula, bere biotz zangarra ta erruki andia, gizaldiz-gizaldi ertilaririk andienek aldarrikatu dagiezan. Esaiozu ori, eta ni baizen yaukala dan bera, itsaso ta ortziaren gaiñetik, eguzkiaren indarraz jagiko da".

Isildu zan une batez, eta gero,

– Orregaitik –jarraitu eban Dan'ek–, Zure ta Jupiter'en naiari men egiñez, emen nozu, ertilari gain-gaiñeko ori, zure izenak merezi dauan ospe ta aintza jaritsi dagiazan.

Au esanik, ezpata biak jasota, Dan'ek gur egin eban. Jendekeriz bete-beterik egoan jolastegian ez zan txintik aditzen, danak zer jazoko zanaren begira adi-adi. Basamortuko Semeak bere koipekeria amaitu ebanean, Neron'en aurpegia irribarre ergel bataz piztu zan, eta orduan,

– Aizu, auzkari zangarra –arroputzez lertzeko zorian esan eutsan Neron'ek–, izan be, zuzen zagoz, niri be Olinpo'tik mintzo ezkutu bat etorri yat, orixe bera egin dagidan eskatuz. Augaitik ba, zure leikideari bizitza barkatzen dausat.

Au entzunik, une labur batzuk lenago oiu ta orruka leikidea erail egian eskatzen eban jendekeriak, orain gain-beera aldaturik, txalo-jote bizitan, kaiserraren erabagia abo batez ospatzen eban. Alako baten, Neron'egana biurtuz, Cayo Petronio'k abopeka zeozer esan eutsan, eta astrapalea baretu zanean,

– Aizu –itaundu eutsan Neron'ek–, burrukalaria ona azaldu zanean ori, nongoa zara...?

– Idumea'ko basamortu-gaiñeko atx andi baten jaijo nintzan.

– Eta orregaitik Basamortuko Semea esaten dautsue, ezta...?

– Bai, Erroma'ko kaiser andi ori.

Orduan, mintzoa arrotuz, alboko andikiek eta jendekeriak ulertu egioen,

– Basamortuko Semea zarean ori –arranditsu esan eutsan–, Neuk, Erroma'ko agintari nagusiak, gure lege ta ekanduai jarraituz, zure trebetasun eta zangartasuna saritzearren, “Rudis” edo egurrezko ezpatea emon dakizun agintzen dot...!

Trumoi zaratatsua bai'litzan oiua ta txalokada bizitan Neron'en erabagia onartu eban jendekeriak. Zaila zan egurrezko ezpata ori lortzea, baiña ezaugarri ori artzen ebana, gizaki jare edo “liberto” billakatzen zan, erriaren ederrespen eta atxikitasunak nonai jarraitzen eutsoela.

Jendekeriaren oiua ta txalokadak baretu ziranean, lengo tokian zirauan Dan'ek, burutapen andiak jota,

– Eskerrik asko, munduko argia zarean Jupiter'en Jaungoikokide bikain ori –esan eutsan palagari–, Gizaldirik-gizaldi aipatuko da zure emonkortasun eta anditasuna, baita zure erti neurribakoa abeslari ta olerkarizat. Orain bertan, ondar-gaiñean zaurituta datzan aukari zangar bateri bizitza barkatu dautsazu, baiña nik neuk ondo be ondo dakit, ori gitxizat dozula, eta zure anditasunari dagokionez, jolastegi onetako ondartzan ekintza arrigarriak idatzi dauzan “Mesopotami'ko Otsoa”ri, neurea lako “Rudis”a emon arte ez zareala zoriontsurik izango, Jupiter lez Erroma'ko argia zaitugun ori...!

Jendekeriaren didar, ulu, eta txalo-zartadak durundu egin eben, itsasorantz maktzen zan arratsbeerako eguzkipean. Barrero be, Neron, “Petronius Arbiter”gana maktu zan, eta txutxumuka jardun ondoren, keiñu bataz jendekeria isillerazo eban, eta aurpegi astin, belaxka, irribarre txoliñaz piztuta, mintzo arroputzaz eta astiro, danek aditu egikeoen, auxe aldarrikatu eban:

– Orixe bera, mintzo ezkutu batek iñostan, ondartzan zauriturik zure leikidea ikusi dodanean. Augaitik ba, eta gure Jainkoen naia aintzat artzen dodala Erroma'ko erriak jakin dagian, arean datzan aukariari be, “Rudis”a emon dakiola agintzen dot.

Eta jendekeriaren astrapala barrero be ler egiten ebala, etzanda irauten eban Gorian'egana joan, eta besapetik artuta, biok agintarien lekura biurtu ziran txalokada gortugarriaren artean. Urrats batzuen bitartera gelditurik, biok iskillioakaz Neron agurtu eben. Une aretan, egurrezko ezpata bi ekarrezala, gudari bat urreratu yaken, eta jendekeriaren zoratzerañoko orru ta uluen artean, “Rudis” bana emon eutsen. Jarraian, Gorian gerri-ingurutik artuta, Basamortuko Semea aukarien gelara biurtu zan.

Sartu baiño ez, osagille batek Gorian'en zauria aztertu ondoren, naikoa odol galdu arren be, azalekoa zala autortu eban, eta lotu ondoren joan zan.

– Bedeinkatua bedi –esan eutsan Gorian'ek– ezagutu zindudazan ordua, Dan maite ori. Ilteko zorian zan jopu ezain eta zoribakoa, gizon aske ta zorionsua biurtu dozu. Zeugaitik ze, aberrira biurtu barik, danek aztuta, jolastegiko ondartzan ilgo nintzan.

– Nasaitu zaitez, Gorian, eta bearreko atsedena artu, lenbailen lengora biurtu zaitez. Ostatu on bat billatuko dogu, eta gero Armeni'ra biurtuko zara.

– Nire Armenia, aberri zoragarri, aztu-eziña...! Iru urte igaro dira emazte ta seme-alaben besoetatik aldendu ninduenetik, eta arrezkeroko une guztietan biotzean izan dodaz, eta orain ames kutun ori egi biurtu dagikedanean, nire buruari ditauntsat, oraingoa irudikeri utsa izango ez ete...

– Bai, Gorian, laster ikusiko dozuz etxeokak, eta indartu zaitezanean, itsasontzi arin baten etxerakoa egingo dozu.

Atan-orretan Anué etorri zan, eta beronen aurpegi irribarretsua menperatzen eban poza ezin egikean ezkutatu. Izan be, egun aretan Dan'en alde diruketa andia jokatu izan eban, eta onen pozean aukari biak agurtu ebazan adoretzu, eta gero,

– Entzun, adiskideok –esan eutsen–, aske zarie edonora joateko, baiña “Aventino” aukarien eskolak atsegiñik andienaz artuko zindukez nai dozuen arte. Nirean, edozein ostatuan baiño obeto izango zarie, eta eskolako osagilleak Gorian zainduko dau bizkortu arte. zer deritxazue nire eskintzeari...?

– Oba ez, Anué –esan eutsan Dan'ek–. Izan be, erara datorkigun zure eskintza onartzen dogu, Gorian osatu arte, beintzat.

Joan ziran ba, Anué'ren zalpurdian aukari biak, “Rudis” eta egokiezan agiri ederretsiak aldean eroiazala. Gau aretan Anue'rekin aparti bikain-bikaiña izan eben irurok, eta urrengo egunean, “Aventino”ko eskolako osagilleak aztertu ta zaindu eban Gorian'en zauria, eta laster lengora biurtuko litzakela iragarriarik, joan zan. Izan be, zuzen egoan, eta andik astebate batera, armenitarra bere lengora biurtuta, Anué'ri eskertu ondoren, auxe esan eutsan Dan'ek:

– Bagoaz, Anué, eta eskerrak gure alde egiñagaitik.

– Zeintzuk asmo dozuez...?

– Erroma'ko portua dan Ostia'ra aalik lasterren joango gara, Gorian ontzi baten etxeratu daiten.

– Ba ete dozue bearreko dirurik...?

– Ez, Anué, baiña diru ori aurreratu dagistazula eskatzen dautsut. Biurtu naiteanean, zelan edo alan atzera emongo dautsut.

Diruzale porrokatua zan Anué ejiptotarra, baita eskerronekoa be, eta

– Bear dozuena emongo dautsuet, eta benetan, ez dozu niri atzera emon bear izango. Baiña orregaitik zure barrua artegatuko ba'litz, biurtu zaitez eskola onetara, eta berbatuko dogun alogera on baten, ezpatarien maisutzat onartuko zaitut.

– Oba ez, Anué –poz baten erantzun eutsan Basamortuko Semeak–. Agur, adiskide ederretsia. Etxerakoa egiteko Gorian itsasoratu daitenean, ona biurtuko naiatzu.

– Agur, adiskideok, eta izarrek babestu zagiezala...!

Udabarri-lenako goiz ederra zan Basamortuko Semea ta armenitarra “Porta Randusculana”tik urten ziranean, eta “Via Ostiensis”en arri-bidean zear, Erroma'ko portura jo eben. Bidea noiz zabalditik, noiz Tiber ibaiaren ertzetik edatzen zan, eta aspalditik lenengoz, izadiaren edertasunak uztaipeturik, adiskide biok zorion bakanak artuta joiazan. Aspalditik lenengoz be, aldean eroien “Rudis”en agiriak izaki jareizat bereizten ebazan. Egurrezko ezpatadun izateak ikutu-eziñak biurtzen ebazan, eta Erroma'ko legepean ez zan iñor txarto erabilten azartu zeitenik. Etxekoak ikusiko leukezalako pozean, aurretiaz txastatzen eban Gorian'ek Armenia'n itxarokion zoriona, eta zeruetan zear joiala antz emoten eutsan. Gau aretan bide-ondoko ostatu baten kokatu, eta urrengo eguneko arratsaldean, Ostia'ra eldu ziran. Portu-ondoko ostatu baten aterpe aurkitu eben.



Biaramonean, ostalariaren aolkuz itsasgo-idazkaritza batera joan ziran. Orduko, kaiak joan-etorriaz eta oiukaz irakiten ikusten ziran, ontzien zama-ustuketak bazterrak zaratakaz beteten ebazala. Dalako idazkaritzan, iru egunen buruan ontzi bat Antiokia'-ra joango litzakela, jakitun ipiñi ebazan ogipeko batek. Txartela erosi aurretik, adiskide bièk kaitik aztertu eben dalako ontzia, eta ontzat emonda, bide-saria ordaindu eben.

Arin igaro zan aldía, uria ta onen inguruak ikertzen ebezala, eta azken egunean, Dan'en aolkuz, etxekoentzat esku-erakutsi batzuk erosi ebazan Gorian'ek. Gau aretan, apalostean, uritik egurastera joanda, gau-giroa ederra izanik, aulki baten jesarri ziran. Alako baten Gorian'ek,

– Aizu, Dan –esan eutsan–, gogoratzen dozu, Erroma'ra gurekin etorri zan Tarso'-ko Paul izeneko gizona...?

– Sarri askotan gogora yator. Oi-ez-lako gizakia zan, eta berarekin bat etorri ez arren be, barrutik ebilkion su berezia gar amaiteziñaren antzera borborka isurtzen yakon.

– Bai, olantxe da. Bein baten, Yosu Nazaretarraren berpizkundeaz itz egin euskun; gogoratzen zara, Dan...? Eta jazokizun onek Jaungoikotzat bereizten ebalá. Gero esan euskun, Beragan siñisten ebenak, iltean berpiztuko litzakezala betirako zoriona ezagutzeko. Oroitzen zara, Dan...?

– Bai, gauza bitxi asko esan eroian Paul'ek, eta nik benetako gizontzat neban. Zer billakatuko zan onezkero...?

– Gomutan dozu, Dan, Erroma'ra sartzean, azken agurtzat besarkatu ginduzanean, zelan agindu euskun onik atara gengizan, Jaunari eskatuko leuskiola...? Eta orduan eziña zirudiana, egi billakatu da, etxera biurtzeko zorian naz-eta...

Isildu zan une batez Gorian, eta gero,

– Jasan dodana, aspaldi luze izugarria izan da, auzkarien joputza nazkagarriara beartuta, gure aukera bakarra izanik, il ala erail. Sarritan burura yatordan izu aretatik iges egitearren nire burua iltea. Bai, agintari basa, errukibakoen panpiñak izan gara, jolastegian erabilten ginduezala, jendekeri zakarrak atsegiña idoro egian, lagun-urkoaren odola are-gaiñean isuriz... Beiñola, alanbear batez, kristau-talde baten sarraskia ikusi neban. Egun aretan, goizegi eroan ginduezan jolastegira, eta eretia ustiatuz jarleku baten egokitu nintzan. Une aretan gizatalde bat ondartzaren erdigunera eroan eben. Gizonak, emakumeak, zaar eta gazteak, baita neskato-mutikoak be, eriotzera galdu izan ziran, eta zelako eriotzera...! Basa-pizti gosetiek erail egiezan, bizitza zatika kentzen eutsiela...

Izuak artuta isildu zan Gorian, eta gero,

– Bizirik iraun dagidan arte –jarraitu eban–, ez yat aztuko kristau arein jokaera arrigarria. Leoiak arein aurka aizatu ebezanean, alkarrri besarkaturik eta gora begira abesten asi ziran, Yosukristo, Jaungoikoaren Semea goratuz. Beste mundukoa zirudien, aurpegia itxura zorionsu, baketsuaz argituta. Ez yat egundo be aztuko arein anditasun eta indarra. Gogoan dozu, Dan, bein baten Tarso'ko Paul'ek esan euskuana...? Ara... gizaki guztiak beste ludi baterantz bide baten zear goazala, eta izan be, kristau

arein jokaereak eta itxureak orixe bera aldarrikatzen eben, eta auxe alegia: bidez bescaldetan, Yosukristo'k agindutako amaibako zoriona igurikan ebela.

– Eta gero zer jazo zan...? –Zirrara batek menperatuta itaundu eutsan Dan'ek–.

– Ikuskizun aren izugarria...! Piztiak oldartu yakezan, azur-birrintze ta odolaren artean bizirik iruntsiten ebezala... Gero, gora-galeak artuta, andik iges eginda, leku bakarti baten larriak bota nebazan...

Une batez begiak urrutian josita, isillik iraun eban armenitarrak, eta gero,

– Arrezkero, etenbarik erasoten ninduan itaunarentzat, erantzuna aurkitu neban. Mende onetako mundu ustel, zakar, anker onetan oiñazez eta zapalduta bizi diranentzat, Kristo'k argia ta itxaropena ekarri dautsez, eta lorriñetik jasota, bakotxari bidegi-tea amaitu dakionean, merezitako saria artuko dauala. Eta nik uste, ori egi utsa izan bear, gutariko bakotxa zorion-egarri amaiteziñak artuta izanik, egarmin ori ase dagian iturria nai-ta-ez nonbait egongo da, ezta, Dan...?

Basamortuko Semeak, baiña, isillik irauan, bere adiskidearen burubideari zer erantzun jakin barik. Isilla etentzearren,

– Nire zorigatxaren artean –jarraitu eban armenitarrak–, kristau areik irakatsi eustenak indar barriak emon eustazan, eta gau luze izugarri areitan, aurrera jarraitzeko adorea idoro neban, itxaropen argitsua neugan piztuten yatala. Gauza andia da itxaropena, bidea erakusten dauskun eguzki amaiteziña, alegia, eta augaitik, Armeni'ra biur-tu naitenean, Yosu Nazaretarraren ikasbidea aztertuko dot, eta onetan ditxarodana aurkitzen ba'dot, nire aberria kristautu daiten aaleginduko naz...

Barriro be isillunea. Bere barruan bilduta, Dan'ek ezin egikean uxatu bere adiskidearen burubidea, eta siñisgogor iraun arren be, Gorian'ek itarauntzunikoak indar jar-kigatzaz erakarten eban. Orduan oartu zan, bere abertzaletasun eta arimaren gorako irrikaren artean, eztabaida bizia sortzen zala... Oldozkun onetan zala, Gorian'en mintzoa aditu eban auxe iñotsanean:

– Aizu, Dan, zeintzuk asmo dozuz etorkirako...?

Soiñak jaso ebazan Basamortuko Semeak, eta,

– Izan be, Gorian maite ori, ez dakit zer egin. Erroma'ra joango naz, eta gero aal dodan lasterren, Palestina'ra biurtuko, urrean...

– Gauza bat eskatuko neuskizu, eta auxe alegia: Tarso'ko Paul'egana joan zaitezala, eta nire barriak emonda gero, esaiozu bere otoitzaldietan nire alde eskatzeko, bearreko argi ta indarra aurkitu dagidazan.

– Ez dakit zer billakatuko, ezta nora joango nazan be, baiña Paul ba'nenkus zutzaz mintzatuko natzaio.

Dana esanda zan, eta gau-giro atsegin aretan, adiskideak ostatura biurtu ziran. Biaramoneko egunsentian ontzira joan, eta besarkada estu-estu alkarrri emonda, banandu ziran. Kaiaren luzean joiala, zirrara bakanak artuta, atzera begiratu barik Dan Erroma'ra abiatu zan. Baekian, Gorian adiskide maitea ez leukela barriro ikusiko, eta onek mingostasun esan-eziña ekartsan.

Urrengo eguneko arrats-beeran, Basamortuko Semea Erroma'ra eldu zan. Yosukristo ondorengo 66'gn urtea zan, eta aldi aretan Palestina'ko judutar abertzaleak, erromatar buztarri astunaren aurka asaldatu ziran. Palestina'ko baserritarrek guda aren zatirik gogorrena jasango eben. Ez ziran asko, eta erabillezan iskilliak, erromatar gudaroste aaltsuari aurre egiteko, erdipurdikoak, baiña israeldar gudari areik 70'gn urtean gudea galdu arren be, neurritz gaiñeko adore ta zangartasuna erakutsi ebezan. Gudagaltze oneri jarraitu eutsoen ondoreak izugarriak izan ziran, eta bizirik geratu ziranen artetik, geienek erbesteratu bear izan eben, barriro be, atzerriko ogi mingotsa malkocin bustita jateko, Israel'en edestian zear euren aurretiko ainbat eta ainbateri jazo yaken legetxe.

“Via Ostiensis”etik Erroma'ra sartu zanean, eta ostatu baten kokatzea gogoan erabillega, bapatean burutapen bat etorri yakon. Zergaitik ez...? Bai, zergaitik ez Tiber ondoko Yezer'en errementegian ostatua billatu...? Aberkide onen eta beronen emazte Errakel'en erabilte maitetsua, ondo be ondo gomutatzen eban, eta beste barik errementegiko bidea artuta, luzaro barik an zan. Yezer'ek ikusi ebanean, besoak zabalik oldartu yakon, eta besarkatu ondoren,

– Baiña Dan, denganiño orrek –esan eutsan poz baten–, ez al-deritxazu ordu egokia danik, etxera biurtzeko urtebete bat ortik emonda gero...? Gaberarte esanda, goiz baten jolastegira joan zintzakiguzan, eta orra or zatozkiguzala urtebete bat igarota gero. Ez da makala sartu zeustan ziria...!

Barre egin eben biok, eta,

– Aizu, Yezer –itaundu eutsan Dan'ek–, badozue niretzat antxiñako lo-gelea...?

– Bai, benetan, zure begira egon da beti-ta. Zeuk itxita lez begira dozu.

– Errakel, ondo al-da...?

– Bai bera, bai izan dogun seiña be, zortzi illabeteko ume ederra.

Atan-orretan goiko bizitegira eldu ziran, eta Errakel'ek etorbarria ikusi ebanean, poz baten agurtu eban, eta andik laster, aparia gerturik, mai baten inguruan jesarri ziran otordua izateko. Amaitu ebanean, eta Errakel'ek seiñari bularra emon bitartean, Erroma'n aspaldi aretan izandako gora-beerak edestu eutsezan. Agiri zan, etxe aretako senar-emazteak begi andia eutsoela, eta sentipen onek adoretuta, leku aretan aalik luzaroen irautea erabagi eban.

Biamonean iradu barik, eta jasandako suaren ostean, uriburuak izandako aton-

tze-lanak bidebatez ikustean, “Aventino” eskolara eldu zan. Poz baten artu eban Anué’k, eta andik laster euren artekoa onetaraxe berbatu zan: goizoro diruketa politaren ordaiñez, Dan’ek ezpatari-maisutzat jardungo, eta arratsaldeak bere aukeran erabili leukez. Izan be, itunduriko akurapena bioi erara etorkien. Alde batetik, ezpatrientzat, “Cimachaeri” entzat, irakasle on baten bearrean zan Anué, eta bestetik, ostatua ordaintzeko beste, baita sakelerako bear ebana baiño geiago be irabaziko leuke Dan’ek. Ordutik, aspaldi zoragarria emon eban Basamortuko Semeak, Erroma’ko ikusgarriak ederresteko aukera bete izanik, eta beragan kokatuta egoan ertiliariaren senak guztiariko atsegiñak ekarkiozan. Onezaz gaiñera, jolastegian izandako bere leiaketak zirala-ta, erriak ederresten eban, eta gizuren andienetarikotzat nonai artu izanik, guztitariko begirunezko ezaugarriakaz inguratzen eben. Nai izan ba’leu, onura andia atarako leuskion atxikitasun orreri, baiña Dan’en asmoa uri andi aretatik urrun egoan. Aspaldi batez Erroma’n iraungo leuke, eta onen ikustekoak ezagututa gero, aberrira biurtuko litzake, oraindiño Palestina’n jazoten zan matxinadaren barri jakin ez arren be.

Bajoiazan illabeteak aurrera, egundo ez ezaguturiko aspaldirik zorionsuena bere izaera trumoisuarentzat izanik. Dan’ek, baiña, ezin egikean aberrira gogotik kendu, eta bein baten, apalostean Yezer eta Errakel’ekin autu nasai bateri emotsoela, Yezer’en adiskide bat etxera etorrira, Palestina’n jazoten zan erromatarren aurkako matxinadatzaz jakitun ipiñi eutsen. Gau aretan begiak batu aziñik oean etzanda, arrenkura andiak artuta, aberrira biurtea erabagi eban, eta biaramonean “Aventino” eskolara joan aurretik, Yezer’ek itarauntzuniko, judutar itsas-baltzu baten idaztegiara joan, eta andik ama-bost bat egunera, Alejandria’n zear, Galilea’tik ur samar egoan Ptolemais porturaino abiatuko zan ontzi baterako txartela berbatu eban.

Onen aurretik, baiña, bein baten “Via Nomentana”n zear egurasten joiala, bapatean Klodia, Publio Marzius’en alarguna burura etorri yakon. Zer billakatuko zan emakume zintzo ta begiko au...? Eta beste barik, Erroma’tik joan aurretik ikertaldi bat egitea erabagirik, oinkari bateri andra aretaz itaundu eutsan, eta bearreko argibideak artuta, aren etxera joan zan. “Collis Viminalis” auzoko jauregi eder baten bizi zan, eta luzaro barik dalako egoitza aurkitu eban. Jauregiko aurrekaldean iru ate ikusten ziran. Erdikoa zan ederrenak atadi zabal batera, eta albokoak urtegi bana eben larrain bitara emotsien. Teillatubakoa zan atadiko larrain nagusia lorakaz apainduta ikusten zan, eta barrurago iker-areto zabal eta ederra. Onen inguruan etxeko gelak sakabanatzen ziran. Egoitza guztia zur eta amabar ederrenakaz egiña izanik, agiri zan aren jabea andikien gizarte-maillakoa zala.

Erdiko atean, atezain batek sarbidea eragotzi eutsan, auxe iñotsala:

– Barkatu, Jauna, zer nai dozu...?

– Klodia Andrea ikusi nai dot.

– Noren alde...?

– Esaiózu Dan’ek ikusi gura dauala.

Ostendu zan otseña, eta biurtu zanean sartzeko esanez, urtegi banaz alboraturiko eta lorakaz apaindutako larrañera lagundu, eta aulki bat eskiñiz,

– Jesarri ta itxaron emen –esan eutsan–, Andrea laster etorriko dala esan daust.

Lekuari bake ta lillura eriozan, besterik aditzen ez zala urtegiatiko arraden palasta baiño, arratsbeerako printzek etxeko goikaldea urreztatzen ebela. Etxe aretako atsedean ameskorak inguratutik, oiñots motelak aditu ebazan Dan’ek, eta biurtuta, eskuak beragana luzatuz Klodia etorkiola ikusi eban.

– Au nire poza...! –esan eutsan alargunak–. Asiera baten ezin siñistu zeu izango zeintezkala, emendik urrun emoten zindudazan-eta, Elba ugarteko meaztegiatan amar urterako lanetan, izan be.

– Gizon aske edo liberto billakatu naz. Beste egun baten edestuko dautsudaz arrezkeroko nire gora-beerak, orretarako orain ez dot astirik-eta. Baiña autugaia aldatuz, zelako barriak damostazuz etxekoai buruz...? Edozelan be, zure itxurea dala-ta, ondo esango neuke, ante onean ikusten zaitut-eta.

– Ezin dagiket arein egoeraz osterarik egin. Seme biak ezkondu dira, batak guda-rostean diarduala, eta besteak aita zanaren lez guda-ontzidian. Lotis, alaba gaztea, nirekin bizi da emen, eta gero arte ez da itzuliko ikastetxetik, baiña ordubete batez itxaron gura izatekotan, orduan ikusiko dozu.

– Ezin naz orren berandu geratu, baiña beste urrengo baten etorriko naiatzue, eta astirik ba’neu nire azken gora-beerak edestuko dautsuedaz,

– Baita pozik entzungo be...! Begira, Dan, zergaitik ez zatoz biar arratsaldeko zazpiretan...? Lotis ezagutuz gaiñera, pozik artuko zaitugu alkarrekin apaltzeko. Ez esan ezetz, gero...!

– Biar pozik etorriko naz zuekin berba egiteko, eta bidebatez Publio zure senarra gogoratzeke, dakizunez, adiskide andia neban-eta.

– Baita berak zu be. Orduan, biarrarte, Dan.

Ateraiño lagundu eutsan Klodia’k, eta alkar agurtu ondoren, Dan, Tiber ondoko bere ostatura biurtu zan, Klodia’gandik erion ontasun eta arraitasuna, bere baitan onepen baten antzera oartzen ebala. Emakume zoragarri onek bere senarraren oroitzari zintzo-zintzo atxikia zirauan, eta bereizten eben edertasun eta aberastasuna zirala-ta, goi-maillako senargai asko bere aukeran izanik be, naiago izan eban alargun jarraitu, maite-maite izan eban senarraren gomutea bizirik iraunerazoz.

Biaramonean, berbaturiko arratsaldeko zazpiretan, Klodia’ren etxeko atea jo eban Dan’ek; atezaiñak ikusi baiño ez, beste barik sarrerazo eban, eta urtegi banaz alboraturiko larrañera eroanda, aulki bat erakutsirik, auxe esan eutsan:

– Klodia Andrea laster etorriko da. Bitartean jesarri zaitetz emen.

Andik laster, lekuneari erion lillurak inguratuta, alboko ate batetik Klodia agertu zan soingaiñeko zuri bikaiñaz jantzita, eta bere ondoan jesarrita,

– Arratsaldeon, Dan, maite ori –irriñarretsu esan eutsan–, Lotis ikastetxetik etorbarria da, eta janzkia aldatuta gero, emen izango dogu laster. Zeuri buruz mintzatu nintzakion atzo, eta irrikan dozu zu ezagutzearren.

Eta atan-orretan izketan ziarduela, alboko ate bat edegita, soiñeko oztizñez jantziriko, amazortzi bat urteko neskatilla zoragarria urrats egodunakaz urreratu yakon, eta Dan’egana joanda, esku zuri bigunak luzaturik,

– Zu, Dan zaitut, ezta...? –mintzo eztsuaz esan eutsan–. Gaur etorriko zintzaki-guzala esan daust amak, baiña bene-benetan niretzat ez zara iñongo arrotza, ez urrik emon be...! Zutzaz sarri askotan berba egiten eustan aitak, eta izan be, anaitzat maite zinduzan, eta nik beraz, etxekotzat izan zaitut beti. Au nire poza zu aurpegi ezagutzean...!

Neskatilla zoragarriak berba egin bitartean, lilluratuta, Dan'ek ezin egikeazan beragandik begiak kendu, bere buruari iñotsala, aingeru baten aurrean egongo ez etc... Bere bizitza ekaiztsuan, zenbait emakume ezagutu izan ebazan Basamortuko Semeak, baiña a lako aingerutasunekorik egundo be ez. Billo naro zirikotsua txorta eder baten bilduta bizkarrean beera erorkion, eta bekoki zurixka legunpean, begi eder garbiek itsasoko urdin sakonaz so egiten eutsoen xalo ta uste onez; matrail larroskara bete bien artean, ezpan gorri biziak edegiten ziran irribarretsu, nakarezko agin zuri txanbeliñak erakutsiz, eta aurpegiaren lillura agiriago jarteko, okots politik musuari esan-eziñeko erakarpena emotsan. Idun luze txairo batek eutsita, burua sorbalda-gaiñean zoramen bez betirik kokatzen yakon. Ibillera malgu ta egodunak, Lotis'egandik erion sorgindura agiriago jarten eban.

Une luze batez, tximistak jota lez Dan'ek ezin ebazan begiak Lotis'egandik baztertu, eta noizbait mintzo erabetiz,

– Zure aitak be –esan eutsan–, zutzaz berba egiten eustan, eta izan be, iñostanetik maite-maite zinduzala agiri zan.

Onen ostean sortu zan isillunea ustiatuz,

– Ordua da apariari ekin dagiogun –esan eban Klodia'k–. Goazen ba jatokira.

Eta emakume biok Dan'en beso banari eutsita, jatoki ederrera abiatu ziran. Arna-barrezko mai baten gaiñean jan-aurreko batzuk egozan, eta erromatar andikiek oi eben antzera, etzangu banatan jarrita, ardao bikaiñaz lagundutako jan-aurrekoak banatzen asi zan Klodia. Gela ederreko lau artzurizko zutabek, zur-landutako sabaiari eusten eutsoen, eta artzurizko arlastek be estalduriko soruari apaintasun andia emotsoen. Apaldu bitartean, bere buruari iñotsan Dan'ek, a baiño apari gozoago, jatoki bikaiñago, eta emakume zoragarriagoak ez ebazala egundo be ezagutu. Otordua amaitu zanean, eguraldi ederra izanik, larraiñera urteteko esonatu eban Klodia'k, eta uren palastak inguraturik, besaulki erosotan jesarri ziran. Orduan Lotis'ek,

– Aizu, Dan –eskatu eutsan begi sorgingarriakaz begiztatzen ebal–, Aitak zutzaz zeozer edestu baestuan be, zure bizitzaren gora-beera guztiak ezagutu gura izango neukez. Barkatu egistazu nire azarkeria, baiña irrikan nozu areik ezagutzearren.

– Nondik asi, baiña...? –erantzun eutsan Dan'ek– Edeski luzea da, eta orretarako astirik ez.

– Asi egizu jaiotzetik.

Une batez isillik iraun eban Dan'ek, eta gero onetaraxe asi zan:

– Itsaso Illa'ren ondoko Masada arkaitz erraldoian jaio nintzan...

Eta jarraian, Urian'ek basamortuan idoro ebanetik asita, bere bizitzaren zertzeldak ama-alabai emoten asi yakezan. Lenengo zatia amaitu zaneke, gau osoa zan, eta uste izanik berandu samar zala,

– Gaurkoz naikoa da, nik uste –esan eutsen Dan'ek jagiten zala–, eta beste urren-go baten, Milea zergaitik itzi neban edestuko dautsuet. Anartean agur, eta eskerrik asko zuen arrera txeratsugaitik.

– Dan, maite ori –esan eutsan Lotis'ek– ez deritxat ondo ona biurtu barik luzaro iraun dagizula. Bein zure gora-beerak asita, nire ustez erabatean amaitu bear dozuz, ezta ama...?

– Bai, alabatxu. Neu be irrikan nozu Dan'en edeski osoa entzutearren, eta beraz –Dan'eri mintzatuz–, egokia litzake egunoro etorri zakiguzala, dalako edeskia amaitu arte, beintzat.

– Baita pozik etorriko be. Ara, ondo ba'yatortzue, egunoro apalostean etorriko naiatzue.

Au entzutean, bere begi sorgingarriak Dan'egan untzatuz, pozaren-pozez txaloka asi zan Lotis, eta andik laster alkarrri agur esanda, Erroma'ko kale bakartietan zear, Basamortuko semea Tiber ibai ondoko bere ostatura biurtu zan. Gau aretan oean etzanda, ezin egikean Lotis'en aurpegi zoragarria gogotik kendu, eta aren begi eder garbiak izar yaukalen antzera, bere barruan untzatuta oartzen ebazan.

Arrezkero, egunean baiño egunean lilluratuago, gau guztietan Klodia'ren etxe bikaiñera abiatzen zan, ama-alabai bere bizitzaren zati bat aletzeko. Gau baten ostatura biurtzean, Lotis'eganako bere biotzaren eragiñak aztertzen asi zan. Ain zuzen be, neskatilla zoragarria gero ta maiteago eban, baiña berarentzat ezin zeitekeala izan, bere barru zintzoak iñotsan. Ogei bat urtez Lotis baiño zaarragoa izanik, argi ekusan berarentzat maitasun eziña zala. Bere izaeraren lenengoz, biotzaren atea maitasun andi bategen josten eban, baiña ondikotz...! berandu berarentzat. Bai, agiri zan, Lotis'ek anai nagusitzat edo adiskide maitetzat ebal, eta au gero ta sakonago oartzen eban. Adu edo patuak olan erabagi izan eban eta etsi bear... Urren-go egunean bere edeskia amaitzeko zan, eta atxaki baten bidez, etxe aretara lotzen eban lokarria eten egingo leuke. Izan be, ama-alabek eskatuta, Palestina'ra joateko ordua atzeratu izan eban, baiña beste urren-go baterako berbatuko leuke benetako bide-txartela.

Azken gau aretan bere edeskia amaituta, lanpetuta zalako atxakiaz Palestina'ra laster biurtuko litzakela esan eutsen Dan'ek, eta gau aretako agurra azkena zala esan eutsenean, Lotis'ek naigabeturik,

– Egia da –esan eutsan– edeskia amaitu dozula, baiña atxaki orrek ez dau balio bertan-bera itzi zakiguzan. Jarraitu ona etorten orain arte lez, eta adiskideek oi dabean antzera berba egingo dogu. Nik neuk, beintzat, ortik zabaltzen asi dan uste barri bat az jakitun ipiñiko zaitut.

– Zein uste barria...?

– Zatoz biar, eta esango dautsut.

Au esatean, Lotis'en begi yaukalen erakarpenari jarki eziñik, etxea ikertzen jarraituko leukelako berba emon eutsan Dan'ek, eta olan Klodia'ren etxea ikertzen jarraitu eban. Eta ordurante Dan edesle bakarra izan ba'zan, aurrerantzean Klodia ta Lotis'eri itz egiteko aukerea etorri yaken. Laster oartu zan Basamortuko Semea, ama-alabak

kristauak zirala, eta beronein abotik, berak ezagutzen ez eban siñiste barriatzaz gauza asko entzun eban.

Dan'ek, baiña, ez eutsen jaramon andirik egiten, dalako Kristo Mesias guzurtizat eban-eta. Gurutz baten eriotz laidogarria jasan ebana, ezin zeitekean Israel'go gaizkatzailletzat artu, eta are gitxiago judutar abertzale baten ikuspegitik. Apurka, baiña etenbarik, siñiste barrirako oztasun andia izan arren be, milla ta millaka Yosukristo'ren alde bizitza eskintzen eben talde aren anditasun eta maitasuna, beragan ikuspegi barria sortzen asi ziran, eta jazaturiko kristau areik, gizajotzat baiño, gizanditzat artzen ikasi eban. Baiña olan eta guzti be, egiak ez eban aurkitzen biderik bere itsuturiko adimenera.

Bein baten Lotis'ek auxe esan eutsan:

– Zure edeskian esan zeuskun, Erroma'rako itsas-bidaldian, Paul izeneko Yosukristo'ren bidali bat ezagutu zenduala, eta gero urira sartzean banandu izan zintzazela, espetxeratuak izateko.

– Bai, orixe jazo zan, eta damu txarrez, arrezkero ez dot eretirik izan bera agurtzeko. Gizon zintzo ta onberatsua zan, eta sarri askotan Yosukristo'ri buruz eztabaidatu arren be, esan bearrean naz, beragandik azaldu ezin dagikedan argi berezia eriola. Nik ez dakit bene-benetan zelakoa zan dalako Paul, baiña batzutan zorotzat artzen neban, eta bestetan, ordea, argi bizi jarki-eziñaz jabetuta. Beiñola esan eustan, biozkada batek iñotsala, Erroma'n alkar ikusiko gendukeala barriro, eta anartean Jaunari eskatuko leuskiola onik ataran nindegian. Edozelan be, Erroma'ra ekarri ninduan auzitik onik urten naz, baiña bera ezin ostera be ikusi...

– Aizu, Dan –eten egin eutsan neskatillak–, aregana eroan zagikedaz..

– Aregana, diñostazu, Lotis, zelan baiña...?

– Ara, bere irakaskintzak kristau biurtu gaitu ama ta biok, baita beste asko be. As-tean birritan kristautalde bat berarekin batzen gara, Jaunaren ikasbidea entzuteko, eta biar bertan alkartuko gara. Etorriko zara gurekin...?

– Baita pozik be...! –adorez erantzun eutsan Dan'ek–.

– Orduan, biar apalostean zatoz ona, eta aregana eroango zaitut.

Berbatua lez, biaramonean arratsaldeko zortziretan Klodia'ren etxera joan zan. Lotis gerturik egoan, eta biok uriko zaargunera abiatu ziran. Etxe landerrakaz saiesturiko kale itsusi ta kiribiltsetan zear ibilli ondoren, Lotis'ek ate bat jo, eta barruko baten batek,

– Nor da or...? –itaundu eban–.

– Jaunaren argi-ontzia billatzen dogu.

Gau aretako ezaugarri ezkutua entzutean, atea edegi zan, eta emakume batek goiko maillara eroan ebazan. Areto zabal andi baten, ogei bat lagun zaar eta gazte bilduta egozan. Une aretan, itzaldia asi aurretik, Paul'ek ikasle batzukin berbetan ziarduan. Lotis urreratu yakon, eta,

– Paul –esan eutsan–, ona emen aspaldiko ezagun bat.

Dan ikustean, pozezko oiua bat iges egin yakon Tarso'ko bidaliari, eta beragana joanda, besarkada andia emon eutsan auxe iñotsala:

– Bedeinkatua bedi Jauna, Dan maite ori, barriro be zakusdalako...! Ain zuzen be, sarri askotan Jaungoikoari eskatu dausat, gaitzetik onik atara zengizan, eta egi-egitan nire eskaerea aditu daust. Ante onean zakust, zelan bizi zara...?

– Orain ondo bizi naz, Paul, baiña neureak eta asto baltzarenak jasan dodaz.

– Baiñostan biotzak barriro be alkartuko gintzakezala, eta orra or nire biozkadea egi biurtuta. Beste urrengo baten zure gora-beerak edestuko daustazuz, orain, anaitalde oneri Jaunaren berbea azaldu bear dausat-eta. Jesarri zaitez euren artean, eta amaitu dagidanean, ostera be mintzatuko gara.

Lotis'ek lagunduta, batzarkideen artean jesarri zan, eta bitartean, taldea begiz aztertu eban. Geienak mailla apalekoak izan arren be, guztitarikoak ziran. Euren artean judutar batzuk ikusi zeitekezan, Erroma'n atzerriratuak bizibide obaren billa; beste batzuk erromatar langilleak, len jopu izandakoak, eta orain uritar jare edo "libertoa"ak; baziran erdimailakoak be, onein artean sal-erosle ta gudari-oien itxurakoak. Etxekoandreak bereizten ziran isil eta apalak, Paul'en itzaldiaren begira.

Itzaldia asi ebanean, begi guztiak beragan untzatu ziran entzun-guraz piztuta, eta entzule guztien aurpegiaren itxureak Dan'en adikunea erakarri eban. Argi bizi batek adoretuta, ez eben Paul'en itz bat bera be galtzen, eta toki aretatik igesi joanda, itxaropenaren besoetan beste ludi baten zear bake bakanak artuta zirudien. Ordubete batez iraun eban Paul'ek Jaunaren egia aldarrikatuz, gau aretako gaia alkarrekiko maitasuna izanik. Itzaldi aretan, Paul'en biotz guztia maitasun eta itxoropenez isurtzen zan, iturri bateri ur garbi ta eresintsuak dariozan lez.

Berbaldia amaitu zanean, Dan'egana urreraturik, Paul'ek,

– Aizu, Dan –itaundu eutsan–, etorriko zara nigana beste urrengoetan...? Zatoz barriro, ez itzi egi ta argia zure ondotik igaro daitezen biotzera sartu barik. Iru egunen buruan emen batuko gara. Etorriko zara...?

– Bai, Paul, etorriko naz.

Alkar agurtu ondoren, eta banatzeko zorian zirala, ezustez, Dan biurtu, eta,

– Aizu, Paul –esan eutsan–, Gorian, nirekin kateaturik Erroma'ra sartu zan armenitar adoretzu ta zintzoa, onezkero bere aberrian izango da, urrean. Entzungarria da jazo yakona. Ara...

Eta jarraian, aren azken barriak emon eutsazan. Amaitzean,

– Poztu zaitez, Paul –esan eutsan–, aberrira biurtzeko zorian zala, kristautasuna besarkatzeko gerturik egoala begitandu yatan, eta zeu zara, Paul, erabagi orretara eragin eutsana. Alkarregandik agurtzen genduanean, auxe eskatu eustan: zeugana joateko, eta berari buruzkoa zu jakitun ipiñi ondoren, zure otoitzaldietan bere alde eskatu zengiala, bearreko argi ta bidea idoro egiazan. Eta orra or patuak zugana nakarrela...

– Bedeinkatua bedi Jauna...! Gorian'egan nenkusan zerbaitek baiñostan egunen baten kristau billakatu leitekela, eta orra or nire suzmoa egi biurtzeko bidetik doala. Bai, asko eskatu dot zuek bion alde, eta noizbait, nire eskaerak badirudi entzun izan dirala. Izango al da bera, Jaunaren ereinlaria Armenia'n zear...!

Poz neurribakoa irakurri zeitekean Paul'en aurpegiaren, eta une batez begiak gora jasorik, ezpanak igitu yakozan otoitzean lez. Gero, Dan'egana biurturik,

– Begira, Dan maite ori –esan eutsan–, Jaunaren laguntza nire ondoan oartu arren be, batzutan naigabeak menperatzen nau, baiña Gorian'eri jazotakoen antzera entzuten dodazanean, nire naigabeak zorion biurtzen dira. Jaunak bedeinkatu zagizala, Dan, asmatu ezin dagikezun zoriona ekarri daustazu-ta...

Paul'eri aurpegiaren beera malkoak mara-mara eriozan, eta zarrastada bakanak artuta, Dan gelatik urten, eta etxeko atadian Lotis'ekin alkartu zan.

Klodia'ren etxera abiatzen zirala, begi eder garbiak Dan'egan josita, Lotis'ek,

– Aizu, Dan –itaundu eutsan–, zer deritxazu gaur barriro ikusi dozun Paul...?

– Betiko adiskide adoretzu ta maitekorra. Barrutik darion indar ezkutua, bere siñismen eta itxaropenari zor dautse. Oi-ez-lako gizon andi ori, Yosü Nazaretarraren izaeraz eta irakaspenez beterik bizi da, eta badirudi, bere arimaren indarrak ludi onetako ezerezerkien gaiñetik erraldoi baten antzera jagi dauala.

Isillune baten ostean, Lotis'ek barriro,

– Paul'ek otoi egitera irakatsi dausku, eta ezagutu zaitudanetik, egunoro zure alde eskatzen dot. Esaidazu, Dan, egunen bat ez zara guretariko bat egingo...?

– Ai, olan ba'litz...! Baiña gure Idazti Deunak aztertzen ordu luzeak emon dodaz, eta aberriarekiko maitasunez, Israel aske ta andia egitearren etorriko dan agindutako Mesias'en begira nozu, eta au dala-ta, nire biotzean ez dot lekurik Nazaret'eko Yosü orrentzat...

Bideari isillean jarraitu eutsoen, eta Klodia'ren etxera alduta, Dan agurtzeko zorian zala,

– Entzuidazu, Dan –eskatu eutsan Lotis'ek–, ez al-dozu biurtu nai Paul'ekin ospatzen doguzan batzarretara...? Begira, astean birritan alkartzen gara, eta noizean bein batzar-lekua aldatzen dogu, kristauen aurkako jazarkundea uxatzearren. Paul'ek diñoskunez, Jaungoikoaren alde bizitza emoteko gerturik izan bear dogu, baiña alperriko zorakeritan gure bizitza jokatzera, zillegia ez dala diño, eta augaitik leku-aldatze ori egiten dogu. Gaur iru egun, Silas, guretariko baten etxean alkartuko gara. Lagun etorriko zaiataz...?

Bere biotzaz jabetua zan aingeruari Dan'ek ezin egikeon ezetz esan, eta olan ba, Lotis'ekin Paul'en irakastaldietara joaten asi zan. Bitartean, Erroma'ko jolastegian ia egunoro kristauen sarraskiak ospatzen ziran, eta onein odola isuri-ala, uriol geldieziñaren antzera, Kristo'ren irakaspenez jarraitzaille barriak ekarrezan, bai Erroma'n bai beste urieta be, kristauen kopurua etenbarik ugaritzen zala.

Bein baten, Paul'eri itaundu eutsan Dan'ek, eriotzera galdu izan arren be, kristauen gorakadearen zergaitia.

– Begira, Dan –erantzun eutsan–, Kaiserren agintzakeriak, bee-maillako erromatar erriari, eta erbesteko lurraldeai, joputasun, bearrian, ostuketa, eriotz eta beste zorigatxak ekarri dautsez. Erri osoak sustraiez aldatuak izan dira, sendiak sakabanatuak, aberastasunak ostuta, jopuen lanaz eta arrapatuak janariaz, Erroma andi ta aaltsua biurtu daiten. Onezaz gaiñera, lizunkeria jaun eta jabe biurtu da, baiña aragikeritan bizi dana bere ustelkeriaren jopua billakutzen da, eta azkenean bere buruaz nazkatuta, jausi

dan zitalkeritik urten nai dau, gizakia gorengoko gauzatarako sortu izan dalako, eta arimak eraginda gaindegiak irrikatzen dauz.

Isildu zan une batez Paul, eta gero,

– Munduko egoera larri onetan, Aitak bere seme Yosukristo mezu batatz bialdu dausku, alkarrekiko maitasun, begirune, eta aragi-garbitasuna aldarrikatuz. Eta didar ori entzutean, zoribakoek, txiroek, jopuek, eta goragoko erreñu bat irrikatzen dabenek, aintzakotzat artu dabe dei ori, eta oroz gaiñetik indartsuagoa dan dei orren atzetik abiatzen dira, bizitzaldi onen ostean Jaunagan aurkituko dogun betirako zorionaren bila. Aldarri orren erakarpena, eta gizakiak bere baitan daroan gorako yorana, kristauai damotsen indar garaietziñak dira, eta jazarkundearen aurrean, Kristo'gan aurkituko dabenek berpizkundeak gizuren biurtzen dabez... Zuk ez dozu ulertzen guzti orren anditasuna, siñismenaren begiak lausotuta dozuzalako, baiña bere biotza xalo ta zintzo edegiten dauanagan, Jaunak betirako egia ereintzen dau. Zergaitik ez dozu edegiten zeureak...?

Sarri askotan Paul Dan banazean artuta, aalegintzen zan burutara emoteko kristau biurtu zeiten, baiña zaiilla zan benetan, bera lako judutar abertzale bategan zirrikitu bat aurkitzea, egia biotz eta adimeneraiño sartu ekion. Paul'eri benetako indar eta adorea emotsana, Yosukristo'ren berpizkundera zan. Bein baten, oneri buruz ziarduala, Dan'ek onetaraxe eten egin eutsan:

– Begira, Paul, beiñola Jerusalem'go Jauretzean pariseu batzuekin izketan niarduala, areitariko batek esan eban, Yosu Nazaretarra'ren berpizkundera guzur utsa zala, bere ikasleen asmakeri ustela, Jaungoikotzat artu izan zeiten. Illobitik aren gorpua jaso, eta beste nonbaitera eroanda gero, berpiztua zalako guzurra barreiatu...

Didar baten jagi zan Paul, eta asarre biziak aurpegia gorri eginda, begiai txinpartak eriezala,

– Guzur zitala, zantarra, Jaunaren aintza ezerezteko...! Begira Dan: Yosu il eta irugarren egunean emakume batzuk illobia ikertzera joan ziranean, utsik aurkitu eben. Arrezkero, Jauna bere ikasleai ageru yaken, ez bein, batzutan baiño, eta agerpen oneitan, gurutzean izandako esku-oiñen zauriak baita saietsekoa be, erakutsi eutsezan, eta zeruratu aurretik, alkarrekiko maitasuna oroz gain gorde egien aldarrikatu eutsen. Agerpen onein lekukoak oraindik bizi dira, eta sarri askotan orreri buruz jakitun ipiñi nabe. Orra or, Erroma'n dagoan Kepa ta beste ikasleak, Santiago, Yon, Tomas, eta emakume-talde bat. Oneik danok berpiztuta ikusi eben, eta auxe dogu Jauna Jaungoikotzat bereizten dauan egirik andiena...

Isildu zan Paul, eta aurpegitik asarre-itxura joanda, mintzo zirrartuaz, onetaraxe jarraitu eban:

– Jaunaren berpizkundera...! Ona emen Jaungoikotzat bereizten dauan ekintza go-rena. Berak auxe esan eban: “Ni naz berpizkundera ta bizitza. Neugan siñisten dauana ez da betirako ilgo”. Beragan siñistuko ba'zendu, Aren aintzaren oiñordeko izango zintzakez.

– Nik, baiña, Yahvé, judutarren Jaungoikoa siñisten dot. Txikitarik irakatsi dauste ori, eta Idazti Deunak irakurtean, siñismen ori sendotu yatan.

– Baiña, Dan, ezin daiteke izan Jaungoiko bakar baiño guztientzat, bestelan ez litzake benetakoa izango. Yosu Nazaretarra Yahvé'ren Semea da, antxiña batetik Israel'ek itxaroten eban gaizkatzaillea, eta gure errian aragitu zana, ez bakarrik Israel'en aintzarako, mundu guztiarenerako baiño, eta au gure aberriarentzat dedu andi-andia da. Ez itzi, Bera ondolik igaro dakizun ezezagun baten antzera, ludi onetan iraupena mugatuta dogu-ta, eta eretia aintzakotzat artzen ez ba'dogu, gero damutzerik ez... Esaidazu, Dan, esaidazu siñisten dozula...

Baiña begiak soruan josita, Basamortuko Semeak isillik ziruan. Orduan Paul'ek osteria be,

– Begira, kristauak jazartearren Damasko'ra niñoala, eta Jaunaren argi biziak zalditik jaurti ninduean, gogor yatala akuilluari ostikoka ekitea esan eustan, eta orixe bera nik neuk esan bear dautsut, Dan maite ori. Eskatu egiozu Yahvé'ri bear dozun argia emon dagitsula benetako bidea idoroteko, eta zintzoa zarean ezker, adimenaren begiak siñismenaren bidez edegiko yatzuz.

Edu onetan sarri askotan ziarduen judutar biok, eta oso-osoan Yosukristo siñistu ez arren be, tarsotarraren burubideak astiro baiña etenbarik, Dan'en babesetan arrakalak egiten asten ziran. Azken bultzada bat bearrekoa zan Basamortuko Semeari argi-itzalen artean Egia agertu ekion... Eta jazoera izugarri bat eragillea izango litzake.

Aspaldi aretan kristauen aurkako basakeriek jarraitzen eben Erroma'ko jolastegian. Erritarrak isil eta baketsu iraun-erazoteko, guztitariko ikusgai barriak emotera beartuak ziran agintariak, "Ogi ta Jolasak" jendekeria otzandu egien. Kristauak multzoka erailten ebezan jolastegiko ondartzan, batzuk gudarien ezpatak, geziak, eta astamakillen opariak, bestetzuk, gosez iraun-erazotako basa-piztiek irunsiak izan zeitezen.

Agintari urtenak jolastegira etorteko ziran bein baten, burua urratu ondoren, ikusgai barria asmatu eban jolastegiko arduradunak. Egun aretan illunduta gero, naslikaz igurtzitako ogei kristau, zutabe goitsu banatan lotuta, amarreko erreskada bitan jarriko ziran, eta su emonda, giza-zuziak biurturiko gaixo areik ikuskizun zirrarragarria argituko eben. Gosez zirikatutako leoitza batek giza-zuzien erreskaden artean igaro bear izango leuke, bide sutsu aren bestaldean gurutz batera lotuta egoan neskatilla billuts ederra irusteko.

Arratsalde aretan, Dan, Klodiaren etxera abiatzen zan. Aurregunean, Paul'ek zuzendutako batzar batera joateko zan, baiña ezinbesteko lan-agindua amaitzeko, bere burua estu ta larri ikusten eban Yezer'ek, bere adiskideari eskatu eutsan dalako agindua burutzearren, arratsalde aretan lagundu egitsan, eta au zala-ta, Dan'ek ez eban batzarre-ra joaterik izan. Urrengo egunean, baiña, Lotis ikustearren irrikak eraginda, Klodia'ren etxera abiatu zan. Neskatilla zoragarria berarentzat ez zala izango jakin arren be, biotzaren sakonenean maitasun andi ta garbia areganako oartzen eban. Maitasunerako iñoiz eretik izan ez ebana, orain, bizitzaldiaren udagoian, ezin zeitekean Lotis'en udabarriari jarki, eta isillean maite eban, atzitu-eziña dan izar eder bat maite daiteken antzera. Aspaldi aretan Palestina'ra biurtzeko irrika andipean bizi izan zan, baiña neskatillarekiko maitasun yaukal eta goren arek, biurtzeko asmo ori ezeresten eutsan, eta amaika atxaki bere buruari emonez, Erroma'n jarraitzen eban.

Egun aretan Klodia'ren etxera eldu zanean, eta larraiñean Lotis'en begira egoala, neskame bat itxura arrenkuratsuz etorri yakon, eta malkoak begietan,

– Baiña ez al-dakizu, Jauna...? –esan eutsan–, Atzo arratsaldean, nire Lotis maitea beste kristauekin atxillo egin dabe. Ai ene bada, etxeko uso maitagarri gurea...!

Larritasun esan-eziñak artuta, didar baten Dan'ek,

– Esan, non dago Klodia...?

– Andikorik-ortikora dabil adiskide aaltsuak ikertzen, ia gure Lotis jaregiten daben...



– Zein espetxera eroan dabe...?

– Porta Latina'ko “ergastula”n dago.

Astirik galtzeke, eta larritasun utsaz biotza taupada zorotan ebilkiola, Dan urten, eta arrapalada baten esandako espetxera abiatu zan. Orduko, illunabarra izanik, luze-tsiak artuta arin baten eldu zan “ergastula” izugarri aretara. Euntari baten agintzapean egoan espetxe onen atezaiñari, nagusia ikusi nai ebala esan eutsan, eta andik laster euntaria agertu zan. Zorionez, onek ezagutzen eta ederresten eban, sari askotan jolas-getiko aukarieren arteko burruketan ikusi ebalako, eta,

– Kaixo, Basamortuko Semea –txeratsu esan eutsan–, zerk zakaz espetxe onetara...?

– Ara, Lotis izeneko neskatilla bat emen dagoala esan dauste.

– Bai, ona ekarri eben bart, baiña orain ordubete bat-edo, Tijelino'ren ertzaintzak atara dau.

– Ba al-dakizu nora...?

– Jolastegira eroiela esan daust ertzain batek, eta olan ba'da ez dot uste luzarorako izango danik.

Atsekabe larriak itotako oiuratsa iges egin yakon Dan'eri, eta aalik lasterren jolastegira abiatu zan, gero ta illunago biurtzen asten ziran kaleetan zear. Jolastegira urreratu-ala, gero ta ozenago jendekeriaren zurrumurrua entzumenera etorkion. Tximistaren antzera, urreneko sarbidea zearkatu, eta barruko armaillatara elduta, une batez gelditu zan. Amarreko giza-zuzien erreskada bik ondartzako erdigunea argitzen eben. Su biurturiko ogei gaixo areik, baziran une batzuk illik egozala, naslikari erion ke ilkorrak itota, eta arein aiene larriak onezkero isilduta, giza-zuzien artetik, gurutzera lotuta egoan neskatilla billuts bategana, leoi bat urreratzen zan. Pizti ederra zan, benetan, eta areago emongo leukean, aurreko iru egunez barau osoa jasan ez ba'leu. Bildur eutsen leoiak ezker-eskumako giza-zuzien argiai, baiña une aretan erraiak marrazkatzan eutsazan gosea andiagoa zan, eta begi kiskalgarriak neskatilleagan josita, astiro baiña etenbarik urreratzen yakon. Iru metroko bitartera, leoi gelditu, eta buztanaz area isasten asi zan.

“Cimachaeri” edo ezpata bidun zanean arein aurka jardun eban Dan'ek, ondo eza-gutzen ebazan leoiak, eta bereala oartu zan, gurutzera lotuta egoan Lotis'en aurka oldartuko litzakela. Alboan eban gudari bategana, inesturiaren arintasunaz zaplada bat az urreratu, ezpatea kendu, esian gora igon, eta bestaldeko area zapaltzean, arinketa zoroari emon eutsan oiuratsa jaurti ondoren, basa-piztia geldierazoteko asmoz. Leoiak, baiña, Dan baiña azkarrago ibilli zan, eta Lotis'egana zapart egiñik, saietsari oratu eutsan letagin-erpakaz sarraski itzela egiñez. Sortutako zauririk Lotis'eri odola borbor-ka erion, miñak eta izuak elbarritutako neskatillea ozta-ozta intziri itoak jaurtiteko gai zala.

Dan'en oiuratsa entzutean, sarraskiari itzi eutsan leoiak, eta aregana biurtuta, orru zemaikorrek jaurti eutsazan, odolaz igurtziriko musturra miatzkatzen ebala. Izandako barau luzearen ostean, txastaturiko odol gazteak irrika iratzarri izan eutsan, eta ez zan

ezerk asitako oturuntzari uko egiten eragin eutsanik. Lau bat metroko bitartera elduta, ezpatea gerturik ebala Dan gelditu, eta begiak piztiagan untzatuta, burrukan egiteko gertatu zan. Oar-ikaste andia jaritsi izan eban Dan'ek leoiak egokienetan, eta piztiaren erasoari itxaron eutsan, ezustean artu ez izatearren.

Bitartean, jendekeriaren artean Basamortuko Semea zalako zurrumurrua zabal-tzen asia zan, eta erromatarren artean aren izenak aipu andia ebanez, zudurik andienaz burrukearen garapenari itxaroten eutsoen, isillik eta ozta-ozta arnas egiñez. Gau aretan jolastegian jazoten zana, aurretiaz atonduriko ikusgaia zala uste izaten eban jendeke-riak, eta buru-belarri aukari ta leoi arteko norgeiagokoari jarraitzen asten ziran, besterik aditzen ez zala, dema-bitartekoen aldarriak ezarki egitean. A lako burrukea gizona-rentzat zailla izanik be, ikusleek Basamortuko Semearen alde azaltzen ziran. Bazan aspalditxu bat Dan'ek aukaritzat jarduten ez ebala baiña “Rudis” edo egurrezko ezpatea jaritsi ebanetik, bere ospea mail gorenetaraiño igonik, oraindiño irauten eban erromatarren artean.

Makur-makur eginda, leoi buztanaz area isasten asi zanean, zapart egiteko zorian zala jakin eban Dan'ek, eta erasoari aurre egiteko gertatu zan. Tximistaren antzera oldartu yakon leoiak, baiña Dan'ek aldera egiñez, piztiaren atzaparrek aizea baiña ez eben atzitu, baiña igarotetan ezpatakada batek narua urratu eutsan. Orru izugarria jaurtirik, leoiak biurtu, eta saiets batetik odola eriola, Dan'en aurka oldartu zan. Orain, baiña, leikide bion arteko bitartea laburregia zan leoiak zapart egian, eta atzaparkada bizitan Dan zauritzen aalegintzen zan. Asarre itzelak artuta, Basamortuko Semeak atzera astiro egin bitartean, ezpateaz leoiaren atzaparrak zigortzen ebazan, eta onek indarretan galdu-ala, Dan'en zartadak, ostera, aaltsuagoak biurtzen ziran. Zarrastada andiak artuta, jendekeriak ardurarik andienaz leiketeari erraikion, eta barruko zauskadak eraginda, didar egiteari emoten eutsan. Alako baten, eta burrukeak luzaro samar zirauala, artutako zigorrak itu eginda, azken indarrak biltzearen leoiak une batez gelditu zan atsanka... eta orduan erukibakoa, Basamortuko Semearen ezpatea inestuariaren antzera, leoiaren burua arrakalatu eban, eta gorpu eginda, are-gaiñean amildu zan.

Oiuratsa txalo gortugarriek ler egin eben, bein eta barriro Basamortuko Semea goratuz, gau aretan, jolastegiko arduradunak ikusgai bikain-bikaiña atondu izan ebala alkarri inotsoela. Ariñeketan, Lotis gurutzera lotzen eban lokarria ezpata-zartada bat az ebagi, eta neskatillaren soin billutsik bere soingaiñean bilduta, nora ez ekiala, ariñeketa zoro bateri emon eutsan. Lotis'ek bizirik eta bere senetan irauan oraindiño, eta beso bat az Dan'en iduna inguratutik, arnas-estuka esan eutsan:

– Mintzo ezkutu batek baiñostan etorriko zintzakidazala... Eroan nagizu etxera, amak zaindu nagian... otz naz eta burua joaten asten yat...

Izan be, otz-ikara batek artuta, Lotis'ek dardar egiten eban, eta begiak lausotzen asten yakozan. Zoratzeko zorian, estu-estu besoetan artuta, Dan jolastegiko urtenbide batera abiatu zan, eta gero kaleetan gora Klodia'ren etxera jo eban. Alako baten, Lotis'ek barriro,

– Dan, banoa... banoa Jaunagana... Badakizu Paul'ek beti inoskuana... ara, Yosukristo'gan siñisten dauana ez dala ilgo, betirako bizi baiña... Oroitzen zara, Dan...?

Une aretan zoratasunaren antzeko batek artuta, Dan'ek estuago besarkatu eban, eta mintzo urratuaz,

– Ez zaitetz joan orain, nire maitia...! Begira, Masada'ra eroango zaitut, basamortuko aize mee ta garbiak osatu zagizan, eta zelatarien erregiña egingo zaitut, bai, Basamortuko Erregiña billakatuko zara...!

Sukarrezko amespean bai'litzan, maite-maite ebanari Basamortuko Semeak era onetan zirautsan, baiña Lotis'ek ezin entzun, bere gogoa beste iñora abiatua zalako...

Klodia'ren etxera eldutakoan, larraiñeko artzurizko aulki baten etzanda jarri eban. Orduko, neskatilleak isuritako odolak Dan'en soingaiñekoa gorrimin biurtu izan eban, eta larrosa gorri baten antzera aulkiaren gaiñean bereizten zan. Orduan oartu zan Basamortuko Semea, bere maite kutuna illik zetzala, eta belaunikaturik, negar etsi bateri emon eutsan. Luzaro samar irauñ eban olan, negar-zotiñek bere soin indartsua astintzen ebela. Alako baten, buruan esku baten ukitze illauna oartu, eta burua jasota, bere ondoan Klodia ikusi eban. Negar-anpuluak mara-mara aurpegian beera erorkiozan, eta mintzo urratuaz,

– Il da, ezta, Dan...?

Jagi zan Basamortuko Semea, eta aren eskuari oratuz,

– Bai, Andrea –etsiak artuta esan eutsan–, Erroma'ko bitxirik ederrenak itzi gaitu.

– Esaidazu dana.

Biotzaren zarrastadea nekez menperaturik, berba etenakaz, lentxuago jolastegian jazorikoa edestu eutsan. Amaitu ebanean, Klodia'k negar baten,

– Baneritxon okerren bat etorriko litzakiola –esan eutsan–. Atxillo ebela jakin nebanean, andikorik-ortikora ibillia nozu andikien ate-joka, baiña berba utsak eta ezer gitxi. Orañ Lotis barik bizitza ez yat bardin izango. Etxeko alaitasuna zan nire kutun maite atzueziña...!

Onen ostean, negar baten irauñ eban luzaro samar Klodia'k, eta eiagorak baretu yakozanean, begiak Dan'netan untzatuta,

– Zeuk maite zenduan, ezta...? –itaundu eutsan–.

– Nire bizitza baiño geiago, niretzat ez litzakela izango jakin arren be...

– Jaunak Berarentzat aukeratu dau.

Isildu ziran biok, bakotxa bere oldozkunetan murgilduta. Noizbait, Klodia'k,

– Berandu da onezkero, Dan –esan eutsan–, eta len jasan dozun burrukeagaitik nekatuta izango zara. Jaten emon dagizuen aginduko dot, eta gero biurtu zaitetz etxera, bear dozun atsedena izateko.

Dan'ek, baiña eskintzea saiestu eban, eta orduan Klodia'k,

– Biar egunsentian –esan eutsan–, Ines Deuna'ren lurpean obiratuko dogu Lotis. Nai ba'dozu, zatoz ona azken agurra emotearren.

– Bai, etorriko naz.

Au esanik, makurtu, eta Lotis'en aurpegi baketsua laztanduta, bekoki garbian musu maitekor, luzea, jarri eutsan, eta orduantxe... neskatilleagandik Dan'en izatearen sakaneneraño jario esan-eziña isuri zan, eta bizitza barriaren antzera, adimena argitu ya-

kon... Bere izate osoari oarpen barria emotsan argi bigun, gozo a siñismena zan... eta goraldi batek menperatuta, Dan kalera urten, eta ibillera azkarrez, Porta Latina'ko espetxera abiatu zan. Eldu zanean, dorreko atezaiñari, euntaria ikusi nai ebala esan eutsan. Zaindaria, beranduegi zala bere nagusiari dei egiteko, baiña Dan'en oiñazea zala-ta, aren billa joan zan. Andik laster euntaria azalduta, Dan ikustean,

– Kaixo, Basamortuko Seme ori –arrai esan eutsan–, leoiaren aurka izan dozun leiaketee gudari batek azaldu daust, eta gaur Erroma'n ori baiño beste autugairik ez da erabilten. Au bai tamala, nik ikusi aal ez izanik...! Baiña, esan, zer gura dozu nigan-dik...?

– Tarso'ko Paul ikusi nai dot.

– Ori ez da zillegia, baiña zu Erroma'ko kutun bat zanean ezkerro, zatoz barrura.

Au esanda, dorrepeko igarobide ezo ta sundatsuan zear lagundu eutsan euntariak, eta ate baten aurrean gelditurik, giltzazain bateri edegiteko agindu eutsan. Atea edegitean, ordu erdiko epea emotsala esan eutsan urrundu aurretik. Barruko giro astun eta kirats aretan, lurrean etzanda giza-mulko batzuk oartu ebazan. Ekarren zuzia ormako zulo baten sartuta, ateari giltza emonda gero, giltzazaiña joan zan. Gela sundatsu aretan galtzu-pilloen gaiñean etzanda, ogei bat atxillo egozan, eta sartu baiño ez, txoko batetik, ondo ezagutzen eban Paul'en irudia jagi zan, eta urreraturik, biok alkar besarkatu eben.

– Dan maitia –esan eutsan Tarso'ko bidaliak–, nire ordua urbiltzen yat, baiña orren aurretik zu ikusi aal izateak, ez dakizu zelako poza damostan...! Ba al-dakizu ze-ozer Lotis'eri buruz...? Arratsaldeko lenengo orduetan gela onetatik atara dabe, eta or-dutik arrenkuraz beterik nozu.

– Il da, Paul, il da Erroma'ko bitxia, nire biotzeko aingerua...!

Eta mintzo urratuaz, arratsalde aretan jolastegian jazotakoaz, eta neskatillearen eriotzaz jakitun ipiñi eban. Amaitzean, begietan malkoak, auxe esan eutsan:

– Lotis il da, siñismena aurkitu dagidan, eta auxe jakin dagizun zeugana etorri naz, Paul. Agurreko apa-laztana jarri dausat bekoki garbian, eta orduantxe nire barru guztia argi biziaz borborka itxartu da. Siñisten dot, Paul, siñisten dot Yosukristo, gurutzean josi eben Jaungoikoaren Semea...!

– Au nire poza, Dan maite ori...! amaika bidar zure alde eskatu dausat Jaunari...

– Paul –eten egin eutsan Dan'ek–, pekatari andia naz, eraille, lapur, lizuna izan naz, eta Jaungoikoari barkapena eskatu gura dausat. Badakit, Aren izenean pekatuak barkatzeko aalmena dozula...

– Bai, olantxe da, eta Aren izenean pekatu guztietatik jaregiten zaitut

Eta eskua Dan'en buru-gaiñetik luzatuz, gurutzaren ikurra egin eban. Ordurarte egundo ez ezagaturiko bake bakanak artuta irauñ eban Basamortuko Semeak, bere barruan bilduta, eta gero ames batetik itxartuko bai'litzan,

– Zure barkapenak bake ta itxaropena ekarri daustaz. Bedeinkatua bedi Jaungoikoa, nire bidean ipiñi zinduzalako... Esaidazu, Paul, zer billakatuko zara...? Begira, "Rudis" lortu nebaretik Erroma'ko kutuna biurtu naz, eta emendik urten naitenean, andiki ta gudalburu batzukana joango naz askatu zagiezan...

– Dana alperrik –eten egin eutsan Paul'ek–, nire ordua eldu da-ta... Au nire poza...!

Itxura esan-eziñaz argitutako Paul'en aurpegian zorionezko irribarre bat loretzen zan, eta begiak ziegako leiatillan zear gora begira, bazirudian eriotzaz araindiko bide-tik abiatzen zala, mintzo samur eta astitsuz iñoanean,

– Gero, goizaldean lepomoztuko nabe. Niketz gurutza naiago neukean Gure Jauna lez ilteko, baiña Erroma'ko uritarra nazan aldetik, ezpateta aukeratu dabe niretzat. Ordubete gitxien buruan, Bere aurrean izango naz eta orduan alkar besarkatzean, nire amesik biziena burutuko da. Bai, Yosukristo ezagutu nebanetik etenbarik laztandu dodan amesa, egi biurtuko da... Eriotzak mundu onetako kateetatik jaregingo nau... Esaidazu, eriotza, non dago zure garaipena...?

Dan'ek lilluratuta begiztatzan eban Paul'en antzaldaturiko aurpegi dizdiratsua, begiak aregandik kendu eziñik. Alako baten, atezaiñak Paul'en goraldiari eten egin eutsan, Dan'eri esatean,

– Jauna, emondako epea amaitu da.

Itz oneik entzutean, Paul bere lengora biurtu zan, eta lurralde zabaletan zear bannaduta egozan bere ikasleak gogoratzean, berbok iges egin yakozan:

– Zer billakatuko dira, an-emen sakabanatuta dagozan nire ikasle maite areik...?

Bapatean, adimena argituta, Dan'en eskuai eutsirik,

– Entzun egidazu ondo, Dan maitia. Zugandik gauza bat gura dot, eta auxe alegia: ikertu egizuz nire izenean, sortaldetik sakabanatuta dagozan, Korinto, Atenas, Tesalonika, Filipos, Galazia, Kolosos, eta Efeso'ko kristau-taldeak. Esaiezu, Jaunaren maitasunean il nazala; tinko ta bildur barik neuk irakatsitako legean irauteko, eta Yosukristo'ren izencan alkartu daitezenean, nire idazkiak irakurri dagiezala. Esaiezu baita be, noan lekutik, aldiaren amaierarte eurokin izango nabela. Beteko dozu Dan maite orrek, nire azken naia dan ori...?

– Bai, Paul, Jaunagan dodan itxaropenak lagunduko daust.

– Besarkatu nagizu, Dan, eta Egun Andirarte...!

Alkar besarkatu eben, eta biotzetiko eiagora larria jabetu eziñik, Dan espetxetik urten, eta kaleetan zear norabarik, ibilte alderrai bateri emon eutsan. Ez ekian zein luzaro iraungo-eban, baiña noizbait nekatuta, “Foro Augusto”ko aulki baten jesarri zan, eta naigabe biziari asazkaldia emon eutsan negarrez, Lotis eta Paul'en oroitzera beragandik kendu eziñik. Egunsentia ur egoala izarrek adierazo eutsoenean, jagi, eta Klodia'ren etxera joan zan

Artzurizko aulki luze baten gaiñean, eta lorakaz inguratuta, irribarretsu, eun-zati bikain baten bilduta, Lotis zetzan. Itxitako begi yaukalek aurpegi liraiñari lotan zan aingeru baten itxurea emotsoen, eta beragandik erion lillura zerutarrak menperatuta, Dan'ek ezin egikeazan neskatilleagandik begiak kendu. Olan egoala, Klodia urreratu, eta,

– Lotis nire alaba maitia dan ederra...! –negarrez esan eutsan–. Orain zoriontsua da, eta oldozkun onek nire atsekabea arintzen daust...

– Aigeru bat amesetan emöten dau.

– Bai, eta etxean neban miesarik bikaiñenaz il-jantzi dogu, baiña onen azpitik, maitasunaren ezaugarritzat jolastegian bildu zenduan gorrimiñez odolduriko zure soin-gaiñekoa darabil.

Une aretan neskame bat urreratu yaken, gurdia gerturik egoala esanez. Lotis jarri eben atzekaldean, eta Klodia ta Dan aurrean jesarrita, Iñese Deunaren lurpekora bideratu ziran, atzetik etxeko morroi-neskameek beste gurdi baten erraikiela. Eldu ziranean, Dan'ek gorpu illauna besoetan artu, eta aurrelari baten atzetik, zuzien argiak lagunduta, sare-antzeko igarobideetan zear barruratu ziran. Noizbait, alboko orma baten egoan uskune baten jarri eban Dan'ek, eta gero polliki ta samur, maitasun biziko bere azken mosua emon eutsan bekoki zuri garbian. Malkoak mara-mara eriozala, Klodia'k bardin egin eban. Jarraian, Dan'ek etxera iño lagundu eutsan, eta eldu ziranean, betiko agurra alkarri esateko garaia zala jakifnik,

– Agur, Klodia –esan eutsan–, Jaungoikoaren aintzak alkartu gagizan arte.

– Agur, Dan, nora zoaz, baiña...? Geratu zaitez, etxe onen atek zuretzat beti zabalik izango dozuz. Geratu zaitez Erroma'n...

– Ezin, Andrea, Paul'ek niri emondako agindua bete egin bear dot. Agur Klodia, Jaunak onetsi zagizala.

– Agur, eta zoaz ondo Dan maite ori.

Basamortuko Semea makurtu zan, eta Klodia'ren eskua begirunerik andienaz mun egin eban. Gero, zauskada esaneziñak artuta, kalean gora abiatu zan. Ozta-ozta urrats batzuk ibillita, Paul'en ikasle bat urreratu yakon, eta,

– Dan –esan eutsan mintzo unkituaz–, Paul gure maisua, goizaldean lepomoztu egin dabe, eta ikasle batzuk aren gorpua obiratzeko zorian dira.

– Non...?

– Zatoz nirekin azkenengoz ikusi dagigun. Kepa be, Jaunaren ikasle nagusia, atxillo eginda, laster gurutzean josiko ei'dabe...

Latz-ikara batek artuta,

– Goazen, adiskide, ez dagigun astirik galdu.

Porta Randusculana'tik urtenda, Ostia'rako bidea artu eben, eta bost kilometroko bitartea ibillita, landa baten sakondutako obiaren ondoan, Paul'en gorpua ikusi eben, lurperatu-agiñean kristau-talde batek inguratzen ebela. Orduko, bidaliaren burua enborrari itsasita egoan, eta Jaunarekiko maitasunaz, beti piztutako ikusi izan eban aurpegi adoretuak, orain betiko atsedenen bakea erakusten eban. Makurtu zan Basamortuko Semea, eta Paul'en eskuari oratuz, mun egin eban, berekiko auxe iñoala:

– Agur, Paul, Jaunaren bidali zintzoa. Asko zor dautsut, Areganako bidea erakutsi daustazulako. Zure agindua betetearren biar Erroma'tik urten, eta bidebatez aberriera biurtuko naz.

Eguberdi-irian, soñez nekatuta, eta arimaz naigabeturik, Yezer errementarienean eban ostatura biurtu zan; bazkalostean, jasandako atsekabeak nakar eginda, eta lo-gu-reak erreta, oeratu zan. Lo urduri batek artuta, amesetan amaika ikuskizun larrik jazar-

tu eben, eta noizbait, eguna argitu zanean, jagi, eta Paul'ek agindutakoa beteteko gertatu zan. Azken aldietan diru-mordo baten jabe billakatua zan, ezpatarien maisutzat Anu'ék ordaintzen eutsanetik aurreztuta. Irabazitakorik zati andia Yezer'eri emon eutsan, auxe esanez,

– Zati au Erroma'ko kristauen bearrizanari aurre egiteko.

– Eta zuretzat...? Enparauko txanpon orreik ezerezkeri utsa dira, asmatzen dozun bidaldirako.

– Jaunak lagunduko daust, Bera be diru barik ibilli zan-eta.

Yezer eta Errakel senar-emazteak ateraiño lagundu eutsoen, eta alkar besarkatu ondoren, Paul'en azken naija betetearren urrundu zan, berarekin besterik ez eroiala, eskukada txanpon areik eta gerritik eskegita, gurutzaren irudikoa zan “Rudis” egurrezko ezpatea. Yosukristo'ren osteko 67'gn urtea zan, eta orduko, bazan urtebetea Erroma'ko gudarostearen aurka, iskilloz urri ornituriko Palestina'ko judutar abertzaleen talde batzuk, aberria askatzearren burrukan ziarduela, lau urtez iraungo eban guda izugarri ta itxaropenbakoari emonda.

## AGINDUTAKO BIDALDIA

Eguraldi ederreko goiza zan Erroma'tik urten zancan, Paul'ek agindutakoa egitearren. Artutako argibideen arauz, Lacio ta Lucania zearkatuta, Heraclea portutik erraza izango litzakio Korinto'rako itsasontziren bat aurkitzea. Iru astebeite igarorik, Heraclea'ra eldu zan. Andik iru egunetara, Korinto'ra abiatzeko zan ontzi bateko nagusiagana joanda, bide-saria lan egiñez ordainduko leuskiola esondatu eutsan. Dan'en itxura indartsua ikustean, nagusiak onartu eban, eta noizbait eguna elduta, Korinto'ra abiatu ziran, aizea saietsetik ebela. Amar egun igarorik, Korinto'ko kolkora sartu, eta astiro baiña etenbarik, oztin garbiko ortzipean el-mugara iritxi ziran. Kairatu baiño ez, Anafi, Miros gerkararen alargunaren elbidea eskaturik, luzaro barik etxe eder baten aurrean egoan. Etxekoandrea ikusi nai ebala neskame bateri esanda, andik laster, berrogeitsu urteko ante oneko emakume bat agertu zan, eta,

– Zer nai dozu, Jauna...?

– Zu al-zaitut Miros'en alarguna...?

– Bai, Jauna.

Eta jakin-naiak eraginda, mintzo irrikatsuaz,

– Berari buruz, zeozer ete dakizu...?

– Bai, Andrea, ara...

Eta jarraian, bere senarraren eriotzaz berba egin eutsan, baita zelan berari esker, Elba'ko meaztegi madarikatu aretatik, iges egin aal izan eban be. Edeskia amaitu ebanean, negar baten Anafi'k auxe esan eutsan:

– Suzmo txarrak jota bizi izan naz nire Miros atxillo egin ebenetik Erroma'ra croateko. Arrezkero, aberastasuna galduta, bearrizan gorria ezagutu neban, baiña zorionez kristau biurtu nintzan, eta onek neurri andian, zorigatxa arindu eustan. Gero, seme-alabek lagunduta, gora egiten asi nintzan, eta orain, len besteko aberatsa izan ez arren be, polito bizi izaten naz neureak inguratuta Yosukristo'ren legepean.

– Poztuten nau kristaua zareala jakiteak. Entzun dozu Tarso'ko Paul'en izena...?

–Ez neban entzungo ba...! Berak Korinto'ko eleizea sortu eban, eta onen ostean, emengo kristaudiari idazki ugariak bialdu eutsazan. Sarri askotan idazkiok irakurten dira gure batzarretan. Paul'ek uri onetan itzitako aztarna ez da iñoiz aztuko.

– Nor da uri onetako kristaudiaren burua...?

– Apolo izeneko kristau zintzoa.

– Berarekin berba egin gura dot.

– Mezu bat igorriko dauzat, gaur gabean gurekin apaltzeko. Bidebatez, Dan, non kokatuko zara...?

– Ez dakit, Anafi; ostatu merke baten izena emongo bazeunskit...  
– Bai, eta etxe au izan be. Uri onetan iraun arte, ementxe bertan kokatuko zara.  
– Ez al-da zuentzat nekagarri izango...?  
– Ez orixe...! Neuk eta nire seme-alabek pozik artuko dogu nire senarraren adiskide.

– Gogoan beti zinduezan, eta ilteko zorian, egunen baten zuekana joan neinten eskatu eustan, eta augaitik, etorri naiatzue bere maitasunaren mezua ezagutu dagizuen.

Gau aretan, Apolo uri aretako eleiza-burua apaltzera etorri zan, eta otordua amaitu zanean, Apolo, Anafi, eta onen seme-alabak, Paul'en eriotzaz jakitun ipiñi ebazan Dan'ek. Edeskia amaitzean,

– Paul il aurretik –esan eutsen–, zuek ikertzera etorri neinten agindu eustan onetaxa: “Nire izenean ikertu egizuz sortaldetik sakabanatuta dagozan, Korinto, Atenas, Tesalonika, Filipos, Galazia, Kolosos, eta Efeso'ko kristau-taldeak. Esaiezu, Yosukristo'ren maitasunean il nazala; tinko ta bildur barik neuk irakatsitako legepean irauteko, eta Jaunaren izenean alkartu daitezenean, nire idazkiak irakurri dagiezala. Esaiezu baita be, noan lekutik aldi-amaierarte eurokin izango nabela”. Orregaitik ba –jarraitu eban Dan'ek–, etorri naiatzue. Jakiñerazo gura dautsuet, urrengo goizean, Erroma'tik bost kilometrora inguru datzan leku baten, kristau batzuk obiratu ebela.

Basamortuko Semeak edeskia amaitu ebanean, entzuleai malkoak eriezan. Isillune baten ostean, Apolo'k,

– Aizu, Dan –esan eutsan–, biar eleizkizunak ospatuko doguz bere alde. Etorriko zara, zeure abotik gure anai-arrebek Paul'ena ezagutu dagien...?

– Bai, Apolo, an azalduko naz.

Urrengo egunean, Anafi'ren garautegi zabal baten Korinto'ko kristaudia alkartuta, Paul'etzaz ezagutzen ebazan gora-beera guztiak, Erroma'rako itsasalditik asita il zan arte, mintzo unkituaz edestu eutsezan Dan'ek, eta jarraian, lenengo kristau areik ospatu oi eben antzera, Paul'en alde eskiñi eben mezea.

Iru illabetez geratu zan Korinto'ko kristauen artean, gogoia kristautasunez aberasten yakola. Asko ikasi eban Dan'ek onartu-barria eban siñiste aretan, eta aldiaren bidean, bere izate osoa Jaunaren agindu ta irakatsiaz bete zan, benetako maitasuna zer zan, noizbait ulertzen asten zala. Kristaudi a ikasle apal eta arruntakaz osotua zan geienbat, biotz betez onartzen ebela, munduko ezerezkeri ta bidebagekerien gaiñetik, askatasun eta itxaropena emotsezan siñismen barria. Egunsenti barri baten eguzkiak, argitasuna emotsan ordurarte jasandako illunpeari, eta gerturik ziran siñismen aren alde dana emoteko, bizitza be bearrekoa izatekotan.

Kristau areik munduan bizi bear izaten eben, baiña eurentzat benetako egoitza eriotzaz araindikoa zan, Agindutako legeak bete egiten ebezan, baiña euren bizierea legearen gaiñetik jagiten zan. Maitasuna bizitzaren ardatza eben, eta orren ordaiñez jartzuak ziran. Ez eutsoen iñori kalterik egiten, baiña eriotzera galduak izaten ziran, au benetako bizitzarako atea ebela. Ezeukiak ziran, baiña eurokan benetako aberastasuna kokatzen zan. Laidotuak ziran, baiña jazarkuntza guztien gaiñetik, benetako aintza aur-

kitzen eben. Izen ona lorrintzen yaken, baiña oroz gaiñetik, euren nortasuna dizdiraka bereizten zan. Etsaiek euren aurka guzurra eratsi arren be, berba gozo maitetsuakaz erantzuten eben. Alkarrekiko laguntza ta maitasuna aldarrikatzen ebezan kristau areik, eriotzera galdu izaten ziran. On-egitearen ordaiñez zigorra jaristen eben, oiñaze ta eriotzaren artean bizitza yaukal batera itxartuz. Jaunaren bitartez, euren gogoak mundua argitzen eban, gizadiak ordurarte ez ezaguturiko aintzaz.

Iru illabete areitan, eta Lotis'en eriotzak ekarri eutsan siñismena egunoro andia-gotzen yakola, Basamortuko Semea egunean baiña egunean Yosukristo'ganago urre-ratzen zan. Aterpe zabal baten asteoro kristauek Apolo'ren zuzendaritzapean ospatzen ebezan eleizkizunetan, tartekoa izaten zan. Ain zuzen be, euren ospakizunik nagusia eukaristia zan. “Agape” izeneko otordu baten bidez ospatzen zan, eta eretirako bako-txak ekarritako janaria, ingurukoekin banatu ondoren, eukaristia egin oi zan. “Agape” berbak “maitasun-janaria” adierazoten dau. Ospakizun au, pazko-aparian judutarrek erabilitako oiturakaz egiten eben, au da: Idazki Deunen baten irakurketea, Jaunaren gertakizun baten gomutea, zuzendariaren itzaldia, salmu-abestea, otoitzak, eta guenez, ogi-ardauen sagaratzearen osteko jaunartzea.

Giro onetan, Dan'en gogoia aberasten joian. Anafi'ren etxean, sendi aretako maitasunaz inguratuta, iñoizkorik zorionsuen oartzen zan. Lurgintza-lanetan laguntzen eutsen etxekoai, eta etxalde aretan jopurik ez zan ezker, neskame-morroiak jare baiziran, alkarrekiko giroa ezin alaiago izan. Apalostean, etxeko areto zabalean, ugazabandreen eta onen seme-alaben inguruan morroi-neskameak alkartuta, bere gora-beeren zati bat edesten eutsen, eta aren ezpanetatik dingilizka, entzuleek ez eben, berba bat bera be galtzen, eta irrika bizian urrengo eguneko edeskiari itxaroten cutsoen.

Basamortuko Semeak, baiña, baekian iraitxoria zala, eta iru illabeteok igarorik, Paul'ek irakatsitako beste kristaudiak ikertu bear ebazan ezker, bein baten Anafi bere erabagiaz jakitun ipiñi eban. Asko naigabetu zan Miros'en alarguna ta beronen seme-alabak. Urten aurretik, Korinto'ko kristaudiak agur beroa eskiñi eutsan. Goizean, aldi areitako ekanduari jarraituz, Dan'ek eskatuta, erreka baten Apolo'k ugutzatu eban, eta illuntzean oiko eukaristia ospatu eben. Onen ostean, Dan Paul'ekin bizi idandako azken ueak eta onen eriotzaz mintzatu yaken.

Urrengo egunean, goizean goizik Anafi'ren eta beronen sendiaren azken agurra artuta, Akaia'n zear Dan'ek Atenas'erako bidea artu eban, Apolo'k ango kristauai idatztitako eskutitza aldean eroiala. Eta olan, Paul'ek agindutakoa beteten jarraitu eban Dan'ek, kristau-taldeak ikertuz, eta Paul'en izenean adoretuz. Leku bakoitzean aspaldi bat emoten eban, lurralderik-lurralde aberri urreratzen zala, eta noizbait, agindutakoa buruturik, bein baten Palestina'ko mugara 70'gn urtean eldu zan... Iru urte igaro izan ziran Erroma itzi ebanetik eta epe luze orretan, gertakizun asko jazo izan ziran. Ara...

68'gn urtean, etsaiek bortxatuta Neron'ek bere burua il egin eban. Onen ostean, iraupen laburreko kaiser bik, Galba'k eta Oton'ek, Erroma'ko agintaritza artu eben, eta noizbait, 69'gn urtean, Vespasiano kaiser billakatu zan. Ejipto'n ziarduan gudalburu au iru urte lenago Palestina'ra deitu izan zan, judutarren matxinadea menperatzeko, eta

ekintza onetan ziarduala, Erroma'k dei eginda kaisergoa artu eban, bere seme Tito, Palestina'ko gudarostearen buru izendatu ostean.

Judutarren matxina 66'gn urtean asi zan. Iskilloz urri ormitutako eta baserritarakaz geienbat osoturiko Palestina'ko gudaroste arek, burruka ezbaridiñari emon eutsan arrotzaren buztarria astintzearen. Eskukada abertzale areik adore andipean, Palestina'n ziarduen Erroma'ko gudarostearen burukomiña billakatu ziran, eta ezinbestez, Ejipto'n ziarduan Vespasiano gudalburuak, aren laguntzaz joan bear izan eban, eta aldiaren bidean, zapaltzailleari jarkiten yakozan abertzaleen taldeak banan-banan menperatu izan ziran. Lau urte iraun eban guda ezbaridin arek, ondore izugarriak ekarri eutsazan judutar erriari. Zapalkuntza-guda au Vespasiano'ren semeak, Tito'k, amaitu eban, Kaisergoa artzeko aita Erroma'ra joan zanean. Jerusalem, 70'gn urtean artu eban Tito'k, eta Palestina'ko uriburua ta onen Jauretze bikaiña, ezereztuta billakatu ziran. Judutarrek eriotzaraiño burukatu eben erromatarrek inguraturiko, euren uriburuen alde ekiñez. Izugarria azaldu zan ango abertzaleen azkena. Jan-edateko barik izurritea etorri yaken; gorpuakaz ez zekien zer egin, eta onezaz gaiñera, urikideen arteko auzkak asi ziran. Egoera larri aretatik jareitzearen igesari emotsoenak, arresian beera jatsita, beste aldeko gudariek atxillo egiten ebezan, eta danak, zaar, gazte, emakume naiz umeak, erailda izaten ziran, eta gizonezko geienak gurutzean josita arresien aurrean, gurutzak egiteko egurra amaitu zan arte. Egunetan zear aditu zeitekezan gurutzatuen intzirriak eta aiene larriak.

Erroma'ko gudarostea, noizbait Jerusalem'az jabetu zanean, Jauretzea ezereztu eben. Judutarren uriburu ederra ta Jauretze yaukala utzikiñak biurtuta, nonai ikusten ziran ondapenak, Idazti Deunen iragarpen auxe gomutara ekarrela: "Ez da arririk arri-gaiñean geratuko". Bizirik zirauen judutarren etorkia negargarria biurtu zan, eta matxinateari jarraitu eutsan erromatarren zapalkuntzak, atzerriratzea beartu ebazan, erbestean billatzeko bizirik irauteko ondakiñak. Onen ondorioz, Palestina ia utsik billakatu zan, obitegiko bakea edonondik edatzen zala. Atzerritik sakabanaturiko arcin ondorengoak, bi milla urte geroago, ames egiten eben laterria Palestina'n irasiko dabe. Anartean, baiña, esaneziñeko sarraski izugarriak jasango ebezan, 1.940-45 urteen artekoa batez be, Hitler'en agintzakeri basatipean.

Ondapeneko giro aretan, iparretik etorrita Dan'ek aberriko muga zearkatu eban, eta Ipar-Galilea'tik Palestina'ra sartu zan. An, urrutian, Tabor mendia ikustean, oroi-miñeko zarrastada batek begietan malkoak jarri eutsazan. Eguraldi gardeneko eguna zan, eta udabarriko ortzi oztin-sakonak zabaldia argiz laztantzen eban. Aurreratu-ala, gudeak ekarritako ondapena agiriago biurtzen zan. Baserri uts asko egoan, eta uriak isillak lokaturik. Baekian Dan'ek matxinata bat sortu izan zala urte batzuk lenago, baiña orain aren aztarnak ikustean, biotza samiñez bete yakon. Egun osoan zear gelditu barik ibilli zan, eta illuntzean baserri uts batera sartuta, aterpe baten billa erdiz iraulitako etxe bateko txokoan kokatu zan, eta janari-zati bat iruntsita, an bertan lo egin eban. Biaramonean Beeko Galilea'ra sartuta, Nazaret'erantz jo eban. Jaunak arotz jardun izan eban etxea ezagutzeko tirriaz jabetuta, errira sartu zan, eta noizbait, etxetxu

baten aurrekaldean ikusi eban atso bateri, billatzen eban etxeaz itaundu eutsan. Emakumea zentzunbakoa zan, ala bildurraren-bildurrez ez-entzunarena egiten eban. Noizbait, andik igaroten zan adiñeko baserritar bateri itaundu eutsan, eta onek besoa luzatuz,

– Ango etxe baten lan egin ei'eban, baiña matxinatearen ondorioz, dalako arotzegia ta inguruko etxeak ostendu egin ziran.

Naigabe bizipean ibillaldiari jarraitu eutsan Dan'ek, eta Naim erriko etxe baten onartuta, lo egin eban. Biaramonean, Esdrelon lautadan zear, Samari'ra sartu zan. Samaritarrek judutar jatorri garbikotzat artzen ez ziran ezkerero, Israel'darren artean aipu txarra eben. Urrengo egunean, Garizim mendia aurrean ebalu, egarri zanez, patin bateko uretatik edanda gero, lekunea atsegiña izanik, gerizpetan atsedean izatea crabagi eban. Eta olan erdi-lo zala, didar batek bere lengora ekarri eban, auxe entzutean:

– Ene bada, Bera lakoxea da...!

Pegar bat ekarren adiñeko emakume bategandik etorren didarra, eta orduan Dan'ek,

– Nor lakoxea naz...? –itaundu eutsan–.

– Orain urte asko, ura eskatu eustan Yosu Nazaretarra lakoxe...

Biotz-ikara esan-eziñak astinduta, jagi zan Basamortuko Semea, eta mintzo dardartsuz,

– Zer diñostazu, emakume, ezagutu zenduan Kristo Mesias...?

– Bai, zure itxurakoa zan, baiña are gazteagoa, nik egundo ez ezagaturiko gizonik ederrena, izan be, eta Beragandik erion zerbait andiak lilluratu ninduan lenengotik. Aitu baten, Bera zintzazala begitandu yat, bere antzeko zeozer zeugan agiri dozu-ta. Eziña da, baiña, urte asko igaro baidira...

Pegarra lurean ipiñita, emakumea Dan'en ondoan jesarri zan, eta orduan barruko zarrastadea jabetu eziñik,

– Esan, esaidazu dana...! –didar baten eskatu eutsan Dan'ek–.

– Ara... –asi zan emakumea–. Bein baten, Jakob'ek Sikar erriari emondako patin onetara etorri nintzan, eta zeu jesarrita zagozan lekuan, arrotz bat ikusi neban. Niri ura eskatuta gero, ur biziak emongo leuskidazala esan eustan. Ur aretatik emon egidazan eskatu neutsan orduan, eta Berak, nire senarragana joan eta ekarri nengiala agindu eustan. Neuk senarrik ez nebala, eta Berak orduan baekiala bost senar ezagutu izan nebazala, eta orduko laguna ez zala nire senarra.

Unc batez isildu zan emakumea, bere oroitzak atontzeko, urrean, eta,

– Olan jardun genduan berbetan –jarraitu eban–, eta Kristo Mesias zala autortu eustan. Orduan, pegarra lurean jarrita, arin baten errira biurtu nintzan, neuk egindako guztia ekian igarle bat ikustera etorri zeitezen, Kristo ez ete-zan ba...? Jesus'egana etorrita, Bere ikasleekin errian kokatu zeiten eskatu eutsoen, eta antxe geratu ziran egun bitan, eta Jesus'eri entzundakoan, askok siñistu eben...

Emakumea isildu zan, egun areitako jazokunak gogoan erabillezala, ausaz, eta gero berekiko berba egingo bai'leuan,



zan, orduan jakin ba'neu...! Baiña bein baten, eraildako kristauen odoletan ezagutu neban, eta dei ezkutu bateri jarraituz, ona etorri naitzue Bera bizi ta il zan lekura, utzikin onein artean Bere aintza aldarrikatzeko...

Edu onetan ziarduala, andik igaroten zan erromatar gudari batek entzuten ebana legeaustetzat artu, eta,

– Aizu –esan eutsan–, diñozuna ez da zillegia, Erroma'k agindutakoaren aurka dala. Jatsi zaitez, eta etorri nirekin.

Esanekoa, Dan jatsi, eta gudariarekin ibilten asi zan ur samar egoan gudaletxeraiño. Eldutakoan, gudaria euntariagana joanda,

– Aizu, Jauna –esan eutsan–, gizon au oraintxe bertan baitu egin dot, Jauretzea egoan orubean, Yosukristo'ren alde erriari aldarrikatzen eutsalako.

– Ondo da –eta Dan'eri mintzatuz, euntariak–, egia al-da, Yosukristo'ren alde azaldu zareala agirian...?

– Bai, olantxe da.

– Ez al-dakizu, kristauak Erroma'ko etsaiak diran ezkerro, legez, aurrean erabilliak diranik...?

– Ludi onetako legeak bost ardura niri. Egia aldarrikatu dot, eta egiari ezin esirik ipiñi.

– Tamal dautsut, “Rudis” ezpataduna zarean aldetik, baiña zure orretan jarraitzen ba'dozu, Jerusalem'eko agintariagana eroango zaitut epaitu zagizan.

Une bateko isillaren ostean, euntariak barriro,

– Zer diñostazu, ez al-zara esandakotik atzera egiten...?

– Ezin dot, ezin dagiket egia ukatu.

Euntaria jagi zan, eta,

– Zatoz nirekin –esan eutsan–, Jerusalem'go gudarien nagusia danegana eroango zaitut, berak zutaz crabagi dagian.

Zurubi luze baten gora eroan eban, eta ate baten aurrean egoan zaindariari, euntariak,

– Nagusia ikusi nai dot.

Andik laster zaindaria biurtuta,

– Sartzeko, diño, nagusiak.

Euntaria ta Dan sartu ziran areto txukuneko mai zabal bateraiño. Bestaldean, maila andiko buruzagi batek idazten ziarduan. Andik laster idaztekoa lagata, burua jaso, eta... latz-ikara batek artuta, bere aurrean aspaldiko Polibio euntaria ezagutu eban Dan'ek. Arek be, baitua ezagutu eban bereala, eta irriño batek aurpègia alaitzen eutsala,

– Kaixo, aspaldiko lagun maitea, Basamortuko Seme ospetsua...! Ez dakizu zein atsekabetuta azken urteotan bizi izan naz, zeugandik ezer jakin barik...!

Eta Gero, Dan'en “Rudis” ezpatea ikustean,

– Egurrezko ezpata orrek edozein ez zareala adierazoten daust. Esan, zelan jaritsi zenduan...?

Dan'ek ez eutsan erantzun gura, eta orduan euntariagana biurtuz, Polibio'k,

– Aizu –itaundu eutsan–, zer dala-ta dakarstazu judutar au...?

– Gudari batek baitu egin dau, Jauretzeko ondakiñen artean lagun batzuk adoretzen ziarduanean.

– Zeri buruz, adoretu, baiña...?

– Dirudianez, kristauen alde itz egiten eban.

Orduan Polibio'k,

– Aizu, judutar zorritsu orrek –asarre antzean esan eutsan–, ez al-dakizu, Erroma'ren legeen arauz olakorik debekatua dala...? Zuck kristauok ez douez gure Jainkoak siñisten, eta ori Erroma'ren aurka joatea da. Eta au gitxi izanik, gure indarra ta anditazuna diran jopuak askatu gura douez, ezta...?

Dan'ek, baiña, isillik zirauala ikustean, mintzo zemaikorrez,

– Itaun bat egin dautsut, eta zure erantzunaren zain nozu. Esaidazu, Dan, denganiño orrek, kristau al-zara...?

– Bai, olantxe da.

– Egia al-da, Jauretzeko ondakiñetan, entzule-talde bat Kristo'ren alde eragin dozula...?

– Bai.

– Eta ez al-dakizu, olakoetan diarduana eriotz-gaia danik...?

– Bai.

– Orduan, zergaitik aalegindu zara, Kristo, guzurti orren alde...?

– Bera ez da guzurtia, Egi utsa baiño, munduari Argi ta Itxaropena ekarri dautzazana.

Ikoti batz Polibio aukititik jagi zan, eta berebiziko matraillekoa emon eutsan, auxe iñotsala:

– Uriburu onetako agintzak damostan eskubideaz, eriotzara galtzen zaitut. Biar gurutzean josita ilgo zara.

Dan'ek ez eutsan erantzunik emon, eta begikadea urrutian galduta, bazirudian bake gozoak artuta, beste nonbaiten egoala. Orduan, beretik urtenda, Polibio'k didar baten,

– Ez daustazu ondo entzun-ala...? Esan dautsut gurutzean ilgo zareala. Ez al-dakizu zelako eriotza da ori...?

– Bai, Bera lez iltea da... eta izan be, ez dot merezi duintasun ori.

Polibio'k baiña, ezin egikean siñistu entzuten ebana, eta bere buruari itaundu eutsan, zoro baten aurrean egongo ez ete... Gero, Dan'eri begira-begira,

– Nire ustez –esan eutsan betosko Illunaz–, zoro billakatu zara, baiña oraingo onetan, zoro ta guzti, ez zaiataz galduko, ez orixe...! Iru bidar eskuetatik iges egin daustazu; gomutaten zara, Basamortuko Semea zarean ori...? Lenengoa, Jeriko'ko gudaletxetik zure lagun bat jaregitearren, ezustean artu ninduzuncan. Bigarrena, emen bertan, jatetxean beste lagun batekin ostendu zintzakidazanean, nire gudaritako bi erail ondoren, eta irugarrena, Suria izeneko zure ezagun batek salatu zinduzuncan. Espetxe-



ra sartuta, Erroma'ko etsai bateri dagokion eriotza artzeko zorian, baiña, damu gatxez, zelan ez dakit, gure guda-ontziko agintari batek, Erroma'n jasan bearko zendukela epaiketea atxakitzat artuta, nire eskuetatik, ostera be, iges egin zenduan, abo bete agiñakaz ni itzita. Oraingo onetan, baiña, ez zaitu iñork nire menpetik onik atarako.

Une batez isildu zan Polibio, erra sakonaz Dan begiztatzen ebalatzen, eta gero,

– Gorroto dautsut judutar zikin ori –jarraitu eban–, lenengoz ezagutu zindudazanetik, izan be, eta egunak joan egunak etorri, zukanako nire etsaitasuna beti gora egiñez joan da.

Polibio'k, baiña, autortu gura ez eban zio bat Basamortuko Semeari gorroto izateko, bekaitza zan, Dan'egan ikusten eban zangartasun, indar, eta gizontasunagaitik. Judutar aren doaiak berak izan ba'leuz, noraiño ez zan elduko gudaritza-mailladitik...? Onezaz gaiñera, gorroto eutsan be, kristaua zalako... Urte batzuk ziran, Zesarea'n neskatilla eder batz maitemindu zala, baiña ondikotz...! arek senartzat aipu andiko kristaua naiago izan eban. Orduetik, kristauen etsai bortitza billakatu zan... Eta orra or, kristau bihurtutako Basamortuko Semea, patuak ekartsala...

Ames batetik iratzarrita bai'litzan, Polibio'k euntariari,

– Judutar au eriotzera galtzen dot –agindu eutsan–, kristauen alde, Jerusalem'go uritarrak asalatu gura izan dauzalako, orain urte batzuk Yosu nazaretarrak egin eban lez. Gerturik izan guztia, biar eguberdi-irian gurutzean untzateko.

Euntaria ta Dan atetik ostentzeko zorian euntariari dei egin eutsan Polibio'k, eta abo pean,

– Astindu egizue ondo bederatzu buztaneko katuaz, baiña il egin barik, biar eriotzlekura abiatu daitenean, gurutzaren zigorra bizirik artu dagiala nai dot-eta.

– Bai, Jauna, olantxe izango da.

Illuntzea zan, Dan ziega illun batera sartu ebenean. Leiatilla batetik argi motela irazten zan, eta txoko baten egoan lasto-pillo batera jaurtita, Basamortuko Semea bakarrik geratu zan. Baekian, urrats isil, uxaeziñakaz, eriotza urreratzen yakola, baiña bere baitan poz bakanaz artuta oartzen zan. Il zanean Lotis'eri emondako maitasuneko apa-laztanak, mirari baten antzera siñismenera iratzarri eban; gero, Paul sutsuaren eriotzak, eta arrezkeroko bidegitean kristaudiarekin izandako arremon anaikorrak, bere barruan, Kristo'ganako maitasuna egunean baiño egunean biziagoa bihurtu izan eban, eta ezin egikean aztu Paul'en aurpegia maitasun esan-eziñaz piztuta, ildakoen berpizkundeaz itz egin eutsanean. Eriotzaz gaiñetik Jaunagan itxartu... Esan, eriotza, non da gure zure gurenda...?

Gogoeta oneitan zala, atea kirrinka zaratsuz egegi zan, eta euntariarekin morroi bi sartu ziran. Soingaiñekoa kentzeko agindu eutsan, eta eskuak ormako txinga batera lotuta, zigorraldi izugarria jasaten asi zan. Berrogei zigorkada emon eutsan morroiek, amarna elduta aldizkatzen zirala. Odola borborka eriola, konortea galduta lurrera amildu zan, bizkarra odolune utsa bihurtuta.

Min izugarriean itxartu zanean, soingaiñekoaz jantzita egoan, eta alboan opil bat eta pitxar bete ur ikusi ebazan. Leiatillan zear ikusten ziran izarrek gaberdia iragarri

eutsan. Sorminduriko bizkarrak oiñaze jasangatxa emotsan, eta odol-isurtzeak makal-makal eginda, ozta-ozta besoa luzatu aal izan eban pitxarretik edateko. Opillari jaramonik ez, jangar zan-eta. Miñaren-miñez ez zan igitzen azartzen, eta saietsez etzanda irau eban bizkarreko miña arintzearen. Ai ene, orduak zein astiro alkarri erraikioen...!

Gero, sukarrak eraginda, amestxar baten murgildu zan, guztitariko irudi ezabatuak agertzen yakozala. Bapatean, ikuskizun sukartsuen artetik, argi bizipean, Dina, bere amaren aurpegi maitetsua urreratu yakon eta beragana makurtuta,

– Dan, nire maitia –arimea begietan kokatuta, esan eutsan–, min andi-andia egin dautsue, ezta...?

– Bai, ama, baiña oiñazeen artean zoriontsua naz.

– Oroitzen zara, seme, nire eriotzaldian eskatu neuntsuna...?

– Bai, ama, Mesias'en billa joan neintela eta olantxe egin neban, baiña berandu, aurkitu nebanean illik egoan... eta Bera ezagutu barik andik urrundunintzan, nire ameskeriak beste iñora nindaroala, atzitu-eziña zanaren billa...

– Baiña azken baten idoro zenduan, ezta...?

– Bai, ama, kristauen odolak, Paul'en berba biziak, eta aingeru bateri azken laztan emotean, nire bidegite itsua argitu eusten...

– Au nire poza, Dan...! Ene bizitzaldi bakartian, gitxitan izan zaitut nirekin, baiña ordu batzuen buruan, betirako alkartuko gara Jaungoikoaren zorionean. Ordu izugarri batzuk jasango dozuz, baiña bidegitearen ostean, Jaunaren alboan igurikan izango nozu.

– Bai, ama, neuk be nire bidegite alderraian, uts emon zaitut, eta zelan, gero...!

– Gogoratzen zara, seme...? Bein baten, gizakien etorkia izarretan eta basamortuko ondartzan idatzita dagoala esan zeustan... Egia da, baiña idatzune orreri azken itzak peitzen yakoz, eta oneik norberak idatzi bear ditu. Zure etorkiari peitzen yakozan itzok, duintasunez eta maitasunez idazten aalegindu zaitez, maitasunez batez be, Jaunaren besarkadea, estuagoa izan dakizun... Agur, seme, gero arte...

Itxartu zanean, izarrek ezabatu izan ziran, eta leiatillan zear, eguneko lenengo argiak barrura irazten ziran, berarentzat azken egunarena. Soiña min baten oartzen eban, eta oiñazezko intziriak iges egin yakozan. Besoa luzatu, eta pitxarreko azken ura irrika bizian edan eban. Orduak jarraigo amaibakoan alkarri erraikioen, eta noiz zentzuna galduta, noiz bere einera bihurtuta, goiz beranduan atea edegi zan, eta lengo morroiekien sartuta, jagi zeiten agindu eutsan euntariak.

Nekez jagi zan, eta alboka eginez, igarobide luze batetik espexeko atadira eldu zan. Lenengotan, eguzkiaren dizdir biziak lausotu eban. Ate-ondoan gurutz bat egoan, eta euntariak,

– Artu egizu gurutz ori –agindu eutsan–, eta goazen ilgo zarean lekura. An bertan, Yosu Nazaretarra, zure maisua, gurutzuntatua il ei'zan.

Golgota ganetxura abiatu ziran, lenengo aldatz bera, eta gero gorantza, Jaunak gurutzaren pean ibilli bear izan eban bidetik. Udabarriko egun aratza zan, eta zabaldi

osoak bizitzaren pizkundera aldarrikatzen eban. Arnas-estuka ta aldarka ibilliz, Dan az-tamakildun gudarien artean joian, atzetik euntariak erraikiela. Ibilli-ala, gurutza gero ta astunago egiten yakon, eta indarren mugara elduta, une batez gelditu bear izan eban, gudariek biraoen artean aurrera aizatzen ebela. Aldatzaren erdi-aldera, soster egin eban; eta buruz beera luze-luze jausi zan, miñaren-miñez aiene itoak jaurtiten ebazala. Gudaritariko bat ostikoka asi yakon zutundu zeiten, oiuz iñotsala:

– Jagi zaitez, judutar ezkabitsu ori...!

Andik igaroten ziran oinkari batzuk ikusgaia begizatzen eben, batzuk ardurabakoak, bestetzuk, ordea, errukitsuak. Alako baten, gizon bat ikusleen artetik urtenda, urrats ariñakaz Dan'egana oldartu zan, didar baten auxe iñotsala:

– Dan, nire Jauna...!

Eta galtzarpetik artuta, jagiten lagundu eutsan. Indarren azkenetan, Basamortuko Semeak ezin egikean siñistu ekusana... Nor eta Katamixarra berbera...! Izango ez ete, baiña, sukarrak eragindako irudikeria...?

– Jauna, Jauna –arrituta iñotsan Katamixarra'k–, dakusdan au egia da, ala nire ameskeriak sortuta...?

– Josue, maite ori, gurutzera galdu nabe...

– Zergaitik, baiña...?

– Kristaua nazalako,

Atsekabe biziak artuta, aspaldiko eskutariak, gurutza lepoan artuta auxe esan eutsan:

– Neuk eroango dautsut gurutza. Orain, ipiñi besoa nire lepoaren inguruan... olantxe...!

Eta olan, lepo-gaiñean jarritako gurutzari beso batatz eutsirik, bestea gerriaren inguruan jarri eutsan. Aspaldiko bere nagusi indartsua, txairoa, ederra, il-agiñean ikustean, errukiaz naastutako asarre gorria oartzan eban Palestina'ko zapaltzailleen aurka, eta ganetxura urreratzen zirala,

– Jauna –itaundu eutsan–, nork zigortu zaitu orren basaki, esan, nork...?

Konortea galtzeko zorian, baiña, Dan'ek isillik zirauan.

– Esan, Jauna –Katamixarra'k barriro–, nork egin dautsu au, esan, merezi dauana emon dagiodan...

– Laga egizu ori, Josue, dana barkatu dot...

Eta olan, Katamixarra zintzoaren laguntzaz, jarraigoa tontorrera eldu zan. Gudariek gurutza etzanda jarri eben, eta Katamixarra andik uxatuta, areitariko batek, naruari itsasitako soingaiñekoa teinkada bizitan erauzi eutsan, aragi-zatiak galtzen ebazala. Miñaren-miñez, Basamortuko Semea kordebagetu zan, eta bere eifera biurtu zanean, gurutzaren gaiñean etzanda, esku-oiñak egurrari josten eutsoezan, eta min izugarria jasan eziñik, berbok iges egin yakozan:

– Jauna, emoidazu izugarri au eroateko bear dodan indarra...!

Gurutza jasoteko zorian, Dan'ek euntariari deitu, eta auxe esan eutsan:

– Tontorretik beeratuago sartu dagizuela gurutza, azken mezedetzat eskatzen dautsut

– Eskakizun bakan ori, zergaitik...?

– Gurutza erpiñean sartuta il zan Bera, baiña ni ez naz duin leku berean ilteko.

– Nor zan Bera...?

– Jaungoikoaren Semea.

Itzok entzutean, euntariak soiñak jaso ebazan berekiko iñoala: “Au burutik eginda dago”. Baiña Dan'ek eskatuta lez egin eban, eta zerbait beerago gurutza sartzeko agindu eban.

Tarteka-marteka zentzua galdurik eta bere senetara biurtuz, ordubete bi iraun eban Dan'en nekaldiak. Noizbait, galdutako odolak eta sorminduriko kirioek oiñazemen baretu eutsoen, lo-gura gozoak artzen ebala. Alako baten, bere oarmenaren jabe itxartu zan, arratsbeerako eguzkia ortzi gardenean bere gorrimiñezko oatzerantz makurtzen joanean. Goraldi esan-eziñak artuta, bere izate guztia joranez sutu zan, ausitako gorputzagandik urruntze-miñez egan egin nai ebala... eta orduan suzmurka, biotzetik ezpanetara otoi auxe isuri yakon:

Mendi, zelai, eta basamortutik  
banenbilkizun billa, nire Jauna,  
argituta gure bidexka illuna  
aberria jarri zeiten zutunik.

Gurutz bateko bakartasunean  
zu zengozan, Yosu, nire begira,  
baiña nik biurtu nai ez argira  
urrundu nintzakizun illuntzean.

Bein baten, kristauen eriotzean  
oartu zindudazan biotzean,  
eta ordutik billatzen zaitut, Jauna.

Itxaron naizu Gurutz-araindian,  
erruki zakit nire larraldian,  
zatozkit, Yosu, erdu arin neugana...!

Eta gurutzez araindian, Jaunak itxarokion argi ta maitasunez Ongi-etorria emeteko.

Illuntze aretan, esku-mailladi bat ekarrela, Katamixarra lagun batekin biurtu, eta Dan'en gorpua jatsi eban. Eretirako ekarritako izara baten bilduta, esku-orgatxu baten gaiñean jarri, eta ganetxuan beera abiatu ziran. Alako baten, baiña, Katamixarra gurutzaren inguruan aztertzen asi, eta noizbait, billatutako "Rudis" ezpatea ikusirik, jaso eban. Luzaro barik il-jarraigoa Betania'ko bidetik urtenda, zabaldi betean nabarmentzen zan oriondo bateraiño joanda, obi sakona aitzurkatu eban. Dan'en gorpua obira jatsi aurretik, Katamixarra'k une batez estalgetu eban bere nagusia, maite-maite ebana azkenengoz ikusteko, eta gero, begiak itxita, malkoak mara-mara eriozala, Basamortuko Semea lurperatu izan zan. Bere nagusiaren gaiñean mokillak jausi-ala, Katamixarra'ren barruan, gero ta andiago egiten yakon mendeku-egarri basatia, sortzen asi yakon.

Amaitu ebenean, barruko eragintzari jarraituz, Katamixarra'k obi-buruan "Rudis" sartu eban. Gurutzaren irudia eban ezpatea an geratu zan, bere nagusia il ostean be, babestu gura bai'leuan...

Urira biurtu ziranean, Katamixarra'k lagunari:

- Aizu -esan eutsan-, biurtu zaitez etxera, nik arazo bat atondu bear dot-eta.
- Alkar ikusiko dogu gaur...?
- Ez dakit, baiña badaezpadan ez zaitez egon nire begira.

Banandu ziran biok, eta Katamixarra'k uriaren goikalderantz jo eban. Emen, erromatarrek ikertu oi ebezan ardanegi batzuk egozan, eta banan-banan ikertzen asi zan. Noizbait, irugarrenean, billaturikoa aurkitu eban: gurutzeraiño Dan'eri lagundu eutsoc-netariko gudari bat. Onen ondoan jarrita, eguraldiari buruz jardun eban une batez, eta artutako txurrutadea gudariari ordainduta gero,

- Bidebatez, lagun, eta autu-gaia aldatuz -itaundu eutsan-, judutar bat gurutzean josi dozelako zurrumurrua entzun dot. Egia al-da...?

- Bai, gurutzeraiño neronek lagundu dautsat.

- Entzun dot, baita be, ilteko ez ebala bear gurutzarik, onen aurretik artutako astinaldia naikoa zan-eta.

- Bai, emon-emon egin geuntsan beste lagunak eta biok.

- Zelan ba, ez al-da aski gurutzera galdu izatea...?

- Bai, baiña euntariak bederatzi buztanekoaz berotu gengiala agindu euskun, eta ondo be ondo berotu geuntsan bizkarra gero...! Txinga batera lotu, eta dzingi-dzanga...! asetu arte. Amaitu genduanean, alboka ebillen mozkortien antzera.

- Orren gorroto eutsan ba, zure euntariak...?
- Euntariak ez. Onek goragoko baten aginduz inarduan.
- Noren aginduz ba...?
- Jerusalem'go gudarien nagusia dan Polibio'ren aginduz.

Itzok entzutean, mendeku-egarrria jabetu eziñik, Katamixarrak bere kolkorako: “Barriri be, urde ori izan bear...!” eta sumin basatiak artuta, beste barik lekoreru urten zan.

Andik ez urrun, “Urrezko Oillarria” jatetxean, lagun batzuk inguratuta, une aretan Polibio apari bikain bateri ekiteko zorian zan, eta ain zuzen be, egun aretan artutako mezuak ospakizuna ondo azaltzen eban. Vespasiano kaiser'en semea zan Tito'k, Polibio Erroma'ra ekarri nai eban. Arek lege andia eutsan, orain Jerusalem'en nagusia zan Polibio'ri. Palestina'ren aurkako gudan ordezkatat izan eban, eta ondo alkartzen ziran ezkeru, orain Erroma'n bere alboan gura eban, jardun on bat eskintzeko gerturik. Au zala-ta, bere buruzagiek agurtzat eskintzen eutsoen gau aretako apari bikaiña.

Jatokiaren maipuruan jesarrita, une aretan Polibio'k menpeko buruzagi askoen zorianak, garaipen-irribarre bat az artzen ebazan.

– Edozelan be –koipetsu areitariko batek inñotsan–, ondo irabazitako saria eskiñiko dautsu Tito andiak, Palestina'ko matxinadea zapaltzeko inñor ez zeu lez.

– Zeuk egiñikoak –beste batek losintxari–, gitxienez uri on baten “Pretor”goa merezi dau.

– Aizu –adar-jotzaille tartetu zan beste bat–, zer billakatuko dira or-emenka sakanatuta ei'dozuz ainbeste lizun-eme...?

– Artaburuak urkultzera doazela...!

Polibio'ren ateraldi zakar onek entzuleen aldarte ona iratzarri eban, eta barre-san-to zaratatsuakaz nagusiaren zentzumen urtena ospatu eben.

Aldarterik onenean jarraitu eban jaiak, eta aparia asteko zorian, Polibio'ren aginduz maitzain batek Marsala'ko ardao bikaiñaz, apailiar guztien edontziak bete ebazan. Orduan jagirik, Polibio'k mintzo adoretsez:

– Lagunok –edontzia goratuz esan eutsen–, edan dagigun Palestina'n Erroma'k lortu dauan garaipenaren alde, baita judutarrek jasandako ondapen lotsagarria ospatzeko be. Osasuna...!

Dangada batez ustu ebezan edontziak, didar bizitan alkarri zoriona opa izaten eutsoela. Bapatean, jatokiko atea zabaldu zan, eta alde bietako ormatan jarritako zuzien argipean, aretoko erditik irudi malgu ta ariña aurreratu, eta maipurutik bost netrorra gelditu zan. Ezustez artutako apailiarren oi u ta autuak itzungi ziran, eta eriotz-isilgune betean,

– Urde madarikatu orrek –Polibio'ri zuzenduz oi u egin eban Katamixarra'k–, zeuk gurutzera galdu dozu Basamortuko Semea, nire nagusi maite-maitea...! Eta orren aurretik zigortu zenduan, nekaldi izugarriean piltzar bat biurtu arte. Bidean zear gurutz-pean bizitza zatika galtzen joiala, berak barkatu zinduzan, baiña nik, Israel'en izenean, eriotz-zigorraz epaitzen zaitut...

Au esanik, bere eskuan sastakai bat agertu zan, eta eriotz-mezularia bai litzan, txi-mistaren arintasunaz jaurtita, Polibio'ren biotzean untzatu zan. Jazoten yakona siñistu eziñik, erromatarraren aurpegia gorpu baten antzera zurbilduta, maiko zamauari ikoldutako eskuakaz oratu, sorura jausi, eta eriotz-korrokak artuta, il zan.

Ikoti bizitan, Katamixarra'k atea zearkatu eban, eta erromatarrak euren eiñera etorri aurretik, illundiak inguratuta kalean beera galdu zan.

Andik laster, Betania'ko bidean zear egorantz joian, eta gero, gabeko kolkoan, Dan'ek irakatsi izan eutsan izarrari jarraituz, israeldarren azken igeslekua zan Masada'ra abiatuko litzake, bere anai zelatariekin aberriaren aldeko guda aretan, azken ekitaldia odolaz idazteko. Urrutian, inñoizkorik bizien, basamortuko aize gardenean zear, Israel'en etorkia iragarriko bai leuen, izarrari naigabezko asperenak bide eriezan...

## a m a i a